Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (euskararen kasua)

Egilea: **IGONE ZABALA UNZALU**

Urtea: 1993

Zuzendaria: PELLO SALABURU ETXEBERRIA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-200-1

Hitzaurrea

Tesi hau predikazio-harreman sintaktikoari buruzko azterketa da. Predikazioa oinarrizko sintaxi-harremanetako bat da, agian oinarrizkoena. Izan ere, sintaxiaren oinarrizko unitatea den perpausa, subjektu-predikatu harremanean datza. Sintaxiaren konposizio-arauek azaldu behar digute zein arauk gidatzen duten sintagma mailako kategoria nagusien eraketa buru lexikoetatik abiatuta eta, hortik aurrera, zein arauk gidatzen dituzten sintaxi mailako kategoria nagusien arteko loturak. Sintaxi-kategoria nagusiak erreferentziadun adierazpideak edo predikatuak dira. Predikatuen bereizgarria da ase behar diren zenbait aldagai dituzten funtzio modukoak direla, eta aldagai horiek, erreferentziadun adierazpideen bitartez bete behar dira hain zuzen ere. Erreferentziadun adierazpide horiek predikatu baten aldagaiak asetzen dituztenean, predikatu horren argumentu bihurtzen dira. Subjektua argumentu guztien artean bereziena da, egitura sintaktikoan kokagunerik gorenena betetzen baitu, eta predikazio-harremanean parte hartzen duen bakarra baita.

Predikazioaren edozein teoriak azaldu behar du zertan diren berdintsuak eta zertan bereizten diren gramatika-kategoria desberdinetan oinarritutako predikazio-harremanak. Alegia, teoria bat eskaini behar du hala adizki-predikatuetan eta bai izenki-predikatuetan oinarritutako predikazio-harremanak azaltzeko, eta hala predikatu osagarrien, nola predikatu adjunktuen jokaera azaltzeko ere. Predikazioaren halako teoria sintaktiko orokor bat eskaintzen du tesi honek. Euskarazko predikazio-harreman mota desberdinen deskripzioa egiten du, eta tesiak proposatzen duen Predikazioaren Teoria Orokorrak euskarazko datu horiek azaltzeko baliagarria dela frogatzen du.

Edozein gramatika-azterketak beti eskatzen du beste hizkuntza batzuetarako garatu diren azterbideak ikertu nahi den hizkuntzaren ezaugarrien argitan berrikustea, eta horixe egiten du tesi honek predikazio-harremanari dagokionez, eta euskararako. Izan ere, ezinbestekoa da euskararen sintaxia aztertzea nazio artean dabiltzan azterbide teorikoen argitan, hori horrela egiten ez denean, arriskua baitago euskararako nazioartean homologagarriak ez diren azterketak egiteko, edota euskarari buruz egiten diren gramatika-azterketak gaztelaniarako edota frantseserako egiten diren azterketen menpekoak izateko. Tesi honek euskararako egokitzen eta gauzatzen duen predikazioaren teoria baliagarria izan da euskal gramatika-deskripzioetan eta deskripzio horiek estilo-liburuetan edota lan lexikografikoetan islatzeko orduan gramatika-kategorien eta funtzioen inguruan sortzen diren zenbait zalantza argitzeko. Lortutako emaitzak baliagarriak izan dira, adibidez, adjektiboen eta adberbioen arteko muga argitzen saiatzeko, EGLU gramatikan proposatzen den ‘adjektibo’, ‘izenlagun’, ‘izenondo’ kategorien sailkapenak sortzen dituen arazoak aztertzeko, eta nominaltzat hartzen diren zenbait egitura (aditz-izenak, partizipioak, aditzetiko izenak) eta nominalizazio prozesu bera aztertzeko ere.

eman ta zabal zazu

Universidad del Pais Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

PREDIKAZIOAREN TEORIAK GRAMATIKA SORTZAILEAN (EUSKARAREN KASUA)

Igone ZABALA UNZALUk

Euskal Filologiako doktoretza gradua
lortzeko aurkezturiko txostena

1993

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Euskal Filologia Saila

PREDIKAZIOAREN TEORIAK GRAMATIKA SORTZAILEAN (EUSKARAREN KASUA)

Igone ZABALA UNZALUk
Pello SALABURU ETXEBERRIA
doktorearen zuzendaritzapean egindako
doktoretza-tesia

Gasteiz, 1993

Azkenean, eskerrak emateko tenorea heldu da eta ez nuke inor ahaztu nahi, atzera begiratzeko une honetan laguntza horiek uste baino ugariagoak izan direla ikusi baitut.

Hasteko, Pello Salaburu eskertu behar dut, tesi hau zuzentzea onartu zuenean niregan jarri zuen konfidantzagatik eta lanaren burutze-prozesuari behar zuen denbora eta ahalegin guztia, askotan beste nonbaitetik kenduz, emateagatik.

Aipu berezia behar du, zalantzarik gabe, Juan Carlos Odriozolak, bera izan baitzen neurri handian lizentziaturaren laugarren kurtsoan Euskara Zientifikoa I irakasgaia egin nuenean nire ikusmirak Biologiaren esparrutik Hizkuntzalaritzaren arlora aldatzeko eragile nagusienetariko bat. Aurrerago ere, jadanik nire iharduera profesionala beste nonbait zegoenean eta Zientzi Fakultatean Euskara Zientifikoa I irakasgaia irakasteko plaza bat lehiaketa publikora atera zenean, bera izan zen berriro ere, nire bizitzean zeharo erabakikorra izan behar zuen aldaketa egiteko azken bultzada eman zidana. Bestetik, hizkuntzari buruz ditudan ezagumenduen zati handi bat berarengandik jaso dut eta azkenik, doktoretza-tesi honen burutzapen-prozesuan nire ondoan egon da beti, behar nuen laguntza eta adorea ematen.

Zientzi Fakultatean Euskara Zientifikoa irakasten duten gainerako irakasleak ere, alegia, Julio García, Martxel Ensunza eta Kepa Altonaga, ezin utz ditzaket aipatu gabe, beraiengandik hizkuntzaz dudan formazio orokorraren zati garrantzitsu bat jaso baitut.

Pilartxo Etxeberriak eta Miren Azkaratek ere, aipu berezia behar dute, Euskal Filologia sailean nagoenetik aurrera joateko behar nituen laguntza eta aholkuak behin ere zalantzarik azaldu gabe eskaini baitidate, bai lankide modura eta bai lagun modura ere. Lan honen burutzapenean ere, parte zuzena hartu dute, Doktoretza kurtsoen tutore modura, Pilartxok, eta lan berari buruzko iruzkin ezinhobeak emanez, Mirenek.

Mila esker baita Patxi Goenaga, Itziar Laka eta Jon Ortiz de Urbina-ri ere, lan honi buruz egin dizkidaten eduki eta adibideei buruzko iruzkinak oso lagungarri, eta zenbait kasutan ezinbesteko gertatu baitzaizkit.

Ezin utz dezaket aipatu gabe Luis Eguren askotan nire eskuetara helarazi duen azken uneko bibliografia eta batez ere transmititu didan adore eta konfiantza oso preziatuak izan baitira niretzat.

Doktoretza-kurtsoetan irakasle izan nituen guztiak ere aipatu nahi nituzke beraiei zor baitiet hizkuntzalari modura dudan formazioaren zati handi bat: Koldo Zuazo, Itziar Idiazabal, Lourdes Oinederra eta Andolin Eguzkitza, eta Miren Azkarate, Pilartxo Etxeberria, Patxi Goenaga eta Pello Salaburu.

Bukatzeko Euskal Filologia Saileko gainerako kideei, beraiekin izan ditudan harremanak, batzuetan atseginak eta beste batzuetan eztabaida-girokoak, beti gertatu baitzaizkit lagungarri, batzuetan nireganako konfidantza berreskuratzeko eta beste batzuetan, nire burua gainditzeko.

Aparteko saila merezi dute Nerea Zabalak eta Fernando Plazaolak nire iharduera profesionalean aurkitu ditudan hainbat arazoren inguruan beraien ikuspegia eta laguntza eskaini baitidate. Eta, zer esanik ez, Ciprik, Garazik eta nire senide guztiek, lan honen bukaera-aldean pentsaezina zirudiena eskaini baitidate: lasaitasuna.

AURKIBIDEA

I. ATALA: SARRERA OROKORRA

1.1. Sarrera 11

1.2. GBaren oinarriak 17
1.2.1. X'-Teoria 18
1.2.2. θ-Teoria 22
1.2.3. Kasuaren Teoria 28
1.2.4. Mugaduraren Teoria 31
1.2.5. Uztarduraren Teoria 32
1.2.6. Kontrolaren Teoria 34

1.3. Perpausaren konfigurazioa 37
1.3.1. Hiztegiaren islapena 38
1.3.2. Predikazioa 41
1.3.3. Perpausaren adierazpenaren eboluzioa 51
1.3.4. Islapen lexikoak, islapen funtzionalak eta islapen hedatuak 61
1.3.5. Kasu-ezarketa 66

1.4. Euskararen azterketa orokorra 71
1.4.1. Buruaren Parametroa 71
1.4.2. Pro-drop parametroa 74
1.4.3. Konfigurazionalitatea 77
1.4.4. Ergatibitatea eta kasu-ezarketa 83

1.5. Partitibo kasu abstraktua eta euskararen *-(r)ik* morfologiazko marka 101

1.6. Izenki-predikazioa, kasu-ezarketa eta hesiak 113

1.7. Laburbilpena 129

II.ATALA: EUSKAL PREDIKAZIOAREN DESKRIBAPENA

2.1. Sarrera 137

2.2. Lehenengo mailako izenki-predikazioa 145
2.2.1. Komunztaduraren arazoa 147
2.2.2. *Izan* eta *egon* loturazko aditzak 157
2.2.2.0. Sarrera 157
2.2.2.1. *Izan* eta *egon* aditzen adierak 165
2.2.2.1.1. Adiera existentziala 166
2.2.2.1.2. Kokapena 166
2.2.2.1.3. Identifikazioa 169
2.2.2.1.4. Ezaugarrien esleipena 174
2.2.2.2. Behin-behinekotasunaren sintaxi-islapena: aspektuan oinarrituriko azterketa 188
2.2.2.3. *Izan* aditzaren banaketa: loturazko aditza ala laguntzailea 198
2.2.2.3.1. Predikatu psikologikoak eraiki ditzaketen *beldur* motako izenak 200
2.2.2.3.2. 'Hartzailetzat' har daitekeen argumentu bat duten *luze* eta *kaltegarri* bezalako izenondoak 207
2.2.2.3.3. Partizipioak 209

2.2.2.3.4. Iharduerak adierazten dituzten predikatuak 211
2.2.3. *Ibili* aditza 215
2.2.4. Aldaketa eta iraupenezko aditzak 219
2.2.4.1. *Jarri, geratu, gelditu* eta *utzi* aditzak 220
2.2.4.2. *Bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzak 225
2.2.4.3. *Gertatu* eta *suertatu*, eta *azaldu* eta *agertu* aditzak 228
2.2.4.4. *Iraun* iraupenezko aditza 231
2.2.5. *Irudi(tu)* , *iritzi* eta *eman* aditzak 236
2.2.6. Prolatibo markadun predikatu-osagarriarekin azpikategoriza_ turiko aditzak:*hartu, jo, eduki* eta *eman* 249

2.3. Bigarren mailako predikazioa 253
2.3.0. Sarrera 254
2.3.1. Bigarren mailako predikatuen 'emankortasuna' 257
2.3.1.1. Subjektuari zuzenduriko predikatuen emankortasuna 257
2.3.1.2. Objektuari zuzenduriko predikatuen emankortasuna 263
2.3.1.3. Datibo markadun argumentuei zuzenduriko bigarren mailako predikatuak 265
2.3.2. Bigarren mailako predikatuen arteko konbinaketak eta ordenaketak 270

2.4. 'Adjektiboen' eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza eta predikazioa 275

2.5. Laburbilpena 287

III. ATALA: PREDIKAZIOAREN TEORIAK ETA EUSKARA

3.0. Sarrera 295

3.1. Predikazioaren teoria nagusien aurkezpena 299

3.2. Predikazioaren bi teoriak elkartzeko saio bat 311

3.3.Predikatu-eraikuntza desberdinen osagai-izaeraren aldeko eta aurkako frogak 319
3.3.1 Azpikategorizaturiko predikatuen subjektuaren objektu -izaera 319
3.3.2. Perpaus txikien osagai-izaera 329
3.3.3. Uztarduraren frogak 336
3.3.4. WH-hitzen ateratzea 338
3.3.5. Italieraren klitiko bihurkariak eta euskararekiko konparaketa 340
3.3.6. Klitizazioa eta perpaus txikien berrantolaketa 344
3.3.6.0. Italieraren datuak 344
3.3.6.1. Euskaraz zenbait argumenturen klitizazioa onartzen duten izenondoak 345
3.3.6.2.Laguntzailearen hautaketa eta predikatuen motak 351
3.3.6.3. *Jo, irudi(tu)* eta *iritzi* aditzek azpikategorizaturiko predikatuak eta klitizazioa 358
3.3.6.4. Argumentu-egituratik predikatu guztien islapenerako espero daitekeen orotarapena 364
3.3.6.5. Partizipioak eta laguntzailearen hautaketa 371
3.3.7. Kuantifikatzaileen besarkadura 383
3.3.8. Laburbilpena 389

3.4. Bigarren mailako predikazioa 393
3.4.1. Datu garrantzitsuenen laburbilpena 393
3.4.2. Bigarren mailako predikatuak VPan daude 397
3.4.3. Bigarren mailako predikatuen VParen barneko kokapenaren ondorioak 407
3.4.3.1. Predikazioak bete behar duen egiturazko baldintza 407
3.4.3.2. Mota bereko predikatuen aldiberekotasunaren ezintasuna 417
3.4.3.3. Bigarren mailako predikatuen barne-egitura 425
3.4.4. Laburbilpena 431
3.5. ERANSKINAK 435
3.5.1. Kanpo- eta barne-argumentuak 435
3.5.2. Partizipioa+-*a(k)* / partizipioa+-*rik* / -*ta* eta kanpo-argumentua 441
3.5.3. Berezko eta egiturazko kasu-ezarketa 447

IV ATALA: PREDIKAZIO-HARREMANEN SINTAXIZKO ISLAPENA
4.1. Sarrera 459
4.2. Islapen funtzionalen beharra predikazio-harremanetan 461
4.3. *Izan* aditzarekin azaltzen diren eraikuntzak 468
4.3.1. Eraikuntza predikatiboak eta eraikuntza ekuatiboak 469
4.3.2. Eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen arteko bereizketa 475
4.3.3. Eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen adierazpena 483
4.3.4. Komunztaduradun partizipioa eta izenondoa 493
4.4. Egoera-mailako predikatuak eta izaki-mailako predikatuak. Sintaxizko adierazpena 495
4.4.0. Sarrera 495
4.4.1. Aditzen motak eta predikatuen motak 501
4.4.2. AspP islapen hedatua eta euskara 503
4.4.3. Partizipioak 508
4.4.4. Perfektibitatea, 'e' argumentua eta AspP islapena 519
4.4.5. Buru modura izenondo bat duten izenki-predikatuen aspektu-ezaugarriak eta adierazpena 525
4.4.6. Buru modura izen bat duten izenki-predikatuen aspektu-ezaugarriak eta adierazpena 535
4.4.6.1. Ekintzen egileak adierazten dituzten izenek eratzen dituzten predikatuak537
4.4.6.2. Lanbideak edo karguak adierazten dituzten izenek eratzen dituzten predikatuak 539
4.4.6.3. Predikatu psikologikoak eratzen dituzten izenek islatzen dituzten predikatuak 544
4.5. Posposizio-sintagmak eta izenki-predikazioa. Sintaxizko adierazpena 549
4.5.0. Sarrera 549
4.5.1.Osagarri modura argumentuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak 551
4.5.2. Osagarri modura argumentuak edo predikatuak har ditzaketen posposizioak 558

4.5.3. Osagarri modura predikatuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak 562
4.6. Predikazioaren Teoria Bateratzailea eta islapen hedatuaren definizioa 567
4.7.Laburbilpena 571
AZKEN ONDORIOAK 567

HITZAURREA

Doktoretza-tesi honen helburua euskal izenki-predikazioaren azterketa izan da. Ezer baino lehenago ordea, geure analisietarako esparru teoriko bat erabaki behar izan dugu, edozein hizkuntzalaritza-lanetan gertatzen den bezala. Hortaz, Chomsky-ren (1981) lanetik GB, edo nahi bada, 'Gobernu eta Uztardura' izenaz ezagun den Gramatika Sortzailearen esparru teorikoa hautatu dugu, lan egiteko euskarririk sendoena eskaini behar zigulakoan. Edonola, teoria bat edo teoria-multzo bat ez da inoiz nahikoa izaten inolako ikerketa-lana burutzeko, eta benetan oinarrizkoa dena aztertuko den materiala da. Geure kasuan, ikerketa-material hori, aztergai dugun hizkuntzaren atalaren deskribapena eskaintzen dituzten esaldietan oinarrituta dago.

Horrenbestez, lan honen lehenengo atalean, GB deritzon esparru teorikoaren oinarriak deskribatu eta arlo horretan euskarari buruz egin diren lan zehatzak iradoki ditugu. Atal horretan, jakina, oinarri orokorrak ezezik, predikazio-harremanen berri emateko GB arloan proposatu diren teorien deskribapen bat ere aurkeztu dugu.

Bigarren atalean, lana burutu ahal izateko beharrezkoa genuen bigarren tresna itxuratzen saiatu gara. Izan ere, euskal izenki-predikazioari buruzko datuak barreiatuta azaltzen dira ohizko gramatiketan, baina ez dago arloaren deskribapen sistematikorik. Horrenbestez, izenki-predikazioaren gertaeratzat har daitezkeen sintaxi-eraikuntzak finkatu behar izan ditugu, beren artean lehenengo mailako predikazioari eta bigarren mailako predikazioari dagozkionak bereiziz. Horretaz gain, predikatu-eraikuntza bakoitzak azaltzen dituen sintaxi-jokaera, murriztapen eta berezitasunak deskribatu behar izan ditugu.

Hirugarren eta laugarren ataletan, geure teoria gauzatu dugu. Hirugarrenean, GB arloan predikazio-harremana azaltzeko proposatu izan diren teoriak aztertu ditugu. Teoria horiek zeharo aurkakotzat jotzen diren bi multzotan banatu ohi dira: alde batetik Stowell-en (1981, 1983) 'Perpaus Txikien Teoriaz' eta bestetik, Williams-en (1980, 1983) 'Predikazioaren Teoriaz' mintzatzen dira hizkuntzalariak. Geuk, hirugarrren atal honetan bi teoria-multzo horiek elkartezinak ez direla erakutsi eta 'Predikazioaren Teoria Bateratu' bat proposatu dugu. Teoria hori, D-egituraren adierazpenari dagokionez Stowell-en proposamenetatik hurbilago dagoen bitartean, S-egituraren adierazpenean, hurbilago dago Williams-en proposamanetatik. Geure teorian, garrantzi berezia du lehenengo atalaren 1.3. azpisailean aurkeztu dugun Grinshaw-en (1991) 'islapen hedatuen' definizioak.

Hona hemen geure 'Predikazioaren Teoria Bateratuaren' gakoak: hasteko, X° predikatu-buruek beren XP islapen nagusien barnean islatzen dituzte haien argumentu guztiak D-egituran. Argumentu horietaz gain, predikatuek gutxienez kategoria funtzional bat islatu behar dute, kategoria horrek Grimshaw-ek definituriko islapen hedatuen ezaugarriak betetzen dituelarik. Azkenik, subjektu/predikatu harremana, predikatuaren islapen hedatu horretan (S-egituran) ezartzen da hain zuzen

ere, subjektua, kasuaren beharrak direla eta, XP predikatu-islapen nagusitik atera eta islapen funtzionalaren espezifikatzailean kokatzen denean, islapen funtzional horren burura mugitzen den predikatu-buruarekin espezifikatzaile/buru harrema ezartzen baita.

Laugarren atalean, 'Predikazioaren Teoria Bateratuak' euskal predikazioaren sail bakoitzaren sintaxi-jokaeraren berri emateko zenbateraino balio ote duen erakusten saiatu gara, predikatu-mota bakoitzerako predikatuaren islapen hedatu horren izaera eta jokaera zehatza proposatu dugularik. Azkenik, geure teoriaren bidez bigarren atalean iradoki diren datuak azaltzea lortu dugula esan daiteke geure iritziz.

Bukatzeko, predikazioaren teoria orokorrerako eta euskal izenki-predikazioaren ezagutzarako balio dezaketen ondorioak ezezik euskararen gramatika orokorraren arazo batzuk (hala nola kasu-ezarketaren sistema) azaltzeko balio dezaketen datuak ere eskuratu ditugu lan honetan. Datu horiek, batez ere hirugarren atalaren eranskinetan eta bukaerako ondorio orokorretan jarri ditugu agerian.

I. ATALA

SARRERA OROKORRA

1.1. Sarrera

Tesi hau Chomsky-ren (1981) lanetik aurrera GB izenaz (euskaraz 'Gobernu eta Uztardura') ezagun den arlo teorikoan kokatu behar da. Arlo teoriko horretan, hizkuntza baten ezagupena I-hizkuntza deritzon gogoaren ahalmen zehatz bat edukitzean datzala onartzen da: ahalmen hori, jaiotzetik dugun hasierako hizkuntz egoeraren garapenaren bidez lortzen dugu gizakiok. Hasierako egoera hori jaiotzetikoa izatea liteke hain zuzen haurtzaroan hain datu gutxi eta desitxuratuak izanik hain konplexua den hizkuntza ikasteko dugun erraztasunaren kausa.

Dagokigun arlo teoriko honetan aritzen diren hizkuntzalarien helburua, I-hizkuntza horren arauak eta ezaugarriak ezagutzea da. Jaiotzetiko hizkuntz egoerari, 'Gramatika Unibertsala' (UG)[1] deritzo. UGak, alde batetik haurrek hizkuntza ikasteko duten erraztasuna azaltzeko bezain aberatsa izan behar du, baina bestetik, hizkuntzen aniztasuna barnean onartu ahal izateko bezain zehaztugabea ere.

Lan honen helburua, beste hizkuntza batzuetan, hala nola, ingelesaz eta gaztelaniaz, aztertu eta eztabaidatu den arazo bat da. Eztabaida galdera honetan labur daiteke: zertan oinarritzen da predikazio-harremana? Jokaturiko adizki bat dugunean, ez dugu zalantzatan jartzen subjektu/predikatu harreman baten aurrean gaudela; baina, predikatua jokatu gabeko aditza (partizipioa, aditz-izena,...) denean, eta areago oraindik izenondoa edo izena bezalako izenki-predikatua denean, ilunago gertatzen

---

[1] Hasierako sarrera honetatik bertatik, finkatu nahi dugu laburduren arazoa: laburdurak egitean beti erabili ditugu ingelesazko literaturan erabili ohi direnak, bestela nahaste handiak sortzen baitira. Hementxe dugu hain zuzen lehenengo arazoa, 'Gobernu eta Uztardura' eta 'Gramatika Unibertsal' terminoei laburdura bera egokitu behar baikenieke. Ingelesaz berriz, GB eta UG laburdurak ditugu hurrenez hurren.

zaigu harreman horren izaera. Hala ere, ez dira falta predikazio-harreman horiek guztiek dituzten antzeko eta aurkako ezaugarrien finkapenaz aritu diren egileak.

Lan honetan, euskaraz dauden predikazio-moten deskribapenetik abiaturik, predikazioaren inguruko teoriek izan dezaketen azalpen-ahalmena aztertuko dugu. Azkenik, euskararen jokaeratik UGaren itxurapenerako baliogarri izan litezkeen ondorioak aterako ditugu. Hala ere, eremua murrizteko asmoaz, ohituraz 'izenki-predikazio' izenaz ezagun diren gertakarietara murriztuko gara neurri handian, une batzuetan, orokorpenak egitearren, 'adizki-predikazioaz' ere arduratuko bagara ere.

Predikazioaren teorien helburu nagusia predikazio-harremanarekin zerikusirik duten gertakari guztiak azalduko lituzkeen orokorpen bat lortzea da. Izan ere, sintaxiaren 'lehengaiak' diren perpausen oinarrian, subjektu/predikatu harremana dago. Aintzinakoa da predikatu orok sintaxian subjektu bat behar duelako baieztapena: ingelesa eta frantsesa bezalako hizkuntzetan, subjektuari semantikazko eduki zehatzik ezin ezar dakiokeenean, espletiboak azaltzen dira, hala nola ingelesararen *it* edo *there* direlakoak edo frantsesaren *il* espletiboa.

(1) a. Il pleut
b. It rains
b. There is an interesting book

Subjektuaren hutsune hori, batzuetan semantikazko edukirik gabeko elementu batez estalirik azal daitekeela ikusita, harreman horren izaerak semantikazkoa baino neurri handiagoan egiturazkoa izan behar duela defendatu dute hizkuntzalariek (ikus adibidez Rothstein, 1983). Predikatuak itxi behar diren hutsune bakarreko funtzioak dira, itxiera hori 'predikatua' 'subjektu' bati lotuz lortzen delarik.[2]

---

[2] 'Predikatu-loturaren Araua' ('Predicate-linking Rule') (Rothstein, 1983)

Horrela ba, ez dira nahastu behar batetik eskatzen dituzten argumentuen kopurua eta paper tematikoak zehazturik dituzten X° mailako hiztegi-sarrerak,[3] eta bestetik sintaxi-mailan subjektu/predikatu harremanetan parte hartzen duten XP mailako predikatuak. Lan honetan subjektu baten beharra duten XP islapen nagusietarako baizik ez dugu erabili 'predikatu' hitza.

Predikazioa, beraz, islapen nagusien bi mota desberdinen artean (subjektu eta predikatua) gertatzen den harremana da. Baina harreman hori zertan datzan finkatu behar da: egile batzuen arabera, elkarketa horri nolabaiteko 'osagaia' egokitu behar zaion bitartean, beste batzuen arabera, ez dago horrelako osagaien beharrik eta c-komandoaren egiturazko harremana nahikoa liteke predikazioaren berri emateko.

Lehenengo ideiaren aldeko analisi paradigmatikoa Stowell-ek (1981, 1983) eskaini du (2a): Stowell-en analisian edozein argumentu predikatu baten subjektu semantikotzat hartzen denean, sintaxi-mailan, subjektu eta predikatu horiek osagai batean bildurik egon behar dute. Osagai hori 'Small Clause' (SC) izenaz[4]ezagutzen da gaiari buruzko lanetan, eta Stowell eta bere jarraitzaileen teoria, 'Perpaus Txikien Teoria' izenaz.[5]

Bigarren analisiaren hasierako defentsa, Williams-ek (1980, 1983) egin du: egile horren eta bere jarraitzaileen arabera,[6] subjektuak eta predikatuak

---

[3] Askotan hiztegi-sarrera horiek aipatzeko ere, predikatu hitza erabiltzen da. Lan honetan, X° predikatu-buruak izan daitezkeen hiztegi-sarrerez eta ez predikatuez mintzatuko gara kasu horietan.

[4] 'Small Clause' adierazpenerako, 'Perpaus Txiki' erabiliko dugu euskaraz. Laburdura hautatuko dugunean ordea, ingelesazko SC delakoa erabiliko dugu.

[5] Teoria horren jarraitzaileen artean hauexek aipa daitezke: Chomsky, 1981, 1986a,b; Safir, 1983; Hormstein & Lightfoot, 1984, 1987; Kitagawa, 1985; Contreras, 1987; Brucart, 1987; Hernanz & Brucart, 1987; Rapoport, 1987; Hoekstra, 1988; Radford, 1989.

[6] Williams-en Predikapenaren Teorien defendatzaile eta garatzaileen artean, ondoko hauek aipa daitezke: Schein, 1982; Simpson, 1983; Rothstein, 1983; Demonte, 1987, 1988, 1991; Mc Nulty, 1988

osagai independienteak dira eta ez dute osagai handiago batean bildurik egoteko beharrik (2b). Hala ere, subjektu eta predikatu horiek zenbait egiturazko baldintza bete behar dituzte, lortzen den predikazio-harremana egokia izan dadin. Teoria hauei 'Predikazioaren Teoriak' esan ohi zaie.

(2) a. I consider [$_{SC}$Mary intelligent]
b. I consider [$_{NP}$Mary] [$_{AP}$intelligent]

Bi teoria horien arteko beste ezberdintasun aipagarri bat subjektua definitzeko orduan sortzen da: Stowell-en (1981, 1983) arabera, subjektua XP predikatuaren espezifikatzailean sortuko litzateke, predikatuaren gramatika-kategoria edozein izanik ere ('Kategorien arteko subjektuaren definizioa').[7] Williams-en (1980, 1983) arabera berriz, subjektua predikatuaren XP islapen nagusitik kanpo sortzen den predikatuaren argumentu bakarra litzateke (' Subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa').[8]

Dena den, esan beharrekoa da predikazio-harremana azaltzeko helburuaz eraiki diren bi teoria-multzo horiek ez daudela guztiz orekatuta: 'Perpaus Txikien' osagaitasuna defendatu duten lanak, batez ere zenbait aditz bereziren osagarritzat har daitezkeen predikatuez arduratu dira, hala nola *consider* edo *expect* aditzen osagarriez. Williams eta bere bideari jarraiki zaizkion egileak berriz, subjektu/predikatu harreman guztietarako, hau da izenki-predikaziorako zein adizki-predikaziorako, eta predikatu-osagarrietarako zein predikatu adjunktuetarako balio dezakeen teoria orokor bat eraikitzen saiatu dira.

Lan honetan, itxuraz aurkakoak diren bi teoria horiek azken urteotan gertatu diren aurrerapen teorikoen argitan aztertu (ikus III. atala) eta elkarren osagarritzat har daitezkeela proposatuko dugu. Horrela, perpaus txikien teorian bezala, subjektu eta predikatua osagai handiago batean bildurik

---

[7] 'Subject across categories' Stowell-en (1981, 1983) hitzetan.

[8] 'Subject as external argument' Williams-en (1980, 1983) hitzetan.

daudela defendatuko dugu, baina osagai horren buruak kategoria funtzional bat izan behar duela gaineratuz.[9]

Subjektuari dagokionez, perpaus txikien teoria D-egituraren egoeratik hurbilago dagoen bitartean Williams-en teoriak S-egitura hobeto deskribatzen duela frogatuko dugu: subjektua, predikatu-buruaren beste argumentuak bezala, predikatuaren XP islapen nagusiaren barnean sortuko litzateke; baina, kasuaren beharrak direla eta, islapen horretatik kanpo atera behar luke, S-egituran Williams-ek deskribaturikoaren antzeko egiturazko harremanean geldituko litzatekeelarik.

Izenki-predikazioaren azterketa, erabakikor gerta daiteke GBaren arloan proposatu diren zenbait teoria eta oinarriren baliogarritasuna eta jokaera zehatza finkatzeko orduan. Adibidez, 'Kasuaren Teoria', 'θ-Teoria' eta 'Hesien Teoria' eraikuntza hauetan ikusi diren gertaeren arabera behin eta berriro berplanteiatu dira, inflexiodun eta inflexiorik gabeko predikatuen jokaeren konparaketatik oso ondorio esanguratsuak ateratzen direlarik.

Horrela ba, 1.2. azpiatalean GBaren arlo teoriko horren abiapuntuen laburbilpen bat egingo dugu, aurrerago, teorien edo oinarrien aipamena egiteko orduan, ezagunak gerta daitezen. 1.3. azpiatalean, perpausaren konfigurazioaren adierazpenaz GBaren arloan gertatu diren aurrerapenak laburbilduko ditugu. Horrela, subjektua eta predikatua bilduko lituzketen osagaietarako kategoria eta analisia erabakiko ditugunean, gure proposamenak gaur eguneko joera orokorretan zehazki kokaturik etorriko dira.

1.4. azpiatalean, euskarari buruz GBaren ikuspegitik egin diren azterketak laburbilduko ditugu. Batzuetan aurkakoak diren hipotesien arteko aukera bat egingo dugu hasierako atal honetatik. Horrela, aurrerago ez dugu bazterreko eztabaidetan sartzeko beharrik izango; eta bestetik, predikazioari buruzko azterketetatik euskararen gramatikaren finkapenerako esanguratsuak izan

---

[9] Kategoria funtzionalen definiziorako ikus 1.2.1. azpisaila.

daitezkeen datuak aterako ditugunean, testuinguru egokian kokatu ahal izango ditugu.

Bukatzeko, 1.5. eta 1.6. azpiataletan, izenki-predikazioari buruzko azterketetan interes berezia erakarri duten zenbait puntu ikutuko ditugu: partitibo kasuaren izaera batetik; bestetik, kasu-ezarketarako mekanismoak; eta bukatzeko, mekanismo horiek eta osagaien mugimenduak mugatuko lituzketen hesien definizioak.

1.2. GBaren oinarriak

GBaren arlo teorikoan, esapideei maila desberdinetako itxuraketak eskain dakizkiekeela da lehendabiziko onarpena: D-egitura, S-egitura, Forma Logikoa (LF) eta Forma Fonologikoa (PF). Entzuten ditugun esapideak PFaren iragazkiak zeharkatu dituzten S-egiturako adierazpenak dira; gainerako mailei dagozkien itxuraketak, ez dira azaleratzen, abstrakzio-ahalegin handiagoa eskatzen digutelarik. Gramatika Sortzailearen hasierako garaietako Transformazio-erregelak, itxuraketa-maila horien arteko pausoetan gertatzen den Mugi-α izeneko erregelera murriztu dira, mugimenduek UGaren oinarri eta baldintzak bete behar dituztelarik.

D-egitura, 'Hiztegian' kategoria lexikoez dugun informaziotik abiatuta eraikitzen da 'X-barra' izenaz ezagun den teoriaren oinarriei jarraiki. 'Islapenaren Oinarriaren' arabera, D-mailaren egitura hori, mantendu egin behar da itxuraketa-maila guztietan. Horrela Mugi-α erregela ezartzen den bakoitzean, mugimenduaren abiapuntua adierazten duen aztarna (t) bat utzi behar da jatorrizko gunean.

Bestetik, perpausen egiturak, zenbait teoria, azpiteoria eta oinarriren araberakoa izan behar du: egitura tematikoaren erantzuleak, θ-Teoria eta Kasuaren Teoria dira, eta X'-Teoria deritzonak bere aldetik, hiztegi-sarreretatik islatzen diren egitura tematikoek izan ditzaketen konfigurazioak mugatzen ditu.


Goiko teoria nagusi horietatik kanpo, haiekiko harreman estuetan dauden beste teoria batzuk ere, hartu behar dira kontutan: alde batetik, 'Gobernuaren Teoriak' eragin zuzena du θ-paperen eta kasuen ezarketan ; bestetik, 'Uztarduraren Teoriak', izenki, izenordainki eta anaforen arteko harremanak zehazten ditu; eta bukatzeko 'Mugaduraren Teoriak', mugimenduetan bete behar diren baldintzak murrizten ditu.

1.2.1. X'-Teoria

Hiztegi-sarrerak, [± N] eta [± V] ezaugarri nagusien arabera definiturik dauden lau kategoria nagusitan bil daitezke: N=[+N, -V] , V=[-N, +V], A= [+N, +V] eta P=[-N,-V].[10]

Goiko kategoriak, X° mailari dagozkio eta X'-Teoriak eskainiriko eredu estandarraren arabera islatzen dira: X° buruak bere 'osagarriarekin' elkartzen da X' mailako kategoria emateko, eta azken horrek, 'espezifikatzaileari' lotuz, X" edo X^{max} kategoria ematen du. Gaur egun, islapen nagusiei (X^{max}) erreferentzia egiteko XP sinboloa erabili ohi da ohituraz sintagma-kategorietarako erabili den terminologia mantentzearren. Hona hemen edozein hiztegi-kategoriari legokiokeen islapena (ordena kontuan hartu gabe):

(3)



Edozein kasutan, osagarri eta espezifikatzaileek[11] ez dute beti agertu beharrik (agerpenaren halabeharrezkotasunaren erantzuleak bestelako oinarri batzuk dira), eta beraz, X'-Teoria honen eskakizun nagusiak bi besterik ez dira:

(4) a. Kategoria orok buru bat (X°) eduki behar du.

---

[10] Hemen ere, ingelesazko laburdurak ditugu: N= 'noun' (izen), V='verb' (aditz), A= 'adjective' (izenondo), P= 'preposition' (preposizioa).

[11] 'Espezifikatzaile' eta 'osagarri' berbek, erlazio-harremanak adierazten dituzte eta ez gramatika-kategoriak: ez dago 'osagarri' edo 'espezifikatzaile' izena duen kategoriarik. Osagarri modura adibidez, NP, PP edo CP kategorietako argumentuak izan ditzakegu.

b. X° orok, dagokion X^{max} (XP) bat eduki behar du.

Lau kategoria nagusi horietaz gain, hizkuntza askotan behintzat, badaude bestelako batzuk ere, hala nola, zenbatzaileak (Q), aditzondoak (Adv), determinatzaileak (D), inflexioa (Infl), konplementatzailea (Comp) eta juntagailuak (Konj).

Abney-ren (1987) arabera, A eta P kategoriak ez lirateke N eta V bezain oinarrizkoak, ingelesatik aparteko hizkuntzei begiratzen bazaie. Horrela [±N, ±V] ezaugarrien aurrean eszeptikotasun nabaria azaldu du egile honek, honen iritziz, kategorien sailkapenerako esanguratsuen gerta daitezkeen ezaugarriak [±F] eta [±N] direlarik. Hona hemen Abney-k (1987) proposaturiko kategorien taxuketa:

(5)

	[-F]	[+F]
[-N]	V, Aux, P(?)	Infl, Comp
[+N]	N, A, Q, Adv	Det

Horrenbestez, ohizko 'Kategoriak', eduki semantikoa izateagatik bereizten dituzte Abney-k (1987), Fukui-k (1986) eta Speas-ek (1986), 'kategoria funtzional' izenaz bataiatu dituztenetatik. Horrela ba, [-F] ezaugarria duten 'kategoria tematikoak' eta [+F] ezaugarria duten 'kategoria funtzionalak' bereizi dituzte aipaturiko egileek. Pek,[12] Abney-ren arabera, kategoria funtzional eta tematikoen artean dauden ezaugarriak dituzte eta beraz, [± F] ezaugarria zehaztugabe dutela defenda daiteke.

Abney-k kategoria funtzionalen eta tematikoen ezaugarriak zehaztu ditu. Hasteko, elementu funtzionalek beste kategorien beharra izan ohi dute

---

[12] P sinboloa 'preposizio' kategoria adierazteko erabili ohi da; hala ere, preposiziorik gabe posposizioak dituzten euskara bezalako hizkuntzetarako ere balio du sinbolo berak.

ikuspegi morfologiko eta fonologikotik,[13] eta hiztegi-sarrera murritzeko sailak osatzen dituzte. Bestetik, nahitanahiezkoa izaten den osagarri bat behar dute eta osagarri hori nolabaiteko predikatu sintaktikoa izan ohi da, inoiz ez nolabaiteko argumentua. Espezifikatzaileari dagokionez, beren osagarritik mugituriko elementu batez beterik azaldu ohi den espezifikatzaile bakar bat onartzen dute. Bukatzeko, kategoria tematikoetatik hobekien bereiziko lituzkeen ezaugarria, eduki deskribatzailerik eza litzateke, beren osagarrien interpretaziorako lagundu baizik egingo ez luketelarik.

Elementu tematikoek ordea, eduki deskribatzailea dute funtzionalek ez bezala. Kategoria bakoitzean, sarrera-kopuru handia dago, eta sarrera bakoitzak zehazturik eramaten ditu hartu behar dituen argumentuen kopurua eta beren ezaugarriak. Horrela *pilota* eta *suntsipen* bi hiztegi-sarrerak N kategoriakoak direlarik ere, lehenengoak ez du inolako argumenturik onartzen eta bigarrenak ordea, *zeren suntsipenaz* ari garen zehaztea eskatzen du normalean. Aditzen kasuan, are nabariagoak dira desberdintasun hauek; *etorri* aditzak adibidez argumentu bakar bat eskatzen duen bitartean, *eman* aditzak nork, nori eta zer zehaztea eskatzen du askotan. Bestetik, aukerako modifikatzaile edo 'adjunktu'[14] ugari onar dezakete: nondik, nora, zergatik, nola, non e.a. adierazten dutenak alegia.

Adibide argigarri bat eskaintzearren, *eman* aditza V kategoriako hiztegi-sarrera da. Aditz horrek (V°) X'-Teoriaren eskakizunen arabera, VP (V^{max}) bat islatzen du. VP horren barnean, *eman* aditzak eskatzen dituen argumentu guztiak (nork, nori, zer) osagarri, espezifikatzaile edo adjunktu modura txertatzen dira.

Bestetik, VPa, I(nfl) buru funtzionalaren osagarria da, I ere IP mailaraino islatzen delarik. Inflexioan, VPari aspektua, aldia, modua eta pertsonaren

---

[13] Gehienetan atonoak izaten dira eta askotan klitiko edo atzizkiak, inoiz fonologikoki nuluak ere izan daitezkeelarik.

[14] Adjunktuak, argumentuak ez bezala, aukerakoak izaten direla esango dugu oraingoz.

markak gaineratzen zaizkio (*emango zion* adibidez), baina semantikaren ikuspegitik *eman* aditzaz ari gara beti.


Osagarriei dagokienez, V kategoriako hiztegi-sarrera bakoitzak osagarria hartu behar duenentz eta zein motatako osagarria hartu behar duen, zehazturik dator hiztegitik bertatik, aditzen artean hainbat sail egin daitekeelarik. I kategoriako buru funtzionalak berriz, ez du horrelako aukerarik: halabeharrez hartu behar du VP kategoriako osagarria eta ez du osagarri horren ezaugarriak hautatzeko ahalmenik. Espezifikatzailearen kokagunea beterik ala hutsik egotea ere, hiztegitik dator zehazturik V kategoria tematikoaren kasuan; baina I kategoria funtzionalaren kasuan, D-egituran, ez dago espezifikatzailerik, S-egituran gune hori VPtik ateratako argumentu batez (subjektuaz) betetzen bada ere.

Bukatzeko, IPa, C(omp) buru funtzionalaren osagarri modura txertatzen da. C(omp) buruak ere, halabeharrez hartu behar du IP osagarria; eta D-egituran, espezifikatzailerik gabekoa da, espezifikatzaile hori VParen barnetik datorren elementu batez betetzen delarik. C buruaren eginkizunetariko bat menperakuntza-atzizkiak gaineratzea da (*emango ziola* adibidez), beti ere *eman* aditzaren semantikazko edukia mantenduz.


X'-Teoriaren ikuspegitik, Fukui & Speas-en (1986) arabera, desberdintasunak daude kategoria funtzionalek eta tematikoek azaltzen duten islatzeko moduan: buru tematikoen islapena X' mailaraino baizik ez litzateke helduko, maila hori buruaren argumentu-eskakizunen arabera nahi beste errepika badaiteke ere; buru funtzionalak berriz, espezifikatzailearen kokagunean argumentu bat hartzen dutenean, XP mailaraino isla daitezke islapen osoa beterik. Askotan islapen funtzionalen espezifikatzaileetarako mugimenduak, buru hauek dituzten ezaugarriak deskargatzeko beharrak eraginda gertatzen dira hain zuzen ere.

Hona hemen egile horien arabera espezifikatzailea beterik duen I(nfl) kategoria funtzionala eta bi argumentuko V kategoria tematikoa islatuko liratekeeneko modua:[15]

(6) a.



b.



1.2.2. θ-Teoria

Teoria honen arabera, Hiztegi-mailatik aditzek eta orokorki predikatu-buruek beren argumentuei ezarri behar dizkieten paper tematikoen ('egilea', 'jasalea', 'esperimentatzailea', 'hartzailea'...) zehaztapena legoke. Zehaztapen hori, aditzen argumentu-egituraren adierazpena liteke eta θ-sare izenaz ezagun da, Stowell-en (1981) lanetik aurrera. Aurrerago, Stowell-en kontzepzioa, kategoria lexiko nagusietara (N, V, A, P) hedatu egin da.

Teoria honen oinarria, 'θ-irizpidea' da (Chomsky, 1981): argumentu guztiei paper tematiko bana esleitu behar zaie eta paper tematiko bakoitza, argumentu bakarrari dagokio. Mugimenduren bat gertatzen denean, jatorrizko gunean aztarna (t) bat utzi behar da beti , 'Islapenaren Oinarria' ez bortxatzeko: aintzindaria eta aztarna indizekideak dira eta 'katea' bat eratzen

---

[15] Adierazpen hauek egiteko orduan, euskararako proposatu izan den ordenak (SOV) (De Rijk, 1969) eskatzen duen konfigurazioan oinarritu gara. SVO ordena azaltzen duten gaztelania eta ingelesa bezalako hizkuntzen Infl burua Varen ezkerraldean legoke (6a) adierazpenean eta (6b) adierazpeneko DPa, Varen eskuinean. Dena dela, ordenari dagozkion ohar hauek, ondoko azpisailean ikusiko dugunez, parametrikoki aldakorra den kasu-ezarketarako norabidearen eragin zuzena jasan bide dute (Stowell, 1981).

dute. Mugimenduek beraz, paper tematikodun kokaguneetatik paper tematikorik gabeko kokaguneetara gertatu behar dute, bestela mugituriko argumentuak bi paper tematiko jaso eta θ-irizpidea bortxatuko bailuke.

Esan beharrekoa da semantikaren ikuspegitik paper tematikoen teoriak kritika gogorrak jaso dituela, sintaxiari lotuegi baitago (Jackendoff, 1987): normalean erabili ohi diren 'Tema', 'Egilea' eta antzeko terminoak ez dagozkie semantikaren teoriaren 'primitiboei' eta sintaxi-teorietan erabili ohi diren subjektu eta objektuaren antzekoak dira. Hau da, harreman tematikoak, 'Kontzeptu-egiturako'[16] egiturazko konfigurazioetara laburtu behar lirateke eta ez sintaxi-harremanetara. Izan ere, Grácia Solé-k (1987) θ-Teoria aztertu duenean, horrelako sintaxi-irizpideei eutsi die: sintaxizko jokaera desberdinak izateagatik bereiz daitezkeen θ-paperak baizik ez ditu kontutan hartu, sintaxi-jokaeraren ezberdintasunik ez duten paperak bereizteak inolako esangarritasunik ez bailuke.

Hiztegi-adierazpenak paper tematikoen zerrenda hutsa izan gabe nolabaiteko egitura izan behar duela pentsatu behar da: hasteko kanpo- eta barne-argumentuen arteko asimetria garbiak azaltzen dira, barne-argumentuek beti azpikategorizatuak izan behar duten bitartean kanpo-argumentuak predikatuen egiturazko eskakizunei baitagozkie neurri handiagoan (ikus adibidez Williams, 1980; Zubizarreta, 1985; Jackendoff, 1987).

Bestetik, paper tematikoen artean kanpo-argumentua hautatzeko orduan nolabaiteko ordenaketa dagoela pentsa daiteke (ikus adibidez Belleti & Rizzi, 1988 eta Grimshaw, 1990): hasteko, egilerik badago, horixe hautatzen da

---

16 Jackendoff-en iritziz, hizkuntza hiru egitura-maila autonomotan, alegia maila 'fonologiko', 'sintaktiko' eta 'semantiko/kontzeptualean' antolaturik dago. Bestalde, maila horietariko bakoitza zenbait 'eraketa-erregelaren' bidez deskribatzen da, maila desberdinak lotzen dituzten 'korrespondentzia-erregelak' ere badaudelarik. Horrela, hiztegi-sarrera bakoitza, ongi eraturik dauden egitura fonologiko, sintaktiko eta kontzeptualaren zatien arteko elkarketatzat har daiteke.

halabeharrez kanpo-argumentu modura; bigarrenik, esperimentatzailea dagoenean, batzuetan kanpo-argumentua izaten da baina ez da halabeharrez kanpo-argumentu modura hautatu behar; eta bukatzeko, esperimentatzaile edo egile bat duen θ-sare batean zehazturik agertzen den tema ezin hauta daiteke kanpo-argumentu modura.

Kontutan hartzekoak dira baita 'Argumentu-egituraren' ezaugarriak alda ditzaketen morfologiazko prozesuak (Zubizarreta, 1985; Grimshaw, 1988, 1990) ere: barne-argumentuak, 'Islapenaren Oinarriaren' arabera, gauzatu egin behar dira sintaxi-mailan, baina, kanpo-argumentuak, batzuetan, hiztegi-mailan badaude ere, ez dira sintaxi-mailan islatzen.

Azken gertakizun horren froga garbiak, eraikuntza pasiboetan, eratorritako nominaletan eta hizkuntza erromantzeen eraikuntza kausatiboetan aurki daitezke: bai morfologia pasiboak bai aldaketa antikausatiboek ere, aditz iragankorren kanpo-argumentuaren sintaxizko gauzatzea galerazten dute, eraikuntza pasiboan PP adjunktu modura azal daitekeela egia bada ere;[17]

---

[17] Grimshaw-k (1988, 1990), a-adjunktuak deritze horrelakoei: ez dira halabeharrez islatu behar, eta hortik datorkie adjunktuaren izaera, baina V edo N buruaren a-egituran θ-paper bera jasoko lukeen eta ezabatu den argumentu bat dagoenean soilik ager daitezke. Hau da, adjunktuak dira, baina argumentu-kokagune baten zilegiztapena eskatzen dute.

Esate baterako, *to destroy 'suntsitu'* aditz iragankorrak egilea zehazturik daraman eta ez daraman eraikuntza pasiboak (1a) onartzen ditu, eta *destruction 'suntsipena'* izenak egilearen aukerako zehaztapena onartzen du (1b).

(1) a. The city was destroyed (by the enemy)
b. The destruction of the city (by the enemy)

Egile hori (*by the enemy*) aukerakoa da eta PP modura gauzatzen den adjunktua dela esan dezakegu. Ikus bedi aditz beraren eraikuntza aktiboa ez dela onargarria egilea gauzatzen ez bada (2b).

(2) a. The enemy destroyed the city
b.*Destroyed the city

Baina, *by-* sintagmek, adjunktu arruntak balira, onargarri izan behar lukete halaber aditz aktiboekin batera eta ez da horrelakorik gertatzen (3).

bestetik, kausatibizazio-prozesuetan kanpo-argumentu baten gehiketa eta jatorrizko kanpo-argumentuaren barneraketa gertatzen da. Horrela ba, argumentu-egitura ez da pentsa daitekeen bezain egonkorra: kanpo-argumentua, hasteko, hiztegian manten daiteke sintaxian islatu gabe (argumentu inplizitoa); bigarrenik, ezaba daiteke; eta bukatzeko, barne-argumentu bihur daiteke.

Bestetik, Davidson-ek (1967) proposatu zuenetik garapen handia jaso duen ideia bat badugu: predikatuen θ-sarean ohizko argumentu irekiei dagozkien kokaguneez gain, badaude 'gertaerei' dagozkien kokaguneak ere, eta horrela ekintzazko esapideek behintzat, gertaerei buruzko kuantifikazio existentziala eramaten dute beraiekin (Higginbotham, 1982). Higginbothan-en iritziz, gertaeraren osotasunari dagokion argumentua (e) ez da soilik agertzen ekintzak adierazten dituzten aditzetan; aditz estatiboetan, eta zenbait izenondo eta preposiziotan ere azaltzen da.

Hiztegi-sarrera lexiko[18] bakoitzak θ-sare bat du, eta esapide konplexuek, sarrera desberdinen θ-sareen gune irekien 'deskargara' zuzenduriko eragiketa zehatz batzuen bidez jasotzen dute beren interpretazioa (Higginbothan, 1985, 1987). 'Deskarga tematikoa' lau modu desberdinetara gerta daitekeela proposatu du Higginbothan-ek, prozesu guztiek

---

(3) *The enemy destroyed the city by the army

Areago , aditzaren argumentu-egituran egilerik ez badago (3a), ez da posible *by* -adjunkturik ere (4b).

(4) a. The train arrived later

b.*The arrival by the train


Adjunktu hauek erregulatzen dituzten arauak bada, ohizko adjunktuetarako erabiltzen direnetatik urrun daude. Argumentuen eta adjunktuen ezaugarriak dituzten elementuen aurrean gaude: aukerakoak dira adjunktuak bezala, baina aditzaren argumentu egituran azaldu behar dute, argumentuek bezala.

[18] Sarrera ez-lexikoek, hau da funtzionalek ez dute inolako θ-sarerik. Horixe da hain zuzen buru lexiko eta funtzionalen arteko ezberdintasun garrantzitsu bat.

gobernupean gertatu behar dutelarik: alde batetik, predikatuen eta beren argumentuen artean gertatzen den θ-markaketa legoke; bigarrenik, neurrihitzen eta beren nominalen artean gertatzen diren harremanak bezalako θ-uztarketak; hirugarrenik, izenondoen bidezko modifikazioaren bidez exenplifika daitekeen θ-identifikazioa; eta bukatzeko, θ-markaketa autonomoa, non θ-markatzailean irekitako kokaguneari esleitzen zaion balioa osagai ahizpak eskainiriko atributua baita.

Adibidez, *mahai* bezalako izen konkretu batek, bere sare tematikoan, kokagune ireki bakar bat du, eta hori determinatzailea lotzen zaionean, adibidez, uztarturik geratzen da. Deskargaturiko kokaguneei asterisko bat jartzen zaie Higginbothan-en adierazpen-moduetan.

(7) *mahai* [-V, +N] <1>




Beste izen batzuek, kokagune ireki gehiago dute, adibidez, *buru* edo *guraso* hitzek norenak diren espezifikatzea eskatzen dute; eta *apurketa* bezalako ekintza-izenek, zeren apurketaz ari garen zehaztea. Predikatu-buruei dagokienez, (ekintzazko aditzak, aditz estatiboak eta izenondoak barne), 'e-kokagune' bat gehitu behar dela esan dugu Higginbothan-i jarraiki. Horrela, Chomsky-ren θ-Irizpidea deskarga-terminoetan berformulatu behar dela proposatu du Higginbothan-ek:


(8) a. Kokagune tematiko oro deskargatu egin behar da.
b. X-ek Y-ren gainean θ-paper bat deskargatzen badu, paper bakar bat baizik ezin deskarga dezake.

Sare tematikoak, iragazi egiten dira islapenetan gora eta osagai batek irekitako kokagune guztiak deskargatu ondoren, bere sare tematikoa asea duela esaten da. *Mahai zuri hori erosi* bezalako sekuentzia bat interpretatzeko, deskarga tematikorako prozesu desberdinetariko batzuk ezarri behar dira: *mahai* eta *zuri* hitzen kokagune irekiek θ-identifikazioa jasan behar dute, N' mailara argumentu ireki bakar bat iragazten delarik; kokagune hori θ-uztarduraren bidez deskargatzen da, *hori* erakusleari lotzen zaionean. Bestetik, *erosi* aditzak hiru gune tematiko ditu <1,2,e>: gune horietatik bigarrena jadanik asea den *mahai zuri hori* NPari ezarriz deskargatzen du eta besteak goragoko islapenetan deskargatu behar ditu.

(9) *mahai* [+N, -V] <1>
zuri [+N, +V] <1>
erosi [-N, +V] <1,2,e>



Batzuetan, hitzen artean suertatzen diren harremanak ez dira deskribatu ditugunak bezain errazak: adibidez, *musikari aparta* esaten dugunean, musikari modura aparta dela esaten dugu, baina atribuzio hori erlatiboa da musikaren trebetasunaren ikuspegitik eginda baitago: *aparta* izenondoaren sare tematikoaren gunetariko batek, musikarako trebetasunaren balioa hartzen du. Horrela, θ-identifikazioaz gain θ-markaketa autonomoak ere hartzen du parte deskarga tematiko horretan. Kontutan hartzekoa da, θ-markaketa autonomoaren bidez deskargatzen diren guneak adabegira iragazten ez direla. Bestetik, badakigu θ-identifikazioa ere gertatzen dela, zeren *musikari aparta* dena, musikaria ere bada.



1.2.3. Kasuaren Teoria

Kasuaren Teoriaren eskakizun nagusia 'Kasuaren Iragazkia' deritzona da: fonologikoki gauzaturiko NP guztiek, kasua behar dute. Bestetik, kasua, gobernupean esleitzen da (Chomsky, 1981). Dena dela, 'gobernu-harremana' modu desberdinean kontsideratu behar da hautatzen den definizioaren arabera: lan honetan Chomsky-ren (1986a) gobernu-harremanaren definizioan oinarrituko gara; baina, definizio horretara heldu aurretik, bestelako kontzeptu batzuk behar dira. Hona hemen kontzeptu horien definizioak Chomsky-ren (1986a) lanean bezala azaldurik:

(11) α-k β **L-markatzen** du bbaldin, α buru lexikoa izanik β bere osagarria bada.

(12) γ β-ren **Kategoria Blokeatzailea (BC)** da , baldin L-markaturik ez badago eta β menperatzen badu.

(13) γ β-rako **hesia** da , (i) edo (ii) gertatzen bada:
(i) γ-k δ zuzenean menperatzen badu, eta δ β-ren kategoria blokeatzailea bada.
(ii) γ β-ren kategoria blokeatzailea bada, γ≠IP

(14) α-k β **gobernatzen** du bbaldin, α buru bat bada, α-k β m-komandatzen badu eta β menperatzen duen edozein hesik α ere menperatzen badu.

(15) α-k β **m-komandatzen** du, bbaldin, α , β eta γ islapen nagusiak badira, α-k β menperatzen ez badu eta α menperatzen duen γ orok β ere menperatzen badu.[19]

Esan beharrekoa da bestetik, 'kasuaren Iragazkia' eta kasua gobernupean esleitzen delako eskakizuna Gramatika Unibertsalaren oinarritzat har daitezkeela. Hala ere, hizkuntza batetik bestera, desberdintasun parametrikoak egon daitezke kasuen gauzaketa zehatzari eta kasu-esleipenaren norabideari dagokienez. Bertatik, hitz-ordenaren ezberdintasun ugari ere atera daiteke.

Kasua ezartzeko gai diren kategoriak bestetik, [-N] ezaugarria duten kategoria nagusiak dira, hau da V eta P. Bestetik ohizko onarpena da, aditzen ohizko argumentuek (subjektuak eta objektuak) kasu-ezarketari dagokionez asimetria nabaria azaltzen dutela: subjektuari kasua Inflexioak ezartzen dion bitartean, objektuari, Vak berak esleitzen dio zuzenean

---

[19] M-komandoaren definizio hau, Aoun & Spotiche-rena (1983) da. Badago aurrerago aipatuko dugun beste definizio bat, Reinhart-ek (1976) proposaturikoa eta c-komandoaren izenaz ezagun dena (ikus 18 definizioa).

(Chomsky, 1981). Aurreragoko lanetan, kasua buru funtzionalen espezifikatzaile-buru harremanean oinarrituriko komunztadura-harremanaz ezar daitekeela defendatu da (Chomsky, 1986a, 1989, 1992).

Chomsky-k (1986a) kasu-ezarketarako bi mekanismo desberdin deskribatu ditu, alegia 'berezko kasu-ezarketa' eta 'egiturazko kasu-ezarketa'. Berezko kasua, D-egituran esleitzen da dagokion θ-paperarekin batera. Hala ere, batzuetan kasu honek ez ditu baldintza guztiak betetzen ezartzen deneko tokian, mekanismoan bi pauso bereizi behar direlarik : 'esleipena' eta 'gauzatzea'. Egiturazko kasua, S-egituran ezartzen da, eta beraz, ez du paper tematikoekiko harreman zuzenik. Egiturazko kasuen adibide modura, espezifikatzaile/buru komunztadura-harremanaren bidez ezartzen diren 'nominatibo' eta 'akusatiboa' ditugu, eta berezko kasuen artean,'genitiboa', 'partitiboa' eta 'datiboa' aipatu ohi dira. Edozein modutan, adibide horiek ingelesarako balio dute batez ere, bestelako hizkuntzetan kasu-mota bakoitza esleitzeko mekanismo zehatza aztertu behar baita.

Argumentuen mugimenduak, askotan kasuaren beharrak eragiten ditu: adibidez, edozein argumentuk paper tematikoa jaso dueneko tokian kasua hartzerik ez badu, mugitu egin behar du kasua har dezakeeneko gune batera, jatorrizko tokian aztarna bat utziz. Modu honetara, mugituriko argumentuak eta aztarnak katea bat eratzen dute. Kateen teorian (Chomsky, 1986a), argumentuak eta kateak identifikatu egin dira: katea bakoitzak paper tematiko bat eta kasu bat jaso behar du, katearen burua kasua duen elementua eta buztana θ-markaturiko elementua direlarik. Aipatu beharrekoa da, 'Ekonomiaren Oinarriaren' arabera (Chomsky, 1989) mugimendu guztiek nolabaiteko arrazoia izan behar dutela, arrazoi hori kasuaren beharra edo dependentzia morfologikoa (atzizki eta klitikoen kasuan adibidez) izan ohi delarik.

Aditz inakusatiboak dituzten esapideek, batzuetan aditzaren atzean kokaturiko subjektuak onartzen dituzte, nominatibo kasua eskura daitekeeneko gunean ([spec, INFL]), espletibo bat agertzen delarik (ikus (16) adibidea). Honelako kasuetan, espletiboak eta objektuaren gunean kokaturiko argumentuak katea bat osotzen dutela pentsa daiteke (Burzio, 1986; Chomsky, 1986a): espletiboak, katearen burua izanik nominatibo

kasua hartzen du INFL burutik eta θ-markaturik dagoen katearen buztanari (aditz inakusatiboaren argumentua) helarazten dio.[20]

(16) There is a child in the room

Bestetik, 'Gobernuaren Teoriaren barnean', kontutan hartzekoa da baita 'Kategoria Isilen Oinarria' (ECP).[21] Horren arabera, aztarnek, egokiro gobernaturik' egon behar dute, gobernu-harreman hori aurretik definitu dena baino hertsiagoa delarik: aztarnak bi modutara egon daitezke egokiro gobernaturik, beren aintzindariak gobernatzen baditu edo lexikoki gobernaturik badaude, hau da buru lexiko baten osagarriaren gunean badaude. Oinarri honetatik bertatik, objektu eta subjektuen arteko asimetriaren berri eman daiteke: izan ere, objektuen aztarnak beti egoten dira lexikoki gobernaturik, baina subjektuen aztarnek aintzindariaren gobernua behar dute.

1.2.4. Mugaduraren Teoria

Aurreko sailean eskaini den 'Hesien' definizioa, 'Mugaduraren Teoriaren' arloan kokatu behar da: teoria horren eskakizun nagusia 'Azpikotasunaren Baldintza' izenaz ezagun dena da, alegia, mugimenduek hesi bat baino gehiago ezin zeharka dezaketela .

Esan dugunez, argumentuak 'Kasuaren Iragazkiaren' eskakizunari erantzunez mugitu ohi dira. Horrela, goiko ataletan aipatu izan diren oinarri eta teoria guztiak kontutan hartuz, argumentuek sortzen direneko gunean hartzen dute dagokien paper tematikoa eta bertan berezko kasua hartzerik ez badute, mugitu egiten dira egiturazko kasuaren bila 'Kasuaren Iragazkia' ez

---

[20] 'The Case Transmission Hipothesys' (CTH) (Chomsky, 1986)

[21] ECP= 'Empty Category Principle' (Chomsky, 1981)

bortxatzeko. Mugimendu horiek, zenbait oinarriri jarraiki egiten dira: hasteko, paper tematikorik gabeko kokaguneetara zuzendu behar dira, bestela θ-irizpidea bortxatuko bailitzateke; bigarrenik, ezin zeharka dezakete hesi bat baino gehiago; eta hirugarrenik, utziriko aztarnak, egokiro gobernaturik egon behar du.

Hala ere, azpikotasunaren ondorioak desberdinak dira 'hesiaren' kontzepturako hautatzen den definizioaren arabera. Fukui-k eta Speas-ek (1986), Chomsky-renetik (1986a) urrun samar dagoen definizioa proposatu dute: hesiak, espezifikatzailea beterik duten islapen funtzionalak dira. Definizio hori buru funtzional eta tematikoen islapenen artean egiten duten bereizketaren ondorioa da, zeren beren ikuspegitik buru lexikoak ez baitira inoiz X' mailako islapenetik gorakoak eta buru funtzionalek espezifikatzaile bat hartzen dutenean baino ez dira izaten islapen nagusiak.

1.2.5. Uztarduraren Teoria

Teoria hau, izen, izenordain eta anforen arteko harremanak azaltzeko saioa da. Hasteko 'uztardura-harremana' definitu behar da, uztarturik ez dauden NPak 'aske' daudela esaten delarik:

(17) α-k β uztartzen du, c-komandatzen badu eta α-k eta β-k erreferentzia berbera badute (indizekideak badira).

(18) α-k β c-komandatzen du, bbaldin α-k β menperatzen ez badu eta α menperatzen duen γ adabegi orok β ere menperatzen badu.[22]

Teoria honetan hiru oinarri nagusi bereizi ohi dira:

---

[22] C-komandoaren definizio hau Reinhart-ena (1976) da

(19) **A oinarria:** Anaforek uztarturik egon behar dute beren gobernu-kategorian.
B oinarria: Izenordainek aske egon behar dute beren gobernu-kategorian.
C oinarria: Erreferentziadun adierazpideek aske egon behar dute.

Ikus daitekeenez, komandoaren harremanerako, bi definizio eman dira, (15) eta (18) hain zuzen ere: lehenengoan adarkaketa guztiak hartzen dira aintzakotzat; bigarrenean berriz, islapen nagusiak baizik ez dira kontutan hartzen. Chomsky-k (1986a) gobernu-harremanaren definiziorako m-komandoaren beharra ikusi duen bitartean, 'Uztarduraren Teoriarako', ezinbestekotzat jo du c-komandoaren definizioa mantentzea, bestela *the city's* [$_{\alpha}$*destruction* t] eraikuntzak C-oinarria eta *His* [$_{\alpha}$*pictures of himself*] delakoak B-oinarria bortxatuko bailituzkete: bi elementu erreferentziakideek, islapen nagusi berberaren barnean daudenez, elkar m-komandatuko lukete (α N' maila da eta ez islapen nagusia).

Abney-k (1987), 'Determinatzailearen Hipotesiaren' alde erabili ditu honelako gertaerak, zeren determinatzailea Naren espezifikatzailea izan gabe osagarri modura NPa duen kategoria funtzionala bada, goiko adibideetan α islapen nagusia (=NP) izango bailitzateke: [$_{DP}$ *the city's* [$_{NP}$ *destruction* t]] / [$_{DP}$ *his* [$_{NP}$*pictures of himself*]]. Modu honetara, posible da arlo guztietan m-komandoaren definizioaz lan egitea.

Orokorki gobernu-kategoriak 'funtzio-konplexu osoekin' erlazionatzen dira, hau da predikatu, subjektu eta osagarri bat barnean dituzten adabegiekin. Beraz, lehenengo hurbilketan behintzat, NP (edo DP) eta IP dira gobernu-kategoria nagusiak.

Uztarduraren Teoriaren arloan azaldu den arazo garrantzitsuenetariko bat, uztardura ezarri behar deneko mailari (D-egitura, S-egitura, LF, LE) dagokiona da oinarri eta hizkuntza desberdinetarako desberdintasunak badaudela baitirudi.

1.2.6. Kontrolaren Teoria

Uztarduraren Teoriarekin zerikusirik duen beste kategoria bat, jokatugabeko perpausen subjektu modura agertu ohi den PRO kategoria isila da. Kategoria horren sintaxizko jokaerak, izenordain anaforikotzat hartzea eragin du; horrela ba, bere gobernu-kategorian aldi berean uztarturik eta aske egon behar lukeen kategoria dugu, aukera bakarra gobernu-kategoriarik ez duela esatea delarik. PRO kategoria, kasurik eta gobernu-harremanik gabeko kokaguneetan agertzen da eta horretan bereizten da gobernaturik egon behar duen NParen aztarnatik.

PRO kategoria isil honen inguruan, hiru arazo nagusi planteiatzen dira (Chomsky, 1981): lehenik, ager daitekeeneko kokaguneen finkapena; bigarrenik, halabeharrez agertu behar deneko kokaguneen zehaztapena; eta azkenik, haren erreferentzia mugatzeko moduaren deskribapena.

Lehenengo galderari erantzuteko nahiko zaizkigu Gobernu eta Uztarduraren oinarriak eta bigarrenaren konponketa, 'Islapenaren Oinarrian' eta 'Kasuaren Teorian' aurki daiteke. Horrela, PRO kategoria, Uztardura Teoriaren arabera, murrizturik dago 'zeharkagarriak'[23] diren gobernatu gabeko kokaguneetara. Bestetik, PROk halabeharrez agertu behar du, 'Islapenaren Oinarri Zabalduak' izen-sintagma bat eskaturik ere kasurik ezin ezar daitekeeneko kokaguneetan, NP gauzatuak 'Kasuaren Iragazkiak' baztertzen baititu kokagune horietatik.

Baina hirugarren galderak, 'Kontrolaren Teoria' izenaz ezagun dena behar du: PRO kategoria isila zenbait aditzek hautatzen dituzten adierazpen- edo

---

[23] 'Zeharkaezin' izenondoa erabili dugu Chomsky-k (1981) 'opaque' hitzaren bidez deskribatu dituen eremuetarako eta 'zeharkagarri', Chomsky-ren 'non-opaque' aurkako terminoa itzultzeko. Chomsky-ren (1981) arabera, badaude uztarduraren teoriarako 'zeharkaezinak' diren bi eremu: jokaturiko perpausen subjektua eta edozein kategoriatako subjketuak c-komanda dezakeen eremua.

galdera-perpaus osagarrien subjektu modura agertzen da, aditzaren hiztegi-ezaugarrien arabera kontrolatzailea perpaus nagusiaren osagarria edo subjektua izaten delarik. Bestetik, galderazko osagarri hauetan, adierazpen-perpausetan ez bezala, erreferentzia arbitrarioa ere gerta daiteke. Azpimarratu beharrekoa da kontrolerako komando-harremanaren beharrik ez dagoela.

1.3. Perpausaren konfigurazioa

Azpisail honetan hurrengo ataletan eskainiko ditugun datuak eta proposatuko dugun teoria ulertzen lagunduko gaituzten zenbait kontzeptu garatzen saiatuko gara.

Hasteko, sintaxi-eraikuntza guztiak azken batean hiztegiaren ezaugarrien islapena direlako onarpenean parte hartzen duten GBaren oinarriak azalduko ditugu (1.3.1. azpisaila).

Bigarrenik, 1.3.2. azpisailean, gramatikaren lan-tresnak diren perpaus guztiak tesi honen gaia den 'predikazio-harremanean' oinarritzen direla ikusiko dugu, ohizko gramatiketan eta GBaren esparruan hizkuntzalarien interesa erakarri duten predikazioaren arloko gertaerarik garrantzitsuenak azaltzen saiatuko garelarik.

Hirugarrenik, perpaus guztietan bereiz daitezkeen 'subjektua' eta 'predikatua' harremanetan jartzeko gramatika sortzailearen esparruan ikus daitekeen eboluzioa, hau da, perpausaren adierazpenaren eboluzioa agerian uzten saiatuko gara. Eboluzio horretan, ezin ahaz daitezke izenki-predikatuen kasuan (zenbait egileren iritziz) azaltzen diren 'perpaus txikiak', lan honen aztergaia bereziki eraikuntza horiei baitagokie. Hori guztia, 1.3.3. azpisailean ikusiko dugu.

Laugarrenik, 1.3.4. azpisailean, geure predikazioaren teoria garatzeko ezinbestekoa gertatuko zaigun Grimshaw-en (1991) islapen hedatuen definizioa azalduko dugu, bai perpaus arrunten bai 'perpaus txikien' konfigurazioa erabakitzeko orduan alde batera ezin utz daitekeen kontzeptua baita eta subjektua eta izenki-predikatua kategoria funtzional batean sartuta daudelako teoriak ekartzen duen arazo nagusia, alegia V nagusiaren eta izenki-predikatuaren kategoriaren arteko hautaketa, konpontzen lagunduko baikaitu.

Bukatzeko, 1.3.5. azpisailean, perpausaren konfigurazioa ikusteko orduan GBaren esparruan egon den eboluzioarekin batera kasu-ezarketaren mekanismoak azaltzeko ere gertatu den aldaketa aztertuko dugu.

1.3.1. Hiztegiaren islapena

'Hipotesi Lexizistaren' proposamenetik (Chomsky, 1970), gramatika sortzailearen onarpen nagusietariko bat honelaxe labur daiteke: hiztegiaren ezagutzak sintaxiaren ezagutza ekartzen du. Hortaz, gramatikaren oinarrizko helburuetariko bat konpetentzia lexikoaren teoria osatu bat eraikitzea da. Izan ere, erregela-sistema murriztera eraman duten oinarrien artean, 'Islapenaren Oinarria' dugu: hiztegi-egitura, sintaxi-maila guztietan mantendu behar da.

Horrela bada, D-egituraren adierazpenek, bi baldintza-mota bete behar dute: alde batetik X'-Teoriari dagozkion forma-baldintzak; eta bestetik, θ-Teoriak ezartzen dituen semantika-mailako baldintzak. Oinarrizko elementuak (V, N,...) hiztegi unibertsal finko batetik atereak badira, elementu funtzionalak baizik ezin parametriza daitezke (Chomsky, 1989).

D-egiturak hiztegiarekiko harreman zuzena du, eta 'θ-ezarketaren Uniformetasunaren Hipotesia' (Baker, 1988)[24] bete behar du: elementuen arteko harreman tematiko berdintsuei, mota bereko egiturazko harremanak dagozkie D-egituraren mailan.

X' Teoriaren arabera, hiztegian beren ezaugarri semantiko eta guztiz kodifikaturik (eta zenbait kategoria desberdinatan sailkaturik) dauden hitz horiek (X^0 mailako kategoriak, edo 'buruak'), 'osagarriak' hartuz, X' mailako egiturak, eta hauek 'espezifikatzaileak' hartuz, X" (= XP mailako = sintagma-mailako) kategoriak ematen dituzte.

---

[24] The Uniformity of Theta Assignment Hypothesis (UTAH)

Identical thematic relationships between items are represented by identical structural relationships between those items at the level of D-structure.

Osagarrien gune horiek, 'islapen nagusiak' (XP mailakoak) diren kategoriek bete behar dituzte, eta kokagune horietan halabeharrez agertu behar duten osagarriak eta beraien θ-papera (egilea, jasalea, tema, proposizioa,...) hiztegi-mailatik bertatik mugatzen dute buru lexiko horien ezaugarriek (s-hautaketa deritzo gertaera honi).[25] Espezifikatzaileen kokaguneek ez dute beterik egoteko beharrik.

Kasuaren Teoriak, bere aldetik, osagaien ordena eratortzea baimentzen du (Stowell, 1981), hori azpikategorizazioan sar daitekeen informazioaren artean 'hiztegian' eskainirik ez datorren bakarra delarik: hizkuntza jakin baten elementuen ordenaketa, kasua eta θ-paperak ezartzen direneko norabidearekiko harremanetan dauden parametroek mugatzen dute. Bestetik, 'osagarrien' ordena, 'Kasuaren Albokidetasunaren Oinarriak' eragiten du (Chomsky,1981).

'Interpretazio osoaren oinarriaren' arabera,[26] elementu orok, gutxienez ongi eraturiko harreman bat izan behar du beste elementu batekin. Islapen nagusien artean, bi sail bereiz ditzakegu: argumentuak, eta argumentuak ez direnak. Argumentuen banaketa, θ-irizpideak mugatzen du (argumentu guztiek zerbaiten argumentu izan behar dute; hots, paper tematiko bat behar dute). Rothstein-ek (1983) argumentuak ez diren islapen nagusien banaketa murriz dezakeen erregela bat proposatu du: argumentu ez diren islapen nagusiak, predikatu sintaktikotzat hartu behar dira, eta predikatuak argumentu egoki bati lotuz itxi behar diren funtzio irekiak dira ('Predikatu-loturaren Araua').

Modu honetara, perpausaren berridazketa-erregela (S-> NP INFL VP) alferrikako bihurtu da, sintaxi-konfigurazioak subjektu/predikatu harremanetara labur baitaitezke. Horrela predikatu modura joka dezaketen kategoria guztien (VP, NP, AP, PP) jokaera orotaratzea lor daiteke. Bide

---

[25] Hasieran, S-hautaketa (semantika-kategorien hautaketa) eta C-hautaketa (sintaxi-kategorien hautaketa) bereizten ziren, baina, gaur egun, S-hautaketa nahikoa dela defendatzen da; izan ere, semantika-talde bakoitzari egiturazko adierazpen zehatza dagokiola onar daiteke.

[26] "The Principle of Full interpretation" (Chosmky, 1986)

beretik doa Stowell-en (1981, 1983) 'kategorien arteko subjektuaren' definizioa.[27]

Hortaz, islapen nagusien artean hainbat motatako harremanak ezar daitezke (Roberts, 1985): 'θ-markaketa', 'Predikazioa' eta 'Modifikazioa'. θ-markaketa, buru lexiko baten eta bere osagarriaren artean dagoen harremana da. Predikazioa, θ-markatu gabeko elementu baten eta bere argumentu baten arteko elkarketa litzateke, m-komandoaren harremanak ere egon behar duelarik. Bukatzeko, 'Modifikazioa' dugu; modifika daitezkeen kokaguneak ondokoak lirateke: kasudun kateen parte ez diren kokaguneak eta ikusgarri gertatzeko aukera ez duten eta inoiz ere θ-markaketa edo predikazioa ezin jaso dezaketen islapen ez-nagusiak .

Bestetik, hiru harreman horien konbinaketak ere aurki daitezkeela defendatu du Roberts-ek: hasteko, θ-markaketa+ predikazioa (John [VP likes Mary]); bigarrenik, modifikazioa+predikazioa (John met Mary drunk); eta bukatzeko θ-markaketa+modifikazioa (faire+VP).

---

[27] 'Subject across categories' (Stowell, 1981). Hala ere, esan beharrekoa da Stowell-en proposamenean subjektuak kategoria desberdinen espezifikatzaileetan txertatuko liratekeela eta beraz, kategoria horien islapen nagusien barnean leudekeela. Rothstein-ek (1983), Williams-en (198) proposamena onartu du eta horrela, beraren iritzian, subjektua predikatuaren islapen nagusitik kanpo dagoen argumentu bakarra liteke.

1.3.2. Predikazioa

Aurreko azpisailean ikusi dugunez, X'-teoriaren arabera islaturiko XP islapen nagusi orok, gutxienez, ongi eraturiko harreman batean hartu behar du parte, harreman horien artean 'predikazioa' aipatu dugularik. Lan honen gaia, 'predikazio-harremana' da hain zuzen, eta sail honetan kontu horretarako sarrera bat egingo dugu, perpausaren eraketarekin erlazionatuz.

Predikazioaren arazo teknikoetan sartu aurretik, egin dezagun ohizko gramatiketako onarpenetatik abiaturiko hurbilketa bat. Izan ere, gramatikak lan-tresna modura erabiltzen dituen unitateak perpausak dira, perpausen barnean 'subjektu' eta 'predikatu' izenaz ezagutzen diren bi osagaiak bereiz daitezkeelarik.

(20) Amak bazkaria prestatu du

(20) perpausean adibidez, *amak* , subjektua litzateke eta *bazkaria prestatu du* , subjektu horri buruz esaten dena, hots, predikatua. Ohizko gramatika sortzailearen esparruan, subjektu-predikatu harreman horren islada zen (21) bezalako berridazketa-erregela proposatzen zen perpaus guztietarako.

(21) S -> NP VP

Hau da, perpausak (S), bi osagai bilduko lituzkete: izenaren inguruan antolatuko litzatekeen izen-sintagma subjektua (NP) eta aditzaren inguruan antolatuko litzatekeen aditz-sintagma (VP), azken hau ohizko gramatiken predikatuaren parekoa litzatekeelarik.

Dena den, buru modura aditza duten VP kategoriako predikatuez gain, buru modura izenak (N) edo izenondoak (A) dituzten predikatuak ere badaude (22).

(22) a. Sailkideek Miren zuzendari hautatu dute

b. Aintzane oso gozozalea da

(22a) adibidearen *zuzendari* NPa eta (22b) adibidearen *oso gozozalea* APa, hurrenez hurren, *Miren* eta *Aintzane* subjektuez predikatzen dira. Subjektuaren ezaugarriak adierazten dituzten izen edo izenondoaren kategoriako predikatu hauei 'izenki-predikatu' deritze, (20) adibidearenak bezalako gertaerak adierazten dituzten 'adizki-predikatuetatik' bereiztearren.[28]

Edonola, izenki-predikatuak ez dira gai perpausak eratzeko, eta horrexegatik, beti behar dute nolabaiteko aditzaren euskarria: (22a) adibidearen kasuan *hautatu* aditza eta (22b) adibidean *izan* aditza. Ezberdintasun horren arrazoia, izenondoek edo izenek subjektuari kasua ezar diezaiokeen sintaxi-egitura 'islatzeko' ahalmenik ez izatean bide datza: aditzek, jakina, badute perpaus osoak eratzeko ahalmena eta beraz beraien argumentuei (eta ikusiko dugunez, baita izenki-predikatuenei) kasua esleitzeko behar diren baldintzak betetzen dituzte. Horrenbestez, (22) perpausak (21) erregelaren bidez analizatzen baditugu, (23) bezalako egiturak ditugu, izenki-predikatua adizki-predikatuaren barruan dagoelarik.

(23) a. [NP Sailkideek] [VP Miren [NP zuzendari] hautatu dute]
b. [NP Aintzane] [VP [AP oso gozozalea] da]

Bestetik, VParen barnean leundekeen izenki-predikatuen artean, bi jokaera bereiz daitezke: batzuk, ezinbestekoak dira perpausa onargarria izateko (24a); beste batzuk, ordea, ezaba daitezke perpausaren gramatikaltasunean eraginik utzi gabe edo perpausaren esangura aldatu gabe (24b). Ohizko gramatiketan, loturazko aditz gisa ezagutzen dira izenki-predikatua eskatzen duten *izan, egon* edo *irudi(tu)* bezalako aditzak. Perpaus arrunten VPak ere, ezinbestekoak dira, subjektu soila duen perpausik ez baitago (24c)

(24) a. *[NP Aintzane] [VP da]

---

28 Bigaren atalean ikusiko dugunez, PP eta AdvP kategoriako izenki-predikatuak ere badaude.

b. [NP Sailkideek [VP Miren hautatu dute]
c. *[NP Amak]

Gramatika Sortzailearen arabera, ezinbesteko izenki-predikatuak (24a) Varen osagarriak diren bitartean, aukerako predikatuak, 'adjunktuak' dira. Horren arabera, bi sail bereizten dira predikatuen artean: alde batetik, perpausen oinarrizko osagaiak diren VPak eta loturazko aditzen osagarriak diren ezinbesteko izenki-predikatuak biltzen dituen saila dugu ('lehen mailako predikatuak') eta bestetik, adjunktuak diren predikatuak biltzen dituen saila ('bigarren mailako predikatuak'), azken hauek beti izenki-predikatuak direlarik.

Areago, bigarren mailako predikatuen subjektutzat jotzen dugun osagaia, perpaus matrizearen aditzaren argumentua ere izaten dela dirudi: batzuetan, subjektua eta beste batzuetan, objektu zuzena.

(25) a. Jon oso nekatuta itzuli da bidaiatik.
b. Anderrek liburua guztiz hondatuta itzuli dit.

Adibidez, (25a) esaldian, *oso nekatuta* izenki-predikatuaren subjektua, *Jon* da, era berean *oso nekatuta itzuli da bidaiatik* adizki-predikatuaren subjektutzat jotzen dugularik. (25b) adibidean berriz, *guztiz hondatuta* izenki-predikatuaren subjektua (*liburua*), *itzuli* aditzaren osagarri zuzena litzateke. Horrenbestez, 'subjektuari zuzenduriko' eta 'objektuari zuzenduriko' izenki-predikatuez mintzatzen da.

Bukatzeko, izenki-predikatu batzuek beren subjektuek berez dituzten ezaugarriak adierazten dituzten bitartean (26a), beste batzuek, subjektuak aditz matrizearen ekintzaren ondorioz lortzen dituen ezaugarriak ematen dituzte aditzera (26b) (azken hauek beti izaten dira objektuari zuzendurikoak). Hori dela eta, 'predikatu deskribatzaileez' (lehenengo kasuan) eta 'ondoriozko predikatuez' (bigarren kasuan) mintzatzen da.[29]

---

29 'Resultative' and 'depictive' predicates (Halliday, 1967; Levin & Simpson,1981; Simpson,1982; Rothstein, 1983).

(26) a. Jonek azenarioak gordinik jaten ditu.
b. Koadroa okertuta zintzilikatu dut.

(26a) adibidean, esate baterako, *gordinik* azenarioak inok jan aurretik zeukaten ezaugarria da eta predikatu deskribatzailea dela esan dezakegu. *Okertuta egotea* berriz, koadroak zintzilikatu arte ez duen ezaugarria da; hau da, zintzilikatzearen ondoriozko egoera da, eta beraz, ondoriozko predikatutzat har dezakegu.

Beste alde batetik, *Jonek azenarioak gordinik jaten ditu* esaten dugunean, bai *Jonek* eta bai *azenarioak* ere *jan* aditzaren argumentuak direla dirudi baina gainera, *gordinik* izenki-predikatua ere badugu esaldi horretan, haren subjektutzat *azenarioak* argumentua ere hartzen dugularik. Horrenbestez, *azenarioak* argumentuak bi θ-paper jasoko luke: bata *jan* aditzetik eta bestea, *gordinik* izenki-predikatuaren burutik. Gertaera honek, Chomsky-ren (1981) θ-Irizpidearen aurka doa, argumentu batek bi θ-paper hartzen baitu.

Rothstein-ek (1983), datu horietan oinarrituz, ondoko definizioak eskaini ditu lehen eta bigarren mailako predikatuetarako.[30]

(27) (i) X, Y-ren **bigarren mailako predikatua** da bbaldin Y, X ez den buru lexiko batek θ-markatzen badu.
(ii) X, Y-ren **lehen mailako predikatua** da bbaldin X eta Y-k θ-markaturik dagoen edo [+INFL] den osagai bat osotzen badute.

θ-irizpidearen bortxaketaren arazoari irtenbidea emateko, Schein-ek (1982) definizio eraldatu bat proposatu du, argumentu bakoitzak paper tematiko

---

[30] Rothstein, eta ondoren aipatuko dugun Schein ere, Williams-en 'predikazioaren teorien' defendatzaileen artean sar daitezke.

bakar bat hartzeko baldintza argumentu bakoitzak paperen bat hartzeko baldintzara murriztuz.[31]

Jatorrizko θ-irizpidea mantendu ahal izateko aukera bat, bigarren mailako predikatuen subjektua PRO kategoriakoa dela defendatzea da: horrela predikatu bakoitzak bere argumentuak hautatuko lituzke eta argumentuek ez lukete paper bat baino gehiago hartuko.

(28) a. Jonek azenarioak gordinik jaten ditu
b. [Jonek [azenarioak jan]$_{VP}$ [PRO gordinik]]$_{S}$

Horixe da hain zuzen 'Perpaus Txikien Teoriaren' defendatzaileek (Stowell, 1983, 1991; Safir, 1983; Hoekstra, 1988) bigarren mailako predikatuetarako proposatzen duten barne-egitura. Analisi horren bidez predikazioaren teoria klausalak, azpikategorizaturiko predikatuetarako ezezik, bigarren mailako predikatuetarako ere balio du. Bestetik, θ-Irizpidea formulaziorik murriztaileenean mantentzea baimentzen du.

Baina ideia hori defendatu ahal izateko, PRO beteko lukeen gune hori gobernatu gabekoa izan daitekeela frogatu behar da. 'Predikazioaren Teoria' garatu duten egileek (Williams, 1983; Rothstein,1983; Mc Nulty, 1988), ezeztatu egin dute PRO kategoriaren gune hori gobernatu gabea izateko aukera: hainbat modutara bigarren mailako predikatuak VParen barnean txertatzen direla frogatu dute, eta kokapen horretan PRO gobernaturik legokeenez, ezinezkoa dela defendatu dute.

Predikatu osagarrietara itziliz, gogora dezagun predikatuak θ-paperik ez duten islapen nagusi modura zehaz daitezkeela. Horrek nolabaiteko arazoa ekartzen digu lehen mailako predikatu osagarrien kasuan: edozein buru lexikoren osagarriaren gunea argumentala da beti 'Islapenaren Oinarriaren' ondorioz hain zuzen ere. Osagarriaren gune horretan txertatzen den edozein

---

[31] Hona hemen Θ-irizpidearen bigarren zatirako, Schein-ek proposatu duen birformulazioa:

"Any two theta-roles Θ_1 and Θ_2 cannot be assigned to the same NP if and only if the α that selects Θ_1 also selects Θ_2"

islapen nagusi, beraz, θ-markaturik gertatzen da. Horrela, predikatu-islapen nagusiak buru lexikoen osagarri modura txertatuko balira, θ-markaturik geratuko lirateke, predikatu modura bereizten dituen ezaugarri ez-argumentala galdurik.

Hala ere, badirudi zenbait aditzek (*izan, egon, hartu,...*) predikatutzat hartu behar direnak eskatzen dituztela eta beraz predikatu hauek osagarritzat hartu behar ditugula. Arazo horri irtenbidea emateko, lan honetan, predikatuak egitura zabalago batean ([$_{YP}$ NP XP]) babesturik daudela defendatuko dugu. Modu horretara, buru lexiko ahizpatik paper tematikoa jasotzen duena osagairik zabalena da (YP), predikatua (XP) θ-markaketatik babestuta geratzen delarik. Horixe da hain zuzen lan honen oinarrizko proposamenetariko bat; zehazkiago 'Perpaus Txikien Teoria' edo 'Predikazioaren Teoria klausala' (zenbait ohar eginez bada ere) defendatzera eramango gaituen proposamena.

Bigarren mailako predikatuei dagokienez, lan honetan, euskararen kasuan ere bigarren mailako predikatuak VParen barnean sortzen direla frogatuko dugu (ikus hirugarren atalaren 3.4.2. azpisaila). Bestetik, beraien subjektua PRO kategoria isilekoa dela ere defendatuko dugu 'perpaus txikien teoriaren' defendatzaileek bezala. Williams-ek, eta 'predikazioaren teorien defendatzaileek' konfigurazio horretan PRO gobernatua dagoelako oharrari erantzunez, PRO berak eta predikatuak islapen funtzional batean sarturik egon behar dutela defendatuko dugu lehen mailako predikatuetarako egin dugun bezala: [$_{YP}$ PRO XP]. Hirugarren atalean, konfigurazio honetan PROaren gunea gobernatu gabea dela frogatutzat utziko dugu.

VP motako predikatuetara murriztuz, badirudi beren sintaxi-konfigurazioa azken batean subjektuari esleitzen zaion paper tematikoaren araberakoa izaten dela: horrela, aditz 'iragankorrak' (bi argumentu hautatzen dutenak) eta 'iragangaitzak' (argumentu bakarrekoak), eta azken multzo honen barnean, 'inakusatiboak' eta 'inergatiboak' bereizten dira gaur egun. Aditz inakusatiboen subjektuak, jasale edo esperimentatzailearen papera hartzen du (hizkuntza akusatiboetan) eta Varen ahizpa modura sortzen da (Burzio, 1981). Baina, aditz iragankorren eta inergatiboen subjektuen sorrera-gunearen finkapena korapilotsuagoa da: ohituraz Inflexioaren

espezifikatzailean sortzen direla defendatu bada ere, azkenaldian, ez dira falta subjektu horiek ere VParen barnean sortzen direla proposatu duten egileak (Fukui, 1986, Speas, 1986, Abney, 1987, Koopman &Sportiche, 1988; Kuroda, 1988).

Baina, gainerako gramatika-kategorien islapen nagusiek ere (AP, NP, PP), nolabaiteko predikatuak era ditzakete, hiztegitik zehazturik duten argumentu-egitura X'-Teoriaren arabera islatuz. X'-Teoria edozein gramatika-kategoriatako edozein X° buruak islatzeko orduan bete behar badu, aditzen artean ikus daitezkeen hiru sailak predikatuak isla ditzaketen bestelako kategorietan ere aurkitzea espero daiteke. Izan ere, Cinque-k (1990) italierarako bi argumentuko eta argumentu bakarreko esapideen arteko txandakaketak dituzten izenondoak jarri ditu agerian (ikus hirugarren atalaren 3.3.6.2. azpisaila). Aditzetarako erabili izan den terminologia ezarriz, 'izenondo iragankor' eta ' izenondo iragangaitzez' hitz egin liteke.

Bigarren pauso bat emanik, Cinque-k berak, izenondo 'iragangaitzen' artean 'inergatiboen' eta 'inakusatiboen' azpimultzoak behar litezkeela suposatu du, eta bi talde horiek benetan bereizgarriak direla frogatu du italierarako, sintaxizko zenbait froga erabiliz (ikus 3.3.6.4. azpisaila).

Euskararen kasuan, bestelako hizkuntzetan bezala 'aditz iragankorrak'(*eman, bota,...*) eta 'aditz iragangaitzak' (*joan, bazkaldu,...*) bereiz daitezke. Halaber, 'aditz iragangaitzen' artean, 'inakusatiboak' (*joan, erori, egon,...*) eta 'inergatiboak' (*bazkaldu,...*) daude. Azken bi aditz-multzo horiek bereizten dituen sintaxizko froga garbiena, hurrenez hurren *izan* edo ° *edun* laguntzailea eskatzea da.


(29) a. Amak zure praka zaharrak zaramara bota ditu
b. Eskegitokian zeuden prakak kalera erori dira
c. Gaur etxean bazkalduko dugu


Predikatu-buruak izan daitezkeen bestelako gramatika-kategorien artean ere, hiru azpimultzo horiek egotea espero daiteke eta hala dela frogatzen saiatuko gara hirugarren atalaren 3.3.6. azpisailean: euskaraz ere, aditzetatik kanpo, predikatu-buruak izan daitezkeen hiztegi-sarreren artean argumentu bakar bat

edo argumentu bat baino gehiago eskatzen dutenak daude. Predikatu-buru horiek, mota desberdinetako XP predikatuak islatzen dituzte eta horren arabera, mota jakin bateko laguntzailea (NOR, NOR-NORK, NOR-NORI) eskatzen dute.

(30) a. Liburu hau berria da
b. Haurrak zapata berriak txikiak ditu
c. Mikeli lagun hori kaltegarria zaio

Predikatu-mota guztiek 'Predikatu-loturaren Araua' (Rothstein, 1983) bete behar dute, hau da predikatuak argumentu egokiari lotuz itxi behar diren funtzio irekiak dira. Predikatua itxi egiten duen argumentu hori 'subjektua' da zalantzarik gabe, baina subjektu eta predikatuaren arteko lotura gertatzen deneko maila eta modu zehatzak ez daude horren garbi: 'Predikazioaren Teorien' defendatzaileen ustez (Williams, 1980, 1983; Simpson, 1982; Rothstein , 1983) subjektua predikatuaren XP isladapen nagusitik kanpo sortzen den predikatuaren argumentu bakarra da (31a), argumentu horrek predikatua komandatu behar duelarik.[32] Beste ikuspegia Stowell-ena (1983) da: subjektua XP islapen nagusiaren espezifikatzailean sortzen den argumentua da, X edozein gramatika-kategoria (N, A, P) izanik (31b). Laburbilduz, subjektua XPtik kanpo edo XParen barnean sortzean legoke bi teoria horien arteko ezberdintasuna.

(31) a. 

b. 


Lan honetan, muturreko bi teoria horiek elkar ditzakeen ikuspegi bat defendatuko dugu: edozein kategoriatako predikatu-buruen (X°) argumentu guztiak, dagokien XP islapen nagusiaren barnean sortzen dira. Horrela, predikatuen D-egituraren adierazpena (32a), Stowell-ek proposaturikoaren

---

[32] Hemen ez gara sartuko 'komando-harreman' horren izaera zehatza eztabaidatzen, egileek hainbat proposamen egin baitituzte: Williams-en (1980) arabera c-komandoa da harreman hori; Rothstein-en (1983) arabera, m-komandoa, eta Demonte-ren (1987,1988) arabera subjektu eta predikatu orok elkar m-komandatu behar dute.

antzekoa liteke; baina subjektua, geure iritziz, ez da beti espezifikatzailean sorturiko argumentua: aditz inakusatiboak eta inergatiboak bereizten dituen ezaugarria hain zuzen, subjektua hurrenez hurren osagarrian edo espezifikatzailean sortzea da. Areago, espezifikatzailean sorturiko argumentu bat eta osagarrian sorturiko beste bat dituzten aditz iragankorren kasuan ere, bata zein bestea hauta daiteke perpausaren subjektu modura, eraikuntza aktiboa edo pasiboa eratuz.

(32)



Subjektuaren funtzioa hartuko duen argumentua S-egiturarako pausoan (32b, c) erabakitzen dela defendatuko dugu, normalean kasuaren beharren eraginez argumentu bat (edo gehiago) XPtik kanpo ateratakoan. Azkenik, S-egituran lortzen den konfigurazioa 'Predikazioaren Teorien' defendatzaileek proposaturikoaren antzekoa da: subjektua XPtik kanpo kokatzen da. Halaber, Rothstein-en arabera 'subjektu' bati lotuz ixten den predikatu guztieen hutsunea, subjektu modura jokatzen duen argumentuak mugitzean utziriko aztarna dela proposatuko dugu, logika-mailako definizioari sintaxizko zentzua emanez.[33]


Bigarren mailako predikatuetara itzuliz, islapen funtzional horrek, PRO kategoria isilak betetzen duen gunea kanpoko gobernutik babesteaz gain, predikatuaren argumentu baten mugimendua baimentzen du, predikatuaren definizioaren arabera behar den hutsunea sortuz (33). Horrela, lehenengo eta

---

[33] (32) zuhaitzetan ez dugu adierazi XParen espezifikatzailean sorturiko argumentua eta osagarri modura sorturikoa XPtik kanpo ateratzen direneko kasua. Edonola , kasu horretan ere, kanporaturiko argumentuetariko bat baino ez da joko subjektutzat. Horrenbestez, (32a) adierazpena, kasu horren bitarteko adierazpena litzateke: argumentu bat mugitu da, bestea oraindik jatorrizko gunean dagoelarik

bigarren mailako predikatuen arteko ezberdintasunak, YP islapen horren izaerari eta YP hori txertaturik dagoeneko mailari murrizturik geratuko lirateke.

(33)




Beraz, lan honetan predikazio-harreman guztietarako balio dezakeen analisi orokor bat lortuko dugu, areago, 'X'-Teoria', 'θ-irizpidea' eta 'Islapenaren Oinarria' eta halaber 'argumentu' eta 'predikatuen' arteko bereizketa inolako aldaketarik gabe mantentzen dituen analisia.

1.3.3. Perpausaren adierazpenaren eboluzioa

GBaren oinarriak laburtu ondoren, begira diezaiegun berriro subjektu/predikatu harremari eta bi islapen nagusi horiek biltzen dituen kategoriari. Ohituraz, predikatua VP kategoriakoa denean behintzat, NP (subjektua) eta VP (predikatua) S ikurraz adierazitako kategoriaren azpian kokatu dira zuhaitzetan eta nolabaiteko konplementatzaileak hartzeko gai diren perpausen kasuan, konplementatzailea (COMP) eta S, S' mailaren bidez adierazitako kategoriaren azpian txertatu dira.

(34)



Horrela ba, Chonsky-ren (1981) lanean, konplementatzailea hartzeko gai diren S' mailako perpausez (*clauses*) (35) eta konplementatzailerik ez hartzeaz gain, geroxeago aipatuko ditugun beste ezaugarri batzuk dituzten S mailako perpausez (*Exceptional Clauses*) (36) mintzatu da.

(35) I think [$_{S'}$ that [s John is intelligent]

(36) I consider [$_{S}$John to be intelligent]

Jokaturiko aditz bat dagoen bakoitzean predikatu baten aurrean gaudela garbi samar badago ere, jokatugabeko adizkiak ditugunean (partizipio eta aditz-izenaz eraikitako kasu-markadun adizkiak), zalantzagarriago gertatzen dira subjektu/predikatu harremanak. Areago, aditzak ez dira predikatuak eraiki ditzaketen kategoria bakarrak: hor ditugu izenondoak, izenak eta preposizioak ere, eta kasu hauetan, izenki-predikatuez mintzatzen da. Are zailago gertatzen da, subjektu/predikatu harreman bera ikustea eta zailago oraindik bildu behar dituen egitura zein kategoriatakoa den zehaztea.

Adibide paradigmatiko modura, (37) eskain daiteke: *intelligent* (izenki-predikatua) eta *John* (bere subjektua), nolabaiteko predikazio-harremanaz loturik daude. Hala ere, 'Predikazioaren Teoriaren' arabera (37a) delakoaren antzeko egitura proposatu beharko litzatekeen bitartean, 'Perpaus Txikien Teorian', (37b) delakoaren antzeko zerbait proposatu behar litzateke.

(37) I consider John intelligent
a. I consider [NP John] [AP intelligent]
b. I consider [SC John intelligent]


Bistan da bi adierazpen horiek behar den bezain zehatzak ez direla: (37a) adierazpenean, 'Adarkaketa Bikoitzaren Oinarria' bortxatu nahi ez badugu, NP eta AP beste kategoria desberdin bat emateko elkartu behar ditugu, hori endozentrizitatearen baldintzaren aurka lihoakeelarik. (37b) analisian SC kategoriaren azpian bildu dugu subjektuak eta predikatuak osotuko luketen osagaia: garbi dago ikur horrek X'-Teoriaren ikuspegitik inolako esangarritasunik ez duela. Antzeko zerbait gertatzen da S eta S' kategorien kasuan, baina SC ikur horretan, perpaus-mailako bi kategoria horiekiko (S, S') harremana ere, ez da inola ere garbia.

Beraz, modu batera zein bestera, subjektu eta predikatua biltzen dituzten osagai hauek (S, S', SC), berehala gertatzen dira susmagarri X'-teoriaren ikuspegitik, endozentrizitatearen baldintza alde batera uzten baitute: alde batetik, uztardurarekin zerikusia duten gertaerek, hizkuntza konfigurazionaletan subjektu eta osagarri zuzenaren artean nolabaiteko asimetria behar dela eman dute aditzera, eta bestetik, perpausek, sintagma guztiek bezala, nolabaiteko buruaren bi barrako islapenak izan behar lukete.

Horrela ba, endozentrizitatearen baldintza aintzakotzat harturik, subjektu eta predikatua biltzen dituena I(nflexio) izeneko buruaren islapen nagusia dela proposatu da (Chomsky, 1986a). Modu honetara, IP maila, aurreko lanetako S mailari legokioke eta ohizko kategoria lexikoak bezala islatuko litzateke: I buruak VP sintagma hartuko luke osagarri modura I' emateko eta hori espezifikatzailearekin (subjektuarekin) elkartuz, IP islapen nagusia lortuko litzateke.

Bestetik, IP osagai hori konplementatzaile (C) delako buruaren osagarri modura txertatuko litzateke C' emateko, eta azken hau bere espezifikatzaileari lotuz, CP maila, hots, aintzinako S' maila lortuko genuke.[34]

(38)



Edozein kasutan ere, kategorien arteko muga-arazoak azaltzen dira beste arlo batzuetan bezala, beti pentsa baitaiteke perpaus guztiak CP mailakoak direla, eta batzuek konplementatzailea hutsik dutela (horrela, ez genuke perpaus batzuk IP mailakoak direla pentsatzeko beharrik).

I eta C buruei 'buru funtzional' izena eman zaie, ohizko 'buru lexikoetatik' bereiztearren. Modu honetara, X'-teoriari falta zitzaion azalpen-orokortasuna eskaini zaio eta subjektu eta objektuaren arteko asimetriak azaltzea lortu da (objektua VP sintagmaren barnean sortzen den bitartean, subjektua IP sintagmaren espezifikatzailean kokatzen da). Bestetik, I(nfl)ek, buru lexikoa ez denez, ez du bere osagarriaren kokagunean agertzen den VP predikatua θ-markatzen, aurretik eskainitako predikatuen definizioa bere osotasunean betetzen delarik.

Horrela, S eta S' mailak X'-teoriari ongi moldaturik geratu direla esan daitekeen bitartean, SC motako eraikuntzei dagokien maila egokitua ez dago inola ere garbi. SC itxurako osagairik ba ote dagoen eztabaidatu duen

---

[34] (38) zuhaitzean adierazi duguna D-egiturari legokioke. Horrela ba, CParen eta VParen espezifikatzaileak hutsik daudela suposatu dugu. Horrexegatik ez dugu ez C' ez eta V' maila marraztu: X'-Teoriak X° eta X'' (=XP) egotea baizik ez digu eskatzen, X' maila espezifikatzailea beterik dagoenean adierazten delarik.

IParen kasuan adibidez, espezifikatzailea beterik duenez, adierazi egin dugu I' maila hori.

polemikarekin batera, osagai horri legokiokeen mailaren arazoa ere eztabaidatua da.

Stowell-ek (1981, 1983), mota desberdinetako aditzek kategoria desberdinetako perpaus txikiak hautatzen dituztela azpimarratu du: *to find* aditzak izenondo bat daramaten perpaus txikiak hautatzen ditu (39a), eta ez ditu onartzen preposizio bat duten perpaus txikiak (40a). *To expect* aditzak berriz, preposizioak onartzen ditu (39b), baina ez izenondoak (40b).

(39) a. John finds Bill absolutely crazy
b. I expected that man off my shipp

(40) a.*John find that man off my shipp
b.*I expected Bill absolutely crazy

Datu horretatik abiatuta, V nagusiaren osagarri modura txertatzen denak, predikatu-buruaren kategoriako osagai bat izan behar duela defendatu du: SCak beren predikatu-buruen (N, A, V, P) islapen nagusiak lirateke eta subjektua islapen horien espezifikatzailean txertatuko litzateke.

(41) a. John finds [$_{AP}$ [$_{NP}$Bill] [$_{A'}$[$_{A}$absolutely crazy]]]
b. I expect [$_{PP}$ [$_{NP}$that man] [$_{P'}$ off my shipp]]

Garbi dago, analisi honek abantaila nabariak dituela: alde batetik, aditzen hautapen-eskakizunen berri ematen du, eta bestetik, perpaus txikietarako ere, X'-Teoriaren eskakizunak betetzen dituen adierazpena lortzen du. Areago, Ven kasuan, argumentu guztiak VP islapen nagusiaren barnean sortzen direla (Fukui, 1986; Speas, 19866, Abney, 1987; Koopman & Sportiche, 1988; Kuroda, 1988) onartu den bezala, beste kategorietako predikatuetarako ere, argumentu guztiak haien islapen nagusien barnean (AP, NP, PP) sortzen direla onar daiteke.

Hala ere, Stowell-en analisiak, desabantailak ere baditu. Hasteko, hizkuntza askotan, hala nola ingelesaz eta gaztelaniaz, azpikategorizaturiko

SC hauen subjektuak akusatibo kasua hartzen du (42), eta beraz kasua aditz matrizeak ezartzen diola pentsatu behar da (Kasu-ezarketa berezia).[35]

(42) a. I consider [SC [NP him] [AP intelligent]]
b. Considero [SC [NP a María] [AP inteligente]]

Kasu-ezarketa gobernupean gertatzen dela eta gobernu-harremanak c-komandoaren eta tarteko hesirik ezaren baldintzak bete behar dituela ere hartu behar da kontutan. Horrela Chomsky-k (1981) islapen nagusi guztiak hesiak direlako onarpenetik abiaturik, halabeharrez defendatu behar zuen SCak ezin izan zitezkeela islapen nagusiak, eta S mailakoak zirela defendatu zuen.: Stowell-en arabera (42) adibideetako SCen kategoria AP litzateke (43); beraz, SCak islapen nagusiak lirateke. Zaila litzateke orduan, *to consider* edo *considerar* aditzak AParen barneko subjektua gobernatzea eta akusatibo kasua ezartzea.

(43) a. I consider [AP [NP him] [A'[A intelligent]]]
b. Considero [AP [NP a María][A' [A inteligente]]]

Hala ere, Chonsky-ren (1986a) hesiaren definizioan, oztopo honetarako garrantzi handia izan dezakeen aldaketa egin da: lexikoki markaturiko (L-markaturiko) islapen nagusiek ez dute hesi modura jokatzen; eta beraz, (43) bezalako SCen kasuan, posible da subjektuari kasua islapen nagusiaren kanpo-aldetik esleitzea, zeren eta SC hori, islapen nagusia izanik ere, aditz matrizeak lexikoki hautatzen baitu.


Kasu-ezarketa bereziaren arazo hau konponduta utzirik ere, Stowell-en analisiari, kritika gehiago egin dakioke: hasteko, analisi horretan ez dago garbi, predikatua X' edo XP mailako kategoria ote den (Radford, 1988). Orain arte eskaini ditugun definizioen arabera, interesgarriago dirudi predikatua XP kategoria nagusia izatea, eta beraz, hori onartuko dugu. Baina orduan, predikatuak, Varen hautaketa-harremanean parte hartzeaz gain (41), θ-paper bat jasoko luke V horretatik, bere osagarria baita. Azken hori predikatuak θ-markatu gabeko islapen nagusiak direlako definizioaren aurka

---


[35] 'Exceptional Case Marking' (ECM) Chonsky-ren (1981) lanean.

lihoake. Arazo hori konpontzeko hain zuzen proposatu dugu XP predikatu hori, beste islapen baten barnean egon behar duela. Islapen hori gainera kategoria funtzionaletakoa izan beharko du, kategoria lexikoa balitz bere buruaren osagarri modura txertariko predikatua berriro ere θ-markaturik gertatuko bailitzate. Ikus gure proposamenaren (44b) eta Stowell-en proposamenaren (44a) artean dagoen aldea.

(44) a.



b.



FP hori, perpaus arrunten IP kategoriaren antzeko zerbait litzateke. Radford-ek (1988) antzeko intuizioa izan du, SCek Infl abstraktu baten islapenak izan beharko luketela defendatu duenean. Arazoa, kategoria horren izaera zehatza finkatzean sortzen da.

Perpausaren egiturara itzuliz, VP eta IP islapenen artean egitura gehiago egon behar duela argudiatu du Pollock-ek (1989) frantsesa eta ingelesaren ezeztapen-adberbioen banaketa aztertzean. Bestetik, buruek elementu bakar bat (T, AGR, ...) izan behar dutela defendatu du.

Horrela, Pollock-ek (1989) eta baita Chomsky-k (1989) ere, aldiak eta komunztadurak, ezaugarri hutsak izan gabe, beraiek ere buru independienteak izan behar dutela proposatu dute,[36] berorien antolaketa-ordenan bat etorri ez badira ere: Pollok-ek TP delakoak AgrP menperatzen duela proposatu duen bitartean, Chomsky-k aurkako ordena defendatu du. Areago, Chomsky-k (1989) TP eta VParen artean objektuari dagokion komunztadura ezarriko lukeen beste buru funtzional batek (Agr-o) egon behar lukeela defendatu du Kayne-ri (1985) jarraiki.


Horretaz gain, aditzek (edo behintzat aditz batzuek) aspektuaren zehaztapenak eramango lituzkeen AspP kategoria funtzionala islatzeko gai

---

[36] Chomsky-ren arabera (1986a), INFL adabegiak komunztadura [± AGR] eta aldiari [±TEMP] dagozkien ezaugarriak biltzen ditu.

lirateke. Horrenbestez, kategoria horiek guztiak dituen perpaus bat, (45) zuhaitzaren itxura izango luke, 'burua-azken' motako euskara bezalako hizkuntza baten kasuan.

(45)



Perpaus arruntetan horrenbeste islapen funtzional dagoela pentsa badaiteke, ez dirudi perpaus txikietarako nolabaiteko zentzua izan dezakeen kategoria funtzional bat aurkitzea horren zaila izan behar duenik.


Raposo & Uriagereka-k (1990) adibidez, PP bat duten (46a) eta izenondo bat duten (46b) portugesezko SCen subjektuek azaltzen dituzte kasu-ezberdintasunak aztertu dituztenean, AgrP motako islapen funtzional bat proposatu dute bigarrenetarako, horietan izenondo-predikatuaren eta subjektuaren artean zenbaki eta jenerozko komunztadura azaltzen baita.

(46) a. Nesse hospital, [e] continuava hoje [$_{SC}$[o meu amigo] sem assistência médica]]

b. Nesse hospital, [o meu amigo]$_i$ continuava hoje [$_{SC}$ t_i doente]

Chomsky-k (1992) ere, AP predikatiboen gainean Agr_AP islapen funtzionala dagoela eta islapen horretan espezifikatzaile/buru harremanaren bidez subjektu eta izenki-predikatuaren arteko komunztadura ezartzen dela onartu du. (47) zuhaitzaren antzeko zerbait izango genuke euskara bezala 'burua-azken' motakoa litzatekeen hizkuntza baterako.

(47)



AgrP islapen funtzional soila dagoela pentsatu beharrean, GenP eta NuP ere badaudela pentsa daiteke (Picallo, 1992). Horrela, gaztelaniak bezala, jenero eta zenbakizko komunztadura duten hizkuntzek bi islapen funtzionalak izango lituzketen bitartean, euskarak bezala, zenbakizko komunztadura baizik ez duten hizkuntzek, NuP islapena izango lukete soilik.

Islapen funtzionalen arloan aztergai gerta daitekeen beste arazo bat, SCen aspektu-ezaugarriei dagokiena da. Lan ugari dago, loturazko aditzek hautatzen dituzten izenki-predikatuen aspektu-ezaugarrien inguruan.[37] Bestetik, predikatuen argumentu-egituran predikatu hauek adierazten duten 'gertaerari' dagokion 'e-argumentu' bat badagoela proposatu da. Horrelako argumentua, egile batzuen iritziz, ekintza-aditzen hiztegi-sarreretan baino ez legoke (Davidson, 1967; Kratzer, 1988, Bosque, 1990); beste egile batzuen aburuz ostera, aditz estatiboek eta zenbait izenondok ere, izango lukete horrelako argumentua (Higginbothan, 1985,1987; Jackendoff, 1987).

Bestetik, Roberts-en arabera (1985), predikatu guztiak (izenki-predikatuak zein adizki-predikatuak izanik), aspektualki interpretatu behar dira, aspektu-interpretazio horrek subjektu baten eskakizunarekiko harreman estuetan dagoelarik. Gainera, SC desberdinen aspektu-ezaugarri desberdinak ere, azpimarratu ditu: *John considers* [*it obvious that S*] / *John mades* [*it apparent that S*]. Horrenbestez, SCen inguruan gertatzen diren hautaketa-gertaeren berri emateko, kategoria-hautaketaz gain, aspektu-hautaketa ere har daiteke kontutan.


---

[37] Ikus adibidez: Falk, 1979; Bolinger, 1967; Lujan, 1980, 1981; Hernanz, 1988; Clements, 1988; Bosque, 1990...

Tenny-k (1987) goian aipaturiko e-argumentu hori sintaxian Asp buru funtzionalaren bidez islatzen dela defendatu du, eta horrez gero ez dira gutxi perpausen analisietan AspP kategoria funtzionala gaineratu dutenak (gaztelaniarako, De Miguel, 1990; Bosque, 1990; Hernanz, 1990 eta euskararako, Oyharçabal, 1990; Laka, 1989).

Izan ere, Kratzer-en (1988) arabera, predikatuen artean, bi sail egin daiteke: e-argumentua duten 'egoera-mailako predikatuak' eta e-argumenturik ez duten 'izaki-mailako predikatuak'. Ezaugarri hau AspP kategoria islatzeko ahalmenari lotuz, 'egoera-mailako predikatuak' AspP kategoria funtzionala islatzen dutenak dira eta 'izaki-mailako predikatuak' horrelako kategoriarik islatzen ez dutenak. Lan honetan, 'izaki-mailako predikatuak', ia beren osotasunean NuP kategoria islatzen dutenekin bat datozela (48a) eta 'egoera-mailako predikatuak' (48b) zuhaitzean bezala islazen direla defendatuko dugu.


(48)




Laugarren atalean ikusiko dugunez, euskaraz, AspP kategorian normalean ez da komunztadurarik gertatzen, baina zenbait kategoriatako hiztegi-sarreraren kasuan eta zenbait euskalkitan, posible da komunztadura hori.

Bukatzeko, perpaus txikien islapen funtzional hori zenbaitetan PP kategoriakoa dela ikusiko dugu: posposizioen artean, batzuk predikatuen buruei dagozkie eta beraz lexikoak dira (inesibokoa adibidez), eta beste batzuek (prolatiboa adibidez), predikatuak hartzen dituzte osagarri modura eta beraz, kategoria funtzionalei dagozkie. Konparatu adibidez, (49a) adibideko eta (49b) adibideetako perpaus txikiak, lehenengoan preposizioa lexikoa den bitartean bigarrenean funtzionala delarik.

(49) a.



b.



Perpaus txikietarako proposatu ditugun analisi hauek abantaila ugari dituzte. Hasteko, perpaus txikietarako eta perpaus arruntetarako antzeko analisiak egitea baimentzen digu:

(i) Predikatuak beti izaten dira predikatu-buruaren islapen nagusiak, predikatu horren kategoria edozein izanik ere (VP, NP, AP, PP).

(ii) Predikatuek, beraien XP islapen nagusi horren barnean islatzen dituzte beren argumentu guztiak D-egituran.

(iii) Predikatu guztiak, nolabaiteko islapen funtzionalaren barnean daude eta subjektu / predikatu harremana islapen horren espezifikatzaile / buru harremanaren bidez lortzen da S-egituran, subjektua izango den argumentua espezifikatzailera eta predikatuaren burua burura mugitutakoan. Horrela, perpaus guztietarako X'-Teoriaren araberako islapen bikoitza eta endozentrikoa izatea lortu dugu.

(iv) Subjektuaren mugimendu horrek aztarna bat uzten du predikatuan. Horrela, predikatu guztiak subjektu bati lotuz betetzen den hutsune bat duten funtzio irekiak direlako definizioari sintaxian zentzua ematea lortzen da.

(v) Azpikategorizaturiko perpaus txikien kasuan, esan dugun bezala, aditz matrizetik paper tematiko bat jasotzen duena perpaus txiki osoa da eta ez islapen funtzionalaren barnean dagoen predikatua, predikatuak θ-markatu gabeko islapen nagusiak direlako definizioa bere osotasunean manten dezakegularik.

Hala ere, perpaus txikietarako islapen funtzional hauek proposatzean, arazo berri bat sortzen zaigu: ezin azal ditzakegu Stowell-ek agerian utziriko (39)

eta (40) adibideetako hautapen-gertaerak, aditzaren osagarri modura dagoena, eta beraz aditzak hautatzen duena, perpaus txiki osoa baita eta ez islapen funtzionalaren barneko predikatua. Arazo honi irtenbidea emateko, Grimshaw-en (1991) islapen hedatuaren definizioa behar dugu eta izan ere, horixe da hurrengo azpisailaren gaia.

1.3.4. Islapen lexikoak, islapen funtzionalak eta islapen hedatuak

Orain arte, bai buru lexikoak eta bai buru funtzionalak X'-teoriaren arabera islatzen direla onartu dugu. Bestetik, islapen lexikoak (l-islapenak) sarritan buru funtzionalen osagarri modura txertatzen direla ikusi dugu. Esate baterako VPak Iaren osagarri modura txertatu ohi dira. Perpaus txikien kasuan ere, AP, NP edo PP kategoriako predikatuak AspP, NuP edo PP islapen funtzionalen barnean txertatzen direla proposatu dugu. Era berean, islapen funtzionalak (f-islapenak) l-buruen osagarri modura txertatu ohi dira. Horrela, CP, DP, NuP, AspP edo PP mailako osagaiak aurki daitezke zenbait Vren osagarri gisa.

L-buruek, hiztegitik daramatzate zehazturik har ditzaketen (edo hartu behar dituzten) osagarrien motak, baina ez dirudi buru funtzionalek horrelako hautaketarik egin dezaketenik. Hala ere, Daren osagarri modura NP bat aurkitzea espero dugu, Iren osagarri modura VP bat aurkitzea espero dezakegun bezala.

Gertaera horien berri emateko, Grimshaw-ek (1991) 'Islapen Hedatuaren'[38] kontzeptua garatu du: N-D eta V-I sistemek hedaturiko islapenak osotuko lituzkete, kategoria-ezaugarri berberak izanik lexiko edo funtzional izateagatik baino bereiziko ez liratekeelarik.

X'-ereduari jarraiki, kategoriak, [±N, ±V] ezaugarrien arabera sailkatutako kategoria lexiko eta funtzionalak hain zuzen, hiru mailatan bana daitezke: L0

---


[38] 'Extended projection' Grimshaw-en (1991) berbetan.

mailako kategoriak (X°), L1 mailakoak (X') eta L2 mailakoak (XP). Adibidez, D' eta N' kategoriek, Grimshaw-en (1991) arabera, [+N, -V] ezaugarriak dituzte eta gainera, biak dira L1 mailakoak X'-sistemari begira.[39]

Areago, 'Islapen Hedatuen' kontzeptua garatu ahal izateko, egile berak, F0 eta F1 balioak proposatu ditu: l-kategoriek F0 balioa lukete eta f-kategoriek berriz, F1 balioa. Azpimarratu beharrrekoa da balio hauek X'-sistemaren mailen antzekoak direla.

Euskaraz eta aditz iragankor baterako honelako islapenak eta ezaugarriak genituzke.

(50)



VP eta V', Varen 'islapen perfektuak'[40] lirateke eta modu berean V, VParen eta V'aren 'buru perfektua' litzateke, VPk eta V'k V menperatzen baitute, eta hirurek kategoria-ezaugarri berberak izanik ([+V-N]) F-balio

---

[39] Azpimarratu beharrekoa da egile honen arabera f-buruak l-buruak sailkatzeko erabili ohi den ezaugarri-sistema berberaren bidez sailkatuko liratekeela.

[40] 'Perfect projections' Grimshaw-ren (1991) berbetan.

x is the perfect head of y, and y is the perfect projection of x iff:

(a) y dominates x,

(b) y and x share all categorial features,


(c) all nodes intervening between x and y share all categorial features

(d) and the F value of y is the same as the F value of x.

bera baitute. Horrenbestez, predikatu guztiak (VP, AP, NP, PP), beren predikatu buruaren islapen perfektuak direla esan daiteke.

Modu berean, IP kategoria, Varen 'islapen hedatua' da eta V burua, IParen buru hedatuetariko bat, beraiek eta tarteko adabegi guztiek ezaugarri berberak baitituzte eta Faren balio berberak ez izanik (hau da, islapen perfektua ez osoturik)[41] IParen F-balioa Varena baino altuagoa baita. Izenki-predikatuen kasuan, antzeko zerbait esan dezakegu: AspP, NuP edo PP kategoria funtzionalak A, N edo P predikatu-buruen islapen hedatuak dira, F1 balioa dutelarik. Hona hemen adibide bat.

(51)



'Islapen perfektu' eta 'islapen hedatuen' kontzeptu hauek Abney-ren (1987) 'c-islapen' eta 's-islapenen' kontzeptuen antzekoak dira hurrenez hurren.

---


[41] Islapen perfektua osotzen ez duteneko kasu soila aukeratu dugu definizio honetatik atera nahi dugun intuizioa erraztearren. Hala ere, esan beharrekoa da Grimshaw-en 'buru hedatuaren' definizioan ez dela ezinbestekoa islapen eta buru hedatuek islapen perfektu berean egon behar ez izatea. Horrela IParen buru hedatuen artean V ezezik, I, I', V' eta VP ere leudeke. Hona hemen egilearen definizio osoa:

> x is the extended head of y, and y is an extended projection of x iff:
> (a) y dominates x,
> (b) y and x share all categorial features,
> (c) all nodes intervening between x and y share all categorial features.
> (d) If x and y are not in the same perfect projection, the F value of y is higher than the F value of x

Hala ere, Abney-k buru funtzionalen teoriak zailtzen zuen s-hautaketaren arazoa gainditzeko erabili dituen bitartean,[42] Grimshaw-ek sintaxi-balio osoa eman dizkie definizio hauei, eraiki duen eredua X'-teoriaren hedapen bat dela esan daitekeelarik. Horrela, s-hautaketa ezezik, c-hautaketa, komunztadura edo buruz buruko mugimenduak bezalako sintaxi-gertaerak azaltzeko ere erabili ditu.

Grimshaw-en lanaren laburpenera itzuliz, (50) adierazpenean VPa Iaren osagarria da eta baita islapen hedatu berberaren zati bat ere. Baina, edozein Vk eta osagarri modura duen DP batek (52a) edo perpaus txiki batek adibidez (52b), ez lukete islapen hedatu bat osotuko, sintaxi-kategoria berekoak ez baitira.

(52)



Modu berean, Vak osagarri modura IP edo CP bat hartzen badu, Vak eta IP edo CP horrek, kategoria-ezaugarri berberak izanik ere, ez dute islapen hedaturik eratzen, Varen F-balioa IP edo CParena baino baxuagoa baita (53).


---

[42] Izan ere, Pesetsky-ren (1982) 'c-hautaketa' eta 's-hautaketa' gertaeretan oinarrituz proposatu ditu Abney-k bi islapen-mota horiek: edozein adabegiren c-islapena, bere sintaxi-islapen arrunta da (X'-teoriaren araberako islapena); edozein adabegiren s-islapena berriz, adabegi horren eduki deskribatzaileak zeharkatzen dituen adabegiez osoturik dago.


Horrela, V, I eta C buruen c-islapen nagusiak, VP, IP eta CP lirateke hurrenez hurren; eta Varen s-islapen nagusia berriz, CP litzateke, IP tarteko s-islapen bat litzatekeelarik.

Pentsa dezagun adibidez V batek bere osagarrian har dezakeen izenaren semantika-ezaugarriak (esate baterako izen hori mugatu ala mugagabea ote den) hautatzen dituela. S-hautaketa hori erraz azal daiteke Varen osagarria NPa bada, baina DParen hipotesiari jarraiki, NP hori DP baten barnean badago, zail samarra da Naren semantika-ezaugarrien hautaketa azaltzea. Arazoa konponduta geratzen da S-hautaketarako aintzakotzat hartzen diren islapenak s-islapenak direla onartuz.

(53) a.




b.



Bestetik, IP hartu beharrean, bere zatiak (AspP, TP, AgrP,...) bereizten baditugu, aditzak bezala [+V-N] kategoriakoak direla pentsatu behar dugu. Halaber, F-balio desberdinak izan behar dituzte beraien arteko ordenaren arabera: x eta y f-islapenak badira eta x-ek y menperatzen badu, x-en F-balioak y-rena baino altuagoa izan behar du. Horrela, aurreko azpisailaren (45) zuhaitzaren kasuan, (54) zuhaitzean zehaztu diren Faren balioak genituzke.

(54)



F-islapenak, beraiekin islapen hedatuak eratzen dituzten osagarriekin konbinatzen dira; eta beraz, f-buruen eta beren osagarrien artean dagoen harremana ez da **hautaketa, islapena** baizik. Horrenbestez, F-buruak ez dira gai osagarri modura duten kategoria hautatzeko, eta islapenetan Faren balioak goranzkoa izan behar du beti. Pentsa dezagun adibidez, (54) adierazpenean F1 mailako kategoria funtzionala kenduko bagenu VParen lehen islapen hedatu nagusia AgrOP litzatekeela eta beraz F0 mailatik F2 mailara pasatuko ginatekeela: lortuko genukeen eratorpena ez litzateke egokia izango.

Bistan da ikuspegi honetatik perpausak Ven islapen hedatuak liratekeela eta era berean, perpaus txikiak kategoria ezberdinetako predikatu-buruen islapen hedatuak liratekeela. Beraz, predikatu-buru guztiak berdin islatzen ez direnez, hainbat kategoriatako islapen hedatuak, eta beraz perpausak edo perpaus txikiak genituzke.

Perpaus txiki horiek predikatu-buruen islapen hedatuak liratekeenez, predikatu-buru horien gramatika-kategoria berekoak lirateke, perpaus txikiaren eta predikatuaren islapen perfektuaren artean legokeen ezberdintasun nagusia Faren balioa litekeelarik. Itzul gaitezen orduan, aurreko azpisailean konpontzeke utzi dugun arazora: itxuraz, izenki-predikatuak islapen funtzional batean sartuta egoteak aditz matrizearen eta predikatu horien gramatika-kategoriaren artean dagoen hautapena azaltzea galarazten digu. Islapen hedatuaren kontzeptua onarturik berriz, konponduta geratzen zaigu arazo hori ere, zeren perpaus txikia predikatu-buruaren islapen hedatua denez, predikatuaren gramatika-kategoria berekoa baita.

1.3.5. Kasu-ezarketa

Argumentuek, paper tematikodun islapenak izateaz gain, kasua behar dute 'kasuaren iragazkiaren' arabera. Bestetik, kasua gobernupean ezartzen dela ere onartzen da orokorki. Ohituraz, kategoria kasu-ezarle modura, aditza, inflexioa eta preposizioa sailkatu dira ([-N] ezaugarria duten kategoriak hain zuzen). Perpausaren konfigurazioa ikusteko GBaren arloan egon den eboluzioarekin batera, kasu-ezarketaren mekanismoak azaltzeko modua ere aldatu da. Atal honetan, ikuspuntu horien eboluzioa azaltzen saiatuko gara.

Chomsky-ri (1981) jarraiki, kasu-ezarketarako hainbat mekanismo egon daitezke: Inflexioaren espezifikatzailean kokaturiko argumentuari nominatibo kasua ezartzen zaio; akusatiboa Varen ahizpa modura txertaturiko argumentuari ezartzen dio Vak berak, iragankorren sailekoa bada; preposizioek beren aldetik zeharkako kasua ezartzen diete beren osagarriei; [NP_X'] testuinguruan dagoen edozein NPri genitiboa ezartzen zaio ; eta

bukatzeko NP batzuk, berezko kasuaz markaturik agertzen dira, gobernatzen dituen buruak bere ezaugarri lexikoen artean horrelako kasu-markaketarako ahalmena badu .

Orohar, 'egiturazko kasua' (aipatutako guztiak, azkenekoa izan ezik) eta 'berezko kasua' bereizi ditu Chomsky-k (1981): berezko kasuek θ-paperekiko harreman estua dute; egiturazko kasuak berriz, θ-paperei egokitu gabe, egiturazko-gune jakinei dagozkie. Horrenbestez, egiturazko kasu jakin bat duen NP bati zenbait θ-paper desberdin egoki dakioke. Bestetik, berezko eta zeharkako kasuak D-egituran esleitzen diren bitartean egiturazko kasua S-egituran ezartzen dela defendatu du.

Aurrerago zehazkiago definitu dira egiturazko eta berezko kasuak (Chomsky, 1986): berezko kasua D-egituran ezartzen da paper tematikoari estuki loturik; egiturazko kasua berriz, S-egituran ezartzen da eta ez du paper tematikoekiko harreman zuzenik. Egiturazko kasu tipikoak, absolutiboa eta akusatiboa lirateke, eta berezkoak, genitiboa eta partitiboa.

Horrela, nominatiboa [+Agr] ezaugarria duten perpaus tenporalizatuen Infl buruak bere espezifikatzaile modura txertaturiko NPari ezarriko liokeen bitartean, akusatiboa, V buruak berak ezarriko lioke bere osagarriari (O.Z.). Bestetik, berezko kasu-markaketaren mekanismoan bi urrats bereizi ditu: 'kasu-ezarketa' bera eta 'kasu-gauzaketa'. Batzuetan bi urrats horiek bi gune desberdinetan gertatzen dira.

Puntu honetan, aipatu beharrekoa da, 'Burzio-ren orotarapena': beren osagarriari kasurik esleitzen ez dioten aditzek, ez diote paper tematikorik esleitzen beren subjektuari eta modu berean, subjektuari paper tematikorik esleitzen ez dioten aditzek ez diote kasurik esleitzen beren objektuari. Jokaera hau aditz inakusatiboetan (aditz hauen hiztegi-ezaugarriengatik) eta morfologia pasiboan (morfologia honek akusatiboa xurgatzen duelako) ikusten da batez ere. Mota honetako aditzen ahizpa den kokagunean sorturiko argumentuak, bertan aditzetik θ-papera hartzen badu ere, mugitu egin behar du kasu bila, eta aditz hauek subjektuari paper tematikorik esleitzen ez diotenez, hutsik dagoen Iaren espezifikatzailera mugitzen da, bertan nominatibo (egiturazko) kasua hartzen duelarik. Bestetik, aditz

iragankorretan egilearen papera hartzen duen argumentua ere, azaldu ohi da morfologia pasiboan: aukerakoa da argumentu hori, baina gauzatzen denean, zeharkako kasua emanten dion preposizio (*por, by, par, di*) bat behar du.

Aditzek, hiztegitik bertatik zehazturik daramatzate ezar ditzaketen berezko kasuak (Belletti &Rizzi, 1988). Horrela, aditz psikologikoek zehazturik daramate beren barne-argumentuari esleitu behar dioten berezko kasua: *preoccupare* eta *piacere* aditzek ez dute kanpo-argumenturik hautatzen, eta barne-argumentuari 'esperimentatzailearen' paperarekin batera akusatibo eta datiboa ezartzen diete hurrenez hurren. *Piacere* motako aditzen jokaerak harrigarri dirudi, subjektuari paper tematikorik eman gabe ere osagarria kasuaz markatzen baitute, Burzio-ren orotarapenaren aurka. Baina, Belletti &Rizzi-k, aditz hauek beren osagarriari ezartzen dioten berezko kasua dela eta Burzioren orokorpena beste modu honetara formulatu behar dela defendatu dute: 'Aditzak egiturazko kasua ezarriko du baldin kanpo-argumenturik badauka'.

Izenki-predikazioaren azterketa erabakikor gerta daiteke, kasu-ezarketaren mekanismoak ulertzeko orduan. Izan ere, perpaus txikiak bezalako eremu 'defektiboetan' inon baino nabariagoak dira 'Kasuaren Iragazkia' gainditzeko argumentuek erabil ditzaketen irtenbideak, eta kasu bakoitzean kasu-ezarle modura joka dezaketen kategorien aniztasuna ere.

Guztiz interesgarriak dira, adibidez, 'kasu-ezarketa berezia' (ECM) eta berezko kasuen ezaugarriak harremanetan jarri dituzten azterketak. Horrela Belleti-k (1988) agerian utzi duenez, SCen subjektuak ezin har dezake berezkotzat jo daitekeen partitibo kasua:[43] SCen subjektua tematikoki

---

[43] Belleti-k (1988) partitibo kasuaren inguruko arazoak aztertu ditu. Hasteko, partitiboa aditz inakusatibo eta iragankorren osagarriari irakurketa mugagabea dutenean esleitzen zaien berezko kasua dela defendatu du. Bestetik, akusatibo kasua ezartzeko ahalmenik ez duten aditz inakusatibo eta partizipio pasiboek, partitibo berezko kasua ezartzeko gaitasuna mantentzen dutela ere, defendatu du.

Aipatu beharrekoa da gainera, Belleti-k (1988) egindako zehaztapen garrantzitsu bat, alegia, berezko kasu-markaketaren prozesuan, kasu-ezarketa eta gauzaketa buru kasu-

markatzen duena bere predikatu-burua da, baina kasua, SC horretatik kanpo dagoen beste elementu batetik jaso behar du subjektu horrek. Horrela, SCen subjektuaren kasu-ezarketa eta markaketa tematikoa, bakoitza bere aldetik gertatzen dira eta beraz, berezko kasu-markaketa bazterturik geratzen da.

Egiturazko kasuari dagokionez, azken lan horretan egiturazko kasua, NP baten eta dagokion 'Agr' elementuaren arteko gobernu-harremanaren islapena liteke eta beraz, nominatibo eta akusatibo kasuak komunztaduraren harremanaren bidez ezartzen diren kasuak lirateke. Izan ere, Chomsky-k, 1986.eko 'Barriers' lanean, komunztadurarako 'espezifikatzaile/buru' harremanaren mekanismo orokorra proposatu du, mekanismo hori eta Fukui & Speas-en (1986) f-ezaugarrien ezarketa baliokidetzat har daitezkeelarik.

Laburbilduz, gaur egungo ingurune teorikoan, ondoko hauek defenda daitezke:

(i) Aditzen argumentuak (bai subjektua eta baita osagarriak ere) VParen barnean sortzen dira.
(ii) Berezko kasuak (partitiboa, datiboa, genitiboa eta zenbait akusatibo adibidez) D-egituran ezartzen dira paper tematikoekin batera, eta ohizkoa denez, gobernu-harremanaren pean.
(iii) Nominatibo eta akusatibo egiturazko kasuak bestetik, komunztadura-mekanismoaren bidez ezartzen dira, hau da DP baten eta dagokion Agr elementuaren espezifikatzaile/buru harremanaren bidez, edo bestelako gobernu-harremanaren bidez: nominatiboa [spec, Agr] guneko DPari eta akusatiboa [spec, Agr-o] guneko DPari, edo bestela, tarteko hesirik eza eskatzen duen bestelako gobernu-harremanaren bidez.

---

markatzaile beraren gobernupean gertatzen direla. Horrela, berezko kasua ezartzen deneko tokitik gauzatzeari murriztapen nabariak jartzen zaizkio. Gainera, egiturazko kasuari dagokionez ere, ezarketa eta gauzaketari dagozkien pausoak bereiz daitezkeela proposatu du. Horrela 'Aldagai posibleen kokaguneak' kasua ezarri eta gauzatu egiten deneko guneak dira

Ikuspegi honetatik, 'kasu-ezarketa berezia' ere azter daiteke: perpaus txiki eta berezien subjektuari, kasua aditz matrizeak ezartzen diela pentsatu gabe, perpaus matrizearen buru funtzionalen espezifikatzaileetara mugitu eta han ezartzen zaiela ere, pentsa daiteke.[44] Modu honetara ez genuke kasu-markaketa bereziaz hitz egin behar, mekanismo arrunta bailitzateke: aditz matrizea inakusatiboa denean, *izan* edo *egon* loturazko aditzak adibidez, aditz horiek subjektuaren θ-papera ezartzen ez dutenez, SC txertatuaren subjektuak hutsik du matrizearen [spec, Agr] kokagunea eta nominatibo kasua har dezake, kokagune horretan ohizkoa denez.

Subjektu argumentala eta azpikategorizaturiko perpaus txiki bat duten aditzen kasuan, *consider* aditza adibidez, nominatibo kasua ezartzen duen buru funtzionalaren espezifikatzailea aditz matrizearen subjektuaz beterik dago, baina akusatibo kasua ezartzen duenarena, hutsik, eta hara mugi daiteke perpaus txikiaren subjektua kasuaren bila.

Subjektu argumentala duten aditzek, azpikategorizatu gabeko izenki-predikazio bat hartzen badute (bigarren mailako predikazio bat), izenki-predikatu horren subjektuak ez du bertatik kasua hartzerik, eta bestetik, buru funtzionalen espezifikatzaileak aditz matrizearen argumentuez beterik daudenez, ez du beste inon kasua hartzerik. Horrela ba, kasurik behar ez duen PRO kategoria isilekoa izan behar du subjektu horrek. Ondorioz, aditz matrizearen argumentu batek kontrolatua izango da (Hoekstra, 1988).

---

[44] Ikuspegi hau defendatu du Chomsky-k (1992) bere azken lanean.

1.4. Euskararen azterketa orokorra

Izenki-predikazioaren azterketa egin aurretik, beste hizkuntzen jokaeran oinarriturik garatu diren onarpen teoriko horiek euskarari zein puntutaraino egoki dakizkiokeen ikusiko dugu, gai horiei buruz literaturan zehar esan dena laburbilduz eta proposamen desberdinen artean nolabaiteko aukera eginez.

Izan ere, Gramatika sortzailearen lehenengo garaietan eredu modura ingelesa hartu bazen ere, Chomsky-ren (1981) 'LGB' lanetik aurrera, bestelako hizkuntza batzuei begiratzen hasi ziren hizkuntzalariak, hizkuntzen artean ezberdintasun nabariak daudela ikusiz. Ezberdintasun horien berri emateko 'parametroez' hitz egiten hasi zen: parametroak 'Gramatika Unibertsalak' uzten dituen aukerak dira. Parametro bakoitzak sintaxiaren arlo anitzetan eragiten du; horrela parametroen konbinaketa desberdinek hizkuntz sistema desberdinak ematen dituzte. Horrenbestez, hizkuntz aniztasunaren oinarrizko aspektuak, oinarri eta parametroen elkarreragiketatik datoz (Chomsky, 1981; Belleti, 1991, e.a.)

Lau dira geure iritziz, euskarari buruzko azterketa bat egin aurretik zenbait onarpen zehatz egitea eskatzen duten arloak: 'Buruaren Parametroa', 'Pro-drop parametroa', konfigurazionalitatea, eta ergatibitatea eta berarekin harremanetan dagoen kasu-ezarketa.


1.4.1. Buruaren Parametroa

Aurretik ikusi dugunez, buru lexikoak (X°) X'-Teoriaren arabera islatzen dira, hainbat motatako espezifikatzaile eta osagarriak hartuz. Horrela ba, burua ardatz modura hartzen bada, hizkuntzen artean badaude bi mota desberdin: hizkuntza batzuek buruaren ardatzaren alde berean islatzen dituzte espezifikatzaileak eta osagarriak eta beste hizkuntza batzuek ordea,

espezifikatzaileak ardatz horren alde batean txertatzen dituzte eta beste aldean osagarriak.


Horrela, espezifikatzaileak islapenaren ezker-aldean daudela onartuz, hizkuntza batzuk, 'burua-lehen' motakoak eta beste batzuk 'burua-azken' motakoak[45] direla esan daiteke.

(55) a.



'Burua-lehen motako hizkuntza'

b.



'Burua-azken motako hizkuntza'

Euskara 'burua-lehen' motako hizkuntza dela dirudi. Izan ere, SOV motako hizkuntza dela onartu da (Altube, 1929; Lafitte, 1944; Rijk, 1968, 1978; Azkarate, 1981), eta ordena hori izateko, V buruak bere osagarria den objektu zuzenaren eskuin-aldean egon behar du. Eguzkitza-k (1986) NParen konfigurazioa ere aztertu du, mota horretako sintagmak ere 'burua-azken' motakoak direla aditzera eman duelarik.

(56) Jonek [$_V$'liburua **[$_V$ irakur]]**

(57) [$_N$'Dirua lortzeko **[$_N$ beharr]a**]

Determinatzailearen hipotesia onartuz, (57) adibidearen NPa DP batean sartuta legoke, DP horren burua *-a* determinatzailea litzatekeelarik (58). Hemen ere, euskara 'burua-azken' motako hizkuntza dela garbi dagoela dirudi. Bestetik, Baker-ek (1988) buruz buruko mugimendurako proposaturiko baldintzak beteko lituzke Naren Drako mugimendua determinatzailea eta izena elkartzen direnean.

(58) [$_{DP}$ [$_{NP}$ dirua lortzeko [beharr]$_N$]a]

---

[45] 'Head initial' eta 'Head final' ingelesaren terminologian.

Arazoa NP horren barnean izenondo bat sartzen dugunean sortzen zaigu: izenondoa NParen burua izan behar lukeen Naren atzean azaltzen da. Gainera determinatzailearen buruari lotzen zaiona izenondo hori da, eta beraz, Baker-en baldintzak ez dira inola ere betetzen, NParen burua mugitu gabe, nolabaiteko adjunktua izan behar lukeen AParen burua mugitzen baita D buruari itsasteko. Izenondoaren arazo hau konpondu gabe dago oraingoz baina ez dugu uste euskara 'burua-azken' motako hizkuntza delako ideia aldatzeko bezain indartsua denik.

(59) $[_{DP}\ [_{NP}$ dirua lortzeko $[\text{behar}]_N$ handi]a]

Egileek, zehazkiago perpaus osoaren antolaketaz aritu direnean, Infl buru funtzionalerako 'burua-azken' delako antolaketa ere proposatu dute buru horren osagarria VP delarik (O. de Urbina, 1986; Eguzkitza, 1986). Aurreragoko lanetan, Inflexioaren zatiketa kontuan hartu denean, antolaketa bera onartu da Inflexioaren zati desberdinetarako ere: TP, AgrP, MP, Aspp, AuxP (Oyharçabal, 1990, Laka, 1988, 1991, Cheng & Demirdash, 1991).

(60) $[_{IP}$Jonek $[_{I'}\ [_{VP}$liburua irakur-] **$[_{I}$-i du]**]]

Inflexioaren gaineko islapen funtzionalen jokaera aztertu denean, Comp buruak bere osagarria eta espezifikatzailea ardatzaren alde berean islatzen dituela dirudi (O. de Urbina, 1986): bere espezifikatzailera mugituko liratekeen Nz-hitzak eta bere atzetik Comp burura mugituko litzatekeen aditz jokatua (edo zenbait euskalkitako laguntzailea) jarraian agertzen baitira. Komplementatzailerako beraz, 'Buruaren Parametroaren' salbuespena dela onartu behar genuke. Hala ere, eztabaida ugari dago gai honetaz (ikus adibidez Laka & Uriagereka,1987).

(61) $[_{CP}\ \text{Nork}_1[_{C'}$**$[_{C}$ esan du$_2$]** $[_{IP}\ t_1\ [_{I'}$ hori $t_2]]]]$

Bukatzeko, Laka-k (1990) ezeztapenean eta baita baieztapen enfatikoan ere parte hartzen duten sintaxi-gertaeren homogeneitasunaren berri emateko proposatu duen ΣP islapen funtzionalaren kasuan ere, 'burua-lehen' motakoa dela defendatu du.

(62) [ΣP Denak$_1$[Σ' [Σ **ez dira$_2$**] [IP t_1 etorri t_2]]

(63) [ΣP Marik$_1$[Σ' [Σ **du$_2$**] [IP t_1 erosi t_2]]

Horrela ba, euskara orokorki, 'burua-azken' motako hizkuntza dela esan daiteke: buru lexikoak beren osagarrien eskuin-aldean islatzen dira, eta gauza bera gertatzen da aditzaren inflexioarekin zerikusirik duten buru funtzionalen kasuan ere (TP, MP, AuxP, AgrP, AspP). Beren espezifikatzaileetan operatzaileak (Nz-hitzak, fokoak, kuantifikatzaileak) hartzen dituzten islapenen kasuan (CP eta ΣP), burua osagarriaren aurrean islatzen dela dirudi. Azken islapen horien jokaerak, operatzaile horiek beren besarkadura sintaxian bertan hartu behar izatearekin eta 'aditz bigarren' (V2) deritzon gertaerarekin zerikusirik izan lezake. DPen kasuan, arazoak ditugu izenaz gain izenondoak ditugunean, izenondoa izenaren atzean azaltzen baita eta hura baita determinatzaileari lotzen zaiona. Dena den, arazo honek azterketa sakonagoa behar du eta euskara burua-azken motako hizkuntza dela defendatuko dugu oraindik ere.

1.4.2. Pro-drop parametroa

Pro-drop motako hizkuntzen azterketak, normalean, pro motako izenordain isilen existentzia 'Inflexio' aberats baten bidez berreskuratzeko aukerari lotzen dio. Euskararen kasuan, kategoria isil hori subjektuaren kokagunean ezezik, objektu zuzen eta zeharkako objektuarenean ere, ager daiteke (O. de Urbina, 1983, 1986;Salaburu, 1986, 1987c). Aukera hori erraz azal daiteke euskal aditzaren komunztadura aberatsean oinarriturik: euskal aditzean subjektu, objektu zuzen eta zeharkako objektuari dagozkion klitikoak ditugu, horietariko edozein elementu, adizki jokatuetan behintzat, zeharo berreskuragarria delarik.

Ortiz de Urbina-k (1986), euskarak duen pro kategoria honetarako aukera handia azaltzen saiatu da, Huang-en (1984) aurreonarpenei jarraiki. Azken egile horren arabera, Agr litzateke pro motako izenordain isilen identifikatzailea, eta O. de Urbinak, Inflexioan dagoen Agr ondoko erregelaren bidez heda daitekeela proposatu du: Agr--> A (E) (D)

Modu horretara, euskal aditzean azaltzen den absolutibo, ergatibo eta datibo argumentuekiko komunztadura eta gutxienez absolutiboaren halabeharrezko_ tasunaren berri ematen saiatu da.

Pollock (1989) eta Chomsky-ren (1990) osteko lanetan, Inflexioaren aberastasuna eta haren barnean atal desberdinak bereizi ahal izatea harremanetan jarri diren gertaerak dira. Bestetik, espezifikatzaile/buru harremana komunztaduraren erantzule izan litekeela ere defendatu da. Horrela, argumentuak VParen barnean sortzen direlako aurreonarpenetik abiatuz, Ohyarçabal-ek (1990) zenbait buru funtzional proposatu ditu euskal kasu-markaketa eta aditzaren eta argumentuen arteko komunztaduraren berri emateko: TP, subjektuaren kasu eta komunztadura azaltzeko eta Agr-O, objektu zuzenarena azaltzeko. Zeharkako osagarrirako beste Agr elementu bat beharko litzateke.

Laka-k (1988, 1991), komunztadura eta kasu-ezarketaren arazoa alde batera utzi eta laguntzailearen buruz buruko mugimenduaren bitarteko eraketa aztertu du. Euskal aditzaren morfologiaren berri emateko, TP, MP eta AuxP islapen funtzionalak proposatu ditu: islapen bakoitzean denbora, modu eta laguntzaileari dagozkion markak ezezik, argumentuen klitikoak txertatuko lirateke; ergatiboari dagokiona, T buruan, datiboari dagokiona, M buruan eta absolutiboari dagokiona, Aux buruan.

Cheng & Demirdash-ek (1991) azken egile horren proposamenaren antzeko zerbait defendatu dute baina islapen horietariko bakoitzaren azpian AgrP motako islapen bat gaineratuz. Egile horien arabera, argumentuak, AgrP horren espezifikatzaileetan sortuko lirateke eta ez VParen barnean. Han, kasua ere hartuko lukete. Ondoren TP, MP edo AuxP islapenen espezifikatzaileetara mugitzeko aukera izango lukete (kokagune horiek A-barrra motakoak lirateke). Azken egileen arabera, horrelaxe azalduko litzateke euskararen ordena-askatasuna.

Guk geuk, euskaraz argumentuak VParen barnean sortzen direla defendatuko dugu, V buruaren θ–sarea eta LCEa[46] X'-teoriaren arabera garatuz eta argumentu bakoitzari bere paper tematikoa ezarriz. Cheng eta Demirdash-en analisiak argumentuen paper tematiko guztiak V burutik dagokion Agr islapeneraino iragatea eskatuko luke. Eta horrekin batera argumentu guztien θ-markaketa konposizionala izatea (ez soilik subjektuarena).[47] Gainera, ez dirudi Agr buruetatik gainean dauden A-barra kokaguneetarako mugimenduek inolako arrazoi garbirik dutenik.

Argumentuak VParen barnean sortzen badira, bertan θ-markatzen dira Varen gobernuaren pean. Argumentu horiek gora egiteko arrazoiak hainbat arlotan bila daitezke: subjekturako behintzat, 'Islapenaren Oinarri Zabaldua' adibidez; bestetik, kasuaren beharrak ere badaude, kasu guztiek, edo behintzat batzuek espezifikatzaile/buru harremanaren bidezko komunztadura edo behintzat buru funtzional baten gobernua behar dutela onartzekotan, kasuaren iragazkia litzateke argumentuak VPtik ateratzearen eragilea. Bukatzeko, Oyharçabal-ek VParen barnean berezko kasua hartu bide duen argumentuak gora [spec, T] kokaguneraino igotzeko izan dezakeen arrazoiaren bila aritu da. Aurkitu duen kausa antzeko zerbait proposa liteke: aditzak bere morfologiak eskatzen dituen marka guztiak hartzeko buru funtzionaletan gora egiten duenean, berarekin batera eramaten ditu bere argumentuak ere. Arrazoia, Oyharçabal-ek berak zehaztu ez badu ere, euskarak halabeharrez aditzaren eta bere argumentuen arteko komunztadura eskatzen duela izan liteke. Hala ere, arazo honek azterketa sakonagoak behar ditu, oraingoz azalpen garbirik ez baitago.

---

[46] LCE laburpena ('Lexical Conceptual Structure') Grimshaw-en (1979) eta Pesetsky-ren (1982) zentzuan erabili dugu. Egile hauen arabera aditz desberdinek har ditzaketen itxura desberdinetako osagarriak eta adjunktuak, semantikari dagozkio sintaxiari baino neurri handiagoan, eta beraz, LCE delakoari Argumentu-egiturari baino neurri handiagoan.

[47] Subjekturako VParen barneko sorrera proposatu aurretik, Iaren espezifikatzailean sortzen zela defendatzen zen. Bestalde, θ-markaketa gobernu-harremanaren bidez gertatzen dela onartuz, ez zegoen Vak subjektu hori zuzenean θ-markatzerik. Bistan dago dena dela, Vak funtzio erabakikorra duela subjektu horren papera erabakitzeko orduan, eta horrela, argumentu horretarako θ-markaketa konposizionala proposatu da: NP subjektuari, gobernatzen duen VPak ezartzen dio papera, baina V buru lexikoaren 'aginduei' jarraiki.

1.4.3. Konfigurazionalitatea

Hale-k (1981) walbiriera aztertu zuenean, hizkuntza horrek dituen berezitasunen artean, hitz-ordena askea izan zen nabarien gertatu zitzaiona eta ezaugarri horrekin erlazionatu zuen 'konfigurazionalitatea'. Walbiriera bezalako hizkuntzetarako proposatu zuen erregela horren arabera, hizkuntza horietan, sintaxi-multzoak ordenarik gabeko hitz-kateak dira, gertaera hori konfiguraziorik ezarekin erlazionaturik dagoelarik.

Perpausaren mailan, azken finean, VP-mailako osagai bat izatearekin identifika daiteke konfigurazionalitatea: hizkuntza konfigurazionalek VP horren barnean lukete objektua, eta subjektua goragoko maila batean; hizkuntza ez-konfigurazionalek berriz, ez lukete VPrik eta maila berean izango lituzkete subjektua eta objektua: VPa V eta objektuaz osoturiko osagaia baldin bada, "obj.-V" eta "subj.+V" direlako elkarketek ez lukete jokaera bera azaldu beharko hizkuntza konfigurazionaletan. Horrelako osagairik ez badago berriz, ez dago inolako asimetriarik egoteko arrazoirik.

Lehenengo begiradan bereizketa intuitibo horrek erraza badirudi ere, praktikan ez da horrela eta konfigurazionalitaterik ezaren adierazle izan litezkeen sintaxizko frogen bila aritu dira hizkuntzalariak. Euskararen kasuan, hitz-ordenaren askatasunak, betidanik erakarri du ikertzaileen adimena. Areago, askatasun hori, inplizituki soilik izan bada ere, konfigurazionalitaterik ezarekin erlazionatu da. De Rijk-ek (1978) adibidez, euskara SOV motako hizkuntza dela onartuz (De Rijk, 1968) ordenaren askatasuna azaltzeko 'fokalizazio' eta 'topikalizazio' erregelak proposatu dituenean, egitura launa (S--> ...NP...+V) onartu du perpaus horietarako D-egituran. Antzeko ideia ikus daiteke Azkarate et al.(1981) eta O. de Urbinaren (1983) lanetan, beti ere Varen gainean egitura gehiagoren beharra ikusi badute ere, 'galdegaiaren' jokaeraren berri eman ahal izateko. Rebuschi-k ere (1984, 1985a, 1985b,...) euskara hizkuntza ez-konfigurazionaltzat hartu du bere azterketetan.

Hala ere, intuizio horietaz gain, Hale-k (1982) konfigurazionalitaterik eza definitzeko eskaini zituen zortzi irizpideetatik,[48] bada euskarak betetzen ez duen bat (osagai ez-jarraien erabilera hain zuzen ere). Eguzkitza-k (1987) adibidez, ezaugarri horiek aztertu dituenean ondorioztatu duenaren arabera, euskarak perpaus-mailan, seguruenez, Hale-k proposatuaren antzeko egitura laua izango luke, baina osagaien barneko ordena oso antolakuntza-maila garatua izango luke. Hain zuzen ere, Hale-ren zortzi irizpideetatik betetzen ez dena osagai ez-jarraiei dagokiena da.

O. de Urbina-k (1986) eta Eguzkitza & O. de Urbina-k (1987) arazoa aztertzera itzuli direnean, VPrik eza ziurtatzeko Hale-ren irizpideak nahikoak ez direla defendatu dute; azken batean ezaugarri horiek beste parametro batzuen eraginez azaltzea gerta liteke, konfigurazionalitaterik ezaren adierazle zuzenak ez liratekeelarik.

Beste alde batetik, euskararen azterketari ekitean, beste hizkuntzetan VParen existentzia frogatzeko erabili diren testak ez dira oso esanguratsuak (Rebuschi, 1986c). Euskaraz ez dago VP soila erabiltzen duen sintaxi-prozesurik:[49] lehendabiziz, beti subjektu gauzatua eskatzen duten frantsesa bezalako hizkuntzetan, koordinazioarena, VParen existentzia agerian uzteko froga ukaezina da (64a), baina euskaraz ezin ziurta daiteke VPak koordinatzen ari garela, subjektu modura pro kategoria isila duten perpausak koordinatzen ari garela ere pentsa baitaiteke (64b).

(64) a. Il [mangeait les pommes] et [buvait le vin]
b. [Berak sagarrak jan zituen] eta [pro-k ardoa edan zuen]

---

[48] Zortzi ezaugarriok ondokoak dira: 1) Hitz-ordena askea 2) Osagai ez-jarraien existentzia 3) Izenordainen desagerketa aske edo naharoa (Pro-drop) 4) NPen mugimendurik eza 5) Elementu pleonastikorik eza 6) Kasu-sistema aberatsa 7) Aditz nagusia + aditz laguntzailea sistema izatea 8) ECP-aren ohizko ondoriorik eza. Zehazkiago ikusi nahi izatekotan, jo Eguzkitza & O. de Urbina (1987) edo Salaburu-ren (1990) lanetara.

[49] O. de Urbina-k (1986) horrelako frogak konfigurazionalitaterik ezaren adierazle garbiak ez direla eman du aditzera, gaztelania bezalako hizkuntza konfigurazionaletan ere, froga horiek askotan huts egiten baitute.

Bigarrenik, euskaraz nekez aurkitzen da VParen ordezkorik: *'hala egin'* edo *'hori egin'* bezalako esapideak lirateke, VParen ordezkotzat har litezkeen bakarrak eta ez dira VParen existentzia baieztatzeko bezain froga garbiak.

(65) -Nork hautsi du basoa?
-nik egin dut hori

Hirugarrenik, ez dirudi VPa euskaraz mintzagai hanpatu modura gauza daitekeenik.

(66) a. Ardoa berriz, nik edan dut
b. ? Ardoa edan ere, nik edan dut

Azkenik, ezabaketen froga dugu baina hori ere zalantzagarria dela dirudi. Izan ere, O. de Urbina-ren (1986) arabera, zalantzagarria da hor eliditu dena VPa ala perpaus osoa ote den.[50]

(67) Arantzak, Miren ikusi du eta Patxik ere bai

Salaburu-k (1990), Rebuschi-ren argudio hauek zalantzatan jarri dituzten zenbait datu eskaini ditu: hasteko, agerian utzi du koordinaturiko eraikuntzetan bigarren perpausaren subjektua 'pro' kategoria isilekoa dela pentsa badezakegu ere (68b) perpausaren gramatikaltasunik ezak 'pro' hori zalantzatan jartzera bultzatzen gaituela: 'pro' izenordaina denez, aske egon behar du bere gobernu-kategorian, gobernu-kategoria hori bigarren perpausa delarik.

---

[50] O. de Urbina-ren (1986) analisian, lehenengo perpausean *Arantzak* topikalizaturik legoke eta beraz, perpausetik kanpo itsatsirik. Bestalde, *Miren* fokalizaturik [spec, C] kokagunean eta aditza (*ikusi du*) C buruan V2 gertaera dela eta. Bigarren perpausa ere, topikalizaturik legoke, eta beraz, ez litzateke VPen koordinazioa perpausen koordinazioa baizik.

(68) a. [Berak$_i$ sagarrak jan zituen] eta [pro-k$_i$ ardoa edan zuen]
b. *[Berak$_i$ sagarrak jan zituen] eta [pro-k$_m$ ardoa edan zuen]

Bigarrenik, VPak mintzagai hanpatu modura jokatzen dueneko perpausak (69) hiztun askorentzat onargarriak direla azpimarratu du Salaburu-k, Rebuschi-ren (66b) adibidearen aurka.

(69) a. Ardoa edan, neuk edango dut
b. Ardoa edan, neuk egingo dut

Hirugarrenik, (67) bezalako perpaus elkartuetako bigarrenean mintzagai hanpaturik ez dagoela eta beraz *Patxik* subjektuaren jatorrizko tokian dagoela defendatu du Salaburu-k. Horrela bada, *ere bai* sekuentzia VParen ordezkoa litzateke eta berriro ere osagai horren existentziaren aldeko froga bat genuke.

Bukatzeko, pro izenordain isila subjektuaren zein objektuaren tokian agertu ahal izateak ez du frogatzen VPrik ez dagoela, puntu honi dagokionez asimetriarik ez dagoela baizik.

Beraz, VParen existentzia frogatzeko, ohizko osagaitasun-frogak ez dira nahi geneukeen bezain esanguratsuak baina edozein modutan ezin esan daiteke VParen existentziaren aurkakoak direnik ere. Benetan VParen existentzia edo existentziarik eza frogatzeko, subjektu eta objektuaren arteko asimetriarik ba ote dagoen zehaztu behar da: hasteko pro kategoria isilari dagokionez, ez dago subjektu eta objektuaren arteko asimetriarik, bi kokaguneetan, eta baita zeharkako objektuarenean posible baita kategoria hori. Horrenbestez, honelako asimetrikotasunak agerian jar ditzaketen gertaerarik nabarienak, c-komandoaren harremana behar dutenak dira: 'cross-over' gertaerak eta uztardura teoriaren ingurukoak hain zuzen.

O. de Urbina, Eguzkitza eta Salaburu-ren lanetan, subjektu eta objektuaren arteko asimetriaren adierazle izan litezkeen zenbait gertaera jarri dira agerian:

'cross-over' gertaerak hobeki azaltzen dira euskara hizkuntza konfigurazionala bada (O. de Urbina, 1986).

(70) a. Nork$_i$ ikusi zuen atzo bere$_i$ ama?
b. *Nor$_i$ ikusi zuen atzo bere$_i$ amak?

Bestetik, *elkar* bezalako anafora eta *bera* bezalako izenordainen banaketak ere, asimetrikotasun horren aldekoak lirateke -ikus baita Salaburu (1986a eta b) ere- .

(71) a.Lagunek$_1$ elkar$_1$ ikusi dute
b. *Elkarrek$_1$ lagunak$_1$ ikusi dituzte
(72) a. Jonen$_1$ laguna bera$_{1,2}$ maite du
b. Jonen$_1$ lagunak bera*$_{1,2}$ maite du

Hala ere, egile horiek onartu dutenez (O. Urbina, 1986; Eguzkitza &O. de Urbina, 1987; Salaburu, 1990), oso esanguratsua izan litekeen froga bat dago konfigurazionalitaterik ezaren alde, Rebuschi-k (1984) eskainitakoa hain zuzen ere: *bere* anafora edozein kokagunetan ager daiteke (bai eta subjektuarenean ere), bete behar duen baldintza bakarra bere perpausaren inflexioan islaturik dauden argumentuetariko batek (hots, ergatibo, datibo, absolutiboko argumentuek) uztartzea delarik.

(73) a. Jonek$_i$ bere$_i$ ama ikusi zuen
b. Bere$_i$ zakurra ausiki du Peio$_i$
c. Bere$_i$ emaztegaia etorri zaio Joni$_i$

Izan ere, Rebuschi izan da ez-konfigurazionalitatearen aldeko frogarik esanguratsuenak eskaini dituena (Rebuschi, 1984, 1985a eta 1985b, 1986a, 1986b, 1986c): uztardura teoriaren ikuspegitik ikusten diren *elkar* anafora eta *bera* izenordainaren asimetriak mota desberdinetako anaforak adierazpen-maila desberdinetan uztartzen direla onartuz (anafora argumentalak Hiztegi-Egituran eta anafora ez-argumentalak D-egituran) konpondu ditu. Horrela, asimetria horiek ez lukete halabehartuko sintaxi-konfiguraziorik eta *bere* anaforaren banaketaren berri eman liteke.

Salaburu-k (1986a eta b) eta O. de Urbina-k & Eguzkitza-k (1987) defendatu dutenez, *bere* anaforaren banaketa, aintzindaria beraren perpausaren Inflexioan izan behar duela onartuz konpon liteke. Eta modu honetara bestelako anafora eta izenordainen banaketa 'Uztardura Teoriaren' ohizko onarpenetatik abiatuta azal litezke besterik gabe. Zentzu berean mintzatu da O. de Urbina (1989) beranduagoko lanean, lan horretan aintzindaria zehazkiago Inflexioaren Agr delakoan datzala defendatu duelarik.[51] Bukatzeko, Rebuschi-k kasu-markaketarako sistemari begira argumentu guztiei kasua aditzak esleitzen diela defendatu du, horrek bai subjektua eta bai objektuak ere Varen gobernuaren pean egotea eskatuko lukeelarik. Baina O. de Urbina-k , datu horiek hizkuntza konfigurazionala dela onartuz ere azal daitezkeela defendatu du. Rebuschi-k (1989c) berak ere, onartu du *bere* anaforaren banaketa euskara hizkuntza konfigurazionala dela onartuz ere konpon litekeela.

Azkenik, subjektu eta objektuaren arteko asimetria agerian uzten duten beste gertaera batzuk ere aipatu dira bibliografian: adibidez, partitibo kasua soilik objektuan sorturiko argumentuei ezarri ahal izatea (O. de Urbina, 1986) edo 'izena+*egin*' motako aditz-esapideak eta *piperrik ulertu* moduko esapideak (Sarasola, 1977), horietan guztietan aditzarekin batera objektua azaltzen delarik.[52] Antzeko zerbait esan daiteke *belar-mozte* eta *gaztain-biltze* moduko aditz elkartuei dagokienez ere. Izen-sintagmen barne-ordenaketan eta *nork zer esan du?* eta **zer nork esan du?* galderen arteko ezberdintasunean ere, konfigurazionalitate horren aldeko datu bat ikusi du Salaburu-k (1990). Azken egile honek, De Rijk eta Trask bezalako hizkuntzalariek agerian utzi dituzten beste asimetria batzuk ere aipatu ditu

---

[51] Aditz jokatuen eraketarako Laka-ren (1991) mekanismoaren antzeko zerbait onartzen badugu, aditzaren laguntzailean (edo adizki trinkoetan) buruz buruko mugimenduan txertaturiko klitikoak genituzke, alegia *-zu-*, *-te,* edo *-t* bezalako morfemak. Klitiko horiek daramatzan adizki jokatua beti gelditzen da inflexioaren zatirik gorenean eta beraz, gai da *bere* hori edozein kokagunetan uztartzeko.

[52] "Harjoa" (harrak joa), "pipijana" (pipiak jana) eta "Baztangapikatua" (baztangak pikatua) moduko adibide urri batzuk ere badaude. Hauetan bistan da aditzari subjektu ergatiboa elkartu zaiola baina ikus bedi guztietan pasiboaren antzeko bat dugula .

hala nola subjektuaren kasuan baino ezin egin daitezkeen igoera eta kontrola.[53]

Laburbilduz, euskarak Hale-k hizkuntza ez-konfigurazionaletarako proposatu dituen zortzi ezaugarrietatik zazpi betetzen ditu, alegia guztiak osagai ez-jarraien existentziarena izan ezik. Hala ere, ez dirudi ezaugarri horiek edozein hizkuntza ez-konfigurazionala dela erabakitzeko nahikoak direnik: VP osagaiaren existentzia frogatu behar da.

Euskararen kasuan ordea, VParen osagaitasunaren ohizko frogak ez dira oso esanguratsuak eta subjektuaren eta objektuaren arteko asimetriak aztertu behar dira: 'cross-over' eta uztarduraren gertaerak hobeki azaltzen dira euskara hizkuntza konfigurazionala bada. Horrela, asimetriarik ezaren adierazlea izan litekeen *bere* anaforaren banaketa ere, aintzindaria jokaturiko aditzaren klitikoetan duela onartuz azal daiteke.

Bukatzeko, esan dezagun euskararen kasu-sistemaz, aditzaren morfologiaz eta perpausaren konfigurazioaz egin diren azken azterketetan (Uhalde, 1986; Oyarçabal, 1990; Laka, 1990, 1991; Cheng &Demirdash, 1991; Uriagereka, 1991), euskal perpauserako egitura konfigurazionala aho batez onartu dela. Guk geuk ere, geure analisietarako, izaera konfigurazional hori onartu dugu euskararako.[54]

1.4.4. Ergatibitatea eta kasu-ezarketa

Hizkuntzen tipologian garrantzi berezia hartu duen gertaera bat 'ergatibitateari' dagokiona da. Termino hori hizkuntza indoeuroparretan ikus

---

[53] Argumentu hauei buruz ez dugu zehetasun gehiagorik eskainiko, zeren ergatibitateari eskaini diogun hurrengo azpiatalean berriro ere azalduko baitzaigu subjektu eta objektuaren kokaguneen arteko asimetriaren arazoa eta berriro ere errepikatuko baititugu argumentu hauetariko asko.

[54] Baita Goenaga (1981) lan klasikoan ere euskara konfigurazionala dela eta perpausak IS+AS modura berridatz daitezkeela onartu da.

zitekeen kasu-sistema akusatiboaren desberdina zen sistema adierazteko asmatu zen.

Marantz (1981) ergatibitatearen araberako hizkuntz tipologia egiteko kasu-sistemari begiratzea nahikoa ez zela jarri zuen agerian eta 'Ergativity Hypothesis' delakoa proposatu zuen, deskribapen osotuago eta zehatzagoa lortzeko asmoz. Hipotesi horretan, hizkuntza ergatibo eta akusatiboak bereizteko erabil zitezkeen irizpide batzuk eskaini zituen, ondoko onarpenetik abiatuta: egile-jasale motako aditzen kasuan, hizkuntza akusatiboetan egilearen papera D-subjektuari ezartzen zaion bitartean, hizkuntza ergatiboetan, D-objektuari ezartzen zaio.

Hala ere, hain erraza dirudien bereizketa hori, askotan, ilundurik geratzen da, zeren Marantz ohartu zenez, hizkuntz mota horien gainean bi kasu-sistema desberdin ezar baitaitezke, sistema akusatiboa eta sistema ergatiboa hain zuzen ere: sistema akusatiboan, morfologikoki markatzen den argumentua egile-jasale motako aditzen objektua da; sistema ergatiboan berriz, egile-jasale motako aditzen subjektua da.

HIZKUNTZ MOTA	**KASU-SISTEMA**	**θ-paperak**	**D-egitura**	**Markaturiko argumentua**
Akusatiboa	AKUSATIBOA	Egilea	subj.	-(NOM)
		Jasalea	obj.	+(ACC)
	ERGATIBOA	Egilea	subj.	+(ERG)
		Jasalea	obj.	- (ABS)
Ergatiboa	AKUSATIBOA	Egilea	obj.	+(ACC)
		Jasalea	subj.	-(NOM)
	ERGATIBOA	Egilea	obj.	-(ABS)
		Jasalea	subj.	+(ERG)

Goiko taulan ikus daitekeenez, kasu-sistemari soilik begiratzen bazaio, ez dago sistema ergatiboa erabiltzen duten hizkuntza akusatiboak eta kasu-sistema akusatiboa erabiltzen duten hizkuntza ergatiboak bereizterik, bietan morfologikoki markaturiko argumentua egilea baita. Modu berean kasu-sistema akusatiboa erabiltzen duten hizkuntza akusatiboetan eta kasu-sistema

ergatiboa erabiltzen duten hizkuntza ergatiboetan, jasalea da morfologikoki markaturiko argumentua.

Horri guztiorri, beste faktore bat gaineratu behar zaio: ohituraz, aditzak bi sail nagusitan sailkatu dira, eskatzen duten argumentu-kopuruaren arabera alegia, bi argumentu eskatzen duten aditzei 'iragankor' deritze eta argumentu bakarrekoei 'iragangaitz'. Perlmutter (1978) aditz iragangaitzen saileko aditzen sintaxizko jokaera bakarra ez dela behatu zuen; izan ere talde horren barnean 'inergatibo' izenaz bataiatu zituenek baizik ez dituzte onartzen pasibo inpertsonal direlako erainkuntzak. Gainerako aditz iragangaitzei 'inakusatibo' izena eman zien.

Burzio-k (1981) sakonkiago aztertu zuen 'Inakusatibitatearen hipotesi' hori eta hamarkada osoaren hizkuntzalaritza-lanetarako benetan emankor gertatu den orotarapen batera heldu zen: **aditz batzuek ez diote θ-paperik esleitzen beren subjektuari; honekin batera, aditz hauek beren objektuari kasurik ezartzen ez diotela ere, gertatzen da: [-T]<--> [-K].**

Azken batean aditz batzuek beren hiztegi-ezaugarriengatik (aditz iragangaitz inakusatiboek)[55] edo jaso duten aldaketa morfologiko batengatik (aditz

---

[55] Burzio-k (1981) 'ergatibo' izena eman zien argumentu bakar modura D-objektua duten aditzei, baina egile honek buruturiko orotarapenak harrera izugarria izan duelarik ere, Perlmuter-en 'inakusatibo' terminoak arrakasta handiagoa izan duela dirudi. Euskararen kasuan, Burzio-ren aditz inakusatiboen definizioa betetzen bide duten aditzek, absolutiboaz markaturiko subjektuak dituzte. Gainerako aditzek berriz (iragankorrak eta inergatiboek), ergatiboaz markaturiko subjektuak dituzte. Horrela, 'ergatibo' terminoak ez dirudi oso egokia absolutiboa daramaten subjektuak dituzten aditz horietarako..

Gracia Solé-k (1987) *inakusatibo* eta *ergatibo* terminoak mantentzeko proposamena egin du, subjektua objektuaren kokagunean sortarazten duten aditz hauen artean bi sail bereiz baitaitezke: batzuek iragankor zein iragangaitz modura joka dezakete (*sartu da / sartu dute*) eta beste batzuk ordea, iragangaitzak izaten dira beti (*Bilbora etorri da /*Bilbora etorri dugu*). Bi aukera horiek dituzten aditzak, iragankor direnean gai dira osagarriari akusatibo kasua ezartzeko eta baita subjektua θ-markatzeko ere, eta beraz *ergatibo* izena

iragankorren morfologia pasiboak) ez diote beren subjektuari paper tematikorik esleitzen, ez eta kasurik beren objektuari, horrela objektuan sorturiko argumentu horrek subjektuaren gunera mugitu behar du 'kasu-iragazkia' gainditu ahal izateko. Kasua S-egituran ezartzen denez, kasu-markaketaren ikuspegitik gainerako D-subjektuek bezala jokatzen du D-objektua den argumentu horrek.

Marantz-ek (1981) aditzera eman duenez, 'Ergatibitatearen Hipotesiak' bere eragina du baita aditz iragangaitzen bikoizketa honetan: hizkuntza akusatiboetan aditz inergatiboen argumentu bakarra (subjektua) egilearen paper semantikoa hartzen duen bitartean, hizkuntza ergatiboetan jasalearena hartzen du; eta alderantziz, hizkuntza akusatiboetan aditz inakusatiboen argumentu bakarrak (D-objektua) jasalearen papera hartzen duen bitartean, hizkuntza ergatiboetan, egilearen papera jasotzen du.

SAIL SEMANTIKOA	H. AKUSATIBOA	H. ERGATIBOA
Egile-jasalea	Iragankorra	Iragankorra
Egilea	Inergatiboa	Inakusatiboa
Jasalea	Inakusatiboa	Inergatiboa

Marantzen arabera, beraz, sintaxi eta semantikaren arlo desberdin askori begiratu behar zaio hizkuntza baten ergatibitateaz erabakitzeko orduan. Hona hemen berak 'Ergatibitatearen Hipotesiaren' ikuspegitik azterturiko gertaera batzuk: alde batetik, iraupen- eta helburu-esapideen kasu-markaketa, perpausen barneko ordena, ezeztapenaren genitiboa; bestetik, D-egituraren ezaugarriei dagozkien aurresanak, hala nola predikatuen esanguren arloa, aditz-esapideen egitura, 'quirky case' izenaz ezagun diren 'kasu' berezien jokaera, pasiboak eta antipasiboak, aditz-forma bihurkariak, alternantzia antikausatiboak, eraikuntza medioak eta Uztardura Teoriaren inguruko gertaerak.

---

egoki dakieke. Beti iragangaitzak direnek berriz, ez dute inoiz horrelako ahalmenik eta *inakusatibo* izena egokia da beraien kasuan.

Hizkuntza Indoeuropar askotan, laguntzaile desberdina azaltzen dute aditz iragankor eta iragangaitzek. Euskararen kasuan ere, bi laguntzaile desberdin dugu *izan* eta °*edun* ,[56] eta ohituraz, eskatzen duten laguntzailearen arabera egin da aditzen sailkapena, aditzen argumentu-kopuruari edo semantikazko ezaugarriei zehazki begiratu gabe.

Kasu-sistemari begira, aditz iragankorren subjektua morfologikoki markaturik (ergatiboa =-*K*) agertzen da eta 'aditz iragangaitzen' subjektuek zein iragankorren objektuek markatugabeko kasua (absolutiboa) hartzen dute. Datu horietatik guztietatik abiatuta, euskara hizkuntza ergatibotzat hartu izan da, aditz iragankorren subjektua ergatibo kasuaz markatzen bide duen bitartean gainerako argumentuak markatugabeko absolutibo kasuan agertzen direlarik.

Levin (1983) izan da euskara 'Ergatibitatearen ikuspegitik' sakonkien aztertu duena, eta kasu-sistematik kanpoko beste sintaxi-jokaera batzuk azterturik hizkuntza akusatiboa dela defendatzera heldu da. Hasteko, iragangaitz/iragankor oposaketaren eta *izan* / °*edun* laguntzaileen erabileraren ohiturazko identifikazioa zalantzatan jarri du eta aditz iragangaitzen artean espero daitezkeen bi sailak identifikatzeari ekin dio: *izan* laguntzailea hartzen duten aditzen artean, iragangaitzen parte bat baizik ez dago, NOR kasua jasalearekin identifika baitaiteke eta inoiz ez egilearekin.

Gainerako aditzek NOR-NORK edo NORK motakoak izan beharko dute, eta beraz aditz inergatiboak °*edun* laguntzailea hartzen dutenen artean egon behar dutela pentsatu du. Izan ere, argumentu-kopuruari begira, izena+*egin* eraikuntzek (*lan egin, hitz egin, ihes egin,...*) egilearen papera hartzen duen argumentu bat baizik ez dute eskatzen, *egin* aditzari lotuta doan izena aldagaitza eta aditzaren esangura finkatzeko ezinbestekoa denez, hiztegitik betea datorrela esan baitezakegu. Bestetik, badaude °*edun* laguntzailea hartzen duten arren jasalearekin identifika litekeen argumenturik eskatzen ez duten aditzak, hala nola *irakin* , *iruditu* edo *merezi* NOR-NORK saileko

---

56 Euskaraz badaude laguntzaile gehiago, hala nola *egin, eutsi* , °*iron* , °*edin* eta °*ezan* (ikus EGLU-II) baina ergatibitatearen ikuspegitik ez dute ezer gaineratzen. Hortaz, alde batera utzi ditugu gai honetaz aritzeko.

aditzak. Aditz hauek guztiak inergatiboen artean sailkatzeko hautagai onak dira.

Euskara aditz-sailei begira gainerako hizkuntzetatik urrun ez dagoela finkatu ondoren, bere akusatibitatearen aldeko froga batzuk eskaini ditu Levin-ek: alde batetik, partitibo kasuaren banaketa hizkuntza akusatiboetan espero daitekeena da, alegia NOR (jasalea) delako argumentua da partitiboa har dezakeen bakarra, horrek jasalearen papera objektuaren kokagunearekin identifikatzera garamatzalarik. Bestetik, aditz-esapideek eta *egin*-eraikuntzek ere, akusatibitatearen aldeko frogak eskaintzen dituzte: NOR-NORK motako aditzak dituzten esapideak nor(jasalea)+aditza motakoak dira (*burua berotu, piper ulertu, piper egin,...*) ; bestetik, aditz inakusatiboen esapideak ere aurkitzen dira (*Niri burua joan zait*); eta bukatzeko izena+*egin* eraikuntzek ere, hipotesi horren alde azaltzen dira *egin* aditzari lotuta agertzen den elementu hori (*lo egin, kalte egin,...*) jasalea baita beti eta inoiz ez egilea, hizkuntza ergatiboa izanez gero espero litekeenez. Bukatzeko NORK ageririk ez duten izena+*egin* eraikuntzak ere (*euria egin, elurra egin, hotz egin,...*) frogatzat aurkeztu ditu.

Euskararen forma bihurkari, inpertsonal eta antikausatiboei begiratzen bazaie, hizkuntza akusatiboen bereizgarriak diren ezaugarriak ikusten dira berehala, Levin-ek frogatu duenez. Hiru aldaketa-mota horiek [-T] ezaugarriaz bereizirik daude hizkuntza akusatiboetan, eta itxuraz, sintaxizko ondorio berberak ematen dituzte, aldaketa horien arteko anbiguitateak agertzen direlarik. Euskaraz, hiru aldaketa horiek *izan* laguntzailearen agerpenaz bereizten dira, eta espero daitekeenez, bihurkari/inpertsonal (77) eta bihurkari/antikausatibo (78) motako anbiguitateak aurki daitezke aditz egokiak hautatuz gero:

(74) a. Jonek leihoa garbitu du (iragankorra)
b. Jon garbitu da (bihurkaria)[57]

---

[57] Soilik aditz-sail txiki batek du aldaki bihurkarietarako aukera (*garbitu, dutxatu, jantzi, orraztu, aldatu, zikindu,...*). Gainerako aditzen aldaki bihurkariak emateko, izenordain posesiboa+ *burua* motako esapideak erabili behar dira (*Jonek bere burua hil du*). Azpimarratu beharrekoa da, azken anafora hauek laguntzaile-aldaketarik ekartzen ez dutela.

(75) a. Ikasleek nobela hau irakurri dute (iragankorra)
b. Nobela hau irakurri da (inpertsonala)
(76) a. Ikasleak gelan sartu ditugu (iragankorra)
b. Ikasleak gelan sartu dira (antikausatiboa)
(77) Gela honetan haurrak janzten dira
a. Haurrak beraiek janzten dira (bihurkaria)
b. Zehaztu gabeko pertsona batek janzten ditu haurrak (inpertsonala)
(78) Gela honetan haurrak aldatzen dira
a. Haurrek beraiek beren arropak aldatzen dituzte (bihurkaria)
b. Haurrek aldaketak jasaten dituzte (antikausatiboa)

[-T] ezaugarriak subjektuaren kokagunean sortzen den argumentua identifikatzera garamatza. Euskararen kasuan NORK argumentua da desagertzen dena eta beraz, egilea subjektuaren kokagunearekin identifika daiteke, hori hizkuntza akusatiboen ezaugarri nagusia delarik.

Behin euskara hizkuntza akusatibotzat harturik, hizkuntza honek erabiltzen duen kasu-markaketarako sistema da identifikatu behar dena; horixe da hain zuzen hizkuntzalariei buruhauste gehien ekarri dien eta oraindik ere ekartzen dien arazoa.

Izan ere, euskara ez dator bat ez sistema akusatibotik ez eta sistema ergatibotik espero litekeenarekin: lehenengo hurbilketan, aditz iragankorren subjektua morfologikoki markaturik (*-k*) agertzen denez, kasu-sistema ergatiboaren aurrean gaudela pentsa genezake, baina aditz inergatiboen subjektuak ere marka bera hartzeak ideia horren aurkako frogatzat har dezakegu; kasu-sistema akusatiboa ere, baztertu beharrekoa da, zeren aditz iragankorren objektua markatu gabekoa baita eta aditz inakusatiboen subjektuaren kasu bera (absolutiboa) hartzen baitu.

Horrela ba, kasu-markaketa S-egiturako sintaxi-gertaera dela onarturik ere, euskarak D-egiturako harremanen arabera egiten duela dirudi: D-subjektu guztiei ergatiboa (*-k*) ezartzen zaie eta D-objektu guztiei absolutiboa.

Aditz-mota	D-harremanak	S-kasua
Egilea-jasalea	Subjektua-objektua	ERG-ABS
Egilea	Subjektua	ERG
Jasalea	Objektua	ABS

Hala ere, S-subjektuen (aditz inakusatiboen subjektua barne) eta S-objektuen arteko bereizketa aditzera ematen duten sintaxizko gertaerei begiratuz, euskaraz ere hizkuntza akusatiboetan egiten den subjektu/objektu bereizketa egiten dugula dirudi. Hain zuzen ere, subjektuaren kontzeptu hau da 'Pasibitatearen teoriaren' aurka aurkeztu den arrazoi nagusia.[58]

Euskal sintaxiaren akusatibitatea aditzera ematen duten sintaxizko gertaeren artean ondoko hauexek ditugu:

(i) Kontrol-egituretan, subjektua da beti kontrolaturiko elementua, subjektu horren D-egiturako harremana kontutan hartu gabe:

(79) a. [PRO lan egiteari] ekin zion Peruk
b. [PRO mintzatzeari] ekin zion Peruk

(ii) Iparraldeko euskalkietan gertatzen diren nominalizazioetan, genitibo kasua S-objektuei baino ezin ezar dakieke, D-egiturako objektutasuna kontutan hartzen ez delarik.

(80) a. [PRO lagunen/lagunak ikustera] joan zen
b. [*Peruren/Peru etortzeko] esan diet

---

[58] 'Pasibitatearen Teoria', Schuchardt-ek, Lafon-ek eta Lafitte-k defendatu dute beste batzuen artean. Teoria horren arabera, subjektu guztiek absolutibo kasua hartuko lukete, ergatibo marka aurkezten dutenek bestelako hizkuntzetako morfologia pasiboarekin batera azaltzen diren osagarri egileak bezalakoak liratekeelarik. Modu honetara kasu bakoitzak gramatika-funtzio bakarrari egokitzea lortu zen.

(iii) *Elkar* anaforak ezin bete dezake S-subjektuaren gunea, eskatuko lukeen kasuak (ergatiboa edo absolutiboa) eraginik ez duelarik.

(81) a.*Elkarrek ikusi ditu(zte) lagunak
b.*Elkar etorri dira lagunekin
c. Lagunek elkar ikusi dute
d. Lagunak elkarrekin etorri dira

(iv) Koordinazioari dagozkion gertaerek ere sintaxi-mailako akusatibitate honen alde egiten dutela dirudi.

(82) Mirenek semea ikastolan hartu eta etxera joan zen

Honelako perpausetan, beti ulertzen dugu bigarren perpausaren subjektua lehenengo perpausaren subjektu bera dela, eta ez objektua. Horrela ba, euskararen kasu-sistema azaltzen saiatzen den edozein teoriak, sintaxiaren akusatibitatea eta D-egituraren harremanak islatzen dituen morfologia ergatiboa elkartzen saiatu behar du.

Levin-ek (1983), subjektuari eta objektuari kasua hurrenez hurren Inflexioak eta Vak ezartzen dietela onarturik, euskara Burzio-ren orotarapenaren aurka azaltzen den hizkuntza dela defendatu du. Horrela, euskaraz aditz inakusatiboen subjektua, objektuaren gunean sortuko litzateke Burzio-k proposatu duen bezala, baina, aditz hauek objektu horri absolutibo kasua ezartzeko gai lirateke, aditz iragankorren objektuaren kasuan gertatzen den bezala, eta beraz, objektuaren gunean sorturiko argumentu horrek ez luke mugitzeko beharrik.

Kontrol-egituretan nabari den subjektutasuna azaltzeko, hauxe proposatu du: aditz inakusatiboen objektuaren gunea gobernaturik dagoenez, ez da PRO agertzeko egokia, eta kasu hauetan, gora egin behar du PROk

tenporalizatu gabeko perpaus batean egoteagatik kontrolatugabea den Inflexioraino.[59]

(83) a. Ikasleak ikusi ditut [PRO$_i$ [$\overline{VP}$ gelara t_i sartzen]]
b. Medikua ikusi dut [PRO [VP gaixoa operatzen]]

Hala ere, Levin-ek proposaturiko mugimendu horrek, Chomsky-ren (1986) kateen baldintzak bortxatuko lituzke,[60] burua kasurik gabeko gunea izanik buztana kasuduna izango bailitzateke. Bestetik, jokatugabeko perpausetan (bai eta partizipialetan ere) posible litzateke subjektu lexikoa agertzea, aditz inakusatiboen kasuan aditzaren objektuaren gunea beti baita gobernatua (84a). Edozein modutan froga hau ez da inola ere esangarria, aditz iragankorren (84b) eta inergatiboen (84c) subjektu gauzatuak ere ager baitaitezke jokatugabeko perpausetan.

(84) a. pro-k [Jon gurekin etortzea] nahi dut
b. pro-k [Jonek lan hori egitea] nahi dut
c. pro-k [urak irakitea] nahi dut

Hualde-k (1986),[61] euskaraz hiru kasu-ezarle dagoela proposatu du (AGRerg, AGRabs eta AGRdat) hain zuzen ere, hauexek baitira laguntzailearen morfologian halabeharrez islatu behar diren argumentuak. Kasu-ezarle hauen artean, nolabaiteko mailakaketa badela ere proposatu du eta horrela, AGRerg IParen azpian kokaturik dagoen bitartean, gainerakoak VParen azpian daude. Aditz inakusatiboen artean, ergatiboa ezartzen duen elementua ez dagoenez, AGRabs elementuak gora egin eta IParen azpian koka daiteke, aditz horien argumentu bakarra subjektutzat hartzen delarik.

---

[59] (83a) eta (83b) adibideen artean legokeen ezberdintasuna hauxe litzateke: lehenengoan PRO hori sorrera-gunetik Inflexiora mugitu den bitartean, bigarrenean, Inflexioan bertan sortu da.

[60] Chomsky-ren (1986) arabera, kateek kasu eta θ-paper bakar bat izan behar dute: buruak kasua hartzen du eta buztanak θ-papera.

[61] Chomsky-k (1986) harremanetan jarri ditu kasu-ezarketa eta komunztadura. Komunztadura, buru funtzionaletan (I(NFL), C(OMP)) gertatzen da espezifikatzaile/buru harremanaren bidez.

Egitura bihurkari eta inpertsonaletan, inakusatiboetan bezala, AGRerg falta da eta aditzaren bi argumentuetariko bat kasurik gabe geratzen da, halabeharrez kategoria isila (PRO) izan behar duelarik: eraikuntza bihurkarietan AGRabs IParen azpian dago eta beraz VPan dagoen kategoria isila uztartzen du, bi argumentuak halabeharrez erreferentziakidetzat hartu behar direlarik ; inpertsonaletan, VParen barnean dago AGRabs eta beraz, ezin uztar dezake IPan dagoen kategoria isila, halabeharrez irakurketa arbitrarioa eman behar zaiolarik.

Ortiz de Urbina-k (1986, 1987, 1989), iparraldeko euskalkietan perpaus nominalizatuen objektuen genitibizazioak azaltzen duen jokaera, Levin-en proposamenaren aurka azaldu du: aditz inakusatiboen subjektuak aditz iragankorren objektuak paira dezakeen genitibizazioa ez onartzeak, lehenengoa, beste hizkuntzetan bezala mugitu dela esan nahi du. Egile honen arabera, euskaraz, beste hizkuntzetan bezala bi kasu-ezarle legoke: aditza eta Iaren AGR delakoa. Baina euskarak, oso komunztadura aberatsa du (ergatibo, datibo eta absolutiboarekiko komunztadura azaltzen du aditzak), nahita nahiezkoa den komunztadura bakarra absolutiboarena dela egia bada ere. Horrela bada, ondoko berridazketa proposatu du Ortiz de Urbina-k komunztadura elementurako: AGR--> A (E) (D).

Bestetik, kasu-ezarketa ondoko oinarrien araberakoa dela eman du aditzera:

(i) X-i A ezarri bbaldin eta X-en buztana aditzaren lehenengo osagarria bada
(ii) X-i D ezarri bbaldin eta X-en buztana aditzaren bigarren objektua bada

Kasua kateei ezartzen zaienez, objektua mugitu ez bada (aditz iragankorren objektua adibidez) katearen burua eta buztana bat datoz eta objektua mugitu bada (aditz inakusatiboen subjektua adibidez), (NP_i, t_i) moduko katea bat dugu. Modu honetara segurtaturik geratzen da D-egituraren harremana eta kasua bat etorriko direla, zeren aditz iragankorren subjektuak, ez lehenengo objektua ez eta bigarrena ez denez, goiko oinarriak bortxatuko bailituzke A edo D kasuak hartuko balitu. Hipotesi honetan beraz, A kasua aditzak eta

Inflexioak ezar dezakete, eta horixe da beraren aurka aurkeztu den arrazoi nagusia.

Oyharçabal-ek (1990), ontzat eman du euskarak morfologia ergatiboa izanik ere sintaxi akusatiboa azaltzen duelako ideia. Bertatik abiatuta, sintaxi eta morfologiaren arteko ezegokitasun hori azal dezakeen kasu-ezarketarako mekanismo zehatz bat proposatu du. Hasteko, aditzaren argumentu guztiak VParen barnean sortzen direla onartu du.[62] Bestetik, ondoko bi postulatuak proposatu ditu:

(i) Ergatiboa, berezko kasua da
(ii) Absolutiboa, nominatibo eta akusatibo egiturazko kasu abstraktuen morfologiazko agerpena da.

Bestetik, VParen gainean AspP, Agr-oP eta TP islapen funtzionalak ere proposatu ditu egile honek, kasu-ezarketa eta komunztaduraren berri emateko.[63] Oyarçabal-en analisiaren arazo nagusia VParen barnean ergatibo kasua hartu duen NP baten [spec, T] gunerako mugimendua motibatzean datza, mugimendu horren deskateatzailea, buru funtzional desberdinetatik doan aditzaren mugimendua dela defendatu duelarik.

Egile honen mekanismoaren arabera, aditz iragankor bat dugunean [spec, V] eta Varen osagarriaren kokagunean hurrenez hurren sorturiko bi argumentu ditugu. Goren dagoen argumentuari aditzak, ergatibo kasua esleitzen dio berezko mekanismoaren bidez, baina aditzak jokaturik gertatzeko behar dituen morfemak lortzeko gora egin behar duenez, NPerg horrek [spec,T] guneraino mugitu behar du bertan gauzatzen delarik.[64]

---

[62] Proposamen horretarako, Fukui (1986), Sportiche (1988) eta Kuroda (1988) lanetan oinarritu da.

[63] Isladapen funtzional eta lexikoen arteko bereizketa zehazki egin dute Fukui & Speas-ek (1986) eta horrez gero, ez dira falta Iaren barnean zenbait buru funtzional desberdinaren beharra ikusi duten lanak (Pollock, 1989, Chomsky, 1989,...)

[64] Chomsky-ren (1986) arabera, batzuetan kasua konposizionala izaten da, kokagune batean ezarri eta beste batean gauzatzen delarik.

Osagarriaren gunean sorturiko argumentuak, bestetik, ez du hor berezko kasua hartzerik eta gora egin behar du [spec, Agr-O] kokagunean absolutibo modura azalduko den akusatibo kasu abstraktua jasotzera. Aditz inakusatiboen kasuan, NPerg argumenturik ez dagoenez, [spec, T] guneraino igo daiteke objektu modura sortu den argumentua eta han, baita absolutibo modura azaltzen den nominatiboa hartzen du. Objektua sorturiko tokian bertan geratzen denean, hiru modu deskribatu ditu Oyharçabal-ek kasu-iragazkia gainditzeko: partitibo berezko kasua hartzea (*Nik ez dut inoiz ogirik jaten*), inkorporazioa (*Jendeak soldaduei lili eskaintzea gauza harrigarria da*), eta bukatzeko, nominalizazioen kasuan Iparraldeko euskalkietan objektuari genitibo berezko kasua ezartzeko dagoen aukera (*Liburu horien hartzera noa*).

Eraikuntza pasiboetan, sorturiko lekuan bertan dagoen NPerg argumentua azal daiteke (*Liburu hori Axularrek idatzia da*). Honelakoetan aditza Asp bururaino baizik mugitzen ez denez ergatibo kasua ezarri deneko lekuan bertan gauzatzen dela proposatu du. Edozein aditzarekin batera ager daitekeen partizipio perfektiboaren kasuan berriz, aditzak gora jotzen duela ulertu behar da ergatiboak komunztadura azaltzen duenez [spec, T] guneraino mugitu dela ulertu behar delarik (*Nik liburu guztiak apurtuak ditut*).

Oyharçabalen analisiak oztopo ugari dituela dirudi: islapen funtzionaletara mugitu behar duten argumentuek espezifikatzailez espezifikatzaile egiten badute, arazo bat dugu, argumentu bat baino gehiago mugitu behar denean, argumenturen bat jadanik aztarna bat dagoeneko toki batean kokatu behar bailitzateke.

Bestetik, mugimenduetan utziriko aztarnek ECPa[65] bortxatzen ez dutela segurtatu behar da: aditzaren osagarriaren gunean dagoen aztarna beti egoten

---

65 Kategoria Isilen Oinarriaren (ECP) arabera, aztarnek egokiro gobernaturik egon behar dute. Egokiro gobernaturik egoteko bi aukera dute: lexikoki gobernaturik egotea (buru lexiko baten osagarri izatea) edo aintzindariak gobernatuak izatea (aintzindariak c-komandatu behar ditu eta ez da tarteko hesirik egon behar)

da lexikoki gobernaturik eta beraz egokiro gobernatua da beti; baina espezifikatzailean kokaturiko edozein aztarnak, aintzindariaren gobernua behar du. Chomsky-ren (1986) hesiaren definizioaren arabera, VPa beti izaten da hesia eta hesi hori gainditzeko dagoen aukera bakarra VPari itsastea da. Fukui &Speas-en (1986) hesiaren definizioaren arabera, espezifikatzailea duten islapen funtzionalak baizik ez dira hesiak, eta beraz, VPa ez litzateke hesia. Hala ere, argumentu bat baino gehiago atera behar dugunean, arazoak aurkitzen ditugu berriro ere.

Cheng & Demirdash-en (1991) proposamena, argumentuak VParen barnean sortzeak ekartzen dituen ECParen aurkako arazoak konpontzen saiatu da hain zuzen ere. Egile hauek Laka-k (1991) euskal laguntzailearen antolaketa morfologikoaren berri emateko proposaturiko aparailu funtzionaletik abiatuta (AuxP, MP, TP), aditzaren argumentu guztiak VPtik kanpo sortzen direla defendatu dute. Horrela, aditzaren morfologia azaltzeko Laka-k proposaturiko buru funtzional bakoitzaren azpian Agr elementu bat dagoela proposatu dute. Argumentuak Agr elementu horien espezifikatzaileetan sortuko lirateke. Aditzaren paper tematikoak ez lirateke VParen barnean deskargatuko. Aitzitik, deskargatu gabeko paper horiek, buru funtzionaletan gora iragan eta Agr buruetan deskargatuko lirateke.

Ikuspegi hori defendatzeko hauxe eman dute aditzera: euskaraz argumentu bakoitzak subjektu bailitzan jokatzen du, zeren laguntzailearekiko komunztadura azaltzen baitu eta ezaba baitaiteke. Horrela ba, aditzaren argumentuak, Agr islapenen espezifikatzaileetan sortuko lirateke aldi berean paper tematikoa eta kasua jasoz. Ondoren, argumentuak goian dituzten islapen funtzionalen espezifikatzaileetara mugituko lirateke, hauek A-barra motako guneak liratekeelarik.[66] Egile hauen arabera, bada, euskaraz berezko kasu-ezarketa baizik ez legoke, argumentuei D-egituraren gunean ezarriko bailitzaieke kasua. Ondorioz, egiturazko kasurik ez legokeenez,

---

66 A-guneak paper tematikoa edo kasua ezartzen direneko guneak dira eta A-barra guneak bi baldintza horietatik bat ere betetzen ez duten guneak.

Burzioren orotarapena alferrikakoa litzateke euskararako, Belleti-ren arabera egiturazko kasuetarako baizik betetzen ez baita.

AuxP, MP eta TP islapenen espezifikatzaileenak A-barra guneak lirateke; horrela, Agr islapenen espezifikatzaileetan sorturiko argumentuak goiko edozein islapen funtzionalen espezifikatzailera mugi litezke, modu honetara euskararen ordena-askatasun handia lortuko litzatekeelarik.[67] Ikuspegi honetan ondo azal daiteke Levin-en (1983) oharra, alegia euskaraz kasu-markaketa eta θ-paperen ezarketa harreman estuetan dauden prozesuak direlakoa, zeren konfigurazio horretan, D-egiturako harremanetatik zeharo finkaturik baitaude S-egiturako kasu-harremanak.

Bukatzeko, nominalizazioetan gauzaturiko argumentuak agertzeko aukera azaltzeko, honelakoetan AgrP islapenak baizik ez daudela eman dute aditzera, horrela jokatugabeko adizkia izanik (eta beraz, Aux, M eta T islapenen gabezia gertaturik), posible baita aditzaren argumentuek kasua hartzea.

Uriagereka-k (1991), Cheng & Demirdash-en (1991) analisiaren aurkako zenbait argudio eskaini ditu: argumentu guztiei kasua berezko mekanismoaz ezarriko balitzaie, paper tematikoen eta kasuen arteko harreman biunibokoa behar litzateke, harreman tematiko hori baita berezko kasuen definizioaren eragile nagusia. Bestetik, inkorporazioen jokaera dela eta (85, 86), badirudi objektu zuzena Varen osagarri modura sortzen dela eta subjektuekiko jokaera asimetrikoa horrexegatik azaltzen duela: [68]

(85) a. Jonek lana egin du
b. Jonek lan egin du

---


[67]Egile hauen analisiaren arabera, 'scrambling' delako gertaera, A-barra gune baterako mugimendua da. Horrexegatik ez da ECParen bortxaketarik gertatzen honelako mugimenduetan.

[68] Baker-en (1988) arabera, inkorporazioa gertatzeko, inkorporatuko den elementuak inkorporazioaren bukaera izango den buruak gobernatua izan behar du.

(86) a. Lanak nekatu nau
b. *Lan(ek) nekatu nau

D-egituraren harremanen eta S-kasuen arteko harreman zuzena azaltzeko, komunztadura-klitikoak VParen barnean DPen buru modura sor litezkeela iradoki du: DP horien espezifikatzailea benetako argumentua litzateke eta beraren osagarria pro kategoria isila (84).

(87)



S-egituran klitikoak dagokien buru funtzionalera igoko lirateke eta era berean argumentuak beren espezifikatzialeetara. Horrela, klitiko eta argumentuen arteko egokitasunaren berri eman daitekeela defendatu du Uriagereka-k.

Lan honetan hasteko, Varen argumentuak VParen barnean sortzen direla eta modu berean XP izenki-predikatuen argumentuak ere XParen barnean sortzen direla onartuko dugu. Bestetik, hala adizki-predikatuek nola izenki-predikatuek zenbait kategoria funtzional (islapen hedatuak) islatzen dituztela defendatuko dugu, islapen hedatu horien ezaugarrien eragilea predikatu-burua bera delarik. Horrela, f-isladapenen mailan ari garenean balio duen harremana ez da osagarrien hautaketarena buruen isladapena baizik: buruaren ezaugarriak islapenetan gora iragaten dira.

Bigarrenik, Laka-ren (1991) antolaketa onartuko dugu Varen islapen funtzionaletarako; (AspP)- AuxP- MP- TP antolaketa hain zuzen ere. Hortaz, VP baten buru modura bi argumentuko V baten kasuan (*erosi* aditza esate baterako) aditz horrek aparailu funtzional egokia islatuko luke bere islapen hedatua eratuz. Islapen horretan gora buru modura dugun aditzaren ezaugarriak iragaziko lirateke, beren artean argumentu-kopuru eta argumentu-motari dagozkien ezaugarriak hain zuzen. Ondorioz, behar den motako laguntzailea azalduko litzateke Aux buruaren azpian.

Hirugarrenik, VParen barnean sorturiko argumentuek gora egin beharko lukete, islapen hedatuen espezifikatzaileetan (egiturazko) kasua hartzeko. Mugimendua islapen funtzional desberdinetara itsatsiz egingo lukete argumentuek, hutsik legokeen azken espezifikatzailean geldituko liratekeelarik: lehenengo argumentua [spec, T] gunean, bigarrena, [spec, M] delakoan eta hirugarrena [spec, Aux] espezifikatzailean. Bestetik, laguntzaileak buruz buruko mugimenduaren bidez islapen funtzional desberdinak zeharkatuko lituzke, espezifikatzaileetan kokaturiko argumentuekiko komunztadura (espezifikatzaile/buru mekanismoaren bidezko komunztadura) gauzatuz .

Ikus daitekenez, hiru argumentuko aditza izan beharrean, argumentu bakarreko aditza bagenu, argumentu horrek gora egingo lukeenean hutsik aurkituko lukeen azken espezifikatzailea, [spec, T] litzateke eta beraz, han geldituko litzateke. Baina horrek ez luke inolako arazorik ekarriko laguntzailearekiko komunztadurari begira: laguntzaileak ere Vak ezarritako ezaugarriak lituzkeenez, komunztadura egokia eragingo luke.

Mekanismo hau 'hartzaile' motako argumentu bat duten *luze* edo *kaltegarri* bezalako izenondoek sortzen dituzten eraikuntzen berri emateko asmatuko dugu, izenki-predikatuetarako ezezik, adizki-predikatuetarako ere baliogarria dela ikusiko dugularik.

Laburbilduz, laguntzailearekiko komunztadura azaltzen duten argumentuetarako egiturazko kasu-ezarketa proposatuko dugu. Hala ere, zenbaitetan, berezko kasu-markaketa ere gertatzen dela onartuko dugu: partitiboa adibidez, Vak ezarriko lioke bere osagarriari berezko

mekanismoaren bidez, zenbait baldintza beteko liratekeenean. Areago, izenki-predikazioaren arlora hurbiltzen garen neurrian, ahulduz doa XP predikatuaren argumentu guztiek laguntzailearekiko komunztadura azaltzeko beharra. Adibide bat ematearren, sarritan pasibotzat hartu izan diren, *liburu hau Axularrek idatzia da* bezalako partizipio-eraikuntzetan, laguntzaileak ez darama ergatibo markadun argumentuarekiko komunztadura. Horrelako kasuetan bada, ergatiboa ezartzeko berezko mekanismo bat dagoela defendatuko dugu.

1.5. Partitibo kasu abstraktua eta euskararen *-(r)ik* morfologiazko marka

Arlo teoriko orokorrari dagokionez, zeharo erabakikorra izan da Belleti-ren (1988) partitibo kasuaren inguruko lana. Lan honen ondorioak honelaxe labur daitezke:

(i) Partitiboa, aditz inakusatiboek eta iragankorrek beren objektuei ezar diezaieketen berezko kasua da.

(ii) Partitibo kasua hartzen duen NPak beti azaltzen du irakurketa mugagabea (88a,b), kuantifikatzaile existentzial baten antzekoa eta inoiz ez kuantifikatzaile unibertsalarena (88c). Horrenbestez, Belleti-ren arabera, 'Mugagabetasunaren eragina'[69] da berezko kasu honen agerpenik nabariena:

(88) a. There is a man in the room
b. *There is the man in the room
c. *There is every man in the next room

(iii) Belleti, Burzio-ren (1986) 'Kasuaren Garraioaren Hipotesia'[70] delakoaren aurka azaldu da, objektuaren gunean mantentzen den NP horrek 'Mugagabetasunaren eragina' azaltzen duenez, partitibo kasua (eta ez nominatiboa) hartzen duela pentsatu behar delarik.

(iv) Finesa eta islandieraren adibideetan oinarriturik, objektuaren gunean berezko mekanismoaz markaturiko argumentu bat kasudun

---

69 'Definiteness Effect' Belleti-ren (1988) terminologian

70 'The Case Transmission Hypothesis' delakoan, Burzio-k (1986) aditz inakusatiboen objektu tematikoak bere sorrera-gunean nominatibo kasua jaso dezakeela defendatu du: subjektuaren kokagunean dagoen espletiboak objektuaren gunean dagoen NParekin katea bat eratuko luke, kasua katean zehar garraiatuko litzatekeelarik.

kokagune batera mugi daitekeela, eta beraz berezko kasuaz gain egiturazko kasua ere har dezakeela defendatu du.

(v) Bukatzeko, partitiboaren berezko izaeratik ateratzen den ondorio interesgarri bat iradoki du: ' kasu-ezarketa berezia'[71] deritzon gertaera azaltzen duten egituretan ez da posible partitiboaren esleipena.

(89) a. Consideravo [gli studenti intelligenti]
b. *Consideravo [studenti intelligenti]
c. *Studenti, ne consideravo[__intelligenti]

Ikus daitekeenez (89c), SCaren subjektua ezin adieraz daiteke *ne* klitiko partitiboaren bidez. Hala ere, kontutan hartu beharrekoa da , Q espezifikatzaile bat duten NP mugagabeek partitiboa hartzeko aukera dutela baina ez beharra, (90) adibideen gramatikaltasunetik ondoriozta daitekeenez.

(90) a. Consideravo [alcuni studenti intelligenti]
b. Ritenevo [alcuni bambini divertenti]

(90) adibideetan, NP mugagabeak ditugu SCen subjektu gisa, baina partitibo kasua gabe akusatiboa dutela pentsatu behar dugu, eraikuntza horietan ECM delako mekanismoak eragiten baitu. Horrela ba, ez dago 'mugagabetasunaren eraginik' NP mugatuak ere posible direlarik (89a).

Belleti-ri jarraiki beraz, 'partitiboa', Vek beren osagarriei eslei diezaieketen kasu abstraktua da eta ez du morfologiazko marka ageri bat izan beharrik. Kasu abstraktu horren eraginetariko bat, daramaten NPei irakurketa

---

71 'Kasu-ezarketa Berezia' (ECM) delako gertaera predikatu modura kasu-ezarle ez den kategoria bat duten osagarrietan (perpaus infinitiboetan edo perpaus txikietan) gertatzen da. Eraikuntza hauen subjektuak, θ-papera perpaus txertatuaren predikatutik hartzen duen arren, kasua aditz matrizetik hartu behar dute. Horrela, kasu-ezarketarako mekanismo honetatik, bazterturik dago tematikoki erlazionaturik egon behar duen berezko kasu-ezarketa.

mugagabea ezartzea da (kuantifikatzaile existentzial baten irakurketa ezartzea hain zuzen), baina horrek ez du esan nahi NP mugagabe guztiek partitiboa daramatenik, partitiboa daramaten NP guztiak mugagabeak direla baizik.

Puntu honetan, bestelako erreflexio bat egin daiteke: 1.3.5. azpisailean agerian utzi dugunez, egiturazko kasu guztietarako (bai subjektuaren eta baita objektuaren kasurako) islapen funtzional baten espezifikatzaile/buru harremana onartzen badugu, ez dago kasu-ezarketa bereziaz hitz egiteko arrazoi garbirik: ingelesaz *to consider* bezalako aditzen osagarriak diren perpaus txikien edo perpaus berezien subjektuak azaltzen duen akusatibo kasua, aditz nagusiak perpaus txertatuaren muga zeharkatuz ezartzen diola onartu beharrean, aditz matrize horrek islatzen duen AgrOP islapen funtzionalean espezifikatzaile/buru harremanaren bidez ezartzen zaiola pentsa daiteke (Chomsky,1992). Horrela, egiturazko kasu-ezarketarako (bai kasu-ezarketa arruntarako bai eta kasu-ezarketa berezirako ere) mekanismo bakarra legoke.

Euskarari begiratzen badiogu, ohituraz, *-(r)ik* morfologiazko markari 'partitibo' deritzo. Bistan da, hala ere, partitibo marka hori eta Belleti-ren partitiboa parekatzeko orduan arreta handiaz jokatu behar dugula:

(a) D-objektuei soilik ezar dakieke, Belleti-ren partitiboa bezala (91 a, b), bestelako argumentuetatik bazterturik dagoelarik (91c).

(91) a. Ez dut ikaslerik ikusi
b. Ez da ikaslerik etorri
c.*Ez du ikaslerik ezer ikasi

(b) Marka hau daraman NP oro, mugagabetzat hartzen da (92, 93).

(92) a. Eguneroko ikaslea etorri da zutaz galdezka
b. Gaur ez da eguneroko ikaslea etorri
c.*Gaur ez da eguneroko ikaslerik etorri

(93) a. Arrasateko ikasle bat dut aurten
b. Aurten ez dut Arrasateko ikaslerik

(c) *-(r)ik* bukaera horrek kuantifikatzaile existentzial baten bidezko irakurketa ezartzen du (94a):[72] ikusi partitibo markaren ordez absolutiboa jartzen badugu kuantifikatzaile existentzialaren irakurketa desagertu egiten dela (94b).

(94) a. Ez dugu ogirik erosi
-∃ x, x ogia, guk x erosi
b. Ez dugu ogia erosi
x= ogia, EZ, guk x erosi[73]

---

[72] Ortiz de Urbina-k (1986) ere, euskararen *-(r)ik* partitiboetan kuantifikatzaile huts bat dagoela defendatu du. Baina kuantifikatzaile horrek, irakurketa existentziala ezezik, irakurketa unibertsala ere badu bere iritziz eta ondoko adibideak eta irakurketak eskaini ditu.

(a) Ijitorik hor bizitzea zoroa iruditzen zait
∀ x, x ijitoa, x hor bizitzea.....

(b) Hauxe duk estilorik aurreratuena
∀ x, x estiloa, (hauxe x baino aurreratu)ago

Geure iritziz (Itziar Laka-k, komunikazio pertsonalean ikusterazi digu hau), ez dago inola ere garbi goiko esaldi horien irakurketa kuantifikatzaile unibertsal batean denik eta hurrengoen antzeko irakurketak izan litzatekeela bururatu zaigu.

(a) (∃x, x ijitoa, x hor bizi) zoroa iruditzen zait

(b) ∃x, x =estiloa, ∀ y, y=estiloak-x , x y baino aurreratuagoa

[73] Ikus daitekeenez, partitiboa kuantifikatzaile huts bat litzateke eta ez luke igoerarik pairatuko; bestela ezeztapenarekin elkartzean, anbiguitateak sortuko lirateke, bi kuantifikatzaile-igoera dagoenean ohizkoa den bezala (i) (O. de Urbina, 1986).

(i) a. Ez ziren lau ikasle eskolara etorri
b. i) EZ, x= lau ikasle, x eskolara etorri
ii) x=lau ikasle, EZ, x eskolara etorri

(ii) a.. Ikaslerik ez zen eskolara etorri
b. i) EZ, ∃ x, x ikasle, x eskolara etorri
ii)*∃ x, x ikasle, EZ, x eskolara etorri

Horrela ba, partitiboa duten izen-sintagma hauek LF mailan mugitzen ez direla ondorioztatu du Ortiz de Urbina-k. Bestalde, kuantifikatzailearen igoera gertatuko balitz, ez legoke subjektu eta objektuaren arteko asimetrikotasunik, subjektuaren gunean utziriko aztarna ere bere aintzindariak gobernatuko bailuke egokiro. Kayne-ren analisia berriz,

(d) Belleti-ren partitiboa ez bezala, euskararen *-(r)ik* morfologiazko marka, polaritate-testuinguruetara (95 a, b,c, 96) eta zenbait menperatutara (97) murrizturik dago.[74]

(95) a. Gela honetan **ez** dago argirik
b. Gela honetan **ba**dago argirik
c. **Ba al** dago argirik gela honetan**?**
d.*Gela honetan argirik dago

(96) a. Nekez aurkituko duzu ikaslerik abuztuan
b. Horrelako astakeriarik ikasle horrek soilik idatziko luke

---

egokitzat jo du egile honek, zeren partitiboari loturiko kuantifikatzaile huts bat egonik, ECParen arabera gobernaturik egon beharko bailuke, eta berehala azalduko bailirateke objektu eta subjektuaren arteko asimetrikotasunak. Horrela, partitibodun kuantifikatzaile-sintagmek honen antzeko egitura izango lukete: [QP [e] [NP N*rik*]'

Analisi honen aldeko froga bat, gero eta galduago badago ere, oraindik ere posible den kuantifikatzaile gauzatuekin batera agertu ohi den partitiboaren erabilera dugu (iii).

(iii) a. Gizonik nahikoa etorri da.
b. Eskerrik asko.
c. Hizkuntzarik gehienek erabiltzen dute hitz hori.

Bestalde, kuantifikatzaile isilek, fonologikoki gauzaturiko elementuak ez direnez ez dute kasuaren beharrik eta objektuaren gunean gera daitezke Ortiz de Urbina-ren arabera

[74] De Rijk-ek (1972) 'Partitive Assignment' izenaz bataiatu duen erregela bat proposatu du. Erregela horren bidez NP mugagabeei partitiboa esleituko litzaieke, mekanismo hori testuinguru jakin batzuetan soilik deskateatuko litzatekeelarik: alde batetik, ezeztapenaren testuinguruetan eta ezeztapenaren antzekotzat har daitezkeen testuinguru batzuetan, alegia *ezin,* eta *nekez, soilik* edo *bakarrik,* eta *beste* segmentuen presentzian; bestalde, bai/ez motako galderen testuinguruan; eta bukatzeko, zenbait menperatutan, alegia zehar-galderetan, baldintzazkoetan eta 'predikatu afektiboek' hartzen dituzten menperatuak.

(97) Harrigarria da ordu honetan ikaslerik ikustea[75]

(e) Izenki-predikazioaren arloan, predikatuaren burua izenondo edo izen bat denean behintzat, XP horren subjektuari, paper tematikoa X buruak esleitzen dio, baina buru hori ez da gai paper tematikoarekin batera kasua emateko. Horrela ba, kasua beste nonbaitetik etorri behar du eta berezko kasu-markaketa bazterturik egon behar du, beti ere nolabaiteko egiturazko kasu-markaketaz pentsatu behar delarik.

(98) a. Nekez aurkituko duzu hor ikaslerik
b.?Nekez aurkituko duzu hor ikaslerik urduri
c.?Nekez aurkituko duzu ikaslerik urduri

(99) a. Ikerketa-proiekturako ez duzu ikaslerik hartu behar
b.?Ez duzu ikaslerik tontutzat hartu behar

(100) a. Gaur ez dago ikaslerik Fakultatean
b.*Gaur ez dago ikaslerik nekatuta Fakultatean

Euskararen kasuan, harrigarriena da, partitibo marka azpikategorizaturiko perpaus txikien subjektuaren gunetik ezezik (98c, 99b, 100b) bigarren mailako predikazioaren arlotik ere (98b) bazterturik egotea da: partitiboa paper tematikoarekin batera ezarri behar den berezko kasua bada, espero daitekeena da azpikategorizaturiko perpaus txikien subjektutik baztertuta egotea, subjektu horri θ-papera izenki-predikatuaren buruak ematen baitio eta buru hori ez baita inolako kasurik esleitzeko gai. Bigarren mailako predikatuen kasuan berriz, perpausaren argumentu gauzatu guztiak aditz matrizearen argumentuak dira (perpaus txiki adjunktuaren subjektua PRO kategoriakoa litzateke) eta beraz, osagarri zuzenaren kasuan posible izan

---

[75] Laka-k (1990) azpimarratu duenez, partitibo-marka hau *inor, ezer* edo *inon* bezalako 'ezezko polaritatezko hitzen' ('negative polarity items' NPI) antzekoa da, baina ez da guztiz berdina: bai NPIek eta baita partitibo-markak ere, nolabaiteko zilegiztapena behar dute baina NPIen zilegiztatzaileak ezeztapenak izan behar duen bitartean, partitibo-markarenzilegiztatzaielak gehiago dira, eta bestetik, NPIak edozein motatako argumentuei egoki dakiekeen bitartean, partitiboa D-objektuei murrizturik dago.

beharko luke aditz matrizeak objektu horri paper tematikoa eta kasua berezko mekanismoaren bidez emateak.

Horrenbestez, euskararen *-(r)ik* morfologiazko marka daramaten NPek Belleti-ren ezaugarriak betetzen dituzte, baina marka hori Belleti-ren partitiboa baino murriztuago dagoela dirudi. Ondorioz, *-(r)ik* morfologiazko marka daramaten argumentu guztiek partitibo kasu abstraktua daramatela esan dezakegu, baina horrelako morfologia ageririk ez duten argumentuek ere Belleti-ren zentzuan partitibo kasu abstraktua eraman dezaketela pentsatu behar dugu: partitiboaren kasu abstrakturako argumentu horiek mugagabeak izan behar dute eta mugagabetasunaren eragina ere, azaldu behar dute.

Euskaraz badugu *-(r)ik* morfologiazko marka hartu gabe mugagabetasunaren eragina azaltzen duen eraikuntza-mota bat, antipasiboa hain zuzen ere (102).

(101) a. Gauza asko ikusi ditut
b. Zure etxea ikusi dut
(102) a. Gauza asko ikusia naiz
b.*Zure etxea ikusia naiz

Goiko adibideak konparatuz, bistan da eraikuntza aktiboan (101) osagarri zuzena mugagabe zein mugatua izan daitekeela, hots mugagabetasunaren eraginik ez dagoela. Baina eraikuntza antipasiboetan (102) mugagabetasunaren eragina ikus daiteke, kuantifikatzaile baten beharra baitago. Azalpena, hauxe izan daiteke: eraikuntza aktiboetan jokaturiko aditzak argumentu guztiekiko komunztadura behar du, horrela argumentuek Varen islapen hedatuetan gora egiten dute eta egiturazko kasua hartzen dute 1.4. azpiatalean azaldu duguneko moduan. (102) eraikuntza antipasiboetan ordea, *egon* aditzaren osagarri modura txertaturiko partizipio-perpausa dugu (ikus laugarren atalaren 4.4.3. azpisaila).

(102') a. pro [gauza asko ikusia] naiz
b.*pro [zure etxea ikusia] naiz

Izan aditzarekin komunztadura azaltzen duen lehenengo pertsonako izenordaina, *ikusi* aditzaren argumentua da *gauza asko* edo *zure etxea* bezala, baina lehenengoak azaltzen duen komunztaduragatik ikus daitekeenez, egiturazko kasua hartu du *egon* aditzaren islapen hedatuan. Kontutan hartu behar da orduan, *egon* aditza argumentu bakarrekoa dela eta beraz, gune bakarreko laguntzailea islatzen duela. Hortaz beste argumentuak (osagarri zuzenak), bere perpausaren barnean hartu behar du kasua eta izan ere partizipiotik hartzen du partitibo berezko kasua.

Euskal gramatikaren tradizioari jarraiki bai *gauza asko* eta bai *zure etxea* osagaiek absolutibo kasua dutela esango genuke, bai (101) eta bai (102) adibideei dagokienez. Baina morfologiazko sailkapen hori ez dator bat kasu abstraktuen banaketarekin, absolutibo morfologiazko marka gutxienez nominatibo, akusatibo edo partitiboa daramaten argumentuek azal baitezakete.

Ikusten nabariki zailagoak diren arren, badira 'mugagabetasunaren eragina' agertzen duten beste testuinguru batzuk ere: partitibo kasu abstraktuaren agerpenak izan daitezkeen mugagabetasunaren eragin horiek, irakurketa existentziala onartzen duten aditz inakusatiboetan azaldu behar dute segurtasun handiaz eta beraz, honelako eragina ikusi ahal izateko hautagai onenetariko bat *egon* aditza izan daiteke.

(103) adibideetan, mugagabetasunaren eragin garbia ikus daiteke, a eta b adibideak onargarriak diren bitartean c eta d baztertzekoak baitira

(103) a. Zure argumentazioan puntu ahul bat dago
b. Zure argumentazioan badago puntu ahul bat
c. *Zure argumentazioan puntu ahula dago
d. *Zure argumentazioan badago puntu ahula

Subjektu modura NP mugatua hartzeko ezintasunarekin batera, irakurketa existentziala (104) ikus daiteke, horrek partitibo kasuaren aurrean gaudela bermatzen duelarik.

(104) Σ x, x=puntu ahula, zure argumentazioan x dago

Hala ere, itxuraz mugagabetasunaren aurkako datuak diren (105) bezalako perpausak onargarriak dira. Perpaus hauetan, (103c) eta (103d) adibideetan bezala, mugatzailea duten subjektuak ditugu, baina oraingoetan mugatzailea plurala da.

(105) a. Zure argumentazioan arazoak daude
b. Zure argumentazioan badaude arazoak

Adibide horien interpertazioari zehazkiago begiratuz ordea, 'mugagabetasunaren eraginaren' aurkakoak ez direla ikus daiteke: subjektu horiek irakurketa mugagabea hartzen dute, (104) zenbakiaz adierazi den irakurketa existentzialaren antzekoa hain zuzen ere. Horrenbestez, honelako perpausetan *-rik* marka azaltzen ez bada ere, partitibo kasu abstraktua ezarri dela pentsa daiteke.

Ikus dezagun, ia testuinguru horietan onargarria den *-rik* partitibo-marka morfologikoa.

(106) a. *Zure argumentazioan puntu ahulik dago
b. Zure argumentazioan badago puntu ahulik

(103) eta (105) sailetako a eta b adibideak onargarriak diren bitartean, (106a) adibidea ez da onargarria: *-rik* marka morfologikoak, partitibo kasu abstraktua ezezik, polaritatezko elementu baten zilegiztapena eskatzen du. Zilegiztatzailea *ba-* aurrizki enfatikoa (106b) edo ezeztapenaren aditzondoa (107a) izan daitezke (hain zuzen Laka-ren (1990) Σ buruaren balioetako bi) edo baita zenbait menperatu (107b, c) eta zenbait aditzondo ere (107d).

(107) a. Zure argumentazioan ez dago puntu ahulik
b. Zure argumentazioan puntu ahulik badago, berehala jakinaraziko dizute
c. Zure argumentazioan puntu ahulik egotekotan, berehala jakinaraziko dizute

Ideia hauek indartzeko, konpara ditzagun *egon* aditzaren adiera existentziala duten (103), (105) (106) eta (107b) adibideak kokapenezko edo atribuziozko adiera duten (108) adibideekin. Adiera hauetan ez dago mugagabetasunaren eraginik, horrek subjektuak partitiboa gabe bestelako kasu bat jaso duela esan nahi duelarik.

(108) a. Argumentazioaren puntu ahula hasierako hipotesian dago
b. Argumentazioaren puntu ahula konpondu gabe dago oraingoz
c. Argumentazioaren puntu ahul(etariko) bat hasierako hipotesian dago
d. Argumentazioaren puntu ahul(etariko) bat konpondu gabe dago oraingoz

Pluraleko mugatzailea daramaten subjektuak ere onargarriak dira (109), baina oraingoan irakurketa mugatua dute, (105) adibideetan ez bezala. Hauetan ere partitiboa ez den kasua ezarri zaiela esan daiteke beraz.

(109) a. Argumentazioaren puntu ahulak hasierako hipotesian daude
b. Argumentazioaren puntu ahulak konponduta daude

Horretaz gain, (108) eta (109) adibideetan, ez dugu irakurketa existentzialik, subjektuak daraman kasua zalantzarik gabe partitiboa ez dela esan dezakegularik.

Orduan, irakurketa existentziala duten (103), (105) (106) eta (107b) adibideetan, 'mugagabetasunaren eragin' garbia dugula esan dezakegu: osagarri zuzena bere sorrera-gunean geratu da eta aditzak partitibo kasua esleitu dio berezko mekanismoaren bidez. Horrexegatik da ezinezkoa argumentu mugatua gune horretan. (107a) adibidean, ezinezkoa da partitibotzat hartu ohi den *-rik* morfologiazko marka, argumentu horrek partitibo kasu abstraktua izanik ere bukaera horren ezarketarako behar den zilegiztapena falta baita.

Horrenbestez, partitibo berezko kasu abstraktuaren esleipena eta *-rik* morfologiazko markaren eransketa, bereizi beharreko gertaerak dira: morfologiazko markaren eransketarako partitibo kasu abstraktoaren ezarketaz gain, elementu berezi batzuen zilegiztapena behar da.

Esan beharrekoa da Oyharçabal (1990) euskararen kasu-sistema aztertu duenean, antzeko ondoriora heldu dela ergatibo eta absolutibo marka morfologikoei dagokienez: nominatibo eta akusatibo kasu abstraktuak, morfologian ergatibo edo absolutiboaren bidez gauza daitezke eta akusatibo kasu abstraktua absolutiboaren bidez gauzatzen da morfologian. Aukera guztiak erlazionatuz, ondoko eskema lortuko genuke:

(110)

KASU ABSTRAKTUA / MARKA MORFOLOGIKOA	nominatiboa	akusatiboa	partitiboa
ergatiboa	+	–	–
absolutiboa	+	+	+
partitiboa	–	–	+

1.6. Izenki-predikazioa, kasu-ezarketa eta hesiak

Izenki-predikazioaren arloan, predikazio-harremanak osagai bati ote dagozkion finkatu behar da ezer baino lehenago. Tesi honen sarreran bertan azaldu dugunez arazo honetarako bi konponketa desberdin proposatu dira 'Predikazioaren Teoria' (Williams, 1980, 1983) eta 'Perpaus Txikien Teoria' (Stowell, 1981, 1983): lehenengo ikuspegitik, predikatuaren islapen nagusitik kanpo dagoen argumentua da subjektua, eta horrek bete behar duen baldintza bakarra, predikatua c-komandatzea da. Perpaus Txikien analisian ordea, subjektu/predikatu harremanari egitura-mailan ere osagai bat dagokiola defendatu da.

Izenki-predikazioaren ezaugarri aipagarriena, predikatu-buruak kasu-ezarketarako duen ezintasuna da zalantzarik gabe. Horrela, izenki-predikatuak bere subjektua θ-markatzen badu ere, eta subjektu eta predikatuak nolabaiteko osagaia osotzen dutela onarturik ere, argumentu horrek θ-markaketarako ikusgarri izan dadin behar duen kasua, osagai horretatik kanpo bilatu behar du.

Subjektu horrek bi modu izan ditzake behar duen kasua eskuratzeko: lehenengoa, bere sorrera-gunean bertan kanpoan dagoen kasu-ezarle batetik hartzea liteke; mekanismo horri 'kasu-ezarketa berezia' deritzo (ikus 1.4. azpiatala). Bigarren aukera subjektu hori kasua har dezakeeneko kokagune batera mugitzea liteke; gune horrek, θ´-gunea izan behar du eta bestetik, mugimendu horretan katea bat (NP_i, t_i) eratzen da.

Perpaus txikiaren igoeraren eta kasu-ezarketa bereziaren kasuetan, antzeko arazoa dugu. Izan ere kasu-ezarketa gobernu pean gertatzen denez (Chomsky, 1981), subjektu horrek gobernaturik egon behar du, kasua sortu deneko gunean bertan jaso ahal izateko. Bestetik, mugimendurik egotekotan aztarna bat geratzen da mugimenduaren sorrera-gunean 'Islapenaren Oinarria' ez bortxatzeko, eta aztarna horrek egokiro gobernaturik egon behar du.

'Gobernua' da beraz, ezinbeste definitu beharreko harremana. Chomsky-ren (1981) lanean, ondoko definizioa eskaini zen gobernu-harreman horretarako:

(111) α -k β gobernatzen du bbaldin
(i) α=X°
(ii) α-k β c-komandatzen badu eta, baldin γ-k β c-komandatzen badu, orduan γ-k α c-komandatzen du edo bestela, β-k γ c-komandatzen du

Ondorioz, gobernatzaileak buruak izaten dira beti; gainera, elementu gobernatua c-komandatu behar dute eta beren artean ez da islapen nagusirik egon behar. Bestetik, kasua gobernupean ezartzen dela onarturik, objektuari kasua Vak berak ezartzen dion bitartean subjektuari inflexioaren AGR elementuak ematen diola pentsatu behar da.

Gobernuaren definizio horrek, ondorio interesgarriak ekarri ditu baita 'kasu-ezarketa bereziaren' inguruan: SCen subjektuari kasua kanpotik ezarri behar bazaio, SCa ezin izan daiteke islapen nagusia. Arlo honetan, S maila proposatu zen SCetarako (Chomsky, 1981), eta beren subjektuari V aditz nagusiak gobernu pean kasua ezartzen ziola ere onartu zen. Izan ere, honen aldeko daturik argigarriena zelakoan, subjektu horiek ingelesaz objektuen tipikoa den akusatibo kasua hartzen zutela azpimarratu dute hizkuntzalariek.

(112) I consider [him intelligent]

Aukera hori posible ez denean, mugimenduaz pentsatu behar da. SCaren subjektua kasua har dezakeeneko gune batera mugitzen dela onartu ahal izateko, bi baldintza behar dira: alde batetik, θ-paperik hartzen ez duen gune batek egon behar du mugituriko argumentu hori hartzeko eta bestetik, mugituriko argumentuak utziriko aztarnak egokiro gobernaturik egon behar du (ECP).

Θ-paperik gabeko A-guneen bila abiatzen bagara,[76] subjektuen esparruan bilatu behar ditugu, zeren objektuarena beti baita θ-gunea 'Islapenaren Oinarriaren' arabera. Subjektuaren gunea berriz, 'Islapenaren Oinarri Zabaldua' edo 'Predikazioaren Oinarria' direlakoetatik atera daitekeenez, θ'-gunea izan daiteke zenbait egoeratan.

θ'-subjektuen kasuistika finkatzeko orduan, 'Burzioren Orotarapena' izenaz ezagun denetik abia gaitezke: aditz batzuk ez dira beren objektuei kasua ezartzeko gai eta honekin batera ez dituzte beren subjektuak θ-markatzen. Berezitasun bikoitz hau azaltzen duten aditzen artean, hiru sail egin daiteke:

> (i) Aditz iragangaitzen sail berezi bat, aditz ergatibo edo inakusatiboena hain zuzen. Aditz hauen argumentu bakarrak objektuen sintaxizko ezaugarri batzuk azaltzen dituela ikusirik, aditzaren osagarriaren gunean sortzen dela proposatu zuen Burzio-k (1981).
> (ii) Aditz goratzaile izenaz ezagun diren aditzak. Ingelesazko *to seem* aditza adibidez.
> (iii) Morfologia pasiboa: morfologia pasiboak akusatibo kasua xurgatzen duela defendatu da GB arloan; horrela era pasiboan azaltzen diren aditzen ezaugarriak, aditz inakusatiboek hiztegitik dauzkaten berberak dira.

Aditz hauek guztiek elkarren artean erakusten dituzten antzekotasunak direla eta, erraz ondoriozta daiteke aditzaren osagarriaren gunean sortzen den argumentu horrek, bertan θ-papera har badezake ere kasua hartzeko subjektuaren gunera igo behar duela. Bistan denez, mugimendu horrek ez du 'Θ-Irizpidea' bortxatzen.[77] Subjektu horiek kasua subjektuaren gunean hartzen dutelako froga modura, argumentu horiek subjektuen bereizgarria den 'nominatibo' kasua hartzen dutela azpimarratu da.

---

[76] Chomsky-ren (1981) arabera, θ-gunea, argumentu-adabegia D-egituran gauzatzen deneko tokia da eta A-gunea, potentzialki argumentu bat har dezakeen gunea.

[77] Θ-Irizpidearen arabera, argumentu bakoitzak θ-paper bat izan behar du eta gainera θ-paper bakarra.

(113) He$_i$ is [t$_i$ intelligent]

(114) He$_i$ seems [t$_i$ to be intelligent]

(115) He$_i$ was expected [ti to win]

Bestetik, mugimenduan utziriko aztarnak egokiro gobernaturik egon behar du. Hona hemen, Chomsky-k (1981) harreman honetarako proposatu zuen formulazioa:

(116) ECP: [α e] delakoak egokiro gobernaturik egon behar du

(117) α-k egokiro gobernatzen du β, bbaldin α-k β gobernatzen badu eta $\alpha \neq$AGR

(118) α-k egokiro gobernatzen du β, bbaldin, α-k β gobernatzen baldin badu eta α lexikoa bada


Goiko kasuetan, aintzindaria eta utziriko aztarnaren artean VP hesia dago eta beraz, aztarna ezin egon daiteke egokiro gobernaturik (117) baldintzaren bidez, baina guztietan V buru lexikoak aztarna goberna dezake horietan guztietan kakoen artean sartu dugun osagai hori islapen nagusia ez bada: S mailako osagaiak ditugu (Chomsky, 1981).

Orain arte, beraz, Varen osagarri modura txertaturiko, hau da azpikategorizaturiko bi SC-mota ikusi dugu: *consider* bezalako aditz iragankorrek hartzen dituztenak (112) eta aditz inakusatiboek edo antzeko ezaugarriak azaltzen dituzten aditzek edo aditzen gauzaketa morfologikoek hartzen dituztenak (113, 114, 115). Lehenengo kasuan aditz nagusiak kasua ezartzen dienez, gauzaturiko subjektu lexikoak azaltzen dituzte SC horiek; bigarren kasuan berriz, aditz nagusiak bere ezaugarri lexiko (edo morfologiko)en artean akusatibo kasua ezartzeko ezintasuna duenez, SCaren subjektuak gora jo behar du eta sorgunean (egokiro gobernaturik egon behar duen) aztarna utzi behar du.


Edozein modutan, objektuari subjektuari bezala kasua islapen funtzional batean ezartzen zaiola onarturik (Chomsky, 1989), bi kasu hauek antzeko samarrak lirateke: *to consider* bezalako aditzek azpikategorizaturiko SCen subjektuei kasua jatorrizko tokian bertan ezarri beharrean, [spec, AgrO]

gunean ezarriko litzaieke, aditz inakusatibo (*to be*) eta goratzaileek (*to seem*) azpikategorizaturiko SCen subjektuei [spec, T] gunean ezarriko litzaiekeen bezala. Horrela ez legoke 'kasu-ezarketa bereziaz' hitz egin beharrik (Chomsky, 1992) eta perpaus txiki hauen guztien subjektuaren gunean aztarna bat izango genuke (119).

(119) a.



b.



Dena den, izenki-predikazio guztiak ezin sar daitezke aditzaren osagarriaren gunean, eta batzuetan adjunktuak direla onartu behar da. Adjunktuak aukerakoak dira. Beraz aditz nagusiak bere argumentu guztiak gauzaturik dituenez, ez dago lexikoki gauzaturiko elementu bat ez eta NP baten aztarna gobernatzeko modurik eta subjektu hori kasurik gabe geratzen da, PRO kategoriakoa izan behar duelarik.

(120) He left the room [PRO tired]

Aurkezpen honetatik erraz ondoriozta daitekeenez, badaude zeharo garrantzitsu diren bi kontu: alde batetik, SCa aditz nagusiaren azpikategorizatzeari ote dagokion ala nolabaiteko adjunktua ote den, eta bestetik, gobernurako hesiaren definizioa.

Chomsky, 1986, hesien definizio egokien inguruan aritu da hain zuzen ere. Hala ere, lan horretan eman duen lehenengo pausoa, perpaus-kategoriak (S, S') X'-Teoriaren eskakizunei egokitzea izan da: aurreko sailetan esana dugunez, S kategoria I(nflexio)aren islapen nagusia (IP) eta S'

C(omplementatzaile)arena (CP) direla proposatu du. Lan horretan harreman estuetan daude hesien definizioa eta θ-markaketa. Hona hemen hesien definizio horretarako Chomsky-k segitu duen bidea:

(121) α-k zuzenean θ-markatzen du β, babaldin α eta β ahizpak badira.

(122) θ-markaketa zuzen hori L-markaketa izenaz ezagutu ohi da.

(123) γ β-rako kategoria blokeatzailea (BC) da bbaldin γ L-markaturik ez badago eta γ-k β menperatzen badu.

(124) γ β-rako hesia da bbaldin (a) edo (b) betetzen bada:
(a) γ-k δ zuzenean menperatzen badu, δ β-ren BC izanik;
(b) γ β-ren kategoria blokeatzailea da eta γ≠ IP

Hesiaren definizio hauek erabakikorrak dira azpikategorizaturiko SCen testuinguruan, zeren eraikuntza hauen subjektua den aztarna egokiro gobernaturik egon ahal izateko ez baita erabakikor gertatzen islapen nagusiaren estatusa eta garrantzi handiena hartzen duen faktorea L-markaketarena baita. Horrela, (112) eta (113) bezalako SCetarako, AP moduko islapen nagusia onar daiteke Stowell-i (1981,1983) jarraiki, eta (114) edo (115) bezalako 'eraikuntza bereziei' IP maila egoki dakieke, gobernurako hesiak ez baitira. (120) adibidearen antzeko adjunktuak berriz, beti izaten dira gobernurako hesiak eta ez da kanpotik kasua ezartzeko modurik egoten, L-markaturik ez baitaude.

Azken aldi honetan, GBaren arlo teorikoan gertatu diren aurrerapen gako batzuk aipatu ditugu aurreko azpisailetan: buru funtzional eta tematikoen arteko bereizketa, kateen eta hesien definizioak, buru funtzionalen deskribapen eta zehaztapen zabala, e.a.

Kontzeptu horiek, erabakikorrak dira SCen analisirako, hizkuntza askotan, hala nola portugesez, komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko SCak argi eta garbi bereizirik baitaude subjektuari ezar dakiokeen kasuaren

ikuspegitik. Ohar honetatik hasita egin dute Raposok & Uriagerekak (1990) portugesaren SCen analisi interesgarri bat.

Egile hauek, Belleti-k (1988) partitibo kasuaren ezarketaren aurrean egindako oharrak portugeserako ere betetzen direla frogatu dute eta horrela, aditz inakusatibo eta morfologia pasiboaren subjektuek, aditzaren atzean bertan gauzatzen direnean, mugagabeak izan behar dute (125), ('mugagabetasunaren eragina'), hori partitibo kasua hartu dutelako froga delarik. Subjektu horiek aditzaren aurreko [spec, INFL] gunean (126) edo pro-drop hizkuntzetan dagoen alderantzizkaturiko gunean (127) kokatzen direnean, berriz, ez dute horrelako eraginik azaltzen, nominatibo egiturazko kasua hartu dutela uler daitekeelarik.

(125) a. Chegou um/*? o estudante tarde
b. Foi convidado um/*?o estudante para a festa
(126) a. O estudante chegou tarde
b. O estudante foi convidado para a festa
(127) a. Chegou tarde o estudante
b. Foi convidado para a festa o estudante

Datu horiek 'kasuaren garraioaren hipotesiaren' aurka agertuko lirateke aditzaren atzeko subjektu horrek hartu duen kasua ez baita espletibo batek garraiatu dion egiturazko kasua, aditzak berak ezarri dion partitibo berezko kasua baizik (horrexegatik lirateke agramatikalak mugaturiko NPak).

Egoera honetatik abiatuta, aditz inakusatiboekin edo pasiboarekin batera agertzen diren SCen egoera aztertu dute. Hasteko, kasu-ezarketa berezia onar dezaketen SC osagarrien eta horrelakorik ezin azal dezaketen SC adjunktuen arteko ezberdintasun nabaria dago: SC adjunktuen subjektuak 'mugagabetasunaren eragina' azal dezake, partitibo kasua har dezake beraz; SC osagarrien subjektuak berriz, ezin har dezake partitiborik. Partitiboa berezko kasua denez, D-egituran ezartzen da θ-paperarekin batera; horrenbestez, ez zaie inoiz ezartzen azpikategorizaturiko SCen subjektuei (128), izenki-predikatuaren buruak θ-papera esleitzeko gai bada ere, ezin eslei baitezake inolako kasurik. Subjektua aditz nagusiaren argumentu bat

denean berriz, θ-papera eta kasua batera ezartzen dira eta posible gertatzen da partitibo kasua.

(128) a. *Estavan [alguns carros avariados]
b. *Estavan [alguns carros por arranjar]
(129) Nasceu um rapaz [PRO com uma costela partida]

Analisi honen aldeko beste datu argigarri bat dugu, SC adjunktu hori hartu duen aditzaren atzeko subjektuari determinatzaile mugatu bat ezartzen badiogu (126), mugagabetasunaren eragina agerian jartzen baitu.

(130) a. *Nasceu o Manuel com uma costela partida
b. O Manuel nasceu com uma costela partida

Edozein modutan, SC osagarrien artean bereizketa garrantzitsua egin daiteke SC adjektibal eta preposizionalen artean. Lehenengoek, ez dute mugaturiko subjekturik onartzen aditzaren atzean (131a) baina bai ordea bigarrenek (131b).

(131) a. *Estavan [os carros avariados]
b. Estavan [os carros por arranjar]

Aditzaren atzeko subjektu horrek hartzen duen kasua, nominatiboa da, (132) adibidean ikus daitekeen bezala.

(132) a. Ficaram [eles sem armas]
b. *Ficaram [eles feridos]

Ezberdintasun honen arrazoia SC adjektibalen komunztaduran dagoela defendatu dute aipaturiko egileek: mota horretako perpausek buru modura Agr duen islapen funtzional bat izaten dute, beraietan agertzen den komunztadura islapen horren espezifikatzaile/buru harremanari dagokiolarik. Bestetik, egile hauek Fukui & Speas-en (1986) hesiaren definizioa jaso dute, ondokoa alegia:

(133) α hesia izango da bbaldin α X" bada [hau da,
espezifikatzaile bat duen islapen funtzionala baldin bada]

Honen bidez, SC adjektibal eta preposizionalen kasu-ezberdintasunen berri eman daiteke: preposizioa buru lexikoa denez, bere islapen nagusiak ez du nominatiboaren ezarketarako hesi modura jokatzen. Agr buru funtzionalaren islapenak diren SCak berriz, kasu-ezarketa horretarako zeharkaezinak gertatzen dira, islapen horrek hesi modura jokatzen baitu.

Euskararen kasura itzuliz, argumentuek badute mugitzeko askatasun handia. Bestetik, jadanik aditzera eman dugunez, 'absolutibo' marka bakarraren bidez hainbat kasu abstraktu (nominatibo, akusatiboa edo partitiboa) gauzatzen dira morfologian. Bukatzeko, partitibo izenaz ezagun dugun *-rik* morfologia-markaren esleipenerako, marka hori eramango duen argumentuak partitibo kasu abstraktua izatea ezezik, nolabaiteko zilegiztapena behar da (gogoratu 1.5. azpisaila).

Izan eta *egon* aditzetatik hasita, badakigu aditz hauen adiera existentzialean azaltzen den argumentuak *-rik* marka agertu ohi duela, eta beraz, partitibo kasu abstraktua ere badaramala pentsa dezakegu.

(134) a. Bada Jaungoikorik
b. Ez dago ogirik

Baina atribututzat har daitekeen elementu bat gaineratzen dugunean, *-rik* marka ezinezkoa gertatzen zaigu.

(135) a.*Ez da autorik handiegia /*Autorik ez da handiegia
b. *Ez dago autorik apurtuta /?Autorik ez dago apurtuta

(135) adibide horietan zalantzagarri izan daiteke ezinezkoa dena partitibo kasu abstraktuaren esleipena ala *-rik* morfologia-markaren ezarketa ote den. Hortaz, polaritaterik gabeko testuinguruak aurkitu behar ditugu, mugagabetasunaren eraginik ba ote dagoen ikusteko.

(136) a. Zenbait auto handiegiak dira hirian ibiltzeko

b. Zure autoa handiegia da hirian ibiltzeko

(137) a. Handiegiak dira zenbait auto hirian ibiltzeko

b. Handiegia da zure autoa hirian ibiltzeko

Adibide hauetan ez dago 'mugagabetasunaren eraginik' eta beraz, subjektu argumentuek, ez eta mugagabeak direnean ere, ez dute partitibo kasu abstraktua hartzen. *-Rik* markaren eransketarako lehen baldintza (partitibo kasu abstraktua) da beraz huts egiten duena eta ez bigarrena (nolabaiteko zilegiztatzailea, hala nola polaritatezko testuingurua).

Ondorioz, *izan* eta *egon* aditzek beren adiera existentzialean θ-papera eta berarekin batera partitibo berezko kasua esleitzen diote beren argumentu bakarrari. Atribuziozko eraikuntzetan berriz, argumentu bakarrari θ-papera esleitzen diona izenki-predikatuaren burua da eta inolako kasurik esleitzeko gai ez denez, bazterturik dago partitibo berezko kasua.

Ikus ditzagun izenki-predikatuekin, edo hobeki esan perpaus txikiekin, azpikategorizaturik dauden beste aditz batzuen kasua.

(138) a. Aintzinako auto horrek erosi berria dirudi

b. Aintzinako auto batzuek erosi berriak dirudite

(139) a. Zure lanari interesgarri deritzot

b. Lan batzuei interesgarri deritzet

(140) a. Lehenengo atala bukatutzat eman dut

b. Atal batzuk bukatutzat eman ditut

Goiko hiru adibide-multzoetan mugagabetasunaren eraginik ez dagoela ikus daiteke eta beraz, partitibo kasua esleitzen ez dela pentsa dezakegu. Polaritatezko eraikuntzak hautaturik, are garbiago gera daiteke hori (137).

(141) a. *Ez dirudi autorik erosi berria

b. *Ez deritzot lanik interesgarri

c. */o.k.Ez dut atalik bukatutzat eman [78]

---

[78] Hiztun batzuentzat onargarriak dira (141c) bezalako perpausak, baina beste batzuek ez dituzte horrelakorik onartzen: onartzen ez dituztenek azpisail honetan azaldu duguneko

d. ?/o.k. Ez dut inolako atalik bukatutzat eman[79]

Horrela ba, euskal izenki-predikatu osagarrien subjektuak nominatibo, ergatibo edo datiboaz markaturik ager daitezke, arruntena absolutiboa hartzea bada ere. Ergatiboa eta datiboa hartu behar luketen subjektuak, hasieratik baztertu behar dira partitiboaren esleipenetik, kasu hori D-objektuei soilik ezar baitakieke.[80] Baina hala ere, objektuaren gunean sortuko liratekeen subjektuei ere ezin eslei dakieke partitiboa (140, 136, 137), ez eta

---

modura jokatzen dutela uler dezakegu. (141c) adibidea onartzen duten hiztunek ordea, honelako perpausetan berranalisi bat egiten dutela eta *bukatutzat eman* osotasunean predikatu konplexu bat balitz bezala jokatzen dutela pentsatu behar dugu. Horrela, *atal* argumentuak partitibo berezko kasua har dezake predikatu konplexu horretatik. Raposo& Uriagereka-k (1990) antzeko azalpena eman dute mugagabetasunaren eragina agertzen duten eta printzipioz azpikategorizaturiko perpaus txikien subjektuak diren portugesezko adibideetarako.

79 (141c) onartzen ez duten hiztunetarako, perpausak nabariki hobatzen dira *inolako* edo *inongo* bezalako ezezko polaritate-hitzak gaineratzen direnean (141d): hitz hauek kuantifikatzaileak dira eta *-rik* marka morfologikoaren eremutik kanpo ere errazten dute mugagabearen agerpena. Michelena-k (1978) azpimarratu duenez, aintzinako idazleek ergatibo mugagabea erabiltzen zuten gaur egun guk inola ere ezin erabil dezakeguneko testuinguruan: " *Ez sainduc, ez Ainguiruc eta ez are misericordiaren amac ere [eginen du othoitz]* " (Axular, p. 337). Hala ere, *inolako* hitza gaineratuz gaur egun ere ergatibo mugagabea onargarria dela eman du aditzera Michelena-k aipaturiko lanean.

Horrela ba, (141d) perpauseko partitiboa onargarria da *inolako* kuantifikatzaileari esker eta ez benetan argumentuak partitibo kasu abstraktua hartzeari esker. Egoera hau eta 73 oharrean aipatu ditugun O. de Urbina-ren adibideak (*gizonik nahikoa /eskerrik asko / hizkuntzarik gehienak*), antzekoak lirateke, guztietan baitugu *-rik* markaren agerpena zilegiztatzen duen kuantifikatzaile gauzatu bat. Partitibo kasu abstraktua dugunean berriz, kuantifikatzaile existentzial isil bat izango genuke O. de Urbina-ren (1986) iritziz.

80 Subjektu horiek, aditz nagusiaren osagarri modura txertaturiko perpaus txiki batean sortzen badira, neurri batean objektuen gunean jaio dira. Baina, horrela tematikoki markatzen dituena izenki-predikatuaren burua da eta horrek ez du kasua esleitzeko ahalmenik. Beraz bazterturik dago partitibo kasu abstraktuaren esleipenerako behar den berezko mekanismoa.

polaritatezko eraikuntzetan ere. Hala ere, partitiboa daraman argumentuari *inolako* edo *inongo* bezalako 'ezezko polaritate-hitzen' bat gaineratzen zaionean, perpausak onargarriago bihurtzen dira hiztun askorentzat.

Predikatu adjunktuen kasuan, partitibo kasu abstraktuak posible izan behar duela pentsatzera garamatza hemen azaltzen ari garen teoriak.

(142) a. Aurten ere jaio dira haur batzuk eritetxe honetan
b. Aurten ere jaio dira haurrak eritetxe honetan

(142) adibideari begiratzen badiogu, 'mugagabetasunaren eraginik' ez dagoela dirudi, bai mugatzailerik gabeko (142a) eta bai mugatzailedun (142b) adibideak onargarriak baitira. Hala ere, zehazkiago begiratuz gero, (142b) adibidearen irakurketa espero zitekeen irakurketa mugatua izan gabe irakurketa mugagabea dela ikus daiteke, (142a) eta (142b) adibideek antzeko interpretazioa dutelarik (143).[81]

---

[81] Singularreko aukera ere badago eta mugatzailedun zein mugatzailerik gabeko aldaerak onargarriak direla dirudi:

(i) a. Etxe honetan haur bat jaio da
b. Etxe honetan haurra jaio da

Hala ere, adibide hauek, Belleti-k (1988) bere teoriaren itxurazko salbuespen modura aipatu dituen zenbait adibideren bidetik lihoazke. Esate baterako, batzuetan ingelesaz partitiboa azaldu behar litzatekeen (ii) bezalako eraikuntzetan, argumentu mugatuak azal daitezke.

(ii) Nobody arround here is worth talking to ... well, there is John the salesman.

Belleti-k, horrelako adibideetarako defendatu duenez, (ii) bezalakoetan, 'zerrenda-irakurketa'(*List Reading*) egin behar da ezinbestean; hau da, *John* pertsona-talde baten partaideetariko bat dela ulertzen dugu. Belleti-ren arabera, zerrenda-irakurketa NP mugatu bati partitibo kasua esleitzen zaionean suertatzen da. Beraz, (ii) ez litzateke partitibo-kasuaren ezarketaren salbuespena.

Bestetik, 'zerrenda-irakurketaren' kasu berezi bat litzatekeen 'elementu bakarreko interpretazioa' (*Uniqueness Interpretation*) ere badela defendatu du (iii) bezalako adibideen berri emateko.

(iii) É stato rubato il portafoglio a Maria.

(143) Σ x, x= haurra, aurten x eritetxe honetan jaio

Interpretazio hori gainera, irakurketa existentzialari dagokiona da. Testuinguru horretan, *-rik* partitibo marka ere azal daiteke (144), irakurketa (142) adibideena delarik. Horrenbestez, bai (142) eta baita (144) adibideetan subjektuak partitibo kasu abstraktua duela pentsa dezakegu, *-rik* morfologiazko marka (144) adibideetan baizik erantsi ez bada ere.

(144) a. Aurten ere jaio da haurrik eritetxe honetan
b. Aurten ere ez da haurrik jaio eritetxe honetan

Ikus dezagun zer gertatzen den izenki-predikatu bat (*hilda*) gaineratutakoan.

(145) a. Aurten ere jaio dira haur batzuk hilda eritetxe honetan
b. Aurten ere jaio dira haurrak hilda eritetxe honetan

Italieraz, (iii) adibidean *il portafoglio* NPak betetzen duen aditz pasiboaren atzeko gunea da hain zuzen partitiboa azaltzeko gune egokienetariko bat eta hala ere mugaturiko NP bat dugu. Horren arrazoia, Belleti-ren arabera, NP hori zerrenda baten elementu bakarra dela ulertu ahal izatea da. Horrela, (iv) bezalako perpausa ez litzateke onargarria, pertsona bakoitzak portafolio bakar bat izan ohi badu ere, landare bat ezin har baitaiteke zerrenda baten elementu bakartzat.

(iv) *É stata rubata la pianta a Maria.

(ib) adibideari itzuliz, hor ere 'elementu bakarreko interpretazioa' dugula uler dezakegu, arruntena etxe batean aldi berean haur bakar bat jaiotzea baita eta beraz, partitibo kasua hartu duen mugaturiko NP baten aurrean gaudela pentsa dezakegu. Ikus dezagun horrelako irakurketarik onartzen ez duen (v) adibidean 'mugagabetasunaren eragina' garbiagoa dela, 'elementu bakarreko interpretaziorako' lekurik ez baitago.

(v) a. Istripu bat gertatu da
b. *Istripua gertatu da

Mugagabetasunaren eragina, mantendu egiten da eta beraz, izenki-predikatua gaineratzen denean ere partitibo kasu abstraktua eslei daitekeela ikus daiteke. *-Rik* morfologiazko marka ere onargarria dela ikus daiteke (146).

(146) a. Aurten ere jaio da haurrik hilda eritetxe honetan
b. Aurten ere ez da haurrik jaio hilda eritetxe honetan

Espero genitzakeen datuak ditugu, zeren eraikuntza horietan izenki-predikatuaren subjektutzat hartzen den argumentua aditz matrizearen argumentua ere bada eta beraz badu aditz nagusi horretatik kasua D-egituran berezko mekanismoaren bidez lortzeko aukera.

Izenki-predikatu osagarrien kasura itzuliz (141), izenki-predikatu horien subjektu modura ulertzen den argumentuak, predikatu-buru horretatik hartzen du θ-papera baina kasua beste nonbaitetik hartzen du: bi motatako aukera dugu kasu-ezarle modura, alegia, V matrizea eta V horren islapen hedàtuaren zatiren bat (hots, Inflexioaren zatiren bat).

Alde batetik, izenki-predikatuaren subjektu horrek azaltzen duen morfologiazko marka ergatiboa (138) edo datiboa (139) denean ez dago zalantzarik: kasu-ezarlea ezin izan daiteke Va, D-osagarriek beti azaltzen baitute absolutiboa.[82] Horrela ba, kasu horietan argumentu horiek SCetik atera eta egokiro gobernaturiko aztarna bat utzi behar dute. SC horiek bada ez dute aztarna horien gobernurako hesiak izan behar.

Beste alde batetik, izenki-predikatuaren subjektua absolutiboan duten adibideak daude; (140), (136) eta (137) alegia: (136) eta (137) kasuetan, kasu-markatzailea Va izatea, baztertu behar da, aditz horiek inakusatiboak direnez egiturazko kasurik ezin ezar dezaketela onartu behar baita. Aukera bakarra bada, subjektuaren igoera da berriro ere.

---

[82] Vak euskaraz nolabaiteko kasurik ezar ote dezakeen ere, oraindik ere eztabaidan dagoen arazoa da, baina edozein kasutan ere aditzak nolabaiteko argumentuari kasua ezartzekotan, bere osagarriari ezarriko lioke.

Bukatzeko, *eman* aditz iragankorraren kasuan (140), aditza gai izan liteke akusatibo kasu abstraktua esleitzeko ('kasu-markaketa berezia') (145a) eta bestetik, baliteke NP hori Inflexiotik nominatibo kasu abstraktua hartzera goratu izana (NParen igoera) (147b): zoritxarrez, euskaraz absolutiboa azal daiteke bi horietariko edozein kasu abstrakturako eta beraz ezin finka dezakegu NP horrek kasu bat edo beste bat ote duen.

(147) a. pro-k [autoa desagertutzat] eman dut
b. pro-k autoa$_i$ [t$_i$ desagertutzat] eman dut

Badago ordea, igoeraren aldeko datu bat: aditz matrizearen laguntzailean *autoa* argumentuarekiko komunztadura ageri da (148a, b) eta horrek igoera gertatu dela jartzen du agerian, argumentu horrek D-gunean paper tematikoaz gain kasua balu ez bailuke mugitzeko arrazoirik.

(148) a. Poliziak kotxe hori desagertutzat eman du
b. Poliziak kotxe horiek desagertutzat eman ditu

Euskaraz bada, 'kasu-ezarketa berezirik' ez dagoela esan dezakegu.

1.7. Laburbilpena

Lan honetan, euskarak predikazio-harremanari buruz GBaren barnean garatu diren teoria orokorrei egin diezaiekeen ekarpena aztertuko da. Baina gai zehatzean sartu aurretik, analisi guztien gainean nolabaiteko eragina duten onarpen batzuk egin ditugu: hasteko, euskara hizkuntza konfigurazionaltzat hartu dugu azken urteotan egin diren lanei jarraiki. Bigarrenik, hizkuntzalari guztiek bezala, euskara 'pro-drop' eta (orokorrean behintzat) 'burua-azken' motako hizkuntza dela ere onartu dugu. Ergatibitatearen teoriari dagokionez, Levin-ek (1983) frogatutzat utzi duen bezala, sintaxiaren ikuspegitik hizkuntza akusatiboa dela onartu dugu geuk ere, morfologiaren ikuspegitik kasu-markaketa ergatiboa duela (markaturiko kasua egile-jasale motako aditzen subjektua dela) onartu behar bada ere.

Bestetik, aditzaren argumentuak VParen barnean sortzen direlako hipotesiaren alde egin dugu, izenki-predikatuen X buruen argumentuak ere XP islapen nagusiaren barnean sortzen direla proposatuz. Argumentu horiek azaltzen duten laguntzailearekiko komunztaduraren berri emateko mugi-α erregela aplikatu behar zaiela onartu dugu. Hala ere, aditzarekiko komunztadura azaltzen duten ergatibo, absolutibo eta datibo kasuen berezko edo egiturazko izaerari buruz, ez dugu adostasunik ikusi bibliografian zehar, ez eta kasu horien ezarketa-mekanizmoaz ere.

Edozein modutan, guk izenki-predikazioaren datuetan eta Grimshaw-en (1990) islapen hedatuaren kontzeptuan oinarrituta, ergatibo, absolutibo eta datiboaren kasu-ezarketarako egiturazko mekanismo bat proposatu dugu: predikatu-buru orok (X), bere islapen perfektua (XP) ezezik bere islapen hedatua (islapen funtzionalak) garatzen du sintaxian. VP predikatuen (baita zenbait izenki-predikaturen) kasuan islapen hedatu hori AuxP-MP-TP sekuentziaz osoturik dagoela onartu dugu Laka -ri (1991) jarraiki. Izan ere, Aux hori litzateke geure iritziz, euskararen komunztadura eta kasu-sistema bereziaren eragilea, zeren predikatu-buruaren islapen hedatua izanik buru horrek erabakiko bailituzke laguntzailearen ezaugarriak, eta beraz horrek

(gainerako islapen funtzionaletan zeharreko buruz buruko mugimenduan) eragin beharko lituzke komunztadura eta morfologiazko marken motak ere.

Partitibo kasuari dagokionez, euskararen *-(r)ik* morfologiazko marka Belleti-k (1988) finkaturiko partitibo kasu abstraktutik bereizi behar dela eman dugu aditzera: *-(r)ik* marka daramaten argumentu guztiek partitibo kasu abstraktua daramate (*aurten ez da haurrik jaio eritetxe honetan*), baina partitibo kasu abstraktua duten argumentu guztiek ez daramate *-(r)ik* morfologiazko marka (*aurten ere haurrak jaio dira eritetxe honetan*). Bestetik, partitibo kasu abstraktua euskaraz ere azpikategorizaturiko izenki-predikatuen subjektuetatik bazterturik dagoen bitartean (**autorik ez da handiegia hirian ibiltzeko*) predikatu adjunktuetan (*aurten ere jaio da haurrik hilda eritetxe honetan*) onargarria dela ikusi dugu.

Kasu-ezarketa bereziari dagokionez, euskaraz horrelako mekanismorik ez dagoela jarri dugu agerian: predikatu horien subjektuek igoera pairatzen dute (SC osagarrien kasuan) edo bestela, PRO kategoria isilekoak dira (SC adjunktuen kasuan): *poliziak kotxe horiek* $_i$ [t_i *desagertutzat*] *eman ditu / aurten ere jaio dira haur batzuk* [PRO *hilda*] *eritetxe honetan.*

Bukatzeko, izenki-predikazioaren inguruan dauden bi teoria nagusietan GBaren ohizko onarpenetatik urruntzen diren zenbait puntu ikusi ditugu. Hortaz, geure azterketaren abiapuntutzat har daitezkeen zenbait irizpide azaldu ere, egin dugu:

1) Bai argumentuak (subjektua barne) eta bai predikatuak islapen nagusiak dira.
2) Argumentuek, θ-paper bat eta kasu bat behar dute.
3) Predikatuen buruak θ-sare bat duten hiztegi-sarrerak dira, predikatu-islapen nagusiak subjektu bati lotzeko eskakizuna bete behar duelarik ('Predikatu-loturaren Araua'). Hortaz, θ-markaturik ez dauden islapen nagusiak direla esan daiteke.
4) Subjektua eta predikatua elkartzeko orduan, X'-Teoriaren eskakizunen arabera jokatu behar da: adarkaketa bikoitza eta endozentrizitatearen baldintzak betez.

5) Aukera bat subjektua predikatuaren espezifikatzailean txertatzea da (Stowell, 1983); baina azpikategorizaturiko predikatu-eraikuntzen kasuan, predikatua aditz matrizeak θ-markatua litzateke. Bere predikatu-izaera dela eta, baztertu behar litzatekeen aukera da hortaz: *I consider* $[_{AP}$ *him* $[_{A'}$ $[_{A}$*intelligent*]]

6) Adarkaketa bikoitza eta endozentrizitatea mantenduz, predikatua aditz matrizearen markaketatik babesteko dugun aukera bakarra, subjektua eta predikatua isladapen funtzional baten barnean txertatzea liteke (perpaus arruntetan egiten den bezala). Islapen funtzional hori predikatuaren 'islapen hedatua' litzateke: *I consider* $[_{FP}$ *him* $_{i}$ $[_{F'}$ $[_{AP}$ t_{i} *intelligent*]]

7) Kategoria funtzional horren (FP) izaera erabakitzeko orduan, bi bide desberdinetatik ekingo diogu ikerketari: alde batetik, aditz matrizeek hautatzen dituzten predikatuei aspektu-murriztapenak ezartzen dizkietela antzeman daiteke, eta bestetik, hizkuntza askotan, subjektu/predikatu harreman horiek, bi osagai horien arteko komunztaduraz bereizirik daude: AspP (*Jon pozik dago / *Jon pozik bilakatu da*) eta NuP (*liburu hau interesgarria da / liburu hauek interesgarriak dira*) islapenen existentziaren aukera aztertuko dugu. Bestetik, posposizio baten morfologia duguneko kasuetan (*autoa desagertutzat eman dute*), SCa PP mailakoa dela defendatuko dugu. Hala ere, perpaus txikiak eratzen dituzten posposizioen artean bi sail bereiziko dugu: kategoria funtzionaltzat har daitezkeenak (prolatiboa adibidez) eta kategoria lexikotzat hartu behar direnak (inesiboa adibidez).

Bigarren atalean, euskal predikazioaren aukerak finkatzen saiatuko gara, ondorengo atal teorikoagoei deskribapen-mailako sarrera egiteko asmoz. Hirugarren atalean, predikazio-harremanaren inguruan proposatu izan diren bi teoria nagusietarako euskarak izan dezakeen ekarpena ikasiko dugu, bi teoria horiek elkargarriak direla frogatuko dugularik. Bukatzeko, laugarren atalean, geure 'predikazioaren teoria integratzaileak' euskal predikazioaren azterketarako balio duela frogatzen saiatuko gara, predikatu-eraikuntza desberdinen analisia beraren argitan eginez.

II. ATALA

EUSKAL PREDIKAZIOAREN DESKRIBAPENA

2.1. Sarrera

Sail honetan, euskal predikatu-motak predikazioaren teoria orokorren ikuspegitik ordenatzen saiatuko gara. Beraz, helburu deskribatzailea izango dugu gogoan, baina edonola ere, ondoko sailetako eztabaida teorikoei atea irekiko dien deskribapena egiteaz arduratuko gara.

1.3 sailean ikusi dugunez, semantikazko predikazio-harremanari dagokion sintaxizko izaera, hainbat modutara ikusi dute egileek, c-komandoaren harreman hutsetik nolabaiteko osagaiaren beharreraino doazen proposamenak egin dituztelarik. Edozein kasutan, ikuspegi deskribatzaile hutsetik, GBaren arloan predikazioaz aritu diren egile guztiak datoz bat, predikatuak bi sail nagusitan banatzeko orduan: alde batetik, ezinbestekoak ez izateagatik adjunktuen sailean sar litezkeen 'bigarren mailako predikatuak' ditugu, eta bestetik, perpaus onargarriak lortzeko ezinbestekoak diren 'lehenengo mailako predikatuak'. Hain zuzen ere bi ardatz horien inguruan antolatuko dugu atal deskriptibo hau.

'Lehenengo mailako predikatuen' artean hauxek sartuko lirateke: alde batetik, jokaturiko adizkien inguruan antolatuko liratekeen VPak (1) (ohizko gramatiketan 'adizki-predikatu' izenaz aipatu ohi direnak) eta bestetik, ohizko gramatiketan 'izenki-predikatu' edo 'atributu' izenaz aipatu ohi direnak (2), hots, atribuziozko aditzek osagarri modura eskatzen dituzten predikatuak.

(1) a. Haur bat jaio da
b. Amak haurrari musu bat eman dio

(2) a. Haur hori oso txikia da
b. Saioa bukatutzat emango dugu
c. Ardoa ur bihurtu zuen

'Bigarren mailako predikatuak' (3), gutxiagotan hartu dira kontutan ohizko gramatiketan eta are gutxiago euskarari buruzko lanetan: beraien ezaugarri

nagusia beharrrezkoak ez izatea da. Ezabatzen direnean ere perpaus onargarriak (adiera-aldaketarik ez duten esaldiak gainera) ematen baitituzte.

(3) a. Senideak (triste) itzuli dira hiletatik
b. Jon (artzain) joan da Ameriketara
c. Zure laguna (kalean) ikusi dut
d. Anek ilea (motz) ebaki nahi du
e. Sagarrak (merke) erosi ditut gaur Gernikako merkatuan

GBaren arloan egin diren lanetan, ez da 'izenki-predikatuez' ez eta 'adizki-predikatuez' hitz egiten, predikazioaren gertaera guztiak azaltzen dituen teoria orokor bat eraikitzea baita esparru teoriko horren helburua eta ikuspegi teorikotik ezinbesteko predikatuen eta aukerako predikatuen arteko bereizketa baita garrantzitsuena. Hala ere, azterketa gehienetan jokaturiko aditzetatik aparteko predikatuez aritzen dira hizkuntzalariak jokaturiko aditzen jokaera gramatikaren beste esparru batzuetan ere aztertzen badira ere (ohizko gramatiketan) 'izenki-predikatu' izenaz ezagun direnen esparrua predikazioaz aritzen diren GBaren lanetan baino ikutzen ez baitira.

Atal honetan batez ere 'izenki-predikazioaz' arituko gara, 'adizki-predikazioa' neurri handian alde batera utziko dugularik. Hala ere, kontzeptu horiek, gramatika deskriptiboetan behin eta berriro erabili badira ere, eta intuitiboki predikatu bakoitza sail batean edo beste batean zalantzarik gabe sartuko bagenu ere, ez dira inola ere errazak definitzen :

(i) Adizki-predikatuak, buru modura aditza duten predikatuak direla esan genezake, izenki-predikatuak buru modura bestelako kategoria bat dutenak liratekeelarik. Hala ere, partizipio gehienek izenki-predikatuen jokaera bera azaltzen dute eta beraz ez dirudi izenki-predikazioaren esparrutik baztertzea komeni denik. Dena den, partizipio hauek buru modura V bat dutela esan daiteke (ikus 2.2.2.2., 2.2.2.3.3. eta 2.4. azpisailak).

(4) a. Liburu hau zahar dago
b. Liburu hau zeharo hondatuta dago

Horrenbestez, predikatu-buruaren kategoria ez dirudi nahikoa izenki-predikatuak eta adizki-predikatuak bereizteko.

(ii) Orduan, bereizketa jokaturiko adizkien inguruan antolatzen diren predikatuak 'adizki-predikatuekin' identifikatuz egin liteke, bestelako guztiak izenki-predikatuak liratekeelarik. Hala ere, horrek ere, ez digu balio jokatugabeko adizki askok adizki-predikatuek bezala jokatzen baitute: *-tze* morfema duten aditz-izenek adibidez, konpletiboen antzeko perpausak era ditzakete aditzaren argumentu guztiak perpaus horren barnean zilegiztatuz (5a).

(5) a. [Anek Peruri agur esatea] lortu nahi dugu
b. [Anek Peruri agur esan diola] kontatu dit Anderrek

(5) adibideak partizipioa duten (6) adibideekin konparatuz, partizipioak islatzen duen egitura partizipio-predikatu horren subjektua zilegiztatzeko nahikoa ez dela eta horregatik *egon* aditzaren beharra dagoela ikus daiteke. Konparatu partizipioaren izenki-predikatu modurako erabilera agertzen duen (6a) adibidea eta partizipio berak perpaus adberbial absolutu bat eraiki dueneko (6b) adibidea.

(6) a. Jon_i [t_i Parisen egonda] dago
b. [Jon Parisen egonda], bere etxea erabil dezakegu

Adizki jokatuen eta jokatugabeko adizkien arteko bereizketa beraz, ez da baliagarria nahi ditugun sailak definitzeko.

(iii) Ohizko gramatiketan bi predikatu-sail hauen finkapenerako, semantikari ere begiratu zaio inoiz: adizki-predikatuak predikatu dinamikoak liratekeen bitartean, izenki-predikatuak, predikatu estatikoak lirateke. Edozein modutan, irizpide horrek ere huts egiten du, zeren izenki-predikatuen artean sailka daitezkeen batzuk dinamikoak diren bitartean (7a)

adizki-predikatuen artean sailkatzen ditugun beste batzuk (7b, c) estatikoak baitira.[1]

(7) a. Zure laguna oihuka ikusi dugu
b. Horrek asko daki
c. Gizon horrek diru asko dauka

Hortaz, estatibitatearen irizpideak ere ez du balio nahi dugun bereizketa zehazki finkatzeko.

(iv) Gramatika sortzailearen ikuspuntutik, izenki-predikatuak beren subjektuari kasua esleitzeko behar den egitura islatzeko gai ez direla esan dezakegu, horrela, egitura hori islatzeko gai den aditz baten osagarri modura txertatu behar dira edo bestela, adjunktu modura gauza daitezke, kasu honetan beren subjektua kasurik behar ez duen PRO kategoria isilekoa izanik.

(8) a. Liburua erori da
b. Liburua interesgarritzat jo dugu
c. *Liburua interesgarritzat
d. Liburua$_i$ [PRO$_i$ hondatuta] itzuli dit

Irizpide honek interesgarri samarra dirudi egin nahi dugun bereizketarako. Edonola, huts egingo du 2.2.2.3. azpisailean *izan* loturazko aditza gabe Aux buruaren azpian txertatzen den laguntzailea dela defendatuko dugunean: *izan* aditza laguntzailea (eta ez loturazko aditza) dela onartuz, azken batean izenki-predikatutzat hartzen ditugunen islapen hedatua dela defendatzen ari gara eta beraz, izenki-predikatuak ere beren subjektuari kasua esleitzeko behar den aparailu funtzionala islatzeko gai direla pentsatu behar dugu.

---

[1] Ohar hau Hernaz & Brukcart-en (1987) liburutik atera dugu.

Hala ere, izenki-predikatuen eta adizki-predikatuen mugan egon litezkeen komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko partizipio soilak konparatzen baditugu, bereizketa honetarako gakoa aurki dezakegu.

(9) a. Nik zuri eskutitzak idatzi dizkizut
b. Zuri eskutitzak idatzi dizkizut nik
c. Eskutitzak idatzi dizkizut nik zuri
d. Nik idatzi dizkizut eskutitzak zuri[2]

Partizipio hutsa duten perpausek (hau da adizki-predikatu baten islapena diren jokaturiko perpausek) ordena-askatasun handia dute, egoera pragmatikoa kontutan hartu gabe argumentuen edozein ordenaketa onargarria delarik (9). Perpaus horien guztien subjektutzat ergatiboa daraman argumentua (*nik*) hartzen dugu ordenaketa edozein izanik ere. Baina partitzipio hutsa izan gabe absolutiboa daraman argumentuarekiko zenbaki-komunztadura duen partizipioa ere ikus daiteke. Argumentu guztiekiko (nor, nori eta nork argumentuekiko) komunztadura duten komunztaduradun partizipio-eraikuntza horietaz gain (10a), argumentu bakarrarekiko komunztadura duten eraikuntzak ere ikus daitezke (10b), azken hauen ezaugarririk aipagarriena argumentuak mugitzeko askatasuna nabariki murrizten dela izanik.

(10) a. Nik zuri eskutitzak idatziak dizkizut
b. Eskutitz hauek nik idatziak dira
c. *Nik eskutitz hauek idatziak dira
d. *Eskutitz hauek idatziak dira nik

Ordena-zurruntasun hori, argumentu baten eta partitizipioaren zenbaki-komunztadura gertatzen deneko egiturazko maila baten, hau da perpaus txikitzat har daitekeen osagai baten existentzia jarriko luke agerian (ikus Uribe-Etxebarria, 1989). Perpaus txiki horretan subjektu eta predikatuaren arteko harremana ezartzen da, baina subjektu horrek, kasua, perpaus txikitik

---

[2] Adibide hauek, Uribe-Etxebarria-ren (1989) lanetik atera ditugu zuzenean.

kanpo (perpaus nagusian) hartu behar du. (10a) esaldian ere, laguntzailearen argumentu guztiekiko komunztadura dagoen arren, *eskutitzak* eta *idatziak* elementuen artean nolabaiteko predikazio-harremana dagoela ulertzen dugu, zenbaki-komunztaduraren eraginez. Horrenbestez, perpaus horretan ere (perpaus nagusiaren parte den) perpaus txiki bat dagoela pentsa dezakegu.

Ondorioz, perpaus nagusian txertaturik dagoen perpaus txiki bat antzeman daitekeenean, perpaus txiki hori islatzen duen predikatua izenki-predikatua dela esan dezakegu, baina subjektu predikatu-harremana ezartzen deneko osagaian bertan subjektuari kasua ezar badakioke, predikatu hori adizki-predikatua dela esaten da.[3]

Subjektuaren eta izenki-predikatuaren arteko zenbakiaren (eta zenbait hizkuntzatan baita jeneroaren) komunztadura, hizkuntzalarien adimena nabarikien erakarri duen predikazio-harremanaren agerpena da seguraski. Gaztelaniari buruzko azterketetan adibidez, erabakikortzat jo da komunztadura predikazio-harremana dagoenentz erabakitzeko orduan. Horrenbestez, (11) adibideetan izenki-predikatu bat dagoela defendatuko litzatekeen bitartean, (12) adibideetan horrelako harremanik ez dagoela esango lukete gaztelania aztertu duten gramatikalariek, komunztadurarik ezan oinarrituz.

(11) a. Juan ha salido contento de la reunión
b. María ha salido contenta de la reunión
c. Todas salieron contentas de la reunión

(12) a. Juan ha hablado claro en la reunión
b. *María ha hablado clara en la reunión
c. *Todas han hablado claras en la reunión

---

[3] Ikus daitekeenez, hizkuntzalariek betidanik intuitu duten 'izenki-prediaktu' eta 'adizki-prediaktu' kontzeptuen bereizketa azaltzeko ere ezinbestekoa zaigu 'perpaus txikien' kontzeptua.

Edonola, bigarren atal honetan, predikazio-harremanetan sarritan subjektu eta predikatuaren arteko (nolabaiteko) komunztadura ikus badaiteke ere gertaera hori predikazio-harremanik ba ote dagoen erabakitzeko nahikoa ez dela ikusiko dugu 2.2.1. azpisailean. Horrela gaztelaniarako zeharo aldagaitzak diren PP kategoriako predikatuak ere (13) badirela (Suñer, 1990) eta batzuetan aditzondotzat jo daitezkeen zenbait hiztegi-sarrerak ere predikatuak eratzen dituztela (Bosque, 1989) esan daiteke.

(13) a. Juan está en paro
b. Mi amigo está con gripe

(14) Juan está estupendamente

Euskararen arlora itzuliz, geuk ere, komunztadurarik azaltzen ez duten kategoria ugarik predikatuak era ditzaketela defendatuko dugu. Horrela, *egon* aditzarekin azaltzen diren osagaiek normalean ez dute komunztadurarik azaltzen, baina hala ere, *egon* aditzaren modifikatzailetzat hartu gabe perpausaren subjektuaren semantika murrizten duten predikatuak direla esan dezakegu (15).

(15) a. Jon bakarrik dago
b. Ane pozik ikusi dugu
c. Haur hau oso lodi dago

Hitz hauek aditzondotzat hartu ohi dira euskarari buruzko gramatiketan (EGLU-I; Saltarelli, 1988), baina guk zalantzatan jarriko dugu kategoria horri dagozkiolako ideia. Bestetik, PP kategoriako predikatuak ere badirela defendatuko dugu (16).

(16) a. Liburu hau zuretzat da
b. Jon eskolan dago

Azkenik, zalantzarik gabe aditzondoen kategorian sartu behar diren batzuek ere predikatuak eratzen dituztela onartuko dugu (17).

(17) a. Jon oihuka ikusi dugu
b. Nire laguna hala da

Horietaz gain, noski, ohituraz izenki-predikatuen esparruan sartu ohi direnak ere aztertuko ditugu atal honetan (18).

(18) a. Liburu hau interesgarria da
b. Jon irakaslea da
c. Zure lagunak tontutzat hartu zaitu
d. Zure autoak erosi berria dirudi

Edozein modutan predikatutzat hartzen diren kategoria-moten arabera, osagarri modura kategoria horiek eskatzen dituzten aditzen multzoa (hau da loturazko aditzen multzoa) desberdina izango da. Horrenbestez, zenbaki-komunztadurarik azaltzen ez duten kategoriak predikaturik ezin era dezaketela onartzekotan, *egon* aditza ere ez litzateke loturazko aditza, ia beti azaltzen baita komunztadurarik gabeko osagarriekin batera. Geuk, predikazioaren itxura izan lezaketen eraikuntza guztiak bildu ditugu, ohizko gramatiketan sakabanaturik dauden datuak eta geuri bururaturiko datuak biltzeko asmoaz. Zalantzagarrien izan daitezkeen adibideen kasuan, izenki-predikazioaren esparruan kontuatan hartzearen aldeko eta aurkako arrazoiak eskainiko ditugu.

Horrenbestez, atal honetan euskal izenki-predikazioaren lehenengo mailako (2.2. saila) eta bigarren mailako (2.3. saila) euskal predikazio-moten deskribapena egiten saiatuko gara. Azterketa zabal horren eranskin gisa, azkenik, sarritan gertatzen diren zenbait izenondo eta aditzondoren arteko muga zehatzik ezari buruz predikazioaren teoriek eskain dezaketen argia ikusten saiatuko gara (2.4. saila).

2.2. Lehenengo mailako izenki-predikazioa

Sail honetan, lehenengo mailako predikazioaren agerpentzat har daitezkeen hau da aditz baten eta izenki-predikatutzat har daitekeen zerbaiten artean azpikategorizazio-harremana duten euskal gertaerak biltzen saiatuko gara. Hasteko subjektu eta predikatuaren arteko komunztaduraren arazoa ikutuko dugu, predikazio-harremana ba ote dagoen finkatzeko erabakitzailea ez dela defendatuko dugularik: euskaraz, komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko izenki-predikatuak badaudela esan daiteke zalantzarik gabe. Areago, askotan izenki-predikatu bakarrerako bi aldaera horiek bi ñabardura desberdin eskaintzen dituzte.

Bigarrenik, *izan* eta *egon* aditzek era ditzaketen eraikuntzak aztertuko ditugu, gaztelaniaren *ser /estar* banaketarekin bat ez datozela agerian jarriko dugularik: *izan* aditza *egon* erabil daitekeeneko testuinguru guztietan (kokapena, existentziala, izenki-predikatuekin batera) azal daiteke euskararen orokortasunari begira baina *egon* debekaturik dago *izan* aditzaren erabilera batzuetan (identifikazioa eta zenbait motatako izenki-predikazioa). Lan honetan *izan* aditza adiera existentzial edo identifikatzailean erabiltzen denean nolabaiteko argumentu-egitura duen V kategoriako hiztegi-sarrera dela esango dugu baina osagarri modura izenki-predikatu bat duenean, laguntzaile modura jokatzen duela defendatuko dugu.[4] Modu berean hartuko

---

[4] *Izan* aditz hori laguntzailea dela esaten dugunean, inolako argumentu-egiturarik ez duela eta Aux buru funtzionalean txertatzen dela esan nahi dugu. Horrela, kategoria funtzionala izanik ez da gai bere osagarriaren gainean inolako hautapenik egiteko eta ia mota guztietako predikatuak izan ditzake osagarri modura: azken batean predikatuen islapen hedatua liteke eta ez bere osagarria murrizten duen predikatu-buru bat

ditugu laguntzailetzat °*edun* aditza eta nor-nori adizkiak izenki-predikatuekin doazenean.[5]

Egon aditza ordea, V kategoriako hiztegi-sarrera da geure iritziz izenki-predikatuekin doanean ere eta bere osagarriaren gainean hainbat motatako murriztapenak ezarriko lituzke. Halaber, *ibili* aditza, *egon* aditzaren antzekoa litzateke izenki-predikatuekin batera, baina bestelako adieretan (existentziala, kokapena) urrun legoke aditz honetatik. Aditz hauek beren osagarriei ezartzen dizkieten murriztapenak azaltzeko, Kratzer-en (1988) 'izaki-mailako' eta 'egoera-mailako' predikatuen banaketari eutsi behar izango diogu: 'egoera-mailako' predikatuak beren argumentu-egituran gertaerari osotasun modura dagokion e-argumentu bat dutenak lirateke eta 'izaki-mailako' predikatuak, horrelako argumenturik ez dutenak.[6] Horrenbestez, ohizko gramatiketan ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten predikatuez eta behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten predikatuez hitz egiten dutenean, hizkuntzalariak intuizio-mailan bada ere bi predikatu-mota hauetaz ari direla defendatuko dugu.

Ondoren aldaketa eta iraupena adierazten duten *jarri, geratu, bihurtu, gertatu* eta *iraun* bezalako aditzek izenki-predikatuekin batera ematen dituzten eraikuntzak aztertuko ditugu, batzuek *egon* edo *ibili* aditzek bezala 'egoera-mailako predikatuak' eskatzen dituztela eta beste batzuek 'izaki-mailako predikatuak' eskatzen dituztela ikusiko dugularik: bereziak dira aditz bakoitzak bere osagarriari ezartzen dizkion semantika, morfologia eta aspektuzko ezaugarriak.

---

[5] Geuk defendatuko dugun ideia hau, EGLU-II gramatikaren (82 or.) ondorioen aurkakoa da: gramatika horretan, °*edun* aditzerako behintzat, komunztaduradun partizipioarekin azaltzen denean, loturazko aditzaren izaera onartu dute *izan* loturazko aditzaren antzeko banaketa bailuke

[6] Guk ñabardura bat gaineratu diogu definizio horri: 'egoera-mailako' predikatuek buru modura e-argumentua duen hiztegi-sarrera bat izateaz gain, argumentu hori sintaxian AspP kategorian islatu behar dute, kasu batzuetan gerta baitaiteke predikatu-buruak bere argumentu-egituran e-argumentua dutenetarikoa izatea eta sintaxian ez islatzea.

Oraindik ere izenki-predikatu osagarrien arloan, *irudi* , *iritzi* eta *eman* iritzi-aditzak aztertuko ditugu: aditz hauen berezitasuna berekin azaltzen den izenki-predikatuaren subjektuari (bestelako izenki-predikatu guztietan gertatzen den bezala) absolutiboa ezarri beharrean hurrenez hurren ergatiboa eta datiboa ezartzea da. Kasu-markaketa hori posible izateko egon daitezkeen aukera guztiak aztertuko ditugu eta azkenik, 'berezitasun' honen arrazoia aditz hauek islatzen duten laguntzailearen izaeran datzala defendatuko dugu.

Lehenengo mailako predikazioari bukaera emateko *-tzat* prolatibo markadun predikatu-osagarriekin azpikategorizaturik dauden aditzak (*hartu, jo, eduki* eta *eman*) aztertuko ditugu: aditz hauek inglesaz eta gaztelaniaz kasu-markaketa berezia eragiten duten *consider /considerar* aditzen analogoak lirateke. Hala ere, euskaraz kasu-markaketa berezirik ez dagoela esan dugu lehenengo atalean. Hortaz, aditz hauek, lehenengo mailako izenki-predikatuak hartzen dituzten beste guztiak bezala, igoerazko aditzak lirateke.

2.2.1. Komunztaduraren arazoa

Gaztelaniari buruzko lanetan, subjektu eta izenki-predikatuaren arteko komunztadura erabakikortzat hartu da izenki-predikazioaren esparrua finkatzeko orduan. Hain zuzen ere komunztadura hori izan da predikatu-osagarriak (19) eta aditza modifikatzen duten izenondo-aditzondotzat hartu diren zenbait kategoria (20) banatzeko irizpide bereizgarria (Lujan, 1980; Hernanz & Brucart, 1987; Bosque, 1989).

(19) a. Juan (es/parece/resulta) alto
b. Miren y Pilar (son/parecen/resultan) altas (*alto)

(20) a. Juan habló alto
b. Miren y Pilar hablaron alto (*altas)

Euskararen arloan ere, garrantzi handia eman zaio mugatzailearen eta, beraz, komunztaduraren agerpenari loturazko aditzekin batera azaltzen diren

elementuak sailkatzeko orduan. Horrela, Goenaga (1980) eta EGLU-I (1985) gramatiketan, *-rik* marka edo *-ta* enklitikoa duten partizipioak (*apurturik, eginik, sartuta, erorita,..*), sailkagaitzago diren *bizirik, pozik, ixilik, tristerik* eta *osorik* bezalakoak eta modu berean, *luze mintzatu, zintzo jokatu* eta *gogor eman* bezalako esapideetan agertzen diren lehenengo elementuak aditzondotzat hartu behar direla defenditu da, komunztadura-ezan oinarrituz. Hala ere, *merke erosi* esapidearen izaera zalantzagarriagotzat jo da EGLU-I gramatikan (265 or.), *merke* delakoa erostearen ekintzari egokitu beharrean erosten dena modifikatzen duela baitirudi.

Lan honetan, komunztadura, bera bakarrik, hiztegi-sarreren gramatika-kategoria erabakitzeko orduan horren erabakikorra ez dela defendatuko dugu. Izan ere, euskaraz badaude komunztadurarekin batera edo komunztadurarik gabe azal daitezkeen izenondo eta izenak eta hala ere ezin esan daiteke kategoria-aldaketa dagoenik. Bestetik, inola ere komunztadura-markarik ezin har dezaketen zenbait elementuk, hala nola *pozik* edo *bakarrik*, edo *apurtuta* eta *sarturik* bezalako partizipioek, predikatuak eratzen dituztela ikusiko dugu, eta beraz, komunztadurarako ezintasunean oinarrituz berentzat proposatu den aditzondo-kategoria alferrikakoa dela jarriko dugu agerian: *pozik* eta *bakarrik* bezalakoek izenondoen banaketa bera dute. Azkenik, *apurtuta* edo *sarturik* bezalako partizipioek dagokien aditzaren argumentu-egitura mantentzen dute neurri handian eta *apurtua* edo *sartua* komunztaduradun partizipioen antzeko banaketa dute euskararen orokortasunari begira.

Gertaera bera modifikatzen duten aditzondo hutsak eta bigarren mailako predikatuak, askotan ez dira erraz bereizten. Izan ere, biak dira nolabaiteko adjunktuak, eta aditzondoak, preposizioak bezala, komunztadurarik ezin har dezaketen hitz aldagaitz modura definitu dira ohituraz. Hala ere, ez dira nahasi behar alde batetik gramatika-kategorien morfologiazko murriztapenak, bestetik konfigurazio-harreman zehatz baten adierazlea den komunztadura eta azkenik predikazioaren muinean dauden semantika eta sintaxi harremanak. Izan ere, badaude komunztadurarik gabeko predikazio-harremanak, eta baita predikazioari ez dagozkion komunztadura-harremanak ere.

Zentzu honetan mintzatu da Suñer (1990) gaztelaniaren bigarren mailako predikazioa aztertu duenean: PP mailako predikatuen aurrean, ezin erabil daiteke komunztaduraren irizpidea osagaiaren predikatu-funtzioaz erabakitzeko orduan (21, 22). Suñer-en azterketa zehatz eta bikainean ikus daitekeenez, AP predikatuen testuinguru gehienetan ager daitezke PPak. Horrela (21a,b) eta (22a, b) adibideen predikatuek antzeko semantika-murriztapenak ezartzen dizkiete beren subjektuei (23a, b) eta gainera, antzera jokatzen dute sintaxian(24):[7]

(21) a. Juan está **enfermo**
b. La casa está **derruida**
(22) a. Juan está **con gripe**
b. La casa está **en ruinas**
(23) a. Juan está {***derruido/*en ruinas**}
b. La casa está {***enferma/*con fiebre**}
(24) a. *Juan es {**enfermo/con gripe**}
b. *La casa es { **derruida/en ruinas**}

Bestetik, kontutan hartzeko beste zerbait ere badugu, gaztelania bezalako hizkuntzetan determinatzailea eta (zenbaki zein jenerozko) komunztadurak zeharo bereizirik dauden morfologiazko adierazpenak dituzten bitartean (25), euskaraz, mugatzailean bertan biltzen dira bi ezaugarri horiek, Irigoienek (1985) azpimarratu duenez, mugatzailerik gabe komunztadura egiterik ez baitago (26). Gainera, zenbaki-komunztadura baizik ez dago.

(25) a. **Todas estas explicaciones** *(fem. pl.)* son necesar**ias** *(fem. pl.)*
b. **Las primeras** *(fem. pl.)* son **las** *(art. fem. pl.)* **más necesarias** *(fem. pl.)*
(26) a. **Azalpen guztiak** *(pl.)* beharrezko**ak** *(pl.)* dira

---

[7] Gaztelaniaren bigarren mailako predikazioari buruzko lan aparta egin du Suñer-ek (1990), bereziki prepozizioak dituzten predikatuez aritu delarik.

b. **Lehenengoak** *(pl.)* dira beharrezko**ak** *(pl.)*
c. **Herri honetako gazte guztiak** *(pl.)* preso *(Ø)* daude dagoeneko

Areago, gaztelania bezalako hizkuntzetan mugatzaileak berak, izen-sintagmaren barneko beste elementuekiko komunztadura azaltzen duen bitartean (27a), euskaraz ez da horrelakorik aurkitzen NParen barnean, komunztadura NParen kanpo-harremanei murrizturik baitago (27b).

(27) a.**Las** hora**s** perdida**s** / **El** momento perdido
b. Ordu galdu**ak** / Une galdu**a**

Beraz, alde batera ezin utz daitekeen gertaera hau, egiturazko harreman baten adierazlea da, islapen funtzionalen espezifikatzaile/buru harremanaren adierazlea hain zuzen. Harreman horrek ekarpen garrantzitsuak izan ditzake gure azterketari begira; baina komunztadurarik eza ezin erabil daiteke, besterik gabe predikazio-eza erabakitzeko.

Predikazioan, bi islapen nagusik hartzen dute parte; batak (predikatua), argumentu bati lotu behar zaion hutsune bat du bere argumentu-egituran, besteak (subjektuaren funtzioa beteko duen argumentua), predikatu baten beharra du θ-paper bat jaso ahal izateko. Hain zuzen ere horixe litzateke *merke* elementuaren inguruan suertatu diren zalantzen eragilea, zeren *merke* hiztegi-sarrerak eraikuntza horietan komunztadurarik hartzen ez badu ere gai baita argumentu bati θ-papera esleitzeko. Horrela (28) esaldian a. eta b. esaldien bidez agerian jarri ditugun bi predikazio dago: lehenengo predikatuaren burua *erosi* aditza litzateke eta bigarrenarena, *merke* delakoa.

(28) Sagarrak merke erosi ditut
a. Sagarrak erosi ditut
b. Sagarrak merke zeuden erosi ditudanean[8]

---

[8] *Zintzo jokatu* eta *gogor eman* adibideen kasua zalantzagarriagoa da: hasteko, (17) adibidearen perifrasien antzekoak erabili nahi ditugunean arazoak aurkitzen ditugu.

Ikusi gainera, *merke* hiztegi-sarrera zalantzarik gabe izenondotzat hartuko genukeeneko testuinguruetan ere azal daitekeela (29).

(29) Mota horretako sagarrak merkeak dira

Horrela, komunztaduradun esapideetan *merke* izenondotzat harturik komunztadurarik gabekoetan aditzondoa dela esateak, kategoria-aldaketa batez pentsatzera eramaten gaitu. Alabaina, kasu bietan izenondo-kategoriako hitzak ditugula eta (28) eta (29) adibideen artean dagoen ezberdintasuna lehenengo mailako eta bigarren mailako predikazioei dagozkien konfigurazioetan datzala pentsa dezakegu. Horrela, lehen mailako predikazioaren konfigurazioak komunztadura egitea baimenduko ligukeen bitartean, bigarren mailakoarenak ez liguke komunztadura hori zilegiztatuko.

Euskararen kasura murriztuz, subjektu eta izenki-predikatuen arteko komunztadura ez da gaztelaniaz bezain aberatsa (mugatzailearekin batera ezarri behar den zenbaki-komunztadura baizik ez dago) eta gainera ez da homogeneoa euskalkiz euskalki ez eta predikatu-eraikuntza batetik bestera. Diakroniaren ikuspegitik ere, komunztadura-mota hau hizkuntzaren berrikuntza bat dela defendatu da (Lafitte, 1944; Txillardegi, 1977, 1978;

Irigoien, 1985):[9] orokorki komunztadura sarriago azaltzen da *izan* aditzarekin *egon, ibili, gertatu, bihurtu,* edo *bilakatu* bezalako aditzekin baino eta bestetik ohizkoagoa da komunztadura izenki-predikatua izenondoa denean, izena denean baino, izena eta *izan* ez diren atribuziozko aditzak elkartzen direnean ezinezkoa dela esan daitekeelarik.

i) Garbi dago kategoria batzuek beren izaeragatik zenbaki-komunztadurarako murriztapen garbiak dituztela: hala nola, *-ta* edo *-rik* bukaera duten partizipioek, eta modu berean *bizirik, pozik, isilik, tristerik, gaisorik* eta *bakarrik* motakoek ere, baina horrek ez du esan nahi predikatuak eratzen ez dituztenik.

ii) *Izan* eta °*edun* aditzen atributuen kasuan mugatzailea jartzeko joera handia dago. Joeraz baino gehiago, beharraz hitz egin daiteke atributuaren burua partizipio hutsa denean (31, 32) eta baita izenlaguna edo erlatibozko perpausa denean (33), modu berean nahitaezko sintagma mugatuak dira egitura identifikatzaileetakoak (34).

(i) Jonek zintzo jokatu du
*Jonek jokatu du
Jon zintzo {ibili/izan} da (*jokatu duenean)

(ii) Mirenek Ainhoari gogor eman dio
??Mirenek Ainhoari eman dio
??Miren gogor ibili da Ainhoarekin

Kasu hauetan ezinezkoa da esaldietan bi predikapen-eremu bereiztea, baina arretaz begiratuz gero, banaketa horren ezintasuna ez datza *gogor* eta *zintzo* hiztegi-sarreretan, *jokatu* eta *eman* aditzetan baizik. Honelako eraikuntzetan izenondoa aditzaren osagarria dela pentsa daiteke, bien artean subjektuaren θ-papera erabakitzen duen predikatu konplexu bat eratu dutelarik.

[9] Izan ere, Michelena-k (1978) hizkuntzalaritza historikoak urteetan zehar egin duen mugaturiko artikuluaren agerpena berri samarra delako baieztapena, zalantzatan jarri du behar bezain dokumentaturik ez baitago. Hala ere, artikulu mugatuak azken mendeetan jaso duen hedapena argiago dagoela azpimarratu du.

(31) a. Etxean dituzun liburu guztiak [neuk erosiak] dira
b. *Etxean dituzun liburu guztiak [neuk erosi] dira
(32) a. Etxean dituzun liburu guztiak irakurriak ditut
b. ≠ Etxean dituzun liburu guztiak irakurri ditut
(33) a. Liburu horiek (Perurenak/*Peruren) dira
b. Liburu hori da irakurri nahi (dudana/*dudan)
(34) Bizardun **hori** da aurtengo irakaslea

Atributua izenondoa denean, mugatzailea jartzeko beharra dago. Hala ere, behar hori ahuldurik agertzen da zenbait testuingurutan: hasteko, zubereraren esparruan; bigarrenik, izenondo kateatuak edo gradu-atzizkiak ditugunean; hirugarrenik, atributuaren subjektua perpausa denean, eta bukatzeko, hizkuntz errejistro zainduetan eta baita loturazko aditza ezabatzen denean ere. Superlatiboa dugunean, egitura identifikatzaileetatik hurbil dagoen unibokotasunaren irakurketara beharturik gaude, eta beraz, mugatzailea halabeharrezkoa da.

(35) a. Etxean dituzun liburuak oso interesgarriak dira
b. Jauna, zure grazia ez da handi, azkar eta gozo?
c. Gezurrak zangoak labur[10]
d. Zure autoa nirea baino erosoago(a) da
e. Egile batzuek beste batzuek baino fidagarriago(ak) dira
f. Zure autoa handiegi(a) da Bilbon aparkatzeko
g. Zail da nahi duguna benetan gertatzea
e. 'Eva Luna' da, neure iritziz, Isabel Allenderen nobelarik ederrena

Atributua izena denean, hedatuago dago mugatzailerik gabeko erabilera, batez ere identifikazioaren edo unibokotasunaren irakurketaren arriskua dagoenean. Horrela, (36a) adibidearen *funtzionari* izenak unibokotasunaren irakurketarako leku handia ez izanik, mugatzaileak ez du anbiguitaterik

---

[10] Lafitte-ren (1944) adibideak errepikatu ditugu hemen

sorterazten (atribuzio-irakurketa da ohizkoena) eta hiztun gehienek ezinezkotzat jotzen dute (*Mikel funtzionari da*) mugatzailerik gabeko erabilera.

(36) a. Mikel funtzionaria da
b. Mikel irakaslea da
c. Mikel irakasle {da/dago}

Irakasle izenaren kasuan berriz, Mikelen iharduera profesionalaz edo geure irakaslearen identifikazioaz ari garela uler dezakegu (36b) adibidean, (36c) adibideak berriz, atribuzio-irakurketa baizik ez du. Mugatzailedun atributuak beraz, mugatzailerik gabekoak ez bezala, anbiguoak dira, atributuaren *-a(k)* bukaera hori mugatzailetzat zein komunztaduraren adierazletzat jo eta hurrenez hurren identifikazioaren zein atribuzioaren irakurketa lor baitezakegu.[11]

iii) Izenki-predikatuak eskatzen dituzten gainerako aditzei dagokienez (*gelditu, geratu, joan, hartu, jo, eman, izendatu, bilakatu, egin, bihurtu,...*), atributu mugagabea eskatzen dutela defendatu da (Txillardegi, 1978; Zabala & Odriozola, 1990), nolabaiteko idealizazio modura. Edozein modutan, benetako erabilera ez da horren homogeneoa.

Lafitte-k (1944) atributuak har ditzaketen aditz horien guztien artean bi sail bereizi ditu: alde batetik, mugatzailea hartu ohi duten, eta beraz *izan* eta *ukan* aditzekin batera kontsideratu behar liratekeen, *egon, bilhakatu, egin* eta

---

[11] Egia da dena dela, (36b) adibidearen aurrean hiztun gehienek ulertzen dutela atribuzioaz eta ez identifikazioaz ari garela baina erraz asma daitezke (36b) bezalako perpaus batek identifikazioaren irakurketa duteneko testuinguruak: demagun gure lankide batek bi anai adituela eta bata irakaslea eta bestea abokatua direla. Orduan, *Mikel* bere anaiari buruzko zerbait kontatzen hasten da eta Mikel zein den ongi gogoratzen ez dugunez *zein da Mikel, abokatua ala irakslea?* galdera egiten diogula. Erantzuna *Mikel irakaslea da* izan liteke eta beraz, (25b) perpausaren identifikaziozko irakurketaren aurrean geundeke.

iduri; eta bestetik, mugatzailerik gabeko atributua hartu ohi luketen *izendatu, eduki, bizi* eta *bilhakaerazi.* Dena dela, Lafitteren lana nafarrera lapurtera literarioari dagokiola azpimarratu behar da.

Bukatzeko, euskararen joera orokorren berri eman duen EGLU-I (1985) gramatikaren egileek, *egon, joan, bihurtu* eta *hartu* bezalako aditzetan atributua izenondoa eta izena deneko kasuak bereizi behar direla defendatu dute: izenondoaren kasuan aukerakoa den mugatzaileak (37), ondorio agramatikalak ematen ditu izen-atributuaren kasuan (38).

(37) a. Ura oso hotza da
b. Begiak ederrak dituzu
c.Ura oso hotz(a) dago/ dator
d. Anaiak on(ak) bihurtu ziren

(38) a. Andoni irakasle(*a) dago
b. Peio soldadu(*a) joan zaigu
c. Ura ardo(*a) bihurtu zen[12]

iv) Bestetik, beti mugatzailerik gabe (eta beraz komunztadurarik gabe) agertzen diren zenbait izen eta izenondo berezi hartu behar da kontutan (Laffite, 1944, Txillardegi, 1978, EGLU-I, 1985): alde batetik *gai, gauza, aiher, haizu, zilegi, sori* eta *bide* izenondoak; bestetik, sailkagaitzago diren *komeni, ados* eta *akort* hitzak, eta bukatzeko, *beldur, gose, haserre, ahalge, lotsa, ikara, izerdi, egarri, hotz* eta *bero* izenak.

(39) a. Ez naiz gauza lan honetan eskatzen zaidana egiteko
b. Ados jarri dira guri kontra egiteko
c. Ondo bazkaldu dudan arren, gose naiz dagoenekoz

v) Azkenik, ezin ahaz daiteke zenbait aditz iragankor, prolatiboaz (*-tzat*) markaturiko predikatu-osagarriak hartzen dituztela: *hartu, jo, eman, eduki,*

---

[12] Adibide hauek guztiak, EGLU-I-tik (1985) hartuak dira .

ukan, eskaini,...[13] Posposizio-marka honek aldaera mugagabea baizik ez dauka, eta beraz, ez du inoiz komunztadurarik azaltzen. Hala ere, ez dirudi predikazioaren arlotik bazter daitekeenik, SCen (edo perpaus txikien) analisia motibatu duten *consider* bezalako aditzen ordainak baitira hauek.

(40) a. Zure lana interesgarritzat eduki dugu beti
b. Jantzi berdea zeraman erizaina medikutzat jo genuen

Prolatibo-markari dagokionez, aipatzekoa da, bestelako deklinabide-markak NPari lotzen zaizkionean gertatu ohi diren aldaketa fonetikoak (*-e* epentetikoak adibidez) gertatzen ez direla (EGLU-I, 1985).

Inolako komunztadurarik gabe agertzen dira baita gaztelaniaren zeharkako atributuen antzekoak diren zenbait eraikuntza ere, eta orokorki posposizio-eraikuntza asko.

(41) a. Iruzkin horiek ohar gisa daude
b. Bekadunak dirurik gabe daude oraindik

Laburbilduz, izenki-predikazioak ez du ezinbestean eskatzen subjektuaren eta izenki-predikatuaren arteko komunztadura: predikazioa eta komunztadura bereizi behar diren gertaerak dira, komunztadurarik gabeko predikazio-harremanak zein predikaziorik gabeko komunztadura-harremanak aurki baitaitezke.

Zenbait hiztegi-sarreraren morfologiak ez du baimentzen komunztadurarako beharko litzatekeen morfema gaineratzea eta beraz hitz horiek ez dute sekulan azaltzen komunztadurarik. Hala ere, predikatuak era ditzakete. Bestetik, *izan* aditzarekin azaltzen diren izenki-predikatuek joera handiagoa dute komunztadura azaltzeko bestelako aditzekin (*egon, ibili, bihurtu,..*)

---

[13] Erabilera honi dagokionez ondoko lanak ikus daitezke: Lafitte, 1944; Txillardegi, 1978; Salaburu & Kintana, 1984; Knörr, 1979; EGLU-I , 1985, Zabala & Odriozola, 1990.

doazenek baino. Gainera, izenek izenondoek baino nekezago onartzen dute komunztadura. Hortaz, buru modura izenak dituzten predikatuak *izan* ez den loturazko aditz batekin elkartzen direnean, guztiz ezinezkoa da komunztadura.

2.2.2. *Izan* eta *egon* loturazko aditzak

2.2.2.0. Sarrera

Ingelesa eta frantsesa bezalako hizkuntzetan hurrenez hurren *to be* edo *être* hiztegi-sarrera bakarraren bidez betetzen den loturazko funtziorako, bi sarrera dugu euskaraz, *izan* eta *egon* alegia. Bikoiztasun horretan behintzat, euskara *ser* eta *estar* aukera bikoitza duen gaztelaniatik hurbil dagoela pentsa daiteke (Villasante, 1980). Hala ere, loturazko aditz bakoitzaren banaketari buruzko hipotesirik menturatu aurretik, sakonkiago aztertu behar da arazo hau. Euskaraz, gainera, ezin ahaz daitezke °*edun* eta *izan* aditzaren nor-nori motako adizkien erabilera atributiboak

Izan ere, aditz hauen erabilera aztertuz, gaztelaniaren *ser /estar* bikotearekin bat ez datozela ikus daiteke: hasteko euskararen bi aditz hauek adiera existentziala dute (42) gaztelaniarenek ez bezala, gaztelaniaz *haber* edo *existir* aditzak erabiltzen baitira adiera existentzialerako (43).

(42) a. Bada Jaungoikorik
b. Ba al dago ogirik?
(43) a. Dios existe
b. Hay pan?

Bigarrenik, euskaraz bi aditzok adieraz dezakete kokapena (44), baina gaztelaniaz *ser* aditzak ez du balio gertaeren kokapenerako baizik (45b).

(44) a. Jon etxean { da/dago}
b. Jaia Mikelen etxean {da /*dago}

(45) a. Jon {está/*es} en casa
b. La fiesta {es/*está} en la casa de Mikel

Hirugarrenik, gaztelaniaz soilik *ser* aditzarekin eta soilik *egon* aditzarekin azal daitezkeen predikatuak bereiz daitezkeen bitartean (47), euskararen orokortasunari begira, *izan* aditza edozein motatako predikatuekin azal daiteke (46).

(46) a. Jon pozik { da/dago}
b. Jon azkarra {da /*dago}
(47) a. Jon {está/*es} contento
b. Jon {es/*está} inteligente

Eta bukatzeko, gaztelaniaz loturazko aditzaren banaketaz baino ezin lor daitezkeen nabardurak (49), euskaraz, aditzaren hautaketaz ezezik, komunztadura/komunztadura-eza bereizketaz ere lor daitezke (48).

(48) a. Jon eri da baina ez da haur eria
b. Miren lodia da /Miren lodi dago
(49) a. Jon está enfermo pero no es un niño enfermizo
b. Miren es gorda/Miren está gorda

Lehenengo mailako izenki-predikatuak, aditz-sarrera zehatz batzuen azpikategorizatze-sareen parte izateagatik bereizi ditugu. Horrela , aditz hauekin batera agertzen diren izenki-predikatuak ezabatzeko ezintasunaren ohizko onarpena erabil daiteke lehenengo mailako izaera horren froga modura (50, 51).

(50) a. Egunkari hau objektiboa izaten da atzerriko berriak azaltzeko orduan.
b.*Egunkari hau izaten da atzerriko berriak azaltzeko orduan
(51) a. Antolatzaileak pozik daude ekitaldiak izan duen harreragatik

b.*Antolatzaileak daude ekitaldiak izan duen harreragatik

Ikuspegi geografikotik, loturazko aditz hauen banaketa homogeneoa izatetik urrun dagoela esan dezakegu. Hala ere, euskal hiztun guztiek elkarren artean luketen ezagutza finkatzeak izan behar du gure helburua. Hasteko, *izan* euskalki eta hizkera guztietan dagoela esan behar da; *egon* aditzaren kasuan berriz, mailakaketa nabaria ikus daiteke, hegoalde eta mendebalderantz goazen neurrian hedatuago dagoelarik. Datu horrek dagoenekoz, *egon* aditza *izan* aditzaren aurrean aldaera markatua dela ematen digu aditzera (Villasante, 1980). Izan ere, iparraldeko eta Nafarroako zenbait hizkeratan, *egon* aditzaren bereizgarria izan litekeen kokapenezko balioa ere adierazten da *izan* aditzaren bidez (*etxean da*).

Horrela , zubereraz mintzatzen diren hiztunei *izan* 'nahikoa' gertatzen zaien bitartean, beste euskalki batzuetan, *izan* eta *egon* hiztegi-sarreren beharra dago. Hori azaltzeko, gutxienez bi aukera burura dakiguke: alde batetik, *izan* eta *egon* loturazko aditzen arteko bereizketa inolako ondoriorik ez daukan azaleko gertaera dela pentsa daiteke; horrela, euskal hiztunak zaku berean sartuko lituzke atribuzioaren kasu guztiak. Alabaina, euskalki batzuetan, agian maila baxuko erregela fonologiko batzuen bidez edo inguruko hizkuntzen analogia hutsez, azalean, bi modu desberdinetara gauzatuko litzateke loturazko harreman bakarra. Bereizketa horrek beraz, ez luke garrantzi handirik sintaxiaren ikuspegitik.

Beste aukera bat, euskal hiztun guztiek, bai eta loturazko aditz bakarra erabiltzen dutenek ere, izenki-predikatuak bi kontzeptu-arlo desberdinetan antolaturik dutela pentsatzea da. Horrela, *izan* eta *egon* aditzen arteko bereizketa egiten duten hiztunek zein loturazko aditz bakarra erabiltzen dutenek, zenbait ezaugarriren bidez (adibidez 'esentzia' eta 'akzidentearen' kontzeptuen bidez) deskriba daitekeen hiztegi-ezagupena lukete eta gai lirateke beste hiztun batzuek egiten duten bereizketa deskodifikatzeko ere.

Azken hipotesi hau egia izatekotan, semantika-ezagupen horrek nolabaiteko islapena izan behar luke sintaxian.[14]

Izan eta *egon* aditzen arteko hautaketa, subjektu eta atributuaren arteko komunztadurarekin batera aztertu behar den kontua da. Horrela, *izan* aditzarekin agertu ohi diren predikatuek subjektuaren ezaugarri iraunkorrak edo denboratik kanpokoak adierazten dituzten bitartean, *egon* aditzarekin azaltzen direnek behin-behineko ezaugarri edo egoera zehatzak adierazten dituzte euskal gramatikarien iritziz (Txillardegi, 1978; Villasante, 1980; Goenaga, 1982; Rebuschi, 1982; EGLU-I, 1985). Baina, atributuaren komunztadura eta komunztadurarik ezari antzeko balioa egotzi zaie. Horrela, Lafitte-k (1944) *eri da* eta *eria da* direlakoak eskaini ditu loturazko aditz bakarra erabiltzen duten euskalkien adibide paradigmatiko modura: mugatzailerik gabeko atributuak (*eri da*) behin-behineko egoera adierazten duen bitartean, *eria da* sekuentziak, beti gaixorik egoten den pertsonaren izaerari bide dagokio.

---

[14] Izan ere, Bolinger-ek (1967) ingeleserako frogatu duenez, loturazko aditz bakarra duten hizkuntzetan ere 'esentzia' eta 'akzidente' direlako kontzeptuei legokiekeen semantikazko bereizketa agerian uzten duten sintaxi-jokaerak ikus daitezke: lehenik, izenki-predikatuek koordinatzeko orduan azaltzen dituzten murriztapenak; bigarrenik, predikatu batzuek izenaren premodifikatzaileak izan behar duten bitartean, beste batzuek izenaren atzean agertu behar dute halabeharrez; hirugarrenik, batzuek *all* intensifikatzailea onartzen duten bitartean, beste batzuek *completly* baizik ez dute onartzen; eta bukatzeko, predikatuen sail batek baizik ez du *get* motako pasiborik eratzen. Sintaxi-froga hauen bidez bereiz daitezkeen bi multzoak gainera, neurri handian, gaztelaniaren *ser* eta *estar* loturazko aditzen hautapenean oinarrituz lortzen diren multzoekin bat datoz.

Horrela ba, euskalki desberdinen jokaeraren azpian loturazko aditzaren bikoiztasunaren independientea den 'esentzia'/'akzidentea' edo antzeko semantikazko bereizketa badagoela pentsatzeak ingelesean oinarrituriko bermaketa ere, badu bere alde, eta zilegi izan daiteke lan-hipotesi modura behintzat.

Atributua partizipioa denean, hiru aldaera dugu euskara osoa kontutan harturik: mugatzailedun partizipioa, eta *-ta* edo *-rik* bukaera dutenak. Aukera horiek loturazko bi aditzekin konbinatuz, ondoko sei aukerak lortzen dira (ikus Rebuschi, 1982):

(52) Patxi nekatu da

(53) a. Patxi nekatua da
b. Patxi nekatua dago
c. Patxi nekaturik da
d. Patxi nekaturik dago
e. *Patxi nekatuta da
f. Patxi nekatuta dago[15]

Loturazko aditz bakarra erabiltzen duen zuberera alde batera utzirik, *-ta* eta *-rik* partizipio-bukaerak *egon* aditzarekin agertzen dira ia beti ; bestetik, *-(a)k* bukaera *izan* aditzarekin agertzen da gehien bat gipuzkeraz *egon* loturazko aditzarekin ere agertzen bada ere. Rebuschi-ren arabera, hiru bukaera horiek adierazten dute nolabaiteko prosezuaren 'ondoriozko egoera', baina, *-ta* edo *-rik* erabiltzen direnean prozesuaren partaideetariko bat egoera horretan kokatzea baizik egiten ez den bitartean, *-a(k)* bukaera, 'adjektibatzailea' litzateke eta prosesuaren partaideren bat izaera berri bat bereganatu duela adieraziko luke. Horrela, Rebuschi-ren iritziz ez da harrigarria *-ta* eta *-rik* kokapen-funtzioa lukeen *egon* aditzarekin azaltzea.

Egile horren arabera, *-ta* eta *-rik* bukaerek aditzondoak sorteraziko lituzketen bitartean, *-a(k)* direlakoek izenondoak emango lituzkete. Ikuspegi

---

[15] Edozein modutan, hurbilketa teoriko horri benetako erabileratik ateratzen diren iruzkinak ezarri behar zaizkio (Rebuschi, 1982): hasteko, (53a) eraikuntza oso orokorra da, euskalki gehienetan aurki daitekeelarik; b, c, d eta f aldaerak dialektalak dira, euskalakiaren arabera bata zein bestea aurkitzea espero daitekeelarik. Bukatzeko e aldaera nekez aurkituko dela esan daiteke, *-ta* bukaera erabiltzen deneko euskalkietan *egon* aditza erabiltzen baita horrelako partizipioekin.

honen aldeko bi froga aurkeztu ditu Rebuschi-k: alde batetik, *-ta* bukaeraren jatorrian *eta* juntagailua legokeela (54) eta juntagailu horrek prozesu bera eta horren osteko egoera lotuko lituzkeela proposatu du; eta bestetik, adberbialtzat jo dituen bukaera horiek, bukaera adjektibalak ez bezala, eraikuntza adberbial absolutuak era ditzaketela eman du aditzera (54b, 54'b/55).

(54) a. Eskutitza idatzi dut (e)ta erantzunaren zai nago
b. Eskutitza idatzita, erantzunaren zai nago
c. Eskutitza idatzita nago (antipasiboa)
d. Eskutitza idatzita dago (pasiboa)

(54') b. Eskutitza idatzirik, erantzunaren zai nago
c. Eskutitza idatzirik dago
d. Eskutitza idatzirik nago

(55) *Eskutitza idatzia, erantzunaren zai nago

Batez ere Gipuzkoan agertzen den *-a(k) + egon* eta zuberazko *-rik+ izan* konbinaketak, hurrenez hurren izenondoaren komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerekin konparatuz azaldu ditu egile horrek: subjektu eta atributuaren arteko komunztadura eta *izan* aditza izakien ezaugarriak adierazteko erabili ohi dira, behin-behineko egoerak adierazteko komunztadurarik gabeko atributuak eta *egon* aditza erabili ohi direlarik.

Mugatzailedun partizipioa, bi predikatu-mota desberdinen konbinaketatzat har liteke Rebuchi-ren iritziz, alde batetik, duen izenondo-balioa dela eta, izakien ezaugarriak adierazteko balio lezake *izan* aditzarekin agertu ohi diren predikatuek bezala; baina bestetik, ekintza baten ondorioz lortzen diren ezaugarriak edo egoerak adierazten dituenez, hurbilago legoke *egon* aditzarekin agertu ohi diren predikatuen aspektu-baliotik. Bi ñabardura horiek sentitzen dituzten hiztunek, beraz, komunztaduradun partizipio eta *egon* aditzaren konbinaketa erabiltzen dute.

Zubereraren konbinaketa bereziari dagokionez (partizipioa+ *-rik* + *izan*) , *jinik da* eta *eri da* modukoak, parekatu egin ditu Rebuschi-k. Euskalki

horretan, loturazko aditz bakarra egonik, nolabaiteko behin-behinekotasuna adierazteko dagoen bide bakarra komunztadurarik eza liteke. Bide honetatik, zubererazko partitiboaren erabilera honi izenondo-balioa emateko beharra ikusi du Rebuschi-k, hizkuntzaren orokortasunari begira nolabaiteko salbuespena litzatekeelarik.

Guk geuk, oraingoz behintzat, ez dugu partizipio hauen gramatika-kategorian sartu nahi, baina ez dugu uste zubereraren konbinaketa hori azaltzeko salbuezpenezko onarpenak behar direnik: zubereraz, loturazko aditz bakarra erabiltzen badute ere, lehenengo hurbilketan behintzat 'esentzia' eta 'akzidenteari' legozkiekeen kontzeptu-arloak badituzte hiztunek, kontzeptu horien morfologiazko islapena komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaeren hautaketa delarik.

Bestetik, ez dugu uste partizipioak izenondo edo aditzondoen kategoriakoak direla esanez ezer ere konpontzen denik. Bistan da partizipioek aditzaren eta izenondo edo aditzondoen ezaugarriak dituztela eta horregatik bitarteko kategoriatzat har daitezkeela: alde batetik, dagokien Varen argumentu-egitura islatzen dute VPak emanez, baina bestetik, kanpo-banaketari dagokionez, izenki-predikatuak eratzen dituzte. Izenki-predikatu horiek zenbait kasutan subjektuarekiko komunztadura azaltzen dute (53a) eta beste kasu batzuetan ez dute horrelako komunztadurarik onartzen (53 b, d, f). Zentzu honetan ez dira bereizten zalantzarik gabe izenondoen sailean sartzen ditugun *eri da leria da* moduko bikoteetatik.

Guk geuk, partizipio-predikatu hauen burua V dela defendatuko dugu: izenki-predikatuak eratzen dituzten partizipioen eta adizki-predikatuak eratzen dituzten partizipioen artean dagoen ezberdintasuna V horien islapen hedatuaren izaeran (hau da islapen funtzionaletan) bilatu behar da eta ez predikatu buruaren kategorian.

Laburtuz bada, *egon* aditza eta hala izenondoaren nola partizipioaren komunztadurarik gabeko aldaerak iraunkorrak ez diren egoerekin eta *izan* aditza eta komunztaduradun aldaerak ezaugarri iraunkorrekin erlaziona daitezkeela defendatu da aho batez euskarari buruzko literaturan. Bestetik, aditzondo-izaera eta komunztadurarik eza harreman zuzenetan jarri dira lan

horietan. Komunztaduraren arazo honi dagokionez, predikatuen gramatika-kategoria erabakitzeko nahikoa ez dela defendatu dugu, gramatika-kategoria bereko komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerak baititugu.

2.2.2.1. *Izan* eta *egon* aditzen adierak

Izan eta *egon* aditzen adierak lau multzotan bil daitezke: lehendabiziz adiera existentziala, bigarrenik kokapenezkoa, hirugarrenik identifikazioarena eta bukatzeko ezaugarrien esleipena.

Adiera existentziala urrun geratzen da izenki-predikazioaren esparrutik, horrelako eraikuntzetan ez baitago izenki-predikatutzat har daitekeen ezer: predikazio-arlo bakarra *izan* edo *egon* aditzak berak osotzen duena da. Kokapenezko adierak ordea, atribuzio hutsezko eraikuntzen antzekoak dira sintaxi-jokaerari dagokionez; horrenbestez, izenki-predikazioa zentzu zabalean kontsideratzen bada, hauek ere sar daitezke esparru horretan.

Bestela, ezaugarrien esleipena., izenki-predikatuen funtziorik arruntena da eta jakina, bai *izan* eta bai *egon* aditzekin ager daiteke, *izan* aditzaz lagunduta edozein motatako ezaugarriak predika badaitezke ere *egon* aditzaz lagunduta behin-behineko ezaugarriak edo egoerak baizik ezin predika daitezkeelarik.

Bukatzeko, *izan* aditzarekin eta batez ere bi NP (edo hobe esan bi DP) hartzen duenean, bi izakiren arteko identifikazioa adierazten duten eraikuntzak azal daitezke. Honelakoak ez dira onargarriak *egon* aditzarekin.

2.2.2.1.1. Adiera existentziala

Adiera existentzialari dagokionez, bai *izan* eta bai *egon* aditzekin azal daitekeela esan behar da. Adiera horretan aditzok argumentu bakarra hartzen dute, argumentu bakar hori NP (edo agian DP) bat delarik. Gainera, polaritatezko eraikuntzetan, hau da aditzak *ba-* aurrizkia edo *ez* aditzondoa daramanean baizik ez da posible (56) irakurketa existentziala. Bukatzeko, aditzaren argumentu bakarrak, partibo marka (eta beraz partitibo kasu abstraktua) hartu ohi du, horrek Varen osagarri modura sortu dela pentsarazten digularik (ikus I atalaren 1.5. azpisaila).

(56) a. Bada Jaungoikorik
b. Ba al dago ogirik?
c. Aurten ez dago Arrasateko ikaslerik

2.2.2.1.2. Kokapena

Kokapenezko balioari dagokionez, bi aditz horietatik edozein erabiliz lor daiteke (57, 58). Hala ere, lekuzko osagarri bat behar da irakurketa hori lortzeko: lekuzko osagarria jartzen ez denean (57a, 58a), esapide zalantzagarriak azaltzen dira.[16]

(57) a. ?? Peru al dago?
b. Peru hor al dago?
(58) a.*Peru al da?

---

[16] Gauza bera gertatzen da ingelesaz eta frantsesaz: *Is Peter there?* , *Pière est il là?*

b. Peru hor al da?

Koordinazioaren kasuetan ere, ezinezkoa da lekuzko osagarria ezabatzea (59).

(59) a.??Leku guztietan bila ibili naiz eta Peru ez dago __
b. Leku guztietan bila ibili naiz eta Peru ez dago inon

Datu hauek, gaztelaniarekin konparatuz, azken hizkuntza honetan *estar* aditzaren barnean kokapenaren-balioa badagoela pentsarazten digute: gaztelaniaz, kokapena *estar* aditzaren bidez baizik ezin adieraz daiteke, *ser* aditzarekin agramatikala delarik (60b), eta bestetik, balio hori lortzeko ez da lekuzko osagarrien beharrik (60a, 61).

(60) a. Está Pedro?
b. *Es Pedro en casa?
(61) a. He buscado por todas partes y Pedro no está
b. ??He buscado por todas partes y Pedro no está en ningún sitio

Hala ere, salbuespen bat aipatu behar da: izakien kokapenaz aritu beharrean gertaeren kokapenaz ari garenean, *izan* aditza behar da ezinbestean euskaraz (62a), eta harrigarriagoa dena, *ser* aditza gaztelaniaz (62b).

(62) a. Jaia Mikelen etxean {da /*dago}
b. La fiesta {es/*está} en casa de Mikel

Euskararen kasu zehatzera itzuliz, *izan* eta *egon* aditzen subjektua beren osagarri modura sortzen dela esan dezakegu zenbait datutan oinarrituz: hasteko, adiera existentzialean partitibo kasua hartzen du, eta hori berezko kasua izanik Varen osagarriari soilik eslei dakioke eta bigarrenik, kokapenezko adieran (atribuziozko eta identifikaziozko adieretan bezala), aditz hauen subjektuek absolutiboa azaltzen dute, euskaraz D-objektuei ezartzen zaien marka hain zuzen ere.

Alabaina, kokapenezko eraikuntza hauetan, lekuzko adizlaguna ere, ezinbestekoa da, eta beraz, Varen osagarrian txertatu behar genuke hau ere. Hortaz, subjektua eta leku-adizlaguna osagarrian bertan sortzeko aukera bakarra, bi elementu horiek osagai bakar baten parte izatea liteke: azken batean leku-adizlaguna predikatu bati legokioke, eta eraikuntzaren subjektuak lekuzko predikatu horretatik hartuko luke θ-papera eta ez *egon* edo *izan* aditzetik. Ideia hau bermatzeko, subjektu horren semantika murrizten duena aditza izan gabe lekuzko adizlaguna dela ikus dezakegu (63, 64): a eta b adibideetan aditz bera dugu eta beraz subjektuaren edo lekuzko adizlagunaren ezegokitasuna da agramatikaltasunen eragilea.

(63) a. Ander langabezian dago
b. *Liburua langabezian dago

(64) a. Hitzaldia areto nagusian da
b. *Hitzaldia poltsikoan da

Azalpenik gabe geratzen zaigun puntu bakarra gertaeren kokapena adierazteko *egon* aditza (ez eta gaztelaniaren *estar* aditza) baliogarri ez izatea da. Hala ere, aurrerago itzuliko gara arazo honetara *izan* eta *egon* aditzekin azal daitezkeen predikatu-osagarriak aztertuko ditugunean.

2.2.2.1.3. Identifikazioa

Ekin diezaiogun orain identifikazioaren adierari: identifikazioa edo irakurketa ekuatiboa, loturazko aditzaren bidez elkartzen diren bi elementuak izenak direnean suertatzen da batez ere eta irakurketa bakarra izaten da loturazko aditzaren aurreko elementua izen propio bat, erakusle bat edo pertsona-izenordain bat denean (65).

(65) a. Irakaslea Mikel da
b. Irakaslea zu zara
c. Irakaslea hori da

(65) perpausetako elementuen ordena alderantzizkatuz (66), testuingururik gabe behintzat atribuziozkotzat hartzeko joera dugun perpausak lortzen ditugu. Hau da, (66) perpausak irakurtzean, Mikelen iharduera profesionala irakaskuntza dela ulertzea da ohizkoena.

(66) a. Mikel irakaslea da
b. Zu irakaslea zara
c. Hori irakaslea da

Hala ere, perpaus horiek testuinguru egokian kokatuta, identifikaziozkotzat ere har daitezke. Demagun argazki batean modu desberdinetara (irakasle, mediku, abokatu, kamarero eta neskame modura adibidez) jantzita dauden pertsonak azaltzen direla. Argazkian azaltzen diren pertsonak identifikatzen ari bagara, *zu irakaslea zara* bezalako perpausa identifikaziozkoa litzateke eta ez atribuziozkoa. Horrenbestez, (66) multzoko adibideek hizkuntza erabil daitekeeneko testuinguru guztiak kontsideratuta

irakurketa existentzial eta atributiboaren arteko anbiguitatea dutela esan dezakegu.[17]

Bestetik, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala, *egon* aditzak ez du balio eraikuntza ekuatiboetarako (67).

(67) a. *Irakaslea Mikel dago
b. *Irakaslea zu zaude
c. *Irakaslea hori dago

Komunztadurari dagokionez, hasteko, anbiguoak diren eraikuntzetan izen arruntari mugatzailea kenduz gero, desagertu egiten da irakurketa ekuatiboa: alde batetik atribuzio-irakurketa dugunez, posible dira *izan* zein *egon* (68a), eta bestetik irakurketa hau mantendu egiten da osagaiak elkarraldatzen direnean ere (68b). Hala ere, atributua esapidearen hasieran azaltzen denean (68b), ordena bortxatu samarra dela onartu behar da baina esaldi horiek guztiz onargarriak direneko testuinguruak aurki daitezke.

(68) a. Mikel irakasle {da/dago}
b. Irakasle, Mikel {da/dago}, eta ez Ander!. Ez duzu piperrik ere ulertzen!

Oraindik ere eraikuntza ekuatiboen komunztaduri begira, oso ohargarria da pertsona-izenordainen loturazko aditzarekiko komunztadura gauzatzeko modua: hasteko, izen berezi bat eta hirugarren pertsonakoa ez den izenordain bat ditugunean, aditzean izenordain horren pertsona-klitikoa azaltzen da bi elementu horien ordenaketa edozein izanik ere (69).

(69) a. Zu Mikel {zara/*da}
b. Mikel zu {zara/*da}

---

[17] Gogoratu baita atal honetako 11 oharra.

Bigarrenik, ekuazioaren bi atalak pertsona desberdineko izenordainak direnean, ordena erabakikorra izaten da, aditzean beti azaltzen baita lehenengo elementuaren pertsona-klitikoa (70).

(70) a. Ni zu {banintz/*bazina}
b. Zu ni {bazina/*banintz}

Bukatzeko pertsona-izenordainek baino erreferentzia-ahalmen baxuagoa duten izen-sintagmen kasuan, markatuen-dagoen elementuarekiko komunztadura azaltzen du aditzak, bi elementuen ordenaketa edozein izanik ere. Kasu honetan ez dugu pertsona-markarik, baina singular/plural bereizketa dagoenez, aditzaren komunztadura egiteko, bietarik markatuena hautatzen da, plurala alegia.

(71) a. Herria langileak {dira /*da}
b. Langileak Herria {dira /*da}

Aitzitik, ekuatibotzat ezin har daitezkeen eraikuntzetan, ezinezkoak dira subjektu eta aditzarekiko zenbaki-komunztadurarik ez duten baina mugatzailea duten atributuak:

(72) ***Gizon horiek** abokatua dira

Laburbilduz, *izan* aditzarekin baino posible ez den irakurketa ekuatiboa, aditz horren bidez loturiko elementuak izen-sintagmatzat har daitezkeenean suertatzen da. Zehazkiago, bi elementu horiek izen propio edo arruntak, erakusleak edo pertsona-izenordainak direnean. Komunztadurari dagokionez, ez da beharrezkoa ekuazioaren bi atalen artean baina bai, atal horietariko baten eta loturazko aditzaren artean: bi atalek zenbaki eta pertsona-ezaugarri berberak dituztenean, aditzarekiko komunztadura bat etortzen da bi atalen ezaugarriekin; baina ezaugarri horiek bat etortzen ez direnean, elementu markatuenaren ezaugarriak azaltzen dira aditzean (plurala eta hirugarrena ez diren pertsonen markak). Bukatzeko, ekuazioaren bi atalak hirugarren pertsonakoak ez diren izenordainak direnean, erreferentzi maila bereko elementuak ditugu baina hala ere, bateragarria ez den

erreferentzia. Orduan, aditzean esapidearen hasiera-mugatik hurbilen dagoen elementuaren pertsona-marka azaltzen da.

Laugarren atalean, ekuatiboen gaiari berriro ekingo diogunean, ohar hauek guztiak kontutan hartuz, eraikuntza ekuatiboetan, atribuziozkoetan ez bezala, bi argumentu dugula defendatuko dugu.[18] Hala ere, zaila da *izan* aditza inakusatiboen sailekoa izanik (hau da argumentu bakarreko aditzen sailekoa) bi argumentu horiei θ-papera eta kasua ezarri ahal izatea.

Laugarren atalaren 4.3.3. azpisailean, ditugun datu hauekin bat etor litekeen analisi bat porposatuko dugu honelako eraikuntza ekuatiboetarako: *izan* aditzaren osagarri modura DP (argumentu bat) genuke, DP_1 horren espezifikatzailean beste DP_2 bat legokeelarik. Vak θ-papera esleituko lioke osagarri modura duen DP_1 horri eta modu berean berezko kasua ere.[19] Ondoren DP_1 honen eta bere espezifikatzaileko DP_2aren arteko θ-identifikazioa gertatuko litzateke, identifikazio horretan pertsona eta zenbakizko ezaugarrien garraio bat gertatuko litzatekeelarik. Bukatzeko txertaturiko DP_2ak inflexioaren espezifikatzailera mugituko litzateke bertan egiturazko kasua hartzeko.

Ikus daitekeenez, Inflexioaren espezifikatzailera mugitzen den DPak bi DPen ezaugarriak daramatza, edo hobe esanda bi DP horien ezaugarrien artean markatuenak. Ondorioz, komunztadura Inflexioaren espezifikatzaile eta buruaren arteko harremanaren bidez gauzatzen denez, *izan* aditzak bi DPen ezaugarririk markatuenak azaltzen ditu. Bi DPen ezaugarriak markatuak direnean berriz (bata lehenengo pertsonako izenordaina eta bestea bigarren pertsonako izenordaina direnean), aditzean espezifikatzailera

---

[18] Atribuziozko eraikuntzetan subjektuaren funtzioa betetzen duena, argumentua litzateke baina atributua predikatua. Ikus I. atalean egin dugun argumentuen eta predikatuen arteko bereizketa.

[19] Aditz inakusatiboek ezin ezar diezaiokete beren osagarriari egiturazko kasurik (Burzio, 1981) baina bai berezko kasua (Belleti, 1988).

mugituriko izenordainaren pertsona-marka azaltzen da, hau da esapidean aurreratuen dagoen izenordainaren pertsona.

(73) a. Mikel zu zara
b. [$_{IP}$ Mikel$_i$ [$_{VP}$ [$_{DP1}$ t$_i$ zu] t$_V$] zara$_V$]

(74) a. Zu ni bazina
b. [$_{IP}$ Zu$_i$ [$_{VP}$ [$_{DP1}$ t$_i$ ni] t$_V$] bazina$_V$]

Bukatzeko, esan beharrekoa da *izan* aditzarekin izen-sintagma bat eta mugatzailedun izenondo edo partizipio bat ditugunean ere, atribuziozko (75a, 76a) eta identifikaziozko (75b, 76b) irakurketen arteko anbiguitateak gerta daitezkeela, komunztaduradun izenki-predikatutzat edo (izenik gabeko) mugatzailedun izen-sintagmatzat (DPtzat Abney-ren hipotesia aintzakotzat harturik) har baitaitezke.

(75) Irakurri behar duzun liburua, zaharra da
a. Irakurri behar duzun liburua zahar dago
b. Irakurri behar duzun liburua, zahar dagoen liburua da

(76) Irakurri behar duzun liburua, hondatua da
a. Irakurri behar duzun liburua hondaturik dago
b. Irakurri behar duzun liburua hondaturik dagoen liburua da

2.2.2.1.4. Ezaugarrien esleipena

Hasteko, bai *izan* eta bai *egon* aditzek subjektu eta atributuen loturazko aditz gisa joka dezakete. Biek onartzen dituzte gainera, izen (77a), izenondo (77b), partizipio (77c) edo posposizioen (77d) kategoriako izenki-predikatuak.

(77) a. Mikel lodia da / Mikel lodi(a) dago
b. Mikel irakaslea da/ Mikel irakasle dago unibertsitatean
c. Mikel hila da / Mikel hilik dago
d. Liburu hau zuretzat da /Mikel zurekin dago[20]

Hartzen dituzten izenki-predikatu hauek lehenengo mailako predikatutzat har daitezke, ezabatzen direnean ondorio agramatikalak edo beste mota bateko irakurketa ematen baitituzte (78). Horrek aditzaren osagarri modura txertatzen direla esan nahi du. Ikus daitekeenez, predikatua ezabatzen denean argumentu bakarraren beharra duen irakurketa existentziala azaltzen da.

(78) a.*Sagar hau berde dago eta hori ere badago __
b.*Sagar hauek garestiak dira eta horiek ere badira ___

Horrela, lekuzko osagarriak bezala, izenki-predikatuak *izan* edo *egon* aditzen osagarri modura sortzen direla esan daiteke. Hala ere, aditzarekiko komunztadura egiten duen subjektu argumentuak ere, ezinbestekoa izanik, osagarrian sortu behar du berak ere, aditz inakusatiboen aurrean baikaude. Konponketa, subjektua eta izenki-predikatua Varen osagarrian sortzen den

---

[20] Posposizio-sintagmak ere izenki-predikatutzat har daitezkeela justifikatzeko ikus bedi 2.2.1. saila.

osagai batean (perpaus txiki batean) biltzea liteke, horrek perpaus txikien teoriaren aldeko datu bat eskainiko ligukeelarik.

(79) [IP sagar hau$_i$ [VP [SC t$_i$ berde] t$_V$] dago$_V$]

Honaino bi aditzek berdin jokatzen dute atribuziozko funtzioari dagokionez baina bakoitzak har ditzakeen izenki-predikatuen motak aztertzen hasten garenean, hainbat asimetria aurkitzen ditugu.

Izenondoei dagokienez, badira orokorrean *izan* aditzarekin azaltzen direnak eta orokorrean *egon* aditzarekin azaltzen direnak. Euskalki batzuetan azken hauek ere *izan* aditzarekin erabiltzen dira baina (80a) saileko izenondoak ez dira onargarriak inon *egon* aditzarekin (80d). Ohituraz izakiek jatorriz dituzten ezaugarriak edo ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten izenondoak *izan* aditzarekin eta nolabaiteko prozesuaren ondoriozko egoerak edo behin-behineko ezaugarriak adierazten dituztenak *egon* aditzarekin joan ohi direla esaten da. Esate baterako, *pozik*, *haserre* edo *gaixorik* [21] izakiek denbora-tarte laburrago edo luzeagoetan azal ditzaketen egoerak edo ezaugarriak dira (behin-behineko ezaugarriak direla esango dugu), baina norbait *azkarra* edo *gozozalea* dela esaten dugunean, bere izaera bera definitzen dituzten ezaugarritzat hartzen ditugu izenondo horiek (berezko ezaugarriak direla esango dugu).

(80) a. Miren {azkarra/gozozalea} da
b. Miren {pozik/haserre/gaixorik} dago
c. Miren {pozik/haserre/gaixorik} da
(zenbait euskalkitan)
d. *Miren {azkarra/gozozalea} dago

Hala ere, badira bi loturazko aditzak berdin onartzen dituzten baina batekin edo bestearekin nabardura desberdinak ematen dituzten izenondoak. Esate

---

[21] Hitz hauek izenondotzat hartzearen aldeko eta aurkako arrazoiak atal honetako 2.4. azpisailean ikus daitezke.

baterako, (81a) adibidean Mikelen berezko ezaugarri bat adierazi dugu, (81b) adibidean berriz, Mikelek denbora-tarte zehatz batean duen behin-behineko ezaugarri bat eman dugu aditzera. *Lodi* izenondoak bezala jokatzen dute *alai* edo *triste* bezalako izenondoek ere.

(81) a. Mikel lodia da
b. Mikel lodi(a) dago[22]

Ñabardura bera lor daiteke *izan* aditzarekin komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerak konbinatuz (82). Horrenbestez, ez da harritzekoa (81b) bezalako perpausetan *-a* morfema neurri handian aukerakoa izatea, komunztadurarik eza *egon* aditzak eskaintzen duen ñabardurari indar handiagoa ematea baizik ez baitu egiten.

(82) a. Mikel eria da
b. Mikel eri da

Bestetik, badaude *egon* aditza ez onartzeaz gain *izan* zein °*edun* edo nor-nori saileko laguntzaileekin azal daitezkeen izenondoak. Hala nola, *luze, labur, motz, handi* eta *txiki* alde batetik, eta *kaltegarri* edo *beharrezko* bezalakoak bestetik.

Lehenengo sailekoak *izan* edo °*edun* aditzekin batera ikus daitezke (83), baina ez nor-nori motako laguntzailearekin (ez eta *egon* aditzarekin ere) (84).

(83) a. Zapata hauek handiak dira zuretzat

---

[22] Euskararen orokortasuanri begira agian komunztadurarik gabeko adibidea litzateke egokiena (*MIkel lodi dago*). Hala ere, badira *Mikel lodia dago* bezalako esaldiak inolako arazorik gabe onartzen dituzten hiztunak. Horrela ba, onartu egin dugu aukera hau, bestela ez baikenuke (81b) adibideen gramatikaltasun-epaiketa eta *Mikel irakasle dago Unibertsitatean /*Mikel irakaslea dago Unibertsitatean* bezalako esaldiena kontrastatzerik: azken hau ez da inola ere onargarria inolako hiztunarentzat.

b. Zapata hauek handiak dituzu

(84) a. *Zapata hauek handiak zaizkizu

b. *Zapata hauek handiak daude zuretzat

Bigarrenek *izan* eta °*edun* zein nor-nori laguntzailea onartzen dituzte (85), baina berriro ere, ezin joan daitezke *egon* aditzarekin (86).

(85) a. Gurasoak beharrezkoak dira haur txikientzat

b. Gurasoak beharrezkoak zaizkie haur txikiei

c. Haur txikiek beharrezkoak dituzte gurasoak

(86) *Gurasoak beharrezkoak daude haur txikientzat

Izenondo hauei buruz, azterketa sakonagoa egingo dugu atal honetako 2.2.2.3.2. azpisailean eta hirugarren ataleko 3.3.6.1. sailean baina oraingoz esan dezagun besterik gabe ezaugarri iraunkorrak edo berezkoak adierazten dituztela. Beraz komunztadura eramaten dute eta ez dira onargarriak *egon* aditzarekin.

Bukatzeko badaude *-tzea* edo *-tzen* moduko perpaus menperatuak hartu ohi dituzten zenbait izenondo, hala nola *zail, erraz, beharrezko* eta *zilegi*. Hauek beti azaltzen dira *izan* aditzarekin, eta gehienetan komunztadurarik gabe, komunztadura zenbait kasutan onargarria bada ere.

(89) a. Zail(a) {da/*dago} jai bat antolatzea

b. Erraz(a) {da/*dago} gezurrak esaten

c. Beharrezkoa(a) {da/*dago} baimena eskatzea

d. Sasoi honetan zilegi(*a) {da/*dago} txoriak hiltzea

Menperatu horiek subjektutzat hartu behar dira horrelako eraikuntzetan bestelako argumenturik ez baitago. Dena dela, izenondo hauek subjektu modura perpausak ezezik, izen-sintagmak (edo nahi bada DPak) ere har ditzakete (90).

(90) a. Liburu hau beharrezkoa da azterketa aprobatzeko

b. Azterketa erraza da

Izenondo horien guztien artean berezienak, *zail* eta *erraz* dira (89a eta b, 90b), zeren subjektu modura *-tzea* edo *-tzen* perpausa ala izen-sintagma edukitzearen aukerez gain, izen-sintagma eta perpausa batera azaltzen duten adibideak ere posible baitira.

(91) a. Azterketak errazak dira
b. Erraz(a) da azterketak aprobatzea
c. Erraz(a) da azterketak aprobatzen
d. Azterketak erraz(ak) dira aprobatzen[23]

Horrela, osagaiak D-egituran kokatzeko arazoa korapilatu egiten da. Alde batetik, *izan* aditzaren osagarri modura izenondoa eta subjektu funtzioa betetzen duen izen-sintagma edo perpausa ditugu osagai bakarrean bilduta. Subjektu hori izen-sintagma denean, kasua behar du eta inflexiora ateratzen da aditzarekiko komunztadura hartuz. Subjektua perpausa denean, badago izen-sintagmek bezala jokatzeko aukera (91b), baina baita aditzarekiko komunztadurarik ez egiteko aukera ere (91c). Bukatzeko, (91c) bezalako perpausak ditugu. Horietan perpausa tokian bertan geratzen da baina menperatuaren aditzaren argumentu bat atera egiten da eta *izan* aditzarekiko komunztadura hartzen du eraikuntzaren subjektutzat irakurtzen delarik.

Are korapilotsuagoak dira oraindik *ziur* izenondoak egiten dituen eraikuntzak. Izenondo hau *izan* (92) edo *egon* (92) aditzekin azal daiteke: *izan* aditzarekin doanean subjektu funtzioa hartzen duen izen-sintagma batekin (92a) ala konpletibo batekin (92b) joaten da baina *egon* aditzarekin doanean ezinbestean behar du izen-sintagma subjektu bat eta konpletibo bat (93b) edo instrumentaleko adizlagun bat (93c) izan daitekeen beste elementu bat. Aukera horien arrazoia azaltzea ez da inola ere erraza eta beraz, teorizaziora zuzendurik dauden hirugarren eta laugarren ataletarako utziko dugu.

---

[23] Izenondo hauek eratzen dituzten eraikuntzei buruz zehetasun gehiago nahi izatekotan, jo Goenaga-ren (1984) doktoretza-tesira.

(92) a. Hori ziur(ra) da
b. Ziur(ra) da etorriko zarela
(93) a. Jon ziur dago horretaz
b. Jon ziur dago etorriko zarela

Laburbilduz, izenondo guztiek era ditzakete predikatu-osagarriak *izan* aditzarekin, *egon* aditzaren aukerak murriztuagoak direlarik. Bestetik, izenondo batzuk *izan* zein *egon* aditzekin joan daitezke, kasu bakoitzean ñabardura bat lortzen delarik. Ñabardura bera gertatzen da *izan* aditz bakarra erabiltzen deneko euskalkietan komunztadura/komunztadura-eza aukeraren bidez.[24]

Izen-kategoriako hiztegi-sarreretara iraganez, izen gehienek ezin era dezakete predikaturik. Hala ere, badaude izenki-predikatuak eratzeko gai diren batzuk: hasteko ekintzen edo ihardueren egileak (*idazle, erretzaile*); bigarrenik, lanbidea edo kargua adierazten duten izenak (*mediku, irakasle, neskame, zuzendari, lehendakari*) eta hirugarrenik, sentimenduzko edo esperientziazko izenak (*beldur, egarri, hotz, bero, beldur, lotsa*).

Lehenengo multzoko izenek *izan* aditza baino ez dute onartzen, subjektuarekiko zenbaki-komunztadura egin ohi dutelarik (94a). *Egon* aditzarekin ez dira onargarriak ez komunztaduradun (94b) ez eta komunztadurarik gabeko (94c) aldaerak.

(94) a. Mikel {idazlea/erretzailea} da

---

[24] Ikus daitekeenez, predikazioaren testuinguruetan ere, euskararen *izan* eta *egon* aditzen banaketa eta gaztelaniaren *ser* eta *estar* aditzena ez dira guztiz parekagarriak: gaztelaniaz badaude, *ser* aditzarekin soilik joan daitezkeen izenondoak, *estar* aditzarekin soilik joan daitezkeenak, eta loturazko aditz biak onartzen dituztenak. Euskaraz ez dago bigarren sail hori bereizterik. Gaztelaniari buruzko datuak nahi izatekotan lan ugari dago: Hanssen (1913), Gili Gaya (1961), RAE (1973), Falk (1979), Lujan (1980, 1981) , Navas Ruiz (1983), Hernández Alonso 91986), Clements (1988) eta Porroche (1988) beste batzuen artean.

b. *Mikel {idazlea /erretzailea} dago
c. *Mikel {idazle /erretzaile} dago

Lanbidea edo kargua adierazten duten izen gehienek *izan* zein *egon* onartzen dute. Hala ere, *izan* aditzarekin komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerak onargarriak badira ere (95a), *egon* aditzarekin, komunztadurak, ondorio ez-gramatikalak ematen ditu (95c).

(95) a. Ane {irakasle(a)/neskame(a)} da
b. Ane {irakasle /neskame} dago Gasteizen[25]
c. *Ane {irakaslea /neskamea} dago Gasteizen

Bukatzeko, sentimendu edo esperientziazko izenak ditugu. Hauek *izan* eta *egon* aditzekin ikus daitezke, baina mugatzailea zeharo ezinezkoa da.

(96) a. Haurra {hotz/beldur} da
b. o.k./?/*Haurra {hotz /beldur} dago[26]
c. *Haurra {hotza/beldurra} dago[27]

---

[25] Eraikuntza hauetan lekuzko osagarria kentzen denean (**Ane irakasle dago*) esaldia ez da onargarria. Horretan oinarrituz, IV atalaren 4.4.6.2. azpisailean kasu hauetan lekuzko osagarria lehenengo mailako predikatua den bitartean *irakasle* predikatu adjunktu bat dela proposatuko dugu.

[26] Mota honetako perpausei dagokienez, denetariko iritziak aurkitu ditugu hiztunen artean: batzuek zalantzarik gabe onartzen dituzte, beste batzuek baztertu egiten dituzte eta azkenik, beste batzuek zalantzagarritzat jotzen dituzte. Horrenbestez, hizkuntzaren aukera guztien islada izan nahi duen lan honetan kontutan hartuko dugu aukera hau ere.

[27] *Haurrak hotzak daude* perpausa onargarria da, baina hemen *hotz* izenondoa litzateke eta esangura ez litzateke guztiz berdina. *Haurrak hotz dira* esaten dugunean haurrek hotza sentitzen ari direla esaten dugu, *haurrak hotzak dira* esaten dugunean ordea, adibidez ikutzen ditugunean azala hotza dutela, esaten ari gara.

Adiera horiekin batera, posible dira baita *haurra beldurrak dago* eta beraz baita *haurrak beldurrak daude* ere baina horietan guztietan, *beldurrak* elementuak daramana ez da komunztaduraren marka ergatibo-marka baizik.

Laburbilduz, oso izen gutxi dira izenki-predikazioa eratzeko gai. Horien artean, iharduera eta ekintzen egileek ez dute onartzen *egon* aditza eta komunztadura eraman ohi dute. Lanbidea edo kargua adierazten dutenek, *izan* zein *egon* onartzen dute baina komunztadura eraman ohi dute *izan* aditzarekin eta ez dute onartzen *egon* aditzarekin. Bukatzeko, esperientzia edo sentimenduzko izenek *izan* zein *egon* onartzen dute baina ezin azal dezakete komunztadurarik.

Hau guztiau ikusita, bi sail egin daiteke izen horien guztien artean: alde batetik, ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten izenak ditugu (*idazle* eta *erretzaile* modukoak) eta bestetik, behin-behineko egoeratzat har daitezkeen karguak eta esperientziak. Izan ere, zenbait liburu idatzi dituen pertsona idazlea da, luzaro idatzi gabe badago ere. *Erretzailearen* estatusa ordea, egunero hainbat zigarro errez baizik ezin da mantendu baina ez dago une batzuetan erretzaile izan eta beste batzuetan erretzailea ez izateko aukera, beraz ezaugari iraunkortzat har daiteke hau ere. *Zuzendari* edo *neskame* bezalako karguak edo lanbideak kargu horretan egoten den bitartean edo lan hori betetzen den bitartean baino irauten ez duten ezaugarriak dira. Antzeko zerbait esan daiteke *beldurra* eta *hotza* bezalako esperientzei buruz, ez baitira inola ere iraunkorrak.

Irakasle bezalako izenak bi mutur horien artean leudeke. Izan ere, norbait irakaslea dela esaten denean irakaslearen agiri akademikoa duela edo irakaskuntzan lan egiten duela uler daiteke. Lehenengo adieran, *idazle* bezalako izenaren kasuan bezala geundeke, bigarrenean berriz, *neskame* bezalakoen kasuan bezala. Aditza hautatzen dugunean beraz, adiera ere hautatzen ari gara neurri handian.[28]

Partizipioei dagokienez, 2.2.2.0. sarreran ikusi dugunez, hiru itxuratako partizipioek era ditzakete izenki-predikatuak: alde batetik, *-a(k)* zenbaki-

---

[28] Honelako izenen inguruko datu gehiago nahi duenak Kawaguchi-k (1982) frantseserako egin duen lanera jo dezake.

komunztaduraren morfologiazko marka daramaten partizipioak (95a, b) eta bestetik *-(r)ik* edo *-ta* morfemetariko bat daramaten partizipioak (95 c, d).

(95) a. Liburua hondatua da
b. Liburua hondatua dago (zenbait euskalkitan)
c. Liburua {hondaturik/hondatuta} dago
d. Liburua hondaturik da (zenbait euskalkitan)

Azpimarratu beharrekoa da partizipio soilek ezin era dezaketela izenki-predikaturik (96) (ikus atal honetako 2.1. sarrera).

(96) a.*Liburua hondatu dago
b. Liburua hondatu da (adizki-predikazioa)

Partizipio hauek guztiek beti adierazten dute ekintza baten ondoren azaltzen den egoera. Hortaz, ez dagozkie inoiz ezaugarri iraunkorrei. Partizipio soilaren ezintasuna, ekintza edo iharduera bera eta ez horren ondoren agerturiko egoera adierazteari zor zaio. Ondorioz, ez da harritzekoa komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko partizipio-predikatuak *izan* zein *egon* aditzekin agertu ahal izatea hizkuntzaren orokortasunari begira.

Partizipio hauek azaltzen dituzten murriztapenak, berdintsuak dira komunztaduradun zein komunztadurarik gabeko partizipioetarako eta *izan* zein *egon* aditzerako: aditz inperfektiboek ezin eman dezakete honelako partizipio-predikaturik, beren ekintza edo ihardueratik datorren ondoriozko egoerarik ezin antzeman baitaiteke. Horrela onargarriak dira (97) bezalako perpausak baina ez (98) edo (99) bezalakoak.

(97) a. Gaur goizean igeri egin dut
b. Gaur goizean haurra musukatu dut esnatu denean[29]

---

[29] *Musukatu* partizipioa, oso erabilia ez izanik, arraro samar egin dakieke zenbait hiztuni. Hala ere, Azkue-k (1905) bere hiztegian jaso du eta erabiltzen ez duten euskaldunek ere, entzutekotan ongi ulertzen dutela uste dugu.

(98) a. *Igeri eginda nago
b. *Igeri egina naiz

(99) a. *Haurra musukatuta dago
b. *Haurra musukatua da

(98) adibidearen kasuan hala ere, VPa perfektibizatzen duen adizlagun bat sar dezakegu, horrela partizipio-predikazioa onargarri bihurtzen delarik (100).

(100) a. Ibai horretan igeri eginda nago
b. Ibai horretan igeri egina naiz

Laburbilduz, partizipio hutsek ezin era dezakete izenki-predikazioik, komunztaduradun partizipioek edo *-ta / -(r)ik* dutenek gai dira horrelako predikazioak eratzeko eta *izan* nahiz *egon* aditzekin azal daitezke euskararen orokortasuna kontutan hartuta. Hala ere, eraikuntza hauek badute murriztapen bat: oinarrian dagoen Vak edo VPak perfektiboa izan behar du nolabaiteko ondoriozko egoera ulertu ahal izateko.

Posposizio-sintagmei dagokienez, izenondo- edo izen-predikatuen ordez azal daitezke *izan* edo *egon* aditzekin. Izan ere, kokapenezko adieretan azaltzen diren inesibo markadun osagarriak ere, izenki-predikatuak direla esan daiteke, bestelako izenki-predikatuen banaketa bera baitute eta berek ere, eraikuntzaren subjektuaren semantika erabakitzen baitute. Bestetik, partizipioen *-ta* eta *-rik* bukaerak ere, posposiziotzat har daitezke laugarren atalean ikusiko dugun bezala.[30]

---

[30] Laugarren ataleko 4.5. azpisailean, posposizioen artean hiru sail bereiz daitezkeela ikusiko dugu: alde batetik osagarri modura argumentuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak; bigarrenik, osagarri modura predikatuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak eta azkenik, predikatuak zein argumentuak har ditzaketen posposizioak.

Osagarri modura argumentuak hartzen dituzten posposizioek, predikatuak eraikitzen dituzte modu horretara, eta beraz buru lexikoak direla pentsatu behar da. Osagarri modura

Hasteko, inesibo posposizioa duten izenki-predikatuak ditugu, *izan* zein *egon* aditzekin azal daitezkeenak.

(101) a. Mikel kalean {dago/da}
b. Ane langabezian {dago/da}

Bigarrenik, baita *izan* zein *egon* aditzekin azal daitekeen *-rekin* soziatiboa (102). Behin behineko egoeren antzekoa lirateke hauek ere.

(102) Jon bere lagunekin {dago/da}

-ka atzizkia eta *-(e)z* instrumentala duten predikatuek iharduerak adierazten dituzte. *Egon* aditzarekin azal daitezke (103), baina ez *izan* aditz soilarekin.[31]

(103) a. Jon keinuka {dago/*da}
b. Haurra negarrez {dago/*da}

Hala ere, predikatu horiek onargarriak dira, *ari izan* laguntzailearekin badoaz (104). *Egon* aditza berriz, ezinezkoa da *ari* duten sekuentzietan Rebuschi-k (1982) azpimarratu duenez.

(104) a. Jon keinuka {ari da/*ari dago}
b. Haurra negarrez {ari da/*ari dago}

---

predikatuak dituzten posposizioak berriz, buru funtzionalatzat hartu behar dira eta beraz predikatuen islapen hedatuak direla esan daiteke.

[31] Gure intuizioaren arabera, (103a, b) adibideetako esaldiak ez dira onargarriak *izan* aditza erabilita. Izan ere, honelako eraikuntzak, existitzekotan, *izan* aditza baizik erabiltzen ez duten euskalkietan azalduko lirateke eta euskalki horien berezitasunak deskribatu dituzten Lafitte (1944) eta Rebuschi-ren (1982) lanetan *-ka* atzizki hau *ari izan* sekuentziarekin azaltzen da beti eta inoiz ez *izan* aditz soilarekin.

Iharduerak, baita izena+inesiboa sekuentziaren bidez ere, adieraz daitezke.

(105) a. Maisua hizketan {dago/ari da/*da}
b. Jon lanean {dago/ari da/da}

Ikus daitekeenez, ezinbestean iharduera bat adierazi behar duen *hizketan* predikatuarekin *izan* aditzak ondorio txarrak ematen dituen bitartean *lanean* predikatuarekin onargarria da: *lanean* iharduera edo kokapena adieraz dezakeen predikatua da. Horrela *izan* aditzarekin doanean kokapena adierazten du eta *egon* aditzarekin doanean, iharduera edo kokapena (106).

(106) a. {Lanean/bulegoan} {dago/da/*ari da}
b. {Lanean/lan egiten} {dago/*da/ari da}

Iharduerak adierazten dituzten predikatu hauek, izenki-predikaziotik bazter litezke estatiboak izan gabe predikatu dinamikoak baitira. Hala ere, banaketa eta egiturari dagokienez, izenki-predikatuen antzekoak direla esan daiteke eta bestetik izenki-predikazioaren bereizgarritzat hartu dugun ezaugarria dute: ez dira beren subjektuari kasua ezartzeko gai eta beraz aditz baten osagarri modura txertatzen dira kasuaren iragazkia gainditu ahal izateko. Ikus bedi esate baterako, hautemate-aditzekin ere joan daitezkeela.[32]

(107) Jon {keinuka/ negarrez/lanean/hizketan/hitz egiten} ikusi dugu

Bestetik, *-(r)entzat* destinatiboaren posposizioa dugu. Izakien helburua, denboratik kanpo dagoen ezaugarritzat har daiteke eta loturazko aditzen banaketak ere, horren alde egiten du: predikatu hauek *izan* aditzarekin azaltzen dira, baina ez dira onargarriak *egon* aditzarekin (108).

---

[32] Hautemate-aditzekin bigarren mailako predikatuak eratuko lituzkete, *Jon ikusi dugu* esapidea ere onargarria baita. Horrela, iharduera-predikatuaren subjektua PRO kategoria isilekoa litzateke.

(108) Ipuinak haurrentzat {dira/*daude}

Bukatzeko, izenekin edo partizipioekin joan daitekeen *gabe* posposizioa dugu. Posposizioaren atzean mugatzailerik ez dagoenean, *izan* edo *egon* aditza erabiltzen da (109a,b). Baina mugatzailea dagoenean, *izan* erabili behar da ezinbestean, kasu honetan berezko ezaugarriak adierazten baitira.

(109) a. Gure laguna dirurik gabe {dago/da}
b. Haurra bazkaldu gabe {dago/da}
c. Haurrak errugabeak {dira/*daude}

Laburbilduz, denboratik kanpo dagoen ezaugarritzat har daitezkeen destinatibo predikatuak *izan* aditzarekin baino ez dira onargarriak. Ezaugarri iragankortzat har daitezkeen soziatibo, inesibo eta *gabe* posposiziodun predikatuak ordea, onargarriak dira bai *izan* eta bai *egon* aditzekin. Eta bukatzeko, iharduerak adierazten dituzten predikatuek *egon* aditza baino ez dute onartzen, *izan* aditza onargarria izateko *ari* aspektu-morfema behar delarik.

Ondorioz, *egon* aditza ez da erabiltzen behin-behineko ezaugarriak edo egoerak deskribatzen dituzten izenki-predikatuekin baizik, predikatu horiek izenondo, izenak, posposizio-sintagmak zein partizipioak izan daitezkeelarik. *Izan* aditza denboratik kanpo dauden, iraunkorrak edo berezkoak diren ezaugarriak zein behin-behineko egoerak adierazteko erabil daiteke. Horrela, ez da harritzekoa *egon* aditza azal daitekeeneko testuingu guztietan *izan* erabili ahal izatea hizkuntzaren orokortasunari begira.

Hortaz, kokapena ere nolabaiteko ezaugarriaren esleipentzat har daiteke adiera honetan ere, *egon* aditzak dituen murriztapenak azaltzeko: izakien kokapena behin-behineko ezaugarri baten esleipena bezalako zerbait da baina gertaeren kokapena adierazten dugunean, denboratik kanpo dagoen ezaugarri batez ari gara. Esate baterako *Mikel tabernan dago* esateko, predikazioaren unean Mikel tabernan egotea behar da, baina *Jaia Mikelen etxean da* esapidea jaia hasi gabe dagoenean ere esan daiteke, jaia definitzen duten ezaugarriak ospatuko den tokia eta ordua baitira.

Bukatzeko, iharduerak adierazten dituzten predikatuak ditugu. Kasu honetan zalantzagarria izan daiteke izenki-predikazioaz ari garela esatea, predikatu estatiboak izan gabe predikatu dinamikoak baitira. Edozein modutan, hauek izenki-predikatuen banaketa bera eta antzeko sintaxi-jokaera dituzte eta horrexegatik hartu ditugu kontutan.

Hona hemen *izan* eta *egon* aditzen adieren laburpen bat.

(110)

	IZAN	EGON
Existentziala	+	+
Izakien kokapena	+	+
Gertaeren kokapena	+	-
Identifikazioa	+	-
Ezaugarri iraunkorren predikazioa	+	-
Behin behineko ezaugarrien predikazioa	+	+
Iharduerak	-	+

2.2.2.2. Behin-behinekotasunaren sintaxi-islapena: aspektuan oinarrituriko azterketa

Aurreko azpisailean, *egon* aditza behin-behineko ezaugarrien predikaziora murrizturik dagoen bitartean *izan* aditza mota guztietako (behin-behinekotasuna zein iraunkortasuna adierazten duten) izenki-predikatuekin azal daitekeela esan dugu. Hala ere, bistan da, behin-behinekotasuna edo iraunkortasuna ez direla gramatikaren kategoria edo ezaugarriak eta sintaxian eragina duten kontzeptuen arabera definitu behar direla.

Hasteko, benetan bi predikatu-mota dagoela esan dezakegu zenbait gramatika-froga erabiliz. Lehendabiziz, (111b) adibidearen predikatuek koordinazioa ez onartzeak, bi predikatu horiek sail berekoak ez direla pentsatzera garamatza.

(111) a. Haur hori triste eta gaixorik {da/dago}
b. *Haur hori gaixorik eta gozozalea {da/dago}

Bigarrenik, *egon* aditzarekin ezezik, bestelako aditz batzuekin (hala nola aldaketa, hautemate eta iraupenezko aditzekin) ere ondorio ezgramatikalakak ematen dituzten predikatuak ditugu (112).

(112) a. Haur hori (gaixorik/triste/*gozozale) jarri da
b. Haur hori (gaixorik/triste/*gozozale) ikusi dugu
c. Haur horrek (gaixorik/triste/*gozozale) dirau

Bukatzeko, loturazko aditz bakarra duten euskalkietan, komunztaduraren bidez bereiz daitezke predikatuen bi sailak (113).

(113) Haur hori eri da gaur, baina ez da haur eria

Izenki-predikatuen artean benetan sintaxirako baliogarria den bereizketa egin daiteke: *egon* aditzarekin (eta modu berean aldaketa, hautemate eta

iraupenezko aditzekin) perpaus onargarriak ematen dituzten aditzak alde batetik, eta bestetik aditz horiekin onargarriak ez diren baina *izan* aditzarekin onargarriak diren predikatuak.

Rebuschi-k (1982) *egon* aditzak hautatzen dituen izenki-predikatuei perfektibo izatea eskatzen diela defendatu du, ideia horren alde ondoko argudio hau eskaini duelarik: iparralde eta ekialderantz goazen neurrian, *egon* aditzaren esangura *geratu* edo *gelditu* aditz perfektiboenetara hurbilduz doa (ondoko adibideak eskaini ditu Rebuschi-k).

(114) a. (NL) {Harritua/harriturik} egon zen
b. (GB) Harritu{a/ta/rik} {geratu/gelditu} zen

Gaztelaniaren *ser* eta *estar* aditzen banaketa ikasi duten egileek ere, *estar* aditzarekin azaltzen diren predikatuen iraunkortasun-eza hori 'aspektuarekin' zerikusirik duela defendatu dute aspaldidanik (Hanssen, 1913; Gili Gaya, 1961; RAE, 1973; Lujan, 1981; Navas Ruiz, 1983; Hernandez Alonso, 1986): lehenengo hiru egileen arabera, *ser* eta *estar* aditzek hartzen dituzten izenki-predikatuen arteko bereizketa [-perfektibo] /[+perfektibo] ezaugarrien bidez azal daiteke; azken hiru lanen arabera, berriz, aspektualitate-eza/aspektualitatea oposaketa da bereizketa horri dagokiona.

Hala ere, azken hamarkadan aspektuari buruz egin izan diren lanetan, 'egoerak' eta 'gertaerak' bereizteko beharra ikusi da, bukaera adierazteko ahalmenaren araberako bereizketa ([+perfektibo] / [-perfektibo] bereizketa alegia) 'gertaeretara' murriztu delarik. Zentzu horretan, 'gertaera perfektiboak' (bukaera batera zuzendutakoak) eta 'gertaera inperfektiboak' (bukaerarik eskatzen ez dutenak) bereizi ohi dira.

Baina, bai *ser* eta *estar* aditzekin eta bai *izan* eta *egon* aditzekin azaltzen diren predikatuak, 'egoerak' dira beti eta inoiz ez 'gertaerak'. Egoeratzat hartu behar diren izenki-predikatuak aspektuari buruzko azterketetan ez dira kontutan ere hartu. Horrela, *estar* eta *ser* aditzek hautatzen dituzten

predikatuak perfektibitatearen arabera bereiz daitezkeela esaten dutenean, aspektuaren ohizko lanen definizioetatik urrun samar dabiltza egileak.[33]

---

[33] *Ser* eta *estar* aditzen bidez eraikiriko esapideak perfektibitatearen arabera bereiz daitezkeela defenditu duen lehenengoa Hanssen (1913) izan da. Egile horri jarraiki Gili Gaya-k (1961) ere, antzeko ideiari eutsi dio: loturazko aditz hauekin batera agertzen diren predikatuak egoerak edo ezaugarriak dira, eta beraz, ekintza dinamikoen perfektibitaterako onartu ohi diren definizioak, nolabait moldatu behar zaizkie predikatu estatibo horiei. Horrela, predikatu horiek perfektibotzat har daitezke 'aldaketa-prozesuren' baten ondoriotzat hartzen direnean edo har daitezkeenean: batzuetan benetako aldaketa egoten da (*el jarro está roto*), baina beste batzuetan, aldaketaren aukera baizik ez da antzematen (*el jarro está intacto*). Izenondoei dagokienez, esperientziaren ondorio izateak berak ere, perfektibizatu egiten dituela esan liteke (*el café está caliente*).

Apur batez ezberdina da 'Real Academia Española de la Lengua' (1973), Navas Ruiz (1983) eta Hernandez Alonso (1986) bezalakoen hurbilketa. Egile hauek guztiek ere, aspektuaren ikuspuntutik eutsi diote arazoari, baina *ser* eta *estar* aditzen arteko oposaketa perfektibitatean oinarriturik egon gabe 'aspektualitate' / 'aspektualitate-eza' oposaketan datzala eman dute aditzera: *ser* aditzaren kasuan ez dago aurrera doan inolako ekintzarik, aspektualitate eta denboratik kanpo dagoen 'continuum-a ' baizik ez da. *Estar* ordea, aspektualki markaturiko aditza liteke.

Lujan-ek (1982) perfektibitatearen araberako bereizketari berreutsi dionean, bi aditz hauen erabileraren kasuistika korapilotsua azaltzeko, ez ekintza dinamikoetarako erabili den perfektibitatearen definizioa ez eta 'aldaketa-prozesuaren' bidezko hurbilketa ere nahikoak ez direla frogatu du, eta aditz hauen erabilerari doituriko perfektibitatearen definizioa eskaini du: *estar*-predikatuen eta *ser*-predikatuen arteko ezberdintasuna, denbora-tarte murriztu bati (perfektiboak) edo zehaztu gabeko denbora-tarte bati (inperfektiboak) egokitzean datza, horrela *estar* aditzaren esangura *ser* aditzaren barnean inkluditurik legoke.

Perfektibitatearen araberako hurbilketa honek, esentzia/akzidente eta izaera/ bilakaera bikoteen arabera egindako bereizketek baino azalpen-ahalmen handiagoa dauka, zeren fenomeno horien berri eman ahal izateaz gain, bi loturazko aditzen arteko sinonimia partziala ere azal baitezake. Norbait lodia dela esaten dugunean, bere bizitzaren denbora-tarte batzuetan behintzat lodi egon dela pentsatu behar da, baina une zehatz batean lodi dagoen pertsonak ez du zertan lodia izan behar.

es gordo---> está gordo // está gordo --X --> es gordo

Horrela, aspektu-azterketetan Aristotelesen garaietatik zutik iraun duen puntu bakarra izanik azterketa horien oinarritzat har daitekeen 'perfektibitatearen' kontzeptua aldatu nahi izan dute egileok *ser /estar* (edo *izan/egon*) delako oposaketa zehatzari moldatzeko. Ondorioz, azalpen-maila altuko definizioa alde batera utzi dute arazo mugatu baten azalpena aurkitzearren: benetan izenki-predikatuen artean nabari diren bi azpisailak aspektu-ezaugarrien arabera bereizi nahi badira, adizki-predikatuetarako baliogarri diren definizio berberak erabili behar dira, bestela kontzeptuak gaizki erabiltzen ari garela pentsatu behar da.

Clements-ek (1988) ekintza dinamikoetarako erabiltzen den terminologia bera izenki-predikatuei ere aplikatzen saiatu da.[34] Edozein modutan, faktore ugariz osoturiko sare korapilotsua eraiki du sintaxirako baliagarria izan litekeen eredurik utzi ez digularik.

---

[34] Bach-ek (1981) aditz-sintagmetarako erabiliriko terminologian oinarriturik, 'gertaera-izenondoak' eta 'prozesu-izenondoak' bereizi ditu: lehenengo sailekoak gertaeren ondoriozko egoeratzat har daitezkeen bitartean, bigarrenak prozesuen, hau da ihardueren barneko egoerei bide dagozkie. Hauei, inolako gertaera ez eta inolako prozesurekin ezin erlaziona daitezkeen izenondoak gaineratu behar zaizkie. Horrela ba, Clemets-ek, izenondoen aspektu-irakurketa aditz-sintagmetarako erabili ohi den terminologiara egokitzea lortu du. Beraien semantikaren barnean nolabaiteko bukaera duten 'accomplishments' edo burutzapenak (nolabaiteko iraupena dutenak) eta 'achievements' edo erdiespenak (inolako iraupenik ez dutenak) bereiz daitezke gertaeren artean. Prozesuak, nolabaiteko iraupena duten baina bukaerarik inplikatzen ez duten ihardueri dagozkie.

Hala ere, Clements-ek berak azpimarratu duenez, izenondoak modu horretara sailkatzea ez da nahikoa loturazko aditz hauen banaketa osotasunean azaltzeko. Horrela, antzeman daitezkeen ebento eta prozesuen itzulgarritasun edo itzulezintasuna, hiztunaren ikuspegia eta predikapenaren subjektuaren semantika-ezaugarriak ere kontutan hartu behar liratekeela jarri du agerian.

Elementu horien guztien konbinaketaren bidez, lortuko diren irakurketak aurresango dituen eredu bat eraikitzen saiatu da egile hau, irakurketa horren gakoa [± ondorioa] ezaugarria litzatekeelarik.

Bosque-k (1990) izenki- zein adizki-predikatuak era ditzaketen hiztegi-sarreretarako baliogarria izan daitekeen perfektibitatearen definizio bat eskaini du: predikatu bakoitzak hartzen dituen loturazko aditzak, predikatu horrek [+ondorioa] edo [-ondorio] ezaugarrien araberakoak dira. Horrelako ezaugarria izatea argumentu-egituran gertaerari osotasunean dagokion 'e-argumentu' bat izateko baldintzara labur daiteke. e-argumentu hori soilik nolabaiteko bukaera adierazten duten aditzetan eta beraien artean soilik ondorio bat ematen duten burutzapenetan[35] legoke. Perfektibo izatea beraz, e-argumentu hori izatea liteke, eta horren oposaketan legokeena argumenturik eza litzateke, ez beste mota bateko argumentua izatea.

Partizipioak adizki-predikatuetatik hurbilen dauden izenki-predikatuak dira, eta beraz, kategoria honetan hobeki nabaritzen dira aspektuarekin zerikusirik duten arazoak: 2.2.2.1.4. azpisailean ikusi dugunez, partizipio guztiak ez dira gai izenki-predikatuak eraikitzeko, soilik partizipioaren aditz-burua perfektiboa denean edo buru hori perfektiboa ez izanik ere VP osoa perfektibotzat har daitekeenean era ditzakete aditzek *-a(k), -(r)ik* edo *-ta*

---

35 Bosque-k berak adierazi duenez, 'e-argumentu' termino hau Davidson (1966) eta Kratzer-en (1988) zentzuan erabili du eta ez Higginbothan-en (1985, 1989) zentzuan, azken honek predikatu guztien argumentu-egituran gertaerarako gune bat inkluditzea proposatu baitu.

Perfektibitatearen definizio honek ondorio interesgarriak ematen dituela dirudi: bai predikatu-osagarrien sintaxi-jokaera azaltzeko (Hernanz, 1988), bai partizipioaz osoturiko eraikuntza absolutuen murriztapenak azaltzeko (De Miguel, 1990; Hernanz, 1991) eta baita eraikuntza medioak bezalako beste eraikuntza batzuenak ere ulertzeko (Torrego, 1989; De Miguel, 1990). Izan ere, Bosque-k ondoriozkoak ez diren e-argumentuen balioa ere, zalantzatan jarri du.

bukaerako partizipioak eta beraz, izenki-predikatuak.[36] Gogoratu hemen (115) eta (116) zenbakiez adierazita errepikatuko ditugun aurreko azpiatalaren (98) eta (99) adibideak:

(115) a. *Igeri eginda nago
b. *Igeri egina naiz
(116) a. *Haurra musukatuta dago
b. *Haurra musukatua da

Igeri egin eta *musukatu* iharduerak direnez, hauetan ez da bukaerarik antzematen eta, hiztegi-sarrera modura, ez lukete e-argumenturik Davidson (1966), Kratzer (1988) eta Bosque-ren (1990) iritziz. *Apurtu* eta *bete* partizipioei dagozkien aditzen semantikaren oinarrian ordea, bukaera antzeman daiteke, beraz, predikatu perfektiboak dira eta ez da harritzekoa *apurturik egon* eta *beterik egon* sekuentziak bezalakoak aurkitzea. Aditz hauen argumentu-egituran e-argumentua dagoela eta beraz perfektiboak direla pentsatu behar genuke aipaturiko egileei jarraiki.

(117) a. Platera apurturik dago
b. Armairua betea da

Egon partizipioak ez dirudi inolako bukaerarantz zuzenduriko ekintza adieraz dezakeenik. Hala ere, leku-osagarria gehitzeak predikatua 'perfektibizatzen' duela dirudi, horrela *igeri egin* eta *egon* perfektiboak ez izanik ere, *ibai horretan igeri egin* eta *Parisen egon* perfektiboak lirateke.

---

[36] Lujan-ek (1981) jadanik behatu zuen edozein partizipiok ezin era dezakeela, izenondo-partizipiorik, aukera hori, Vendler-en (1967) 'accomplishements' eta ' achievements' direlakoei murrizturik dagoelarik.

(i) a. Las ventanas estan cerradas
b. La comida está preparada
c. El trabajo está hecho
(ii) a. *La pared está tocada
b. *Las cosas están traidas
c. * La sopa está tomada

(118) a. Ibai horretan igeri eginda nago
b. Ibai horretan igeri egina naiz
(119) a. Parisen egona naiz
b. Parisen egonda nago

Hortaz, *egon* aditzak hiztegitik e-argumenturik ez izanik ere, bere osagarriarekin batera osotzen duen predikatu-islapen nagusia perfektibotzat har daitekeela pentsatu behar genuke. Aspektuak beraz, aditzei buruzko hiztegi-informazioa ezezik, VP osoaren informazioa ere eskaintzen du. Horrela, predikatuen perfektibitatea argumentu-egituraren ezaugarri bati ezezik, sintaxi-mailako jokaera bati ere, badagokio eta beraz, aspektua, denbora ez bezala, modu konposizionalean adieraz daiteke, Tenny-k (1987) aditzera eman duen bezala (zentzu berean mintzatu da De Miguel (1990) gaztelaniarako).[37] Ondorioa hauxe liteke: perfektibitatea hiztegi-sarrerek hiztegitik bertatik duten ezaugarria edo sintaxi-mailan predikatu modura islatzen direnean lortzen duten ezaugarria da. Azken finean, VPa aditzaren hiztegi-ezaugarriek eraginda islatzen da eta beraz berorien ondorioa da.

Kratzer-ek (1988) bi predikatu-mota bereizi ditu, e-argumentua duten 'egoera-mailako predikatuak' eta e-argumenturik ez duten 'izaki-mailako predikatuak'. Hala ere, definizio horretan bi maila nahasten direla esan daiteke: alde batetik, hiztegi-sarrera bakoitzak har ditzakeen edo hartu behar dituen argumentuak zehazten dituen 'argumentu-egitura' eta besteik. kategoria desberdinetako buruek argumentu-egitura hori islatzen duteneko sintaxi-maila (predikatuez hitz egin daitekeeneko maila alegia).

---

[37] Moreno-ren (1991) arabera, aspektualki zehaztu gabeko VPak, predikatua eta horrek eskatzen dituen argumentuak dituzten baina aspektualitateari dagokion espezifikazioa ez duten VPak dira. Horiei 'Ebento-mota' (ET) izena eman die. Ebento-motari aspektu-kuantifikatzaile bat aplikatzen zaionean, 'ebento gauzatu' (EI) bat lortzen da. Horrela, Aspektu-operatzaileak (AO) ETetatik EIetara doazen funtzioak lirateke termino logikoetan. AOek predikatu-mailan jokatzen dutela esan liteke.

Arazo hori gainditzeko, guk e-argumentua izatea ala ez izatea kategoria desberdinetako sarreren hiztegi-ezaugarri bat dela onartuko dugu eta honekin batera, sintaxian e-argumentua duten hiztegi-sarrerek 'egoera-mailako predikatuak' islatzen dituzten bitartean argumentu hori ez duten sarrerek 'izaera-mailako predikatuak' islatzen dituztela esango dugu. Bestetik, sintaxi-mailan, predikatuen bi aukera horien artean dagoen ezberdintasuna hurrenez hurren AspP kategoria funtzionala islatzeko ahalmena edo ezintasuna litzateke. Bukatzeko, perfektibitatea eta perfektibitate-eza Asp buru horren ezaugarri bat litzateke, azken batean VP edo Vtik iragazi zaien ezaugarria bada ere: kontutan hartu AspP hori Varen islapen hedatua dela eta azken batean buru-hedatutik islapen hedaturaino ezaugarrien garraioa gertatzen dela.

(119) adibideetako *egon* aditzera itzuliz, hiztegi-sarrera modura inperfektibotzat har bagenezake ere, irakurketa perfektiboa (120) eta irakurketa inperfektiboa (121) duten eraikuntzak islatzen dituela dirudi.

(120) a. Mikel Parisen egon da
b. Mikel Parisen egona da
(121) a. Parisen nago
b. Mikel Parisen egoten da beti

Gainera, inperfektibotzat jo genitzakeen irakurketen artean, (121b) adibideak, irakurketa perfektiboek bezala, adizki perifrastiko bat du eta (121a) adibideak ordea, adizki sintetikoa. Honekin batera, Laka-ri (1988, 1991) jarraiki, adizki perifrastikoen kasuan VPak AspP islatzen duen bitartean adizki sintetikoen kasuan islatzen ez duela onartzen badugu, hauxe pentsatu behar dugu: *egon* aditzak hiztegian e-argumentua duten sarreretarikoa da, baina sintaxian argumentu hori AspP modura islatzeko ala ez islatzeko eta beraz 'egoera-mailako' zein 'izaki-mailako' predikatuak eratzeko aukera du.[38]

---

[38] Arazo honetaz zehetasun gehiago nahi izatekotan jo, laugarren atalaren 4.4. azpisailera.

Gogoratu modu berean, (115) eta (116) adibideak: **musukatuta egon* eta **igeri eginda egon* sekuentziak ezinezkoak diren arren, *igeri egin dut* eta *haurra musukatu dut* adizki perifrastikoak onargarriak dira. Hortaz aditz hauek ere, hiztegi-sarrera modura inperfektibotzat har badaitezke ere, e-argumentua dutela pentsatu behar da AspP kategoria islatzeko duten ahalmenaren arabera. Hala ere, AspP hori Varen islapen hedatua denez, bere hiztegi-ezaugarriak ere izan ditzake aspektu-aukera batzuk debekatuz.

Laburbilduz, e-argumenturik ez duten hiztegi-sarrerek, ezin isla dezakete AspP kategoria funtzionala, eta beraz ezin era ditzakete 'izaki-mailako predikatuak' baizik. e-argumentua duten hiztegi-sarrerek berriz, AspP islatzeko edo ez islatzeko eta beraz, 'egoera-mailako' zein 'izaki-mailako' predikatuak eratzeko aukera dute.

Hala ere, 'izaki-mailako' eta 'egoera-mailako' predikatuen bereizketa hau ez da nahikoa *egon* aditzaren eskakizunak azaltzeko: adizki perifrastiko bat dugun bakoitzean AspP islapen hedatua dugula kontutan hartuz, (100a) adibidean (122b) adibidean bezala 'egoera-mailako' predikatuak ditugula onartu behar dugu, eta beraz, bietan izan behar luke onargarria *egon* aditzak.

(122) a. *Liburua apurtu dago
b. Liburua apurtuta dago

Laugarren atalean, (122a) modukoen ezintasuna azaltzeko, *egon* aditzak hautatzen duena 'egoera-mailako' predikatu hutsa baino predikatu hori eta bere subjektua dituen osagai bat (perpaus txiki bat) dela defendatuko dugu: *liburua apurtuta dago* esaten dugunean, badago predikatuaren (VP) eta predikatu horren barnean sortu den subjektuaren artean egiturazko harreman egokia ezarri deneko maila. (122a) adibidean ordea, maila hori falta da eta *egon* aditzaren osagarri modura txertatu dena 'egoera-mailako predikatu' hutsa da (ikus 4.4.3. azpiatala).

Edozein modutara, perpaus txikia predikatu-buruaren islapen hedatua da eta beraz, predikatu horren ezaugarri berberak ditu. Beraz, *egon* aditzak

hautatzen duena 'egoera-mailako perpaus txikiak' direla esan daiteke nonbait. *Igeri egin* eta *musukatu* partizipioek 'egoera-mailako' predikatuak era ditzakete baina ez dira gai 'egoera-mailako perpaus txiki' horrek behar duen subjekua (egoera horretan egon daitekeen subjektua) eskaintzeko eta beraz, ezin era dezakete horrelako perpaus txikirik.

Honekin batera azpimarratu behar da *egon* aditzaren azpikategorizatze horretan perfektibitateak ez duela horren paper garrantzitsua betetzen, egoera-mailako predikatu inperfektiboak dituzten perpaus txikiak ere onargarriak baitira *egon* aditzarekin (123a) hautemate-aditzekin bezala (123b).

(123) a. Mikel igeri egiten dago =igeri egiten ari da
b. Mikel igeri egiten ikusi dugu

Izenondo, izenen edo posposizioen sailera iragaten garenean, zailagoa da oraindik predikatu perfektiboak edo inperfektiboak ba ote ditugun zehaztea. Hala ere, iharduerak adierazten dituzten predikatuak ematen dituzten posposizioen kasuan, predikatu inperfektiboak ditugula esan daiteke zalantzarik gabe.

(124) a. Mikel {oihuka/hizketan/negarrez} dago
b. Mikel {oihuka/hizketan/negarrez} ikusi dugu

Beste posposizioen kasuan, eta modu berean izenondo eta izenen kasuan, oso zaila da predikatu perfektiboak edo inperfektiboak ba ote ditugun zehaztea. Izan ere, predikatu horiek bide horretatik sailkatzen saiatu diren egileek predikatu dinamikoetarako eman izan direnetatik urrun samar dauden definizioak proposatu behar izan dituzte. Edozein modutan, 'berezkotasuna' edo 'iraunkortasuna' eta 'behin-behinekotasuna' ongi molda dakizkieke 'izaki-mailako' eta 'egoera-mailako' predikatuen kontzeptuei: behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten predikatuak 'egoera-mailakoak' dira, eta beraz, AspP islapen hedatua dute; ezaugarri iraunkorrak, edo nahi bada denboratik kanpo dauden berezko ezaugarriak, 'izaki-mailako' predikatuak dira eta beraz, ez dute AspP islapena. Behin-behineko ezaugarriak zein ezaugarri iraunkorrak adieraz ditzaketen predikatu-buruek

hiztegian e-argumentua dutela eta argumentu hori AspP kategorian islatzeko edo ez islatzeko aukera dutela ulertuko dugu, alegia izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak islatzeko aukera dutela.

Ondorioz, *egon* aditzak 'egoera-mailako' predikatuak dituzten perpaus txikiak hautatzen ditu, hau da, beti AspP islapen hedatua duten perpaus txikiak, Asp buru horren aspektu-ezaugarria [+perfektibo] edo [-inperfektibo] izan daitekeelarik.

2.2.2.3. *Izan* aditzaren banaketa: loturazko aditza ala laguntzailea

Egon aditzak bere osagarriei zenbait murriztapen ezartzen dizkien bitartean, *izan* aditzak murriztapenik ezartzen ez dizkiela dirudi. Horrela osagarri modura 'egoera-mailako' zein 'izaki-mailako' predikatuak dituzten perpaus txikiak har ditzake. Horregatik, ez da harritzekoa loturazko aditz bakarra duten euskalkietan, aditz hori *izan* izatea: euskalkiren batean *egon* baino ez balego, ez legoke 'izaki-mailako predikatuak' adierazteko modurik.

Hasteko, izen, izenondo edo posposizioen kategoriako 'izaki-mailako' predikatuak ditugu.

(125) a. Ane gozozalea da
b. Zure ama neskamea da
c. Liburu hau Anerentzat da

Bigarrenik, izen, izenondo, posposizio edo partizipioaren kategoriako 'egoera-mailako' predikatuak.

(126) a. Ane {pozik/lasai} da
b. Ane beldur da
c. Liburua etxean da
d. Liburua {apurtua/apurturik} da

'Izaki-mailako' izen- edo izenondo-predikatuen kasuan, komunztadura behar da ezinbestean (125a, b). Posposizio-predikatuek, jakina, ez dute subjektuarekiko komunztadurarik azaltzen (125c). 'Egoera-mailako' predikatuek berriz, komunztadurarik gabe azaltzen dira (126a, b,c), partizipioak izan ezik (126b), azken hauek komunztadura azaldu ohi dute zenbait euskalkitan komunztadurarik gabekoak (*-rik* bukaerakoak) ere onargarriak diren arren.

Izan aditzarekin azaltzen diren izenki-predikatuen artean interesgarrienak, argumentu-egitura korapilotsuena dutenak dira: *luze* eta *kaltegarri* moduko izenondoak, *beldur* moduko izenak eta partizipioak hain zuen. Ondoko, hiru azpisailetan, hiru mota horietako predikatuen sintaxizko jokaera aztertuko dugu, argumentu-egitura sinpleagoa duten izenki-predikatu analogoekin konparatuz. Bestetik, iharduerak adierazten dituzten predikatuak hartzeko *izan* aditzak duen ezintasuna azalduko dugu 2.2.2.3.4. azpiatalean.

Azkenean, ondorio honetara helduko gara: *izan* aditzaren kasuan V buru baten eta bere osagarriaren arteko hautaketatzat har litekeen ezer ere ez dago; aitzitik, Varen osagarri modura dagoen predikatuaren islapen hedatua da perpaus osoa. Horrela, predikatuaren argumentu-egiturak baimentzen duenean, nor-nork, nor-nori edo nor-nori-nork moduko laguntzaileak azal daitezke *izan* aditzaren ordez.[39] Banaketa bera duten elementuek kategoria berekoak direla onartzen badugu, *izan* aditza laguntzaile horien aukera eta beraz bera ere laguntzailea dela pentsa dezakegu.

Horrelaxe azalduko litzateke *izan* aditzak osagarri modura duen predikatuaren gainean inolako murriztapenik ez ezartzea: atribuziozko eraikuntzetan *izan* aditza ez da buru lexiko bat laguntzaileen kategoriako buru funtzional bat baizik. Eraikuntza existentzial eta identifikatzaileetan ordea, *izan* aditza benetako aditz lexikoa dela onartu behar da.

---

[39] EGLU-II gramatikan, aurkako planteiamendua eginez, *izan* aditzaren ordez azal daitezkeen aditz hauek loturazko aditzak direla defendatu dute.

Iharduera-predikatuen kasuan, *egon* aditzak egoera-mailako perpaus txikiak eratzen dituztela baino ezin bereiz dezake eta osagarri modura onartzen ditu. *Izan* aditzari, berriz, iharduera-predikatu horren islapen hedatua denez, predikatuaren perfektibitate-ezaren ezaugarria heltzen zaio islapen hedatuan zehar eta *ari izan* aspektu-aldaera azaltzen da adizki sintetikoaren ordez: *Jon saltoka dago /Jon saltoka ari da/ *Jon saltoka da.*

Beraz, *izan* eta *egon* aditzen artean dagoen bereizketa ez dagokie osagarri modura hartzen dituzten predikatu edo perpaus txikien aspektu-ezaugarriei, *egon* aditza aditz lexikoa eta *izan* aditza laguntzailea izateari baizik.

2.2.2.3.1. Predikatu psikologikoak eraiki ditzaketen *beldur* motako izenak

Beldur izan moduko eraikuntzetan, esperimentatzailetzat har dezakegun subjektuaz gain, tematzat (Belletti & Rizzi,1988; Grimshaw &Mester, 1988; Grimshaw, 1990) edo kausatzat (Pesetsky, 1987) har daitekeen beste argumentu bat ere badugu.

(127) a. Jon beldur da
b. Jon zure erantzunaren beldur da

Tema edo kausatzat har daitekeen argumentuak *beldur* izenak islatzen duen NParen barnean hartzen du kasua eta jakina baita θ-papera ere, genitiboa baitu. Esperimentatzaileak berriz, perpausaren eremuan hartzen du kasua (absolutiboa du). Hala ere, θ-papera NParen barnean hartu duela pentsatu behar da, semantika-murriztapenak *beldur* izenak jartzen baititu eta ez *izan* aditzak (128).

(128) a. Mikel zure lagunen beldur da
b.*Mahaia zure lagunen beldur da
c. Mahaia egurrezkoa da

Eraikuntza hauetan, beraz, izenaren θ-sarea, bi maila desberdinetan garatzen da: NParen mailan eta perpaus matrizearen mailan. Gertaera horrek, Grimshaw & Mester (1988) eta Grimshaw-ek (1990) aztertu duten japonieraren datu bat dakarkigu burura: japonieraren *suru* aditza 'light verbs' izenaz ezagun direnetarikoa da, aditz horiek argumentu-egitura hutsa dutelarik. Aditz horrek, aditz matrize modura jokatzen duenean, osagarri modura NP bat hartzen du, NP horrek aditzak behar duen argumentu-egitura eskaintzen duelarik. Eraikuntza horien berezitasuna, θ-markaketarako bi eremu desberdin azal daitezkeela da: NParen eremua eta perpaus osoaren eremua alegia.[40]

Hala ere, *beldur* moduko izenak °*edun* laguntzailearekin ere, azal daitezke

(129) a. Jonek beldurra du
b. Jonek beldurra dizu

(129) adibideen moduko eraikuntzetan *beldur* izenaren argumentu guztiak perpaus matrizearen mailan hartu dute kasua eta beraz, maila horretan egin dira ikusgarriak. Pentsa liteke eraikuntza horietan, bai *Jon* eta bai *beldurra* °*edun* aditzaren argumentuak direla. Dena den, eraikuntza hauetan ere gauza daiteke tema edo kausa NParen barnean, horrek izenaren eta ez aditzaren argumentua dela esaten digularik (130a). Eta bestetik, tema NParen barnean gauzatzen denean, ez da posible kanpoan ere gauzatzea(130b).

(130) a. Jonek ekaitzen beldurra du

---

[40] Itxuraz, euskararen kasuan bi mailatan gertatzen dena kasu-markaketa da baina pentsatu behar da paper tematikoak ez direla ikusgarri egiten paper horiek jaso dituzten argumentuek kasua izan arte. Kasua NParen barnean hartzen duen argumentuaren kasuan, genitiboa berezko kasu-markaketaren mekanismoaren bidez, hau da D-egituran eta θ-paperarekin batera hartu duela pentsatu behar dugu. Esperimentatzaileak, D-egituran NParen barneko gunean θ-papera hartzen duen arren, kasua hartzera perpaus matrizearen inflexiora igo behar du.

b.*Jonek ekaitzen beldurra die

Areago, *beldur* esperientziazko izena *hotza* edo *gose* izenekin konparatzen badugu, azken hauek argumentu bakarrekoak izanik, aukerak askoz ere murriztuagoak dituztela ikus dezakegu (131).

(131) a. Haurra hotz da
b.*Haurra elurraren hotz da
c. Haurrak hotza du
d. *Haurrak elurrari hotza dio

Beraz, genitibo markadun argumentua esperientziazko izen horren argumentua da, eta modu berean datibo markadun argumentua ere, azken hau °*edun* aditzaren argumentua balitz, (131d) moduko esaldietan ere onargarria izan behar bailitzateke.

Grimshaw-ek (1991) hiru sail bereizi ditu aditz psikologikoen artean:[41]

(132)

ADITZ-MOTA	A-EGITURA	ADIBIDEAK
'Egoera psikologikoak'	(Esp $_1$(Tema $_2$))	*fear*
'Kausatibo psikologikoak'	(Esp $_2$ (Tema $_1$))	*frighten*
'Kausatibo psikol. agentiboak'	(Agent $_1$ (Esp $_2$))	*frighten* (ag.)

Aukera horien artean euskararen *beldur izan* eta *beldurra°edun* moduko esapideak egoera psikologikoak lirateke, baina euskaraz tema aukerakoa litzateke. Hori arraro samarra da, aditzen kasuan behintzat, iragankor/iragangaitz txandakaketetan mantentzen den argumentua tema edo

---

[41] Adierazpen honetan parentesiek, argumentuek A-egituran dituzten goratasun-harremanak adierazten dituzte eta azpiindizeek sintaxi-mailako goratasun-harremanak. Horrela, 1 azpiindizea daraman argumentua da subjektu modura gauzatzen dena.

jasalea izan ohi baita. Euskararen datuak hobeto azalduko lirateke Pesetsky-k (1987) bezala aukerako argumentu hori 'kausa' balitz.

'Kausatibo psikologikoak' eta 'kausatibo psikologiko agentiboak', bestetik, *beldur* izenaren bidez egin beharrean *beldurtu* partizipioa erabiliz eraikitzen ditugu. Kasu honetan ere, bigarren argumentua aukerakoa da (133a); beraz kausatibo psikologikoez gain inakusatibo psikologikoak ere baditugula esan behar da. Argumentu hori gauzatzen denean, instrumentaleko adizlagun modura (133b) edo ergatibo markadun subjektu modura gauza daiteke (133 c, d). Instrumentaleko adizlaguna 'kausaren' edo 'temaren' papera hartzen duela esan dezakegu Grimshaw-en ala Pestsky-ren ereduaren hautaketaren arabera. Bestetik, ergatibo marka daraman subjektuak 'kausa' edo 'temaren' papera hartzen du bizigabea bada (133c) eta 'egilearena' biziduna denean (133d).

(111) a. Haurra, beldurtu egin da
b. Haurra ekaitzaz beldurtu da
c. Ekaitzak haurra beldurtu du
d. Aitak haurra beldurtu du, gelatik irten ez dadin

Hemen ere, bigarren argumentu hori tema denean, tema aukerakoa dela onartu behar genuke eta gainera, zaila litzaiguke (133c) eta (133d) adibideetan gertatuko litzatekeen tema eta egilearen arteko ordezkapena. Bigarren argumentu hori kausa dela onartuko bagenu ordea, 'kausa' eta 'egilearen' arteko ordezkapena genuke, eta hori prozesu orokorra da, Pesetsky-k (1987) aditzera eman duenez: *Eguzkiak izotza urtu zuen / Jonek izotza urtu zuen ura lortzeko.*[42]

Edozein modutan, egoera psikologikoetan eta inakusatibo psikologikoetan subjektu modura gauzatzen dena esperimentatzailea den bitartean, kausatibo psikologikoetan esperimentatzailea edo kausa gauza daitezke subjektu

---

[42] Pesetsky-k Ruwet (1972) aipatu du ideia hau agerian jarri duen lehenengo egile gisa: Ruwet (1972)*Théorie syntaxique et syntaxe du français* Editions du Seuil, Paris

modura eta kausatibo agentibo psikologikoetan, subjektua 'egileak' izan behar du ezinbestean. Horrela, predikatu psikologikoen mota hauetan guztietan ezinbestekoa den argumentua 'esperimentatzailea' da eta beraz predikatu-buruen A-egituran sakonkien txertaturik dagoen argumentua hori dela pentsatu behar dugu. Horrenbestez, euskararen egoera ez litzateke ingelesarena bezalakoa.

(134)

ADITZ-MOTA	A-EGITURA	ADIBIDEAK
'Egoera psikologikoak'	(Esp 1)	*beldur izan*
	($Kausa_2(Esp_1)$)	*beldur izan*
'Inakusatibo psikologikoak'	(Esp 1)	*beldurtu* (nor)
	($Kausa_2(Esp_1)$)	*beldurtu* (nor)
'Kausatibo psikologikoak'	(Kausa 2 (Esp 1))	*beldurtu* (nor)
	(Kausa 1(Esp 2))	*beldurtu* (nor-nork)
'Kausatibo ps. agentiboak'	(Egilea 1 (Esp 2))	*beldurtu* (nor-nork)

Ikus daitekeenez, hala ingelesez nola euskaraz subjektu modura gauzatzen den argumentua ez da beti A-egituran kanpoen dagoena. Asimetria horiek azaltzeko, Grimshaw-ek (1990), hauxe defendatu du: argumentuek sintaxi-mailan dituzten goratasun-harremanak bi mailatako goratasun-harremanen elkarketaren ondorio dira. Hau da, edozein argumentu sintaxian kanpo-argumentu modura, subjektu modura alegia, gauzatu ahal izateko, argumentu horrek kanpokoena izan behar du bai aspektu-mailan eta baita A-egituraren mailan ere.

Gure predikazioaren teoriaren barnean, honela azal genitzake predikatu psikologiko hauen gauzaketak: sintaxian, X predikatu buruek beren XP islapen nagusia (islapen perfektua) islatuko lukete A-egituraren goratasun-harremanen arabera. Gainera, X buruaren argumentuen artean e-argumentua badago, buruak AspP kategoria funtzionala islatzeko aukera (edo zenbait kasutan beharra) izango luke. AspParen gainean AuxP, MP eta TP kategoriak ere islatzen ditu X buruak (guztiak X predikatu buruaren islapen hedatuak).

S-egiturarako pausoan, gutxienez argumentu batek XP islapenetik atera behar du subjektu modura ulertu ahal izateko eta predikatuak 'Predikatuen Loturazko Erregela' (PLR) bete dezan. Egoera eta gertaeren bereizgarria subjektu horrek [spec, Asp] gunetik iragatea ala ez iragatea litzateke hurrenez hurren. Horrela, egoera psikologikoetan esperimentatzailea da egoera horren subjektutzat har daitekeen argumentu bakarra eta horixe da ezinbestean subjektu modura gauzatzen dena.

(135) a. Beldur naiz
b. Beldur nago
c. {Beldurtua/beldurturik} {naiz/nago}
d. Beldurtu naiz

[spec, Asp] beterik duen *beldur* predikatu-buruaren islapen hedatu hori, *egon* aditzak hautatzen dituen 'egoera-mailako perpaus txikiak' bezalakoa da eta beraz, ez da harritzekoa zenbait hizkeratan *egon* aditzarekin ere aurkitzea (135b). Bestetik, partizipioa duten eraikuntza psikologikoetan, posible da [spec, Asp] beterik duten 'egoera psikologikoak' (135c) edo espezifikatzaile hori hutsik duten gertaera psikologikoak (135d) eraikitzea.[43]

Bestelako guztiak gertaera psikologikoak dira eta subjektu modura irakurriko den argumentuak ez du [spec, Asp] gunetik iragan beharrik. Horrela, aspektu-mailaren eta maila tematikoaren goratasun-mailen elkarketaz erabakiko litzateke subjektu modura irakurriko den argumentua: inakusatiboetan esperimentatzailea da beti kanpo-argumentua; kausatiboetan, ez dago kanpo-argumenturik eta beraz, bata zein bestea har daiteke subjektu gisa; eta bukatzeko, kausatibo agentiboetan, egilea da bi prominentzia-mailetan goren dagoena eta bera hautatzen da ezinbestean subjektuaren funtzioa betetzeko.

---

[43] *Beldurtua* eta *beldurturik* moduko partizipioen bereizketarako ikus laugarren atalaren 4.4.3. azpisaila.

Ondorio modura, *beldur izan* edo *beldurra °edun* sekuentzia dugunean, *beldur* predikatu-buruaren argumentu-egitura islatzen dugu aditzak inolako argumenturik gaineratzen ez duelarik. Gainera, aditz horrek ez dio inolako murriztapenik ezartzen bere osagarriari, osagarri modura partizipioa duenean bezala jokatzen duela dirudielarik. Hortaz, 'light verb' baten aurrean (japonieraren *suru* aditzaren kasuan bezala) edo laguntzaile baten aurrean gaudela pentsa dezakegu.

Torrego-ren (1989) arabera, aditzak, [±θ] eta [±e] ezaugarrien arabera sailka daitezke, lehenengoa argumentuak θ-markatzeko ahalmenari eta bigarrena e-argumentua izateari legozkiekeelarik: egile honen iritziz, laguntzaileak [-θ, +e] liratekeen bitartean, 'light verbs' deritzenak [-θ, -e] lirateke.

Horrekin batera e-argumentua izatea AspP kategoria islatzeko ahalmenarekin harremanetan jarri dugula kontutan hartzen badugu, *izan* aditza, eraikuntza hauetan laguntzaileen sailekoa dela esan dezakegu, (136a) ezezik gainerako b, c eta d adibideak ere onargarriak baitira.

(136) a. Haurra beldur da
b. Haurrak iluntasunaren beldur { izaten/izango} dira
c. Haurrek beldurra {izan/izaten/izango} dute iluntasunean
d. Haurrek iluntasunari beldurra {izan/izaten/izango} diote

Laburbilduz, *beldur izan* moduko eraikuntzetan *izan* aditza, laguntzailea da *beldurra °edun* eraikuntzetan *edun* aditza laguntzailea den modu berean eta *beldurtu* partizipioa duten eraikuntzetan biak laguntzaileak diren bezala.

2.2.2.3.2. 'Hartzailetzat' har daitekeen argumentu bat duten *labur* eta *kaltegarri* bezalako izenondoak

Izan aditzarekin joan ohi diren izenondoen artean, aukera modura 'hartzailetzat' har daitekeen argumentu bat dutenak aipatu ditugu: *txiki, labur, motz, luze, handi, kaltegarri, beharrezko e.a.* Izenondo hauek, hartzaile ageria dutenean behintzat ez dute *egon* aditza onartzen. Beraz, 'izaki-mailako' predikatuak eratzen dituztela esan dezakegu.

(137) a. Zapata hauek handiak {dira/*daude} zuretzat
b. Gaur egungo haragia kaltegarria {da/*dago}

Txiki, labur, luze eta *handi* modukoek *izan* aditzarekin ezezik, °*edun* laguntzailearekin ere azaltzen dira. Hala ere ez dira onargarriak beste mota bateko laguntzaileekin.

(138) a. Gona hori luzea da Anerentzat
b. Gona hori luzea du Anek
c.*Gona hori luzea zaio Aneri
d.*Gona horrek luzea dio Aneri

Kaltegarri eta *beharrezko* bezalako izenondoek laguntzaileak hautatzeko aukera gehiago dute.

(139) a. Gurasoak beharrezkoak dira haur txikientzat
b. Gurasoak beharrezkoak zaizkie haur txikiei
c. Haur txikiek beharrezkoak dituzte gurasoak
d. *Haur txikiek beharrezkoak dizkiete gurasoei
(140) a. Lagun hori kaltegarria da Anerentzat
b. Lagun hori kaltegarria zaio Aneri
c. ?Anek kaltegarria du lagun hori
d. *Anek kaltegarria dio lagun horri

Kasu hauetan guztietan bi argumentuko izenondoak ditugu. Alde batetik, 'tema' bat eta bestetik 'hartzaile' bat dute izenondo hauen A-egiturek: tema ezinbestekoa da eta beraz A-egituran sakonkien txertaturiko argumentua da. Hala ere, ez da beti subjektu modura gauzatzen, hautatzen den laguntzailearen arabera tema ala hartzailea gauzatzen baita subjektu modura. Izenondo hauek hartzaileari berezko mekanismoaren bidez kasua ezartzeko gai dira eta beraz, hartzaile hori izenondoaren AP islapen perfektuaren barnean gauza daiteke. Tema berriz, inflexioan gauzatu behar da beti.

Hartzailea AParen barnean gauzatzen ez denean, 'bi gunetako' laguntzailea azaltzen da inflexioan eta bi argumentuak gauzatzen dira perpausaren mailan, subjektu modura 'hartzailea' hautatzen delarik.

Hemen, berriro ere ikus daiteke perpausaren egitura erabakitzen duena izenondoa dela eta aditzak ez duela ezer ere hautatzen: izenondoak, bere AP islapen perfektoari ematen dion itxuraren arabera, mota bateko edo beste mota bateko laguntzailea islatzen du. Horrela (138), (139) eta (140) adibideen artean ikus daitekeen laguntzaileen aukeren ezberdintasuna, izenondo horien hiztegi-mailako berezitasuntzat har daiteke, antzeko argumentu-egitura baitute.

Beraz, eraikuntza hauetan ere *izan* aditza laguntzailea dela esan dezakegu. Ideia hori indartzeko, argumentu bakarreko A-egitura duten izenondoek *izan* baino onartzen ez dutela ikus daiteke.

(141) a. Gizon horiek afrikarrak dira
b.*Jonek gizon horiek afrikarrak ditu[44]
c.*Joni gizon horiek afrikarrak zaizkio

---

[44] Onargarria litzateke *Gizon horiek afrikarrak dituzu*. Baina ikus *-zu* morfema ez dagokiola ez izenondoaren ez eta aditzaren argumentu bati. Adizki alokutiboetan entzuleari erreferentzia egiten dion morfema da *Mikel Madrilera joan duk* esapidean *-k* morfema entzuleari eta ez *joan* aditzaren argumentu bati erreferentzia egiten dion bezala

Ondorioz, testuinguru honetan ere, *izan* aditza laguntzailea dela defendatuko dugu.

2.2.2.3.3. Partizipioak

Partizipioek ere, *izan* aditzaren laguntzaile-izaera honen aldeko frogak eskaintzen dizkigute. Hasteko, adizki-predikaziotzat hartzen diren partizipio soileko eraikuntzak ditugu: eraikuntza hauetan aditzaren argumentuen kopurua eta motak erabakikorrak dira laguntzailea aukeratzeko orduan.

(142) a. Liburua erori da
b.*Liburua erori dugu
c.*Liburua erori diogu
(143) a.*Liburua ikasi da
b. Liburua ikasi dugu
c.*Liburua ikasi diogu

(144) a.*Liburua eman da
b. Liburua eman dugu
c. Liburua eman diogu

Argumentu bakarreko aditza dugunean, argumentu bakarreko laguntzailea behar da (142). Baina bi edo hiru argumentuko aditzak ditugunean bi edo hiru guneko laguntzaileak azal daitezke. Iparraldeko euskalkietan behintzat, komunztaduradun partizipioak partizipio soilaren banaketa du.

(142') a. Liburua eroria da
b.*Liburua eroria dugu
c.*Liburua eroria diogu
(143') a.*Liburua ikasia da
b. Liburua ikasia dugu
c.*Liburua ikasia diogu
(144') a.*Liburua emana da
b. Liburua emana dugu

c. Liburua emana diogu

(142), (143) eta (144), eta (142'), (143') eta (144') eraikuntzen arteko ezberdintasuna, egoera baten subjektutzat har daitekeen argumentu bat (kasu honetan tema) [spec, Asp] gunetik iragatea ala ez iragatea da.[45] Horrela, komunztaduradun partizipioa duten partizipio hauetan ere, *izan* aditza ohizko laguntzaileekin txandakatzen da aditzaren argumentu-egiturak zilegiztatzen badu.

Hala ere, komunztaduradun partizipioak badu partizipio hutsak ez duen aukera bat: argumentu guztiak inflexioaren mailan gauzatu beharrean, argumenturen bat VP islapen perfektuaren barnean gauza dezake, lehenago ikusi ditugun *beldur* izenak eta *luze* eta *beharrezko* izenondoek bezala.

(145) a. Liburu hau$_i$ [Axularrek t$_i$ idatzia] da
b. Gutun hau$_i$ [Anderrek niri t$_i$ idatzia] da
c. Ander$_i$ [t$_i$ liburu asko irakurria] da

Argumentuak VParen barnean gauzatu ahal izateko, jakina, Varen argumentu-egituran egon behar dute. Horrela, *erori* aditzak, bere argumentu-egituran egilerik ez duenez, ez du onartzen 'egile' argumenturik (146).

(146) *Liburu hau$_i$ [nik t$_i$ eroria] da

(145) bezalako perpausetan, argumentu batzuek berezko kasua hartzen dute VParen barnean eta VPak islatzen duen laguntzailea gune bakarrekoa da, argumentu bakarra ateratzen baita inflexioraino (ikus hirugarren atalaren 3365 azpisaila eta laugarren atalaren 443 azpisaila).

---

[45] Gune horretan kokaturiko temaren eta Asp buruan dagoen partizipioaren artean zenbaki-komunztadura gertatzen da.

Laburbilduz, *izan* aditzak eta gainerako laguntzaileek antzeko jokaera dute partizipio hutsarekin edo komunztaduradun partizipioarekin doazenean. Horrela, komunztaduradun partizipioa dugunean ere, *izan* aditza laguntzailetzat har dezakegu.

2.2.2.3.4. Iharduerak adierazten dituzten predikatuak eta *izan* aditza

2.2.2.1.4. azpiatalean ikusi dugun bezala, *egon* aditzak iharduerak adierazten dituzten predikatuak, edo hobeki esan, horrelako predikatuak dituzten perpaus txikiak har ditzake osagarri modura. Mota bereko eraikuntzetan, *izan* aditza onargarria ez dela esan dugu bertan.

(147) a. Jon oihuka {dago/*da}
b. Zure laguna parrez {dago/*da}
c. Zuzendaria hizketan {dago/*da}
d. Ama {lanean/lan egiten} {dago/*da}

(147) adibideetako datuek *izan* aditzak osagarri modura har ditzakeen predikatuak hautatzen dituela pentsatzera eraman gaitzakete. Horrela, aurreko azpiataletan defendatu dugun ideia, *izan* atribuziozko eraikuntzetan laguntzailea delakoa, baztertzeko beharrean geundeke. Hala ere, gogoratu beharrekoa da, adibide horiek guztiak gramatikal bihurtzen direla *ari* aspektu-markatzailea gaineratzen denean.

(148) a. Jon oihuka ari da
b. Zure laguna parrez ari da
c. Zuzendaria hizketan ari da
d. Ama {lanean/lan egiten} ari da

Pentsa daiteke *ari izan* eta *izan* bi aditz desberdin direla eta orduan, *izan* aditzak 'izaki-mailako' predikatuak eta 'egoera-mailako' predikatu perfektiboak dituzten perpaus txikiak hautatzen dituen bitartean, *ari izan*

aditzak 'egoera-mailako predikatu inperfektiboak' dituzten perpaus txikiak hautatzen dituela.

Baina baliteke baita *izan* eta *ari izan* aditz beraren aspektu-gauzaketa desberdinak izatea, horrela *izan* aditzak deskribatu ditugun mota guztietako predikatuak onartuko lituzke bai eta egoera-mailako predikatu inperfektiboak ere, predikatu horiek iharduerak direnean *ari izan* aspektu-aldaera azalduko litzatekeelarik.

Hortaz, *izan* aditza laguntzailea balitz, osagarri modura hartzen dituen predikatuen islapen hedatua litzateke eta horrela, ez luke predikatu horien izaera murriztuko baina predikatuaren ezaugarriak laguntzaile horretaraino iragaziko lirateke islapen hedatuan zehar bere gainean eragina luketelarik. Horrela, laguntzailearen mota ezezik, laguntzaile horren aspektu-aldaera ere erabakiko lukete predikatuek. *Egon* aditza ordea, aditz lexikoa izanik, murriztapenak ezartzen dizkio bere osagarriari baina ez du jasotzen inolako eraginik predikatu horretatik, osagarriak eta aditzak bakoitza islapen baten parte baitira. Ondorioz, aspektu-aldaera bera azaltzen da osagarri modura perpaus txiki perfektiboak edo ez perfektiboak hartzen dituenean, biak baitira egoera-mailakoak.

Laburbilduz, argumentu-egitura konplexua duten zenbait izenki-predikaturen (izen, izenondo edo partizipioen kategoriakoak) eta iharduerak adierazten dituzten predikatuen jokaeran oinarrituta, ohituraz atribuziozkotzat hartu ohi diren eraikuntzetan *izan* loturazko aditz lexikoa gabe laguntzailea dela defendatu dugu:

(i) Ez dio inolako murriztapenik ezartzen bere osagarriari, izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak eta perpaus txikiak har ditzakeelarik.

(ii) Predikatuaren argumentu-egiturak baimentzen duenean, bestelako laguntzaileekin txandaka daiteke laguntzailetzat hartu ohi deneko adizki-predikazioaren arloetan bezala.

(iii) Sentikorra da bere buru hedatua den predikatuaren aspektu-ezaugarrien aurrean, ezaugarri horien arabera aspektu-gauzaketa desberdinak hartzen dituelarik.

Azpimarratu beharrekoa da, *izan* aditza osagarri modura duen predikatuaren islapen hedatua dela onartuz azken batean perpaus osoa predikatu-buru horren islapen hedatua dela pentsatu behar dugula. Horrenbestez, *izan* aditza duten atribuziozko eraikuntzetan. perpaus arruntak genituzke eta ez perpaus txikiak. Hots, (149a) eta (149b) adibideen artean legokeen ezberdintasun bakarra itxuraz, bakoitzaren predikatu-buruaren gramatika-kategoria litzateke.

(149) a. Aitona erori egin da
b. Aitona gaixorik da[46]

Hala ere, badago beste ezberdintasun garrantzitsu bat: (149b) adibidean, perpaus nagusiaren barnean badago subjektu eta izenki-predikatuaren arteko harremana ezartzen den baina perpaus osoa baino murriztuagoa den maila bat (perpaus txiki bat), AspP maila alegia: subjektu-predikatu harreman hori Asp buruan izenki-predikatuaren burua eta espezifikatzailean bere subjektu semantikoa kokatuz ezartzen da. Adizki-predikazioaren adibidean berriz (149a), kasuaren bila [spec, T] gunera igotzen den *erori* aditzaren argumentua ez da [spec, Asp] kokagunean gelditzen, subjektu-predikatu harremana perpaus nagusiaren mailan baizik ezartzen ez delarik.

---

[46] Egoera-mailako predikatu bat hautatu dugu analogia nabariagoa gerta dadin.

2.2.3. *Ibili* aditza

Ibili aditzak baditu zenbait adiera mugimenduzko aditz modura: alde batetik nonbaitetik nonbaitera mugitzearen iharduera adieraz dezake lekuzko osagarri batekin doanean (150) eta bestetik inolako osagarririk gabe baina polaritatezko eraikuntzatzat har daitezkeenak ere ematen ditu funtzionamendua adieraziz (azken batean nolabaiteko mugimendua ere) (151).

(150) a. Mikel alde batetik bestera dabil
b. Behiak soroan dabiltza
(151) a. Erlojua badabil
b. Telebista ez dabil
c. *{Telebista/erlojua} dabil

Oinarrizko adiera horietaz gain, oso erabilia da osagarri modura izenki-predikatu bat eramanez. Izenki-predikatu horiek *egon* aditzarekin azaltzen direnen antzekoak dira: 'egoera-mailako predikatuak'. Gainera, ezinbestekoak dira perpaus onargarriak izateko (152), horrek lehenengo mailako predikatuen aurrean gaudela adierazten digularik.

(152) *Jon triste dabil eta Ander ere badabil ___

Predikatu-osagarri horien artean izenondoak (153), izenak (154), partizipioak (155) eta posposizio-sintagmak (156) ikus ditzakegu. Eta *ibili* aditza *izan* eta *egon* bezala inakusatiboen sailekoa denez, subjektua eta predikatu-osagarria osagai berean (perpaus txiki batean) sortzen direla pentsatu behar dugu:

(153) a. Jon {pozik/haserre/gaixorik} dabil
b.* Ane {beltzaran/gozozalea} dabil

(154) a. Jon artzain dabil Gorbea aldean
b.*Jon erretzaile dabil azkenaldi honetan
(155) a. Jon etsiturik dabil
b. Haurra beldurtuta dabil
(156) a. Jendea oihuka dabil
b. Haurra lanean dabil

Bereziki egokiak dira *ibili* aditzarekin iharduerak adierazten dituzten predikatuak (156). Dena dela, badaude *egon* aditzarekin eta *ibili* aditzarekin ondorio desberdinak ematen dituzten izenondoak ere. Esate baterako, *izan* edo *egon* aditzarekin irakurketa desberdinak ematen dituzten izenondoen artean, guztiak ez dira onargarriak *ibili* aditzarekin.

(157) a. Ander lodia da
b. Ander lodi {dago/?dabil}[47]
(158) a. Zure aita gaztea da
b. Zure aita gazte {dago/?dabil}[48]
(159) a. Haur hori tristea da
b. Haur hori triste {dago/dabil}

Egon aditzarekin onargarriak diren partizipio asko ere ez dira onargarrriak *ibili* aditzarekin (160).

(160) a. Txakurra hilik {dago/*dabil}
b. Parisen egonda {nago/*nabil}
c. Liburua apurtuta {dago/*dabil}

---

[47] *Pottolo samar zabiltza askenaldi honetan* bezalakoak onargarriak dira eta (157b) bezalakoak ere onargarriak dira hiztun batzuentzat *azkenaldian* gaineraturik esaldia hobatu egiten dela adierazten dutelarik.

[48] Hiztun batzuek *Gazte zabiltza!* bezalako esapideak erabiltzen dituzte, norbaiti azkenaldian ideia apartak dituela adierazteko.

Bestetik, *egon* aditzak onartzen ez dituen izenondo batzuk onargarriak dira *ibili* aditzarekin eta *izan /ibili* ñabardura bat ikus daiteke, *izan / egon* bikotearen bidez lortzen denaren antzekoa delarik.

(161) a. Zure laguna zintzoa da
b. Zure laguna zintzo {dabil/*dago} azkenaldi honetan
(162) a. Zure laguna azkarra da
b. Zure laguna azkar {dabil/*/o.k.dago} azkenaldi honetan[49]

Ibili aditzak ezaugarri horiei behin-behinekotasuna ezezik, subjektuaren nolabaiteko borontatea edo jarrera eskatzen diela dirudi. Izan ere, (*izan* aditzaren aukera deneko testuinguru honetan) aginduzko esapideak onartzen ditu, *egon* aditzak ez bezala.

(163) a. Zintzo ibili!
b. *Lodi egon!

Baliteke (163) bezalako esapide horien onargarritasuna *zintzo ibili* bezalako esapideen dinamikotasunaren (eta beraz adizki-predikazioaren) izaeraren adierazle izatea. Horrela, baliteke *zintzo ibili* sekuentzia izenki-predikatu batez eta loturazko aditz batez osoturik egon beharrean adizki-predikatu konplexu bat izatea. Baina, ikus bedi, *izan* aditzak aginduzko perpaus hauetan, *ibili* aditzaren adiera bera duela, *ibili* aditzaren kasuan ere izenki-predikatuak ditugula pentsa dezakegularik:

(164) a. Zintzo(a) izan!

---

[49] *Azkar* izenondoak hiru irakurketa dauka: ahalmen intelektual handia izatearen berezko ezaugarria alde batetik; bigarrenik, *indartsu* izenondoaren antzekoa eta azkenik, gauzak denbora-epe laburrean egitearen ahalmanarena. *Ibili* aditzak, azken bi adierak onartzen ditu 'egoera-mailako' predikatutzat har baitaitezke. *Egon* aditzak berriz, bigarrena baizik ez du onartzen.

b. Azkar(ra) izan![50]

Edozein modutan, *ibili* aditzarekin joan daitezkeen predikatu guztiek ez dituzte honelako aginduzko perpausak onartzen: esapide horien subjektuak ez dira egileak, esperimentatzaileak baizik. Azpimarratu beharrekoa da, *ibili* aditzak osagarri modura duena AspP mailako perpaus txikia bada ere perpaus txiki hori predikatu-buruaren islapen hedatua dela. Horrela, AspPak predikatuaren ezaugarri berberak ditu eta predikatu-burua da bere argumentuen ezaugarriak erabakitzen dituena. Beraz, AspPa hautatuz, predikatu-burua eta bere argumentuak ere hautatzen dira.

(165) a.*Gaixorik ibili!
b.*Beldurtuta ibili!
c.*Negarrez ibili!

Esperimentatzaileek eta egileek, jakina, bizidunak izan behar dute halabeharrez, bizigabeak diren subjektuak *ibili* aditzak hautatzen dituen perpaus txikietatik bazterturik geratzen direlarik (166b).

(166) a. Jon bero bero {dago/dabil} bere proposamena baztertu denetik
b. Kafea bero bero {dago/*dabil}

Ondorioz, *ibili* aditzak osagarri modura daraman perpaus txikiari, 'egoera-mailako' predikatua izateaz gain, esperimentatzailetzat edo egiletzat har daitekeen subjektua izatea ere eskatzen dio. *Egon* aditzak ordea, subjektu modura esperimentatzaileak edo gaiak dituzten perpaus txikiak onartzen ditu baina ez subjektu modura egileak dituzten perpaus txikiak. Bukatzeko *izan* aditzak, berriro ere, edozein motatako subjektua duen perpaus txikia onartzen du, hori bere laguntzaile-izaeraren beste froga bat delarik.

---

[50] *Azkarra izan !* esapidea *egon* aditza ezin erabil daitekeeneko adieran baizik ez litzateke onargarria; hau da, gauzak arin egitearen adieran. Adiera honetan hain zuzen *egon* subjektuaren borondatea behar delako ez litzateke onargarria.

2.2.4. Aldaketa eta iraupenezko aditzak

Ezaugarri edo egoeren aldaketa gutxienez hiru modutara adieraz daiteke euskaraz: hasteko ezaugarri edo egoera hori adierazten duen izenondo edo aditzondoarekin morfologiazko harreman estua duen aditza erabiliz (*poztu / pozik*) (167a); bigarrenik, *ezaugarria+izatera+heldu* perifrasiaren bidez (168a), eta bukatzeko, lortzen den ezaugarria edo ondorioa adierazten duen izenki-predikatua eta predikatu hori onartzen duen loturazko aldaketa-aditz baten konbinaketaz (167b, 168b). Aldaketa-aditzen artean hauexek ditugu: *bihurtu, jarri, ipini, bilakatu, egin, gertatu, azaldu, utzi , gelditu* eta *geratu.*[51]

(167) a. Mikel poztu egin da berria entzun duenean
b.. Mikel pozik jarri da berria entzun duenean
(168) a. Ander mediku izatera heldu da
b. Ander mediku egin da

Hasteko, aditz hauek guztiek hartzen dituzten izenki-predikatuak lehenengo mailakoak direla esan behar da, ezabaketak esaldi txarrak ematen baititu.

(169) a.*Mikel jarri da berria entzun duenean
b.*Mikel pozik jarri da baina Ander ez da jarri __
c. *Ura ___ bilakatu zuen

Aldaketa-aditzen artean, hiru multzo bereiz daitezke: alde batetik, *egon* aditzarekin onargarriak diren izenki-predikatuak baizik onartzen ez dituztenak (*jarri, ipini, geratu, gelditu* eta *utzi*); bestetik, *egon* aditzarekin

---

[51] Gaztelaniaren aditz analogoen -*poner(se)*, *volver(se)*, *poner(se)*, *quedar(se)* eta *estar(se)*- banaketa ezagutzeko, ikus Porroche (1988).

joan daitezkeen predikatuak onartzen ez dituztenak (*bihurtu, bilakatu, egin*); eta bukatzeko benetako aldaketa adierazi ez arren ezaugarri berezi batzuk predikatzea baimentzen diguten zenbait 'gertaera' adierazten dituzten aditzak (*gertatu, azaldu, agertu*). Azter ditzagun azpisail horiek bakoitza bere aldetik.

Aldaketa-aditzez gain, 2.2.4.4. aspisailean *iraun* iraupenezko aditza aztertuko dugu. Izan ere, iraupena adierazi ahal izateko aldaketaren aukerak egon behar du, eta beraz, *iraun* aditzarekin azaltzen diren predikatu-osagarriak zenbait aldaketa-aditzekin azaltzen direnen antzekoak dira.

2.2.4.1. *Jarri, geratu, gelditu* eta *utzi* aditzak

Hasteko, aditz hauek *egon* aditzarekin onargarriak diren predikatuak baizik ez dituzte onartzen.

(170) a.*Miren gozozale(a) dago
b.*Miren gozozale(a) {jarri da/geratu da/utzi dugu}
c. Miren pozik {dago/jarri da/geratu da/utzi dugu}

Bestetik, esan beharrekoa da *jarri* eta *ipini* aditzek iragankor edo iragangaitz inakusatibo modura joka dezaketen bitartean *geratu* eta *gelditu* aditzek inakusatiboak eta *utzi* iragankorra direla. Gainerontzean, hartzen dituzten predikatu-osagarriei dagokienez, berdintsuak dira *geratu* eta *gelditu*, eta *utzi* aditzak.

(171) a. Ander triste jarri da berria jakinarazi diogunean
b. Ander triste jarri dugu berria jakinaraziz
(172) a. Ander triste geratu da berria jakinarazi diogunean
b. Ander triste utzi dugu berria jakinaraziz

Hiru aditz horiek egoerak edo ezaugarriak adierazten dituzten predikatuak ezezik, lekuzko osagarriak ere onartzen dituzte, *egon* aditzak bezala.

(173) a. Haurra gure aurrean jarri {da/dute}
b. Haurra gure aurrean {geratu da/utzi dute}

Jarri edo *ipini* aditzak, koloreak, itxura edo pertsonen osasun edo gogoaren egoerak adierazten dituzten predikatuekin joan ohi dira. Gehienetan, egoera+*jarri /ipini* sekuentziak adierazten duen egoera-aldaketa bera adierazten duen aditz bat egoten da (174b, 175b).

(174) a. Haurra {pozik/haserre/gaixorik/gorri/lodi} jarri da
b. Haurra {poztu/haserretu/gaixotu/gorritu/loditu} egin da
(175) a. Aita {eserita/etzanda} ipini da
b. Aita {eseri/etzan} egin da

Jarri eta *ipini* aditzek aldaketa-mota zehatz bat adierazten dute (jarrera edo itxuraren aldaketa) eta beraz, ez dituzte onartzen aldaketa horren ondorioak izan daitezkeen osagarriak baino. Horrela, partizipio gehienak ez dira onargarriak *jarri* eta *ipini* aditzekin bestelako aldaketa batzuk adierazten baitituzte. *Egon* aditzak berriz, ez du egoera-aldaketarik adierazten eta beraz edozein motatako aldaketaren ondorioak diren osagarriak onartzen ditu: *idatzita* egotea idaztearen ondorioa da eta ezin izan daiteke jartze edo ipintzearen ondorioa.

(176) a. {Bustita/harrituta/idatzita/apurtuta} {*jarri da/dago}

Horrela, ikusi (177a, b) esaldiak posible diren bitartean (154c) posible ez dela.

(177) a. Haurra etzanda dago, horrela jarri baitugu
b. Liburua mahai gainean dago, bertan jarri baitugu
c.*Bustita dago, horrela jarri baitugu
d. Bustita dago, busti baitugu

Jarri eta *ipini* aditzek ez dute izen-predikaturik onartzen , ez eta predikatu psikologikoak eratzen dituztenak ere (178). Posposizioen artean, inesiboa eta soziatiboa dira aditz hauekin ondorio onargarriak ematen dituzten bakarrak (179). Kasu hauetan guztietan ere, *jarri* eta *ipini* aditzek adierazten duten aldaketarekin bat ez datozen predikatuak direla esan dezakegu.

(178) a.*Ane {irakasle/mediku/ neskame} jarri da Bilbon[52]
b.*Haurra beldur ipini da
(179) a. Ane {bere lagunekin/aurrean} ipini da
b.*Zure lagunak dirurik gabe ipini dira
c.*Ariketak bukatu gabe jarri dituzte
d.*Haurrak beldurrez jarri dira

Geratu edo *gelditu* eta *utzi* aditzek, akats fisikoak eta egora zibila adierazten dituzten izenondoekin azaltzen dira askotan (180), *egon* eta *jarri* edo *ipini* aditzekin azaldu ohi diren izenondoak ere onargarriak badira ere (181).

(180) a. {Itsu/erren/gor} {geratu da/utzi dute}[53]
b. Alargun {geratu da/utzi dute}
(181) {Pozik/haserre/gaixorik/gorri/lodi} geratu da

Aditz hauek aldaketa bera baino, nolabaiteko aldaketaren ondoriozko egoeraren hasiera adierazten dute. Horrela, ez dute murrizten aldaketa-mota eta partizipio ugarirekin ikus daitezke.

(182) a. {Eserita/etzanda} {geratu da /utzi dugu}

---

[52] Honelako izenekin aldaketazko aditz modura jokatuko lukeena *joan* aditza litzateke: *Jon artzain joan da Ameriketara* .

[53] *Itsu, erren, gor* eta *alargun* bezalako izenondoak *egon* zein *izan* aditzekin erabil daitezke bi loturazko aditzak dituzten euskalkietan. Baina *jarri, ipini, geratu, gelditu* eta *utzi* aditzen predikatu-osagarrietarako proposatu dugun baldintza, *egon* aditza onartzea da eta ez aditz hori baizik ez onartzea.

b. {Bustita/harrituta} {geratu da /utzi dugu}
c. {Idatzita/ apurtuta/eginda} {geratu da /utzi dugu}

Konparatu (183) adibideak eta (177) multzokoak.

(183) a.*Eserita dago, horrela geratu baita
b.*Harrituta dago, horrela utzi baitugu
c.*Eginda dago, horrela geratu baita

Jarri eta *ipini* aditzek onartzen ez dituzten izen eta posposizioekin ere aurki daitezke. Aditz hauekin ere ez dira onargarriak predikatu psikologikoak eratzen dituzten izenak (184b).

(184) a. Ane neskame sartu eta neskame geratu da bizitza osorako
b.*Ane beldur geratu da
(185) a. Ane {bere lagunekin/gure aurrean} {geratu da/utzi dugu}
b. Zure lagunak dirurik gabe { geratu dira/utzi ditugu}
c. Ariketak bukatu gabe { geratu dira/utzi ditugu}
d.Haurrak beldurrez { geratu dira/utzi ditugu}

Edozein modutan, *geratu, gelditu* aditzek aldaketa baten ondoriozko egoeraren hasiera hutsaz gain, ondoriozko egoera horren iraupena ere adierazten dute. Horrela, iraupenezko denbora-aditzondoekin erabil daitezke (186).

(186) a. Argi horren ondorioz, itsu geratu ginen zenbait minutuz
b. *Erantzuna entzutean, gorri jarri ginen zenbait minutuz

Geratu eta *utzi* aditzen semantika-esanguraren barnean egoera-aldaketaz gain iraupena ere badenez, *ipini, jarri* edo *utzi* aditzek adierazitako

aldaketaren ondoriozko egoera adieraz dezakete (187a, b, c) *egon* aditzak bezala (187d) eta *jarri* edo *ipini* aditzek ez bezala.

(187) a. Liburua mahai gainean ipini dugu eta bertan geratu da
b. Liburua mahai gainean ipini dugu eta bertan utzi dugu
c. Liburua mahai gainean utzi dugu eta bertan geratu da
c. Liburua mahai gainean ipini dugu eta bertan dago oraindik
d. *Liburua mahai gainean utzi dugu eta bertan ipini dugu

Ondorioz, *jarri* eta *ipini* aditzekin eta *geratu* edo *gelditu* eta *utzi* aditzekin azal daitezkeen predikatuak *egon* aditzarekin ere azal daitezke eta beraz 'egoera-mailakoak' direla esan dezakegu. Horretaz gain, aditz hauek semantikazko beste murriztapen batzuk ezartzen dizkiete beren osagarriei, hala nola *jarri* eta *ipini* aditzek, berek adierazitako aldaketaren ondorioa izatea eskatzen diote beren osagarriari. *Geratu* eta *utzi* aditzek ordea, aldaketa baten bukaera izatea baino ez diote eskatzen beren osagarriari.

Murriztapen hauek ez digute arazorik sortzen: AspP mailako perpaus txikiari, predikatu-buruaren islapen hedatua denez, predikatu horren semantika-ezaugarriak heltzen zaizkio islapen hedatuan zehar.

Bestetik, *geratu*, *gelditu* eta *utzi* aditzen semantika-esanguran, aldaketaz gain iraupena ere badago, *jarri* eta *ipini* aditzenean ez bezala, eta beraz, aldaketa bera ezezik, ondoriozko egoera ere adieraz dezakete.

2.2.4.2. *Bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzak

Esan dugunez, aditz hauek ez dituzte onartzen *egon* aditzarekin joan daitezkeen predikatuak[54]: ez izenondoak, ez partizipioak ez eta posposizioak dituztenak ere.[55]

(188) *Haurra {pozik/haserre/gaixorik/gorri/lodi} bihurtu da
(189) *{Eserita/harrituta/apurtuta} bilakatu da
(190) *Peru {etxean/gurekin/oihuka/dirurik gabe} egin da[56]

Horrenbestez, aditz hauekin 'izaki-mailako predikatuak' edo perpaus txikiak aurkitzea espero dezakegu.

---

[54] Lan honetan *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzen atribuziozko erabilerak baizik ez ditugu aztertuko. Hala ere, garbi dago bestelako adiera batzuk ere badituztela: *bihurtu* aditzak adibidez toki batera itzultzea edo hizkuntza batetik bestera itzultzea ere adieraz dezake, eta *egin* aditzak zerbait burutzea, amaitzea edo eraikitzea ere adieraz dezake.

[55] *Bihurtu* eta *bilakatu* aditzekin azaltzen diren predikatu-osagarriak gehienetan absolutibo mugagabean azaltzen badira ere, mugatzailea edo *bat* artikulua dutenak eta inesiboa edo *-ra/-rat* adlatiboa dutenak ere ikus daitezke (O.E.H.)

- *Geroago ilezko yauntzi beroetan bilhakatzeko* (Itun Berria)
- *Elgarrekin bihotz bat / bakean bilakatu* (Etchamendy)

[56] Adibide-sail bakoitza aditz batekin eraiki dugu, baina kasu bakoitzean ondorioak berdintsuak dira gainerako bi aditzetarako

(191) a. Ane {beldurti(a)/indartsu(a)/aberats(a)}
{bihurtu /bilakatu/ egin} da[57]
b. Zure laguna {irakasle/mediku}
{*bihurtu/bilakatu/ egin} da

(191b) adibidean, *bihurtu* eta *bilakatu* edo *egin* aditzen artean dagoen onargarritasunaren ezberdintasuna, adierazten duten aldaketa-prozesuen luzerari dagokio: *bihurtu* aditzak adierazten duen aldaketa, puntuala da eta *bilakatu* edo *egin* aditzek adierazten dutena nolabaiteko luzera duen prozesua edo aldaketa puntuala izan daiteke. Horrela, *irakasle* edo *mediku* izatera heltzeko denbora luzea eskatzen duen prozesua behar denez, *bihurtu* aditza ez da onargarria.

Bestetik, *bihurtu* eta *bilakatu* aditzak oso erabiliak dira izen arruntekin bapateko izaera-aldaketak adierazteko (192).

(192) a. Ura ardo {bihurtu/bilakatu} zen
b. Lagun guztiak etsai {bihurtu/bilakatu} ziren

Eraikuntza hauetan bi izen badago ere, ezin pareka daitezke *izan* aditzarekin azaltzen diren identifikaziozko perpausekin: hasteko, bi izenetatik batek baino ezin eraman dezake mugatzailea, mugatzailerik ez daramana beti predikatutzat hartzen delarik; eta bigarrenik, identifikaziozko eraikuntzen bereizgarriak diren izenordainak, erakusleak eta izen propioak ezinezkoak dira honelakoetan. Horrek guztiak, bi argumentu izan beharrean argumentu bat eta predikatu bat dugula jartzen digu agerian.

(193) a.*Ura ardoa bihurtu zen
b.*Lagun guztiak etsaiak bihurtu dira
(194) a.*Zu ni bihurtu zara

---

[57] EGLU-I (1985) gramatikaren arabera, *bihurtu* aditzarekin izenondoak ditugunean onargarriak dira komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerak, baina izenak ditugunean, agramatiakaltzat har daiteke komunztadura.

b.*Zure laguna hori bihurtu da
c.*Ander Napoleon bihurtu da

Egin aditza ordea, ez da onargarria bapateko izaera-aldaketak adierazteko, luzeagoak diren aldaketa-prozesuei baitagokie (195).

(195) a. *Ura ardo egin zen
b. *Lagun guztiak etsai egin ziren

Inakusatibo/iragankor txandakaketari dagokionez, hiru aditz hauek azaltzen dutela esan daiteke. Bestetik *bilakatu* aditzaren *bilakarazi* aldaera kausatiboa ere badago.

(196) a. Ura ardo bihurtu {da/du}
b. Jon mediku {egin/bilakatu}da
c. Ane zuzendari {egin/bilakatu} dute
d. 'Eta ur ura, arno bilhakarazi zuen'
(Joannateguy, B.)[58]

Bukatzeko, *egin* aditzak badu aldaketa-prozesutik urrun samar dagoen beste adiera bat: subjektuarena ez den izaera imitatuz egiten den iharduera hain zuzen (197).

(197) a. Zure lagunak tontuarena egiten ari dira elkarte horretan
b. Jonek itsuarena egiten du arazo bat duen bakoitzean
c. Zure lagunak ez-ikusia egin du bere anaiaren kontuan

Ikus daitekeenez, *egin* aditzaren osagarriak daraman *-a* bukaera ez da komunztadura, mugatzailea baizik. Izan ere, subjektuarekiko komunztadura ezinezkoa da perpaus hauetan (198).

---

[58] Adibide hau O.E.H.an azaltzen da beste askoren artean.

(198) *Zure lagunak tontuarenak egiten ari dira elkarte horretan

Horrela, adiera hauetan predikatu-osagarri bat izan beharrean argumentu bat dugula pentsatu behar da, eta ondorioz, esapide hauek *egin* aditzaren atribuziozko erabileretatik kanpo utziko ditugu.

Laburbilduz, *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aldaketa-aditzak iragankor edo iragangaitz modura gauza daitezke, izaki-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak hartuz. Gainera, *bilakatu* aditzaren *bilakarazi* aldaera kausatiboa ere badago. Hiru aditz horiek bereizten dituena aldaketa-prozesuaren luzera da: *bihurtu* aditzak aldaketa-prozesu puntualak adierazten ditu, *bilakatu* aditzak prozesu puntualak edo prozesu luzeagoak adieraz ditzake eta *egin* aditzak aldaketa-prozesu luzeak baino ez ditu adierazten.

Bukatzeko, *itsuarena egin* eta *ez-ikusia egin* bezalako esapideetan *egin* aditzarekin doana predikatua izan gabe argumentua dela defendatu dugu. Beraz, ez ditugu kontutan hartuko izenki-predikazioari buruzko lan honetan.

2.2.4.3. *Gertatu* eta *suertatu* , eta *azaldu* eta *agertu* aditzak

Aditz hauek badituzte iragankor / inakusatibo txandakaketa onartzen duten zenbait adiera (199).

(199) a. Mikel berandu {azaldu /agertu} da, betiko moduan
b. Oraintxe azalduko dizuet biharko plangintza
c. Aztiak untxia agertu zuen kapelatik
d. Atzo istripu bat gertatu zen zure etxe aurrean
e. Gaur Mikelek gertatu du bazkaria

Hala ere, osagarri modura izenki-predikatuak hartzen dituztenean, nor edo nor-nori motako laguntzaileak hartzen dituzte beti (200).

(200) a. Ikasleak interesaturik {agertu/azaldu} dira proiektua azaldu diedanean
b. Gure lagunei kaltegarri gertatu zaie pertsona horiekin ibiltzea

Hasteko, *gertatu* eta *suertatu* aditzekin azaltzen diren izenondoak, beren argumentu-egituran 'hartzaile' argumentu bat dutenetarikoak dira. Dena dela, izenondo hauek *izan* aditzarekin erabiltzen ditugunean abstraktuak diren eta beraz denboratik kanpo dauden ezaugarritzat hartzen ditugun bitartean, *gertatu* edo *suertatu* aditzekin frogatuak diren ezaugarritzat hartzen ditugu. Horrela, *gertatu* aditza daramaten adibideen analogoak *izan* aditza erabiliz eman nahi ditugunean *izan* aditzaren aspektu-aldaera 'perfektiboak' erabili behar ditugu.

(201) a. Anerekin bizitzea kaltegarri gertatu zaio Mikeli
b. Anerekin bizitzea kaltegarri izan da Mikelentzat
(202) a. Liburu hau beharrezko gertatu zait tesia bideratu ahal izateko
b. Liburu hau beharrezkoa izan zait tesia bideratu ahal izateko

Horrenbestez, izenondo hauek, *egon* edo *ibili* aditzak onartzen ez dituztenez, izaki-mailako predikatuak baino eratzen ez dituztela pentsa badaiteke ere, (201) eta (202) adibideek 'egoera-mailako predikatuak' ere era ditzaketela jartzen digute agerian. Izan ere, *eria da / eri dago* oposaketen antzekoak egin daitezke, izenondo hauek eta *gertatu* edo *izan* aditza erabiliz (203).

(203) Substantzia hori ez da kaltegarria, baina Mikeli kaltegarri gertatu zaio

Beraz, 'hartzaile' argumentu bat duten izenondo hauek e-argumentua dutenetarikoak direla pentsatu behar dugu, argumentu hori sintaxian islatzeko ala ez islatzeko aukera badute ere. Horrela ba, *gertatu* aditzak bere predikatu-osagarriei egoera-mailakoak izatea eta 'hartzailearen' θ-papera esleitzeko gai izatea eskatzen die.

Azaldu eta *agertu* aditzek *egon* edo *ibili* aditzekin onargarriak diren izenondoak onartzen dituzte, beti ere ezaugarri hori agerian jartzeko subjektuaren nolabaiteko borondatea ikusten delarik: ikus bedi *egon* aditzarekin ondorio txarrak baina *ibili* aditzarekin ondorio onargarriak ematen dituzten izenondoak, onak direla *agertu* edo *azaldu* aditzekin (205)

(204) a. {Pozik/haserre/prest} azaldu da egoera delikatu guztietan
b. {Interesaturik/apaldurik/beldurrez} agertu da Jon zuzendariaren aurrean

(205) a. Jon zintzo {azaldu/agertu} da bere gurasoen aurrean
b. Markel azkar {azaldu/agertu} da beste haurrekin jarri dugunean

Izenondo horiek guztiek egoera-mailako predikatuak eratzen dituztela esan dezakegu *egon* edo eta *ibili* aditzak ere onartzen baitituzte. Hala ere, *ibili* aditzak bezala, *agertu* eta *azaldu* aditzek ere predikatu horien subjektuari esperimentatzaile edo egilea izatea eskatzen diotela esan daiteke: beren subjektuari temaren papera esleitzen dieten izenondoak ez dira onargarriak aditz hauekin *egon* aditzarekin onargarriak izan arren eta beraz egoera-mailako predikatuak eratzeko ahalmena izan arren (206).

(206) a. Jon lodi dago
b.*Jon lodi {azaldu/agertu} da gaur goizeko bileran

Laburbilduz, sail honetan aztertu ditugun aditz guztiek (*gertatu, suertatu, azaldu, agertu*), osagarri modura dituzten perpaus txikiei 'egoera-mailako' predikatuak edukitzea eskatzen diete. Horretaz gainera, *gertatu* eta *suertatu* aditzek beren perpaus txiki osagarriaren predikatuari 'hartzailearen' papera

esleitzeko ahalmena eskatzen diote. *Azaldu* eta *agertu* aditzek berriz, *ibili* aditzak bezala, osagarri modura dituzten perpaus txikien egoera-mailako predikatu horiei, subjektu modura jokatuko duen argumentuari esperimentatzaile edo egilearen papera esleitzea eskatzen diete.

2.2.4.4. *Iraun* iraupenezko aditza

Iraun aditzak iraupen hutsa adierazten du, eta beraz *geratu* edo *utzi* aditzen semantikaren bigarren zatia baino ez luke beteko. Aditz honen subjektuak ergatiboa azaltzen du, askotan beste inolako argumenturik gabe agertzen bada ere (207).

(207) Oraino badirau gure ithurriko urak (HARRIET)[59]

Ohizkoena, iraupenezko aditzondo edo adizlagun batekin azaltzea da (183).

(208) a. Ene biziak dirauno , iraunen du ene ezagutzak (LAPHITZE)
b. Irauten du mendez mende (Axular,40)
c. Denbora batetaraiño iraun ahal dezakete, eta ez gehiago (Axular,78)
d. Zeren fidantzia hark iraun zeraukan bitartean iasan zuen itsasoak (Axular, 87)

Dena dela, *iraun* aditza, izenki-predikatutzat hartu ditugunekin ere azaltzen da batzuetan (209).

(209) Iraun zuen sendo erregeari obeditu gabe (J. C. ETXEBERRIA)

---

[59] Adibide hau D.R.A.E (1980) hiztegitik hartu dugu, (208a) eta (209) adibideak bezala.

Azterketa honetan ongi sar daitezkeen predikatuen artean ondoko hauek har ditzake *iraun* aditzak: hasteko inesibo marka daramatenak, bai lekuzkoak eta baita iharduerazkoak ere.

(210) a. Eta ondasunean iraute haur, ... (Axular 299)
b. Gartzeleratu zuten eta gose greban dirau orduz geroztik[60]
c. Sutan dirau
d. Guda horiek hemen gogortu ziran, hemen iraun eta hemen bukatu

Soziatibo marka daramaten adibideak ere ikus daitezke.

(211) Zuek nerekin iraun duzue nere estualdietan

Gabe barik eta *-tzeke* bezalako posposizioak eta atzizkiak ere ugariak dira.

(212) a. Emaztetarik eskapatzea, kastitatearen begiratzea, haragiaren bekhatuan erori gabe eta kutsatu gabe egoitea, irautea eta perseberatzea. (Axular 240)
b. Aldakuntzarik gabe iraun duen zerbait
c. Beharrekoek esateke dirautenez
d. Lizunkeriak usteldu barik dirauanean

Horietaz gain aditzondotzat, izenondotzat edo partizipiotzat har daitezkeen sarrera ugari ere badago

---

[60] Aditz hau ez da oso erabilia eta beraz, onargarriak diren eraikuntzak erabakitzea zail samarra gertatu zaigu. Horrela, Sarasola-ren (1982) *Gaurko euskara idatziaren maiztasun hiztegia* delakora jo dugu. Izan ere, idazleren baten izena ez daramaten adibide guztiak hiztegi horretatik hartu ditugu.

(213) a. Bethi fin eta finko egoitea eta irautea.
(Axular 296)
b. Oroitzapenak bizirik dirau
c. Azken urteotan biziago dirau
d. Aspaldiko harrobiak bizi eta emankor dirau
e. Akusatuak lau polizi armatu artean dagoela zutik dirau
f. Hiru nekazari-herrik sortaraztekotan tinko dirau
g. Bere arazoak berdin berdin dirau
h. Orain bertan ain bizirik eta ain indartsu dirauan belar txarra
i. Diru apur bat gehixeago lortzearren bakarrik diraute
j. Beste batzuk isilik diraute
k. Herriek zapaldurik diraute
l. Gure herritarrek preso diraute
m. Lasai diraute
n. Setatsu eta gogor iraun dezakeen gehienegoak

-Tzen bukaerako aditz-izenen bat ere ikus daiteke Sarasola-ren (1982) hiztegian.

(214) a.Horrenbeste urtetan euskadi zapaltzen dirauen katai horretako zati gara oraindik ere
b. Euskal etxaldeek oso ttipiak izaten diraute

Bestetik, *hala* moduzko izenondoarekin ere azaltzen da aditz hau Axularren liburuan.

(215) Kanpoan eta iendartean alegera iduri, ordea guti hala iraun. (Axular, 278)

Izan ere, *hala* moduzko aditzondoa *izan* eta *egon* atribuziozko aditzekin ere erabiltzen da (216):[61]

(216) a. Arazoa konpontzen zaila zela esan zenidan eta hala da
b. Bahitua hilda aterako zutela esan zenidan eta hala zegoen atera zutenean

Bukatzeko, esan dezagun *iraun arazi* aldaera erazlea ere badagoela

(217) Herri-agintariek gure kulturari iraun arazteko eta lantzeko egin duten hutsaren lekuko da.

Ondorioz, *iraun* aditzarekin azaltzen diren predikatu hauek guztiek *egon* aditzarekin azal daitezkeenetarikoak dira eta beraz 'egoera-mailako predikatutzat' hartu behar ditugu.

Hala ere, aditz honen kasuan zaila da predikatu horiek lehenengo mailakoak edo bigarren mailakoak diren zehaztea, zeren izenki-predikaturik gabeko esaldiak ere onargarriak baitira.

(218) a. Oroitzapenak bizirik dirau
b. Oroitzapenak badirau

Edozein modutan, izenki-predikatuak aditzak adierazten duen iraupen hori murrizten du nolabait, predikatua duen eta predikaturik ez duen aldaerak ezberdinak direlarik. Horrela, ezin koordina daitezke predikatua duten eta predikaturik ez duten esapideak (194).

(219) a.*Presoak zutik dirau eta senideek ere badiraute
b. Presoak zutik dirau eta senideek ere hala diraute

---

[61] Honelako aditzondoek predikatuak eratzeko duten ahalmenari dagokionez, ikusi atal honetako 2.4. azpisaila.

Jokaera hau *izan* aditzaren erabilera atributibo eta existentzialen artean gertatzen denaren antzekoa da (220). Horrela, *iraun* aditzaren kasuan ere iraupen hutsaren adieraz eta nolabaiteko egoeran irautearen adieraz hitz egin daitekeela defendatuko dugu.

(220) a. *Lehenengo atala interesgarria da eta bigarrena ere bada
b. Lehenengo atala interesgarria da eta bigarrena ere hala da

Bukatzeko, *izan* eta *egon* aditzak ere, sintetiko modura erabiltzen direnean iraupenezko aditzak direla esan daiteke: *egon* aditzak egoeren iraupena adieraziko luke *iraun* aditzak bezala eta *izan* aditzak izakien ezaugarrien iraupena zein egoeren iraupena adieraz lezake.

Laburbilduz, *iraun* aditzak iraupen hutsaren oinarrizko adieraz gain atribuziozko adiera ere baduela esan dezakegu. Atribuziozko adiera horretan, *iraun* aditzak perpaus txiki bat hartzen du osagarri modura, egoera-mailako predikatua edukitzea eskatzen diolarik. Izan ere, zerbaiten iraupena adierazten dugunean aldaketaren aukera ere badagoela ulertzen dugu, eta beraz ez da harritzekoa egoera-aldaketak adierazten dituzten *jarri, ipini, geratu* , *gelditu* eta *utzi* aditzek eta egoeren iraupena adierazten duen *iraun* aditzak mota bereko predikatuak hautatzea.

Sail honetan atera ditugun ondorioak honela labur daitezke: izakien ezaugarriak adierazten dituzten 'izaki-mailako predikatuak' eta izakiak daudeneko egoerak adierazten dituzten 'egoera-mailako' predikatuak badaudenez, izakien aldaketak adierazten dituzten aldaketa-aditzak (*bihurtu, bilakatu, egin*) eta egoera-aldaketak adierazten dituzten aditzak (*jarri, ipini, gertatu, suertatu, azaldu, agertu*) ere badaude. Modu berean, egoeren iraupena *iraun* aditzaren bidez eraikitzen da euskaraz, izakien ezaugarrien iraupena *izan* aditzaren bidez adierazten den bitartean.

2.2.5. *Irudi(tu)* ,*iritzi* eta *eman* aditzak

Irudi(tu) eta *iritzi* aditzak izaki, egoera edo gertaerei buruzko iritziak emateko erabiltzen dira eta biak azal daitezke konpletibo batekin edo izenki-predikatu batekin.

(221) a. Nahiko gizon ospetsu eta trebe agertu direla iruditu izan zait.
b. Bibliografiaz bat bakarra arduratzea ondo tristea iruditu zaigu
(222) a. Orain arte baino askatasun handiagoa izango dugula deritzat
b. Erabat lotsagarri deritzagu[62]

Bestetik, esan beharrekoa da *iritzi* aditza, zerbaiti buruz dugun iritzia adierazteko ezezik zerbaiten izena jakinarazteko ere erabiltzen dela (223).

(223) a. Iuduek mana zeritzan ianhari on, ezti, gozo hartarik franko zutelarik (Axular 60)
b. Eta hunetakotzat, deitu zuen Noe zeritzan gizon bat (Axular 80)
c. Ozono kapa deritza eta eguzki argiak oxigenotik sorterazia da

Irudi aditzak ere, baditu lan honetan aztertuko dugun iritzi-aditz gisako erabileratik urrun samar daudenak (224).

---

[62] Lau adibide hauek eta azpisail honetako gehienak Sarasola-ren (1982) hiztegitik atera ditugu, bertan antzeko adibide ugari dagoelarik.

(224) a. Au gozotasun guztien iturburu amaigabekoa izango litzateke niretzat. Irudituteagaz bakarrik pozaren pozez zoratu bear iat (D. AGIRRE)
b. Begi honetan ikusten eban irudituta Marimanuk bere alaba maiteen arima ezin obea (AZKUE)

Bi aditz horietaz gain, *eman* aditza ere erabil daiteke iritzia emateko, bere oinarrizko adieretatik urrun samar badago ere.

(225) a. Ematen du lagun guztiak etorriko direla
b. Liburu horrek interesgarri ematen du

Irudi aditzari dagokionez, aldaera ugari dago, hala nola, *iduri ukan, iruditu, iduritu.*[63] Aditza jokatzeko ere, hainbat joera ikus daiteke, nor-nork paradigmari jarraitzen zaion adizki sintetiko modura eta °*edun* edo nor-nori laguntzailea daraman adizki perifrastiko modura erabiltzen delarik.

(226) a. Errax idurituko zaitzu (Axular 222)
b. Benturaz eztela halakorik izanen iduritzen zaitzu (Axular 47)
c. Nori berea iruditzen baitzaika hoberenik eta ederrenik (Axular 10)
d. Eta badirudi, hoberena litzatekeiela (Axular 178)
e. Hala bekhatoreak ere kanpotik dirudi alegera (Axular 178)
f. Horrek gotor iduri duèn artean[64]

---

[63] *Iduri egin* ere ikus daiteke Axularren liburuan baina lan honen helburutik urrun samar dago aldaera hori, nolabaiteko aditz konposatutzat har daitekeelarik.

- *Ez ikhusi iduri eginik*
- *Ahantz iduri eginez*
- *Ikhusia ez ikhusi eta aditua ere ez aditu iduri egin behar da*

[64] Idazlearen aipua ez daramaten adibide hauek guztiok, Sarasola-ren (1982) hiztegitik hartu ditugu.

g. Hutsaren parekoa irudi du
h. Politika beti garrantzitsua iduritu izan zitzaion
i. Nahiko susmagarria iruditu izan zitzaien
j. Bata besteagandik ezbardinak dirudite

Ikus daitekeenez, Axularren liburuan bertan ere *iduritu* eta *iruditu* nahastuta azaltzen dira adizki perifrastikoen artean. Beraz, ez dirudi bi aldaera horiei balio desberdina eman dakiekeenik. Aldaera hauek *-ko* eta *-tzen* aspektu-bukaera eta nor-nori laguntzailea hartzen dute; adizki sintetikoa berriz, nor-nork eredukoa da. *Iduri /irudi °edun* aldaerak ordea, ez du aspektu-atzizkirik hartzen, eta beraz *nahi izan* moduko aditzen antzekoa litzateke; bestela, hartzen duen laguntzailea adizki sintetikoaren eredu berberekoa da. Gainerakoan, aldaera guztiak ager daitezke perpaus konpletibo batekin edo izenki-predikatu batekin.

Iritzi aditzari dagokionez, beti azaltzen da nor-nori-nork ereduko adizki sintetiko modura. Eta bukatzeko, *eman* aditzak beti eramaten du *-tzen* aspektu-atzizkia eta nor-nork ereduko laguntzailea.

Ingelesa eta hizkuntza erromantzeei buruzko lanetan 'aditz goratzaile' deritze *irudi(tu)* aditzaren parekoei: aditz hauek ez diote beren subjektuari θ-paperik esleitzen eta horrela menperatuaren subjektua matrizearen subjektuaren kokaguneraino gora daiteke. Hizkuntza horietan, aditz goratzaile horren osagarria konpletibo bat, infinitibozko perpaus bat edo izenki-predikatu bat izan daiteke. Izenki-predikatuaren edo infinitibozko perpausaren subjektuak, halabeharrez goratu behar du θ-markatzen duen predikatu horrek kasua emateko ahalmena ez baitu. Baina konpletibo baten subjektua denean, ez dago igoerarik, jatorrizko tokian bertan ere kasuaren iragazkia gainditzeko baldintzak bete baititzake. Horretaz gain, konpletiboaren subjektuak gora egiten ez duenez, espletibo batez (*it*) bete behar da perpaus matrizearen subjektuaren tokia, 'Islapenaren oinarri zabaldua' ez bortxatzeko (227).

(227) a. It seems [that John is sick]
b.*John$_i$ seems [that t_i is sick]
c.*It seems [John to be sick]

d. John$_i$ seems [t_i to be sick]
e.*It seems [John sick]
f. John$_i$ seems [t_i sick][65]

Euskaraz, iritzi-aditzetarako azaldu ditugun ereduak kontsideratuta, beste hizkuntzetako aditz goratzaileen analogoak izan litezkeenak nor-nork eredukoak dira itxuraz; hots, *irudi* aditzaren adizki sintetikoak (*dirudi*), *iduri du* eta *ematen du* moduko aldaerak: gainerako aldaeretan, hau da nor-nori edo nor-nori-nork eredukoetan, subjektu modura jokatzen duena ez da konpletiboaren edo izenki-predikatuaren subjektua, iritzia ematen duena baizik. Konparatu (228a, b) eta (228 c, d) adibideak.

(228) a. Horrek interesgarri ematen du
b. Horrek interesgarri dirudi
c. Niri hori interesgarri iruditzen zait
d. Nik horri interesgarri deritzot

Edozein modutan, izenki-predikatuaren subjektua perpausaren subjektua ez deneko kasu hauetan ere, igoeraz hitz egin dezakegu (objektu zuzenaren edo zeharkako objektuaren kokagunerako igoera), zeren kasu-ezarketa berezia baztertuta argumentu horiek ezinbestean igo behar baitute perpaus matrizearen inflexiora kasua hartzera eta aditz nagusi horrekiko komunztadura gauzatzen baitute.

---

[65] Gaztelaniaren eredua ingelesaren antzekoa da guztiz.
a. Parece [que Juan está enfermo]
b. Juan$_i$ parece [que pro$_i$ está enfermo]
c. *Parece [Juan estar enfermo]
d. Juan$_i$ parece [t_i estar enfermo]
e. *Parece [Juan enfermo]
f. Juan$_i$ parece [t_i enfermo]

b adibidea onargarria dela ematen du eta beraz, gaztelaniaz konpletiboaren kasuan ere igoera posible dela pentsa dezakegu. Hala ere, ikusi kasu horretan egiten ari garena ez dela subjektuaren igoera nolabaiteko tematizazioa baizik. Izan ere, horrelakoetan plurala den subjektua jartzen badugu, *parecer* aditzak ez du subjektu horrekiko zenbaki-komunztadurarik onartzen: *Juan y María parecen que estan enfermos

Bestetik, konpletiboa eta izenki-predikatua baino ez ditugu aditz hauen osagarri modura, jokatugabeko perpaus osagarriak dituzten iritzi-aditzik ez dugularik (229c): konpletiboen kasuan subjektua ateratzeko ala ez ateratzeko aukera dugu (229 a, b). Areago, konpletiboaren subjektua ezezik, osagarri zuzena (231) eta zeharkako osagarria (230) behintzat atera daitezke (Salaburu, 1987).

(229) a. Badirudi [Jon eri dagoela]
b. Jonek [eri dagoela] dirudi
c.*Jonek [eri egotea] dirudi
d. Jonek eri dirudi

(230) a. Iduri du [haur horri goxokiak eman dizkiotela]
b. Haur horrek iduri du [goxokiak eman dizkiotela]

(231) a. Iduri du [apaiz hau Apezpiku egingo dutela]
b. Apaiz horrek iduri du [Apezpiku egingo dutela][66]

Euskaraz, *iduri °edun* aldaeraren kasua aztertu da batez ere, eta aditz honek bere subjektua θ-markatzen duela eta beraz, aditz goratzailea ez dela defendau da (Salaburu, 1987): egile horrek, alde batetik, agerian utzi du euskaraz konpletibotik kanpo azaltzen den subjektu hori benetan perpausaren subjektua dela: aditzarekiko komunztadura azaltzen du, gaztelaniaz berriz, antzeko eraikuntzetan topikalizaturiko elementuak ditugu, eta beraz, subjektu horiek ezin azal dezakete aditzarekiko komunztadurarik.

(232) a. Iduri du Jon eta Miren eri daudela
b. Jonek eta Mirenek iduri dute eri daudela

(233) a. Parece que Juan y María estan enfermos
b. Juan y Maria, parece que estan enfermos
c. *Juan y María parecen que estan enfermos

---

[66] Adibide hauek Salaburu-ren (1987) lanetik atera ditugu zuzenean.

Bestetik, Salaburu-k (1987) (234) moduko esaldiak onargarriak direla defendatu du. Areago, perpaus txertatuan nagusiaren subjektuaren erreferentzia bera duen argumentu bat dagoenean (234b) onargarritasun-maila goratu egiten dela ere eman du aditzera.

(234) a. Fragak iduri du F. Gonzalezek irabazi duela berriz ere
b. Fragak$_i$ iduri du F. Gonzalezek irabazi diola pro$_i$-ri

Horrela, egile honen ustez, *iduri* °*edun* aditza, *merezi* °*edun* aditzaren antzekoa litzateke: bi argumentu hartuko lituzke, subjektuaren funtzioa beteko lukeena eta konpletibo bat.[67] Adibideen onargarritasuna goratu egingo litzateke, menperatuaren barnean perpaus matrizearen subjektuaren erreferentzia bera duen pro bat dagoenean. Horixe litzateke eraikuntza hauei igoeraren antza hartzearen arrazoia, pro kategoria isila argumentu baten aztarnarekin nahasten baitugu.

Edozein modutan, lan honetan egin dugun bezala argumentu guztiak predikatu-buruen XP islapen perfektuaren barnean sortzen direla onartzen badugu, edozein motatako perpausetan izango dugu nolabaiteko igoera: VParen argumentuek, bai eta subjektuak ere, XP islapenetik atera behar dute Inflexioan kasua hartu ahal izateko. Honelako aditzetan dagoen arazoa beraz, ez da igoerarik badagoen ala ez erabakitzea; arazoa igoera hori jasaten duen argumentu bakoitza zein predikatuk θ-markatzen duen zehaztea liteke. Hortaz, (232b) moduko perpausetan bi aukera baino ez dugu:

---

[67] Horrela, (234) adibideak *merezi* aditza duten beste hauekin pareka litezke (Salaburu, 1987)

a. Jonek merezi du ikasle guztiek alde egitea ikasgelatik
b. Jonek$_i$ merezi du bere ikasle guztiek alde egitea pro$_i$-ri ikasgelatik

(i) Alde batetik, baliteke aditz matrizearekiko komunztadura daraman elementua konpletiboaren aditzak θ-markatzea. Orduan *iduri* aditzak perpaus-osagarria baino ez luke bere argumentu-egituran, subjektuaren θ-papera ere izatekotan goraturiko argumentuak bi θ-paper jasoko bailuke.

(ii) Bigarrenik, baliteke *irudi* aditzak bi argumentuko aditza izatea: alde batetik subjektua eta bestetik perpaus-osagarri bat θ-markatuko lituzkeelarik. Horrela, aditz matrizearekiko komunztadura duen argumentua aditz horren VParen barnean sortua litzateke eta ez perpaus konpletiboaren barnean sortua.

Arazo honetaz argi gehiago izateko, ikus dezagun aditz honen osagarri modura konpletibo bat izan gabe izenki-predikatu bat dugunean gertatzen zaiguna. *Iduri ° edun* aditzak aipatu ditugun aukerez gain (235a, b), osagarri modura izenki-predikatu bat ere har dezake (235 c).

(235) a. Iduri du [gaurko filmeak interesgarriak direla]
b. Gaurko filmeek iduri dute [interesgarriak direla]
c. Gaurko filmeek interesgarriak iduri dute

Antzeko adibideak ditugu adizki sintetikoa eta *ematen du* modukoak erabiliz.

(236) a. [Gaurko filmeak interesgarriak direla] dirudi
b. Gaurko filmeek [interesgarriak direla] dirudite
c. Gaurko filmeek interesgarriak dirudite
(237) a. Ematen du [gaurko filmeak interesgarriak direla]
b.? Gaurko filmeek ematen dute [interesgarriak direla]
c. Gaurko filmeek interesgarriak ematen dute[68]

---

[68] Azkue-ren (1905) hiztegian, adibide hau ikus daiteke: *Arbola orrek urrutira gizona ematen du*

Nor-nori eta nor-nori-nork laguntzailea daramaten aditzen aldaeretan ere, antzeko adibideak ditugu.

(238) a. [Gaurko filmeak interesgarriak direla] iruditzen zait
b. ?Gaurko filmeak [interesgarriak direla] iruditzen zaizkit
c. Gaurko filmeak interesgarriak iruditzen zaizkit

(239) a. [Gaurko filmeak interesgariak direla] deritzot
b. Gaurko filmeei [interesgarriak direla] deritzet
c. Gaurko filmeei interesgarriak deritzet

Konpletiboaren ordez izenki-predikatua dugunean, subjektuak beti azaltzen du aditz matrizearekiko komunztadura. Hala ere, subjektu hori VP matrizetik, edo AP predikatu-osagarritik goratu den jakin behar dugu. Goiko adibideetako c aldaeretan ikus daitekeenez, predikatu-osagarriak subjektuarekiko (235c, 236c, 237c) edo objektu batekiko (238c, 239c) zenbaki-komunztadura azaltzen du: zenbaki-komunztadura nolabaiteko kategoria funtzionalaren espezifikatzaile/buru harremanaren bidez gauzatzen dela onartzen badugu, argumentu hori izenki-predikatuaren islapenaren barnean sortu dela eta espezifikatzaile/buru harreman hori izenki-predikatu horren islapen hedatuan gertatu dela pentsatu behar dugu.

Horrela, *iruditu* aditzaren osagarria izenki-predikatuaren buruaren islapen hedatuari dagokion perpaus txiki bat litzateke. (238c) adibideak honen aldeko beste froga bat eskaintzen digu: bai izenki-predikatua eta bai absolutiboa daraman argumentua ezinbestekoak dira eta biek sortu behar lukete *iruditu* aditzaren osagarri modura. Bestetik, absolutiboa daraman argumentu hori izenki-predikatuaren argumentutzat har daiteke. Ondorioz, absolutiboa daraman argumentua eta bai izenki-predikatua ere *iruditu* aditzaren osagarri modura txertaturiko perpaus txiki batean sortzen direla pentsa daiteke. *Iruditu* aditzak modu berean osagarri modura perpaus konpletiboak ere har ditzakeela kontutan hartuta, aditz horrek osagarri modura perpausak (perpaus txikiak edo perpaus konpletiboak) hartzen dituela esan genezake.

Izenki-predikatuen kasuan beraz, aditzarekiko eta predikatu-osagarriarekiko komunztadura azaltzen duen argumentua izenki-predikatu horretatik goratu dela esan dezakegu. Konpletiboen kasuan, oraindik ere zalantzak ditugu:

(i) Baliteke aditz horiek konpletibo osagarria baino ez hartzea, eta orduan, konpletiboaren argumentutzat har daitekeen baina aditz matrizearekiko komunztadura azaltzen duen argumentu bat dugunean, argumentu hori konpletibotik goratu dela esan dezakegu. Arazoa igoera horren motibapena litzateke, argumentu horrek konpletiboan bertan ere kasua har bailezake.

(ii) Beste aukera bat, aditz hauek bi (edo hiru *iritzi* aditzaren kasuan) argumentukoak izatea liteke: alde batetik konpletiboa eta bestetik, subjektua (edo subjektua eta zeharkako objektua *iritzi* aditzaren kasuan). Horrela, ez legoke igoerarik konpletibotik kanpo azaltzen diren argumentu guztiak VP matrizean sortuak liratekeelarik.

Bigarren aukera oso interesgarria da ez baitugu kasua duen argumentu baten igoera (aukerakoa litzatekeen igoera gainera) motibatzeko beharrik. Areago, aukera horrek Salaburu-k (1987) eskainiriko (234) adibideak azalduko lizkiguke. Edozein modutan iragankor-iragangaitz txandakaketa proposatu behar genuke aditz hauetarako: perpausa (txikia edo konpletiboa) izan behar duen argumentu bakarra eskatzen duen aditz-aldaera bat (235a, c; 236a,c) eta perpaus horretaz gain beste argumentu bat eskatzen duen aldaera iragankorra (235b; 236b). *Iritzi* aditzaren kasuan bi argumentuko (ergatiboa daramana eta konpletiboa edo perpaus txikia) aldaera (239a, b) eta hiru argumentuko (ergatiboa, datiboa eta konpletiboa) aldaera (239b) daudela esan behar genuke.

Bukatzeko, *ematen du* eta *iruditzen zait* moduko adizkietarako aldaera bat baino ez dago: *eman* aditzak perpaus-osagarria (perpaus konpletiboa edo perpaus txikia) baino ez du hartzen (237a, c); bi argumentuko adibideak onargarriak ez direlarik. *Iruditzen zait* modukoetan, beti azaltzen da datiboa eta konpletiboa edo perpaus txikia (238a,c) baina ezinezkoa da datiboa konpletiboa eta absolutiboa aditzak absolutibo-argumentu hori θ-markatzerik ez baitu.

Ikus daitekeenez, aditzak osagarri modura perpaus txiki bat duenean, bere argumentu-kopurua baino gune bat gehiagoko laguntzailea islatu behar du, izenki-predikatutik kasua ezin jaso dezakeen argumentu horri kasua esleitu ahal izateko. Hona hemen iritzi-aditz hauetariko bakoitzak har ditzakeen argumentuak.

(240)

ADITZ-MOTA	Adizkien adibideak	ADITZ MATRIZEAREN ARGUMENTU/			
		ergatiboa	datiboa	absolutiboa	perp
Irudi/Iduri nor-nork (1)	iduri du irudi du dirudi	– (P. txikitik goraturikoa)	–	–	+ (konpletiboa edo P. txiki
Irudi/Iduri (2) nor-nork	iduri du irudi du dirudi	+	–	–	+ (konpletibo
Irudi(tu)/ Iduri(tu) nor-nori	iruditzen/ iduritzen zait	–	+	– (P. txikitik goraturikoa)	+ (konpletibo edo P. txik
Eman nor-nork	ematen du	– (P. txikitik goraturikoa)	–	–	+ (konpletibo edo P. txil
Iritzi (1) nor-nori-nork	deritzot	+	– (P. txiki_ tik gora_ turikoa)	–	+ (konpletibo edo P. txiki
Iritzi (2) nor-nori-nork	deritzot	+	+	–	+ (konpletibo

Laburbilduz, euskaraz, ingelesaren *to seem* edo gaztelaniaren *parecer* iritzi-aditzen analogoak izan daitezkeen hainbat aditz eta aldaera desberdin ditugu: *iduri du, irudi du, dirudi, iruditzen zait, iduritzen zait, ematen du, deritzot* moduko adizkiak erabil daitezke funtzio horretarako. Adizki hauekin batera, konpletiboak (*filme hauek interesgarriak direla dirudi*) edo izenki-predikatuak (*filme hauek interesgarriak dirudite*) ikus ditzakegu, perpaus jokatugabeak ezinezkoak direlarik (**filme hauek interesgarriak {izatea /izan} dirudite*).

Perpaus txikiak ditugunean, predikatua ez da gai bere subjektuari kasua ezartzeko, eta subjektu horrek ezinbestean igo behar du aditz matrizearen inflexiora kasua eta aditz matrize horrekiko komunztadura hartzeko. Horrela, aditz hauek, izenki-predikatuak hartzen dituztenean, ezinbestean islatu behar dute beren argumentuetarako behar dutena baino gune bat gehiagoko laguntzailea perpaus txikitik goraturiko argumentuari kasuaz hornitu ahal izateko.

Konpletiboak gai dira beren barneko argumentu guztiei bertan kasua ezartzeko eta beraz, argumentu horiek ez dute motibapenik konpletibotik ateratzeko. Beraz, konpletibotik argumentu bat goratu dela dirudienean, benetako igoerarik ez dagoelako ideiaren alde (Salaburu, 1987) egin dugu: kasu horietan aditzen aldaeren txandakaketa dagoela defendatu dugu, igoeraren ordez jatorriz argumentu bat gehiago dugularik.

Perpaus txikiak hartzen dituzten aldaeretara murriztuz, ikus ditzagun aditz hauek beren osagarriei ezartzen dizkieten eskakizunak. Hasteko, bi multzo egin daitekeela esan daiteke: alde batetik, zerbaiti buruzko iritzia adierazteko balio duten izenondo edo aditzondoak (*harrigarri, interesgarri, garrantzitsu, gaizki , ondo, egoki, bidezko, beharrezko, ezinezkoa, zaila, erraza, ezinbesteko, gomendagarri, lotsagarri, positibo, luzeegi, onuragarri, susmagarri, onartezin, bitxi...*)[69], eta bestetik, zerbaiten itxura adierazteko balio duten izenondoak, partizipioak edo izenak (*txoria, gizona, gezurra, egia, arrazonatua, nekatua, ezkonberria, munta handikoa, kaiola, erlauntzak, sinesturik,amets txar bat*, ...).

Iritzia adierazten dituzten izenondo edo aditzondo horiek guztiek, sail honetako aditz guztiekin joan daitezke:

(241) a. Osotara oso interesgarria dirudi bigarren zenbaki horrek

---

[69] Izenondo hauek guztiak, azaltzen dira Sarasola-ren (1982) hiztegian beste batzuen artean.

b. Filme horrek interesgarri iduri du
c. Politika beti garrantzitsua iruditu izan zitzaion
d. Asmo hau aurrera eramateari behar beharrezkoa deritzogu
e. Neska horrek lan honetarako egokia ematen du

Itxura adierazten duten predikatuak berriz, ez dira onargarriak *iritzi* aditzarekin ez eta *iruditu* aditzaren nor-nori laguntzailea eta *-tzen* aspektu-atzizkia daramatzaten aldaerekin, gainerako iritzi-aditzen adiera desberdinekin onargarriak badira ere.

(242) a. Amets txarra dirudi jasan berria dugun garaiak
b. Zuhaitz horrek gizona ematen du
c. Esan duzun horrek gezurra iduri du
d. ? Zuhaitz hori gizona iruditzen zait
e. ? Zuhaitz horri gizona deritzot

Itxura adierazten duten aditz hauek, izaki-mailako predikatutzat har daitezkeen hauetaz gain, egoera-mailakotzat har daitezkeenak ere onartzen dituzte.

(243) a. Zure lagunak nekatua dirudi
b. Autonomi estatutuaren baliogarritasunaz sinisturik dirudite
c. Zure lagunak interesaturik ematen du

Laburbilduz, iritzi-aditzen artean hainbat aditz eta aldaera bereiz daitekeela ikusi dugu: *ematen du* eta *iruditzen zait* itxurako adizkien artean aldaera bat baino ez dagoen bitartean, *dirudi, iduri du* eta *deritzot* moduko adizkiak azaltzen direnean, adizki bakoitzerako bi aditz-sarrera kontsidera daitekeela jarri dugu agerian: sarrera batean, aditzak islatzen duen laguntzailean badago bere argumentuetarako behar ez duen gune bat eta gune hori aditzak osagarri modura duen perpaus txikitik ateratzen den argumentuaz betetzen da; edo bestela, osagarri modura konpletibo bat duenean, hutsik geratzen da. Beste aditz-sarreran, laguntzailearen hutsune

guztiak aditzaren argumentuen bidez betetzen dira; eta beraz, ezin egon daiteke perpaus txiki osagarririk. Kasu honetan perpaus konpletiboa da beti aditzaren osagarria.

Aditz hauekin joan daitezkeen izenki-predikatuei dagokienez, bi multzo bereiz daitezkeela dirudi: alde batetik, iritzia adierazten dutenak (*beharrezko, interesgarri, ongi,...*) eta bestetik, itxura adierazten dutenak, azken hauen artean egoerazkoak (*txarra, gizona, gezurra,...*) eta izaki-mailakoak (*sinisturik, nekatua, interesaturik,...*).*Iruditu* aditzaren nor-nori aldaera eta *iritzi* aditza ez dira onargarriak itxura adierazten duten predikatu horiekin.

2.2.6. Prolatibo markadun predikatu-osagarriarekin azpikategorizaturiko aditzak: *hartu, jo, eduki* eta *eman*

Lau aditz hauek iragankorrak dira eta prolatibo marka berezia duen predikatu-osagarria aditz matrizearen osagarri zuzena litekeen argumentuaz predikatzen da. Predikatu-osagarri horrek ez du inoiz mugatzailerik hartzen, eta beraz, zenbaki-komunztadura bazterturik dago kasu guztietan. Aspektu-ezaugarriei dagokienez, *hartu, jo* eta *eman* perfektibo puntualak diren bitartean, *eduki* inperfektiboa da. Bukatzeko nolabaiteko intentzionalitatea adierazten duen bakarra *eman* liteke, beste hirurek adierazten dituzten gertaerak subjektuaren borontateak parte hartu gabe gertatzen baitira.

Laugaren atalaren 4.5. azpisailean proposatu dugun posposizioetarako sailkapenaren arabera, *-tzat* posposizioak beti hartuko lituzke predikatuak osagarri modura. Horrela, kategoria lexikoa izan gabe kategoria funtzionala litzateke posposizio hau, predikatuei perpaus txikiak eraikitzen baimenduko liekeen kategoria funtzionala alegia.

Hartu, jo eta *eduki* aditzen bidez, egia direlako aurresuposiziorik gabe predikatzen diren ustezko atribuzioak ezartzen dira. Predikatu-osagarriak ez du ezaugarri subjektiboa izan beharrik.

(244) a. Erizaina medikutzat hartu dut kontsulta-gelara sartu naizenean
b. Zure anaia erretzailetzat neukan, baina tabakoari gorrotoa diola ikusi dut
c. Gizon hura ihazko literatur sariaren irabazletzat hartu dut

Izenondoen artean arazorik gabe isla dezakete prolatiboa bai izaki-mailako (245a), bai eta egoera-mailako predikatuak eratzen dituztenek ere. Areago, partizipioa ere, azal daiteke prolatiboari lotuta (245c).

(245) a. {Gozozaletzat/beldurtitzat} hartu dugu
b. {Gazte/ ahul/atsegin/lodi}tzat daukagu
c. Saioa bukatutzat emango dugu

Zenbait izenondo eta partizipioren kasuan, morfologia eta fonetikazko oztopoak azaltzen dira askotan. Horrela, *-rik* bukaera duten izenondo eta partizipioek ezin har dezakete prolatiboa eta ezta *-ta* bukaera duten partizipioek ere. Hala ere, partizipio soilari , ongi erants dakioke prolatiboa eta baita *gabe* edo *berri* posposizioei loturiko partizipioei ere.

(246) a. *{Pozik/gaixorik/prest/eserita/idatzirik}tzat daukagu
b. {Haserretzat /urdintzat} jo dugu
c. {Lehortzat/asketzat} hartu dugu
(247) a. {Bukatutzat/betetzat/zulatutzat} jo dugu
b. Arazo hori aztertu gabetzat neukan
c. Heldu berritzat jo ditut

Eman aditzak, murriztapen nabariagoak ezartzen dizkie bere predikatu-osagarriei, izan ere, aditz honek, subjektuak intentzionalitate osoaz objektu zuzenari ezartzen dizkion ezaugarriak adierazten baititu. Ondorioak uzten dituen adimenaren ekintza adierazten du beraz.[70]

(248) a. Saioa bukatutzat emango dugu, eta berriak kontatzera pasatuko gara
b. Zure poza nahikoa da geuk lana ordaindutzat emateko, horrela ba ez dizugu dirurik eskatuko
c. Demagun lana ordaindutzat

---

70 Trask-en (1981) iritziz, prolatiboa 'atzizki esiboa' ("essive suffix") liteke, *bihurtu, gelditu, egon* eta bestelako aditz atributiboekin agertzen den absolutibo mugagabea 'atzizki translatiboa' ("translative suffix") litekeelarik. *Eman* aditzaren kasuan, *bukatutzat ematea* eta *bukaturik egotea* gauza bera bada, atzizki honek funtzio translatiboa ere izan dezakeela onartu behar genuke.

d. *Jon haserretzat eman dugu

e. * Haur hau gozozaletzat eman dugu

Horrela, aditz hauek - *tzat* posposizioaren islapenak diren perpaus txikiak hautatuko lituzkete, posposizio hori bere aldetik izaki-mailako edo egoera-mailako predikatuen islapen hedatua delarik. *Eman* aditzak gainerakoek baino semantika-murriztapen gehiago ezartzen die osagarri modura hartzen dituen perpaus txiki horiei: norbaiten borondatearen ondorio izan daitezkeen ezaugarriak edo ondorioak adierazten dituzten predikatuak izan behar dute. Lehenago esan dugunez, horrek ez digu arazorik ekartzen Grimshaw-i (1991) jarriki, islapen hedatuan zehar buru hedatuaren semantika-ezaugarriak iragaten baitira.

2.3. Bigarren mailako predikazioa

Atal honetan, bigarren mailako predikatuen (hau da ezinbestekoak ez diren predikatuen) esparrua aztertuko dugu. Mota honetako predikatuak dira hain zuzen (*to consider* aditzak azpikategorizaturikoekin batera) GBaren arloan sakonkien aztertu direnak. Gramatika deskribatzaileen eremuan berriz, askotan ez dira kontutan ere hartu.

Horrenbestez, azpisail honetan GBaren esparruko azterketetan azpimarratu diren beste hizkuntzen datuak euskararen kasuan antzekoak ote diren ikusten saiatuko gara: sarreran, bigarren mailako predikatuen izenaz ezagun direnen ezaugarriak eta motak azalduko ditugu. Bigarrenik, subjektuari, objektuari eta datibo markadun argumentuei zuzenduriko predikatuen murriztapenak aztertuko ditugu, beste hizkuntzetarako eskaini diren datuek euskaraz ere antzekoak ote diren ikusteko. Azkenik, hiru predikatu-sail horien arteko konbinaketa onargarriak eta ezinezkoak agerian jartzen saiatuko gara.

Datu horiek guztiek, hirugarren atalean, predikatu adjunktu hauetarako txertaketa-maila zehatzak proposatzera eramango gaituzte: bigarren mailako predikatu guztiak VPan txertatzen direla defendatuko dugu. Subjektuari zuzenduriko predikatuak VP mailako adjunktuak liratekeen bitartean, objektuari zuzendurikoak, V' mailako adjunktuak lirateke.

2.3.0. Sarrera

Bigarren mailako predikazioaren ezaugarri bereizgarria, ezinbestekoa ez izatea litzateke, eta ezaugarri horren aztarna predikazio bikoitzaren adierazle litekeen zatiketa da.

(249) Entzuleak urduri irten ziren gelatik bonba-abisua jakinarazi zitzaienean
(i) Entzuleak gelatik irten ziren bonba-abisua jakinarazi zitzaienean
(ii) Entzuleak urduri zeuden irten zirenean

Bigarren mailako predikazioari buruzko lanetan[71] askotan azpimarratu denez, predikatu hauek perpaus matrizearen subjektuaz edo osagarri zuzenaz predika daitezke, baina inoiz ez zeharkako osagarriaz edo beste osagairen batez. Gainera, subjektua alde batera utzirik, semantikan oinarrituriko bi sail bereiz daitezke: 'predikatu deskribatzaileak' eta 'ondoriozko predikatuak'.[72]

Ondoriozko predikatuek aditz matrizearen ekintzaren burutzapenarekin batera azaltzen den ezaugarria edo egoera adierazten dute; predikatu deskribatzaileak ordea ekintza aurrera doan bitartean ekintza horretan parte hartzen duten argumentuetariko batek duen ezaugarri edo egoerari dagozkio. Subjektuari zuzendurikoak beti izaten dira deskribatzaileen sailekoak (224).

(250) Mirenek urduri hitz egin du
(i) Mirenek hitz egin du
(ii) Miren urduri zegoen hitz egiten ari zen bitartean

---

[71] Williams (1980), Rothstein (1983), Demonte (1988) (1991)

[72] 'Depictive predicates' and 'Resultative predicates' terminoak erabili dira ingelesa eta gaztelerari buruzko lanetan (Simpson, 1983, Rothstein, 1983).

Objektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatuak berriz, deskribatzaileak (251a) zein ondoriozkoak (251b) izan daitezke aditz matrizearen eta predikatuaren arteko semantika-harremanaren arabera.

(251) a. Sagarrak merke erosi zituen
(i) Sagarrak erosi zituen
(ii) Sagarrak merke zeuden erosi zituenean
b. Aneri ilea motz ebaki diote
(i) Aneri ilea ebaki diote
(ii) Horren ondorioz, Anek motza darama ilea

Zeharkako osagarriari zuzenduriko bigarren mailako predikatuak, ezinezkoak dira, lehenago esan dugunez (252).

(252) * Mireni liburu bat urduri oparitu diogu
(i) Mireni liburu bat oparitu diogu
(ii) Miren urduri zegoen liburua oparitu diogunean

Euskararen kasu zehatzari begira, bigarren mailako predikatuen artean, bi sail bereiz daiteke morfologiaren ikuspegitik,: alde batetik, *egon* edo *ibili* aditzen bidezko zatiketa onartzen dutenak (253) eta bestetik, *jo* edo *hartu* moduko aditzen bidezko zatiketa onartzen dutenak (254). Edozein modutan. esan beharrekoa da hiztun guztiek ez dituztela prolatiboa daramaten bigarren mailako predikatuak, hiztun horiek prolatiboaren erabilera *jo* eta *hartu* bezalako aditzek azpikategorizaturiko perpaus txikietara murrizturik baitute (ikus Rebuschi, 1982).

(253) Jonek urduri hitz egin du
(i) Jonek hitz egin du
(ii) Jon urduri zegoen hitz egiten ari zenean
(254) o.k/*Neskamea lapurtzat salatu zuten
(i) Neskamea lapurtzat jo zuten
(ii) Neskamea, salatu egin zuten

(253) moduko predikatuei hiztun batzuek inoiz ere komunztadura-markarik jartzen ez dizkieten bitartean, beste batzuek komunztadura-marka jartzen diete: partizipioaren kasuan, adibidez, hiztun batzuek (255a) modukoak esango lituzketen bitartean, beste batzuek (255b) bezalakoak esango lituzkete.

(255) a. Liburuak zeharo hondaturik itzultzen dizkigute beti
b. Liburuak zeharo hondatuak itzultzen dizkigute beti

Ingelesa eta gaztelania bezalako hizkuntzetarako bigarren mailako predikatuak 'egoera-mailakoak' direla proposatu izan da (Kratzer, 1988; Raposo & Uriagereka, 1990; Suñer,1990[73],...). Euskararen kasuan, hori egia litzateke komunztadura hartzeko aukera duten predikatu horietarako (hau da, *egon* aditzaren bidezko zatiketa onartzen dutenetarako); baina ez prolatiboa hartzen dutenetarako, horien artean izaki-mailako predikatuek ere onartuko bailukete bigarren mailako predikazioa.

Banaketa-irizpideei dagokienez, edozein aditzek edozein izenki-predikatu har dezakeela pentsa badaiteke ere, hori ez da benetan hala gertatzen. Izan ere, Demonte-k (1988) gaztelaniarako azpimarratu duenez, aditz gehienek onartzen dituzte subjektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatuak, baina osagarri zuzenari zuzendurikoak oso murriztuak dira, nolabaiteko azpikategorizatze-harremana balego bezala jokatzen baitute.

---

[73] Suñer-ek ez du zehazki esan egoera-mailako predikatuak izan behar dutenik eta bai perfektiboak izan behar dutela. Hala ere, ikusi atal honetako 2.2.2.2. azpisailean egin dugun eztabaidaren arabera, beste egileek perfektibitatearen adierazletzat hartzen dituzten ezaugariak geuretzat egoera-mailako predikatuen adierazleak direla.

2.3.1. Bigarren mailako predikatuen 'emankortasuna'

2.3.1.1. Subjektuari zuzenduriko predikatuen emankortasuna

Esana dugunez, bigarren mailako predikatu guztiek ez dute emankortasun bera azaltzen: objektuari zuzendurikoek, eta areago ondoriozkoek, askoz ere murriztapen nabariagoak azaltzen dituzte. Subjektuari zuzendurikoei dagokienez, subjektu horren sorrera-guneak ez du eraginik adjunktaturiko predikatuaren onargarritasunaren gainean, aditz iragankor, inakusatibo eta inergatiboen subjektuek ondorio berberak ematen dituztelarik (256). Aditz inakusatiboen kasuan, partitibo markadun subjektuak ere azal daitezke bigarren mailako predikatuarekin batera (256d).

(256) a. Jonek janaria pozik prestatu zuen
b. Mirenek pozik dantzatu zuen
c. Ander bileratik pozik irten zen
d. Inolako partaiderik ez zen pozik irten "Bake-konferentziatik"

Partitiboaren aukera hau esanguratsua da, lehenengo sailean aditzera eman dugunez, partitiboa kasua berezkoa izanik kasu hori hartzen duen argumentuari buru berak ezarri behar baitizkio kasua eta paper tematikoa, buru hori aditz nagusia delarik.[74]

---

[74] Euskararen kasuan partitibo kasu abstraktua ezezik *-rik* morfologiazko marka bera azaldu ahal izateak ere oso esanguratsua da: beste hizkuntzetarako zeharkako osagarriari zuzenduriko bigarren mailako predikatuak ez dira oanrgarriak eta euskararen kasuan gauza bera gertatzen dela ikusi dugu. Zeharkako osagarriaren preposizioak (edo euskararen

Edozein modutan, subjektuak hartzen duen θ-papera erabakikorragoa dela esan daiteke: (256) adibideetakoak bezalako 'egileek' edo 'temek' bigarren mailako predikatuak erraz har baditzakete ere, (257) adibideetakoak bezalakoek, 'esperimentatzaileak', 'leku-subjektuak' edo izaki bizigabeak izateagatik inolako borondaterik ezin azal dezaketen subjektuek ez dituzte inola ere onartzen bigarren mailako predikatuak.

(257) a.*Haur honek musika atsegin du liluraturik
b.*Amaiak ikasgaia pozik daki
c.*Haur horren gurasoek diru asko jubilaturik daukate
d.*Euriak kristalak kolpatzen zituen hotz
e. Jonek atea (giltzaz) ireki zuen lasai
f.*Giltzak atea ireki zuen apurtuta
g.*Mirenek larogei kilo pisatzen du lodi

Gracia Solé-ren arabera (1987), honelako aditzen subjektuen izaera tematikoa aztertzeko bi ezaugarriri begiratu ohi zaie: alde batetik, aditzaren [± estatibo] ezaugarriari eta bestetik, subjektuaren [±kontrolatzaile][75] ezaugarriari. Egile honek aditzera eman duenez, 'kontrol-ahalmena' da subjektuaren paper tematikoa erabakitzeko orduan esanguratsuen gertatzen

---

kausan, posposizioak) subjektutzat hartzen den argumentuaren eta bigarren mailako predikatuaren arteko m-komandoaren harremana ezinezko bihurtzen duela defendatu da ezintasun hori azaltzeko. Areago, zeharkako osagarria alde batera utzirik, edozein preposizio (/posposizio) daramaten argumentuak, ezin har daitezke bigarren mailako predikatuaren subjektutzat (**jostailu bat erosi dugu haurrarentzat gaixorik*). *-Rik* partitiboaren markak subjektu/predikatu harremana galerazten ez duela ikusi dugu eta beraz, benetako posposizoa ez dela eta zentzu horretan ergatibo edo absolutibo marken antzekoa litzatekeela pentsatu behar dugu.

75 [±Kontrolatzailea] ezaugarria agentibitatearekiko harremanetan dago, eta inperatibozko eta helburuzko perpausen onargarritasuna litzateke [+kontrol] ezaugarri horren adierazlea. Bestetik, [± estatibo] ezaugarria agerian uzteko, '*egitea* ' pro-VParen bidezko ordezkapena eta progresiboaren froga erabiltzen dira beste batzuen artean.

dena. Izan ere, hala aditz estatiboen artean nola aditz dinamikoen artean badaude bi mota horietako subjektuak eskatzen dituztenak.

Gainera, aditz batzuek, beren semantika-ezaugarriak direla eta, beti hartzen dituzte subjektu ez-kontrolatzaileak (*jakin, atsegin izan, eduki*); baina beste aditz batzuen (*apurtu, ireki, jarraiki..*) subjektuek ondorio desberdinak ematen dituzte kontrolaren ezaugarria agerian uzteko erabiltzen diren sintaxi-frogen aurrean subjektu horiek bizidunak edo bizigabeak direnean. Azken ideia horretan arazo teoriko interesgarri bat dago Gracia Solé-ren iritziz: paper tematikoak aditzak gune zehatz batzuei eta ez hiztegi-sarrera zehatzei ezartzen badizkie, subjektu [±kontrolatzaileak] har ditzaketen aditz hauek paper tematiko bera ezarri behar liekete beren subjektuei, subjektu horien ezaugarri [±biziduna] kontutan hartu gabe.

(258) a. Jonek mahaia kolpatu zuen haserre bizian
b. Haizeak etxea kolpatu zuen haserre (Adiera metaforikoa)

Geure iritziz, Naturaren indarrek bigarren mailako predikatuak hartzeko orduan azaltzen dituzten zailtasunak, ez dagozkio subjektu horren izaera ez-kontrolatzaileari, izaki bizigabe horiei semantikoki egoki dakizkiekeen 'egoera-mailako' predikatuak aurkitzeko zailtasunari baizik. Izan ere, adiera metaforikoa kontutan hartzen dugunean (258b), onargarriak dira bigarren mailako predikatuak. Hori Gracia Solé-ren teoriaren alde lihoake: subjektuaren [±bizidun] ezaugarri semantikoa ezin izan daiteke aditz berak subjektu desberdinei paper tematiko desberdina esleitzeko arrazoia.[76]

---

[76] Naturaren indarrak alde batera utzirik, *apurtu* eta *ireki* bezalako aditzen subjektuetarako paper tematiko desberdinak daude, egile honen iritziz, subjektuaren [±bizidun] ezaugarriaren arabera: aditz hauek ergatiboen sailekoak lirateke, horrela, hutsik daukate subjektuaren kokagunea bertara 'Egitura Lexiko-Kontzeptualean' sortzen den instrumetal argumentua igo daitekeelarik: *Atea ireki egin da / Giltzak atea ireki du.* Horrela ba, *giltzak* ergatiboa daraman arren 'instrumental' paper tematikoa jasoko luke. Bistan da osagai instrumental hori ez dagokiola A-egiturari, ez baita ezinbestekoa.

Baina, (257 e, f) adibideetako aditzen kasuan, subjektuek paper tematiko desberdinak hartzen dituztela dirudi: subjektu bizidunek egilearena eta bizigabeek instrumentala (ikus 75 oharra). Osagai horiek gainera, paper tematiko desberdina ezezik, sorrera-gune desberdina ere lukete: egileak 'A-egiturari' dagozkio eta instrumentalak 'Egitura Lexiko-Kontzeptualari', horrek D-egituran txertatuko direneko guneari dagokionez ere eragina duelarik.

(257a) eta (257c) bezalako 'ezagupenezko' eta 'sentimenduzko' aditzen kasuan, subjektuari 'esperimentatzailearen' papera egoki dakiokeela defendatu da orokorki literaturan (Garcia Solé, 1987).[77] (257c) eta (257g) bezalako 'posesiozko' eta 'neurriazko' aditzen kasuan berriz, 'kokapenaren' paperaz mintzatzen da.[78] Teoria Tematikotik abiatuta goiko adibideen gramatikaltasunik ezaren berri eman nahi bada, paper tematiko zehatz batzuk hartzen dituzten subjektuek bigarren mailako predikatuak hartzeko ezintasuna azaltzen dutela esan beharko litzateke. Honelako azalpena eman du Demonte-k (1988) gaztelaniaren kasuan ere. Hala ere, hobe litzateke, gure iritziz, orokorragoa eta esanguratsuagoa litzatekeen azalpena.

Grimshaw-en (1990) arabera, A-egituraren argumentu-mailakatzean oinarrituriko teoriak esanguratsuagoak izaten dira paper tematikoen deskribapen eta sailkapenak kontutan hartzen dituztenak baino, azken hauek gehienetan hiztegi-sarreren berezitasun modura azaldu behar baitituzte predikatuen jokaera bereziak. Grimshaw-en teorian, A-egituraren antolaketa, analisi tematiko eta aspektualaren arteko konbinaketatik lortzen

---

Bestetik, aditz inakusatibo hauek, badute baita bertsio iragankor bat, bertsio horretan egile (animatu) bat gaineratzen delarik: *Peruk atea ireki zuen (giltzaz)* . Bertsio horretan 'instrumentala' ere, ager daiteke, horrek subjektu animatuarena eta osagai inanimatuarena paper tematiko bera ez dela agerian uzten duelarik.

[77] Egile honek Fillmore (1971) eta Vestegaard (1977) aipatu ditu.

[78] Jakendoff (1972) aipatu du Gracia Solé-k ideia hori proposatu duen autore modura.

da:[79] edozein argumentuk, kanpo-argumentu modura jokatzeko, bai adierazpen tematikoan eta bai adierazpen aspektualean argumenturik kanpokoena izan behar du. Kanpo-argumentua izatea eta VPtik kanpo sortzea edo subjektu izatea, bereizi behar diren kontzeptuak direla defendatu du egile horrek: kanpo-argumentuaren izaera kontzeptu semantiko abstraktuagoa litzateke.

(257a, b, c, g,) adibideetan, 'egoerak' deskribatu dira eta beraz, inolako argumenturik ezin izan daiteke kanpokoena aspektuaren ikuspegitik eta ezin egon daiteke kanpo-argumenturik. (257d) adibidean, *euria* egilea edo kausa izan daiteke, eta beraz, maila tematikoan argumenturik kanpokoena da; aspektu-mailari dagokionez ere, bi azpigertaerez osoturiko gertaera bat ere badugu eta aspektu-maila horretan, *euriak* beteko luke kokagunerik kanpokoena.

Bestetik, (257e) eta (257f) adibideen erkaketatik ondoriozta daitekeenez, *giltza* , ez batean eta ez bestean, ez da kanpo-argumentua: (257e) adibidean, bi azpigertaerez (iharduera eta egoera-aldaketa) osoturiko gertaera dugu *Jonek* lehenengo azpigertaeran parte hartzen duelarik. Gainera, argumentu hori egilea izanik, maila tematikoan ere, kanpokoena da. Beraz, kanpo-

---

79 Grimshaw-en (1990) ikuspegian, paper tematikoak gertaera desberdinetako partehartzaileak semantikoki deskribatzeko moduak baizik ez dira, eta benetan garrantzia dutenak beraien arteko goratasun-harremanak lirateke.

Aspektu-adierazpenean bestetik, gertaera-egitura kontsideratu behar da, 'accomplishement' motako gertaera batek adibidez, bi azpigertaera desberdinez osoturik dago (*iharduera + egoera /edo egoera-aldaketa*). Iharduerari dagokion argumentua beraz, kanpokoena liteke. Horrela, kausak edo egileak, kanpokoenak dira bi maila hauetan eta kanpo-argumentuak izaten dira beti:

Maila tematikoa: (1 (2 (3)))

Aspektu-maila: (1 . . .)

Argumentu-egituraren goratasun-harremanak bi arlo horien elkarketaren bidez lortuko lirateke: kanpo-argumentuek bi maila horietan izan behar dute kanpokoenak.

argumentua izan behar du. (257f) adibidean berriz, egoera-aldaketa baizik ez dugu, eta beraz, A-egituran ezin egon daiteke kanpo-argumenturik.

Teoria honetatik abiatuta, ondoko baldintza proposa dezakegu:

(259) Edozein subjektu bigarren mailako predikatu bati elkar dakioke, kanpo-argumentua bada

Baina itzul gaitezen (256) adibideetara: (256a) adibidean subjektu egilea duen aditz iragankor bat (*prestatu*) daukagu. Horrela, A-egitura (x(y)) itxurakoa da, x kanpo-argumentua dugularik. (256b) adibidean iharduera bat (*dantzatu*) daukagu, gertaera-egituraren lehengo azpigertaerekin bat datorrelarik. A-egitura (x) motakoa da, argumentu bakarra kanpo-argumentua dela pentsatu behar delarik. Baina (256c) adibidearena, aditz inakusatiboa (*irten*) da. Honelako aditzen A-egitura ((x)) motakoa izan daiteke: maila tematiko eta aspektualaren arteko egokitasun osoa dago, tema bietan baita barne-argumentua.

Baina, (256c) adibide horren arabera, baliorik gabe geratzen da (259) baldintza, kasu honetan bigarren mailako predikatua hartu duen barne-argumentu bat baitugu. Hala ere, kontutan hartu beharreko beste zerbait ere badugu: aditz inakusatiboen subjektua objektuaren kokagunean sortzen da, eta beraz bazterturik geratuko litzateke objektuekin batera kontsideratuko bagenu. (259) baldintza beraz, (260) modura molda dezakegu:

(260) Edozein D-subjektu bigarren mailako predikatu bati elkar dakioke, kanpo-argumentua bada

Demonte-k (1991), subjektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatuen banaketa aditz matrizearen aspektu-irakurketatik independienteak direla defendatu du gaztelaniarako. Hori, bere iritziz, predikatu horiek VPtik kanpo txertatzen direlako gertatzen da. Geure ikuspegitik, euskararen datuen berri emateko, azalpen-maila altuagoa du aditz matrizearen gertaera-egitura kontutan hartzen duen Grimshaw-ena bezalako analisiak.

2.3.1.2. Objektuari zuzenduriko predikatuen emankortasuna

Objektuari zuzenduriko predikatuen murriztapenak subjektuarenak baino askoz ere nabariagoak dira: hasteko, aditz iragankorren multzo txiki batek baino ez ditu hartzen honelakoak; eta bigarrenik, aditz bakoitzak har ditzakeen predikatu-motak ere, oso murrizturik daude semantikaren aldetik, aditzaren eta bigarren mailako predikatuaren artean azpikategorizatze-harremana dagoela ematen duelarik (Demonte, 1988).

(261) a. Arrandegi horretan arraina {merke/ garbi/ egosita /*gazi /*samur} saltzen dute
b. Etxean arraina {*merke/*garbi/egosita/gazi} jaten dugu beti

Gogora dezagun, objektuaren kokagunean sortzen den aditz inakusatiboen argumentu bakarra ere, objektuekin batera aztertuko dugula (262) .

(262) a.Irakaslea {haserre/pozik/*merke/*gazi} irten da ikasgelatik
b. Jon {pozik/pobre/ triste/ konbentziturik/ *harrigarri} joan da Ameriketara

Ondoriozko predikatuak (263) har ditzaketen aditzen multzoa, eta halaber, aditz bakoitzak har ditzakeen predikatuen multzoa murriztuagoa da oraindik.

(263) a. Jantoki honetan afaria {gazi/*egin gabe} prestatzen dute beti
b. Aneri ilea {motz/*beltzaran/*kizkur} ebaki diote
c. Mikel {artzain/morroi/ *turista/*aktore} joan da Ameriketara

Bukatzeko, prolatiboa daramaten bigarren mailako predikatuek ere (hiztun askok ez onartzeaz gain), murriztapen handiak azaltzen dituzte.

(264) a. Harriak {tresnatzat/harmatzat/ *merketzat/*gogortzat} erabiltzen zituzten
b. Gizon hori {erruduntzat/ lapurtzat/ *irakasletzat/ *tristetzat} salatu zuten
c. *Mikel loditzat ikusi dugu

Osagarri zuzen horiek beti izaten dira temak eta gainera bigarren azpigertaeraren partaideak direnez, ez dira inoiz kanpo-argumentuak. Horrela, D-subjektuetarako lortu dugun baldintzak ez du balio D-objektuetarako.

Hala ere, badago ikuspegi horiek guztiak elkar ditzakeen baldintza bat: bigarren mailako predikatuak har ditzaketen subjektuen kasuan eta modu berean objektuen kasuan ere, badago maila tematiko eta aspektualaren arteko egokitasun osoa, lehenengo kasuan bi mailetan kanpokoenak diren argumentuak eta bigarrenean bi mailetan barne-argumentuak direnak baititugu . Kau hauekin erkatzeko, ikusi, (257) adibideetako aditzen kasu agramatikaletan ez dagoela inoiz bi mailen arteko egokitasunik, inoiz ez baitago iharduerari dagokion kausaziozko azpigertaerarik. Aditz horietan beraz, A-egitura beti izaten da ((x (y)) motakoa. Horrenbestez, bigarren mailako predikatuen txertakuntzaren berri emango lukeen baldintza, honelakoa izan liteke:

(265) Edozein argumentuk, bigarren mailako predikatu baten subjektu modura jokatu ahal izateko, goratasun-maila bera izan behar du maila tematikoan eta maila aspektualean.

2.3.1.3. Datibo markadun argumentuei zuzenduriko bigarren mailako predikatuak

Zeharkako osagarriari zuzenduriko bigarren mailako predikazioa ezinezkoa da euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz bezala (Rothstein, 1983; Demonte, 1988). Ezintasun horren arrazoia bi bide desberdinetatik bila daiteke: lehendabiziz, zeharkako objektu horien θ-papera, 'tema' edo 'egilea' ez denez, 'esperimentatzaile' papera duten subjektuen kasu berean egon gintezke. Aurreko sailetan egin dugun bezala Grimshaw-en ikuspegiari jarraiki, aspektu-maila eta maila tematikoa bat ez etortzea izan liteke arrazoi hori

Beste aukera, egitura-mailakoa liteke: agian datibo posposizioak (*-ri*), ergatiboak (*-k*) edo absolutiboak (*-a*) ez bezala, subjektu eta predikatuaren artean egon behar duen egiturazko harremanen bat galarazten du. Predikazioak subjektu eta predikatuaren arteko c-komando edo m-komandoaren harremana egotea eskatzen badu (Williams, 1980; Rothstein, 1983; Demonte, 1987, 1988), *-ri* posposizioak harreman hori galaraztea izan liteke arrazoia.[80]

(266) a.*Joni multa bat edantzat jarri zioten
b.*Haurrari mila pezeta eman zioten sarituta
c.*Mikeli ilea gaisorik erori zitzaion

---

[80] Demontek (1988) elkar c-komandatzearen baldintzaren bortxaketa defendatu du gaztelaniaz ikusi duen zeharkako osagarriari zuzenduriko predikazioa eraikitzeko ezintasuna.

#Enrique le regaló un juguete [PP a su hija] contenta

PP-a subjektu eta predikatuaren artean dagoen islapen nagusia da. Horrela, predikatuak ezin c-komanda dezake bere subjektua, eta subjektuak eta predikatuak elkar c-komandatzea liteke predikazioak bete behar duen oinarrizko eskakizuna.

d. Mikeli ilea oso gazte erori zaio
e.*Ehiztariak basurdeari zauriturik jarraiki zitzaizkion
f. Mikelek bere semeari oso gazte oparitu dio tren elektriko bat

Printzipioz badirudi euskarak ere gaztelaniak bezala jokatzen duela datibo markadun argumentuei zuzenduriko bigarren mailako predikatuei dagokienez. (266d) eta (266f) dira salbuespen bakarrak: konparatu (266c) eta (266d).

Adibide horietan, badirudi onargarritasuna *gazte* izenonodaren berezitasunen batengatik gertatzen dela. Bestetik, adibide horietan *gazte* izenondoak duen irakurketari begiratzen badiogu, *izan* loturazko aditzarekin hartu ohi duenaren antzekoa da eta ez *egon* aditzarekin hartu ohi duena: *Mikeli ilea gaztea zenean erori zitzaion / #Mikeli ilea gazte zegoenean erori zitzaion. Gazte* izenondo hori Clements-en (1988) arabera, prozesu-izenondoa da, beraz zahartzearen ohizko prozesuaren barne-egoera bat adierazten du eta bestelako izenondoak (hala nola gertaera-izenondoak) baino elkargarriagoak izan daitezke edozein motatako argumentuekin. Murriztapen semantikoen aurrean egon gintezke hemen ere.

Gaztelaniaz ere, onargarri samarrak dira *joven* izenondoa duten eraikuntzak: *A Mikel se le cayó el pelo joven / A Mikel se le cayó el pelo de joven.* Edozein kasutan, Suñer-ek (1990), bi eraikuntza horiek ezberdinak direla defendatu du: lehenengoa, bigarren mailako predikatutzat har daitekeen bitartean, bigarrena de+SN modura analiza daitekeen denborazko eraikuntza delarik.[81]

---

[81] Suñer-en (1990) arabera, preposizioa daraman eraikuntza anbiguoa da, subjektuari zein objektuari dagokiola uler baitaiteke. Bigarrena berriz, halabeharrez dagokio objektuari:

(i) La conocí de joven / La conocí joven

Preposizioa daraman elementu horren izenki-balioa erabakitzeko orduan, graduatzaileak hartzeko azaltzen duen ezintasunari begiratu dio

Gaztelaniaren inguruko lanetan interes berezia jaso du beste ideia bat, 'oinarrizko preposizioen' eta 'itxurazko preposizioen' arteko bereizketarena da. Gracia Solé-k (1987) adibidez, bigarren mailako predikazioaren aurrean bi preposizio-sail horiek azaltzen duten jokaera desberdina azpimarratu du:

(267) a.*Enrique le regaló un mecano a su hija contenta.
b. Juan encontró a Maria cansada

(267a) adibidean oinarrizko preposizio bat dugu, hau da D-egituratik existitzen den preposizio bat; baina (267b) adibidean, osagarri zuzena izen propioa denean soilik txertatzen den kasu-marka baten antzeko itxurazko preposizioa dugu. Prepozizioaren izaerari dagokio, orduan, bigarren mailako

---

(ii) Se enamoró {joven/muy joven/ jovencísimo}
/Se enamoró {de joven/*de muy joven/*de jovencísimo}

Bestetik, preposizioa daramaten sekuentziak independienteagoak dira eta denborazko eraikuntzez ordezka daitezke:

(iii) a. De joven, Luis se enamoró /*Joven, Luis se enamoró
b. Cuando era joven Luis se enamoró/ Cuando joven, Luis se enamoró

Horrek guztiak, de+SN eraikuntzak denborazko balioa duten klausula absolutuen artean sar daitezkeela ematen digu aditzera. Euskaraz ere, baditugu posposizioa daramaten *gaztetan, txikitan* eta antzeko adierazpideak. Ikusi euskaraz ere, posposizioa daraman sekuentziaren eta bigarren mailako predikatuaren jokaera desberdina dela:

(iv) a. Gazte ezagutu nuen (objektuari zuzendurikoa)
/Gaztetan ezagutu nuen (anbiguoa)
b. {Gazte/oso gazte/ gazteegi} maitemindu zen
/{Gaztetan/*oso gaztetan/*Gazteegitan} maitemindu zen
c. Gaztetan, Jon maitemindu egin zen
/*Gazte Jon maitemindu egin zen
/Gazte zenean, Jon maitemindu egin zen

predikazioaren aurrean argumentu horiek azaltzen duten jokaera desberdina. Euskaraz ere, oinarrizko posposizioak ditugula pentsa dezakegu, posposizio horiek c-komandoaren harremana galarazten dutelarik. Hala ere, *gazte* izenondoaren onargarritasuna kontutan harturik, ez dirudi agramatikaltasu_ naren arrazoia egitura izan daitekeenik.

Geure intuizio hori egiaztatzeko, begira diezaiogun, datibo markadun argumentu hori eratorria deneko testuinguru bati, predikatu kausatiboen inguruneari hain zuzen ere. Honelako eraikuntza kausatiboen D-egituran bi perpaus dagoela pentsa daiteke.[82] Perpaus menperatuaren aditza iragankorren sailekoa bada, bi argumentu izango ditu: (x(y)) motako argumentu-egitura izango dugu seguruenez. Aditz menperatua inergatiboa denean, argumentu bakarra izango dugu; (x) motako argumentu-egitura beraz. Edozein kasutan, bi perpausetan izango genuke kanpo-argumentu bat Grimshaw-en zentzuan, eta bietan perpaus bakuna bagenu, ergatiboa hartuko luke subjektu horrek. Menperatuaren aditz hori inakusatiboa balitz, ((x)) A-egitura genuke.

Subjektu horien kasu-markari dagokionez, perpaus bakunak bagenitu, aditz iragankorren eta inergatiboen subjektuek, ergatiboa hartuko lukete eta aditz inakusatiboen subjektuek, absolutiboa. Baina, perpaus horiek *arazi* aditzaren osagarri modura txertatzen direnean, bi aditzak inkorporatu egiten dira *dantzarazi, janarazi, ulertarazi* edo *joanarazi* emateko. Testuinguru horretan, argumentuek predikatu konplexu horren argumentuak bailiran hartzen dute dagokien kasua. Beraz, kasuok , egiturazkoak izan behar dute eta inoiz ez posposizioaren semantika-edukiari zuzenki loturik daudenetarikoak.

---

[82] Ikus Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia (1989) in P. Salaburu (ed.) *Sintaxi Teoria eta Euskara* ; 87- 109. E.H.U.-ko Argitarapen Zerbitzua. Baker-en (1988) "Paper Tematikoen Ezarketaren Uniformetasuna" delako oinarritik abiatu dira proposamen hori egiteko: *Amak eginarazi zuen [haurrak indabak jatea]* eta *Amak haurrari indabak janarazi zizkion* perpausetan harreman tematiko berberak daudela kontutan hartuta, bi kasuetan D-egitura berbera dugula pentsatu behar behar dugu.

(269) adibideak horren aldeko froga modura har litezke: euskalki batzuetan, eraikuntza kausatiboan sartzen den aditza inakusatiboen sailekoa denean, predikatu kausatibo konplexua nor-nork motakoa da, baina beste euskalki batzuetan, datiboaren beharra dute kausatibotzat interpertatzeko eta nor-nori-nok motako lahguntzailea hartzen du lortzen den predikatu kausatibo konplexuak (ikus EGLU-II, 1987).

(268) a. Irakasleak Mikeli guztien aurrean bakarrik dantzarazi dio
b. Amak haurrari indabak gogorik gabe janarazi zizkion
c.Bizitzak oso gazte ulertarazi zidan lanaren beharra
d. Irakasleak haurrei postrea zutik janarazi zien

(269) a. Amak haurra gaixorik joanarazi zuen eskolara
b. Amak haurrari gaixorik joanarazi zion eskolara

Horrenbestez, bi arrazoi egon daiteke bigarren mailako predikatu osagarriak eraikuntza kausatiboen datibo markadun argumentuen kasuan onargarri izateko.

1) Eraikuntza kausatiboetako datibo markadun argumentuak, kanpo-edo barne-argumentu izan daitezke, baina beti maila tematikoan eta aspektualean goratasun-maila bera azaltzen dutenetarikoak. Izan ere, aditz estatiboek ez dituzte onartzen eraikuntza kausatiboak.
2) Predikatu konplexu hauek eragiten dituzten eraikuntza kausatiboen datibo-markak ez dira D-egituraren harremanei dagozkienak, S-egiturarako pausoan kasu-iragazkia gainditzeko gertatzen diren prozesuen ondorioak baizik. Hortaz, datibo hauek S-egituran ezartzen diren itxurazko posposizioak lirateke (ikus 269 adibidearen bi aukerak) eta ez lukete galaraziko subjektu / predikatu harremana.

2.3.2. Bigarren mailako predikatuen arteko konbinaketak eta ordenaketak

Euskara ordena-askatasun handia duen hizkuntza izanik, askotan zail samar gertatzen zaigu perpausen oinarrizko antolaketa zein izan daitekeen antzematea. Hala ere, esapide batzuk beste batzuk baino neutroagotzat jotzen ditu hiztunak, eta horrelakoetan oinarrituta esan daiteke euskara SOV motako hizkuntza dela (ikus de Rijk, 1969 eta Osa, 1990 esate baterako). (270) adibideen ordena liteke perpaus horietarako neutroena.

(270) a. Aitak semeari autoa lasai utzi zion
b. Semeak aitari autoa apurtuta itzuli zion
c. Mireni ilea motz ebaki diote
d. Amak Aneri indabak gogorik gabe janarazi zizkion

(271) bezalako perpaus menperatuetan are nabariago da ordena horren zurruntasuna, atzizki menperatzaileari lotzeko beharrak aditz bukaeran jartzera behartzen gaituenez mintzagai eta galdegaiaren hautaketa alde batera geratzen baita.[83]

(271) a. [Aitak semeari autoa lasai uzteak] harrituta utzi gintuen
b. Ez genuen espero [semeak aitari autoa apurtuta itzultzea]
c. [Mireni ilea motz ebakitzea] erabaki genuen
d. Ez da egunero gertatzen [amak Aneri indabak gogorik gabe janaraztea]

Oinarrizko ordenan beraz, osagarri zuzena bigarren mailako predikazioaren subjektua denean baino (270b,c; 271b,c) ez zaizkigu agertzen subjektua eta predikatua jarraian. Subjektuari eta datibo markadun argumentuei

---

[83] Ikus Odriozola et.al. (1993) euskal Tze-clauses hauei buruz datu gehiago nahi izatekotan.

zuzenduriko bigarren mailako predikatuen kasuan, ez da horrelako jarraitasunik agertzen, eta areago, subjektu/predikatu sekuentzia lortzeko oinarrizko ordenaketa hori aldatzekotan, ondorio agramatikalak lortzen dira.

(272) a. ?Aitak lasai semeari kotxea utzi zion
b. *[Aitak lasai semeari kotxea uzteak] harrituta utzi gintuen
c. ?Amak Aneri gogorik gabe indabak janarazi zizkion
d. *Ez da egunero gertatzen [amak Aneri gogorik gabe indabak janaraztea]

Osagarri zuzenaren kasuan ez dirudi ezta jarraitasuna beharrezkoa denik (273).

(273) a. Guri taberna horretan ardoa bero atera digute
b. Mireni ilea motz ebaki diote

Baina bigarren mailako predikatu hori aditzetik urruntzen den neurrian, lortzen diren esapideak, ordenaketaren ikuspegitik gero eta markatuagoak direla esan daiteke (274).

(274) a. Guri taberna horretan bero atera digute ardoa
b. ?Ardoa taberna horretan bero guri atera digute
c. Ardoa taberna horretan atera digute guri bero
(275) a. Mireni motz ebaki diote ilea
b. Ilea Mireni motz ebaki diote
c. ?Ilea ebaki diote motz Mireni

Ordena kanonikotik ateratzen garenean, osagarri zuzena eta bigarren mailako predikatua aditzarekiko ukipenean daudenean lortzen ditugu ondoriorik onenak (274a, 275a). Edozein kasutan, ez da ezinbestekoa osagarri zuzen hori eta bigarren mailako predikatua ondoan egotea (273).

Mota desberdinetako predikatuen konbinaketari dagokionez, posible dugu subjektuari zuzenduriko predikatu bat eta objektuari zuzenduriko beste bat elkartzea (275a,b).

(275) a. Semeak aitari autoa apurtuta lasai itzuli zion
b. Amak Mireni ilea motz behartuta ebaki zion[84]

Baina, ezin elkar daitezke ez subjektuari ez objektuari zuzenduriko bi predikatu (276), ez eta azken kasuan bata deskribazailea eta bestea ondoriozkoa direnean ere (276c).

(276) a.*Haurra triste damuturik itzuli zen udalekuetatik
b.*Mikelek autoa apurtuta zahar itzuli zigun
c.*Amak bazkaria gozo itxuroso prestatzen du

Ordenari dagokionez, subjektuari eta objektuari zuzenduriko predikatuak batera ditugunean, aditzetik hurbilen egon behar duena subjektuari zuzendurikoa dela ikus daiteke (277, 278).

(277) a. Semeak aitari autoa apurtuta lasai itzuli zion
b.*Semeak aitari autoa lasai apurtuta itzuli zion
(278) a. Amak Mireni ilea motz behartuta ebaki zion
b.*Amak Mireni ilea behartuta motz ebaki zion

Datu hauek guztiak erabiliz, hirugarren atalaren 3.4. azpisailean, bigarren mailako predikatuak, euskaraz ere (gaztelaniaz eta ingelesaz bezala) VPan sortzen direla frogatzen saiatuko gara. Horretaz gain, eskuman adjunktatzen direla eta subjektuari zuzendurikoak VParen adjunktuak diren bitartean objektuari zuzendurikoak V'aren adjunktuak direla ere, ikusiko dugu.

Laburbilduz, bigarren mailako predikatuak, subjektuari edo objektuari zuzendurikoak izan daitezke. Bigarren mailako predikatu guztiek eskatzen

---

[84] Hiztun gehienek azaltzen dituzte beren zalantzak (275) adibideen aurrean. Baina zalantza horiek honelako sekuentziak arrazoi pregamatikoengatik gutxitan suertatzeari zor zaizkiola uste dugu. Horrela, (275) eta (276) adibideak konparatzen baditugu, 'pragamatikoki arraroak' diren (275) adibideen eta zeharo ez-gramatikalak diren (276) adibideen arteko aldea ikus dezakegu.

duten ezaugarri orokorra, egoera-mailakoak izatea edo bestela *-tzat* prolatibo marka eramatea da. Subjektuari zuzendurikoek beti izan behar dute deskribatzaileen sailekoak, baina objektuari zuzendurikoen artean, deskribatzaileak eta ondoriozkoak bereiz daitezke.

Aditz estatiboen subjektuek ez dute onartzen bigarren mailako predikaturik, horren arrazoia kanpo-argumenturik ez izatean dagoela defendatu dugularik. Objektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatuek, are murriztapen handiagoak azaltzen dituzte predikatu horiek aditzaren eta objektuaren semantikarekin elkargarriak izan behar dutelarik.

Datibo markadun argumentuen kasuan, orokorki onarturik dago ez dutela bigarren mailako predikaturik onartzen. Hala ere, datibo markadun argumentu hori D-egituran kanpo-argumentutzat har daitekeenean, hala nola eraikuntza kausatiboetan, posible dira horrelako predikatuak. Onargarritasunik eza horren kausa, beraz, semantikan baino egituran dagoela dirudi.

Predikatu bat baino gehiago elkartzea, posible da subjektuari zuzenduriko predikatu bat eta objektuari zuzenduriko beste bat direnean, baina ezin elkar daitezke subjektuari edo objektuari zuzenduriko bi predikatu, ez eta bata deskribatzailea eta bestea ondoriozkoa direnean ere.

Bukatzeko, subjektuari zuzendurikoa aditzetik hurbilago egoten da objektuari zuzendurikoa baino. Datu horietatik abiatuta, bigarren mailako predikatuetarako adjunkzio-tokiak proposatuko ditugu hirugarren atalean: guztiak sortzen dira VParen barnean, subjektuari zuzendurikoak VPari adjunktatzen zaizkion bitartean objektuari zuzendurikoak V' mailan adjunktatzen direlarik.

2.4. 'Adjektiboen' eta 'adberbioen'[85] arteko muga zehatzik eza eta predikazioa

2.2.1. sailean aditzera eman dugunez, euskarari buruzko lanetan (Goenaga, 1980; Rebuschi, 1982; EGLU-I, 1985) mugatzailerik edo komunztadurarik eza eta izenondo-izaera, identifikatu egin dira aho batez: hasteko,*-(r)ik* edo *-ta* enklitikoa daramaten partizipioak, bigarrenik, *-(r)ik* bukaera duten bestelako hiztegi-sarrera batzuk (*bakarrik, pozik, ixilik,...*); eta azkenik, *luze mintzatu, zintzo jokatu* eta *gogor eman* bezalako sekuentzietako hasierako elementuak.

Izan ere, flexio-markak (komunztadura, kasua,...) hartzeko ahalmena, hitzak kategoria desberdinetan sailkatzeko ohizko irizpideetariko bat da: horrelako markak har ditzaketen kategorien artean aditza, izena eta izenondoa ditugu; kategoria aldagaitzen artean, ohituraz aditzondoak eta preposizioak edo posposizioak aipatu ohi dira. Hala ere, esan beharrekoa da, forma-irizpide horiei soilik begiratzen badiegu, aditzondoen kategorian sintaxi-jokaeraz zeharo ezberdinak diren hitz-multzoak sartzen ditugula.[86]

---

[85] Hemen 'adjektibo' eta 'adberbio' hitzak EGLU-I gramatikaren zentzuan erabili ditugu; hau da, izenondo eta izenlagunei alde batetik eta bestetik aditzondo eta adizlagunei erreferentzia egiteko. Dena den, mugaren arazoak, izenondo eta aditzondoen kategorietan sartuko genituzkeenen kasuan suertatzen dira ia beti.

[86] Ikusi Bosque-ren (1989) aipamen hau:

' Consideremos esta secuencia, que cualquiera podría haber emitido porque no tiene nada de extraña:

También ayer caminaba muy lentamente, incluso mucho más despacio

De acuerdo con los criterios tradicionales, la única palabra que no es adverbio en esta secuencia es *caminaba.* Todas las demás pertenecen a la clase de los adverbios. Ahora bien, ¿Qué ganamos al decir que todas las palabras de esa

EGLU-I (1985) gramatikaren arabera, 'adberbioena' erlazio-hizkiz nahiz erlazio-hizkirik gabe aditzari laguntzen berezko zeregina duen hitz-klasea da, haren barnean bi azpisail egin daitekeelarik: 'aditzlagunak' (*zurekin, etxera, herritik, txostenari buruz, kaleetan zehar..*) eta 'aditzondoak' (*atzo, hor, berandu, bihar arte, hortik, horra,...*). Hala ere, aditzen modifikatzaileak ezezik, zenbait adberbio (*oso, txit, arras, biziki, ondo, ongi,...* maila-adberbioak hain zuzen) izenondoaren edo beste aditzondo batzuen modifikatzaileak ere, izan daitezke.

Bistan da, 'adizlagunak' eta 'aditzondoak' multzo berean sailkatzeko irizpidea funtzioarena izan dela eta ez gramatika-kategoriena. Izan ere, adizlagunen kategoria beti izaten da PP mailakoa, eta 'aditzondoen' artean ere, benetan gramatika-kategoria baten adierazleak izan daitezkeen hitz soilez gain, argi eta garbi adberbio-atzizkiak dituztenak eta baita sailkagaitzagoak diren atzizkiak dituztenak ere baditugu. Edozein modutan, 'aditzondoen' berezko zeregina izenak laguntzea litzateke.

Adberbioak nahitaezkoak ez izatea da gramatika horren egileek azpimarratu duten beste ezaugarri bat. Hala ere, batzuetan, aditzak aditzondo edo adizlagun hori ezinbestean eskatzen duela dirudi.

(274) a. Mikel ongi dago / *Mikel dago
b. Mikel etxean dago /*Mikel dago

Bestetik, bigarren mailako predikatuak ere, aukerakoak dira, baina beren gramatika-kategoria erabakitzeko orduan ez dugu kontutan hartzen

---

oración menos una son adverbios? La gramática de *incluso*, la de *lentamente* y la de *ayer* tienen verdaderamente muy poco en común. Si conseguimos describir detalladamente sus diferencias y logramos remitir esos comportamientos a categorías distintas, importa poco que decidamos o no al final postular una hipercategoría que las recubra a la que llamemos "adverbio"... ' (25.or.)

aukerakoak izate hori: (275) adibideetan, esate baterako, *merke* eta *artzain* aukerakoak dira eta hala ere, hurrenez hurren izenen eta izenondoen kategoriakoak direla esango genuke.

(275) a. Sagarrak (merke) erosi genituen Gernikako merkatuan
b. Jon Ameriketara (artzain) joan da

Bukatzeko, aditzondoak, posposizioak, juntagailuak eta interjekzioak bezala, aldagaitzak direla azpimarratu dute aipaturiko egileek. Dena dela, aditzondoen aldaezintasuna ez da beste kategoriena bezain estua, zeren batzuek atzizkiren bat har baitezakete. Adberbioen aldaezintasuna batez ere mugatzailea, komunztadura-markak eta aditzarekiko komunztadura duten argumentuek hartzen dituzten ergatibo, absolutibo eta datibo marka hartzeko ezintasunari dagokio.

Baina, morfologia eta ezinbestekotasunari ezezik banaketari eta sintaxi-jokaerari ere begira dakioke. Saltarelli-ren (1988) gramatikan, banaketan oinarrituriko 'izenondoen' eta 'aditzondoen' definizio zehatza ikus daiteke euskararako. Hona hemen definizio horien itzulpena:

(i) Izenondoa: Izenaren eskuinean kokaturik dagoen eta determinatzaile bat eta kasu-marka bat daraman edozein elementu. *Oso* edo *hain* bezalako graduatzaile batekin azal daitezke. Aditzondoek bezala, konparaketazko eraikuntzetan parametro modura joka dezakete, *-ago, -en* edo *-egi* atzizkietariko bati loturik daudenean.

(ii) Aditzondoa: Inolako erlazio-atzizkirik onartzen ez duen eta aditzaren morfologia kontrolatzen ez duen aditzaren edozein modifikatzaile. Izenonodoek bezala, zenbait aditzondok (denborazko eta moduzko aditzondoek) graduatzaile bat azal dezakete ezkerrean. Gainera, *-ago, -en* edo *-egi* atzizkietariko bat hartuz, konparaziozko eraikuntzetan azal daitezke parametro gisa.

Horrenbestez, bi kategoria hauek bereiziko lituzkeena, determinatzailea hartzeko aukera eta izena edo aditza (edo izenonodoa) modifikatzea litzateke. Gainerakoan, graduatzaileak eta konparaziozko eraikuntzak berdin azal

daitezke izenondoekin edo (gure kasuan interferentzian sar litezkeen moduzko) aditzondoekin.

Horretaz gain, aditzek, izenondoek eta zenbait izenek predikatuak eratu ohi dituzte. Bestetik, izenek argumentuak era ditzakete.[87]Determinatzaileari dagokionez, izenaren modifikatzaile modura jokatzen dutenean (hau da argumetnu baten parte direnean) baizik hartzen ez dutela gaineratu behar litzateke, izenki-predikatu modura jokatzen dutenean, *-(a)k* komunztadura-marka dugu eta ez determinatzailea (ikus 2.2.2.1.3. azpisaila), erakusleak edo bestelako determinatzaileak ezinezkoak direlarik.

Ondorioz, izenondoen ohizko funtzioa predikatuak eratzea edo izenak modifikatzea den bezala, aditzondo eta adizlagunen ohizko funtzioa modifikatzaileena da. Hala ere, inesibo markadun PPak *egon* aditzarekin azaltzen direnean ondorio txarrak ematen dituzte (276) ezabatutakoan eta gainera subjektuaren semantika erabakitzen dute (277) (ikus 2221 azpisaila). Beraz, izenki-predikatuak eratzen dituztela esan daiteke: ohizko gramatiken arabera, adizlagunak dira hala ere.

(276) a. Mikel langabezian dago
b.*Mikel dago
(277) a. Giltza poltsikoan dago
b.*Giltza langabezian dago

Areago, PP hauek laguntzailetzat jo dugun *izan* aditzarekin (278) eta beste aditz batzuekin ere (279), lehenengo edo bigarren mailako predikatu modura. Predikatu horien banaketa bera dutela esan daiteke beraz.

---

[87] Predikatuek eta argumentuek islapen nagusiak dira. Argumentuek θ-paperak jaso behar dituzte predikatuen buruetatik eta predikatu-buru horiek hiztegitik zehazturik daramatzaten θ-paperak esleitu behar dituzte. 'Modifikatzaileek', berriz, ez dute parterik hartzen θ-teorian ez baitute paper tematikorik esleitzeko ez eta horrelako paperik hartzeko beharrik ere. Bestetik, modifikatzen diren horiek ez dute islapen nagusiak izateko beharrik.

(278) a. Mikel {langabezian /kalean} da
b. Giltza poltsikoan da

(279) a. Mikel kalean ikusi dut
b. Mikel kalean geratu da
c. Haurra gure aurrean jarri da
d. Haurrak kalean utzi ditugu
e. Giltza poltsikoan dut
f. Giltza mahai gainean ikusi dut

Soziatibo marka daramaten adizlagunek, inesiboa daramatenen antzera jokatzen dute eta beraz, hauek ere izenki-predikatuak eratzen dituztela esan dezakegu.

(280) a. Ander zurekin dago
b. Ander zurekin da
c. Ander zurekin ikusi dugu

Beste PP batzuek modifikatzaileak eratu behar dituzte ezinbestean, predikaturik ezin era baitezakete. Ikus adibidez, (281) adibidearen subjektuaren semantika aditzak erabakitzen duela eta ez kausazko PPak: *gertatu* aditzaren subjektuak gertaera bat izan behar du eta liburuak ez dira gertaerak.

(281) a. Istripua eguraldi txarragatik gertatu zen
b. *Liburua eguraldi txarragatik gertatu zen

Konparatu (281) adibideak eta *gertatu* aditzaren atribuziozko erabilera duten (282) esapideak: azken hauetan subjektuaren semantika erabakitzen duena izenki-predikatua da.

(282) a. Hitzaldia aspergarria gertatu zaigu
b. Liburua aspergarria gertatu zaigu
c.*Giltza aspergarria gertatu zaigu

Laburbilduz, adizlagunak, PPak dira gramatika-kategoriari dagokionez eta beren artean, predikatuak eta modifikatzaileak bereiz daitezke sintaxi-

jokaerari begira. Horrela, 'adizlagun' berba ez da baliogarria ez gramatika-kategoria modura ez eta sintaxi-jokaera bakarra adierazteko ere: aditzarekiko komunztaduran parte hartzen duten absolutibo, ergatibo eta datiboa eta mugagabea baino ez duten partitibo eta prolatiboa alde batera utzirik geratzen diren deklinabide-markak erabiliz eratzen diren osagaiei errefentzia egiteko balio du besterik gabe.

Aditzondoen forma-sailkapenari dagokionez, aditzondo bakunak, eratorriak, konposatuak, aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak eta esaera adberbialak bereizi dituzte EGLU-I gramatikan.

Puntu honetan gehien interesatzen zaizkigunak aditzondo eratorriak eta aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak dira, horiexek baitira geure iritziz predikazio-harremanetan parte hartzeko ahalmenagatik, lan honen edukiei arazoak ekarri dizkienak: hasteko, aditzondoak eman ditzaketen atzizkiak, *-ki, -ka, -ro, -to , -ik, -kari* eta *-la* direla eman dute aditzera. Bestetik, partizipioek perpaus adberbialak emateko *-ta* eta *-(ri)k* atzizkiak har ditzaketela gaineratu dute. Horrela, (283) multzoko adibideak eskaini dituzte:

(283) a. *Gizonki, ohorezki, ederki, ibilki*
b. *Harrika, aldizka, gordeka, haraka*
c. *Astiro, berriro, betiro*
d. *Ederto, txarto*
e. *Ixilik, onik, bakarrik, zutik, pozik, biluzik, alferrik, hutsik*
f. *Igandekari*
g. *Horrela, bestela*
h. *Apurtuta, eginik*

Adibide horietako atzizki gehienak (*-ki, -ro, -to, -la*) honelako sarreretan baino ez dira azaltzen. Gainera, atizki horiek daramatzaten hitzek aditzaren gertaera modifikatu ohi dute gertaera horren modua zehaztuz (284). Beraz, aditzondoak eratzeko atzizki eratorletzat hartu behar dira zalantzarik gabe.

(284) a. Lan hori astiro egin behar da
b. Horrela lortu duzu daukazun ospea

c. Ederki idatzi duzu azaldu dizugun ideia

Hala ere, aditzondotzat hartu ditugun horien artean, batzuek izenki-predikatuak ere eman ditzakete, izenondoek bezala, eta beste batzuek ez dute horrelako ahalmenik.

(285) a. Miren zintzoa zela esan nizun eta hala da
b. Ander gaixorik zegoen baina dagoeneko ongi dago
c. * Bazkaria astiro {da/dago}

Honelako kasuetan, bi irtenbide dugu: alde batetik, forma-irizpideei eman diezaiekegu indar handiagoa eta horrelako hitzak aditzondoak direla mantendu, aditzondoek ere izenki-predikatuak era ditzaketela onartu beharko dugularik. Beste muturrean, sintaxi-jokaerari eman diezaiokegu garrantzi handiagoa eta izenki-predikatuak era ditzaketen hitz horiek aditzondoen sailetik atera.[88] Geure iritziz, morfologia horren garbia denean, ez dago zalantzarik: aditzondoen aurrean gaude. Horrela ba, zenbait aditzondok aditzaren gertaeraren modifikatzaile modura jokatzeko gaitasunaz gain izenki-predikatuak eratzeko ahalmena dutela onartu behar dugu.

-Ka atzizkia daramaten hitzei dagokienez, (283b) multzokoak ere aditzondotzat har daitezkeela esan dezakegu, beti erabiltzen baitira aditzaren gertaera modifikatzeko (286).

(286) a. Haur horiek harrika agurtu gaituzte
b. Aldizka joaten gara Anderren etxera

---

[88] Antzeko planteiamendua egin du Bosque-k (1989) gaztelaniaren (i) eta (ii) adibideen aurrean.

(i) Juan está estupendamente
(ii) *Juan está lentamente

Bosque-ren iritziz, egokiena aditzondoak ere izakiez predika daitezkeela onartzea da.

Hala ere, 2.2.2.1.4. azpisailean ikusi ditugun *keinuka* bezalakoek, ez dituzte gertaerak modifikatzen: iharduerak adierazten dituzten predikatuak eratzen dituzte, lehenengo edo bigarren mailako predikatu modura jokatzen dutelarik (287).

(287) a. Jon keinuka dago
b. Jon keinuka ari da
c. Jon keinuka ikusi dugu

Horrela, ez dago garbi *-ka* bukaera honek aditzondoak eratortzen dituen ala ez eta posposizioa dela esango dugu kategoria erabaki gabe. Honelakoak beraz, PPtzat hartuko ditugu eta testuinguru bakoitzean, predikatuak edo modifikatzaileak eratzen ote dituzten ikusi beharko dugu, adizlagunen kasuan egin dugun bezala.

-Ik bukaera duten (283e) saileko hitzei dagokienez (*ixilik, onik, bakarrik, zutik, pozik, biluzik...*), hasteko, ez dago inola ere garbi bukaera horrek aditzondoak ematen dituenik.[89] Bestetik, sintaxi-jokaerari begiratzen badiogu, honelakoek ez dute inoiz eratzen aditzaren gertaeraren modifikatzailerik ez eta izenaren modifikatzailerik. Beti izenki-predikatuen testuinguruan azaltzen direla ikusiko dugu.

(288) a. Peru pozik {da/dago}
b. Ander biluzik irten da kalera

---

[89] EGLU-I gramatikan bukaera horrek zenbaki-komunztadura ez onartzean oinarritu dira hitz horiek aditzondotzat hartzeko. Baina, beste testuinguru batzuetan, komunztadura duten erro bereko hitzak ditugu (*Ane oso ixila da / filme hauek oso onak dira / ez dira bi; bakarra da*). Horrenbestez, *Mikel lodia da / Mikel lodi dago* bikoteak ditugun bezala, kasu honetan ere loturazko aditzaren arabera komunztaduradun edo komunztadurarik gabeko aldaerak azaltzen dituzten hitzak ditugula pentsa dezakegu. Komunztadurarik gabeko testuingurua beti izaten da 'egoera-mailako' predikatuena: egoera-mailako predikatuek islatzen duten Asp buruan predikatu-buruari batzuetan -Ø atzizkia eta beste batzuetan *-ik* atzizkia eransten ziola pentsa genezake.

c. Haurrak bakarrik egin du lo gaur

(288b,c) adibideetan bigarren mailako predikatuak ditugu eta beraz, garbi dago *biluzik* eta *bakarrik* perpaus horien subjektuei buruz predikatzen direla eta ez dutela gertaera modifikatzen. Areago, batzuek (*ixilik, hutsik, pozik*), zenbait aditzekiko morfologiazko harreman garbia dute (*ixildu, hustu, poztu*), aditz horiek bezala nolabaiteko argumentu-egitura edukitzea logiko samarra dirudielarik. Nolabaiteko argumentu-egitura izatea bestetik, izenondoen kasuan eta ez aditzondoen kasuan gertatu ohi den zerbait da.

Horrenbestez, hitz hauen sintaxi-jokaera, izenondoen ohizkoa da, eta morfologiaren aldetik ere, ez dugu aditzondotzat hartzeko arrazoi zehatzik, komunztadurarik eza ez bada: komunztadurarik eza, euskaraz izenki-predikazioaren adierazlea baino salbuespena dela esan daiteke. Ondorioz, hitz hauek nolabaiteko gramatika-kategorian sartzekotan, izenondoen kategorian sartuko genituzke.

Bukatzeko *-ta* edo *-(ri)k* bukaera duten partizipioen kasua dugu. Partizipio arrunten (*apurtu, egin*) kategoria V dela esan behar da edo agian Asp kategoriakoak direla esan genezake, partizipioa aditz-erroari (V) aspektu-bukaera gaineratuz lortzen dela onartzen badugu. Edozein kasutan, Asp aditzaren islapen hedatua litzateke eta islapen horretan zehar kategoria mantenduko litzateke (Grimshaw, 1991). *-Ta* edo *-(r)ik* bukaerak ere Asp bukaera bezala sintaxian gaineratzen direla pentsa dezakegu bukaera hori daramatenek aditzaren gertaerari dagozkion osagarriak behintzat eraman ditzaketela kontutan hartuta.

(289) a. Bazkari hau maitasun handiaz prestaturik dago
b. Hibai honetan igeri eginda nago

Ondorioz, partizipio hauen kategoria lexikoa V dela defendatuko dugu, eta horrekin batera, V horrek AspP (*-tu, -i*) eta PP (*-ta,-(r)ik*) islapen hedatuak dituela ere onartuko dugu. Modu berean komunztadura daraman partizipioaren kasuan, aditzaren AspP islapen hedatua dugula eta komunztadura islapen horretan gertatzen den espezifikatzaile-buru harremanari dagokiola proposatuko dugu.

Areago, partizipio horiek perpaus absolutu adberbialak eratzen dituztenean, IP edo CP mailetako islapen hedatuak izan daitezke: aditzaren argumentu guztiei kasua esleitzeko behar den aparailu funtzionala islatzen dute. Horrela, aditzondoek bezala aditz nagusiaren gertaera modifikatzen duena, perpaus osoa da eta ez partizipio soila.[90]

(290) Mikeli behar dituen azalpen guztiak emanik, berak egingo du lana

Horrela, partizipio hauetarako ez dugu izenondo eta aditzondoen kategorietara jotzeko beharrik: honelakoen kategoria lexikoa V da, beren artean dauden ezberdintasunak bakoitzak islatzen dituen islapen hedatuei dagozkielarik.

Bukatzeko, inolako marka morfologikorik ez duten eta 'izenondo' edo 'aditzondo' estatus zalantzagarria duten *garbi, hotz, merke, azkar* eta antzekoei dagokienez, sintaxi-jokaerari begitzeak dirudi esanguratsuena: *hotz* eta *merke* izakiez predikatzen direla dirudi (291) adibideetan, eta beraz, izenondotzat hartuko ditugu.

(291) a.Ura hotz edan dugu
(i) Ura edan dugu
(ii) Ura hotz zegoen
b. Liburu hauek oso merke erosi ditugu
(i) Liburu hauek erosi ditugu
(ii) Liburuak oso merke zeuden

---

[90] Erlatibozko perpausek izenlagunek bezala izenak modifikatzen badituzte ere, ez dugu esaten *-(e)n* menderagailua edo menderagailu hori daraman aditza 'adjektiboen' kategoriako denik. Modu berean, (290) bezalako perpausen funtzioa adberbiala izan arren, ez dugu *-(r)ik* atzizkia edo atzizki hori daraman partizipioa kategoriaz adberbioak direla esan beharrik.

Azkar eta *garbi* hitzen funtzioa, ordea, zalantzagarriagoa da: (292) adibideetan predikazioen zatiketa egitean, esangura aldatzen dela edo ondorio txarrak ematen dituztela dirudi.

(292) a. Irakasleak garbi hitz egin du
≠ (i) Irakasleak hitz egin du
(ii) Irakaslea garbi zegoen
b. Mikelek azkar margotu du etxea
≠ (i) Mikelek etxea margotu du
(ii) *Mikel azkar zegoen/Mikel azkarra zen

Dena dela, gogoratu 2.2.3. azpisailean honelako hitzen jokaera ikusi dugula: ez dute *egon* aditza onartzen baina bai *izan* aditzaren adizki perfektiboak edo *ibili* aditza (293). Horrenbestez, izenondotzat har litezke hauek ere.

(293) a. Irakasleak garbi hitz egin du
(i) Irakasleak hitz egin du
(ii) Irakaslea {garbia izan da /garbi ibili da}
b. Mikelek azkar margotu du etxea
(i) Mikelek etxea margotu du
(ii) Mikel {azkarra izan da/azkar ibili da}

Laburbilduz, euskara aztertu duten hizkuntzalariek (Goenaga, 1980; Rebuschi, 1982; EGLU-I, 1985) adberbiotzat (aditzondo eta adizlagunak) jo dituzten hitz batzuen kategoria zalantzan jarri dugu azpisail honetan, zenbaki-komunztadurarik eza hitzen kategoria erabakitzeko nahikoa ez dela argudiatuz.

Horrela, adizlagunen kategoria PP dela defendatu dugu, sintaxi-jokaeraren aldetik batzuetan predikatuak eta beste batzuetan modifikatzaileak eratzen dituztelarik. Euskal hizkuntzalariek aditzondotzat hartu dituztenen artean ere, zenbait bereizketa egin behar izan dugu. Hasteko, morfologiaren aldetik hitz-klase berezi bat eratzen duten *-to, -ki* eta *-la* atzizkiak daramatzaten hitzak

bezalakoak aditzondotzat hartu ditugu, zenbait kasutan izenki-predikatuak eratzen dituztela onartzeko beharra ikusi badugu ere.

Bigarrenik, *-ka* bukaeraren izaera zalantzagarriagotzat jo dugu. Hala ere, *saltoka, oihuka* eta *keinuka* bezalakoek beti ihardueraz adierazten dituzten predikatuak eratzen dituztela ikusi dugu eta beraz zalantzagarriak dira aditzondo modura. Horrela *-ka* bukaera hau posposiziotzat hartu dugu besterik gabe kasu bakoitzean PParen funtzioa predikazioa edo modifikazioa den erabaki beharko delarik.

Hirugarrenik, *ixilik, bakarrik* eta *biluzik* bezalakoak eta *hotz edan, merke erosi, garbi hitz egin* eta *azkar margotu* bezalakoetan azaltzen direnak ere, izenondotzat hartu ditugu izenki-predikatuak eratzen dituztela aintzakotzat hartuz.

Bukatzeko, *-ta* eta *-rik* partizipioak Ven islapen hedatuak direla defenditu dugu beraietarako aditzondo kategoriaren beharrik ez dugula agerian jarriz.

2.5. Laburbilpena

Atal honen izenburua 'Euskal predikazioaren deskribapena' den arren, geure azterketa izenki-predikaziora mugatu dugula azpimarratu behar dugu ezer baino lehenago. Horrenbestez, izenki-predikazioaren eta adizki-predikazioaren arteko muga finkatzeko zenbait irizpide eskaini behar izan ditugu.

Bai izenki-predikatuak eta bai adizki-predikatuak, nolabaiteko argumentu-egitura duten buru lexikoen islapen nagusiak (islapen perfektuak) dira baina adizki-predikatuak beren argumentu guztiei kasua esleitzea baimenduko lieketen islapen hedatuak garatzeko gai diren bitartean, izenki-predikatuek orokorki ezin gara dezakete beren subjektua kasuaren bidez zilegiztatuko duen kategoria, edo bestela, aukera hori dutenean, subjektu/predikatu harremana, subjektua zilegiztatzen deneko maila baino beherago ezartzen da. Gainerakoan, gramatika-kategoria guztietako hiztegi-sarrerek era ditzakete izenki-predikatuak.

Edozein modutan, ohituraz izenki-predikazioaren adierazletzat hartu izan den subjektu eta izenki-predikatuaren arteko zenbaki-komunztadura (eta zenbait hizkuntzatan jenero-komunztadura ere), euskararako oso esanguratsua ez dela ikusi dugu, izenki-predikatutzat hartu ditugun askok zenbaki-komunztadura egiteko ezintasun osoa baitute. Hortaz, aldagaitzak diren posposizio eta aditzondo batzuek ere izenki-predikatuak era ditzaketela jarri dugu agerian.

Bestetik, predikatu dinamikoak eta predikatu estatiboak bereizi ohi dira gramatiketan, izenki-predikatuak estatiboen sailekoak direla defendatu ohi delarik. Azterketa honetan, iharduerak adierazten dituzten zenbait predikatu dinamikotzat hartu behar badira ere banaketari eta subjektuari kasua esleitzeko ezintasunari dagokienez izenki-predikatutzat har daitezkeela ikusi dugu.

Euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, 'lehenengo mailako predikatuak' eta 'bigarren mailako predikatuak' bereiz daitezkeela ikusi dugu: lehenengo mailakoak, beren argumentu guztiak kasuaz hornitzeko behar den aparailu funtzionala islatzen dutenak eta horrelako aparailua isla dezaketen aditzen osagarri modura txertatzen direnak dira. Bigarren mailakoak berriz, aukerakoak dira, eta beraz, adjunktutzat hartzen dira.

Gainera, izenki-predikatuek azaltzen dituzten murriztapenak ulertu ahal izateko ezinbestekoa den bereizketa baten berri eman dugu: badaude beren argumentu-egituran adierazten duten gertaerari osotasuenan dagokion e-argumentu bat dutenak, argumentu horrek AspP kategoria funtzionala islatzea baimentzen dielarik. Horrenbestez, AspP kategoria islatzen duten predikatuei 'egoera-mailako predikatuak' deritze eta kategoria hori islatzen ez dutenei, 'izaki-mailako predikatuak'.

X'-Teoriaren adarkaketa bikoitzaren oinarria onartzen badugu, izenki-predikazioa azaldu ahal izateko atribuziozko aditzen osagarri modura txertatzen dena predikatu soila izan gabe predikatua barnean duen perpaus txiki bat izan behar duela ere ikusi dugu.

Atal honetan, *egon* aditzaren osagarri modura txertatzen diren perpaus txikiek 'egoera-mailako predikatuak' eduki behar dituztela eta predikatu horiek perfektiboak zein inperfektiboak izan daitezkeela frogatu dugu. Beste lan batzuetan (Rebuschi, 1982 adibidez), *egon* aditzarekin doazen predikatuek perfektiboak izan behar dutela defendatu da, eta beraz geure ondorioak ideia horren aurkakoak dira neurri handian. *Ibili* aditzak *egon* aditzaren antzera jokatzen duela ere ikusi dugu, bere osagarriei egoera-mailako predikatuak edukitzeaz gain subjektuari esperimentatzaile edo egilearen papera esleitzea ere eskatzen dielarik.

Izan aditzak, ez dio inolako murriztapenik ezartzen bere osagarriari, egoera-mailako zein izaki-mailako predikatuekin edo perpaus txikiekin eta adizki-predikatuekin zein izenki-predikatuekin joan daitekeelarik. Hortaz, aditz horrek adiera existentzialean eta identifikaziozko adieran aditz lexiko modura jokatzen badu ere, ezaugarrien esleipena egiten duenean, laguntzaile modura jokatzen du, adizki-predikazioan bezala. Horren froga

garbienetariko bat bestelako laguntzailekin txandakatzeko ahalmena da. Ondorioz, *izan* aditzaren kasuan ez dugu osagarri modura perpaus txiki bat duen loturazko aditz bat izenki-predikatu baten islapen hedatua baizik. Alegia, perpaus oso bat daukagu.

Lehenengo mailako izenki-predikazioan parte har dezaketen gainerako aditzei dagokienez, aldaketa eta iraupena adierazten duten aditzen sailak ere aztertu ditugu. Izaki-mailako eta egoera-mailako ezaugarriak predika daitezkeen bezala izaera-aldaketak eta egoera-aldaketak ere adieraz daitezkeela ikusi dugu: *jarri, ipini, geratu, gelditu* eta *utzi* aditzek egoera-aldaketak adierazten dituzte eta beraz egoera-mailako perpaus txikiak eskatzen dituzte osagarri modura. *Bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzek berriz, izaera-aldaketak adierazten dituzte eta izaki-mailako perpaus txikiak eskatzen dituzte osagarri modura.

Bestetik, benetako aldaketa adierazten ez badute ere, nolabaiteko gertaeraren bidez lortzen den ezaugarria behintzat adierazteagatik sail honetan sartu ditugun *gertatu, suertatu, azaldu* eta *agertu* aditzak ere aztertu ditugu: hauek ere egoera-mailako predikatuak behar dituzte baina gainera, argumentu 'hartzaile' bat duten predikatuak izatea eskatzen diete. Bukatzeko *iraun* iraupenezko aditzaren erabilera aztertu dugu, egoeren iraupena adierazten duela eta beraz osagarri modura egoera-mailako predikatuak eskatzen dituela ikusi dugularik. Izaki-mailako predikatuek adierazten dituzten ezaugarrien iraupena *izan* aditzaren bidez adierazten dela ere, ikusi dugu.

Osagarri modura perpaus txikiak hartzen dituzten aditzen artean, iritzi-aditzak ere (*iritzi, irudi(tu) eman*) badaude. Aditz horiek dituzten aldaera ugariak aztertu eta guztiek osagarri modura perpaus txikiak edo perpaus konpletiboak har ditzaketela ikusi dugu. Perpaus txiki horien predikatuei dagokienez, iritzia edo itxura adieraz dezakete, azken hauek *iritzi* aditzarekin eta *irudi(tu)* aditzaren nor-nori aldaerekin onargarriak ez direla egia bada ere. Subjektuaren igoerari dagokionez, osagarria perpaus txikia denean ezinbestekoa izanik konpletiboa denean ezinezkoa dela ikusi dugu. Horrenbestez, osagarria konpletiboa denean, itxuraz igoera adierazten duten kasuetan bi aditz-sarrera desberdin dagoela defendatu dugu. Horrela itxuraz

igoerak liratekeen erabilerek, argumentu bat gehiago θ-markatzen duen aditzaren aparteko hiztegi-sarrera bat jarriko ligukete agerian.

Lehenengo mailako izenki-predikazioari bukaera emateko, prolatibo marka daramaten perpaus txikiak osagarri modura hartzen dituzten *hartu, jo, eduki* eta *eman* aditzak aztertu ditugu. Perpaus txiki horien burua *-tzat* posposizioa da eta izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak eduki ditzakete. Bestetik, euskaraz kasu-ezarketa berezirik gertatzen ez dela frogatu dugu: perpaus txiki hauen subjektuari kasua ez die aditz nagusiak esleitzen perpaus txikiaren kanpo-aldetik; aitzitik, perpaus txikiaren subjektuak, perpaus matrizearen Inflexiora igo behar du bertan kasua hartu ahal izateko.

Azkenik, euskaraz ere bigarren mailako predikazioaz hitz egin daitekeela jarri dugu agerian: hasteko, subjektuari eta osagarri zuzenari dagozkien bigarren mailako predikatuak, eta objektuari zuzenduriko predikatuen artean, ondoriozko predikatuak eta predikatu deskribatzaileak bereiz daitezke. Bigarrenik, debekaturik daude zeharkako osagarriari zuzenduriko predikatuak, eraikuntza kausatiboen datibo markadun argumentuari zuzendurikoak onargarriak badira ere. Hirugarrenik, subjektuari dagokion predikatu bat eta objektuari dagokion beste bat perpaus berean elkar badaitezke ere, ezin sar daitezke perpaus berean objektuari zuzenduriko bi predikatu ez eta subjektuari zuzenduriko bi predikatu. Bukatzeko, subjektuari eta objektuari zuzenduriko predikatuak elkartzen direnean, ordena neutroan (aditza perpausaren bukaeran), subjektuari zuzendurikoak, aditzetik hurbilago azaltzen da. Datu horiek hirugarrren atalean erabiliko ditugu, bigarren mailako predikatuen txertaketa-mailak erabakitzeko.

III. ATALA

PREDIKAZIOAREN TEORIAK ETA EUSKARA

3.0. Sarrera

Atal honetan, GB arloan predikazioaren sintaxi-gertaera azaltzeko eskaini diren teoriak aurkeztuko ditugu 3.1. azpisailean. Teoria horiek, I atalean aurreratu dugunez, bi multzotan bil daitezke: alde batetik, 'Perpaus Txikien Teoria' edo 'Predikazioaren Teoria Klausala' dugu (Stowell, 1981., 1983, 1991) eta bestetik, 'Predikazioaren Teoria' (Williams 1980, 1983).

Stowell-ek eta bere jarraitzaileek[1], predikazio-harreman semantikoa dagoen bakoitzean, subjektu eta predikatua biltzen dituen sintaxi-osagai bat dagoela defendatu dute. Williams-en eta bere jarraitzaileen arabera[2] ordea, subjektua predikatuaren islapen nagusitik kanpo kokatzen den predikatuaren argumentu bakarra da eta subjektu eta predikatu horiek ez dute inolako osagaitan bildurik egon behar beren artean egiturazko harreman zehatz bat[3] egotea nahikoa delarik.

Edozein modutan, azpimarratu beharrekoa da bi teoria-multzo horiek ez daudela orekatuta: 'Perpaus Txikien Teoria' defendatu duten egileak batez ere aditz berezi batzuek azpikategorizaturiko predikatuez arduratu diren bitartean, 'Predikazioaren Teoriak' proposatu dituztenak mota guztietako predikazio-harremanetarako balio duen eredu bat eraikitzen saiatu baitira.

---

[1] Ondoko hauek aipa daitezke Stowell-en jarraitzaileen artean: Chomsky, 1981, 1986; Safir, 1983; Kitagawa, 1985; Contreras, 1987; Rapoport, 1987; Chung & McCloskey, 1987; Hoekstra, 1988; Raposo &Uriagereka, 1990.

[2] Ondokoak aipa daitezke Willians-en jarraitzaileen artean: Schein, 1982; Rothstein, 1983; Simpson, 1983; Mc Nulty, 1988; Demonte, 1987, 1988.

[3] Aurrerago hitz egingo dugu egiturazko harreman horretaz, egile bakoitzak proposamen desberdinak egiten baititu

3.1. azpisailean predikazioari buruzko bi teoria nagusien oinarriak azalduko ditugu. 3.2. azpisailean teoria-multzo biek dituzten GB arlo teorikoan gaur egun zeharo onarturik dauden zenbait oinarriren aurka doazen puntuak agerian utzi eta oinarri horiek errepetatuz bi teoriok elkartzen dituen proposamen bat egingo dugu. Proposamen horretarako garrantzi berezia du lehenengo atalaren 1.3.4. azpisailean aurkeztu dugun Grimshaw-en (1991) 'islapen hedatuen' definizioak. Horrenbestez, X° predikatu-buruek beren argumentu guztiak XP islapen (perfektu) nagusiaren barnean islatzen dituztela eta baita zenbait YP kategoria funtzional ere (predikatu-buruen islapen hedatua) islatzen dituztela defendatuko dugu. Horrela, predikatu-buruen mota desberdinen arabera mota desberdinetako islapen hedatuak genituzke: adizki-predikatuen islapen hedatuak, perpaus bakunak lirateke eta izenki-predikatuen islapen hedatuak berriz, perpaus txikiak.

S-egiturarako pausoan, D-egituran XP predikatuaren islapen perfektuaren barnean dauden argumentuen artean, gutxienez batek, gora egin beharko du predikatuaren islapen hedatuaren espezifikatzaile batean kokatzeko. XPtik argumentu bat baino gehiago ateratzen bada, goren geldituko denak beteko du subjektuaren funtzioa. 3.2. azpisailean ikusiko dugunez, geure proposamenaren D-egitura Stowell-en teoriatik hurbil dagoen bitartean, geure proposamenaren S-egitura gertuago dago Williams-en proposamenetatik.

3.3. azpisailean, predikatu-eraikuntza desberdinak osagaitzat jotzeko orduan kontutan hartu behar diren aldeko eta aurkako frogak eskainiko ditugu: hasteko, azpikategorizaturiko predikatuen subjektuek subjektu ala objektu modura jokatzen ote duten ikusiko dugu; eta bigarrenik, ohizko osagaitasun-frogek, Uztardura Teoriak, wh-hitzen ateratzeak, klitizazioak eta laguntzailearen hautaketak eta kuantifikatzaileen irakurketak perpaus txikien osagai modurako analisiaz ematen dituzten ondorioak ikusiko ditugu. Azkenik, euskaraz ere, azpikategorizaturiko izenki-predikatuen kasuan behintzat perpaus txikiez hitz egin daitekeela ikusiko dugu.

3.4. azpisailean, bigarren mailako predikazioaz, hau da azpikategorizaturik ez dauden izenki-predikatuez (predikatu adjunktuez) arduratuko gara: hasteko, bigarren mailako predikatuak VParen barnean itsasten direla jarriko

dugu agerian; bigarrenik subjektuari zuzenduriko predikatuak VPari eskuin-aldetik itsasten zaizkion bitartean objektuari zuzendurikoak V'ari (baita eskuin-aldean ere) itsasten zaizkiola iradokiko dugu; hirugarrenik, bigarren mailako predikatuek bete behar duten egiturazko harremana eta bertatik eratortzen den mota bereko predikatuen aldiberekotasunaren ezintasuna azalduko ditugu; eta azkenik, bigarren mailako predikatuen barne-egitura aztertuko dugu: hauek ere osagaitzat (hots perpaus txikitzat) har daitezkeela eta beren subjektua PRO kategoria isilekoa izan behar duela defendatuko dugu.

Atalaren bukaeran hiru eranskin txertatu ditugu, atalean egin ditugun azterketek euskal gramatikaren zenbait arazo orokor aztertzeko orduan izan ditzaketen ondorioak azaltzearren: hasteko, atal honetan proposaturiko predikazioaren teoriak kanpo- eta barne-argumentuen definizioan duen eragina aztertuko dugu; bigarrenik, kanpo-argumentuaren definizio horrek euskal partizipio-motak bereizteko eskain dezakeen argia ikusiko dugu; eta bukatzeko, predikazioaren teoria honek eskaintzen dituen datuetan oinarrituz, euskal kasu-ezarketarako mekanismo bat proposatuko dugu.

3.1. Predikazioaren teoria nagusien aurkezpena

Aurreko atalean aurkeztu ditugun predikatu-eraikuntzak zenbait sail desberdinetan sartu ditugu: hasteko, predikatua ezinbestean eskatzen duten aditzak ditugu, hau da **lehen mailako predikatu-osagarriak** hartzen dituzten aditzak; eta bestetik, aukerakoak diren **bigarren mailako predikatuak.**

Lehenengo mailako izenki-predikatuekin azaltzen diren aditzen artean, lau azpisail egin ditugu:

(i) Lehendabiziz, *izan* , *egon* eta °*edun* edo nor-nori ereduko laguntzaileek eratzen dituzten eraikuntzak ditugu (1).:

(1) a. Filme hori beldurgarria da
b. Victoria Abril aparta dago azken filmean
c. Zapata horiek txikiegiak dituzu
d. Zuri beharrezkoa zaizu oporrak hartzea

(ii) Bigarrenik, beren antzeko jokaera duten aldaketa eta iraupenezko zenbait aditzek (*bihurtu, bilakatu, egin, jarri, ipini, geratu, gelditu, utzi, iraun, azaldu, agertu*) eratzen dituztenak (2).

(2) a. Ura ardo bihurtu {zen/zuen}
b. Jon oso beldurtia bilakatu da
c. Ane zuzendari egin dute
d. Berri horrek Miren oso pozik jarri du
e. Haurra lasai geratu da ama ikusi duenean
f. Jon inoiz baino gogorrago azaldu da gaurko bileran
g. Egoerak berdin dirau

(iii) Hirugarrenik, kasu-eredu berezia eskatzen duten *irudi(tu), eman* eta *iritzi* iritzi-aditzak ditugu (3).

(3) a. Jonek gaixorik dirudi
b. Lan horri guztiz beharrezko deritzogu
c. Zuhaitz horrek gizona ematen du urrundik

(iv) Eta bukatzeko, *-tzat* prolatibo marka daraman osagarria eskatzen duten aditzek (*hartu, jo, eman, eduki*) ematen dituzten predikatu-eraikuntzak (4).

(4) a. Zure lagunak tontotzat nauka
b. Erizaina medikutzat jo dugu

Bigarren mailako predikazioaren arloan predikatuak aukerakoak izatea da ezaugarririk nabariena: ezaugarri hori, perpausaren bi predikazio-arloak agerian uzten dituen parafrasiaren bidezko zatiketaz frogatzen da. Zatiketa horren bidez, bi sail bereiz daitezke:

(i) Alde batetik, zatiketan *-tzat* prolatiboa daraman predikatu bat dutenak.

(5) Ane lapurtzat salatu dute
(i) Ane lapurtzat hartu dute
(ii) Ane zalatu egin dute

(ii) Bestetik, komunztaduradun edo komunztadurarik gabeko izenki-predikatuak dituzten perpausen bidez zatitzen direnak.

(6) a. Anek pozik utzi zuen bilera-aretoa
(i) Anek bilera-aretoa utzi zuen
(ii) Ane pozik zegoen (aretoa utzi zuenean)
b. Semeak aitari koxea apurtuta itzuli zion
(i) Semeak aitari kotxea itzuli zion
(ii) Kotxea apurtuta zegoen (itzuli zionean)

c. Irakasleak haurrari bakarrik dantzarazi zion
(i) Irakasleak haurrari dantzarazi zion
(ii) Haurra bakarrik zegoen (dantzatzen ari zenean)

GB arloko hizkuntzalarien aditasuna nabarien erakarri dituzten eraikuntzak, (3) eta (4a) sailekoen parekoak dira. Lehenengoen ingelesaren parekoetan (*We consider this student very interesting*) 'kasu-ezarketa berezia' gertatzen da, eta (4a) adibidearen parekoetan (*John seems sick*) 'aditz goratzaile' izenaz ezagun direnak azaltzen dira.

Goiko bi esaldi paradigmatiko horien parean menperatu konpletibo eta infinitiboak daude:

(7) a. Your friend considers me very silly
b. Your friend considers [me to be very silly]
c. Your friend considers [that I am very silly]

(8) a. John seems sick
b. $John_i$ seems [t_i to be sick]
c. It seems [that John is sick]

(7b,c) eta (8b, c) pepausen existentziak, (7a) eta (8a) bezalako esaldietan ere perpaus antzeko nolabaiteko osagaia dagoela pentsarazi die zenbait hizkuntzalariri: D-egitura θ-egituraren islapen zuzena bada (Chomsky, 1981), *consider* bezalako aditzek perpaus-mailako barne-argumentu bat eta biziduna den kanpo-argumentu bat hartu behar dutela pentsatu behar da, aditzaren atzeko NPa izenondoak eta ez aditz matrizeak θ-markatzen baitu. Eraikuntza horietan, beraz, aditzak nolabaiteko perpausarekin azpikategorizaturik legoke beti: perpaus hori, konpletibo bat, perpaus infinitibo bat edo 'perpaus txiki' bat izan daiteke. Predikazioaren teoria klausalaren edo nahi bada perpaus txikien teoriaren defendatzaile paradigmatikotzat, Stowell (1981, 1983) har daiteke.

Stowell-en arabera, infinitibozko menperatu horiei eta subjektu / izenki-predikatu harremanei antzeko analisia eman dakieke azpikategorizatzearen testuinguruetan behintzat. Ikus daitekeenez, (7) eta (8) perpausen aditzen

parekoek beste hizkuntzetan ez dituzte beti osagarri infinitiboak edo konpletiboak onartzen. Adibidez, gaztelaniaren *considerar* aditzak, izenki-predikatuak eta konpletiboak onartzen ditu baina ez infinitibozko perpausik (9). Euskararen *eduki* aditzak ere, bere atribuziozko erabileran, *-tzat* prolatibo markadun izenki-predikatuak onartzen ditu baina ez perpaus konpletiborik edo jokatugabeko perpausik (10).

(9) a. Tu amigo me considera una tonta
b. *Tu amigo me considera [ser una tonta]
c. Tu amigo considera [que soy una tonta]

(10) a. Zure lagunak tontutzat nauka
b. *Zure lagunak [ni oso tontua izatea] dauka
c. *Zure lagunak [ni oso tontua naizela] dauka

Era berean, *to seem* igoerazko aditzaren parekoa litekeen gaztelaniaren *parecer* aditzak ingelesarenak bezala jokatzen duen bitartean (11), euskararen *irudi(tu)* aditzak bestela jokatzen du (12): ez du jokatugabeko perpausik onartzen (12b).

(11) a. Juan parece enfermo
b. Juan parece[estar enfermo]
c. Parece [que Juan está enfermo]

(12) a. Jonek gaisorik dirudi
b. *Jonek [gaisorik egotea] dirudi
c. [Jon gaisorik dagoela] dirudi


Bestetik, *irudi(tu)* aditzak, *to seem* eta *parecer* aditzek ez bezala, igoera ematen duen gertaera onartzen du osagarri modura konpletiboa duenean ere (13c). II atalean defendatu dugunez, euskaraz (13c) bezalako perpausetan duguna ez da igoera argumentu bat gehiago θ-markatzeko aukera duen *irudi(tu)* aditzaren aldaera baizik.

(13) a.*John and Peter seem [that they are sick]
b.*Juan y Pedro parecen [que estan enfermos]
c. Jon eta Peruk [gaisorik daudela] dirudite

Gainera, euskaraz, prolatibo markadun osagarriak eskatzen dituzten aditzen artean, batek ere ez du onartzen ez jokatugabeko perpausik ez eta konpletiborik ere, salbuespen bakarra *eman* aditzaren aginduzko adizkia delarik.

(14) a. Demagun [lana bukaturik dagoela]
b. Demagun lana bukatutzat

Prolatiboa hartzen duten aditzen kasuan (*hartu, jo, eduki,*)beraz, ezin erabil daiteke perpaus-osagaien azpikategorizatzea perpaus txikien existentziaren aldeko argudio modura. Gaztelaniaz ere, ez dira onargarriak infinitibozko perpausak, *considerar* bezalako aditzen osagarri modura. Ingelesa eta gaztelania edo euskara bezalako hizkuntzen arteko ezberdinatasun horiek guztiek garrantzitsuak izan daitezke, hizkuntza horien jokaera hobeto ulertzeko gakoak eskain baititzakete.



Kasu bietan dugu, isladapen nagusi bati (XP) dagokion eta subjektua eta predikatua biltzen dituen osagai bat: lehenengoan IP mailakoa eta bigarrenean AP mailakoa. Bestetik, bi kasuetan, NP subjektuak XP horren espezifikatzailean dago, eta beraz, predikatua X' mailakoa (I' edo A') dela uler daiteke. Osagai horri (15a) kasuan perpausa deritzon bezala, (15b) adierazpenaren osagaiari 'perpaus txikia' deritzo Stowell-ek.

Horrela ba, Stowell-en (1983) arabera, edozein kategoriatako subjektuari, (16) definizioa egoki dakioke. Stowell-ek (1991) berak, beranduagoko lanean definizioa predikazio-arloen arabera itxuratu du (17):

(16) Edozein XP esaldiren subjektua, X" adabegiak zuzenean menperatzen duen X edo X'aren argumentua da. ('Kategorien arteko subjektua')[4]

(17) Predikazio-arloak XPak dira, haietan XP adabegiak zuzenean menperatzen duen X' kategoria XParen espezifikatzaileaz predikatzen delarik.

Ustezko 'perpaus txiki' horien kategoria predikatu-buruaren islapen nagusiarena dela defendatzeko, aditz desberdinek kategoria desberdinetako perpaus txikiak azpikategorizatzen dituztela azpimarratu du Stowell-ek (18).

(18) a. John finds [$_{AP}$ Bill [absolutely crazy]]
b. I expected [$_{PP}$ that man [off my shipp]]
c. Nobody heard [$_{VP}$ it [rain [last night]]]
d.*I expect [$_{AP}$ that man very stupid]
e.*I consider [$_{PP}$ John off my ship]

Azpikategorizaturiko osagai horiek S mailakoak balira adibidez, aditzak ez luke, Saren barne-predikatua azpikategorizatzerik. Izan ere, (18) adibideetan izenondo-predikatuak edo preposizio-predikatuak infinitibo batez ordezkatzen baditugu, perpaus guztiak bihurtzen dira onargarri (19).

(19) d. I expect [that man to be very stupid]
e. I consider [John to be off my ship]

Predikazio-arloen osagai modurako analisi horren aurka, Williams-en (1980, 1983) iritzia aipa daiteke. Egile honen arabera, subjektuek eta predikatuek, ez dute inolako osagairik osotu behar. Horrenbestez, predikazio-harremanetan bete behar diren baldintzak beste modu honetara labur daitezke:


---

[4] 'Subject across categories' Stowell-en (1983) berbetan.

(20) (i) Bai subjektuek eta bai predikatuek islapen nagusiak izan behar dute, beraz, NP eta XP mailako islapenak dira.
(ii) Subjektua, predikatuaren XP islapen nagusitik kanpo dagoen argumentua da ('Subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa')[5]
(iii) Subjektuak, predikatua c-komandatu behar du eta predikatuarekiko c-azpikoa izan behar du.
(iv) B, A-rekiko c-azpikoa da, gehienez A menperatzen duen eta B menperatzen ez duen adarkaketa-adabegi bat badago.

Goiko definizioak modu errazagoan errepikatuz, subjektuak predikatua c-komandatu behar du eta predikatu horren ahizpa izan behar du, predikatua menperatzen duen lehenengo adabegiak subjektua ere menperatu behar baitu (iv). Horrela, (15b) analisiaren ordez, (21) analisiaren antzeko zerbait dugu Williams-i jarraiki.

(21)



Orduan, Williams-en arabera, izenki-predikatu horren subjektua, espezifikatzaile bat izan beharrean, aditz matrizearen osagarri zuzena da. Izan ere, NP horrek akusatibo kasua hartzen du ingelesaz ohizko objektu zuzenek bezala. Bestetik, XP predikatua aditzaren osagarri independientea da. Subjektu/predikatu harremana beraz, ez dagokio X'-teoriaren araberako


---

[5] 'Subject as external argument' Williams-en (1980) berbetan.

harreman jakin bati, subjektu eta predikatua indizekide bihurtzen dituen predikazio-erregela bati baizik.[6]

Bestetik, Williams (1983), Stowell-en (1983) kategorien arteko subjektuaren definizioaren aurka, perpaus-mailako osagaiak beren predikatu-buruaren islapenak ez direla frogatzen saiatu da. Horrela, (22) bezalako konfigurazio batean oinarrituz, M horrek, estatus desberdinak izango ditu, beti Williams-en iritziari jarraiki.


(22)



(23) koadroan, M osagai-mota bakoitzerako eta XP predikatu-mota bakoitzerako Williams-en (1983) lanaren garaian onarturik zeuden kategoriak ikus daitezke. (23d) Stowell-ek (1983) perpaus txikietarako proposaturiko kategoria ikus daiteke. Horrenbestez, Williams-ek (1983) agerian utzi du (23d) analisi hori bestetelako perpaus-osagaietarako proposaturikoetatik urrun dagoela.

---


[6] Williams-ek (1980) 'Predikatu-egitura' (PS) deritzon adierazpen-maila definitu du. 'Predikatu-egituran', S-egituran ikus daitezkeen subjektu/predikatu harremanak, bi osagai horiei 'Predikazio-erregelen' bidez indize bera esleituz adierazten dira. Horrela ba, 'Predikatu-egitura' S-egituratik eratorritako maila litzateke. Forma Logikoa (LF) bestalde, 'Predikatu-egituratik' eratortzen da kuantifikatzaileen eta bihurkarien irakurketarako erregelak bezalakoen bidez. Hona heman Williams-ek proposaturiko adierazpen-mailak eta beraien arteko harremanak.



(23)

	M	XP
(a) **Perpaus arruntak**		
[S John [VP wants a book]]	S	VP
(b) ***With*** **duten eraikuntza absolutuak**		
[PPwith[NPi John][APisick]]	PP	AP
(c) **Gerundioak**		
[NPiJohn's[VPiseeing Bill]]	NP	VP
(d) **Perpaus Txikiak** (Stowell)		
John considers [AP Bill[A' intelligent]]	AP	A'

Hona hemen, (23) koadroaren kategorien zuhaitz modurako adierazpena, Williams-en tesia garbiago ikusi ahal izateko.




Beraz, perpaus txikiak, endozentrikoak diren perpaus-osagai bakarrak lirateke Stowell-en definizioa mantentzekotan, bestelako kasu guztietan perpaus-osagaia ez predikatuaren ez eta subjektuaren kategoriakoa ez baita.

Bestetik, Stowell-en arabera, Williams-en analisia D-egitura Θ-egituraren islapen zuzena delako onarpenaren aurkakoa da, zeren (21) bezalako adierazpenetan aditzak θ-markatzen ez dituen argumentuak (predikatuak)

hautatzen baititu[7] eta bestetik, AP bezalako predikatuei beraietatik oso urrun dauden NPak θ-markatzea baimentzen baitie (ikus 24b adierazpena).

Hemen errepikatuko dugun (8a) adibidearen analisiari dagokionez ere, oso ezberdinak dira Williams eta Stowell-en analisiak. Hona hemen, Stowell-en (1991) beraren iritziz *to seem* bezalako aditzek hartzen dituzten izenondo-osagarriei bi teorietatik abiatuta eslei dakizkiekeen analisiak: (24a) perpaus txikien teoriatik abiatuta lortuko litzatekeen analisia da eta (24b) predikazioaren teoriatik abiatuta lortuko litzatekeena.

(8) a. John seems sick



Perpaus Txikien teoriaren arabera, D-egituran Subjektua eta izenondo-predikatua bildurik dituen perpaus-osagai bat behar litzateke, eta ondoren, aditz (goratzaile) horren ezaugarri lexikoak direla eta (aditzak ez lioke kasurik ezarriko bere osagarriari ez eta θ-paperik bere subjektuari), subjektuak gora joan beharko luke [spec, Infl] guneraino, bertan subjektuaren bereizgarria den nominatibo kasua hartuko lukeelarik (24a).

---

7 Predikatuak eta argumentuak, hain zuzen θ-teoriaren arabera bereiz daitezke: argumentuak paper tematikoa eta kasua behar duten islapen nagusiak dira eta predikatuak berriz, paper tematikoak deskargatu behar dituzten islapenak.


Williams-en predikazioaren teoriaren arabera ordea, ez legoke honelako igoeren beharrik: subjektua [spec, Infl] gunean txertatuko litzateke D-egituratik, eta AP predikatua bere aldetik, aditz matrizearen osagarria litzateke. Predikazio-harremana segurtaturik legoke, konfigurazio horretan subjektuak predikatua c-komandatuko bailuke (24b).

Predikazioaren bi teoria horien inguruko eztabaidaren gunea, azpikategorizaturiko predikatu-harreman hauei badagozkie ere, perpaus txikien analisia loturazko oinarrizko aditzen arloetara eta baita bigarren mailako predikazioaren arlora ere hedatu dute zenbait egilek. Bigarren mailako predikatuek eratuko lituzketen osagaien subjektuak, PRO kategoriakoak lirateke, gune horiek gobernaturik ez baileudeke (Stowell, 1983; Safir, 1983; Hoekstra, 1988).

Bukatzeko, bada kontutan hartu beharreko beste datu bat ere, perpaus txikien osagai modurako analisia izkuta baitezake: Stowell-en arabera, perpaus txikiak aditz baten osagarri modura sortzen direnean, D-egituratik Forma Logikorako bidean aditz matrizea eta perpaus txikiaren burua (X) buruz buruko adjunkzio modura (Baker, 1988) elkartzen dituen berrantolaketa bat gertatzen da. Egile honen iritziz, hizkuntza desberdinetako gramatikak, ezberdinak izan daitezke berrantolaketa-erregela hori gertatzen deneko mailari dagokionez. Horrela, Rizzi-k (1986) italieraren kasuan D-egituratik S-egiturarako pausoan gertatzen den berrantolaketa deskribatu badu ere, ingelesaren kasuan, berrantolaketa hori S-egituratik LF mailarako urratsean gertatuko litzateke Stowell-en arabera.

Berrantolaketa beraz, Huang-ek (1982) WH-hitzen mugimendurako proposatu duen parametroaren antzekoa litzateke: D-egituratik S-egiturarako urratsean egiten duten hizkuntzak daude alde batetik, eta bestetik, S-egituratik LFerako pausoan egiten duten hizkuntzak. Edozein kasutan, berrantolaketaren ondoren genukeen egitura (25) bezalako zerbait litzateke.

(25)



Laburbilduz, predikazioaren semantika-harremana inork ere zalantzetan jarri ez badu ere, semantika-harreman horren sintaxi-adierazpenerako, badaude bi teoria nagusi:

(i) Stowell-en (1981, 1983, 1991) arabera (' Perpaus Txikien Analisia' edo 'Predikazioaren Teoria Klausala'), semantika-mailan predikazio-harremana antzeman daitekeen guztietan, subjektua eta predikatua biltzen dituen nolabaiteko osagaia behar da, subjektuak beti osagai horren espezifikatzailea betetzen duelarik ('Kategorien arteko subjektuaren definizioa').

(ii) Williams-en (1980, 1983) 'Predikazioaren Teoriaren' arabera berriz, subjektuak eta predikatuak islapen nagusiak dira, subjektuak predikatua c-komandatu eta berarekiko c-azpikoa izan behar duelarik. Horrenbestez, teoria horretan, 'Subjektuaren Kanpo-argumentu modurako' definizioa dugu.

3.2. Predikazioaren bi teoriak elkartzeko saio bat

Azken urteotan GBaren arloan egin izan diren aurrerapen teorikoak kontutan hartuta, (15a) eta (15b) adierazpenak Stowell-ek nahi duen bezain antzekoak ez direla ikus daiteke: egia da subjektuak bietan betetzen duela nolabaiteko islapenaren espezifikatzailea, baina (15a) adibidearen kasuan, I(nfl) buru funtzional baten islapena dugun bitartean, (15b) adierazpenean, A(dj) buru lexikoarena dugu.


Areago, (15a) delakoaren kasuan, V predikatu-buru lexikoa, VP islapen nagusiraino islatu da I(nfl) buru funtzionalaren osagarri modura txertatu aurretik. Predikatutzat VP islapen nagusia eta ez I' adabegi funtzionala (Stowell-en antzera) hartzen badugu, (15a) konfigurazioari, Williams-en 'subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa' ondo egoki dakiokeela esan genezake. (15b) adierazpenean berriz, AP predikatu-buruaren islapen nagusia ez da inolako islapen funtzionaletan sartu eta subjektua predikatu beraren islapenaren barruan dago (espezifikatzailean). Beraz, Williams-en subjektuaren definizioaren aurkako eredua dugu.

Bestetik, Williams-en (21) eta (23) ereduei begiratzen badiegu, lehenengoa adarkaketa bikoitzaren aurkakoa da, eta (23) adierazpenetan, X'-Teoriak eskatzen duen endozentrizitatearen aurka doan eredua ikus daiteke. Bistan da hala ere, subjektua eta predikatua islapen nagusiak direla onarturik, Williams-en (1980, 1983) lanen garaian ez zegoela perpaus-osagai horietarako X'-Teoriaren araberako islapen endozentrikoa lortzeko aukerarik.

Hala ere, Fukui (1986), Speas (1987) eta Chomsky-ren (1986a,b) lanen ondoren, arlo teorikoak, Williams-en intuizioa eredu horien guztien arabera islatzen baimenduko duten zenbait aurrerapen jaso ditu. Horrela, (23a) bezalako eraikuntzak (lehenago S mailari zegozkionak) I(nfl) buru funtzionalaren islapen endozentrikoak direla onartu da. Beraz, (15a) adierazpenaren antzekoak ditugu perpaus arruntak. Modu horretara, aldaketa

txiki bat eginez[8], manten daiteke Williams-en subjektuaren definizioa, perpaus arruntetarako X'-Teoriaren aurka inola ere joan gabe.

(23'a)




(23b) eraikuntzei, hau da, preposizio baten osagarri modura txertaturiko predikatu-eraikuntzei, nekez egoki dakieke subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa mantentzen duen inolako analisi endozentrikorik. Stowell-en araberako analisiaren bidez ordea, ongi samar egokitzen dira. Analisi horren arabera, predikatuak islapen nagusiak direla eta subjektua beren islapen nagusitik kanpo dagoen argumentua dela defendatzen duen oinarria, ordea, galdu egingo litzateke.

---

[8] Ikusi Williams-en arabera subjektuak predikatua c-komandatu eta berarekiko c-azpikoa izan behar duela: (23'a) adierazpenean subjektuak predikatua c-komandatzen du, baina ez da berarekiko c-azpikoa bien artean I' islapena baitago, eta beraz IP ez baita predikatua menperatzen ez duen eta subjektua menperatzen duen lehenengo islapena.


Arazo hori Rothstein-ek (1983) konpondu du predikazioaren eskakizuna subjektuak eta predikatuak elkar m-komandatzea dela defendatuz.

(23'b)



(23c) bezalako gerundiozko eraikuntzetarako, badugu analisi endozentrikorako aukera, Abney-ren DP islapen funtzionalaren hipotesia onartzen badugu. Horrela, M=NP izan gabe, M=DP izango genuke eta eraikuntza IP moduko esaldien antzekoa litzateke.


(23'c)




Berriro ere, Williams-en subjektuaren definizioa dugu egokiena.[9]

Azkenik, Williams-ek (23d) adierazpenari ikusi dion arazo nagusia, NP eta AP kategorietako predikatu horiek nolabaiteko M kategoriako islapenean txertatzeko arazoa da. Gaur egun, izugarri hedatu dira islapen funtzionalen motak eta DP, TP, AgrP, AspP eta antzeko islapenez hitz egiten da. Ildo horri jarraiki, demagun, 'perpaus txikien' NP subjektua eta XP predikatua buru modura F duen islapen funtzionalaren barruan daudela. Horrela, FP mailako islapena litzateke perpaus txikia: bai subjektua eta bai predikatua islapen nagusiak lirateke eta subjektua (23a) eta (23c) kasuetan bezala, predikatuaren islapen nagusitik kanpo dagoen argumentu bakarra litzateke.

(26)



(23d)




Goiko hori guztia onartuz, eredutik kanpo geratuko litzatekeen kasu bakarra (23b) litzateke. Kasu horretan badirudi Stowell-en subjektuaren definizioaren beharrean gaudela, zeren subjektu hori subjektua eta predikatua barruan dituen islapenaren burua litekeen *with* preposizioaren atzean baitago, eta beraz, ezin egon daiteke PP islapen horren espezifikatzailean eta ezin izan daiteke kanpo-argumentua.

---

[9] Abney-k (1987) eskainiriko beste aukera bat Det buruak osagarri modura hartzen duena IP izatea da, *-ing* atzizkia I buruan txertatuko litzatekeelarik. Baina, aukera horiek aztertzea lan honetatik kanpo dago. Perpaus horien parekoak liratekeen euskal *tze-pepausak* eta *gen-tze-perpausak* direlakoei buruzko informazioa nahi izatekotan jo Odriozola eta Zabala (1993) lanera.

Bi aukera ditugu preposizio bat duten eraikuntza hauek analizatzeko orduan: alde batetik, lehenago egin dugunez, AP predikatua zuzenean *with* preposizioaren osagarri modura txerta dezakegu, subjektua predikatu-islapenaren barnean dagoelarik (i analisia); eta bestetik, preposizioaren osagarri modura txertatzen dena, (23d) adibidearen antzeko FP islapen funtzionala izan liteke (ii analisia). Bistan dagoenez, bigarren analisi hau onartzekotan, posible da Williams-en subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa kasu hauetarako ere mantzentzea.




Hala ere, bada kontutan hartzeko beste ikuspegi bat ere: Koopman & Sportiche-ren (1988) arabera, subjektu guztiak VParen barnean sortzen dira, eta ez soilik Varen osagarri modura sortuko liratekeen aditz inakusatiboen subjektuak (Burzio, 1981). Horrela, aditz iragankor eta inergatiboen subjektuak, aditzaren espezifikatzailean sortuko lirateke eta aditz inakusatiboenak, aditzaren osagarri modura.

Subjektuaren sorrera-gunea paper tematikoa ezartzen dion predikatu-buruaren islapen perfektuaren barne-guneetara mugatzen badugu, eta predikatu-buru hori edozein kategoriatakoa izan daitekeela onartzen badugu, Stowell-en 'kategorien arteko subjektuaren definizioaren' antzeko zerbait lortuko dugu D-egituraren adierazpenetarako. Hala ere, kasuaren beharrak direla eta, subjektu horiek, eta seguruenik, beste argumentuek ere, gora egin

beharko dute kasua buru egokiaren gobernu pean edo islapen funtzionalen espezifikatzaile/buru harremanaren bidezko komunztaduraz lortzeko.[10] Horrela, S-egituraren adierazpenari begiratzen badiogu, subjektuaren kanpo-argumentu modurako definizioa egoki samarra dela ikusiko dugu. Bukatzeko, perpaus arrunten kasuan IP islapen funtzionala C(OMP) buruaren osagarri modura txerta daitekeen bezala,[11] FP mailako perpaus txikiak, *with* preposizioaren osagarri modura txerta daitezke, perpaus arruntekiko antzekotasun osoa lortuz.[12]

(27) (i)



---

[10] Chomsky-ren (1991) arabera, mugimendu guztietarako arrazoiren bat aurkitu behar da ('The economy of derivation'): arrazoi hori gehienetan kasu-beharrei dagokie.

[11] Chomsky-ren (1981) lanaren arloan S' mailari zegokiona, Chomsky-ren (1986) lanetik aurrera CP maila egokituaz ordezkatu zen.

[12] Ikusi predikatuaren buruak, V denean, F burura mugitu behar duela flexio-markak hartzera: aditzak morfologia-marka batzuen beharrak dituzten morfema irekiak dira. Mugimendu hori aditzaren eskakizunen kausaz ezezik, subjektuaren kasuaren beharren ondorioz ere gerta daitezke: islapen funtzionalen espezifikatzaile/buru harremanaren bidezko komunztadura kasu-ezarketarako mekanismotzat hartu ohi da.

Predikatu-buru hori izenondoa denean, ez dirudi mugimendu horretarako morfologiazko behar orokorra dagoenik. Subjektu eta predikatuaren arteko komunztadura gertatzen denean ordea, izenondoaren buruaren buru funtzionalerako mugimendua gertatu dela pentsa daiteke.

(27) adierazpenetan kontutan hartu beharreko beste zerbait ere badago: FP islapen funtzionalak ez dira edonolakoak, Grimshaw-i jarraiki predikatuen islapen hedatuak bailirateke. Hortaz, predikatu buruaren gramatika-kategoria berekoak lirateke eta beraz, ez genuke (18) multzoko adibideak azaltzeko arazorik, azpikategorizaturiko perpaus txikien kasuan aditz nagusiak hautatzen duena FP mailako perpaus txikia izanik ere perpaus txiki hori predikatu-buruaren kategoriakoa baita eta beraz aditz desberdinek kategoria desberdinetako perpaus txikiak hauta baititzakete.

Laburtuz, Stowell eta Williams-en ikuspegiak, ez dira elkartezinak gaur eguneko arlo teorikoaren ikuspegitik. Perpaus-osagai guztietarako analisi orokor bat lortzea ez da inola ere ezinezkoa, ondoko onarpen teorikoetatik abiatuta:

(i) Bai subjektuak eta bai predikatuak beti izaten dira islapen nagusiak
(ii) Subjektua, predikatuaren beste argumentu guztiak bezala, predikatuaren islapen perfektuaren (Grimshaw, 1991) barnean sortzen da; baina, S-egiturarako pausoan, kasuaren beharrak direla eta, islapen horretatik kanpo irteten da S-egituran predikatuaren kanpo-argumentua dela esan daitekeelarik.
(iii) Hori guztia, X'-Teoriaren eskakizunekin (endozentrizitatea eta adarkaketa bikoitza) elkartu ahal izateko, predikatu orok nolabaiteko kategoria funtzionala islatu behar du (predikatuaren islapen hedatua). Islapen hedatu horretan ezartzen da, S-egituran, subjektu eta predikatuaren arteko harremana.

Beraz, ikuspegi teknikotik ez da ezinezkoa 'perpaus txikiak' nolabaiteko osagai modura aztertzea eta osagai hori bestelako perpaus-osagaien analogoa izatea. Arazoaren gakoa beraz, predikatu-eraikuntza horiei osagai-izaera egoki ote dakiekeen finkatzea da.

Hain zuzen ere, 'Perpaus Txikiei' buruzko lanetan, eraikuntza horien osagai-izaeraren aldeko eta aurkako frogen bila aritu dira hizkuntzalariak, aurkeztu diren frogak bi multzo nagusitan bil daitezkeelarik: alde batetik, analisi klausalaren aurka, predikatu horien subjektu semantikoen sintaxi-jokaera subjektuarena baino areago objektuarena dela agerian jartzen saiatu

dira Williams eta beste egile batzuk; eta bestetik, predikazio-harreman horien osagaitasunaren aldeko eta aurkako argudioak eskaintzera zuzenduriko frogak eskaini dituzte teoria batzuen eta besteen defendatzaileek.

3.3. Predikatu-eraikuntza desberdinen osagai-izaeraren aldeko eta aurkako frogak

3.3.1 Azpikategorizaturiko predikatuen subjektuaren objektu-izaera

Perpaus Txikien analisiaren aurkako frogak bilatzen saiatu diren lanetan, predikatu-osagarri horien subjektu semantikoak azken batean objektuen ezaugarri ugari dituela defendatu da. Ezaugarri horiek honelaxe labur daitezke:

(i) Ingelesa eta gaztelania bezalako hizkuntza akusatiboetan, objektuaren bereizgarria den akusatibo kasua hartzen du azpikategorizaturiko predikatuaren subjektu semantikoak
(ii) Izenordain bihurkaria izan daiteke
(iii) NParen mugimendua paira dezake
(iv) Ezin izan daiteke kontrolaturiko PRO kategoriakoa

Euskararen kasuan, azpikategorizaturiko perpaus horien subjektuak absolutiboa hartu ohi du (28), objektuek edo objektuaren gunean sorturiko aditz inakusatiboen subjektuek hartzen duten kasua alegia. Bistan da hala ere, absolutiboa ez dela gramatika-funtzio bakarraren adierazle, aditz iragankorren objektuek zein aditz inakusatiboen subjektuek azal baitezakete kasu hori.

(28) a. Aurkezpena ezinbestekotzat jo dugu
b. Urteek Mikel zuhurrago bihurtu dute

Bestetik, *elkar* bezalako anaforak ager daitezke gune horietan.

(29) a. Mikel eta Anek$_i$ ezinbestekotzat dauzkate elkarren lagunak$_i$
b. Mikelek eta Anek$_i$ zuhurrago bihurtu dute elkarren jokaera$_i$

Perpaus txikiaren subjektuak gora egin dezake partizipoaz eraturiko eraikuntza perfektiboetan eta eraikuntza inakusatiboetan, horiexek objektuen ohizko jokaerak direlarik.

(30) a. Saioa$_i$ t$_i$ bukatutzat emana da
b. Langile horiek$_i$ t$_i$ ezinbesteko bihurtu dira

Bukatzeko, subjektu horiek ezin izan daitezke PRO kategoriakoak.

(31) a. *Mikelek [PRO ezinbestekotzat] dauka
b. *Urteek [PRO zuhurrago] bihurtu dute

Edonola, ez da ezaugarri horiek objektu-izaeraren aldeko frogatzat hartu beharrik, arazorik gabe aditz matrizearen eta perpaus txikiaren subjektuaren artean gertatzen den gobernu-harreman bereziaren bidez azal baitaitezke.

Hasteko, euskaraz argumentuek hartzen duten kasua beren D-egituran duten kokagunearen adierazle zuzena da gehienetan: argumentuak VParen barnean sortzen direla onartuz, Varen espezifikatzailean sorturiko argumentuei (aditz iragankorren eta inergatiboen subjektuei), ergatiboa ezartzen zaie eta Varen osagarri modura sorturikoei (aditz iragankorren objektuei eta aditz inakusatiboen subjektuei), absolutiboa. Perpaus txikiaren subjektua beraz, V matrizearen osagarri modura sortzen dela ondoriozta dezakegu, baina horrek ez du halabeharrez inplikatzen objektua denik; perpaus txiki osoa izan daiteke V matrizearen osagarria eta beraren subjektuak paper tematikoa izenki-predikatuaren burutik harturik ere kasua aditz matrizetik hartzea ('kasu-ezarketa berezia). Horretarako, perpaus txikiak ez du aditz matrizearen gobernurako hesia izan behar.

Absolutibo kasua aditzak zuzenean bere osagarriei ezarri gabe Agr-OP moduko islapen funtzional batean gertatzen den espezifikatzaile/buru komunztadura-harremanaren bidez gertatzen dela onartuz (Kayne, 1985;Pollock, 1989; Chomsky, 1989; Oyharçabal, 1990), perpaus txikiaren subjektu horrek, [spec, Agr-O] guneraino mugitu beharko luke, kasua hartu ahal izateko ('subjektuaren igoera') eta zentzu horretan, aditz inakusatiboen subjektua bezalakoa izango litzateke. Subjektuaren gunean utziriko aztarnak, egokiro gobernaturik egon behar du, eta beraz, perpaus txikiaren mugak gardena izan behar du kanpoko NParen gobernurako.

Partitibo berezko kasuari dagokionez, Belleti-ren (1988) arabera, aditz inakusatiboek eta eraikuntza pasiboek, objektuan sorturiko argumentuari egiturazko kasua (akusatiboa, edo absolutiboa euskararen kasuan) ezartzeko ahalmenik ez dutenean ere, badute partitibo berezko kasua ezartzeko ahalmena. Edonola, berezko kasua, D-egituran eta paper tematikoarekin batera ezarri behar denez, bazterturik dago perpaus txikien subjektuaren testuingurutik: perpaus txikien subjektuari perpaus txiki horren predikatu-buruak ezartzen dio paper tematikoa, eta kasua ordea, aditz matrizeak edo buru funtzionalen batek. Stowell-en oharrak zuzenak badira, partitiboa ezin ager daiteke perpaus txikiaren subjektu modura.[13]

(32) a.*/o.k.Ez daukagu [langilerik ezinbestekotzat]
b.*/o.k.Urteek ez dute [tontorik zuhurrago] bihurtzen[14]

Horrela, partitiboaren ezintasunaren kausa (onartzen ez duten hiztunen kasuan), azpikategorizaturiko predikatu horien subjektuari kasua eta paper tematikoa ezartzen dizkioten buruak desberdinak izatea da. Subjektu hori

---

[13] Gogoratu lehenengo atalaren 1.5. azpisaileko eztabaida: euskararen *-rik* marka ezin identifika daiteke zuzenean Belleti-ren (1988) partitibo kasu abstraktuarekin. Hala ere, *-rik* marka ezinezkoa deneko (32) bezalako eraikuntzetan, partitibo kasu abstraktua ere ezinezkoa dela agerian jarri dugu 'mugagabetasunaren eraginik' ere ez dagoela frogatuz.

[14] Gogoratu, lehenengo atalaren 125 orrialdearen 78 oharrean egindako oharra: honelako eraikuntzak hiztun batzuentzat onargarriak diren bitartean, beste batzuentzat ez dira onak.

zuzenean aditz matrizearen ahizpa balitz (Williams-en adierazpenean bezala), aditzak berak ezarriko lioke paper tematikoa eta ez legoke berezko kasurako oztoporik. Partitiboaren ezintasuna beraz, oraingoan aztertzen ari garen predikazio-harremanak gutxienez, nolabaiteko osagai modura analizatzeko arrazoia izan daiteke. Partitiboa daramaten (32) bezalako eraikuntzak onartzen dituzten hiztunen kasuan, hiztun horiek aditz nagusia eta prolatiboa daraman izenki-predikatua predikatu konplexu modura berranalizatzen dutela eta beraz, paper tematikoa eta kasua buru (konplexu) bakarrak ezar ditzakeela esan daiteke. Horrenbestez, posible da partitibo berezko kasuaren ezarketa.

Subjektu horiek absolutibo kasua hartzea ez da objektutasunaren adierazle zuzena, zeren subjektu modura jokatzen duten bestelako argumentu batzuek ere, aditz inakusatiboen subjektuek adibidez, absolutiboa hartzen baitute: kasu-ezarketa horren eragilea den gobernu-harreman baten adierazlea da neurri handiagoan absolutibo kasu hori.

(33) zenbakiaz errepikatu ditugun adibideen anaforei dagokienez, uztarduraren A-oinarriaren arabera beren gobernu-kategorian uztarturik egon behar dutela esan daiteke besterik gabe. Horrenbestez, perpaus txiki horien subjektuaren uztardurarako gobernu-kategoria perpaus matrizea da eta ez perpaus txikia. Horrexegatik har dezakete perpaus txikien subjektuek, beren perpaus minimotik kanpoko uztartzaile bat. Ondorioz, perpaus txikien subjektuak anaforak edo NParen aztarnak izan daitezke inolako arazorik gabe.

(33) a. Mikel eta Anek$_i$ ezinbestekotzat dauzkate elkarren lagunak$_i$
b. Mikel eta Anek$_i$ zuhurrago bihurtu dute elkarren jokaera$_i$

Morfologia pasiboarekin eta aditz inakusatiboekin batera gertatzen den NP objektuaren edo kasu honetan balizko perpaus txikiaren subjektuaren igoera ere (34), uztarduraren A-oinarriaren bidez azal daiteke, anaforen agerpena bezala, zeren azken batean NPen aztarnen banaketa ere uztarduraren oinarri horrek azaltzen baitu.

(34) a. Saioa$_i$ [t$_i$ bukatutzat] emana da
b. Ura$_i$ [t$_i$ ardo] bihurtu da

Bukatzeko, PRO kategoriaren ezintasuna ere, perpaus txiki horien subjektuarena gobernaturiko gunea izateari zor zaio besterik gabe, PRO kategoria gobernaturiko guneetatik bazterturik baitago.

Ohar hauek guztiak, Stowell-ek (1991) berak eman ditu aditzera ingelesa hizkuntzaren kasu zehatzerako, perpaus txikien subjektuaren sintaxi-jokaera objektutasunaren froga baino gobernu-harreman bereziaren adierazlea dela azpimarratuz.

Orain arte aztertu ditugun predikatu-eraikuntzak NOR-NORK motako bi argumentuko aditzek azpikategorizaturikoak izan dira. Baina horietaz gain baditugu aditz inakusatiboek azpikategorizaturiko predikatu-harremanak eta *irudi(tu)* eta *iritzi* aditzek azpikategorizaturikoak alde batetik, eta bestetik, adjunktutzat hartu ditugun bigarren mailako predikatuak ere.

Aditz inakusitaboen subjektuak, aditzaren osagarriaren gunean sortzen dira. Argumentu horretaz gain predikatu-osagarri bat eskatzen duten *izan* eta *egon* aditzen kasuan, adarkaketa bikoitzaren baldintza eta Burzioren orokorpena batera mantentzeko aukera bakarra, subjektu eta predikatu horiek loturazko aditzaren osagarri modura txertatuko den osagai bakarrean sartzea da (35).

(35) a. Peru$_i$ [t$_i$ azkarra] da
b. Jon$_i$ [t$_i$ pozik] dago
c. Miren$_i$ [t$_i$ triste] jarri da

Perpaus txiki horien subjektuak, perpaus matrizera goratuko lirateke absolutiboa hartzera. Analisi horren alde, partitibo berezko kasuaren ezintasuna aipa daiteke: *izan* eta *egon* aditzek, beren adiera existentzialean (36a, c), eta baita *jarri* aditzak, bere ohizko adiera iragankorrean (36b), partitiboaz markaturiko argumentuak onar ditzakete, baina horrelakoak ez dira posible adiera atributiboan (37).


(36) a. Ba al dago medikurik gela honetan?
b. Ez diote eragozpenik jarri geure proiektuari
c. Ez da ikaslerik ikasgelan

(37) a.*Ba al dago medikurik pozik eritetxe honetan?
b.*Ez da ikaslerik pozik jarri irakaslearen istripuagatik
c.*Ez da haurrik triste herri honetan

Partitibo kasuaren ezaren eragilea perpaus txikiaren subjektuari paper tematikoa eta kasua ezartzen diotenak elementu desberdinak izatea da eta beraz, eraikuntza hauetarako perpaus txikiaren analisia egokiena dela pentsa daiteke.


Irudi(tu) aditzaren kasuan, subjektuak hartzen duen kasua ez da objektuaren gunean sortzen diren argumentuen tipikoa, Varen espezifikatzailean sortzen diren argumentuen bereizgarria den ergatibo kasua baizik. Bi analisi posible dugu honelako aditzekin batera agertzen diren eraikuntzetarako:

(i) Hasteko, baliteke subjektu hori Varen espezifikatzailean eta predikatu-osagarria Varen ahizpa modura sortzea eta horrela, subjektuak hartzen duen kasua sorrera-gune horren islada izatea, ondoren islapen funtzioanalen baten espezifikatzailean ezarri dela onartuz ere. Hala ere, aukera horren alde eginez, nekez aurkituko genuke konfigurazio horretan (38) predikatu-osagarriak bere subjektuari paper tematikoa ezartzeko mekanismorik. Gainera, aditzak predikatu osagarria θ-markatuko luke, eta hori predikatu-izaeraren aurka lihoake.




(ii) Beste aukera bat, subjektu eta predikatuak aditz matrizearen osagarri modura txertaturiko osagai bat (perpaus txiki bat) eratzea liteke. Horrela, subjektuaren kasua, S-egiturarako pausoan beteriko gunearen adierazle litzateke (40).

(39) Liburu horrek$_i$ [t$_i$ interesgarri] dirudi



(iii) Azkenik, baliteke subjektuak (40) analisian bezala FParen barnean sorturik, igoerarik ez pairatzea (41). Horretarako, kasua jatorrizko tokian bertan jasotzeko aukera izan behar luke. Orduan, perpaus nagusiaren subjektu modura pro espletibo bat behar genuke. Izenondoek kasua esleitzeko ahalmenik ez dutenez, aditz nagusitik jaso beharko luke kasua perpaus txikiaren subjektu horrek. Bi mekanismo dago aditzak bere osagarriari kasua esleitzeko: alde

batetik berezko kasu-ezarketa dugu eta bestetik, kasu-ezarketa berezia.



Edonola, aditz nagusiak ezin ezar diezaioke berezko kasurik perpaus txikiaren subjektuari subjektu hori izenondoak θ-markatzen baitu. Bestetik, subjektu horri aditzak ezarketa bereziaren bidez kasua esleituko balio, objektuen bereizgarria den absolutiboa espero behar genuke ergatiboaren ordez. Beraz, ez dirudi aukera hauek inola ere onargarriak direnik.

Horrenbestez, (ii) aukera dirudi egokiena: aukera horren alde, hiztun guztiek eraikuntza hauetan egiten duten subjektuaren eta aditzaren arteko komunztaduraz gain hiztun askok egiten duten subjektuaren eta izenki-predikatuaren arteko zenbaki-komunztadura aipa daiteke (42), hori subjektuak eta izenki-predikatuak FP islapenean espezifikatzaile-buru harremana izan dutela adierazten baitu.

(42) Liburu horiek$_1$ [$_{VP}$ [$_{FP}$ t$_1$ interesgarriak] t$_V$] dirudite$_V$

Iritzi aditzari dagokionez ere, antzeko arrazonamendua egin daiteke, baina kasu honetan, bi argumentuko aditza dugu: aditzaren espezifikatzailean sorturiko argumentuari ergatiboa ezarriko zaio S-egiturako gunean (nolabaiteko buru funtzionalaren espezifikatzailean) eta Varen ahizpa modura txertaturiko predikatu-eraikuntzaren subjektuari, datiboa ezarriko zaio beste islapen funtzional baten espezifikatzailean.

(43) Mikelek$_1$ lan horri$_2$ [$_{VP}$ t$_1$[$_{FP}$t$_2$ interesgarri] t$_V$] deritzo$_V$

Orain arteko kasu guztietan, azpikategorizaturiko perpaus txikiez, eta beraz L-markaturiko osagaiez aritu gara. Honelako osagaiak, Chomsky-ren (1986) arabera, ez dira gobernurako hesiak, eta beraz, subjektuarena gobernaturiko gunea da. Bigarren mailako predikatu adjunktuak ordea, aukerakoak dira eta beraz, ez daude L-markaturik; horrela, beren subjektuaren gunea ez dago gobernaturik. Hala ere, predikatuok aditz matrizearen argumenturen bati zuzendurik daudela ulertzen dugu, batzuetan argumentu desberdinen arteko anbiguitateak ere badirelarik. Perpaus txikien teoriaren barnean predikatu adjunktu hauen subjektuak PRO kategoria isilekoak direla ulertu behar da, osagai-izaera beroietara ere hedatzeko (44) (Stowell, 1983; Safir, 1983; Hoekstra, 1988).

(44) a. Jonek$_i$ [PRO$_i$ pozik] irakurri zuen Mirenen gutuna
b. Mikelek aitari kotxea$_i$ [PRO$_i$ apurtuta] itzuli zion
c. Garaziri ilea$_i$ [PRO$_i$ motz] ebaki diogu

Predikazioaren Teoriaren arloan berriz (Williams, 1981, 1983; Rothstein, 1983; Mc Nulty, 1988), adjunktu arruntak lirateke predikatu horiek, bete behar luketen baldintza, subjektu eta predikatuaren arteko c-komando delarik.

(45) a. [Jonek]$_i$ [pozik]$_i$ irakurri zuen Mirenen gutuna
b. Mikelek aitari [kotxea]$_i$ [apurtuta]$_i$ itzuli zion
c. Garaziri [ilea]$_i$ [motz]$_i$ ebaki diogu

Kasu honetan zailagoa da teoria baten edo bestearen aldeko frogarik ematea, kategoria huts baten existentzia frogatzea beti baita zail samarra. Predikatu adjunktuen subjektuak PRO kategoriakoak izatearen aurka egin duten egileek, batez ere subjektu-gune hori gobernatugabea izatearen ezintasuna jarri dute agerian. Guk geuk, atal honetako 3.4.3.3. azpisailean, frogatutzat utziko dugu perpaus txikiak predikatu buruen islapen hedatuak badira subjektuaren gune hori gobernatu gabea izan daitekeela.

Laburbilduz, azpikategorizaturiko predikatu osagarrien subjektuek azaltzen dituzten objektuen antzeko ezaugarriak (kasu-mota, izenordain bihurkariak izateko aukera, eraikuntza pasiboetan mugimendua pairatzeko aukera eta PRO kategoria isilaren ezintasuna), subjektu horien gunea kanpotik gobernaturiko gunea dela onartuz azal daiteke. Horretarako 'Predikazioaren Teoria klausala' onartzekotan, perpaus txikien osagai horren muga kanpotiko gobernurako zeharkagarria izatea azaldu behar da. Chomsky-ren (1986) lanaren arloan, zeharkagarritasun hori perpaus txikiak aditz nagusiak L-markaturiko osagaiak izateagatik gobernurako hesiak ez direlako oharrean oinarrituz azal daiteke. Predikatu adjunktuen kasuan berriz, beraien subjektuaren gunea gobernatugabea izateko aukera badagoela frogatu behar da.

3.3.2. Perpaus txikien osagai-izaera

Esan dugunez, perpaus txikiek ez dute beren subjektuari kasua ezar diezaiokeen inolako bururik eta horrela kanpoko kasu-ezarle baten beharra izaten dute gauzaturiko subjektu bat azaldu behar dutenean. Hori dela eta, aditz matrizearen subjektuaren gunea ezinezkoa da perpaus txikietarako. Hala ere, Safir-ek (1983) frogatu duenez, ingelesez onargarriak dira subjektu gauzatua duten perpaus txikiak *to be* aditzaren subjektu modura.[15] Hona hemen Safir-en adibide bat (46a) eta beste edozein aditz matrize hautaturik ondorio txarrak gertatzen direla erakusteko beste bat (46b).

(46) a. [Workers angry about the pay] is just the sort of situation that the ad campaign was designed to avoid
b.*[Workers angry about the pay] pleases Maybelle immensely

---

[15] *To be* aditzaren subjektu modura ager daitezkeen eta NPen ohizko guneetan onargarriak ez diren bestelako kategoria hauei 'Honorary NPs' (HNP) deritze Safir-ek. Egile honek, Stowell-ek (1981) deskribaturiko beste HNP batzuen sintaxi-jokaera ere deskribatu du: alde batetik, subjektu/laguntzaile alderanzketa paira dezakete, eta bestetik, igoera jaso dezakete kasu-arrazoiak direla eta:

(i) a. [Under the bed] is a cozy spot
b.[Angry] is a terrible way to feel
c. *Under the bed pleased the cat
d. *Unwanted would please the cat

(ii) a. Is angry a terrible way to feel?
b. Is under the bed a nice place to hide?

(iii) a. Under the bed seemed to be a cozy spot
b.*Under the bed seemed to have pleased the cat

c. Workers angry about the pay does indeed seem to be just the sort of situation that the ad campaign was designed to avoid

To be aditzaren subjektu gisa txertaturiko elementu horien osagai-izaeraren aldeko froga modura, aditz matrizeak komunztadura singularrean egitea azpimarratu du Safir-ek.

Beste hizkuntza batzuetan ere, antzeko frogak aurkitu dira perpaus txikien existentziaren alde. Hor daude adibidez, Chung & McCloskey-k (1987) eskaini dituzten gaelikoaren datuak: gaelikoaz, [NP XP] motako osagaiak zenbait aditzen (*tarlaig* = gertatu eta hautemate aditzak) osagarri modura ezezik (47), zenbait izenondo eta aditzondoren (*minic* 'sarritan', *fada* 'luze', *gairid* 'labur', *túisce* 'goizago', *annamh* 'arraro', *gnáthach* 'ohizko') osagarri modura (48), eta sintaktikoki isolaturiko zein *agus* 'eta' edo *ach* 'baina' juntagailuen bidez txertaturiko testuinguruetan ere (49) ager daitezke.

(47) a. Tarlaigh cuid mhór daoine ar meisce an lá sin
Gertatu zen jende asko mozkortuta egun horretan
'Egun horretan jende asko mozkortu zela gertatu zen'
b. Chuala mé the soldiers leave (Prog)
Entzun nituen nik soldaduak heltzen
' Soldaduak entzun nituen heltzen ari zirela

(48) a. Ba mhinic Eoghan sa teach
Zegoen askotan Owen etxean
'Owen askotan etxean egoten zen'
b. Ba annamh mo dheartháir sásta
Zegoen arraro nire anaia pozik
'Nire anaia gutxitan egoten zen pozik'

(49) a. Tháinig sé isteach agus é iontach leis féin
Etorri zen bera eta bera (akusatiboa) *oso pozik bere buruarekin*
'Etorri zenean oso pozik zegoen bere buruarekin'

[NP XP] sekuentziak isolaturik azaltzen direnean, osagaitzat hartu behar dira zalantzarik gabe, eta aditz, izenondo edo aditzondoren baten osagarriak direnean ere, egileek ohizko osagaitasun-frogak betetzen dituztela iradoki dute. Gobernatu gabeko testuinguru horietan perpaus txiki horien subjektuek kasua hartu ahal izateko, jokatugabeko perpausen subjektuei akusatibo kasua ezartzen dien erregela bat proposatu dute egileok.

Rapoport-ek (1987) ere, hebraieraren perpaus txiki absolutuen datuak eman ditu, hizkuntza horretan aditz matrize iragankor baten osagarri modura txertaturiko perpaus txiki onargarriak oso gutxitan aurkitzen direla gaineratu duelarik. Egile horrek, kasu-ezarketa bereziaren (ECM) ezintasunaz azaldu du berezitasun hori.

(50) a. ha-yeled hu student
Mutila [3.-s.mas.] ikaslea
b. ha-yelda hi smart
Neska [3-s.fem] azkarra
c. david ve-tali hayu mexmad-im
David eta Tali ziren atseginak[16]

(51) a. *david maca ota mo Sex-et
David aurkitu zuen bera(ACC) erakargarria-F
b. garamti le-david laruc
Eragin nuen-ni(k) David-i PREP-korrika egin

Rapoport-en arabera, hebraiera bezalako hizkuntzetan ezinezkoa da ECM mekanismoa, zeren kasuaren ezarketa paper tematikoaren ezarketarekiko harreman zuzenetan baitago, eta beraz, ezinezkoa baita kasua eta θ-papera ezartzen dituzten buruak desberdinak izatea.

---

[16] Adibide hauetan ikus daitekeenez, orain aldian (50 a, b) ez da inolako aditzik agertzen subjektu eta predikatuaren artean pertsona, zenbaki eta jeneroaren komunztadura gauzatzen duen izenordain bat baizik. Rapoport-ek elementu hori Inflexioaren Agr elementuari dagokiola defendatu du. Iraganean ordea (50c), beharrezkoa da loturazko-aditza denbora-markak gauzatu ahal izateko.

Osagarri modura perpaus txikiak onartzen dituzten aditzak, kausatiboen sailekoak dira: aditz hauetan txertaturiko predikatuaren burua aditz matrizeari itsasten dion berranalisi-erregela bat aplikatzen denez, buru berean elkartuta egoten dira kasua eta paper tematikoa ezartzen dituzten elementuak.

Baina sail honetan geure interesa gehien erakar dezakeena, honako hau da: hebraieraz segurtasun handiaz esan dezakegu [NP XP] motako sekuentziak badirela, eta pentsatzekoa da beste hizkuntza batzuetan ere izan daitezkeela. Rapoport-en arabera, perpaus txiki absoluturik ez duten hizkuntzek, hebraiera bezalako hizkuntzek ez duten eskakizun bat bete behar dute: predikatuek, argumentuei ezarritako paper tematikoak ikusgarriak izan daitezen nolabaiteko inflexioarekin batera azaldu behar dute ('Hedaturiko Ikusgarritasunaren Eskakizuna').

Hortaz, [NP XP] moduko osagaiak hizkuntza guztietan egon daitezke, elementu independiente modura edo osagai txertatu modura azaltzeko aukera edo ezintasuna 'Hedaturiko Ikusgarritasunaren Eskakizuna' edo tematikoki erlazionaturiko kasu-ezarketarako sistema izatearen edo ez izatearen aukera parametrikoei sor zaielarik.

(i) Euskaraz, nekez aurkituko dugu *izan* aditzaren subjektu modura azal daitekeen [NP XP] motako osagairik (HNP). Dena dela, (52a, b) eta (52c, d, e) adibideen artean, gramatikaltasun-maila ezberdin samarra dagoela esan dezakegu, lehenengo multzokoak pentsaezinak ez direlarik.

(52) a. ?Jon haserre da ikusi nahi ez nukeena
b. ?Lana bukatuta, hori da nik nahi nukeena
c. *Mikel langiletzat da daukaguna
f. * Ura ardo da bihurtu duguna
g. *Aitona gaztea da dugun oroimen bakarra

(ii) Zenbait [NP XP] sekuentzia behintzat, ez dira pentsaezinak 'pseudocleft' motako eraikuntzetan (53 a, b), hizkuntz maila zainduetan erabiliko ez genituzkeela egia bada ere.

(53) a. ?Espero nuena zen bazkaria mahai gainean
b. ?Sartzean ikusi nuena izan zen irakaslea haserre
c. *Daukaguna Mikel langiletzat da
d. *Bihurtu duguna ura ardo izan da
e. *Jarri duguna janaria mahai gainean izan da
f. *Dagoena irakaslea haserre da
g. *Dena Mikel irakaslea da

Ikusi, *irakaslea haserre* eta *janaria mahai gainean* sekuentzien gramatikaltasun-epaiketa, subjektu-funtzioa duen erlatibozko perpauserako hautaturiko aditzaren araberakoa dela: perpaus txikiaren ordez, konpletibo bat onartzen duten aditzek, ondo onartzen dituzte 'pseudocleft' perpausak, baina honelakoak onartzen ez dituzten aditzen atribuziozko adiera galdu egiten da eraikuntza hauetan, adiera existentzial, kausatibo edo dena delakoaren alde. Aditzak predikatu-osagarria behar du bere ondoan atribuziozko irakurketa jaso ahal izateko, kontu hau Stowell-en berrantolaketaren adierazle izan litekeelarik.

(iii) Eskumako adabegiaren igoeraren froga, Chung & McCloskey-k sekuentzia hauen osagai-izaeraren alde aurkeztu duten beste froga bat da: euskaraz txarrenak prolatiboa daramatenak dira, hautemate-aditzekin eta *egon, izan* eta *bihurtu* aditzekin doazenak on samarrak direlarik. Horrek indartu egiten du aurreko sailetan adierazitakoa: prolatiboa daraman izenki-predikatua aditz nagusiari itsasten dion berrantolaketa gerta liteke, biak batera predikatu konplexu bakartzat hartuko liratekeelarik.[17] Horrela, oso zail gertatzen da predikatu-osagarri hori eta aditz matrizea banatzea. *Egon, izan* eta *bihurtu* aditzen kasuan berriz, posible da banaketa hori egitea.

---

[17] Gogoratu italieraren kasuan berrantolaketa hau (euskaraz bezala) sintaxian gertatuko litzatekeen bitartean (Rizzi, 1986), ingelesez, LFrako pausoan gertatuko litzatekeela (Stowell, 1991).

(54) a. Entzun eta ikusi nituen (bai), Agate Deunaren koroak etxaurrean
b. Bazen eta bada, nire amona emakume ederra
c. ?Bazegoen eta badago Mikel nekatuta; beraz utz ezazu bakean
d. Bihurtu dugu azkenean, ura ardo
e. ??Hartu eta salatu dugu, Mikel lapurtzat

(iv) Osagai horiek eraikuntza konparatiboetan eta *besterik ez* eraikuntza enfatizatzaileetan ere, ager daitezke.

(55) a. Nahiago dut Mikel haserre Jon pozik baino
b. Hobe da txori bakarra eskuetan milaka txori airean baino
(56) a. Jende asko inguruan, besterik ez nuen ikusi
b. ?Jendea alde egiteko prest, besterik ez dut eskatu

Berriro ere, subjektuaz eta izenki-predikatuaz osoturiko osagai bat dugula pentsa dezakegu. Bestetik, aditzetik banaturik azaltzen da predikatu hori, eta beraz, sintaxian behintzat berrantolaketarik gertatzen ez dela pentsa dezakegu.

(v) Stowell-ek (1991) eskainiriko beste osagaitasun-froga bat, perpaus matrizearen osagaiak tartekatzean datza: benetan [NP XP] moduko osagairik badago, perpaus matrizeari dagokion elementuren bat (adibidez perpaus-aditzondo bat) bi segmentu horien artean tartekatzekotan, elementu hori perpaus txikiari eta ez perpaus matrizeari dagokiola ulertuko da. Perpaus-aditzondo hori bestelako guneren batean jartzekotan, perpaus matrizeari dagokiola ulertuko da. Willliams-en predikazioaren teoriaren arabera, subjektu eta predikatuak inolako osagairik osotzen ez dutenez, ez litzateke esangura-aldaketarik gertatu beharko perpaus-aditzondo hori tartekatzekotan.

(57) a *Benetan*, Jonek azalpenak beharrezkotzat dauzka
b. Jonek azalpenak *benetan* beharrezkotzat dauzka
(58) a. *Benetan*, zure anaia triste aurkitu dugu
b. Zure anaia *benetan* triste aurkitu dugu

Benetan perpaus-aditzondoa, subjektu eta izenki-predikatuaren artean tartekatzen denean (57b, 58b), aditzondo hori perpaus txikiari eta ez perpaus matrizeari dagokiola ulertzen dugu; bestelako kasuetan berriz (57a, 58a), perpaus matrizeari dagokiola pentsa daiteke.

Laburbilduz, beste hizkuntza batzuetan hala nola gaelikoaz eta hebraieraz, perpaus txikitzat har daitezkeen osagai independienteak egotea, bestelako hizkuntzetan ere horrelako osagaiak egotearen aldeko frogatzat har daiteke.

Euskaraz ere, subjektua + izenki-predikatua motako sekuentzia batzuen sintaxi-jokaera beren osagai-izaeraren aldekotzat har daiteke: HNP edo 'pseudoclef' motako eraikuntza garbiak aurkitu ez baditugu ere, egoera-mailako izenki-predikatuen kasuan eraikuntza horiek pentsaezinak ez direla eta zaindu gabeko hizkuntz mailetan behintzat aurki daitezkeela esan dugu. Bestetik, eskumako adabegiaren igoeraren aldeko frogak ere eskaini ditugu, kasu honetan izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak onargarriak direla ikusi dugularik.

Eraikuntza konparatiboetan, *besterik ez* elementuaren eta *benetan* perpaus-aditzondoaren tartekaketaz ere, egoera-mailako predikazio-harremanen osagai-izaeraren aldeko frogak lortu ditugu. *Benetan* perpaus-aditzondoaren tartekaketaz, prolatiboa daramaten predikazio-harremanen osagai-izaeraren aldeko frogak ere eskaini ditugu.

3.3.3. Uztarduraren frogak

Perpaus txikiez arduratu diren egileek, garrantzi berezia eman dizkiete uztarduraren frogei.[18] Perpaus txikiak uztardurarako zeharkaezinezko eremuak dira predikatuan kokaturiko anafora eta izenordainei dagokienez. Ingelesari dagokionez, ongi frogaturik dago datu hori.

(59) a. Mary considers Bill$_i$ kind of himself$_i$
b. Mary$_i$ considers Bill too kind to her$_i$
c. *Mary$_i$ considers Bill kind of herself$_i$
d. *Mary considers Bill$_i$ too kind to him$_i$

Gaztelaniaz ere, antzeko gertaerak ikus daitezke.

(60) a. Juan considera orgulloso de sí mismo$_i$ a Pedro$_i$
b. Juan$_i$ considera orgulloso de él$_i$ a Pedro
c. *María$_i$ considera orgullosa de sí misma$_i$ a Pedro
d. *María considera orgulloso de él$_i$ a Pedro$_i$

Euskararen datuak ere, perpaus txikia osotuko luketen subjektu eta predikatuak uztardura-eremu bat osotzen dutela ematen digute aditzera.

(61) a. Egoera zail horrek Mikel$_i$ bere buruaren$_i$ jabe bihurtu du
b. Itxialdiak pertsona horiek$_i$ elkarren$_i$ lagun bihurtu zituen
c. Entrepresariek$_i$ langileak beraien$_i$ esklabutzat dauzkate

---

[18] Ikus adibidez, Stowell (1983, 1991), Contreras (1987) eta Chung & McCloskey (1987).

d. *Gurasoek$_i$ semea elkarren$_i$ irudi bihurtu dute
e. *Entrepresariak langileak$_i$ beren$_i$ lanpostuen suntsitzailetzat jo dituzte

Hortaz, beste hizkutzetan, eta euskaraz ere, aditz iragankorrekin batera azaltzen diren subjektu/ predikatu harreman hauekin batera, uztarduraren arloko gertaera bereziak azaltzen dira: predikazio-arlo horien barnean anaforek uztarturik eta izenordainek aske egon behar dute. Horrenbestez, predikazio-harreman horiek gobernu-kategoriei dagozkiela pentsa daiteke. Chomsky-ren (1981) eta (1986) lanen arabera, antzeko ondorioetara garamatza horrek: gobernu-kategoria, eta 'Konplexu funtzional osoa' (CFC) Chomsky-ren (1986) arabera, subjektu bat duen edozein XPa da. Egile askok, uztarduraren gertaera hauek perpaus txikien osagai modurako analisiaren froga erabakikortzat jo dute, baina Stowell-ek (1991) berak onartu duenez, uztarduraren gertaera horiei azalpena, Williams-en teoriatik bertatik ere eman dakieke, gardentasun-eza predikazio-eremuen arabera definitzen bada: predikazio-eremua, predikatu-sintagma eta horren subjektua den NPa barnean dituen sintagma minimoa liteke. Azken definizio hori ongi dagokio Chomsky-ren CFC kontzeptuari ere.

3.2. sailean frogatzen saiatu garenez, perpaus txikien analisia eta Williams-en predikazioaren teoria ez dira inola ere elkartezinak: Stowell-en analisia hurbilago legoke D-egituraren adierazpenetik eta Williams-ena hurbilago S-egituraren egoeratik. Uztarduraren gertaeren benetako esanahia zehazteko beraz, teoria horren oinarri bakoitza zein mailatan aplikatu behar den finkatu behar da.

3.3.4. WH-hitzen ateratzea

Stowell-ek (1991) perpaus txikien osagaitasunaren aldeko froga modura eskaini dituen beste argumentuak, hauexek dira: izenki-predikatuen subjektu semantikoen subjektu-izaera sintaktikoaren aldekotzat har daitezkeen WH-hitzen ateratzearen frogak eta italieraren klitiko bihurkarien jokaera.

Ezaguna denez, WH-hitzen ateratzeari dagokionez, ingelesa bezalako hizkuntzetan badago subjektu eta objektuaren arteko asimetria nabaria: ateratze hori, posible da objektuetatik baina ez subjektuetatik.[19] Pepaus txikien subjektuek, zentzu honetan, perpaus arrunten subjektuek bezala jokatzen dute eta ez objektuek bezala:

(62) a. ?*Who$_i$ do you consider[[the oldest sister of t_i] foolish]
b. ?*Which book$_i$ did you find [[the author of t_i] very eloquent][20]

Ateratzearen gertaeren berri emateko, hainbat baldintza proposatu dute egileek. Horrela, Kayne-k (1984) 'Konexionaren Baldintza' delakoaren bidez azaldu du subjektutik WH-hitzak ateratzeko dagoen ezintasuna:

(63) KONEXIOAREN BALDINTZA
Ezin atera daiteke ezer kanonikoki gobernaturik ez dauden osagaietatik

---

[19] Aurrerago ikusiko dugunez, predikatu adjunktuek ere, subjektuek bezala jokatzen dute ingelesez; gaztelaniaz ordea, McNulty-k (1988) frogatu duenez, posible da adjunktu horien ateratzea.

[20] Adibide hauek Stowell-en (1991) lanetik zuzenean atera ditugu

Bestetik, edozein osagaik, kanonikoki gobernaturik egoteko, gobernatzen duen buruaren ahizpa izan behar du eta buru horrekiko gune egokian egon behar du: burua aurrean izan behar du 'burua-lehen' motako hizkuntzetan, eta burua atzean 'burua-azken' motako hizkuntzetan.

Chomsky-ren (1986) lanean, subjektu eta objektuaren arteko asimetria horiek L-markaketan oinarrituz azaldu dira: α buruak β L-markatzen du, θ-markatzen badu eta biak elkarren ahizpak badira. Horrela, ateratzea L-markaturiko osagaietara murrizturik badago, subjektuarena ez da L-markaturiko gunea izango, ez behintzat aditz iragankor eta inergatiboen subjektua: subjektu horiek VParen barnean sortzen direla onartzen dugunean ere, Varen espezifikatzailean sortuko dira eta ez Varen ahizpa modura. Objektuarena berriz, beti izango da L-markaturiko gunea, Varen ahizpa baita.

Orotaratzea edozein izanik ere, perpaus txikien subjektuek, ateratzeari dagokionez ere, subjektu modura jokatzen dute sintaxian (64). Euskararen kasurako froga horiek ez dira baliagarriak NPen barneko elementuen ateratzeak huts egiten baitu beti (65).

(64) a. De quién$_i$ has leido [un libro t_i] esta semana?
b.*De quién$_i$ ha traido [la hermana t_i] todos estos libros?
c.*De quién$_i$ consideras [[la hermana t_i] una buena alumna]?

(65) a.*Noren$_i$ irakurri duzu [t_i liburu bat] aste honetan?
b.*Noren$_i$ ekarri du [t_i ahizpak] liburu guzti hauek?
c.*Noren$_i$ daukazu [[t_i ahizpa] ikasle ontzat]?

Dena dela, NPak erabili beharrean *tze* -perpausak erabiltzen ditugunean, espero daitezkeen ondorioak lortzen ditugu: osagarri modura txertaturiko perpausetatik, posible da elementuak ateratzea (66a), baina subjektu modura txertaturiko perpausetatik, ateratzea ez da onargarria (66b). Horrenbestez, perpaus txikien subjektuek, ohizko subjektuek bezala jokatzen dute eta ez objektuek bezala.

(66) a. Nori$_i$ nahi duzu [Jonek liburua t_i ematea]

b.*? Nori$_i$ harritu zaitu [Jonek liburua t$_i$ emateak]?
c.*Nori$_i$ daukazu [Jonek t$_i$ liburua ematea] ezinezkotzat?
d.*Nori$_i$ dirudi [Jonek t$_i$ liburua emateak] ezinezkoa?

Laburbilduz, euskararen kasuan ere, *eduki* eta *irudi(tu)* aditzek L-markatzen dutena ez da izenki-predikatuaren subjektutzat har daitekeen elementu isolatua, subjektu hori eta predikatua biltzen dituen osagairen bat baizik. Hortaz, izenki-predikatu horien subjektua, subjektu arruntek bezala, Nz-hitzen ateratzerako hesia da.

WH-hitzen ateratzearen froga hau beraz, *eduki* eta *irudi(tu)* aditzek azpikategorizatzen dutena nolabaiteko osagaia, hau da nolabaiteko perpaus txikia delako ideiaren aldekotzat har daiteke.

3.3.5. Italieraren klitiko bihurkariak eta euskararekiko konparaketa

Italieraren klitiko bihurkariak, ezin tarteka daitezke aztarna baten eta bere aintzindariaren artean. Gertaera hori Rizzi-k (1986) iradoki du, NPen mugimenduaren aldeko froga garbia delakoan.

(67) a. *Gianni$_i$ si$_i$ sembra [t$_i$ non fare il suo dovere]
b. *Gianni$_i$ si$_i$ sembra [t$_i$ intelligente]

Rizzi-ren (1986) arabera, (67) adibideen antzeko eraikuntzen gramatikaltasunik eza, eratzen den katea horretan subjektuak behar duen paper tematikoa klitikoak eraturiko katemailan geratzeko beharrak eragiten du. Horretatik, (67b) modurako eraikuntzen jatorrian perpaus txiki bat dagoela, eta subjektuaren ezaugarriak ondorengo igoeraren ondorioak direla pentsa daiteke.

Williams-en teoriatik, ezin eman daiteke gertaera honen berri, APa hurbilen dagoen NPaz predikatu behar dela esanez, zeren bihurkariak ez diren

klitikoak arazorik gabe tarteka baitaitezke. Horrenbestez, arazoa goraturiko NParen aztarnarekin batera katea bat era dezaketen klitikoen kasuan baino ez da gertatzen.

Euskararen kasuan klitikoak laguntzailean itsatsirik azaltzen dira, eta aditza, markatu gabeko ordenan behintzat, bukaeran azaltzen denez, klitikoak ez dira inoiz agertzen subjektuaren eta bere aztarnaren artean. Hala ere, klitiko horiek errepikaturik egon behar dute gauzaturiko NP edo pro modura. Bestetik, aditzean pertsona berari dagokion klitikoa errepikatzea klitiko hori hirugarren pertsonakoa denean baizik ez da posible (68).

(68) a. Liburua ekarri dio (3p. ABS. 3p.DAT, 3p. ERG)
b. * Liburua ekarri didat (3p. ABS. 1p.DAT, 1p. ERG)
c. * Liburua ekarri didagu (3p. ABS. 1p.DAT, 1p. ERG)
d. *Liburua ekarri dizuzue (3p. ABS. 2p.DAT, 2p. ERG)

Errepikaturik dauden hirugarren pertsonako klitiko horiek erreferentzia bera dutenean, izenordain bihurkari bat (*bere burua*) behar da, pro kategoria isila ezinezkoa delarik.

(69) a.*Jonek$_i$ pro$_i$ oso maite du (3p. ABS, 3p. ERG)
b. Jonek$_i$ bere burua$_i$ oso maite du (3p. ABS, 3p. ERG)

Baina anafora hori, aditz iragankorren kasuan objektu-argumentuaren gunea betetzen duenean baizik ez da onargarria. Anaforak bere θ-papera predikatu-osagarritik hartzen duenean, subjektua ez da paperik gabe geratzen aditz matrizeak ezartzen baitio.[21]

(70) a. Jonek$_i$ bere burua$_i$ interesgarritzat$_i$ dauka
b. Jonek$_i$ bere burua$_i$ beharrezko$_i$ bihurtu du
c. Jonek$_i$ bere buruari$_i$ beharrezko$_i$ deritzo

---

[21] Williams-i (1980) jarraiki, subjektuari eta predikatuari indize bera egokitu diegu.

Aditz matrizea, iragangaitza denean (71), ez da posible horrelako anaforarik erabiltzea, arrazoia italierarako aipatu dugun berbera litekeelarik: izenordain bihurkariak, subjektuak behar duen θ-papera hartzen du subjektuak paperik gabe geratzen delarik. Aipatzekoa da *irudi(tu)* aditzak, osagarri modura perpaus txikiak hartzen dituenean, aditz iragangaitzek bezala jokatzen duela, hori argumentu bakarra θ-markatzen duelako hipotesiaren alde doalarik.[22]

(71) a.*Joni$_i$ bere burua$_i$ lasai$_i$ egoten zaio
b.*Joni$_i$ bere burua$_i$ azkarra$_i$ zaio
c.*Jonek$_i$ bere burua$_i$ azkarra$_i$ du
d.*Joni$_i$ bere burua$_i$ beharrezko$_i$ bihurtu zaio
e.*Jonek$_i$ bere burua$_i$ pozik$_i$ dirudi

Hortaz, argumentu bakarreko aditzak ditugunean, argumentu hori absolutiboaz zein ergatiboaz markatuta egonik ere, aditz horien subjektu modura azaltzen den argumentuak bere paper tematikoa izenki-predikatutik eta ez aditzetik jaso duela ulertu behar dugu, aditz hori kasuaz markatzen duen burua θ-markatzeko gai ez delarik.

(71) adibideen datuak (72) adibideekin erkatzen baditugu, hau da, anafora bat tartekatu beharrean, erreferentzia askea duen elementu bat tartekatzen badugu, zenbait kasutan, ondorio gramatikalak lortzen ditugu.

(72) a. Mikeli$_2$ Txakurra$_i$ lasai$_i$ egoten zaio, bisita bat duenean
b.*Irakasleari$_2$ Jon$_i$ azkarra$_i$ zaio

---

[22] Gogoratu bigarren atalaren 2.2.5. azpisailean iradoki duguna: *irudi(tu)* aditzak osagarri modura perpaus txikiak hartzen dituenean argumentu hori baino hartzen ez duela garbi badirudi ere, osagarri modura konpletiboak hartzen dituenean, bi aldaera desberdin ditu; alegia, konpletiboa baino hartzen ez duen aldaera ([*Mikel gaisorik dagoela*] *dirudi*), eta konpletiboaz gain beste argumentu bat ere hartzen duen aldaera (*Mikelek* [*bere ama hil zaiola*] *dirudi*).

c. pro-k_2 Jon$_i$ azkarra$_i$ duzu
d. Nagusiari$_2$ Jon$_i$ beharrezko$_i$ bihurtu zaio
e.*Jonek$_i$ {Peruri/Peru}$_i$ pozik$_i$ dirudi

(71b) adibideari dagokionez, gramatikaltasunik eza ekidin daiteke izenondo-predikatua aldatuz (72'b). Nor-nori laguntzailea erabili ahal izateko, 'hartzaile' bat onartzen duen izenondoa izan behar dugu (*Jon beharrezkoa da irakaslearentzat*). Hortaz, izenondoak badu nolabaiteko eragina laguntzaileak har ditzakeen klitikoak erabakitzeko orduan. (72c) adibidearen kasuan berriz, elkarrizketan parte hartzen ari den beste pertsonaren klitikoa duen adizki alokutiboa erabili dugu, hori beti posible delarik.

(72'b) Irakasleari Jon$_i$ beharrezkoa$_i$ zaio

Baina azter dezagun aurrerago bihurkaritasunetik urrun dagoen laguntzailearen hautaketa hau.

3.3.6. Klitizazioa eta perpaus txikien berrantolaketa

3.3.6.0. Italieraren datuak

Rizzi-k (1986) italieraz gertatzen diren (73) adibideen antzerako klitizazioak perpaus txikietan gertatzen diren berranalisien adierazletzat hartu ditu (73a): aditz matrizeari gaineratzen zaion klitikoa izenondoaren argumentua da eta ez aditz nagusiarena.

(73) a. Gianni$_i$ gli$_h$ è [t$_i$ affezionato e$_h$]
b.? I nostri amici gli$_i$ hanno reso [[Maria piu affecionata [e]$_i$]

Bestetik, Stowell-ek (1991) italierazko albokidetasunaren (73b) eskakizuna, eraikuntza hauetan gertatzen den berrantolaketaren adierazletzat jo du. Berranalisian txertaturiko predikatuaren burua aditzari itsasten bazaio, ez da albokidetasunaren eskakizunerako aparteko azalpenik eman behar. Berrantolaketa horrek, aditzari edo berari itsatsiriko klitikoari, klitiko horri dagokion argumentuaren aztarna gobernatzen utzi behar dio.

Euskaraz ere, aurreko sailean eskainiko dugun (74'b) adibidearen gertaerak, italieraren klitizazio horren antza nabaria du: izenondoaren argumentu bati dagokion klitikoa laguntzaileari gaineratu zaio, eta beraz, argumentu hori AParen barnean gauzatu beharrean, perpaus matrizean gauzatu da.

3.3.6.1. Euskaraz zenbait argumenturen klitizazioa onartzen duten izenondoak

Azpisail honetan, 'hartzaile' bati dagokion klitikoa onartzen duten *beharrezko* eta *kaltegarri* bezalako izenondoez gain, bigarren atalaren 22232 azpisailean aipatu ditugun neurri-izenondoen kasua ere, gogoratu behar dugu (74). Hauetan ere, izenondo-motak badu zerikusirik laguntzailearen hautaketan eta bi izakien arteko neurri-konparaketa egiten denez, bi izaki horiei dagozkien argumentuek (klitikoak), laguntzailean bertan ere ager daitezke.

(74) a. Gona hori luzea du Mirenek
b. Haur horrek zapatak txikiak ditu
c.*Gona hori luzea zaio Mireni
d. *Haur horri zapatak txikiak zaizkio
e. Gona hori luzea da Mirenentzat
f. Zapatak txikiak dira haur horrentzat

Txiki eta *luze* bezalako izenondoek beren subjektuari (*gona, zapatak*) ezartzen dioten paper tematikoaz gain, badute modu berean argumentu bat 'hartzailearen' paper tematikoaz markatzeko ahalmena. Hartzailearen paper hori AParen barnean bertan gauza daiteke (74e) eta (74f) adibideetan bezala, baina badago baita laguntzailean klitiko ergatibo modura gauzatzeko aukera ere.

Beharrezko eta *kaltegarri* bezalako izenondoen kasuan ere, antzeko jokaera ikus daiteke: AParen barnean destinatibo posposizioaz markaturiko argumentu modura edo laguntzailean klitiko datibo modura gauza daitekeen 'hartzailea' har dezakete (75):

(75) a. Lagun hori kaltegarri zaio Mikeli
b. Gurasoak guztiz beharrezkoak zaizkie haur txikiei
c. Mikelek lagun hori kaltegarria du
d. Haur txikiek guztiz beharrezkoak dituzte gurasoak
e. Lagun hori kaltegarria da Mikelentzat

f. Gurasoak beharrezkoak dira haur txikientzat

Egon aditzarekin agertzen diren predikatuen kasuan ere, badago predikatuaren argumentua den elementu bat predikatu-sintagmaren barnean edo kanpoan gauzatzeko aukera ere (76).

(76) a. Mikel gure zain dago
b. Mikel zain dugu
c.*Mikel zain zaigu

Azken kasu honetan *zain* predikatu-buruaren argumentua genitibo markadun argumentu modura (76a) edo laguntzailean klitiko ergatibo modura (76b) gauza daiteke, baina ez klitiko datibo modura (76c).

Subjektuaren paper tematikoa baizik ezin ezar dezaketen izenondoen kasuan, ezin erabil daiteke *izan* aditza baino (77a), bestelako laguntzaileak bazterturik daudelarik.

(77) a. Ander oso berritsua da
b.*Jonek Ander oso berritsua du
c.*Joni Ander oso berritsua zaio

(78a) bezalakoak, onargarriak dira baina horietan gaineratu dugun klitikoa ez dagokio izenondoaren argumentu bati, mintzatzen ari den beste pertsonari baizik. Adizki alokutiboak ditugu hauek.

(78) a. Ander oso berritsua {duk/dun}
b.*Ander oso berritsua {zaik/zain}

Baina laguntzailean, predikatu-sintagmaren argumentuei dagozkien klitikoez gain, 'jabego alienagarria' zein 'jabego alienaezina' adierazten duten subjektuen atalei ere egoki dakizkieke laguntzailearen klitiko ergatiboak (79, 80).

(79) a. Anderren ilea luzea da
b. Anderrek ilea luzea du

c.*Anderri ilea luzea zaio

(80) a. Anderren etxea txukun(a) dago

b. Anderrek etxea txukuna du

c. *Anderri etxea txukuna zaio

Hala ere, ikusi (79) eta (80) adibideak, eta baita (76) saileko adibideak ere, ez direla (74) eta (75) sailetakoak bezalakoak: genitiboaz markaturiko argumentua bi argumentuko aditza erabiltzen denean ere gauza daiteke predikatuaren edo subjektuaren barnean, lortzen diren ondorioak horren dotoreak ez diren arren: erkatu (81 a, b, c) adibideak, (81 d, e) adibideekin.

(81) a. Mikel [gure zain] dugu

b. Anderrek [bere ilea] luzea du

c. Anderrek [bere etxea] txukuna du

d.*Lagun hori Mikeli [Mikelentzat kaltegarri] zaio

e.*Mirenek gona hori [Mirenentzat laburra] du

Horrenbestez, (81 a), (81b) eta (81c) kasuetan alde batetik, eta (81d) eta (81e) kasuetan bestetik, bereizi beharreko bi gertaera dugula pentsatu behar dugu: azken bi kasuetan benetan kanporatu ditugu izenondoaren bi argumentuak, eta beraz, horren arabera egindako laguntzaile baten hautaketaren aurrean gaudela pentsa dezakegu. Hasierako hiru adibideetan ordea, aditz iragangaitz baten (*izan* edo *egon*) edo aditz iragankor baten (*eduki* edo *ukan*) osagarri modura txerta daitezkeen izenondoen (edo orokorki predikatuen) aurrean gaude, eta beraz V sarrera beraren hautaketa da argumentu bakarreko edo bi argumentuko perpausaren eraketa erabakitzen duena.

Bestetik, klitizazioa nolabaiteko berranalisiaren adierazle balitz, berranalisi hori agerian uzten duten frogen aurrean desberdin jokatu beharko lukete (81a, b, c) bezalakoek eta (81 d, e) bezalakoek. *Benetan* perpaus-aditzondoaren tartekatzeari dagokionez, bai kasu batean eta bai bestean ezinezkoa dela ikus daiteke (82).

(82) a.*Mirenek gona hori laburra benetan du

b.*Mikeli lagun hori kaltegarria benetan zaio

c.*Mikel zain benetan dugu

Zain egon sekuentziaren kasuan ez dirudi berranalisiaz hitz egin daitekeenik, zeren klitiko ergatiboa azaltzen denean (83b) ez baitzaigu *zain egon* sekuentziarik agertzen *egon* aditzaren desberdina den aditz iragankor bat baizik (*eduki* edo *ukan*) (83d, e)).

(83) a. Mikel [gure zain] dago
b. pro-k Mikel [zain] {dugu/daukagu}
c. *pro-ri Mikel [zain] {zaigu}
d. Mikel [gure zain] egon da hiru orduz
e. pro-k Mikel zain eduki dugu hiru orduz

Adizki perifrastikoa eskatzen duen aspektualki markaturiko aldaki bat hautatzen dugunean (83 d, e), garbi ikus daiteke kasu bakoitzean (argumentu bakarreko edo bi argumentuko esaldiak) aditz-sarrera bat hautatu dugula eta berranalisiaren adierazletzat har litekeen *zain egon* sekuentzia ez dela azaltzen teorikoki berranalisi horren adierazle litekeen (83 e) adibidearen kasuan.

Itzul gaitezen orduan benetan kanporaturiko argumentu baten adierazleak izan litezkeen (74) eta (75) adibideetara. Errepika ditzagun adibideok argumentazioa hasi aurretik.

(74) a. Gona hori luzea du Mirenek
b. Haurrak zapatak txikiak ditu
c.*Gona hori luzea zaio Mireni
d.*Zapatak txikiak zaizkio haurrari
e. Gona hori Mirenentzat luzea da
f. Zapatak haurrarentzat txikiak dira

(75) a. Lagun hori kaltegarri zaio Mikeli
b. Gurasoak guztiz beharrezkoak zaizkie haur txikiei
c. Mikelek lagun hori kaltegarria du
d.*Haur txikiek guztiz beharrezkoak dituzte gurasoak
e. Lagun hori kaltegarria da Mikelentzat

f. Gurasoak beharrezkoak dira haur txikientzat

Kasu hauetan benetan gauzatu ditugu izenondoaren bi argumentuak APtik kanpo (74 a, b eta 75 a, b). Azaltzen diren adizkiak (*du, ditu, zaio, zaizkie*) laguntzaileen sailean sar genitzake zalantzarik gabe, bereziki *zaio, zaizkie* adizkiak inolako aditzaren hiztegi-sarrerari ez baitagozkio.[23] Edozein modutan, izenondoan askotan azaltzen den zenbaki-komunztaduraren markak (*-a(k)*) zailago egiten digu oraindik berranalisi horren aukera.

Izenondoaren eta laguntzailearen arteko albokidetasuna azaltzeko, pentsa dezagun adizki perifrastikoetan ere (84) antzeko gertaera dugula, eta ez dugula berranalisiaz hitz egiten: adizkiaren zati lexikoak eta laguntzaileak jarraian azaldu behar dute baiezko perpausetan.

(84) a. Liburua denda horretan erosi dugu
b.*Liburua denda horretan erosi benetan dugu
c. Liburua ez dugu benetan denda horretan erosi

(85) a. Mirenek prakak txikiak ditu
b.*Mirenek prakak txikiak benetan ditu
c. Mirenek ditu prakak benetan txikiak, ez Edurnek

Euskara, 'burua-azken' motako hizkuntza da; beraz, buruak beti azaltzen dira beraien islapen nagusia osagarri modura hartzen duten buruen ondoan. Horrela, V, edo zehazkiago V-Asp beti azaltzen da VParen (edo AspParen) ahizpa den Infl buruaren ezkerraldean. Modu berean V edo Aux buruen ezkerrean beraien osagarria den AParen burua (A) azaltzen da. *Benetan* bezalako elementuak AP edo IParen ezkerrean adjunktatzen badira, ezin azal daitezke inoiz, izenondoaren edo aditzaren zati lexikoaren eta laguntzailearen artean.

---

[23] EGLU-II gramatikaren egileek, aurkako arrazonamendua egin dute (83 orrialdea): *du, ditu, zaio* eta *zaizkie* bezalako adizkiak, predikatu-osagarri batekin azaltzen direnean, loturazko aditzak direla defendatu dute.

Bukatzeko gogoratu 3.3.2. sailean emandako hainbat frogak (eskumako adabegiaren igoera, eraikuntza konparatiboak eta *besterik ez* elementuaren tartekaketa) *izan* aditzaren eta bere ondoan azaltzen den izenondoaren artean berranalisirik egiten ez dela defendatzera eraman gaituztela.

Ondorioz, izenki-predikatuaren zenbait argumentu aditz nagusiaren klitiko modura baimentzen duten eraikuntza hauetan ezin pentsa daiteke aditz nagusiak eta izenki-predikatuak unitate bakar modura jokatzera eramango lituzkeen berranalisirik gertatu denik, izenondo batzuek beraien argumentu-egitura gauzatzen baimenduko liekeen aditza erabakitzeko gai direla baizik. Azaltzeko falta zaigun gertaera nagusia beraz, hauxe da: izenondo batzuek ergatiboa eskatzen duten arren beste batzuek datiboa zein ergatiboa onartzen dute 'hartzaile' horretarako.

3.3.6.2. Laguntzailearen hautaketa eta predikatuen motak

X'-Teoria gramatika-kategoria guztietarako bete behar dela onartuz, V kategoriaren barnean hainbat sail (iragankorrak, inergatiboak, inakusatiboak) bereiz daitezkeen bezala A kategoriarako ere antzeko sailak egotea espero liteke argumentu-kopurua eta sorrera-gunea kontutan harturik. Cinque-k (1990) izenondoen artean ere inergatibo/inakusatibo bereizketa bilatzen saiatu da italiera eta frantzesarako, eta izan ere, horrelako sailak bereiz daitezkeela defendatu du hainbat sintaxi-frogaren bidez.

Cinque-ren iritziz, izenondoek ere horrelako sailkapena onartzen dutelako aztarnarik nabariena, (86) eta (87) perpausetan azaltzen diren txandakaketetan ikus daiteke: *certo* edo *sicuro* izenondoek bi argumentuko (86a, 87a) edo argumentu bakarreko perpausak (86b, 87b) gauza ditzakete.

(86) a. Gianni è {certo/sicuro} [che verrò]
b. [Che verrò] è {certo/sicuro}
(87) a. Gianni è {certo/sicuro} [di questo]
b. [Questo] è {certo/sicuro}

(86a) eta (87a) adibideetan izenondoak bi argumentu hartu ditu: (86a) adibidean *Gianni* DPa eta perpaus konpletibo bat dira argumetu horiek eta (87a) adibidean, *Gianni* DPa eta PP bat. (86b) eta (87b) adibideetan ordea, argumentu bakarra dago (subjektua), bi kasuetan subjektu hori a adibideetako barne-argumentua (perpausa edo PPa) delarik. Iragankor/ inakusatibo txandakaketa baten aurrean gaudela esan daiteke argi eta garbi. Euskaraz ere, antzeko datuak aurki ditzakegu:

(86') a. Peru ziur dago [etorriko zarela]
b. Ziur(ra) da [etorriko zarela]
(87') a. Peru ziur dago [horretaz]
b. Hori ziur(ra) da

Kasu bakoitzean azaltzen den aditza alde batera utzirik, euskaraz ere, *ziur* izenondoaren kasuan behintzat iragankor/inakusatibo txandakaketa ikus daitekeela uste dugu, argumentu bakarreko eta bi argumentuko eraikuntza analogoak baititugu.

Onar dezagun, izenondo guztiak X'-Teoriaren arabera islatzen direla, eta *luze, handi , kaltegarri* edo *beharrezko* bezalako izenondoek bi argumentuko (tema eta hartzailea) egitura islatzen dutela. Kasu guztietan dugu aukera argumentu bakarreko esaldiak egiteko (*hori luzea da, hori beharrezkoa da,....*). Horrela, predikatuaren subjektu semantikoa (*gona hori, zapatak, lagun hori, gurasoak*), beti beharrezkoa delarik, izenondoen barne-argumentutzat hartuko dugu eta beste argumentuetarako bestelako gune batzuk bilatu beharko ditugu.


Demagun *luze* eta *kaltegarri* bezalako izenondoekin aurkitzen ditugun kasu-ereduak, aditz-predikatuen kasuan bezala, sorrera-gunearen adierazleak direla: espezifikatzailean sorturiko argumentuei ergatiboa ezartzen zaie eta osagarrian sorturikoei absolutiboa.[24] Horrela, predikatu hauen guztien (*kaltegarri, labur,...*) subjektu semantikoak beren osagarri modura sortuko lirateke, eta bestetik, 'hartzaile' argumentua izenondoaren espezifikatzailean sortuko litzateke ezinbestean ergatibo marka eramatea eskatzen duten *luze* bezalakoen kasuan. Hartzaile horretarako datiboa zein ergatiboa onartzen duten *kaltegarri* eta *beharrezko* izenondoen kasuan, zailagoa da sorrera-gune bat erabakitzea: momentuz, demagun argumentu hori adjunktu modura sortzen dela; orduan hartuko duen kasua beste arrazoi batzuen araberakoa izango da eta ez sorrera-gunearen araberakoa. 'Hartzaileak', predikatu-sintagmaren barnean gauzatzen denean, kasua posposizio batetik (*-(r)entzat*) hartzen du, baina bi argumentuak APtik kanpo

---


[24] Datibo marka daramaten argumentuetarako ez dago garbi sorrera-gune zehatza ba ote duten. Ergatibo eta absolutiboarekin batera azaltzen direnean, adjunktuak direla pentsa genezake, Varen osagarria eta espezifikatzailea beste bi argumentuez beterik baitaude, baina nor-nori motako laguntzaileak ditugunean, espezifikatzailean ere sor liteke datiboa hartuko duen argumentu hori.

gauzatzen direnean, ezberdintasunak azalduko dira:[25] espezifikatzailean sorturiko argumentuari ergatiboa ezarriko zaio beti baina adjunktu modura sorturiko argumenturako, badaude ergatiboaren eta datiboaren aukerak.

(88) a.



b.




Predikatu-sintagmaren bi argumentuak APtik kanpo gauzatzen direnean, jokaturiko *izan* laguntzailearen ordez, nor-nori edo nor-nork laguntzaileak agertzen dira. Laguntzaile hori AParen motaren araberakoa delarik.

---


[25] Hurrengo adierazpenetan ez gara islapen funtzionalen zehaztapena egiten saiatuko. Azpisail honetarako garrantzia izan dezakeela eta, Laka-ri (1991) jarraiki gatzaizkio eta AuxP jarri dugu predikatua menperatzen duen lehenengo islapen funtzionala delakoan. Horren gainean, IP isladapena gaineratu dugu, bertan MP, TP, AgrP edo zer dagoen zehaztu behar ez izateko. Edozein kasutan, Aux bera I(nfl) kategoriaren zati bat litzateke eta I(nfl) modura izendatu dugunaren barnean, baliteke zenbait kategoria desberdin gehiago egotea.

Bestalde, hurrengo atalean ikusiko dugunez, subjektuaren eta predikatuaren arteko zenbaki-komunztaduraren berri emateko, AP eta AuxP islapenen artean, komunztadura hori gauzatzeko balio dezakeen islapen funtzional bat dagoela proposa daiteke. Edonola, arazo hori IV atalerako utziko dugu.

(89) a.



b.




Ikusi adierazpen hauetan AParen eta AuxP islapen funtzionalen artean ez dugula VP moduko kategoria lexikorik kokatu: horrela laguntzailea (AuxP), A predikatu-buruaren islapen hedatua da eta beraz, izenondoak erabakitzen ditu islatu behar duen laguntzailearen ezaugarriak, hots laguntzaile horren argumentu-kopurua eta argumentu-motak. Predikatua VP kategoriakoa denean ere, mekanismo bera erabiltzen da, eta beraz, harreman zuzena dago aditzaren motaren (iragankorra, inakusatiboa edo inergatiboa) eta laguntzailearen motaren (*izan*,° *edun*) artean.

(86') eta (87') adibideetara itzuliz, (86'a) eta (87'a) adibideen izenondoak iragankorrak direla defendatu dugu. Bestetik, konpletiboa edo instrumentala duen argumentua osagarriaren gunean sortzen dela pentsatu behar dugu, gune horretan gauzatzen baitira hiztegi-sarreraren azpikategorizatzeari dagozkion argumentuak eta gainera, aldaera inakusatiboan horixe baita mantentzen den argumentua. Beste argumentua (*Peru*) beraz, [spec, A] gunean sortu dela pentsatu behar dugu, baina ez du sekulan ergatibo kasua eramaten, absolutiboa (osagarriaren gunean sorturiko argumentuen kasu tipikoa) baizik.


Ikusi gainera, aldaera iragankorra azaltzen denean ez dela posible *izan* aditza, halabeharrez *egon* aditza aukeratu behar baita. Kasu hauetan, AP eta AuxP islapenen artean, *egon* aditzari dagokion VP islapena dugu eta beraz, laguntzailearen islapen hedatua aditz horri dagokio eta ez osagarri modura

duen izenondoari. Ondorioz, laguntzaile horrek ez du zerikusirik izenondoaren argumentu-egiturarekin: *ziur* izenondoak, iragangaitza denean, izaki-mailako predikatuak islatzen ditu, baina iragankorra denean, egoera-mailako predikatuak islatzeko gai da *egon* aditzarekin azal daitekeelarik (gogoratu bigarren atalaren 2.2.2.2. azpisaila). Ikusi bestetik, izenondo horrek, izaki-mailako predikatuak islatzen dituenean zenbaki-komunztadura ere har dezakeela (90b, 91b)


(90) a.




b.



(91) a.



b.



Horrela, (88) edo (90a) (91a) bezalako adibideetan, gune bakarreko laguntzailea edo aditza dugunez, APtik soilik argumentu bat atera daiteke eta aterako den argumentua AParen barnean kasuaren beharrak ezin ase ditzakeena izango da: *luze* eta *kaltegarri* izenondoen kasuan, hartzaileak *-rentzat* posposizioa har dezake eta beraz, aterako dena, osagarrian sorturiko argumentua izango da.

Ziur izenondoaren kasuan ordea, osagarrian sorturiko argumentuek ez dute kasu-beharrik: bata CP mailakoa da eta besteak, *-z* posposizioa darama. Mugituko den argumentua beraz, espezifikatzailean sorturikoa izango da. [spec, A] gunean sorturiko argumentu horrek, ergatiboa hartu beharko luke, baina AP eta AuxP isladapenen artean *egon* aditza dagoenez, Aux hori aditz inakusatibo horren islapen hedatua da eta beraz mugituriko argumentuak (*Peru*) absolutibo kasua hartuko du, *egon* aditzak gune bakarreko laguntzailea islatzen baitu.

Luze eta *kaltegarri* izenondoen kasura itzuliz, bi argumentuko laguntzailea islatzen badute, kasua beste modu batez ezin lor dezakeen osagarria ezezik, beste argumentua ere, aterako da, laguntzailearen komunztadura-eskakizunei

erantzuteko: argumentuaren sorrera-gunearen arabera, datiboa edo ergatiboa ezarriko zaie argumentu horiei.

Bukatzeko, *ziur* izenondoaren aldaera inakusatiboa ere badugu. Aldaera horrek ez du egoera-mailako predikaturik islatzen eta beraz, ez da onargarria *egon* aditzaren osagarri modura, duen aukera bakarra gune bakarreko laguntzailea (*izan*) islatzea da. Izenondoaren osagarria DP bat denean, (91b) kanpora aterako da laguntzailearekiko komunztadura gauzatzeko. Baina argumentu hori konpletibo bat denean, ez da komunztadura hori gauzatzeko baliagarria izango eta pro espletibo bat sortuko da [spec, I] gunean 'Islapenaren Oinarri Zabaldua' betetzeko.

Laburbilduz, *izan* eta *egon* aditzekin batera azaltzen diren predikatu-eraikuntzen berri emateko, ez da berranalisia proposatzeko beharrik. Aditzean azal daitezkeen klitiko desberdinak azaltzeko, nahikoak dira ondoko bi onarpenak: lehendabiziz, izenondoen artean, aditzen artean bezala, izenondo iragankorrak eta iragangaitzak bereiz daitezke. Bigarrenik, predikatu-eraikuntzetan azaltzen den *izan* aditza laguntzaileen sailekoa dela eta beraz Aux islapen funtzionalean txertatzen dela onartu dugu, horrela, txertatuko den laguntzaile-mota (nor, nor-nork, nor-nori) izenondoaren motaren araberakoa izango da, izenondo horren islapen hedatua izango baita. *Egon* aditza ordea, V kategoriakoa da, eta beraz, aditz horren bidez eraikitako predikatu-eraikuntzen argumentuen eta klitikoen kasu-ereduak, *egon* aditz horri dagozkionak dira eta ez APari berari dagozkionak, *egon* aditza baita laguntzailearen islapen hedatua erabakitzen duena.

3.3.6.3. *Jo*, *irudi(tu)* eta *iritzi* aditzek azpikategorizaturiko predikatuak eta klitizazioa

Froga ditzagun orain aurreko sailean aztertutako izenondoen jokaera *izan*, *egon* edo °*edun* ez diren aditzekin, aurreko sail horretan proposaturiko teoriak aurresaten duen bezala, benetan lexikoak (ez laguntzaileak) diren aditz horien argumentu-egitura kasu-ereduei dagokienez AParen argumentu-egituraren gainean ezartzen ote den ikusteko.

Hiru aditzen jokaera aztertuko dugu: alde batetik, *jo* aditz iragankor tipikoa; bigarrenik, izenki predikatuekin batera bi eredu (nor-nork eta nor-nori) azal dezakeen *irudi(tu)* aditza, eta bukatzeko nor-nori-nork eredukoa den *iritzi* aditza. Bigarren atalaren 2.2.5. eta 2.2.6. azpisailetan ikusi dugunez, *irudi(tu)* eta *iritzi* aditzek, perpaus txikiak ezezik, konpletiboak ere har ditzakete osagarri modura; *jo* aditzak berriz, prolatibo markadun perpaus txikiak baino ez ditu hartzen.

Has gaitezen *jo* aditzaren ereduaren azterketaz:

(92) a. Dendariak erakuslekuko zapatak txikiegitzat jo ditu (haurrarentzat)
b.*Dendariak haurrari erakuslekuko zapatak txikiegitzat jo dizkio.

Ikus daitekeenez, *txiki* izenondo iragankorra dugunean ere, kasua behar duen Aren osagarria APtik kanpo gauza daiteke absolutibo kasua hartuz eta perpaus matrizearen laguntzailearekiko komunztadura ere gauzatuz (92a), baina kasua AParen barnean har dezakeen bigarren argumentua ezin gauza daiteke kanpoan: *jo* aditza bera iragankorra denez, [spec, V] gunean sorturiko argumenturako, ergatibo kasua behar du. Hortaz, [spec, A] gunean sorturiko argumenturako, datiboa baizik ez da geratzen, baina *jo* aditzak ez du onartzen nor-nori-nork motako laguntzailerik eta (92b) bazterturik dago.

Gauza bera gertatzen da *kaltegarri* izenondoaren kasuan: berriro ere, aditzaren eredua AParen ereduaren gainean ezartzen da, hiru argumentuko laguntzailea baztertuz (93b).

(93) a. Amak lagun hori (Mikelentzat) kaltegarritzat jo du
b.*Amak Mikeli lagun hori kaltegarritzat jo dio

Jo aditza iragankorra da eta beraz, bi argumentuko laguntzailea eskatzen du: [spec, V] gunean, argumentu bat (DP) sortuko da eta osagarriaren gunerako, bi hautagai dugu: alde batetik *-tzat* bukaera daraman predikatua eta bestetik, absolutibo marka hartzen duen elementua. Lehenengoa aditzaren azpikategorizazioari dagokion marka berezia delako eta aditzaren ezkerralde absolutuan azaldu ohi delako pentsa dezakegu osagarrian sortzen dela. Absolutibo marka daraman elementua kasu-marka hori osagarrian sorturiko argumentuei ezarri ohi zaielako eta ezinbestekoa delako pentsatu behar dugu gune horretan sortzen dela. Irtenbiderik errazena beraz, bi elementu horiek (*-tzat* markadun predikatua eta absolutiboa daraman argumentua) osagai bakarrean bildurik daudela pentsatzea da.

Eraikuntza hauetan sintaxi-mailan benetan predikatu-osagarria eta aditza elkartuko lituzkeen berranalisi-erregela bat aplikatuko balitz, espero litekeena da (92b) eta (93b) eraikuntzak onargarriak izatea da, zeren *kaltegarritzat jo* edo *txikiegitzat jo* sekuentzia osoak predikatu konplexuak bailirateke eta beraz bi predikatuen argumentu guztiek har bailezakete kasua predikatu bakarrean sortuak balira bezala.

Edonola, aditz hauek azpikategorizatzen dutena (predikatu-osagarri soila izan gabe) perpaus txiki bat dela onartzen badugu ere, predikatuaren subjektu semantikoak hartzen duen kasua aditz matrizearen objektua balitz hartuko lukeen absolutibo marka bera da. Horrenbestez, bi aukera dugu perpaus txikiaren subjektu horren kasua azaltzeko: alde batetik, kasua, *jo* aditzak kasu-ezarketaren mekanismo bereziaren bidez esleitu diola pentsa dezakegu; eta bestetik, subjektu hori perpaus txikitik kanpo atera dela eta aditz nagusiaren inflexioaren gune zehatz batean (objektu zuzenari kasua ezarriko litzaiokeeneko gunean) hartu duela pentsa dezakegu.

Lehenengo atalaren 1.6. azpisailean iradoki dugunez, euskaraz ez dago kasu-ezarketa berezirik eta (92) eta (93) bezalako adibideetan gertatzen denak, perpaus txikiaren subjektuaren igoera izan behar du:[26] subjektu hori plurala denean (92a), aditz matrizean ere, pluraleko komunztadura azaltzen da.

Ikus dezagun orain *irudi(tu)* aditzaren jokaera: esana dugunez, aditz hau konpletibo batekin edo izenondo-predikatu batekin azal daiteke. Konpletibo batekin azaltzen denean, bi moduko eraikuntzak ditugu, alde batetik subjekturik gabekoak (94a, b), eta bestetik, konpletiboaren subjektuaren eta aditz matrizearen arteko komunztadura azaltzen dutenak (94c).

(94) a. [Ainhoa haurdun dagoela] dirudi
b. Badirudi [Ainhoa haurdun dagoela]
c. Ainhoak [haurdun dagoela] dirudi

Ikus daitekeenez, subjektu gauzaturik azaltzen ez denean, hau da, ordena neutroko esaldia (94a) edo enfatizaturiko esaldia (94b) dugunean, eta subjektu gauzatua duen esaldia dugunean (94c), adizki bera (*dirudi*) azaltzen da. Horrenbestez, subjektu ageririk ez dagoenean ere, aditz horrekiko komunztadura egiten duen pro bat dagoela, hau da pro espletibo bat dagoela pentsatu behar dugu, 'Islapenaren Oinarri Zabaldua' bete dadin. Bigarren atalaren 2.5. azpisailean ikusi dugunez, *irudi(tu)* aditzak argumentu bakarreko eta bi argumentuko aldaeren arteko txandakaketa duela pentsatu behar dugu, (94c) adibidean ezin onar baitaiteke subjektuaren igoerarik.

Konpletibo baten ordez perpaus txiki bat dugunean, halabeharrezkoa da subjektu gauzatua (testuingurutik berreskura daitekeen pro bat ez bada

---

[26] Chomsky-ren (1992) arabera, ingelesaren kasuan ere, kasu-ezarketa bereziaz hitz egiten denean, antzeko mekanismo batez pentsatu behar da: perpaus txiki edo bereziaren subjektua, ohizko perpausetan objektuari kasua ezartzen zaioneko [spec, AgrO] gunera igoko litzateke eta han ezarriko litzaioke akusatibo kasua.

behintzat) eta adizkia berbera da oraindik ere (95). Hala ere, aditzarekiko komunztadura azaltzen duen argumentua perpaus txikitik igo den subjektua dela ulertu behar dugu: izenki-predikatutik hartzen du θ-papera eta izenki-predikatu horrekiko zenbaki-komunztadura azal dezake, azken gertaera honek subjeku eta izenki-predikatu hori osagai berean egon direla agerian jartzen duelarik.

(95) a. Liburu horrek$_i$ [t$_i$ interesgarri(a)] dirudi
b. pro-k$_i$ [t$_i$ interesgarri(a) dirudi]
c.*[Interesgarri dirudi]
d.*Badirudi [interesgarri]

Beraz, *irudi(tu)* aditzak, iragankor/iragangaitz moduko txandakaketa azaltzen du: konpletiboa edo perpaus txikia izan daitekeen proposizio-argumentu bakarreko aldaera eta DP bat eta konpletibo bat θ-markatzen dituen bi argumentuko aldaera. Gainera, argumentu bakarreko adieran, nor-nork edo nor-nori ereduko laguntzaileak azal ditzakeen bitartean (96), bi argumentuko adierarako nor-nork eredukoa baizik ez du onartzen.

(96) a. Liburu horiek$_i$ [t$_i$ interesgarri(ak)] {dirudite/iduri dute}
b. Liburu horiek$_i$ [t$_i$ interesgarri(ak)] iruditzen zaizkit
c. {Badirudi/Iduri du} [liburu horiek interesgarriak direla][27]
d.[Liburu horiek interesgarriak direla] iruditzen zait

(97) a. Liburu horiek iduri dute [interesgarriak direla]
b.*Liburu horiek [interesgarriak direla] iruditzen zaizkit

---

[27] [Liburu hori interesgarria dela] dirudi esaldia ere, onargarria da baina ez dugu jaso adierazpena ez zailtzearren.

Hasteko, ohitura denez, adiera iragankorrean nor-nork ereduko laguntzailea azaltzen da, nor-nori ereduko laguntzailea ezinezkoa delarik. Bigarrenik, adiera iragangaitzean, nor-nork edo nor-nori ereduko laguntzailea ikus daiteke, perpaus txikiaren subjektua litekeenak, batean ergatiboa eta bestean absolutiboa hartzen duelarik. Hortaz, ez dirudi argumentuen sorrera-guneak argumentu horiek hartzen duten morfologia-markan eraginik duenik, perpaus txikiaren subjektuak ergatiboa edo absolutiboa har baitezake.

Argumentu-egitura konplexuagoa duten *txiki* edo *kaltegarri* izenondoen kasuan, *irudi(tu)* aditzaren argumentu-egitura eta kasu-eredua, izenondoaren argumentu-egituraren gainean ezartzen dira (98): nor-nori edo nor-nork ereduetako adizkiak azaltzen dira, izenondoa edozein izanik ere (98) eta gainera, izenondoen 'hartzaile' argumentua ezin gauza daiteke perpaus txikitik kanpo (99).

(98) a. Erakuslekuko zapatek$_i$ [t$_i$ haurrarentzat txikiak] dirudite
b. Erakuslekuko zapatak$_i$ [t$_i$ haurrarentzat txikiak] iruditzen zaizkit
c. Lagun horrek$_i$ [t$_i$ Mirenentzat kaltegarria] dirudi
d. Lagun hori$_i$ [t$_i$ Mirenentzat kaltegarria] iruditzen zait

(99) a.*Erakuslekuko zapatek haurrari txikiak *dirudizkio
b.*Lagun horrek Mikeli kaltegarria *dirudio
c.*Erakuslekuko zapatek niri haurra txikiegiak iruditzen didate
d.*Lagun horrek Mikel niri kaltegarria iruditzen dit

Horrela, perpaus txikiaren burua edozein izenondo izanik ere, azaltzen den laguntzailea berbera da eta perpaus txikitik kanpo gauza daitekeen argumentu bakarra subjektua da. Ondorioz, laguntzailea erabakitzen duena izenki-predikatua izan gabe aditz nagusia dela esan genezake.

Bukatzeko, *iritzi* aditzaren jokaera aztertuko dugu. Bigarren atalaren 2.2.5. azpisailean ikusi dugunez, aditz honek *irudi(tu)* aditzak bezala, txandakaketa bat azaltzen du, baina oraingoan bi argumentuko eta hiru

argumentuko aldaeren arteko txandakaketa dugu: bi argumentuko aldaerak, DP bat eta perpaus (konpletibo edo txiki) bat eskatzen du; eta hiru argumentuko aldaerak, bi DP eta perpaus konpletibo bat. Edozein modutan beti azaltzen dira nor-nori-nork ereduko adizkiak. Hiru argumentuko aldaera alde batera utziko dugu, eta perpaus txikiak har ditzakeen bi argumentuko adiera aztertuko dugu.

(100) a. (Nik) hitzaldi horri$_i$ [t$_i$ oso interesgarri] deritzot
b. (Nik) zapata horiei$_i$ [t$_i$ Jonentzat txikiegi(ak)] deritzet
c. (Nik) lagun horri$_i$ [t$_i$ Anderrentzat kantegarri(a)] deritzot

(101) a.*Amak zapata horiei Jon txikiegi(ak) deritze
c.*Amak Joni erakuslekuko zapatak txikiegi(ak) deritze
d.*Amak lagun horri Ander kaltegarri(a) deritzo
e.*Amak Anderri lagun hori kaltegarri(a) deritzo

Perpaus txikiaren subjektuak beti hartzen du datiboa, buru modura duen izenondoa edozein izanik ere (100). Bestetik, ezinezkoa da 'hartzaile' argumentua perpaus matrizean gauzatzea (101), berriro ere perpausaren laguntzailea erabakitzen duena aditz matrizea delarik.

Laburbilduz, *jo, irudi(tu)* eta *iritzi* aditzek osagarri modura perpaus txiki bat har dezaketela esan dezakegu. Perpaus txiki horien subjektuei kasua ez zaie kasu-ezarketa bereziaren mekanismoaren bidez ezartzen; argumentu horiek kanpora atera behar dute perpaus matrizean kasua hartzeko.

Bestetik, goraturiko subjektu horrek hartzen duen kasua aditz matrizeak erabakitzen du, AuxP kategoria funtzionala Varen islapen hedatua baita. Horrela, perpaus txikitik goraturiko subjektuari aditzak islaturiko laguntzailearen arabera ezarriko zaio kasu bat edo beste bat, argumentu horren sorrera-gunea kontutan hartu gabe: (92a), (98a) eta (100b) adibidez, gune berean (aditz nagusiaren osagarria den perpaus txiki baten barruan) sorturiko subjektuak ditugu, baina hala ere, absolutiboa, ergatiboa eta datiboa hartu dute hurrenez hurren. Areago, *irudi(tu)* aditza, gai da nor-nork edo nor-nori ereduko laguntzaileak islatzeko, eta beraz perpaus txiki horren

subjektuari datiboa (98b) edo ergatiboa (98a) ezartzeko. Hona hemen adibide horiek guztiak errepikaturik, erkaketa erraztearren.

(92) a. Dendariak erakuslekuko zapatak$_i$ [t$_i$(haurrarentzat) txikiegitzat jo ditu

(98) a. Erakuslekuko zapatek$_i$ [t$_i$ haurrarentzat txikiak] dirudite

b. Erakuslekuko zapatak$_i$ [t$_i$ haurrarentzat txikiak] iruditzen zaizkit

(100) b. (Nik) zapata horiei$_i$ [t$_i$ Jonentzat txikiegi(ak)] deritzet

3.3.6.4. Argumentu-egituratik predikatu guztien islapenerako espero daitekeen orotarapena

Aurreko sailean ikusi dugunez, aditzetarako onarturik dagoen iragankor/iragangaitz bereizketa, izenondo gramatika-kategoriako elementuetara ere heda daitekeela defendatzera eraman gaituzten aztarna batzuk aurkitu ditugu aztertutako eraikuntzetan.

Euskaraz aditzarekiko komunztadura hartzen duten argumentuek azaltzen dituzten kasu-motak argumentu horiek VParen barnean duten sorrera-gunearen adierazleak direla defendatu dute egileek (Levin, 1983; Oyharçabal, 1990; Uriagereka, 1981): osagarrian sorturiko argumentuek absolutiboa azaltzen dute eta espezifikatzailean sorturikoek ergatiboa. Hala ere, *irudi(tu)* eta *iritzi* aditzen kasuan behintzat, ez dirudi argumentuen sorrera-gunearen eta hartzen duten kasuaren artean horren harreman zuzena dagoenik, zeren osagarrian txertaturiko perpaus txikian sorturiko argumentuak datiboa edo ergatiboa har baitezake. Edonola, kontutan hartu behar litzatekeena, argumentu horien AParen barneko sorrera da eta ez perpaus txikiak VP matrizean duen kokagunea.

Horrela VP eta AP motako predikatuen arteko ezberdintasun nabari bat ikus daiteke; alegia, VP motako predikatuak ditugunean, sintagma horren egituratik bertatik jakin dezakegu argumentu bakoitzak hartuko duen kasua eta zein izango den subjektuaren funtzioa beteko duena. APen kasuan ordea, ez dago perpaus osoaren subjektu modura ulertuko den argumentua zein izango den aldez aurretik jakiterik, hautatuko den aditza eta laguntzailearen arabera hainbat aukera baitago: horrela, (88a) eta (88b) adibideen *luze* eta *kaltegarri* izenondo iraunkorren kasuan adibidez, perpausaren subjektu modura, batzuetan osagarrian sorturiko argumentua ulertuko da, eta beste batzuetan, [spec, A] gunean sorturikoa. *Ziur* izenondoaren kasuan ere, batzuetan ziurtasunaren 'esperimentatzailea' (90a, 91a) eta beste batzuetan, 'tema' bera (90b, 91b) izan daiteke perpausaren subjektua.

Ondorioz, AParen benetako D-egitura 'izkutaturik' geratzen da S-egiturarako pausoan kasuaren beharrak direla eta argumentuek pairatzen dituzten mugimenduen kausaz.

Hala ere, orain arte aurkeztu ditugun izenondo guztiak, aditz iragankorrekin edo aditz iragangaitz inakusatiboekin harremanetan jarriz, izenondo iragankortzat edo izenondo igangaitz inakusatibotzat har daitezkeenetarikoak dira. Baina, V eta A kategorien arteko orotarapen osoa lortzeko, izenondo iragangaitz inergatiboek ere egon behar lukete.[28]

---

[28] Bistan da izenondoetarako erabiltzen ari garen terminologia hau aditzetarako asmatutakoa denez oso zehatza ez dela. Izan ere, aditz inakusatiboei izen hori beren osagarriari akusatibo kasua ezartzeko ezintasunean oinarrituz ezarri zaie. Izenondoek ez dute beren argumentuetariko bati ere kasua ezartzeko ahalmenik eta beraz, inakusatibo izenak ez du zentzu handirik.

Balio beza beraz, terminologia horrek X'-teoriaren arabera espero daitezkeen konfigurazioei izena emateko. Bi argumentuko izenondoak *iragankor* izenaz adieraziko ditugu, eta argumentu bakarreko izenondo (*iragangaitz*)en artean bi sail egingo dugu: argumentua osagarriaren gunean sortzen denean, izenondo inakusatiboez hitz egingo dugu eta espezifikatzailean sortzen denean, izenondo inergatiboez.

Burzio-k (1986) izenondoen artean osagarrian sorturiko argumentu bakarra duten izenondorik ez dagoela defendatu du, aditz pasiboak eta beren antzekoak diren izenondoak konparatuz.

(102) a. Ne$_i$ sarebbero [$_V$ riconosciute] molte t$_i$ (di vittime)
Beraien izango dira ezagutuak asko (biktimetarik)
b.*Ne$_i$ sarebbero [$_A$ sconosciute] molte t$_i$ (di vittime)
Beraien ezezagunak izango dira asko (biktimetarik)

Ne- klitizazioa da hain zuzen aditz inakusatiboen existentziaren alde Burzio-k (1981) eskainiriko frogarik esanguratsuenetariko bat eta froga horrek huts egiten du aditz horietatik hurbilen egon daitezkeen izenondoekin. Horrela, Burzio-k aditzen sailkapena izenondoetarako baliogarria ez dela defendatu du.

Cinque-k (1990) ordea, izenondo iragangaitzen artean inakusatiboak eta inergatiboak bereiz daitezkeela defendatu du, *ne*-klitizazioa erabiliz hain zuzen ere bi izenondo-multzo garbi bereiz daitekeela argudiatuz.

(103) a. Ne sono note le tendenze
Beraien dira ongi-ezagunak joerak
'Beraien joerak ongi ezagunak dira'

b. Ne sono oscuri i motivi
Beraien dira ilunak arrazoiak
'Beraien arrazoiak ilunak dira'

(89) a.*Ne sono buone le intenzioni
Beraien dira onak helburuak
'Beraien helburuak onak dira'
b.* Ne sono pericolosi gli atteggiamenti
Bere dira arriskutsuak jarrerak
'Bere jarrerak arriskutsuak dira'

Izenondo batzuek *ne*-klitizazioa onartzeak, izenondoaren atzeko subjektua (105) sorturiko gunean, hau da izenondoaren objektuaren gunean, gera

daitekeela esan nahi du Cinque-ren arabera. Gune horretan, subjektua loturazko aditzaren aurreko subjektu-gunearekin katea bat eratzen du, hasierako gune horri nominatibo kasua ezartzen zaiolarik.

(105) $[np^i\ V_{cop.}\ [AP[A'\ A\ NP^i]]]]$

Ne-klitizazioa onartzen ez duten izenondoen subjektua ordea, ez da sortzen objektuaren gunean: Cinque-ren arabera APtik kanpo sortzen da, baina Koopman & Sportiche-ren (1988) subjektuaren barne-sorrerari buruzko hipotesia onartuz, Aren espezifikatzailean sortzen dela ere, onar genezake. Arazo hori alde batera utzirik, Cinque-ren orotarapena hauxe da: izenondo iragangaitzen artean, aditz iragangaitzen artean bezala, bi multzo egin daiteke; alde batetik Aren osagarri modura sorturiko subjektuak azaltzen dituztenak, eta bestetik, bestelako gune batean sorturiko subjektuak dituztenak. Edozein modutan, izenondo horien subjektuak izenondoaren atzean azaltzen direnean, APari edo VPari itsatsirik eta ez beren sorrera-gunean daudela ulertu behar genuke (106).

(106) a. $[np[VP[VP\ V_{cop.}\ AP]NP]]$
b. $[np\ V_{cop.}\ V[IP\ np\ [AP\ [AP\ A]\ NP]]$

Euskaraz, aditz inakusatibo eta inergatiboen artean ikus daitekeen ezberdintasun nabariena, beren subjektuek hartzen duten kasuari dagokio: aditz inakusatiboen subjektuek, aditz iragankorren objektuek bezala, absolutiboa hartzen dute, baina aditz inergatiboen subjektuek ergatibo kasua hartzen dute, aditz iragankorren subjektuek bezala. Eraikuntza bakoitzean azaltzen den laguntzailea ere, desberdina da kasu bakoitzean: *izan* aditz inakusatiboen kasuan, eta °*edun* aditza inergatiboen kasuan.

(107) a. Mikel etxera joan da
b. Mikelek etxean bazkaldu du

Izenondoen kasuan, aurreko bi sailetan ikusi dugun bezala, islatzen duten egituraren adierazle izan litekeen kasu-eredua izkutaturik egoten da laguntzailearen hautaketan izenondoa txertaturik dagoeneko VParen egitura inposatzen baita. Hala ere, AP batzuek zuzenean Aux islapen funtzionalaren

osagarri modura txertatzeko, eta beraz, laguntzailearen aukeraren gainean nolabaiteko eragina izateko ahalmena dutela ikusi dugu. Orduan, argumentuek azaltzen duten kasua beraien sorrera-gunearen adierazle izan litekeela ere ikusi dugu.

Horrenbestez, izenondo inergatiborik balego, izenondo horiek °*edun* laguntzailea eta beren subjekturako ergatibo kasua eskatzea da espero litekeena AP eta AuxP islapenen artean inolako VPrik ez dagoenean. Horrelako jokaerarik ez da inolako izenondoren kasuan ikusten: italieraren *buone* eta *pericolosi* izenondoen parekoek adibidez, absolutibo kasua eta *izan* laguntzailea hartzen dute.

(108) a. Bere helburuak onak dira
b.*Bere helburuek onak dute
(109) a. Bere jarrerak arriskutsuak dira
b.*Bere jarrerek arriskutsuak dute

Batzuetan kasu-eredu berezia hartzen duen izenondo bakarra, *berdin* izenondoa da, zenbait euskalkitan nor-nori-nork laguntzailearekin ager daitekeelarik.

(110) Berdin dio egiteak ala ez egiteak

Edozein kasutan ez da hizkuntzaren orokortasunean azaltzen den egitura bat, eta bestetik adibide isolatu bat ez da izenondoen artean sail oso bat egiteko modukoa ere. Bukatzeko, azaltzen den laguntzailea ez da °*edun* hutsa, nor-nori nork laguntzailea baizik.

Laguntzaileari eta kasu-ereduei begiratuta beraz, izenondo iragangaitzen artean, ezin egin daiteke azpisailik, izenondo inakusatiboak bazik ez daudela dirudielarik. Hori ez da horren harrigarria aditz inergatiboen sail semantikoa neurri handian ihardueren sailarekin bat datorrela kontutan hartzen bada: izenondoak predikatu estatiboak eratzen dituzte beti, eta beraz, ez da harrigarria beraien artean izenondo inergatiboak ez egotea.

Hortaz, izenondo inergatiboen ezintasuna, semantika-mailako arrazoien bidez azaldu behar litzateke sintaxi-mailako arrazoien bidez baino lehenago, zeren X'-teoriaren ikuspegitik ez baitago izenondoaren subjektua bere espezifikatzailean sortzearen aurkako arrazoirik.

Bukatzeko, ikus dezagun azken hiru azpisail hauetan aurkeztu dugun hipotesiak baduela zer esanik zehazki V kategoriakotzat ezin har daitezkeen beste predikatu batzuen kasuan: *maite, atsegin, behar, bizi, merezi,...*

Predikatu hauek hurbilago daude izen edo izenondoen gramatika-kategoriatik aditzaren kategoriatik baino, baina hala ere, laguntzaile bat hartzen dute zuzenean tarteko aditzik gabe. Aspektu perfektiboa eta inperfektiboa adierazteko, *izan /izaten* laguntzaile gehiagarria behar dute beren kategoriak ez baitie baimentzen partizipioaren edo aditz-izenaren *-tzen* bukaera hartzea.[29]

(111) a. Ander Bilbon bizi da
b. Anderrek zinema maite du
c. Norbaiten laguntza behar dut nik
d. Anderrek atsegin du hondartzara joatea

(111) adibide horietan guztietan ageri diren argumentu guztiak, *maite, bizi, behar, atsegin* eta *merezi* predikatuei dagozkie, baina laguntzailearen eta haien artean ez dago inolako aditzik. Laguntzailearen hautaketa beraz predikatu horien egiturarekiko harreman zuzenetan dago: *bizi* predikatu-buruak argumentu bakarra hartzen du, eta osagarriaren gunean sortzen da argumentu hori; horrela ba, *izan* laguntzailea eskatzen du. *Maite, behar* eta *atsegin* predikatuak ordea, bi argumentukoak dira eta beraz, °*edun* laguntzailea hartzen dute.

---

[29] Etorkizuna adierazteko erabiltzen den *-ko* bukaera, onargarria da zenbaitekin (*biziko, beharko, mereziko*) baina ez guztiekin (**maiteko, *atsegingo*).

Bukatzeko, badugu °*edun* laguntzailea hartzen duen *merezi* predikatua ere. Hala ere, predikatu hau berezi samarra da, bi argumentuko eta argumentu bakarreko esapideak ikus daitezkeelarik: aditz-izena daraman menperatu bat den argumentu bakarra azal dezake (112a), edo bestela, DP subjektu bat eta aditz-izenaz osoturiko menperatu bat (112b) edo beste DP bat (112c) azal ditzake.

(112) a. Merezi du [Bilbora autobusez joatea]
b. Mikelek merezi du [diru guztia galtzea][30]
c. Mikelek eskarmentu bat merezi du

Hortaz, (112a) adibidea ikusita, predikatu inergatibo baten aurrean gaudela pentsa genezake: argumentu bakarreko predikatua dugu eta gainera °*edun* laguntzailea hartzen du. (112b) eta (112c) adibideetan ikusten ditugun txandakaketek berriz, argumentu bakar hori osagarrian sortzen dela eta (112a) adibidean subjektu modura pro espletibo bat dugula jartzen digute agerian. Ondorioz, sail honetan ere ez dugu inergatibotzat jo daitekeen predikaturik.

Laburbilduz, predikatu guztiak, aditz-kategoriakoak direnak eta ez direnak ere, X'-teoriaren arabera islatzen dira, argumentuen sorrera-gunetik abiatuta aditzetarako egin den sailkapenak predikatu guztietarako baliagarria izan behar lukeelarik.

Laguntzailea osagarri modura duen predikatuaren islapen hedatua da eta beraz predikatu horren araberakoa da. Zenbait izenki-predikatu laguntzailea

---

[30] Ez dago garbi (112a) esaldia (i) edo (ii) adibideetan bezala gauzatu behar ote den (EGLU-II)

(i) Merezi du [Bilbora autobusez joatea]

(ii) Merezi du [Bilbora autobusez joateak]

Edonola (112b) eta (112c) adibideetan adierazi ditugun txandakaketak kontutan harturik, aditz-izena daraman menperatu hau barne-argumentua dela eta beraz (i) egokiagoa dela dirudi.

islatzeko gai dira, beren XParen egiturak laguntzaile horren motaren gaineko eragina duelarik. Beste askotan, izenki-predikatuak, perpaus txikiak eratzeko behar duten kategoria funtzionala islatzen badute ere, ez dira laguntzailea islatzeko gai eta perpaus txikia V kategoria lexikoen osagarri modura txertatu behar da bere subjektuari kasua eslei diezaiokeen kategoria bat izateko. Horrela, XP izenki-predikatu horien egitura V horrek izkutatzen du, V hori baita laguntzailea islatzen duena.

3.3.6.5. Partizipioak eta laguntzailearen hautaketa

Partizipioa, aditzaren eta izenondoaren (edo aditzondoaren) zenbait ezaugarri dituen kategoria da eta beraz oso baliagarria gerta daiteke VP motako eta AP motako predikatuen artean laguntzailea hautatzeko orduan egon daitezkeen ezberdintasunak argitzeko.

Hasteko izenki-predikazioaren arloan azter daitezkeen partizipioen artean, bi sail nagusi egin dugu: alde batetik *-a(k)* zenbaki-komunztaduraren marka daraman partizipioa (113), eta bestetik, *-ta* edo *-rik* bukaera daramaten komunztadurarik gabeko partizipioak (114).

(113) a. Lana bukatua da
b. Lanak bukatuak dira

(114) a. Lana bukaturik dago
b. Lanak bukaturik daude

Gogoratu beharrekoa da gainera, euskal hizkuntzalariek komunztaduradun partizipioak izenondotzat har daitezkeela eta *-ta* eta *-rik* bukaera daramaten komunztadurarik gabeko partizipioak aditzondotzat har daitezkeela defendatu dutela (Rebuschi, 1982; EGLU-I, 1985). Hala ere, bigarren atalaren 2.2.2.3.3. eta 2.4. azpisailetan, ideia horren aurka joan gara: partizipio hauen burua, V da adizki-predikazioan azaltzen diren partizipioen kasuan bezala. Haien arteko ezberdintasuna, VP horren islapen hedatuari dagokio, eta beraz ezin hitz egin daiteke gramatika-kategoriaren aldaketaz. Izenondo edo aditzondotzat hartzera eraman gaitzakeena, izenondoen bereizgarria den

predikazio-funtzioa edo aditzondoen bereizgarria den modifikazio-funtzioa betetzea da.

Hizkuntzaren orokortasunari begira, komunztaduradun partizipioak *izan* edo °*edun* laguntzaileekin batera azal daitezkeen bitartean (115a, b), komunztadurarik gabekoak *egon, geratu , eduki* edo beste aditz batzuekin (115c) lehenengo mailako predikatu modura, edo baita bigarren mailako predikatu modura (115d, c) edo perpaus absolutu modura (115e) ere azal daitezke.[31]

(115) a. Arazo hau usteldua da jadanik
b. Arazoa konpondua dugu
c. Arazo hau usteldurik dago
d. Mikelek autoa hondatuta itzuli dio bere aitari
e. Behin arazoa usteldurik, ez da zereginik egongo
f.*Behin arazoa usteldua, ez da zereginik egongo

Aspektu-ezaugarrien aldetik, bi partizipio-motek eskatzen dituzte VP perfektiboak, ondoriozko egoerak adierazten baitituzte (116, 117). Horrela, eratzen dituzten predikatuak beti izaten dira egoera-mailakoak eta beraz argumentu-egituran e-argumentua dutela pentsatu behar dugu

(116) a. Bazkaria prestatua da
b. Janaria prestaturik dago
(117) a.*Haurra musukatua da
b.*Haurra musukatuta dago

---

[31] Hiztun batzuek komunztaduradun partizipioak ere erabil ditzakete bigarren mailako predikatu modura eta *egon* aditzarekin

(115'd) Mikelek autoa hondatua itzuli dio aitari

(115'c) Arazo hau usteldua dago

Edozein modutan, izenondo eta aditzondoen artean ere egoera-mailako predikatuak era ditzaketenak badaudela ikusi dugu. Hortaz, partizipio hauek sintaxian eratu beharrean, hiztegian eratortzen direla eta jatorrizko aditzaren e-argumentua mantentzen dutela pentsa genezake. Horren aurka, ikusi askotan partizipio horien antzeko erroa duten izenondoak ditugula, hala nola *prest* izenondoa *prestatua, prestatuta* eta *prestaturik* partizipioen parean. Horrelako izenondoek, partizipioek bezala, egoera-mailako predikatuak eratzen dituzte (118).

(118) a. Bazkaria prest dago
b. Ikasgela hutsik dago

Bestetik, partizipioen morfologia mantenduz, izenondo modura lexikalizatu diren partizipioek, e-argumentua galtzen dutela dirudi, *egon* aditzarekin onargarriak ez baitira.

(119) a. Aktoresa hori famatua da
b.*Aktoresa hori famatua dago

Edozein modutan, egoera-mailako predikatuak era ditzaketen izenondoak eta partizipioak erkatzen baditugu, kategoria desberdinetakoak direla agerian uzten dituzten froga batzuk aurkituko ditugu.

Hasteko, ergatibo markadun argumentuen onargarritasuna dugu: honelakoak guztiz ohizkoak dira komunztaduradun partizipioarekin (120a), oso zalantzagarriak *-rik* edo *-ta* bukaerako partizipioarekin (120b) eta pentsaezinak, egoera-mailako predikatuak era ditzaketen izenondoekin (120c).

(120) a. Janaria Mikelek prestatua da
b. ?Janaria Mikelek prestaturik dago
c. *Janaria Mikelek prest dago

Bestetik, aditzaren ekintzaren moduaz galde daiteke partizipioen kasuan (121a, b) baina ez izenondoaren kasuan (121c).

(121) a. Nola zen prestatua janaria?
b. Nola zegoen prestaturik janaria?
c.*Nola zegoen prest janaria?

Horrela, (120a, b) eta (121a,b) adibideetan ditugunak aditz-kategoriako buru baten islapenak diren bitartean, (120c) eta (121c) adibideetan ditugunak izenondoak dira. Gainera, bi motetako partizipioetan *-tu* (edo bere sinonimotzat har daitezkeen *-i* edo *-n*) bukaera azaltzen da: perfektibitatearen adierazlea den morfologiazko marka hori V aditz-erroari ASP buru funtzionalean lotzen zaiola onartu dugu.[32]

Komunztadura duen partizipio horrek ergatiboa daraman argumentua ezezik, datibo edo absolutibo markadun argumentuak ere har ditzake, posposizioa duten partizipioek ez bezala.[33]

(122) a. Eskutitz hau nik idatzia da
b. Eskutitzak nik zuri idatziak dira
c. Jon eskutitz asko idatzia da

Elementu bakar batekiko (absolutibo markadun argumentuarekiko) komunztadura azaltzen duen *izan* aditza duten eraikuntza hauek ezezik, argumentu gehiagorekiko komunztadura azaltzen duten eraikuntzak ere aurki daitezke:

(123) a. Eskutitza idatzia dut
b. Eskutitza idatzia dizut

---

[32] Ikus Oyharçabal (1990) eta Laka (1991).

Zenbait izenondoren kasuan ere, horrelako AspP kategoria islatzen dutela ere defenda daiteke, Hernanz (1988) eta Bosque-ri (1990) jarraiki, baina izenondoetan ez da Asp horren adierazle izan litekeen morfologiazko markarik azaltzen.

[33] Argumentazio honetan erabiliko ditugun adibiderik gehienak O. de Urbina &Uribe-Etxebarria (1991) lanetik hartu ditugu

Bestetik, partizipioa aditz iragankorrena ezezik, aditz iragangaitz inakusatiboena eta inergatiboena ere izan daiteke.

(124) a. Ni Parisen egona naiz
b. Ni bazkaldua naiz
c.*Nik bazkaldua dut

Ikus daitekeenez, aditz iragankorrek (123 a,b) eta aditz inakusatiboek (124a), komunztaduradun partizipioarekin batera, partizipio soila duten eraikuntzetan bezala, argumentu guztiekiko komunztadura eta mota guztietako laguntzaileak azal ditzaketen bitartean, *bazkaldu* bezalako aditz inergatiboek (124), partizipioak-komunztadura-marka hartzen duenean halabeharrez hartu behar dute absolutiboaz markaturiko subjektua eta *izan* laguntzailea (124b). Partizipio soilaren kasuan berriz, ergatiboaz markaturiko subjektua eta °*edun* laguntzailea hartzen dituzte (124a).

Aditz nagusiarekiko komunztadura azaltzen duten argumentu horiek, ordena-askatasun handia dute, baina, komunztadurarik ez dutenek ordea, ordena-eskakizun zurrunak bete behar dituzte: komunztadurarik ez duten argumentu horiek VParen barnean mantendu direla eta besteak VP horretatik kanpo (islapen funtzional desberdinen espezifikatzaileetan) daudela uler daiteke.

(125) a. Eskutitza idatzia dut nik
b. Idatzia dut eskutitza nik
c. Eskutitza idatzia dizut nik zuri
d. Idatzia dizut eskutitza zuri nik
(126) a.*Eskutitz hau idatzia da nik
b.*Eskutitzak nik idatziak dira zuri
c.*Jon idatzia da eskutitz asko

Horretatik, aurreko saileko ondorioak indartzeko balio ditzaketen datuak atera ditzakegu: Vak VParen barnean islatzen ditu bere argumentu guztiak; baina partizipioak izenondoetatik hurbilago kokatzen duen zenbaki-komunztadura hartzen duenean, jadanik ezin jakin daiteke aldez aurretik zein izango den predikatu horren subjektu modura 'promozionatuko' den

argumentua, VPtik kanpo eta VParen barruan gauzatuko diren argumentuen kopurua eta izaera islatuko den laguntzailearen araberakoak izango baitira.

Ildo horretataik, (122a, b) adibideei beste hizkuntzetako 'pasiboei' eskaintzen zaien analisiaren antzeko bat eman dakieke, eta (122c) adibideari 'antipasiboen' analisia, partizipio-perpausetik kanpora ateratzen den argumentua objektua izan gabe subjektu egilea baita.

Analisi honek badu beste ondorio garrantzitsu bat: VParen barnean gauzatzen diren argumentu horiei kasua berezko mekanismoaz ezarri behar zaie. Horrela VParen barnean ergatibo marka hartzen duen egilea, beste hizkuntzetan *by, por* edo horien baliokideak diren preposizioen bidez zeharka markatzen diren argumentuen parekoa litzateke. Perpaus bakarreko analisia izango genuke beraz, komunztadura azaltzen duen aditza laguntzaile bat litzatekeelarik (Oyharçabal, 1990).

O. de Urbina &Uribe-Etxebarria-k (1991) zalantzetan jarri dute perpaus bakarreko analisi hori.[34] Beraien iritziz zalantzagarria da kasua zeharka hartzen duten argumentu horien marka morfologikoak hain zuzen Infl buruan egiturazko mekanismoaz ezartzen diren berberak izatea.[35] Bestetik, (127) bezalako perpausak existitzeak zalantzetan jarriko luke, haien iritziz, komunztaduradun partizipioarekin batera azaltzen den aditzaren laguntzaile-izaera.

(127) Nik liburu hori idazleak dedikatua dut

Horrenbestez, bi perpauseko analisia nahiago dute: partizipioak beraien argumentuei kasua ezar diezaiekeen perpaus bat eratuko luke (horretarako

---

[34] Ikusi baita Uribe-etxebarria-ren (1989) lana.

[35] Esan beharrekoa da Oyarçabal-ek (1990) ergatibo markarako beti defendatu duela berezko kasuaren izaera, aditz matrizearekiko komunztadura azaltzen duen argumentua berezko mekanismoaz hartu duen kasua gauzatzera Infl burura mugitzen dela argudiatu duelarik.

beharrezkoak diren kategoria funtzionalak eta guzti) eta beste aditza bere argumentuei paper tematikoa eta kasua ezartzen dien aditz matrize bat (eta ez laguntzaile bat) litzateke.[36] Haien iritziz, perpaus horretan *liburu hori* objektua txertaturiko VPtik mugitu delako hipotesia baztertzekoa litzateke,

---

[36] Horrela, zenbaki-komunztaduradun partizipioa daramaten perpausak determinatzailea daramaten (i) bezalako perpausekin erkatu dituzte, eraikuntza horietan ere, argumentuek kasua perpaus txertatuaren barnean har dezaketela gaineratuz.

(i) [Jonek gitarra jotzea] Mireni gustatzen zaio

Ikusi, dena dela, eraikuntza hauek ezberdinak direla: hasteko, determinatzailea daraman elementuak kanpoko aditz matrizearekiko komunztadura dauka osotasun modura, eta ez soilik zenbaki-komunztadura, kasu-komunztadura ere azaltzen du. Bigarrenik, eraikuntza horietan inolako elementuak ez du kasurik hartzen txertaturiko perpausetik at, perpausak berak bere aditzaren argumentu guztiak kasuaz markatzeko ahalmena duela esan nahi duelarik.

Tze-perpaus horien parean partizipioaz eraikiriko (aspektualki markaturiko) perpausak-ere baditugu, aztertzen ari garen partizipio-predikatuen ezberdinak direlarik.

(ii) [Jonek gitarra jo izana] Mireni gustatu zaio

(iii)*[Jonek gitarra jo izana] dago

(iv)*[Jonek idatzia] gustatzen zaio Mireni

Bukatzeko, *-rik* edo *-ta* bukaera duten perpaus absolutuak ere badaude, horiek -tze perpausetatik hurbilago leudekeelarik.

(v) [Behin idazleak bere liburua aurkezturik] kritikoen iruzkinetara pasatuko gara

Bistan da, eraikuntza hauetan txertaturiko perpausaren elementu guztiek kasua perpaus horren barnean hartzen dutela. Hauek, dena dela, tze-perpausak baino independienteagoak dira oraindik, funtzio adberbiala izanik aditz matrizearekiko komunztadurarik azaltzen ez baitute.

Lan honetan aztertzen ari garen partizipio-predikatuek, beren argumentu batekiko zenbaki-komunztadura baizik ez dute azaltzen, aditz-matrizearekiko (edo nahi bada laguntzailearekiko) osotasun modura ez dute komunztadurarik azaltzen. Bestalde, gutxienez partizipioak θ-markaturiko argumentu batek, kasua perpaus matrizean hartu behar du.

kasu horretan bi aldiz jasoko bailuke paper tematikoa: behin txertaturiko Vtik eta bigarrenik aditz matrizetik.

Hasteko, (122) adibideetan komunztadura azaltzen ez duten argumentuei kasua berezko mekanismoaz ezartzen zaiela defendatuko dugu O. de Urbina eta Uribe-Etxebarria-ren aurka:

(i) Osagarrian sortzen ez diren argumentuak, hau da islapenaren oinarriaz murrizturik ez dauden argumentuak (ergatiboa eta datiboa), aukerakoak dira. Osagarriaren gunean sorturiko argumentua halabeharrezkoa da oinarri horren kausaz.

(122') a. Eskutitza idatzia da
b. Eskutitzak idatziak dira
c.*Jon idatzia da

(ii) Komunztadura azaltzen ez duten argumentu horiek duten kasua, itxuraz komunztadura azaltzen duten argumentuena bezalakoa bada ere, hori ez da guztiz egia: ergatiboa daramaten elementuak 'egiletzat' har daitezkeen argumentuetara murrizturik daude, beste hizkuntzetan preposizioa (*by, por, par*) daramaten argumentuen kasuan gertatzen den bezala. Horrela, berezko kasuetatik espero daitekeenez, tematikoki murrizturiko kasu-ezarketa dugu hemen.

(128) a. Pastel hau nik egina da
b.*Etxe hau nik atsegina da
c.*Ikasgai hau nik jakina da
d.*Liburu hori nik edukia da

Absolutibo markari dagokionez, ikusi, antipasiboetan azaltzen diren elementu horiek 'mugagabetasunaren eragina' azaltzen dutela: kuantifikatzaile-irakurketa izan ohi dute, hori berezko ezaugarri bereizgarria delarik (Belleti, 1988) (gogoratu lehenengo atalaren 1.5. azpisaila).

(129) a. Aitor liburu asko irakurria da

b.??Aitor liburu hori irakurria da

Datibo markari dagokionez ere, paper tematiko zehatz batera garamatzanean baizik ezin azal daiteke partizipiozko eraikuntza hauetan, kasu-eredu berezia azaltzen duten aditzekin nekez onar daitekeelarik

(130) a. Loreontzi hau nik amari erosia da
b.*Ni ideia horri ongi iritzia naiz
c.*Haurra txakurrari jarraikia da

Ondorioz, zenbaki-komunztadura azaltzen duten partizipio-predikatu hauen barnean (komunztadurarik gabe) gauzatzen diren argumentu hauen kasuak berezkotzat har daitezke, argi eta garbi tematikoki murrizturik baitaude.

O. de Urbina eta Uribe-Etxebarriak eskainiriko bigarren argudioaren aurka bestetik, hauxe esan dezakegu: ikusi (127a) adibidea onargarria bada ere, (127b) ez-gramatikala dela.

(127) a. Nik liburu hori idazleak dedikatua dut
b.*Nik liburu hori Axularrek idatzia dut

Ergatibo-marka eta laguntzailearekiko komunztadura hartu duen *nik* argumentua ere *dedikatu* partizipiotik jaso du bere paper tematikoa ('hartzailearena' ziurenez).

(131) a. Idazleak niri liburu hori dedikatu dit
b.*Axularrek niri liburu hori idatzi dit

Laguntzailearekiko komunztadura hori gauza dezakeen argumentu bat ezin θ-marka dezakeen partizipio bat dugunean berriz, ez da posible bi argumentuko laguntzailea hautatzea, laguntzailearekiko komunztadura duen ergatibo markadun argumentu bat badago egiletzat hartuko delarik: ikus daitekeenez, (132a) adibidean *nik* argumentuaren irakurketa anbiguoa da, egile zein hartzaile modura uler daitekeelarik. (132b) adibidean berriz, ez dago anbiguitaterik *nik* halabeharrez egiletzat hartu behar delarik.

(132) a. Nik liburu hori dedikatua dut
b. Nik liburu hori idatzia dut

Bukatzeko, egile berberek, horrelako eraikuntzek bigarren mailako predikatu modura azaltzeko aukera dutela iradoki dute, gertaera hori perpaus bakarreko analisiaren aurka doala defendatu dutelarik.

(133) a. Jonek biharko paper hau sinatua ekarriko du
b. Jonek paper hau gurasoek sinatua ekarriko du

Geure iritziz bigarren mailako predikatu modura azaltzeko aukera ez du egiten aurreko eraikuntzen bi perpauseko analisiaren alde: partizipioak predikatuak eratzen ditu eta predikatu horiek laguntzaile baten osagarri modura edo beste predikatu bat islatzen duen V baten osagarri edo adjunktu modura txerta daitezke. Partizipio-predikatuak barnean edo kanpoan gauzatuko dituen argumentuen kopurua eta izaera, laguntzaile horren edo aditz matrize horren ezaugarrien araberakoak izango dira.

Hala ere, partizipio-predikatuak, beti islatzen ditu zenbait islapen futzional berezi (AspP, NuP, PP...), islapen horiek VP predikatuarekin perpaus txiki bat osotzen dutela esan daitekeelarik. Edozein kasutan, perpaus txiki hori ez da gai bere argumentu guztiak kasuaz bere eremuaren barnean markatzeko (berezko kasuak baizik ez dira ezarriko beraren barnean), eta beraz argumenturen batek kanpora irten beharko du, edo kasurik behar ez duen PRO kategoria isil modura gauzatu beharko du bestela (bigarren mailako predikatuen kasuan).

Ikusi gainera, partizipioek *-tzat* prolatiboa ere har dezakeela, izenondo-predikatuekiko paralelismo osoa mantenduz. Halaber *irudi(tu)* aditzarekin ere azal daitezke.

(134) a. Zure aita jubilatutzat neukan
b. Eman dezagun lana bukatutzat
c. Lan horrek zuk idatzia dirudi

Laburbilduz, komunztaduradun partizipioak eta *-ta* edo *-rik* marka duten partizipioak VP kategoriako predikatuen islapen hedatuak direla frogatu dugu. Islapen hedatu horiek egoera-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak dira eta beraz, *egon* aditzaren osagarri modura txerta daitezke. Baina horretaz gain, laguntzailea eta Varen argumentu guztiei kasua ezartzeko behar den aparailu funtzionala ere isla dezakete.

Komunztaduradun partizipioari dagokionez, barnean duen predikatuaren egiturak baimentzen dizkion laguntzaile-mota guztiak islatzeko aukera du. Horrela, hainbat motatako egiturak eraiki ditzake argumentu batzuk VParen barnean eta beste batzuk VPtik kanpo gauzatuz.

3.3.7. Kuantifikatzaileen besarkadura

Williams-ek (1983) perpaus txikien analisiaren aurka eskainiriko frogarik eztabaidatuenetariko bat, *to seem* aditzak har ditzakeen osagarri infinitiboen eta predikatu-osagarrien arteko asimetria da: perpaus infinitiboetan kuantifikatzailearen irakurketan besarkadura-eremu zabala edo estua har daitekeen bitartean (135), predikatu-osagarrien kasuan, ez dago inolako anbiguitaterik, eta kuantifikatzaile horren irakurketarako beti hartu behar da perpaus matrizearen eremua (136).

(135) Someone seems to be sick
(i) There is someone who seems to be sick
(ii) There seems to be someone sick

(136) Someone seems sick

Williams (1983), May-ren (1977) kuantifikatzaileen igoerarako erregelan oinarritu da (135) perpausaren anbiguitatea iradokitzeko: kuantifikatzaileen besarkadura-eremua, kuantifikatzailea bere eremutzat hartzen den Sari adjunktatuz eta kuantifikatzailearen S-gunean aldagai bat (x) utziz lortzen da. Aditz goratzaileen kasuan, May-ren erregelak, kuantifikatzailea beherantz eraman eta menperatuan adjunkta dezake, zeren menperatu horren subjektuaren gunean dagoen aztarnak kuantifikatzaileak uztarturiko aldagaia izan baitaiteke.

(137) a. Someone$_i$ seems [t_i to be sick]$_S$ --> May-ren erregela
- - - > b. X seems [someone$_i$ [t_i to be sick]$_S$]$_S$

(136) adibidearen kasuan ere subjektuaren igoeraren aurrean bageunde, posible izan beharko luke kuantifikatzailea txertaturiko osagaiari itsastea, eta (135) adibidearen anbiguitate bera izango genuke, baina kuantifikatzailearen beherapen hori ezin gerta daitekeenez, subjektu eta predikatuaz eraturiko osagairik ez dagoela eta beraz igoerarik ez dagoela froga daiteke Williams-en iritziz.

(138) *X seems [someone$_i$ [t_i sick]X]X

Bestetik, Williams-ek (139) adibidea gaineratu du X kuantifikatzaileak itsasteko tokia izan daitekeela frogatzeko.

(139) John seems mad about something --->
--->(John seems [something$_i$ [mad about x_i]])

Ikusi, Williams erabiltzen ari den erregela, May-ren (1985) bertsioa dela: kuantifikatzaileak itsasteko tokiak islapen nagusi guztiak eta ez bakarrik S mailako islapenak direla onartu du. May-ren (1977) kuantifikatzaileen igoeraren bertsioan, (138) onargarria ez izatea ez da harritzekoa ez eta Stowell-en 'kategorien arteko subjektuaren' definizioa onarturik ere, zeren bertsio horretan X hori ez bailitzateke S mailakoa AP mailakoa baizik. May-ren kuantifikatzaileen igoerarako 1985.eko bertsioaren arabera berriz, AP islapen nagusia kuantifikatzaileak adjunktatzeko toki egokia litzateke, eta beraz, (138) irakurketa onargarria ez dela egia bada, esaldi horretan AP mailako osagairik ez dagoela pentsa daiteke.

Geure iritziz, anbiguitatea *to be* aditzaren bi adieretan datza eta ez (136) adibidearen igoera-ezan: alde batetik, adiera atributiboa eta bestetik, adiera existentziala. (135i) irakurketan adiera atributiboa erabili den bitartean, (135ii) irakurketan, adiera existentziala erabili da. Adiera atributiboan, (138b) adibidean islatu den eremua aplikatu diogu kuantifikatzaileari, baina adiera existentzialean, perpaus txertatu osoaren eremua aplikatu beharrean, predikatuaren eremua aplikatu diogu. Ikusi hemen bi irakurketen laburbilpena (140):

(140) (i) X seems [someone$_i$ [t_i to be sick]S]S
(ii) X seems [to be [someone$_i$ [t_i sick]XP]XP]S

(136) adibidearen kasuan ordea, ez dugu *to be* aditzaren irakurketa existentzialaren aukera, eta beraz, ez dago anbiguitaterik: egiten dugun irakurketa (138') modura errepikatuko dugun (138) adibidearena da hain zuzen ere.

(138') X seems [someone$_i$ [t_i sick]]

(136) adibidean beste subjektu baten ezean *someone* halabeharrez irakurri behar da perpaus txikiaren subjektu modura, *sick* predikatuak duen θ-papera deskargatu behar baitu: txertaturiko predikatuaren funtzioa bete dezakeen bestelako elementu bat dugunean, posible da, *someone* kuantifikatzailearen eremua predikatuarena izatea.

(127) John seems someone sick ---> QR
---> John$_i$ seems [t_i [someone$_2$[x_2 sick]$_{XP}$]$_{XP}$]$_{SC}$

Datu hauek indartzeko, *to be* aditzak duen anbiguitatea ez duen gaztelaniari eta antzeko anbiguitatea izan dezakeen euskarari begiratuko diegu. Gaztelaniaz, *estar* aditzak adiera atributiboa baizik ez du (142), (135ii) irakurketaren antzeko adiera existentziala lortzeko, *haber* aditza erabili behar delarik (143).

(142) Alguien parece estar enfermo --->
(i) X parece [alguien$_i$ [t_i estar enfermo]]
(ii) *X parece [estar [alguien$_i$ [t_i enfermo]]

(143) Parece haber alguien enfermo --->
Parece [haber [alguien$_i$ [x_i enfermo]]]

Parecer aditzak izenondo-predikatu hutsa hartzen duenean, adiera atributiboa baizik ez dugu, *haber* aditzaren adiera existentziala ulertzerik ez baitago.

(144) Alguien parece enfermo --->
---> X parece[alguien$_i$ [t_i enfermo]$_{SC}$]$_{SC}$

To seem eta *parecer* aditzen euskal ordaina litekeen *irudi(tu)* aditzak, ez du onartzen jokatugabeko perpaus-osagairik, baina bai konpletiboak eta izenondo-osagarriak.

(145) *Norbaitek gaixorik egotea dirudi

(146) a. [Norbait gaixorik dagoela] dirudi
b. Norbaitek [gaixorik dagoela] dirudi
(147) Norbaitek gaixorik dirudi

(146) adibideetan, *dago* adizkia erabili beharrean, irakurketa atributiboa eta existentzialaren arteko anbiguitatea izan dezakeen *badago* aldaera enfatizatua erabiltzen badugu, (146a) esaldia anbiguo gertatuko zaigu, ez ordea, (146b) esaldia.

(146') a. Badirudi badagoela norbait gaixorik
(i) Badirudi [norbait$_i$ [badago[t$_i$ gaixorik]$_{AP}$]$_{IP}$]$_{IP}$
(ii) Badirudi [badago [norbait$_i$[x$_i$ gaixorik]$_{XP}$]$_{XP}$]$_{IP}$

(146b) adibidearen kasuan berriz, *norbait* kuantifikatzaileak ergatibo kasua hartu duenez, halabeharrez, ulertu behar dugu perpausaren subjektu modura eta ez XP sintagmaren zati bat balitz bezala, kasua sintagma osoei ezarri behar baitzaie. Ondorioz, ez dago anbiguitaterik.

(146') b. Norbaitek [badagoela gaixorik] dirudi
(i) X [norbait$_i$[badago[t$_i$ gaixorik]$_{AP}$]$_{IP}$]$_{IP}$ dirudi

Izenondo-osagarriaren kasuan ere, kuantifikatzailea halabeharrez izenondo-osagarri horren subjektu modura ulertu behar dugu.

(147) Norbaitek gaixorik dirudi--->
---> X [norbait$_i$ [t$_i$ gaixorik]$_{SC}$]$_{SC}$ dirudi

Ikusi, gaztelaniaz eta euskaraz ere, kuantifikatzaileaz gain subjektu bat jartzen denean, kuantifikatzaileak predikatuaren besarkadura-esparrua hartzen duela (148). (144) eta (147) adibideetan predikatuaren eremuaren irakurketaren eza, predikatu horrek bere paper tematikoa deskargatzeko argumenturik ez izateari zor zaio.

(148) a. Ese hombre parece alguien famoso
b. Gizon horrek norbait ospetsua dirudi

Ikus daitekeenez, argudio hori Stowell-en analisiaren aurka doa, zeren perpaus txikia predikatuaren islapen nagusiarekin bat baletor, ez bailegoke (148) bezalako perpausetarako tokirik.

Kuantifikatzaileen igoeraren frogatik atera daitekeen ondorioa beraz, hauxe da: *irudi(tu)* aditzak, eta modu berean *to seem* eta *parecer* aditzek, beti hartzen dute nolabaiteko osagai klausala (konpletibo bat, perpaus infinitibo bat edo perpaus txiki bat) osagarri modura. Osagai klausal horren barnean, bai subjektua eta bai predikatua ere, islapen nagusiak dira, bestela ezinezkoa bailitzateke kuantifikatzaileari predikatuaren edo perpaus txiki osoaren irakurketa-eremua aplikatzea.

3.3.8. Laburbilpena

Sail honetan, Stowell-ek eta bere jarraitzaileek defendatu duten 'Perpaus Txikien Teoriak' eta Willians-ek eta bere defendatzaileek proposaturiko 'Predikazioaren Teoriak' elkartezinak ez direla frogatzen saiatu gara. Izan ere, bi teoria horiek elkartuz soilik lor daiteke X'-Teoriaren, Islapenaren Oinarriaren eta θ-Teoriaren eskakizun guztiak betetzen dituen 'Predikazioaren Teoria' orokor bat. Teoria horrek, buru modura Va duten predikatuetarako zein A edo N kategoriako hiztegi-sarrerak dituztenetarako balio dezake. Hona hemen lortu ditugun ondorio nagusien laburbilpena.

(i) Predikatuak paper tematikoak deskargatu behar dituzten X edozein gramatika-kategoriatako buruen islapen nagusiak (XP) dira.

(ii) Argumentuak paper tematikoa eta kasua jaso behar dituzten islapen nagusiak dira.

(iii) X predikatu-buruen argumentu guztiak XP islapenaren barnean sortzen dira eta bertan hartzen dute beren paper tematikoa. (Zentzu honetan ez dago subjektuaren kasu-markaketa konposizionalerako beharrik).

(iv) Argumentuek bete behar duten beste eskakizuna, kasuarena alegia, gehienetan ezin bete daiteke XP islapenaren barnean: gutxienez argumentu batek XPtik kanpo mugitu beharko du kasua hartzera. Argumentu hori predikatuaren subjektua izango da.

(v) Predikatu guztiek (VP, AP edo NP kategoriakoak izanik) gutxienez FP islapen funtzional bat islatu behar dute, beraien argumentuetariko bat subjektu modura uler dadin. FP hori Grimshaw-en (1991) zentzuan ulerturiko predikatuaren islapen hedatua da eta beraz, predikatu horren gramatika-kategoria eta ezaugarri berberak ditu.

(vi) Zenbait predikatuk, hala nola VPek eta zenbait APk, beren argumentu guztiei kasua ezar diezaieketen FPak isla ditzakete, islapen horien artean erabakikorrena AuxP litekeelarik. Laguntzailearen aukerak hain zuzen erabakiko ditu

(espezifikatzaile/buru) komunztaduraren bidez kasua jaso dezaketen argumentuen kopurua eta argumentu horiek hartuko dituzten kasu-marka zehatzak.

(vii) Beren argumentu guztiak kasuaz markatzeko behar diren FPak ezin isla ditzaketen predikatuek (hala nola AP eta NP gehienak), VP baten beharra izango dute. Predikazio-eremu defektibo hauek hain zuzen izaten dira perpaus txiki izenaz ezagun direnak.

(viii) Azken kasu horretan, perpaus txikia osagarri modura duen aditza erabakikorra izaten da laguntzaile-mota erabakitzeko orduan eta beraz, kanpoan gauzatuko diren perpaus txikiaren argumentuak zeintzu izango diren eta horiek hartuko dituzten kasu-marka zehatzak erabakitzeko orduan ere. Horrela, azpikategorizaturiko predikatuen barne-egitura askotan izkutaturik geratzen da.

VP kategoriako predikatuen kasuan beraz, aldez aurretik jakin daiteke subjektu modura gauzatuko den argumentua zein izango den; AP edo NP predikatuen kasuan ordea, gehienetan, aditz matrizearen eraginez, ilundurik geratzen da egitura hori. Hala ere, predikatu hauetan ere gutxienez predikatu iragankor eta iragangaitzen arteko bereizketa egin daitekeela frogatu dugu.

(ix) Atal honen hasieran aipatu ditugun lehenengo mailako euskal predikatu guztietarako behintzat, perpaus txiki modurako analisia onargarria eta batzuetan posible den bakarra dela frogatutzat utzi dugula uste dugu.

Bestetik, baztertu egin ditugu 'kasu-ezarketa berezia', eta sintaxi-mailarako behintzat, berranalisiaren aukera, prolatibo marka daramatren perpaus txikien kasuan hiztun batzuek horrelako analisia egiten dutela onartu badugu ere. Beraz, azpikategorizaturiko perpaus guztietan gutxienez argumentu baten (subjektuaren) igoera gertatzen dela onartu behar dugu.

(A) a. Filme hori$_i$ [$_{FP}$ t_i beldurgarria] da
b. Victoria Abril$_i$ [$_{FP}$ t_i aparta] dago azken filmean
c. Liburu hau$_i$ [$_{FP}$ nik t_i idatzia] da
d. Zure autoa$_i$ [$_{FP}$ t_i hondaturik] dago

(B) a. Ura$_i$ [$_{FP}$ t_i ardo] bihurtu da
b. Berri horrek Miren$_i$ [$_{FP}$ t_i oso pozik] jarriko du

(C) Mirenek ikasle hori$_i$ [$_{FP}$ t$_i$ azkartzat] dauka

(D) a. Jonek$_i$ [$_{FP}$ t$_i$ gaixorik] dirudi

b. Guk lan horri$_i$ [$_{FP}$ t$_i$ guztiz beharrezkoa] deritzogu

(X) Ondorioz, geuk proposaturiko teorian, predikatu-eraikuntzen D-egitura Stowell-en (1981, 1983) analisitik hurbil dagoen bitartean, S-egitura, Williams-en (1980, 1983) analisitik hurbil dago.

3.4. Bigarren mailako predikazioa

3.4.1. Datu garrantzitsuenen laburbilpena

Aurreko atalaren 2.3. azpisailean bigarren mailako predikaziorako nolabaiteko sarrera egin dugu. Horrenbestez, azpisail honen hasieran, han aipatu ditugun daturik nabarienetarikoen laburbilpena baizik ez dugu egingo.

Bigarren mailako predikazioaren ezaugarririk esanguratsuenetako bat, ezinbestekoa ez izatea da. Hortaz, predikatu hauen subjektuaren erreferentzia aditz matrizearen argumentu batena (subjektua edo objektua) izaten da[37] eta subjektuari (1) edo objektuari (2) zuzenduriko predikatuez hitz egiten da. Gainera, objektuari zuzenduriko predikatuen kasuan, bi sail semantiko desberdinez hitz egin daiteke: predikatu deskribatzaileez alde batetik (2a), eta ondoriozko predikatuez bestetik (2b).

(1) Mirenek^{i} urduri^{i} hitz egin du

(2) a. Mirenek sagarrak^{i} merke^{i} erosi zituen

b. Haurrari ilea^{i} motz^{i} ebaki diogu

---

[37] 'Predikazioaren Teorietan' (Williams, 1981, 1983; Rothstein, 1983; Mc Nulty, 1988), bigarren mailako predikatuaren subjektua, aditz matrizearen argumentua dela eta beraz bi predikatuek subjektu horri paper tematiko bana esleitzen diotela ulertu behar da. 'Perpaus Txikien Teorian' (Stowell, 1981, 1983; Safir, 1983, Kitagawa, 1985; Hoekstra, 1988), bigarren mailako predikatuaren subjektua, PRO kategoria isilekoa dela eta aditz matrizearen argumentu batek kontrolatzen duela defendatu da. Modu horretara, argumentu bakoitzak, θ-paper bakarra izan behar duelako eskakizuna (θ-irizpidea), mantendu egiten da. Guk geuk, azken teoria honen alde egingo dugu sail honetan.

Bestetik, datiboa daramaten argumentuek bigarren mailako predikaturik onartzen (3) ez badute ere, eraikuntza kausatiboetan, onargarriagoak dira datibo marka daraman argumentuari zuzenduriko predikatu horiek (4).

(3) *Liburua Mireni$_i$ urduri$_i$ erori zaio

(4) Irakasleak Mikeli$_i$ guztien aurrean bakarriki$_i$ dantzarazi dio

Morfologiari dagokionez, euskaraz, bi sail bereiz daitezke bigarren mailako predikatuen artean: alde batetik, *-tzat* posposizioa duten bigarren mailako predikatuak (5), eta bestetik, posposizio hori ez daukatenak (6). Prolatiboa daramaten bigarren mailako predikatuak ezinbestean objektuari zuzendurikoak izan behar badute ere (5a), [38] bestelakoak subjektuari (6a) edo objektuari (6b) zuzendurikoak izan daitezke.

(5) a. Neskamea lapurtzat salatu zuten

b.*Itziarrek irakasletzat hitz egin zuen

(6) a. Haurra gaisorik etorri zen udalekuetatik

b. Sagarrak egosita jan ditut

Orain arte azaldutako murriztapenez gain, badaude beste murriztapen batzuk ere: hasteko, soilik *egon* aditzarekin azal daitezkeen predikatuak (hots, egoera-mailako predikatuak) dira onargarriak bigarren mailako predikatu modura.

(7) a. Okela merke erosi dugu

b. Okela merke zegoen

(8) a.*Okela kaltegarri erosi dugu

---

[38] Esan beharrekoa da *-tzat* posposizioa daramaten bigarren mailako predikatuak ez direla onargarriak euskalki guztietan: batez ere hegoaldeko hiztun batzuek prolatiboa *hartu* eta *jo* bezalako aditzek azpikategorizaturiko predikatu-osagarrietan baino ez dute onartzen. Ikus Rebuschi (1982).

b.*Okela kaltegarri dago

Prolatiboa daramaten bigarren mailako predikatuen kasua, salbuespena dela esan daiteke, horiek ez baitira egoera-mailakoak. Kasu honetan, *hartu* aditza onartzen duten predikatuak behar dira.

(9) a. Emakume hori sorgintzat kondenatu zuten
b. Emakume hori sorgintzat hartu zuten
c.*Emakume hori sorgin dago

Bestetik, badaude aditzen aspektu-ezaugarriekin zerikusia izan lezaketen zenbait murriztapen ere. Adibidez, aditz estatiboen subjektuek ez dute bigarren mailako predikaturik onartzen.

(10) *Anek musika atsegin du liluraturik

Objektuari zuzenduriko predikatuen banaketa oraindik murriztuago dago, zeren alde batetik soilik aditz iragankorren multzo batek har baititzake horrelako predikatuak eta bestetik, aditz bakoitzak har ditzakeen predikatuen sail semantikoa ere oso murriztua baita.

(11) a. Arrandegi horretan arraina {merke/*samur} saltzen dute
b. Aneri ilea {motz/*beltzaran} ebaki diote
c. Mikel {artzain /*turista} joan da Ameriketara[39]

Aspektu-murriztapenen berri emateko, aurreko atalaren 2.3.1. sailean, hemen (12) zenbakiaz errepikatuko dugun oinarri bat proposatu dugu:

(12) Edozein argumentuk, bigarren mailako predikatu baten subjektu modura jokatu ahal izateko, goratsun-maila

---

[39] Gogoratu aurreko atalean Varen osagarriaren gunean sorturiko aditz inakusatiboen subjektuak objektuekin batera aztertu ditugula.

bera izan behar du maila tematikoan eta maila aspektualean.

Horrela, aditz estatiboen subjektuen kasuan, tematikoki kanpokoena den argumentua ez da inola ere kanpokoena aspektu-mailan. Objektuen kasuan, temaren paper tematikoa hartzen duen argumentua da bai aspektuaren ikuspegitik eta baita maila tematikoan ere barne-argumentutzat har daitekeena.

Bestetik, eraikuntza kausatiboen datibo argumentuaren kasuan, D-egituran bi perpaus dugula onartzen badugu, datiboa daraman argumentu horrek bete egiten du (12) oinarria, predikatu menperatuari dagokionez 'egilea' denez aspektu-mailan eta maila tematikoan goratasun-harreman bera baitu. Datibo markadun zeharkako osagarria ordea, aspektu-mailan inolako eraginik ez duen adjunktua da.

Bigarren mailako predikatuen aldiberekotasuna eta ordenaketari dagokienez, posible da subjektuari zuzenduriko predikatu bat eta objektuari zuzenduriko beste bat elkartzea, baina ezinezkoa da subjektuari zuzenduriko bi predikatu (13c) edo objektuari zuzenduriko bi elkartzea, ez eta objektuari zuzenduriko horiek bata deskribatzailea eta bestea ondoriozkoa direnean ere (13d).

(13) a. Semeak aitari autoa apurtuta lasai itzuli zion
b. Amak Aneri ilea motz behartuta ebaki zion
c.*Haurra triste damuturik itzuli zen udalekuetatik
d.*Amak bazkaria gozo itxuroso prestatzen du beti

Ordenaketari dagokionez, euskarak horren ordena-askatasun handia izanik, askotan zail samar gertatzen da perpausen oinarrizko ordena zein den ikustea. Hala ere, perpaus menperatuetan aditza mugitzeko eta argumentuak ateratzeko dauden murriztapenak direla eta, errazagoa izaten da ordena hori antzematea. Hortaz, aditz-izenaz eraturiko perpaus bat hartuko dugu (14) bigarren mailako predikatuen arteko ordenaketa agerian uzteko: subjektuari zuzenduriko predikatuak beti azaltzen dira aditzetik hurbilago objektuari zuzendurikoak baino.

(14) a. Harrigarria da zure lagunek kafea hotz pozik hartzea
b.*Harrigarria da zure lagunek kafea pozik hotz hartzea

Azpisail honetako helburuak laburbilduz, aipatu ditugun murriztapen guztietarako azalpenen bat bilatzen saiatuko gara. Horretarako ezinbestekoa da predikatu hauen txertaketa-maila finkatzea. Bigarrenik, zenbait predikaturen konbinaketarako ezintasunaren berri ematen ere ahaleginduko gara. Azkenik, bigarren mailako predikatuen barne-egituraz arduratuko gara, PRO motako subjektu bat behar dutela eta horrelako subjekturik ezin har dezaketela defendatu duten teoriak aztertuz.

3.4.2. Bigarren mailako predikatuak VPan daude

Bigarren mailako predikatuen aukerako izaera dela eta, D-egituran sorturiko adjunktutzat hartu ohi dira. Dena dela, perpausaren egitura finkatzeko, oso garrantzitsua da, itsasten direneko maila zehatza ezagutzea, perpausaren beste elementu batzuen (aditzondoak, adizlagunak, subjektua, objektua e.a.) kokapena finkatzeko oso baliagarria bailitzateke.

Euskaraz, ordenaketa neutroan bigarren mailako predikatuak, argumentu guztien eta jokaturiko adizkiaren artean azaltzen dira S-egituran.

(15) Ainhoak (zuri) liburua guztiz hondatuta lasai itzuliko dizu

Onar dezagun, euskaraz, aditzak ergatibo, datibo eta absolutibo argumentuekiko komunztadura azaltzen duenez, Infl buruak hiru

komunztadura horiek gauzatzeko behar diren hiru islapen desberdinez osoturik dagoela: TP, MP eta AuxP islapenak[40] Laka-ri (1991) jarraiki.

Komunztadura hori gauzatzeko, argumentu bakoitzak islapen horietariko espezifikatzaile batean kokatu behar du eta aditzak ere gora egin behar du bere sorrera-gunetik islapen horietatik buruz buruko mugimendua eginez. Hala ere, adizki perifrastikoen kasuan, V eta Aux buruen artean Asp burua legoke, bertan V aspektu-atzizkiari erantsi eta bere igoera geldiarazi egingo litzatekeelarik. Ondorioz, flexio-markak hartzeko mugituko litzatekeena, Aux buru soila liteke, T bururaino igoko litzatekeelarik.


Goiko puzle osoa onarturik, eta euskara burua-azken motako hizkuntza dela kontutan hartuz, ondoko antolaketa hau genuke S-egituran: ergatiboa daraman argumentua [spec, T] gunean, datiboa daramana [spec, M] gunean, eta absolutiboa daramana [spec, Aux] gunean. Ikus (15') adierazpena.[41]

Buruei dagokienez, aditzaren zati lexikoa Asp buruan legoke aspektu-atzizkiari loturik, eta laguntzailea, T buruan pertsona, modu eta denborazko marka guztiak eramango lituzkeelarik. Horrela, bigarren mailako predikatuek (*hondatuta lasai*), (15') zuhaitzean islatu diren bi alde horietako batean itsatsirik egon beharko lukete.

---

[40] TP, aditzaren aldiari dagozkion markak eta ergatiboarekiko komunztadura ezarriko liratekeeneko maila da. MP, modalak, esate baterako ahalezko adizkien *-ke-* morfema, eta datiboarekiko komunztadura gaineratuko liratekeeneko maila da. Bukatzeko, AuxP mailan, laguntzailea sortuko litzateke eta gainera, absolutiboarekiko komunztadura ezarriko litzateke

[41] Ez ditugu adierazi argumentuei dagozkien aztarnak VParen barne edo kanpoko sorreraren eztabaidan ez sartzearren.



Bestetik, ikusi argumentu desberdinen artean[42] edo eta aditzaren zati lexikoaren eta laguntzailearen artean bigarren mailako predikaturik tartekatzea ezinezkoa dela.

(16) a.*Ezinezkoa da Mirenek lasai azterketa irakurtzea
b.*Pentsaezina da Jonek aitari hondatuta kotxea itzultzea
c.*Mirenek azterketa irakurri lasai zuen

Ondorioz, bi aukera-multzo desberdin dugu:

(I) Bigarren mailako predikatuak ezkerrean badaude, AuxP baino beherago egon behar dute, [spec, Aux] gunean dagoen absolutiboko argumentua baino eskuinalderago egon behar baitute. Honako aukera hauek ditugu beraz:

---

[42] Ordena neutroa hautatu dugula segurtatzeko, askoz ere ordena-murriztapen nabariagoak azaltzen dituzten *tze*-perpausak hartu ditugu (16a) eta (16b) adibideetarako ere. Ordena markatuan posible da, tartekaketa hori subjektua eta subjektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatua topikalizatuz adibidez.

(i) Aux' adabegiari itsastea
(ii) AspP edo Asp' adabegietako bati itsastea
(iii) VP edo V' adabegietako bati itsastea

(II) Bigarren mailako predikatuek, eskuinean badaude, Asp burua baino beherago egon behar dute, ezin tarteka baitaitezke Asp buruan dagoen aditzaren zati lexikoaren eta T buruan dagoen laguntzailearen artean. Horrenbestez, aukera hauek ditugu:

(i) VP adabegiari itsastea
(ii) V' adabegiari itsastea

Williams-ek (1980), subjektuak predikatua c-komandatu eta predikatu horrekiko c-azpikoa izan behar duelako baldintzean oinarrituta, subjektuari zuzenduriko predikatuak I'aren ahizpak direla, eta objektuari zuzendurikoak Varen ahizpak direla onartu du. C-komandoaren baldintza horrek, baztertu egiten ditu PPei zuzenduriko predikatuak, preposizioak c-komandoaren harremana galerazten baitu (18a). Arrazoi bera eskaini da gaztelaniaren zeharkako osagarriari zuzenduriko predikatuen ezintasuna (18b) azaltzeko (Demonte, 1988), eta arrazoi bera eskain daiteke baita euskaraz ikusten den datibo markadun argumentuen ezintasun bera azaltzeko (18c).

(18) a.* John [loaded the wagon [$_{PP}$ with [$_{NP}$ hay]] [$_{AP}$green]
b.* Pedro le regaló un libro [$_{PP}$ a su hija] [$_{AP}$enferma]
c.* [$_{PP}$Mireni] liburua [$_{AP}$urduri] erori zaio

(19) bezalako adibideak onargarriak ez izatearen arrazoia bestetik, hauxe da Williams-en arabera: subjektuak predikatua c-komandatzen badu ere, ez da predikatu horrekiko c-azpikoa, *raw* predikatua menperatzen duten eta *the meat* subjektua menperatzen ez duten adabegi bat baino gehiago baitago.

(19) *Bill [$_{VP}$ ate[$_{NP}$ the meat] [$_{PP}$ with [$_{NP}$ [$_{AP}$ [raw] carrots]]]

Williams-en analisiaren beste ondorio bat, hauxe da: ingelesez, subjektuari eta objektuari zuzenduriko predikatuak perpaus berean azaltzen direnean, objektuari zuzendurikoak subjektuari zuzendurikoaren ezkerrean azaldu behar du (20) c-komandoaren baldintza bete ahal izateko.


(20) a. John ate the salad undressed naked
b.*John ate the salad naked undressed

Rothstein-en (1983) analisia, Williams-enaren antzekoa da: beraren iritziz, predikatuak eta subjektuak elkar c-komandatu behar dute. Horretaz gain, c-komandoaren islapen nagusien araberako definizioa onartu du (m-komandoa) eta ez edozein adabegi kontutan hartzen duen definizioa. Horrela, subjektuei zuzenduriko predikatuetarako, Williams-ek bezala, I´ adabegiaren ahizpak direla onartu du; baina objektuari zuzenduriko predikatuen kasuan, soilik ondoriozko predikatuetarako (aditzaren ekintzaren ondorioa deskribatzen dute) onartu du Varen ahizparen kokagunea, predikatu deskribatzaileak VP adabegiari itsatsirik daudela proposatu duelarik.

Ikuspegi bat edo bestea onarturik ere, orotarapena, subjektu eta predikatuaren artean nolabaiteko c-komandoaren harremana egoteko beharra da. Bestetik, pentsa dezagun subjektua beti objektua baino gorago txertaturik egoten dela. Horrenbestez, c-komandoaren eskakizuna betetzeko, subjekuari zuzenduriko predikatuak beti egongo dira gorago txertaturik objektuari zuzenduriko predikatuak baino.

Gogoratu euskaraz subjektuari zuzenduriko predikatuak aditzetik objektuari zuzendurikoak baino hurbilago azaltzen direla (ikus hemen errepikatu dugun adibidea).

(14) a. Harrigarria da zure lagunek kafea hotz pozik hartzea
b.*Harrigarria da zure lagunek kafea pozik hotz hartzea



Ordenaketa erlatibo hori , eskuin aldeko kokapenaren aldekoa da zalantzarik gabe. Ikusi ezkerraldeko kokapena onartzekotan (14b) ordena azalduko litzatekeela. Ondorioz, bigarren mailako predikatu hauek VP mailan eskuinaldean itsatsirik egongo dira euskaraz eta ez eta subjektuari zuzenduriko predikatuen kasuan ere IParen mailan Williams eta Rothstein-ek defendatu duten bezala.

Horren antzeko proposamena egin du Mc Nulty-k (1988), bai ingeleserako eta bai gaztelaniarako ere: bigarren mailako predikatu guztiak VParen barnean daude, horren aldeko froga ugari aurkeztu duelarik.[43] Izan ere, ingeleserako Andrews-en (1982) frogak errepikatu ditu, eta gaztelaniarako onargarriak direnak ere aplikatu dizkio hizkuntza horri. Hona hemen Mc Nulty-ren adibideak.

---

[43] Gaztelaniarako ikusi, halaber, Mallén (1991): egile honek ere defefendatu du gaztelaniaz bigarren mailako predikatuak VPan itsasten direla.

(a) VParen aurrerapena

(21) a. Mary said that John would leave angry and leave angry he did
b. *Mary said that John would leave angry and leave he did

(22) a. María dijo que Juan estaba conduciendo borracho y conduciendo borracho estaba el muy inconsciente
b. * María dijo que Juan estaba conduciendo borracho y conduciendo estaba el muy inconsciente

(b) *Though*- mugimendua

(23) Leave angry though John did, nobody thought he was unreassonable

Gaztelaniaz ezin egin daiteke mugimendu hau eta beraz, froga ez da baliogarria.

(c) WH-cleft eraikuntzak

(24) a. John left angry
b. What John did was leave angry
c. #What John did was leave[44]

(25) a. Juan fué conduciendo borracho
b. Lo que Juan hizo fué conducir borracho
c. #Lo que Juan hizo fué conducir

Bestetik, ohizko froga horiei, Mc Nulty-k VParen ezabaketarena gaineratu die: bigarren mailako predikatu bat duen edozein perpausen VPa ezabatzen denean, Varen beste elementuekin batera bigarren mailako predikatua ere ezabatu dela ulertzen da.

---

[44] # ikurra, c. eta a. adibidean adierazitakoak bat ez datozela adierazteko erabili da

(d) VParen ezabaketa

(26) a. John left angry and Mary did Δ too
b. Bill ate the meat raw and Mary did Δ too
(27) a. Juan comió la comida enfadado y María también Δ
b. Juan comió la carne cruda y María también Δ

Gaztelaniaren kasuan, beste froga bat eskaini du Mc Nulty-k, atzeratutako subjektuena hain zuzen: atzeratutako subjektuak, VPari itsasten zaizkiola onarturik dago orokorki hizkuntza erromantzeetarako (Rizzi, 1982; Torrego, 1984), eta subjektu horiek bigarren mailako predikatu batekin azaltzen direnean, beti egon behar dute bigarren mailako predikatua baino eskuinalderago. Bistan da froga hau ezin erabil daitekeela atzeratutako subjekturik ez duen ingeleserako.

(e) Atzeratutako subjektuak

(28) a. María escribió esta reseña enfadada
b. Escribió esta reseña enfadada María
c.*Escribió esta reseña María enfadada
(29) a. María compró esta silla rota
b. Compró esta silla rota María
c.*Compró esta silla María rota

Euskaraz, bigarren mailako predikatuak dituzten esaldietan elementu desberdinek duten ordenaketan oinarrituta, ingeleserako eta gaztelaniarako Mc Nulty-k lortu duen ondorio berberera ailegatu gara: bigarren mailako predikatu guztiak VParen barnean daude. Hala ere, ikus dezagun beste hizkuntzetarako erabili diren frogek baieztapen hori indartzeko balio ote diguten.

(a) <u>VParen aurrerapena</u>

(30) a. Mirenek Jon pozik itzuli zela esan zuen, eta benetan pozik itzuli zen

b.*Mirenek Jon pozik itzuli zela esan zuen, eta benetan itzuli zen

(32) a. Mirenek Jonek okela egin gabe jaten duela esan zuen, eta benetan egin gabe jaten du

b.*Mirenek Jonek okela egin gabe jaten duela esan zuen, eta benetan jaten du

(b) *Though* mugimendua: ez dago euskaraz eta beraz, ez da erabil daitekeen froga.

(c) WH-cleft eraikuntzak

(33) a. Jonek mozkortuta gidatu zuen

b. Jonek egin zuena izan zen mozkortuta gidatzea

c. #Jonek egin zuena izan zen gidatzea

(34) a. Jonek okela egin gabe jan zuen

b. Jonek egin zuena izan zen okela egin gabe jatea

c. #Jonek egin zuena izan zen okela jatea

(d) VParen ezabaketa: Euskaraz ere, VPa ezabatzen denean, bigarren mailako predikatua eramaten duela ulertzen da.[45]

(35) a. Jonek indabak haserre jan zituen eta Mirenek ere baiΔ

b. Jonek okela gordinik jan zuen eta Mirenek ere baiΔ

(e) Atzeratutako subjektuaren froga: froga horrek ez digu gauza handirik esaten bigarren mailako predikatuen txertaketaren tokiari

---

[45] Rebuschi-ren (1986) arabera, hauetan ezabatu dena ez da VPa, IP osoa baizik, horrelakoetan, subjektua topikalizaturik eta beraz, perpausetik kanpo egongo bailitzateke. Salaburu-k (1990) berriz, aurkako iritzia defendatu du, (35) bezalakoetan inolako mintzagai hanpaturik ez dagoela eta beraz *ere bai* sekuentzia VParen ordezkoa dela defendatuz. Horrenbestez, froga hau baliogarritzat joko dugu euskararako ere.

dagokionez, zeren euskaraz laguntzailea S-egituran T buruan dagoela onartzen badugu atzeratutako subjektua horren eskuinean azaltzen denez gutxienez TP mailan dagoela onartu behar baitugu.

(36) a. Mirenek gutun hori idatzi du
b. Gutun hori idatzi du Mirenek

(37) a. Mirenek gutun hori haserre idatzi du
b. Gutun hori haserre idatzi du Mirenek
c. Gutun hori idatzi du Mirenek haserre
d. Gutun hori idatzi du haserre Mirenek

Euskararen ordena-askatasuna oso handia da eta beraz, (37) multzoko adibide guztiak onargarriak dira. Hala ere, ordenaketa horiek azaltzeko erabiltzen diren analisiak ez dira, gaztelaniarako erabilitakoak bezalakoak: aditzaren aurrean dagoen elementua enfatizaturiko elementua dela ulertzen da ohizko ordenaketatik irteten denean. Hortaz, (37c) bezalako adibide bat azaltzeko, objektua [spec, C] gunean dagoela eta aditza C buruan dagoela pentsa daiteke (O. de Urbina, 1986). Eta horrela, elementu guztiak beraien gunean daudela esan daiteke.

(37d) adibidean bistan da errematizaturiko elementuaren eta aditzaren mugimenduaz gain, subjektuaren atzerapena ere azaldu behar dela: subjektu horrek nonbait itsatsirik egon behar du, baina aditza aurreraturik dugunez, ez dugu subjektu hori itsatsi deneko toki zehatza finkatzerik. Ondorioz, subjektuaren atzerapenaren froga bigarren mailako predikatuen txertakuntz mailaren finkapen zehatzerako baliagarria ez dela esan dezakegu.

Azpisail honen ondorioak laburbilduz, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bezala, bigarren mailako predikatuak VParen barruan daudela esan dezakegu, predikatu-mota desberdinen aldiberekotasunaren, VParen aurrerapen eta ezabaketaren eta WH-cleft eraikuntzen irakurketaren frogetan oinarrituz.

3.4.3. Bigarren mailako predikatuen VParen barneko kokapenaren ondorioak


3.4.3.1. Predikazioak bete behar duen egiturazko baldintza

VParen barneko kokapenaren lehen ondorioa, Wlliams-ek proposaturiko predikazioaren baldintza zalantzatan jartzeko beharra da: subjektua [spc, I] gunean eta predikatua VParen barnean (edozein gune hautaturik ere) badaude, ezinezkoa da subjektua predikatuarekiko c-azpikoa izatea, beti egongo baita predikatua menperatzen duen eta subjektua menperatzen ez duen adabegi bat baino gehiago.


Rothstein-en (1983) subjektuak eta predikatuak elkar m-komandatzearen baldintzaren arabera ordea, posible da subjektuari zuzenduriko predikatua VPan itsastea eta predikatu horrek eta [spec, I] gunean dagoen subjektuak elkar m-komandatzea. Hortaz, bere proposamenaren arloan berak iradokiriko baldintza zehatza alda dezakegu subjektuari zuzenduriko predikatuak IParen alaba modura agertu beharrean (38a) VPari itsatsita (38b) agertzeko.

May-ren (1985) proposamenari jarraiki, (38b) modurako adierazpenetan Varen islapen nagusia VP^1 eta VP^2 bi segmentuek osotzen dute, eta VP^2 ez da islapen nagusia, islapen nagusi baten segmentua baizik. Horrela *John* subjektuak eta *angry* predikatuak elkar m-komandatzen dute, biak menperatzen dituen lehenengo islapen nagusia IP baita.

(38) a.



b.



Dena den, ikuspegi hori onartuz, beste arazo bat sortzen zaigu: subjektuari zuzenduriko predikatuak VPari itsatsirik badaude, arazoa objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak kokatzerakoan sortuko zaigu, Rothstein-en arabera, horiek VPari itsatsita baitaude.

May-ren ikuspegiari jarraiki ordea, aditzaren objektu zuzenak ezin m-komanda dezake VPari itsatsirik dagoen predikatua, zeren objektua menperatzen duen lehenengo islapen nagusiak ($VP=VP^1+VP^2$) ez baitu predikatua menperatzen: predikatua islapen horren segmentu batek (VP^2) baino ez du menperatzen.

Objektuari zuzenduriko predikatuak V' adabegiari itsatsirikoak edo V' adabegiaren alabak baizik ezin izan daitezke. Gainera, V'aren alabak balira, ez legoke objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak ondoriozko predikatuetatik perpausaren egituraren ikuspegitik bereizterik: Rothstein-en (1983) arabera (egile hori Halliday, 1967, Levin & Simpson, 1981 eta Simpson, 1982 egileei jarraiki zaie), ondoriozko predikatuak aditzak berak hautatzen ditu, eta beraz, Varen ahizpak direla pentsatu behar da. Bestetik, hizkuntza batzuetan, aditza eta predikatua inkorporatu egin daitezke: islandieraz adibidez. Islandieraz, ondoriozko predikatuak aditzarekin inkorporatzen dira baina ez predikatu deskribatzaileak.

Chomsky-k (1986) bere aldetik, mugimenduari dagokionez ondoriozko predikatuek osagarriek bezala jokatzen dutela eta predikatu deskribatzaileek bestelako jokaera dutela defendatu du.


(39) a. How red did John paint the house?
b.*Haw raw did Bill eat the meat?

Bukatzeko, ondoriozko predikatuak predikatu deskribatzaileekin batera azaltzen direnean (hori ingelesezko zenbait dialektotan baizik ez da posible), ondoriozkoak halabeharrez azaldu behar du aditzaren ondoan (Rothstein, 1983).

(40) a. Mary hammered the metal flat hot
b.*Mary hammered the metal hot flat

Froga horietan guztietan oinarrituta, Mc Nulty-k (1988), ondoriozko predikatuak Varen osagarri modura txertatzen diren bitartean objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak V' adabegiari itsasten zaizkiola defendatu du.

(41)




Euskararako ere, bigarren mailako predikatuak VParen barnean txertaturik daudela defendatu dugu, baina orain Mc Nulty-k (1988) proposaturiko banaketa zehatza euskararako ere balio ote duen ikusi behar dugu.

Euskaraz ez da posible ondoriozko predikatu bat eta objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaile bat elkartzea (42a), subjektuari zuzenduriko bi predikatu elkartzea ezinezkoa den bezala. Baina subjektuari zuzenduriko


predikatu bat eta objektuari zuzenduriko beste bat elkartzen ditugunean azaltzen zaigun ordena (42b), ongi molda dakieke txertaketa-maila horiei.

(42) a.*Anek ilea motz beltzaran ebaki zuen
b. Semeak aitari autoa apurtuta lasai itzuli zion
c. Anek ileaa motz behartuta ebaki zuen


(43) a. *



b.



c.



Hasteko, ikusi, (43) adibideetan adierazi ditugun konfigurazioek hasieratik arazo larriak ekartzen dizkigutela subjektuek eta predikatuek elkar m-komandatzearen baldintzaren aurrean: argumentu desberdinekiko komunztadura AspPtik gora dauden islapen funtzionaletan burutzen dela onartuz, ezinezkoa da VParen barnean dagoen inolako predikatuk (subjektuari zein objektuari zuzendutakoa izanik ere) bere subjektua m-komandatzea, beren artean beti egoten baita islapen nagusi bat baino gehiago.

Hala ere, bigarren mailako predikatu horiek guztiek VParen barnean daudela frogatu dugu 3.4.2. azpisailean. Badugu bi datu horiek elkar m-komandoaren baldintzarekin nolabait elkartzeko modu bat, alegia Chomsky-ren (1986) kateen baldintzan oinarrituriko modua: kateak gauzaturiko NPez eta D-egituratik S-egiturarako pausoan NP horiek utzi dituzten aztarnez osoturik daude. Horrela, kasua eta paper tematikoa izatea, NPek bete behar zuten baldintza izatetik kateek bete behar duten baldintza izatera iragan da, kateen buruak kasua eta buztanak paper tematikoa hartu behar dutelarik.

Argumentu guztietarako (eta ez soilik objektu zuzenerako) VParen barneko sorrera onartzen badugu, islapen funtzional batean dagoen NPak eta VParen barnean utziriko aztarnak, katea bat osotzen dute: katea horren burua islapen funtzionalaren espezifikatzailean dagoen elementua da, eta buztana, VParen barnean utziriko aztarna.

Bigarren mailako predikatuak bere subjektuarekin duen harremana bere paper tematikoa deskargatzeko beharrari dagokio besterik gabe, eta beraz, harreman hori katearen buztanarekin ezarri behar du, eta ez buruarekin, buztan hori VParen barnean dagoelarik.

(43) zuhaitzetan iradoki den konfigurazioan ikus daitekeenez, *lasai* predikatuak aditzaren argumentu guztien aztarnak m-komandatzen baditu ere, ez dago *lasai* predikatua m-komandatzen duen inolako argumenturik: May-ren ikuspegia onartuz, predikatu hori menperatzen duen lehenengo islapen nagusia AspP da eta ez VP, VParen segmentu batek soilik menperatzen baitu.

Aukera bat, bigarren mailako predikatu hauen sorrera-gunea aldatzea eta V'ari itsastea litzateke, baina orduan ez genuke predikatu hauek objektuari zuzenduriko predikatuetatik perpausaren egituran oinarrituz bereizterik.

Bigarren aukera bat, bigarren mailako predikatuaren eta bere subjektuaren arteko harreman tematikoa D-egituratik S-egiturarako eratorpenaren punturen batean ezartzen dela suposatzea liteke: demagun adibidez, [spec, V] gunean


sorturiko subjektu hori VPtik ateratzeko VPari itsasten zaiola; orduan, VPari itsatsirik dagoenean beteko litzateke elkar m-komandatzearen eskakizuna.

Rothstein (1983) eta Mc Nulty (1988) bezalako 'Predikazioaren Teorien' defendatzaileen iritziz, Chomsky-k (1981) proposaturiko θ-oinarriak argumentu guztiek tematikoki markaturik egon behar dutela ezartzen badu ere, ez du murrizten argumentu bakoitzak eduki behar dituen paper tematikoen kopurua. Horrela posible da, lehenengo mailako predikatuak tematikoki markatzen duen argumentu batek bigarren mailako predikatutik beste paper tematiko bat jasotzea, beti ere egile horien arabera.

Dena den, kateen ikuspegitik (Chomsky, 1986), argumentu-katea bakoitzean θ-markaturiko gune bakar bat egon daiteke (nahiz eta gune horretan, 'Predikazioaren Teoriaren' defendatzaileen iritziz behintzat, paper tematiko bat baino gehiago ezar daitekeen). Horrela, subjektu argumentuaren kateak, aditzak ezarritako papera eta bigarren mailako predikatuak ezarritakoa hurrenez hurren [spec, V] gunean eta VPari itsatsirik dagonean ezarri direla suposatuz, kateek θ-markaturiko gune bakarra izan behar dutelako baldintza bortxatzen ari gara. Ondorioz, baldintza hori mantendu nahi izatekotan, bigarren hipotesi hau, baztertu egin behar dugu.

Azken aukera subjekturako sorrera-gunea [spc, V] delako hipotesia baztertzea liteke: demagun subjektua VPari itsatsirik sortzen dela eta horrela, nahi dugun egiturazko harremanean egongo da bigarren mailako predikatuarekin, biak menperatzen dituen lehenengo islapen nagusia AspP baita.

(44)



M-komandoaren baldintzari dagokionez, objektuari zuzenduriko bi predikatu-motek (deskribatzaileak eta ondoriozkoak), bete egiten dute baldintza hori objektuari dagokionez (43, b, c) baina ez subjektuari dagokionez. Konfigurazio hau onartuz, espero genuen ondorioa dugu beraz.

Aditz estatiboen subjektuei zuzenduriko bigarren mailako predikatuak baztertzeko bide bat ere badugu: demagun aditz horien subjektuak VPari itsatsirik sortu beharrean [spec, V] gunean edo V' adabegiari itsatsirik sortzen direla. Orduan, ez dute VPari itsatsiriko predikatua m-komandatzeko aukerarik eta ezin bete dezakete inola ere subjektu/predikatu harremanak eskatzen duen elkar m-komandatzearen baldintza. Gogoratu orain arte eskainitako zenbait adibide.

(45) *Anek musika liluraturik atsegin du

Bestetik, Burzio-ri (1981) jarraiki, aditz inakusatiboen subjektuak Varen osagarri modura sortzen direla onartzen badugu, bigarren mailako predikatu horiek, objektuari zuzendurikoak bezala V' adabegiari itsatsirik sortuko dira, eta osagarrian sorturiko subjektu horiekiko egiturazko harremana elkar m-komandatzearen baldintzarako beharrezkoa dena izango da.

(46) a. Haurra pozik itzuli zen udalekutik
b. Ander lasai sartu da dentistaren kontsultara

Azter dezagun orain datibo markadun argumentuen kasua: zergatik dira agramatikalak zeharkako objektuari zuzenduriko predikatuak? Gogoratu (45) zenbakiaz errepikatu ditugun adibide hauek:


(47) a.*Aneri liburua nekatuta erori zaio
b.*Epaileek idazle horri milioi bat sarituta eman diote

Demagun zeharkako objektu hauek [spec, V] gunean edo V'ari itsatsirik sortzen direla. Dena den, D-egituratik S-egiturarako pausoan, gora egin beharko dute dagokien islapen funtzionalean laguntzailearekiko komunztadura gauzatzeko. V' adabegiari itsatsiriko predikatu bat beraz,

argumentu honekin predikazio-harremana ezartzeko egiturazko konfigurazio egokian legoke, eta (47) adibideak gramatikalak izatea espero liteke.

Demagun orduan, *-ri* bukaera, komunztadura gauzatzen deneko islapen funtzionalean ezartzen den kasu-marka izan gabe, VPan bertan ezartzen den posposizioa edo nahi bada berezko kasuaren morfologiazko marka dela. Modu honetara, V' adabegiari itsatsirik edo Varen espezifikatzailean txertaturik izango genukeena barnean argumentua lukeen PP bat litzateke eta ez argumentu bera, konfigurazio horretan argumentuak bigarren mailako predikatua m-komandatzea guztiz ezinezkoa litzatekeelarik.

(48)




PP horren barnean dagoen argumentuak beraz, ezin m-komanda dezake inolako predikaturik eta ezin har dezake parte bigarren mailako predikazioan. Ondorioa, antzekoa da beste edozein posposizio-sintagmatan dagoen elementua bigarren mailako predikatu baten subjektu modura hautatu nahi denean: posposizioaren islapen nagusiak galarazi egiten du elkar m-komandatzearen harremana.

(49) a.*Ander gurasoekin^{i} pozik^{i} bizi da
b.*Opari hau haurrarentzat^{i} sarituta^{i} da

Begira diezaiegun orain eraikuntza kasuatiboei. Hemen errepikatu dugun sarrerako (4) adibidean ikus zitekeenez, eraikuntza kausatiboetako datibo markadun zenbait argumentuk bigarren mailako predikatuak onartzen dituzte.

(4) Irakasleak Mikeli^{i} guztien aurrean bakarrik^{i} datzarazi zion



II. atalean aditzera eman dugunez, eraikuntza kausatiboetan bi VP dagoela defenda daiteke (4a), ondoren txertaturiko VParen burua V matrizeari itsatsi eta predikatu konplexu bat eratzen dutelarik (4b). Argumentuek hartzen dituzten kasuak, predikatu konplexu horrek islaturiko aparailu funtzionalaren araberakoak izaten dira (4b).

Ikusi datibo marka daraman argumentuari zuzenduriko predikatua eta argumentu horren aztarna, VP_2aren barnean daudela eta han duten konfigurazioak elkar m-komandatzearen baldintza betetzen duela. Izan ere VP_2ari soilik begiratuz ezin jakin daiteke *Mikeli bakarrik dantzarazi dio* edo *Mikelek bakarrik dantzatu du* esaldia azaleratuko ote den. Ondorioz, eraikuntza kausatiboetan azaltzen den datibo marka D-egituran ezartzen den

posposizioa izan gabe S-egituran ezartzen den egiturazko kasua dela defendatuko dugu.

Bukatzeko, ondoriozko predikatuak Varen ahizpa modura sortzeak, bi arazo nagusi ekartzen ditu: alde batetik, X'-teoriaren aurka doan adarkaketa hirukoitza behar dugu aditzaren inguruan, eta bestetik, Islapenaren Oinarriaren bortxaketa ere izango genuke bigarren mailako predikatua aditzak ez θ-markatzea lortu nahi badugu, zeren oinarri horren arabera osagarrian sortzen diren elementuak buruak θ-markatzen baititu.

Bestetik, susmagarria da euskaraz, beste hizkuntza askotan eta ingelesaren hainbat dialektotan bezala, objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaile bat eta ondoriozko predikatu bat ezin elkartzea. Gertaera horrek bi predikatuek elkar oztopatzen dutela pentsarazten digu. Ondoriozko predikatuen kokapena orduan, aurrerago berrikusiko dugu predikatu desberdinen aldiberekotasun eta barne-egiturarekin batera.

Laburbilduz, bigarren mailako predikatuak VParen barnean txertaturik daudela frogatu ondoren, subjektu/predikatu harremanak bete behar duen egiturazko baldintza elkar m-komandatzearena dela onartu dugu. Baldintza hori kontutan hartuta subjektuari eta objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak ongi bereizirik gera daitezen, hurrenez hurren VP eta V' adabegiei itsatsirik sortzen direla defendatu dugu. Ondoriozko predikatuen kokagunearen finkapen zehatza aurrerago berraztertzeko utzi dugu, gaiari buruzko lanetan (Rothstein, 1983, Chomsky, 1986, Mc Nulty, 1988) bezala Varen ahizpa modura txertatzen baditugu, adarkaketa bikoitzaren eta Islapenaren Oinarriaren eskakizunak bortxatu behar baititugu.

Dena den, VPari itsatsirik sorturiko predikatuarekin elkar m-komandatzearen baldintza betetzeko, halabeharrezkoa da aditzaren argumentu guztiak VParen barnean sortzea, gero komunztadura gauzatzeko gorago dauden islapen funtzionaletara mugitu beharko badute ere. M-komandoaren baldintza beraz, predikatuaren eta argumentua duen katearen buztanaren artean ezarriko da, buztana baita harreman tematikoen erantzulea.

Euskararen kasuan, subjektuaren VParen barneko sorrera onartu deneko lanetan (Oyharçabal, 1990, Uriagereka, 1991, Odriozola & Zabala, 1993), aditz iragankorren eta inergatiboen subjektuak [spec, V] gunean sortzen direla onartu da. Hala ere, analisi honetan, May-ren (1985) islapen nagusien definizioa onarturik, subjektu egileak behintzat VPari itsatsiriko predikatua m-komandatu ahal izateko berak ere VPari itsatsirik sortu behar duela defendatu dugu.

Ideia horrek, bide batez, aditz estatiboen eta hautemate-aditzen subjektuek bigarren mailako predikatuekin eskaintzen dituzten ondorio ezgramatikalak azalduko lituzke: aditz hauen subjektuak [spec, V] gunean edo V' adabegiari itsatsirik sortuko lirateke eta ez lirateke gai VPari itsatsiriko predikatua m-komandatzeko.

M-komandoaren baldintza horrek, zeharkako objektuen eta beste posposizio-sintagma batzuen bigarren mailako predikatuak hartzeko ezintasuna ere azalduko luke: predikazio-harremanean partea hartu behar duen argumentua, PP islapen nagusiaren barnean dagoenez, ez da gai islapen horretatik kanpo dagoen predikatua m-komandatzeko.

3.4.3.2. Mota bereko predikatuen aldiberekotasunaren ezintasuna

3.4.1. sailean aditzera eman dugunez, ezin elkar daitezke ez subjektuari ez objektuari zuzenduriko bigarren mailako bi predikatu.

(50) a. *Anderrek triste damuturik hitz egin du bere ekintzaren ondorioak ezagutu ondoren
b. *Ainhoak okela gazi gordinik atera digu bere etxean bazkaldu dugun guztietan

Bestetik, objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaile bat eta ondoriozko predikatu bat elkartzea ere ezinezkoa da, esan dugun bezala.


(51) * Jonek koadroa hondaturik okertuta eskegi du

Ingelesaren kasuan ere, bi dialekto bereiz daitezke, ondoriozko predikatuak eta predikatu deskribatzaileak elkartzeko orduan: dialekto batean (52) esaldia onargarria den bitartean, bestean, ez-gramatikala da (Mc Nulty, 1988).

(52) */ O.K. John hammered the metal flat hot

Bigarren mailako predikatuak adjunktuak badira, posible izan beharko luke mota bereko predikatu bat baino gehiago azaltzeak. Izan ere, aurretik esan dugunez, Irizpide Tematikoak ez du mugatzen argumentu-katea baten buztanak har ditzakeen paper tematikoen kopurua ('Predikazioaren Teoriaren' defendatzaileen arabera). Mota bereko predikatu bat baino gehiago egoteak ekarriko lukeen ondorio bakarra, predikatu horien subjektuak bi paper tematiko baino gehiago hartzea litzateke.

(53)



Mc Nulty-k (1988) ondoko baldintza hau proposatu du horrelako bi predikatu batera agertzeko ezintasunaren azalpen modura.

(54) XPen paper tematikoen ezarketarako hurbiltasunaren eskakizuna (LCXP)[46]

---

[46] Ingelesaz, 'Locality Condition on XP Theta Role Assignment' (LCXP) izenaz adierazi du baldintza hori Mc Nulty-k (1988).

A-k B-ri θ-paper bat ezarriko dio bbaldin, A-k eta B-k elkar m-komandatzen badute eta ez badago A-rekin batera m-komandoaren baldintza betetzen duen Z-rik; Z= XP θ-markatzailea

Ikusi Mc Nulty-ren baldintzaren arabera (53) adierazpena bazterturik geratuko litzatekeela, zeren subjektuari zuzenduriko bi predikatuek elkar m-komandatzen baitute eta beraz ezin baitute paper tematikorik deskargatu.

Hala ere, baldintza hori onartuz, VP berak eta subjektuari zuzenduriko predikatuek ere, elkar oztopatu beharko lukete: ikusi (53) adierazpenean bi predikatuak islapen nagusi berberek menperatzen dituztela, zeren APa VParen segmentu batek soilik menperatzen baitu. Ondorio hori desagertarazteko, m-komandoaren definizioa zertxobait aldatu behar da, beti Mc Nulty-ri jarraiki:

(55) M-komandoa

A-k B m-komandatzen du bbaldin A-ren inolako segmentuk B menperatzen ez badu, B-ren inolako segmentuk A menperatzen ez badu eta A menperatzen duen islapen nagusi orok B ere menperatzen badu.(Chomsky, 1986)

M-komandoaren azken definizio hau onarturik, VPak eta berari itsatsiriko predikatuak ez dute elkar m-komandatzen, zeren VParen segmentu batek bigarren mailako predikatua menperatzen baitu. Bigarren mailako predikatuak VPtik kanpo baleude, VPa m-komandatzeko arriskua legoke (lehenengo islapen funtzionalaren barnean baleude behintzat). Beraz, aurreko sailetan aurkeztutako frogen alde lihoake (54) baldintza.

Ikusi edozein modutan, m-komandoaren definizio horrek beste arazo bat ekartzen diola geure analisiari: (53) adierazpenean subjektuaren aztarnak eta VPak ez lukete elkar m-komandatuko, aztarna VParen segmentu batek menperatzen baitu.

Hala ere, ez dirudi predikatuek beren argumentuei paper tematikoak ezartzeko m-komandoaren baldintza bete behar dutenik: izan ere, predikatu-buruek beren argumentuei paper tematikoak beren islapen nagusiaren barnean ezartzen dietela onar daiteke (lehenengo mailako predikatuetarako egin dugun bezala). VP islapen nagusiak subjektua (zeharka) θ-markatzea subjektu horretarako VPtik kanpoko sorrera onartzen denean baizik ez da beharrezkoa.

Ondorioz, m-komandoaren baldintza predikatu batek beste predikatu baten edozein argumenturi paper tematikoa ezarri ahal izateko bete behar den baldintza dela esan dezakegu. Ikusi azpikategorizaturiko izenki-predikatuen kasuan ere predikatu-buruak bere argumentuei paper tematikoa bere islapen nagusiaren barnean ezartzen diela. Predikazioaren baldintza, beraz, beste modu honetara idaz liteke:

(56) Predikazioaren baldintza

(i) Edozein predikatuk bere argumentuei paper tematikoa ezarri ahal izateko, argumentu horiek predikatu horren islapen nagusiaren barnean egon behar dute

(ii) Edozein predikatuk bere paper tematikoa beste predikatu baten argumentu baten gainean deskargatu ahal izateko, argumentu horrek eta bigarren mailako predikatu horrek elkar m-komandatu behar dute

Objektuari zuzenduriko bi predikatu deskribatzaile dugunean, subjektuari zuzendurikoen kasu berean egongo gara: konbinaketa hori ezinezkoa da, bigarren mailako predikatu biek elkar m-komandatzen dutenez ez baitute beraien paper tematikoak deskargatzerik. Beraz, (54) baldintzak (50a) adibidearen gramatikaltasun-eza ezezik, (50b) adibidearena ere azaltzen du.

(54) baldintzaren arabera, objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileen eta ondoriozko predikatuen konbinaketak ere baztertzekoa izan beharko luke. Lehenago esan dugunez, euskaraz, benetan konbinaketa horiek baztertzekoak badira ere (51), ingelesaren zenbait dialektotan onargarriak dira (52). Konbinaketa hori onar dezaketen dialekto horietan, aditzak eta

ondoriozko predikatuak nolabaiteko aditz-konplexua (*hammer-flat*) eratzen dutela defendatu du Mc Nulty-k. Horrenbestez, konbinaketa horiek ezin har daitezke LCXP baldintzaren aurkako argudiotzat. Izan ere, deskribatzailea/ondoriozkoa konbinaketa onartzen duten dialektoetan ere, konbinaketa guztiak ez dira onargarriak, aditz-konplexuak era ditzaketen ondoriozko predikatuek baizik onartzen ez dituztelarik.


(57) a.*I boilek the lobster red alive
b. I boiled the lobster red
c. I boiled the lobster alive

Bukatzeko, VPek bigarren mailako predikatu modura jokatzeko ezintasuna ere, ezaldu behar da, LCXP baldintzaren arabera (58) bezalako adibideak gramatikalak bailirateke: *jan* VPa VPari itsasten badiogu, bi VP horiek ez baitute elkar m-komandatzen (55) m-komandoaren definizioaren arabera behintzat.[47]

(58) *Jonek jan edango du

---

[47] (58') adierazpenaren aparailu funtzionala erraztearren IP isladapen funtzional soila erabili dugu, beraren balizko zatiak (TP, MP, AuxP) zehaztu gabe.



Ezintasun hau, Zagona (1982) eta Fabb-i (1984) jarraiki azaldu du Mc Nulty-k: aditzek kasua behar dute beraien paper tematikoak esleitu ahal izateko, kasu hori Infl burutik (berarekiko ukipenean badaude) edo zenbait atzizkitatik (ingelesaz, *-ing, -en*) har dezakete. Euskararen kasuan, *-tze* , *-tuta, -turik* lirateke atzizki horiek.

(59) a. Mikelek telebista ikusten jaten du
b. Mikelek aspertuta hitz egin du
c. Ander nekaturik heldu da

Beraz, aurretik aipatutako egileen iritziz, VPen banaketa, kasuaren Teoriaren araberakoa litzateke neurri handian. Baina, proposamen horrek, *ad hoc* egindakoa dirudi neurri handian, kasuaren beharra predikatuak eta argumentuak bereizteko irizpide modura egokiagoa dela dirudielarik.

Interesgarriagoa liteke Baker-en (1988) lanetik aurrera arrakasta handia izan duen ikuspegia, alegia, morfologiak sintaxi-prozesu askoren deskateatzaile eta eragile dela defendatzen duen ikuspegia: Vak zenbait atzizkiri lotu behar

zaizkion morfema irekiak dira, eta horrek ager daitezkeen konfigurazioen kopurua murrizten du.[48]

Aditzaren nolabaiteko inflexioaren eskakizuna bestetik, Vak berak gabe beraren argumentuek kasua behar dutela defendatuz ere azal daiteke, zeren argumentuek kasua behar baitute paper tematikoaren ezarketarako ikusgarri gertatu ahal izateko, eta kasu hori, askotan, Infl kategorian bertan hartu behar baitute.

Beren argumentu guztiei kasua esleitzeko gai den IP oso bat islatzen duten VPak, ezin txerta daitezke bigarren mailako predikatu modura, funtzio horrekin azaltzeko gutxienez argumentu baten kasuaren gabezia eduki behar baita. *-tzen, -tuta* edo *-turik* atzizkiak daramatzaten VPek berriz, ez dute I(nfl) osoa islatzen, eta beraz, bigarren mailako predikatu modura azal daitezke.

V kategoriako hiztegi-sarrerak gai izaten dira beren argumentuei kasua eslei diezaiekeen aparailu funtzionala islatzeko. Ondorioz, gai dira lehenengo mailako predikatuak eratzeko. Izenondo eta izen gehienak berriz, ez dira gai horrelako aparailu funtzionala islatzeko, eta beraz, nolabaiteko Varen beharra izaten dute: lehenengo mailako predikatuak eratzeko, halabeharrez txertatu

---

[48] Horren adibiderik garbiena adizki sintetikoak dira, beraietan aditz-erroa flexio-marka guztiekin aglutinaturik azaltzen baita. Adizki perifrastikoetan ere, gutxienez aspektu-morfemei loturik azaltzen da aditz-erroa. Itxuraz horren salbuespena izan litezkeen adizki modalak ere (*apur daiteke*), gauzaketa fonetikorik ez duten -Ø atzizki bat daramatela ulertu behar da , AspP kategoriarik islatzen ez duten eta INFLen gora egiten duten adizki sintetikoekiko (*doake*) erkaketatik ondorioztatzen denez (Ikus Laka, 1991).

Bukatzeko, badaude itxuraz behintzat aspektu-morfemarik hartzen ez duten adizkiak (*falta da, kosta da, bizi gara, merezi du,...*): hauetan hiztegi-sarrera beraren kategoria ere zalantzatan jar daiteke (2.2.2.3. atalean defendatu dugunaren arabera, laguntzailea islatzeko aukera ez dago murrizturik V kategoriako hiztegi-sarreretara); bestalde, laguntzailea behintzat behar dute hiztegi-sarrera hauek ere, laguntzaile horrekin aglutinatzen ez badira ere.

behar dute bere argumentuak baino argumentu gehiago kasuaz markatzeko gaitasuna duen V baten osagarri modura. Bestela, bigarren mailako predikatu modura itsasten dira.

Aditzek, atzizkiren bati lotu behar zaizkion morfema irekiak direnez, bigarren mailako predikatuak eratzen dituztenean, horrelako atzizki bat (*-tzen, -tuta, -turik*) behar dute.

3.4.3.3. Bigarren mailako predikatuen barne-egitura

Egile batzuek (Chomsky, 1981; Stowell, 1981, 1983; Hoekstra, 1988) bigarren mailako predikatuetarako subjektu modura PRO kategoria isila duen perpaus txiki bat proposatu dute.

(60) a.Jon [$_{SC}$PRO [$_{AP}$ pozik]] itzuli da udalekuetatik
b. Jonek okela [$_{SC}$ PRO [$_{AP}$ gordinik]] jaten du beti

Analisi honetan, perpaus matrizearen subjektuak edo objektuak (*Jon, okela*) kontrolatzen dute perpaus txikiaren PRO subjektua, azken hori itsatsiriko APak θ-markatzen duelarik. 3.2. sailean defendatu dugunez, SC hori nolabaiteko buru funtzionalaren islapen nagusia litzateke (FP).

Honelako adierazpen batek perpausaren argumentu bakoitzak paper tematiko bakarra hartzea baimenduko luke. Ziurtatu behar dena, PRO hori gobernatu gabea izatea da, bestela egitura hori baztertzekoa izango bailitzateke, eta 'Predikazioaren teoriaren' defendatzaileek diotenez, ez PROrik ez eta SCik ez dagoela onartu beharko da bigarren mailako predikazioaren kasurako behintzat (Williams, 1980, 1983; Rothstein, 1983; McNulty, 1988).

PRO hori gobernatua ala gobernatugabea izatea, zenbait faktoreren menpe egongo da: alde batetik SC horren estatusa (IP, CP, AP,...), bestetik SCa txertaturik dagoeneko tokia, eta bukatzeko noski, erabiliko den gobernuaren definizioa.

Hasteko, PRO hori SCaren barnean gobernaturik ez dagoela ziurtatu behar dugu. Horretarako hiru konfigurazio posible aztertuko dugu: batean PRO AP islapen nagusiaren barnean legoke (61a), bigarrenean, AP islapen nagusiari itsatsirik (61b), eta hirugarrenean, APtik kanpo islapen funtzional baten espezifikatzailean (61c).

(61) a. [$_{AP}$ PRO [$_{A'}$[A]]]
b. [$_{AP}$ PRO [$_{AP}$[$_{A'}$[A]]]
c. [$_{FP}$ PRO [$_{F'}$ [$_{AP}$[$_{A'}$[A]] F]

Chomsky-ren (1986) gobernuaren definizioaren arabera (62), SCa AP mailakoa bada (61a) eta subjektua [spec, A] gunean badago (Stowell-en (1983) subjektuaren kategorien arteko definizioaren arabera bezala), PRO horrek halabeharrez egon behar luke gobernaturik, zeren A buruak m-komandatzen baitu eta beraien artean ez baitago hesia izan daitekeen inolako islapen nagusirik. Adierazpen horretan beraz, PRO ezinezkoa da zalantzarik gabe.

(62) Gobernua (Chomsky, 1986)
A-k B gobernatzen du bbaldin A-k B m-komandatzen badu eta ez dago A eskluitze duen G-rik, G Brako hesia delarik.
Esklusioa
A-k B eskluditzen du B menperatzen duen A-ren segmenturik ez badago.
Menperakuntza
B-k A menperatzen du bbaldin Bren segmentu orok A menperatzen badu.

(61b) adierazpenari dagokionez (PRO APari itsatsirik), PRO Aren segmentu baten barnean dagoenez, ezin esan daiteke APak PRO hori eskluditzen duenik eta beraz, gobernaturik egongo litzateke konfigurazio horretan ere.

Ikus dezagun bukatzeko, (61c) adierazpena: adierazpen horretan, bistan da AP islapen nagusiak PRO eskluditzen duela ez baitago PRO hori menperatzen duen AParen segmenturik. A-k ez du PRO m-komandatzen eta beraz, ezin goberna dezake inola ere.

Ondorioz, (61c) konfigurazioan, PRO ez dago gobernaturik bere islapenaren barnean. Bigarren mailako predikatuetarako PRO subjektuaren teoria mantentzeko, FP mailako perpaus txiki bat beharko genuke.

Ikus dezagun orain, konfigurazio horretan PRO hori kanpotik gobernatugabea ote den. 3.4.2 atalean egin dugun analisiaren arabera, bigarren mailako predikatuak VParen barnean itsasten direla defenda daiteke. Gainera, subjektuari zuzenduriko predikatuak VPari itsatsirik, objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak V' adabegiari itsatsirik eta ondoriozko predikatuak Varen osagarri modura txertatzen direla defendatu dugu, azken horien txertaketa-maila zalantzatan jarri badugu ere.

Arazoaren gakoa beraz, konfigurazio horretan perpaus txikiaren islapena (FP) kanpoko V edo Infl buruen gobernurako hesia ote den finkatzea da. Horrenbestez, begira diezaiogun, hesiaren definizioari.

(63) Hesia (Chomsky, 1986)
A B-rako hesia da bbaldin
(i) A-k G zuzenean menperatzen badu , G Brako BC bat izanik
edo
(ii) A B-rako BC bat bada, A≠IP
Blokeo-kategoria (BC)
A B-rako blokeo-kategoria (BC) da A L-markaturik ez badago eta A-k B menperatzen badu
L-markaketa
A-k θ-gobernatzen duen B kategoria L-markatzen du B-ren espezifikatzaile eta bururarekin batera, espezifikatzaile-buru komunztadura dagoelarik
Θ-gobernua
A-k B θ-gobernatzen du bbaldin, A=X^0 eta A-k B θ-markatzen badu, eta A eta B ahizpak badira

Ikusi hasteko, VPari edo V' adabegiari itsatsiriko FPa beti izaten dela blokeo-kategoria menperatzen duen [spec, F] gunerako, zeren bere ahizpa den kategoria (VP edo V') ez baita burua eta beraz ezin baitu L-markatu. Bestetik, blokeo-kategoria oro, hesia da, IP salbuespen bakarra delarik. Dena den, FP isladapen funtzionala edozein kategoriatakoa izan liteke

ohituraz IP izenaz ezagun dena baino lehenago, bere espezifikatzailean kokaturiko elementua kasuaz markatzen ez baitu.[49]

Horrela ba, predikatu itsatsiei (61c) adierazpenaren antzeko analisi bat eskaintzen badiegu, posible da PRO subjektua dutela defendatzea, PRO hori konfigurazio horretan gobernatugabea baita, bai kanpotik eta bai barnetik ere.[50]

Zer gertatuko litzateke bigarren mailako zenbait predikaturi, ondoriozko predikatuei adibidez, Varen osagarri modurako analisia esleituko bagenie. Ikusi kasu horretan, FP predikatua V buru lexikoaren ahizpa izango litzatekeela, eta beraz, L-markaturik egongo litzatekeela. Horrela ez litzateke ez BC ez hesia eta [spec, F] gunea gobernaturik egongo litzateke.

Hau geure iritziz (61c) analisiaren aurkako froga bat izan beharrean, ondoriozko predikatuen Varen osagarri modurako analisiaren aurka lihoake. Gogoratu, 3.4.3.1. sailean aditzera eman dugun bezala ondoriozko predikatuetarako osagarri-izaera onartzeak nahi ez ditugun bi ondorio ekartzen dituela: alde batetik, V' adabegirako adarkaketa hirukoitza onartu behar litzateke, eta bestetik, predikatu horiek θ-markaturik egongo lirateke predikatuen definizio orokorraren aurka joango liratekeelarik.

Gainera, euskararen kasuan objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak eta ondoriozko predikatuak esaldi berean sekulan ere azaltzen ez direnez, ez dugu inolako arazorik biak V' mailan txertatzen direla onartzeko: bata edo bestea hautatuta suertatzen diren irakurketa desberdinen eragileak, aditzaren eta predikatu beraren semantika-mailako ezaugarriak lirateke neurri handiagoan kokapen bera baino. Gogoratu ingelesez ere

---

[49] Hurrengo atalean predikatu horren islapena Asp dela defendatuko dugu bertan ager daitezkeen predikatuak egoera-mailakoak edo predikatu perfektiboak baitira, *egon* aditzarekin agertzen direnak bezala.

[50] Aurkako ondoriora heldu den analisi bat ikusi nahi izatekotan, ikus bedi McNulty (1988).

ondoriozkoa/ deskribatzailea konbinaketak V-A sekuentzia hiztegitik bertatik datorren aditz-konplexutzat har daitekeenean baizik suertatzen ez direla. Ondorioz, lan honetan, objektuari zuzenduriko ondoriozko predikatuak ere V' adabegiari itsasten zaizkiola onartuko dugu.

Bukatzeko, ikusi analisi honek espero daitekeen ondorioa ematen duela azpikategorizaturiko perpaus txikien kasuan ere: perpaus txiki horiek Varen osagarri modura txertatzen badira, L-markaturik egoten dira eta ez dira beren barneko elementuen gobernurako hesiak. Horrek perpaus hauen subjektuaren kasu-ezarketa berezia baimenduko luke sistema hori onartzen duten hizkuntzetan, eta horrelakorik onartzen ez duten hizkuntzetan (euskararen kasuan adibidez), kasuaren bila gora joan beharko luketen argumentuen aztarnak egokiro gobernaturik egotea ere baimenduko luke.

Ikusi analisi honek beste abantaila bat ere baduela, m-komandoa paper tematikoen ezarketarako behar litzatekeen baldintza izan gabe Predikatu adjunktuaren PRO subjektuaren kontrolerako baldintza litzateke. Horrela azalduko litzateke, subjektu gauzatuak edo aztarnak dituzten XP predikatuek (lehen mailako izenki- edo adizki-predikatuek) beren subjektuari paper tematikoa ezartzeko m-komandoaren baldintza bete behar ez izatea:

(i) X predikatu-buruek (bai eta bigarren mailako predikatuak eratzen dituztenek ere) beren argumentuei beti ezartzen diete paper tematikoa beren islapen nagusiaren barnean (islapen nagusi horiek May-ren teorian bezala, islapenaren segmentu guztiak inkluditzen dituzte).
(ii) Bigarren mailako predikatuen kasuan, kasuaren bila gora doan θ-markaturiko subjektua ezin atera daiteke FP islapenetik hori hesia baita eta utziriko aztarna gobernatu gabe geratuko bailitzateke. Kasu-ezarketa berezia duten hizkuntzetan ere, perpaus matrizearen aditzak ezin zeharka lezake hesi hori eta beraz, ezin gerta liteke kasu-ezarketa berezia. Ondorioz, predikatu adjunktuetatik bazterturik daude NP gauzatuak edo aztarnak, beraien subjektua gobernatu gabeko PRO kategoriakoa izan behar duelarik.
(iii) VP baten subjektu edo objektuaren eta beraiei dagokien predikatu adjunktuen artean dagoen m-komandoaren eskakizuna, PRO elementuaren kontrolerako behar da eta ez zehazki XP predikatu adjunktuak paper tematikoa deskargatu ahal izateko.

Laburbilduz, bigarren mailako predikatuetarako, lehenengo mailako predikatuetarako bezala, buru modura buru funtzional bat duen perpaus-egitura bat proposatu dugu, perpaus txiki hori XP predikatuaren islapen hedatua delarik. Egitura horrek predikatu adjunktuen subjektua PRO kategoriakoa izatea baimentzen du. Eta horrek lehenengo mailako eta bigarren mailako predikatuen kasuan paper tematikoen ezarketa mekanismo beraren arabera gertatzea ere baimentzen du.

Ikuspegi honek, bestetik, ondoriozko predikatuak objektuari zuzenduriko predikatu deskribatzaileak bezala V' adabegiari itsastea eskatzen du, bataren eta bestearen irakurketa desberdinak aditz matizearen eta predikatu beraren semantika-mailako ezaugarriei zor zaizkielarik.

Bigarren mailako predikatuak eta beraren subjektuaren erreferentzia zehazten duen aditz matrizearen argumentuak elkar m-komandatzearen baldintza bete behar izatea, predikatu hauen PRO subjektuaren kontrolerako eskakizuna da. Ikus bedi analisi honek abantaila handiak dituela:

(i) θ-Irizpidea bere formulaziorik murriztaileenean mantentzea baimentzen digu: argumentu-katea bakoitzak θ-paper bakar bat har dezake.
(ii) Mota bereko bi predikaturen aldiberekotasuna murrizteko bide bat ere badugu, Mc Nulty-ren LCXP baldintzaren beharrik gabe: aditz baten argumentu bakoitzak ezin kontrola dezake PRO bat baino gehiago.
(iii) Esana dugunez, analisi honek, predikazio-harreman guztietarako, X'-teoriaren, Isladapenaren Oinarriaren eta θ-Irizpidearen eskakizunak bortxatzen ez dituen analisi analogoa egitea baimentzen digu.

3.4.4. Laburbilpena

Sail honetan, bigarren mailako predikatuek, lehenengo mailako predikatuek bezala, beraien argumentu guztiak XP islapen nagusiaren barnean islatzen dituztela ikusi dugu.

Predikatu hauen barne-egiturari dagokionez, lehenengo mailako predikatuetarako bezala, barnean subjektua eta predikatua bildurik dituen FP islapen funtzionalen batean (perpaus txiki batean) oinarrituta dagoela defendatu dugu.

Predikatu adjunktuen subjektua, gobernatu gabe dagoenez, ezin izan daiteke NP baten aztarna (ez eta NP gauzatu bat ere); horrela, PRO kategoria isilekoa dela defendatu dugu. PRO horrek, gainera, kontrolaturik egon behar du, kontrol horretarako bete behar den baldintza, FP adjunktuak eta aditz matrizearen argumentu batek elkar m-komandatzea delarik.

Geure analisiak, abantaila nabariak ditu: alde batetik, θ-Irizpidea bere formulaziorik murriztaileenean mantentzea baimendu digu, alegia argumentu-katea bakoitzak θ-paper bakar bat har dezakeela onartzea. Bestetik, mota guztietako predikazio-harremanetarako analisi analogoa egitea ere lortu dugu. Eta bukatzeko, mota bereko bi predikaturen aldiberekotasunaren ezintasuna kontrolaren arabera azaltzea lortu dugu.

M-komandoaren baldintzatik, edozein PPren barruan dauden argumentuei (zeharkako osagarria, edo destinatiboa edo soziatiboa bezalako posposizioak daramatzaten argumentuak adibidez) zuzenduriko bigarren mailako predikatuen ezintasuna erator daiteke.

Predikatu adjunktu hauen kokapenari dagokionez, VParen barne-txertaketa eta eskuinaldeko txertaketa frogatutzat utzi ditugu: subjektu egileari zuzenduriko predikatuak, VPari itsasten zaizkio, eta objektuari (edo aditz inakusatiboen subjektuari) zuzendurikoak, V' adabegiari (bai predikatu

deskribatzaileak eta bai ondoriozkoak ere). Horrela, bigarren mailako predikatuen banaketa eta murriztapenetan, Varen argumentu guztien VParen barne-sorreraren froga bat aurkitu dugu.

Bestetik, subjektuari zuzenduriko predikatuen banaketa eta murriztapenetatik, predikatu hauek onar ditzaketen subjektuek (egilearen papera hartzen duten aditz iragankor eta inergatiboen subjektuek eta datibo markadun eraikuntza kausatiboen subjektuek) VPari ezkerraldean itsatsi behar zaizkiola defendatu dugu. Horrelako predikatuak onartzen ez dituzten aditz estatiboen subjektuak Varen espezifikatzaile modura edo V' adabegiari itsatsirik sortzen direla ere proposatu dugu.

3.5. ERANSKINAK

3.5.1. Kanpo- eta barne-argumentuak

Atal honetan zehar defendatu ditugun analisiek badituzte zenbait ondorio euskararen gramatika orokorrerako, eta zehazkiago perpausaren egitura eta kasu-markaketaren sistema finkatzeko orduan.

Horrela, euskal predikazioa aztertuz, zenbait froga aurkitu dugu argumentu guztiak VParen barnean (edo orokorki edozein predikaturen XP islapen nagusiaren barnean) sortzen direlako hipotesiaren alde:

(i) Aux buru funtzionalaren osagarri modura txertatzen den predikatuaren egituraren eta hautatuko den laguntzailearen artean, harreman zuzena dago.
(ii) V baten argumentuen eta dagokien bigarren mailako predikatuen artean beharrezkoa den egiturazko harremana egon dadin, argumentu horiek guztiek VParen barnean sortu behar dute.

Hortaz, badirudi GB esparruaren barnean berebiziko garrantzia izan duen barne- eta kanpo-argumentuen arteko bereizketa horren garbia ez dela. Bereizketa hau Williams-ek (1981, 1983) egin zuen lehendabiziz: XP predikatu baten subjektua Xen islapen nagusitik kanpo sortzen den Xen argumentu bakarra da. Ondorioz, Xen gainerako argumentuak, barne-argumentuak lirateke. Williams-en kanpo-argumentuaren kontzeptu hau egile askok erabili du beranduago (Marantz, 1984; Zubizarreta, 1985; Levin & Rapaport, 1986).

Teoria horietan barne-argumentuak predikatu bakoitzaren azpikategorizatzeari dagozkionak dira eta beraz, beti azaldu behar dute

sintaxian. Kanpo-argumentuak berriz, predikazio-erregelen araberakoak dira, eta morfologiazko zenbait prozesu direla eta, lexikoan bertan aldaketak jaso eta sintaxian islatu gabe gera daitezke: adibidez, morfologia pasiboak kanpo-argumentuaren paper tematikoa xurgatzen bide du eta barne-argumentuak, subjektu modura gauzatu behar du (Hoekstra, 1986, Jaegli, 1986, Roberts, 1985).

Bistan da, guk hirugarren atal honetan defendatu dugun argumentu guztien XParen barneko sorreraren hipotesiaren arabera (Koopman & Sportiche, 1988), kanpo-argumentuaren definizio horrek zentzu handirik ez duela, D-egituran behintzat argumentu guztiak baileudeke XP islapen nagusiaren barnean.

Sintaxian oinarrituriko argumentuen sailkapen honen aurka, Jackendoff-ek (1987), kontzeptu-mailatik argumentuak egitura baten arabera antolaturik daudela defendatu du. Antzeko ikuspegiak defendatu dira baita Grimshaw & Mester (1988) eta Grimshaw-en (1990) lanetan ere. Teoria hauetan kanpo-argumentua beste argumentuekiko harremanen arabera definitzen da, eta beraz A-egituraren harremanetan oinarriturik dago X'-teoriaren araberako harremanetan baino areago.

Horrela, azalduta geratuko litzateke predikatu bakoitzak kanpo-argumentu bakarra izateko ahalmena: maila tematikoan argumentuen mailakatze bat dago, eta beraz argumentu guztien artean kanpokoena argumentu bakar batek izan behar du halabeharrez, subjektu modura argumentu hori gauzatzen delarik.

Baina batzuetan, sintaxian subjektu modura gauzatzen den argumentua ez da kanpokoena maila tematikoan: hori da adibidez *frighten* bezalako aditz psikologikoen kasuan gertatzen dena (Belleti & Rizzi, 1988, Grimshaw, 1990): 'tema' argumentua beti maila tematiko horretan azkena izatea espero badaiteke ere, (esperimentatzaile, tema) erako argumentu-egitura duten aditz hauetan, kanpo-argumenturik ez dagoela dirudi eta tema gauzatzen da subjektu modura. Guk geuk, bigarren atalaren 2.2.2.3.1. azpisailean euskal predikatu psikologiko hauek aztertu ditugu (1) adibideko perpausean

subjektu modura gauzatzen dena tema izan gabe kausa dela defendatu dugu Pesetsky-ri (1987) jarraiki.

(1) Ekaitzak haurra beldurtu du

Bigarren mailako predikazioaren arloan ere ikusi dugunez, edozein sujektu ez da gai horrelako predikatu bat zilegiztatzeko: adibidez, zenbait aditz psikologikoren eta ezagumenduzko zenbait aditzen subjektuak ez dira gai honelako predikazio-harremanetan parte hartzeko. Defendatu dugun teoriaren arabera, VPari itsatsiriko subjektuak baizik ezin izan daitezke predikatu horien subjektuak.

Eraikuntza pasiboetan ere, antzeko murriztapenak ikus daitezke: morfologia pasiboak aditz iragankorren subjektuaren paper tematikoa xurgatzen duela, edo argumentu hori ezabatzen duela onarturik ere, morfologia-prozesu hori pairatzen duen argumentua ezin izan daiteke edozein subjektu.

(2) a. Liburua idatzia da
b.*Liburua edukia da

Ondorioz, prozesu horietan guztietan parte hartzen duenak ez dirudi ez subjektua (Williams-en ikuspegitik kanpo-argumentuarekin bat datorrena) ez eta mailakatze tematikoan kanpokoena den argumentua ere denik.

Grimshaw-k (1990), 'kanpo-argumentu' terminoa erabili du prozesu hauetan parte hartzen duen argumentua adierazteko, baina 'kanpo-argumentuaren' kontzeptu hori Argumentu-egiturari eta ez D-egiturari dagokiola azpimarratuz. Egile honen iritziz, kanpo-argumentuak definitzeko bi esparru hartu behar dira kontutan: alde batetik maila tematikoa eta bestetik, aspektu-maila. Kanpo-argumentua bi maila horietan kanpokoena den argumentua izango da beraz. Horrelaxe azal daiteke, batzuetan maila

tematikoan kanpokoena den argumentua A-egituran kanpo-argumentua ez izatea: aspektu-mailan ez da argumenturik kanpokoena.[51]

Kontzeptu-mailako definizio honen bidez bereiziriko kanpo-argumentuak lirateke beraz, bigarren mailako predikazioan parte har dezaketenak. Dena den, lan honetan, argumentu horiek bete behar luketen egiturazko baldintza bat ere eman dugu aditzera: VPari itsatsiriko predikatuak eta kanpo-argumentu horiek elkar m-komandatu behar dute, horretarako kanpo-argumentuek ere VPari itsatsita egon behar dutelarik.

Horretatik abiatuta, ondoko baldintza hau proposa dezakegu:

(3) Kanpo-argumentuetarako egiturazko baldintza
Kanpo-argumentuak, hau da, maila tematikoan eta aspektu-mailan kanpokoenak diren argumentuak, D-egituran VPari itsatsirik azaltzen dira.

Ikusi May-ren (1985) islapen nagusiaren definizioaren arabera horrek VP islapen nagusiak subjektua ez menperatzea (islapen horren segmentu batek baizik ez du menperatzen) baina predikatu horren islapen nagusiaren barnean egotea lortzen dela, modu horretara kanpo-argumentuek azaltzen dituzten sintaxi-mailako berezitasunak azal daitezkeelarik: hasteko horrelako kanpo-argumentuek, beti hartzen dute subjektuaren funtzioa, eta euskararen

---

51 Aspektu-mailaz ari denean, Grimshaw 'Gertaera-egituraz' ari da: gertaera-egitura horretan, bi azpigertaera bereiz daiteke, alde batetik [iharduera] bati dagokiona eta bestetik, [egoera/egoera-aldaketa] bati dagokiona. Aditz batzuen gertaera-egitura horrelako bi azpigertaerez osoturik dago eta beste batzuena horietariko azpigertaera bat baino ez du. Aspektu-mailan argumenturik kanpokoena denak, lehenengo azpigertaeran hartzen du parte parte. Horrela, zenbait aditz psikologikoren esperimentatzailea, maila tematikoan argumenturik kanpokoena izanik ere, aspektu-mailan ez da argumenturik kanpokoena, ez baitu lehenengo azpigertaeran parte hartzen, eta beraz, ezin har baitaiteke kanpo-argumentutzat.

kasuan, beti hartzen dute ergatibo kasua;[52] bigarrenik, elkar m-komandatzearen egiturazko baldintza eskatzen duten bigarren mailako predikatu/subjektu (edo guk defendatu dugunaren arabera, bigarren mailako predikatuaren PRO subjektuaren kontrolatzaile izateko) harremanean parte har dezaketenak dira, eta hirugarrenik, pasibizazioa bezalako prozesuetan kanpo-argumentua ezabatzen bada, soilik horrelako argumentua duten aditzetan gertatuko da ezabaketa hori. Bukatzeko, argumentu-gune hauek dira (ezabatzen direnean) Argumentu-adjunktuak (A-adjunktuak) zilegiztatzeko ahalmena dutenak.[53]

---

[52] Horrek ez du esan nahi bestelako gune batzuetan sorturiko argumentuek ergatibo kasua ezin har dezaketenik. Adibidez, *irudi(tu)* aditzaren osagarria den Perpaus Txikiaren subjektuak gora egiten duela eta aditz matrizeak islaturiko inflexioan ergatiboa hartzen duela ikusi dugu.

[53] Argumentu-adjunktuen (A-adjunktuen) definizioa Grimshaw-i (1988, 1990) zor zaio, nominalen subjektu genitiboetarako eta pasiboen *by*-sintagmetarako:

(1) Aukerakoak izaten dira, eta horregatik, adjunktuak direla esan daiteke

(2) Horrelako A-adjunktuek, aditzaren argumentu-egituran ezabatutako argumentu-gune baten zilegiztapena behar dute

3.5.2. Partizipioa+-*a(k)* / partizipioa+-*rik* / -*ta* eta kanpo-argumentua

Euskaraz, perfektibotzat har daitekeen edozein VPk har ditzake partizipioari loturiko -*a(k)* edo -*rik* /-*ta* markak. Partizipio hauek posible dira aditz iragankorrekin (4a, 5a), eta baita aditz inergatibo (4b, 5b) eta inakusatiboekin (4c, 5c) ere.

(4) a. Tarta egina da
b. Gu bazkalduak gara
c. Zuek Parisen egonak zarete

(5) a. Tarta eginda dago
b. Gu bazkalduta gaude
c. Zuek Parisen egonda zaudete

Bistan da kanpo-argumentuaren ezabaketaz, aditz iragankorren kasuan baizik ezin hitz egin daitekeela. Hala ere, azpimarratu beharreko gertaera bat dugu: -*a(k)* bukaera daramaten partizipioen kasuan, posible da argumentu egilea gauzatzea ere, -*rik* / -*ta* bukaera dutenekin berriz, ez da onargarria, argumentu egile hori.

(6) a. Tarta hau nik egina da
b. *Tarta hau nik eginda dago

Ondorioz, partizipioari loturiko atzizkiak badu zerikusirik argumentu egilea zilegiztatzeko orduan, baina atzizki horrek ezezik aditzaren A-egiturak ere zerikusirik duela ikusi dugu: kanpo-argumentutzat har daitekeen argumentu bat duten aditz iragankorrek baizik ez dute onartzen argumentu hori komunztaduradun partizipioarekin batera.

(7) a.*Tarta hau nik maitatua da
b.*Tarta hau nik edukia da

Argumentu bakarreko aditza dugunean, nahiz eta argumentu hori kanpo-argumentutzat hartu behar (*bazkaldu* aditzaren kasuan esate baterako), ezin ezaba daiteke, predikatua inolako argumenturik gabe geratuko bailitzateke. Horretaz gain, argumentuak absolutiboa hartu behar du halabeharrez, eta inoiz ez aditz inergatiboen subjektuaren bereizgarria den ergatibo kasua. Ez eta komunztaduradun eraikuntzetan ere. Kanpo-argumentua ezabatu beharrean, barne-argumentu bihurtzen dela esan daiteke kasu hauetan (9).

(8) a. Tarta hauek nik eginak dira
b. Nik tarta hauek eginak ditut
c. Nik tarta hauek egin ditut

(9) a. Ni bazkaldua naiz
b.*Nik bazkaldua naiz
c.*Nik bazkaldua dut
d. Nik bazkaldu dut

Partizipio+atzizkia morfologiaren ezaugarri nagusia 'burutzapenak' edo 'iharduerak' 'egoeretara' aldatzea da, hau da, edozein gertaeraren lehenengo azpigertaera ezabatzea. Horrek, Grimshaw-i (1990) jarraiki eragin zuzena izango du jatorrizko aditzaren argumentu-egituran: inolako argumentuk ez du parte hartuko lehenengo azpigertaeran eta beraz, maila tematikoan argumentuen goratasun-harremanak mantendurik ere, ez da kanpo-argumenturik egongo, aspektu-mailako goratasun-baldintzak huts egiten baitu. Argumentu-egitura aldatu egin da aspektu-mailako aldaketaren eraginez.

Gainera, aditz iragankorren kasuan, argumentu egilea ezabatu dela onartu behar dugu, aukerakoa baita, eta argumentuak definizioz ezinbestekoak baitira. Aditz inergatiboen kasuan ordea, argumentu bakarra, ezinbestekoa da. Hala ere, ihardueren motako azpigertaerarik ez dagoenez, argumentu hori ezin izan daiteke kanpo-argumentua eta barne-argumentu modura gauzatu behar da.

Roeper-en (1987) arabera, ingelesez behintzat, aditz iragangankorretatik morfologia pasiboaren eraginez (eta baita nominalizazioaren eraginez ere)

ezabatutako argumentu egile hori, mantendu egiten da 'argumentu inplizito' modura: *by*-sitagmen aukera (10) eta PRO elementu isila kontrolatzeko ahalmena (11) (Manzini, 1983) ikus daitezke. Ikusi horrelako argumentu inplizitorik ez duten aditz inakusatiboen kasuan, bi eraikuntza horiek ezinezkoak direla:

(10) a. *The ship sank by Bill
b. The ship was sunk by Bill
(11) a. *The boat sank to collect the insurance
b. The boat was sunk to collect the insurance
c. The boat was sunk without firing a shot

Euskararen kasuan ergatiboa daraman elementua *by*-sintagmen antzekoa dela onarturik, froga horiek betetzen ote diren ere ikusi behar dugu.

(10') a. *Itsasontziak Mikelek hondoratzen dira
b. Itsasontzia Mikelek hondoratua zen
c. *Itsasontzia Mikelek hondoraturik zegoen
(11') a. Itsasontziak hondoratzen ziren aseguroa kobratzeko
b. *Itsasontzia hondoratua zen aseguroa kobratzeko
c.* Itsasontzia hondoraturik zegoen aseguroa kobratzeko
d. Itsasontziak inolako balarik disparatu gabe hondoratzen ziren
e. Itsasontzia hondoratua zen inolako balarik disparatu gabe
f. Itsasontzia hondoraturik zegoen inolako balarik disparatu gabe

Euskaraz, kontutan hartu beharreko arazo bat dugu, eraikuntza inpertsonal eta inakusatiboen arteko anbiguitatearena alegia (Levin, 1983): (10'a) adibidea esate baterako, anbiguoa da bi irakurketa horien artean. Edozein kasutan, ez inpertsonalek ez inakusatiboek ere, ez dute egile argumenturik onartzen.

Ikusi dugunez, *-a(k)* bukaerako partizipioak bai onartzen du argumentu egile hori (10'b), eta hauxe da beste hizkuntzetako adizki-pasiboarekin

konparatu izan den eraikuntza. *-rik /-ta* bukaerako partizipioak ordea, ez du argumentu egilerik onartzen, eta zentzu horretan, ingelesaren izenondo-pasiboaren antzekoa litzateke.

Kontrolari dagokionez, espero litekeenaren aurkako ondorioak lortu ditugu: egilerik onartzen ez duten eraikuntzak PRO elementua kontrolatzeko gai dira (11'a). Partizipioek berriz, ez dituzte horrelakoak onartzen (11'b,c).

Dena den, (11'a) adibideari dagokionez, ikusi irakurketa inpertsonalak baizik ez duela onartzen horrelako kontrola, eta inola ere ez irakurketa inakusatiboak (12).

(12) a. Itsasontziak deliberatuki hondoratzen dira aseguroa kobratzeko
b. *Itsasontziak berez hondoratzen dira aseguroa kobratzeko

Horrenbestez, eraikuntza inpertsonalak eta inakusatiboak bereizteko bidea dugu:

(i) Eraikuntza inpertsonalek kanpo-argumentu inplizito bat dute
(ii) Eraikuntza inakusatiboek ez dute horrelako argumentu inplizitorik
(iii) Eraikuntza inpertsonalen argumentu inplizito hori ez da gai argumentu egile (adjunktu) bat zilegiztatzeko, baina bai PRO bat kontrolatzeko

Partizipioei dagokienez, sintagma egilea zilegiztatzeko gaitasunagatik bereiz daitezkeela ikusi dugu (10'b/c). Edonola, helburuzko perpausen PRO elementua kontrolatzeko ahalmenak, ez dirudi egilea zilegiztatzeko ahalmenarekin bat datorrenik, inolako partizipiok ez baitu onartzen (13). Ikusi, dena den, helburuzko perpausa partizipio-perpausaren barnean sartzen denean gramatikaltasun-epaiketa bereizgarria azaltzen dela (14).

(13) a. *Itsasontzia hondoratua zen aseguroa kobratzeko
b.* Itsasontzia hondoraturik zegoen aseguroa kobratzeko
(14) a. Itsasontzia [[aseguroa kobratzeko] hondoratua] zen

b.*Itsasontzia[[aseguroa kobratzeko] hondoraturik] zegoen

Ondorioz, komunztaduradun partizipioak helburuzko perpaus baten PRO elementua kontrolatzeko azaltzen duen ezintasuna, ez dagokio argumentu egile inplizitoaren ezari, partizipioaren *-a(k)* bukaerak kontrol-harreman hori galerazten duelarik. *-rik* edo *-ta* bukaerako partizipioen kasuan berriz, kontrolerako ezintasuna argumentu egile inplizitoaren ezari dagokio.

Bestelako kontrol-eraikuntzetan (11'd,e,f), eraikuntza guztiek ematen dituzte ondorio onak. Ikus bedi (11'd) kasuan bai irakurketa inakusatiboek eta bai inpertsonalek ere ondorio egokiak eskaintzen dituztela (15).

(15) a. Itsasontziak deliberatuki hondoratzen ziren inolako balarik disparatu gabe
b. Itsasontziak berez hondoratzen ziren inolako balarik disparatu gabe

Partizipioen kasuan ere, (11'b,c) adibideen aurkako ondorioak ditugu: kontrol-eraikuntza posible da *-rik/-ta* bukaerako partizipioekin, eta komunztaduradun partizipio-perpausetik kanpo gauzaturik ere.

Horrek guztiak, eraikuntza hauetan PRO arbitrarioa eta ez inolako argumentu inplizitok kontrolaturiko PROa dugula pentsarazten digu. Eta beraz, froga hori ez dugu esanguratsutzat hartuko.

Bi partizipio-mota hauen arteko bereizketa, honelaxe egin daiteke :

(i) Komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko partizipioen morfologiak, 'burutzapenak' edo 'iharduerak', 'egoeretara' bihurtzen ditu, horrek kanpo-argumentuaren ezabaketa ekartzen duelarik (kanpo-argumenturik dagoenean).
(ii) Komunztaduradun partizipioaren kasuan, kanpo-argumentu hori, argumentu inplizito modura mantentzen da, sintagma egile bat zilegiztatzeko eta PRO elementu isila kontrolatzeko ahalmena ikus baitaiteke.

(iii) Komunztadurarik gabeko partizipioen kasuan ordea, ezabatutako kanpo-argumentu horri dagokion argumentu inplizitorik ez dago.

(iv) Aditz inergatiboen kasuan, kanpo-argumentua, ezabatu beharrean, barne-argumentu bihurtzen da.

(v) Aditz inakusatiboen kasuan, ez dago inolako argumentu-aldaketarik.

	Kanpo-argumentua	Agente-arg. inplizitoa	Agt-sintag. ageria
INAKUSATIBOAK	–	–	–
INPERTSONALAK	Ø	+	–
PARTIZIP.+ A(k) (aditz iragankorrak)	Ø	+	+
PARTIZIP. +RIK/TA (aditz iragankorrak)	Ø	–	–
PARTIZIPIOA+A(K)/RIK/TA (aditz inergatiboak)	barne-arg. bihurtu	–	–
PARTIZIPIOA+A(K)/RIK/TA (aditz inakusatiboak)	–	–	–

Ø: ezabatutako argumentua

-: jatorriz ez dagoen argumentua

3.5.3. Berezko eta egiturazko kasu-ezarketa

Euskararen kasu-sisteman badaude ohituraz erakargarritzat eta aldi berean azaltzeko nekezak agertzen diren zenbait puntu:

(a) Itxuraz, harreman zuzena dago argumentuen sorrera-gunearen eta hartzen duten kasuaren artean: aditz iragankorren eta inergatiboen subjektuek 'ergatiboa' hartzen duten bitartean, aditz inakusatiboen subjektuek eta iragankorren objektu zuzenek, absolutiboa hartzen dute.

(b) Argumentu ergatibo, datibo[54] eta absolutiboekiko komunztadura halabeharrezkoa da argumentu horiek izen-sintagma gauzatu modura edo pro kategoriako elementu isil modura azaltzen direnean.

Datu hauen berri emateko hainbat teoria proposa daiteke, eta izan ere, proposatu dira. Hasteko, argumentuen sorrera-guneari dagokionez, hiru ikuspegi desberdin daude:

(i) Subjektua [spec, Infl] gunean sortzen da, eta objektuak (aditz inakusatiboen subjektua barne), VParen barnean (Levin, 1983, O. de Urbina, 1986).

---

[54] Hiztun batzuek ez dute beti egiten aditzaren eta datibo marka daraman argumentuaren arteko komunztadura, datiboa daraman argumentu hori agerian dagoenean. Hona hemen, EGLU-I (1985) gramatikan eskainiriko zenbait adibide.

'Erran zuen Yaunac nere Yaunaï' (Etxenike, 100)

'Orduan erreguec erraiñ du escuñeco aldean' (Etxenike, 110)

Datiboa daraman argumentua agerian ez dagoenean, nekez apurtzen da komunztadura

'Ceñec erresponditu cion, eta erran...' (Etxenike, 43)

(ii) Argumentu guztiak VParen barnean sortzen dira, kasu askotan zenbait arrazoirengatik (kasuaren edo komunztaduraren arrazoiengatik batez ere) VPtik kanpo atera behar badute ere (Oyharçabal, 1990, Uriagereka, 1991).

(iii) Argumentu guztiak VPtik kanpo sortzen dira (Cheng & Demirdash, 1991).

Hirugarren atal honetan zehar zenbait froga eskaini dugu, argumentu guztien VParen barne-sorreraren alde: hasteko ezin jakin daiteke beti D-egituratik subjektu modura gauzatuko den argumentua zein izango den; bigarrenik, harreman zuzena dago aukeratuko den laguntzailearen eta predikatuaren argumentu-egituraren (subjektua barne) artean; eta bukatzeko, bigarren mailako predikatuen PRO subjektuaren kontrolerako behar den elkar m-komandatzearen baldintzarako halabeharrezkoa da barne-sorrera hori.

Bestetik, VParen barnean sorturiko hiru argumentu horien eta laguntzailearen artean komunztadura gerta dadin, hiru islapen funtzional behar dugula onartu dugu: argumentuak VPtik aterako dira islapen funtzional horien espezifikatzaileetan kokatzeko, bertan espezifikatzaile/buru harremanaren bidez komunztadura gerta dadin. Islapen horiek TP, MP eta AuxP izan litezkeela onartu dugu Laka-ri (1991) jarraiki.

Oraindik ere, onarpen horietatik abiatuta bi aukera dugu:

(ii-1) Argumentuek kasua paper tematikoarekin batera D-egituran (hau da VParen barneko sorrera-gunean) har lezakete eta ondoren islapen funtzionaletara mugitu laguntzailearekiko komunztadura gauzatzeko. Argumentu guztietarako berezko kasu-ezarketa genuke honela.

(ii-2) Kasua komunztaduraren bidez gauzatuko litzateke islapen futzionaletan eta beraz, θ-ezarketaren independentziaz. S-egituran gertatzen den egiturazko kasu-ezarketa litzateke beraz.

(ii-3) Argumentu batzuek (ii-1) berezko mekanismoaren bidez hartuko lukete kasua eta besteek (ii-2) egiturazko mekanismoaren bidez.

(ii-1) mekanismoak badu abantaila interesgarri bat: argumentuen sorrera-gunearen eta kasu-ezarketaren arteko (itxurazko) harreman biunibokoa azalduko luke, VParen gune bakoitzean θ-paper bat eta kasu bat ezarriko bailitzateke. Bestetik, erraz azal liteke komunztaduradun partizipioen kasuan partizipio-perpausaren barnean (komunztadurarik gauzatu gabe) geratzen diren argumentuek kasu-marka kononikoak azaltzea (17).

(17) a. Liburu hau [nik idatzia] da
b. Gutun hau [zuri idatzia] da
c. Ni [horrelako liburu asko irakurria] naiz
d. Polimero hau [gure laborategian asmatua] da

Oyharçabal (1990), honelako eraikuntzetan oinarritu da, hain zuzen, ergatibo kasuaren berezko izaera defendatzeko. Hala ere, 3.3.6.5. azpisailean O. de Urbina & Uribe-Etxebarria-ren (1991) aurka aditzera eman dugunez, komunztaduradun partizipio horiekin azal daitezkeen argumentuek, komunztadurarik gabeko eraikuntzetan azaltzen direnek baino murriztapen tematiko gehiago azaltzen dituzte.

(18) a. Nik pastel hauek egin ditut
b. Pastel hauek nik eginak dira
(19) a. Zuk nire liburua daukazu
b.*Nire liburua zuk edukia da

Ergatiboa daramaten argumentuek halabeharrez egileak izan behar dute komunztaduradun partizipioaren eraikuntzetan (18/19), ez ordea, partizipio soila daramaten eraikuntzetan.

Datiboa ere, soilik 'hartzailearen' paperarekin estuki erlazionaturik azal daiteke partizipio-eraikuntza horietan (20, 21, 22).

(20) a. Nik amari landare hori erosi diot
b. Landare hori nik amari erosia da
(21) a. Mikelek hondartzara joateari ongi deritzo
b.*Mikel hondartzara joateari ongi iritzia da
(22) a. Haurra txakurrari jarraiki zaio

b.*Haurra txakurrari jarraikia zaio

Absolutiboari dagokionez (23, 24), datuak horren garbiak ez badira ere, badirudi partitibo berezko kasuaz pentsatzera garamatzan mugagabetasunaren eragina (Belleti, 1988) ikus daitekeela.

(23) a. Aitorrek liburu asko irakurri ditu
b. Aitor liburu asko irakurria da
(24) a. Aitorrek liburu hau irakurri du
b.? Aitor liburu hau irakurria da

Ondorioz, laguntzailearekiko komunztadurarik gabe azaltzen diren argumentuek, kasua D-egituran berezko mekanismoaz (hau da, paper tematikoarekin batera) jasotzen dutela esan dezakegu.

Bestetik, berezko kasu-ezarketa hori, komunztaduradun partizipioarekin baizik ez da posible, adizki perifrastikoen partizipio soilaz edo *-ta/-rik* bukaerako partizipioaz ezinezkoa delarik. Beraz, berezko kasu-ezarketa horren eragilea partizipio+*-a(k)* sekuentzia bera (eta ez V) soila dela pentsa dezakegu.[55]

Datiboaren marken artean bi sail egin daitekeela ere (3.4.3.1.azpiatala), proposatu dugu bigarren mailako predikatuen murriztapenetan oinarrituta: datibo marka, batzuetan, subjektu eta bigarren mailako predikatuaren arteko

---

55 Antzeko zerbait gertatzen da iparraldeko euskalkietako tze-perpausen objektuari genitiboa ezartzeko mekanismoaz: genitibo hori berezko mekanismoaz ezartzen dela defendatu du Oyharçabal-ek (1990). Hala ere, ez da posible ohizko adizki perifrastikoen kasuan. Genitibo berezko kasu horren eragileak, beraz, *-tze* atzizkia izan behar du eta ez aditz-erroa hutsa.

-Zuk liburu bat irakurri duzu
-*Zuk liburu baten irakurri duzu
-Zuk liburu baten irakurtzea harrigarria da

m-komandoaren harremana galerazten duen benetako posposizioa da (25a), eta beste batzuetan, ez da horrelako harremana galerazteko gai (25b).

(25) a.*Liburu hau Mikeli^{i} sarituta^{i} eman diote
b. Irakasleak Mikeli^{i} bakarrik^{i} dantzarazi dio

Ezberdintasun horren berri emateko, hirugarren atalean, (25a) bezalako datiboak VParen barne-gunean eta D-egituran ezartzen diren bitartean, (25b) bezalakoak S-egituran predikatu kausatiboa eratu ondoren egiturazko mekanismoaren bitartez ezartzen direla defendatu dugu.

Hori zuzena bada, antzeko kontrastea aurkitu behar genuke, ergatibo marka daramaten ohizko egileen eta komunztaduradun partizipioarekin azaltzen diren egileen artean (26). Eta hala da, horrek komunztaduradun partizipioaren kasuan (baina ez partizipio soilaren kasuan) berezko kasu-ezarketaren aurrean gaudela pentsarazten digularik.

(26) a. Ainhoak bazkaria pozik prestatu du
b.*Janaria Ainhoak pozik prestatua da

Laburbilduz, ergatibo eta datibo kasuak testuinguru batzuetan berezko mekanismoaz (VParen barnean) eta beste batzuetan egiturazko mekanismoaz ezartzen direla esan dezakegu predikazioaren datuetan oinarrituz.

Azaltzeko dugun azken arazoa, sorrera-gunearen eta kasu-marka zehatzaren arteko harremana da. Lan honetan egokitze hori laguntzaile egokiaren islapenaren bidez lortzen dela defendatuko dugu: Aux burua, XP predikatuaren islapen hedatua da. Predikatu horrek nolabaiteko argumentu-egitura du. Argumentu-egitura horrek, laguntzailearen komunztadura-beharrak betetzeko modukoa izan behar du. Bestetik, laguntzaileak, kasua behar duten predikatuaren argumentuei kasu hori komunztaduraren bidez eskaintzeko modukoa izan behar du. Egokitze hori lortzen denean, ongi eraturiko perpausak lortzen dira eta bestelako enuntziatuak baztertu egingo dira 'Kasuaren Iragazkiaren' bitartez edo 'Ekonomiaren Oinarriaren' bitartez.

(27) a.*Jonek Mikel liburua eman du
b.* Ainhoa ilea erori da
c.*Ama etxean egon dio goiz guztian
d. Amak haurrari indabak janarazi dizkio

(27a) adibidean, hiru argumentuko predikatu bat bi argumentuko laguntzaile batekin konbinatu dugu. Modu berean, (27b) adibidean, bi argumentuko predikatu bat eta gune bakarreko laguntzailea konbinatu ditugu. Bi kasuetan, argumentu bat kasurik gabe utzi behar da, eta beraz, eraikuntzak 'Kasuaren Iragazkiak' baztertuko ditu.

(27c) adibidean, hiru guneko laguntzailea dugu, egiturazko kasua behar duen argumentu bakarra duen predikatuarekin konbinaturik. Eraikuntza, 'Ekonomiaren Oinarriak' baztertuko du, inolako argumenturi erreferentzia egiten ez dioten eta beraz LFan inolako irakurketarik izango ez duten bi klitiko baititugu.

Laguntzailearekiko komunztaduraren bidez, argumentu bakoitzak dagokion kasu-marka hartzea lor daiteke: kasua behar duten argumentuek VPtik aterako dira gorago dituzten sintagmen islapen nagusiei itsatsiz eta azkenik, hutsik dagoen islapen gorenaren espezifikatzailea beteko dute. Modu honetara, argumentuek utziriko aztarnak egokiro gobernaturik egotea eta 'Minimotasunaren Baldintza' ez bortxatzea lor daiteke. Bestetik, argumentuak VParen ordena kontutan hartuz mugituko direnez, argumentu bakoitza espezifikatzaile egokian kokatuta egotea lor daiteke.

Argumentuen mugimendu horrekin batera, Aux buruan sorturiko laguntzaileak buruz buruko mugimendua egingo du[56] islapen funtzional

---

[56] Mugimendu honek, buruz buruko mugimenduaren eskakizunak (Baker, 1988) betetzen ditu: (a) Inkorporazioaren bukaerako burua beti egongo da hasierako burua baino gorago (b) Edozein buru beti inkorporatu beharko zaio bera c-komandatzen duen lehenengo buruari (hurbileko prozesua izan behar du beraz).

Euskararen buruz buruko mugimendu honi dagokionez, ikus Laka (1991).

bakoitzean espezifikatzailean kokaturiko argumentuarekiko komunztadura gauzatuko delarik. [spec, T] delakoan kokaturiko argumentua, subjektu modura ulertuko da.

Ondorioz, islapen funtzional bakoitzean gertatuko den komunztadura (argumentuei dagokienez) ez dagokio islapenaren izaerari, laguntzaileak eragindako komunztadurari baizik. Ikusi, [spec, T] gunean batzuetan ergatiboa, beste batzuetan absolutiboa eta beste batzuetan datiboa ezarriko direla, laguntzailearen arabera (28). Hala ere, argumentuei dagozkien klitikoen markez gain, benetan islapen horien ezaugarriei dagozkien markak gaineratuko dira, aldiari eta modurari dagozkien markak alegia.

(28) a. Anderrek etxe hori erosi du
b. Jon mendira joan da
c. Ainhoari ilea erori zaio

IV. ATALA

PREDIKAZIO-HARREMANEN SINTAXIZKO ISLAPENA

4.1. Sarrera

Atal honetan, aurrekoetan jadanik azaldu dugun idea batean sakonduko dugu: 'subjektu' eta 'predikatuak' nolabaiteko islapen funtzionalaren barnean sarturik egon behar dutela defendatuko dugu.

Hasteko, azpikategorizaturiko predikatuei begiratu diegu: predikatuak θ-markaturik ez dauden islapen nagusiak direlako definizioa mantendu nahi badugu, nolabaiteko buru funtzionalaren osagarri modura txertaturik egon behar dute θ-markaketa horretatik alde egiteko.

Bigarrenik, subjektu/predikatu harreman guztietarako balio dezakeen eta X'-Teoriaren eskakizunekin bateragarria den egiturazko harreman bat definitu nahi badugu, predikatuek eta beren subjektuek S-egituran islapen funtzional batean sartuta egon behar dutela ere frogatu dugu aurreko sailean.

Atal honetan predikatuen eta argumentuen arteko bereizketaz arituko gara, subjektu eta predikatua nolabaiteko islapen funtzionalean sartuta egoteko beharraren aldeko beste arrazoi batzuk eskainiko ditugu eta bukatzeko, euskal perpaus txikien mota bakoitzerako, egokien izan daitekeen adierazpena proposatuko dugu.

Hasteko, *izan* aditzarekin azaltzen diren eraikuntzen artean, bi sail bereiziko dugu: alde batetik eraikuntza predikatiboena, eta bestetik, eraikuntza ekuatiboena. Eraikuntza predikatiboetarako NuP islapen funtzionala proposatuko dugu subjektu eta predikatuaren arteko komunztadura azaltzeko. Eraikuntza ekuatiboetan berriz, bi DP argumentu dagoela defendatuko dugu.

Aurrerago joanez, *izan* aditzarekin azaltzen diren eraikuntzak eta *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzekin azaltzen direnak, *egon, geratu, gelditu* eta *jarri*

bezalako aditzek azpikategorizatzen dituztenekin konparatuko ditugu. Azkenik, bi multzo horien arteko bereizketa Kratzer-en (1988) sailkapenaren bidez azal daitekeela defendatuko dugu: 'egoera-mailako predikatuek' AspP kategoria funtzionala islatzen dute; 'izaki-mailako predikatuek' berriz, ez dute horrelakorik islatzen (NuP kategoria islatu ohi dute).

Horrenbestez, *izan* aditza laguntzailea izanik, ez du hautapen-eskakizun berezirik: izaki-mailako edo egoera-mailako predikatu hutsak, edo baita horrelako predikatuak dituzten perpaus txikiak hartzen ditu osagarri modura.

Bihurtu, bilakatu eta *egin* bezalako aditzek berriz, izaki-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak hautatzen dituzte eta *egon, geratu, gelditu* eta *jarri* bezalakoek, egoera-mailako predikatuak dauzkaten perpaus txikiak. Bigarren mailako predikatuek ere, egoera-mailakoak izan behar dute, eta beraz AspP kategoria islatu behar dute.

Bukatzeko, izenki-predikazioan parte hartzen duten posposizioen artean, bi sail bereiziko dugu: alde batetik, osagarri modura argumentuak hartzen dituzten posposizioak daudē; adibidez, *-an* inesiboa. Posposizio horiek predikatu-buruak lirateke. Bigarrenik, osagarri modura predikatuak hartzen dituzten posposizioak ditugu. Azken hauek, subjektu eta predikatuaren arteko elkarketa gauzatzeko funtzioa dute; eta beraz, erlaziozko buru funtzionaltzat har daitezke. Azken multzo horretan sartuko dugu *jo, hartu, eduki* eta *eman* bezalako aditzekin azaltzen den *-tzat* prolatiboa.

4.2. Islapen funtzionalen beharra predikazio-harremanetan

Orain arte ikusi dugunez, gramatika-kategoria desberdinetako hiztegi-sarrerak, X° buru modura txertatzen dira sintaxian eta X'-ereduaren araberako XP isladapen nagusia ematen dute D-egituran. Islapen horren gune desberdinak (osagarria, espezifikatzailea, adjunkzio-tokiak) hiztegi-sarrera horren argumentu-egituran zehazturik dauden argumentuek edo aukerakoak diren adjunktuek betetzen dituzte. Horrela, XP islapena argumentu-egitura horren sintaxi-adierazpena (D-egitura) liteke.

Islapen nagusi horien artean, bi multzo nagusi bereiz daiteke: alde batetik, 'argumentuak' eta bestetik, 'predikatuak'. Bi mota horietako islapen nagusiek, baldintza bana bete behar dute: argumentuek θ-paper bat jaso behar dute[1], eta predikatuek (θ-markatu gabeko XPak) beren islapen nagusitik kanpo dagoen argumentu bati loturik egon behar dute egiturazko harreman zehatz baten bidez.[2] Predikatua lotzen zaion argumentu horri 'subjektu' deritzo.[3]

---

[1] Ikusi argumentuen θ-papera eta kasua jasotzeko beharrak (Chomsky, 1981) lehenengo baldintza soilera labur daitekeela θ-paperak ikusgarriak izateko argumentuek kasua behar dutela onartzen badugu (Chomsky, 1986).

[2] Predikatuek bete behar duten baldintza hori formulatzeko, Rothstein-en (1983) 'Predikatuen Lotura-Erregela' moldatu dugu:

> **"Rule of Predicate-linking (for English)**
>
> (a) Every non-theta-marked XP must be linked at S-structurre to an argument which it immediately c-commands and which immediately c-commands it
>
> (b) Linking is from right to left (a subject precedes its predicate)"

[3] Ikusi 'subjektu' kontzeptua erlazionala dela eta ez adibidez kontzeptu kategoriala: argumentu baten eta predikatu baten arteko egiturazko harremanaren bidez definitzen da.

Ondorioz, argumentuek, bi harreman-mota desberdinetan hartzen dute parte:

(i) X° buru batekiko harremanetan egon behar dute buru horren XP islapenaren barnean, buru horretatik θ-paper bat jasotzeko.
(ii) Argumentu bakar batek, S-egituran, XP predikatu-islapen nagusiarekin egiturazko harreman berezi bat ezarri behar du, predikatu hori zilegiztaturik gera dadin.[4]

Edozein gramatika-kategoriatako (N, A, V, P) buru isolatu bat hartuta, ez dugu horrek argumentu bat edo predikatu bat islatuko ote duen aldez aurretik jakiterik.[5] Ikusi normalean predikatutzat hartzen dugun VP kategoriako islapen nagusi (perfektu)ak, IP eta CP islapen hedatuak islatzen dituela eta CP kategoria adibidez V baten argumentua izan daitekeela.

Horrela, argumentuak askotan predikatuen barnean egon ohi dira eta predikatuak argumentuen barnean. Baina, predikatuek θ-markatu gabeko islapen nagusi modura definitzen baditugu, ezin txerta daitezke buru lexikoen osagarri gisa, Islapenaren Oinarriaren arabera gune horiek beti baitagozkie buruen argumentuei eta beraz, buru horiek θ-markaturiko

---

[4] Napoli-k (1989) antzeko bereizketa bikoitza egin du semantikaren ikuspuntutik: batetik 'argumentuak' eta bestetik 'paper-jokalariak' bereizi ditu. Horrela, hiztegi-sarrerek, θ-paperak ezarriko lizkiekete beren argumentuei (beraien XP islapen nagusien barnean), eta bestetik, buru horiei dagozkien predikatu-islapen nagusiek (XPek) paper semantikoak ezarriko lizkiekete beraien paper-jokalariei. Ikuspegi honetatik predikatu baten subjektuaz ari garenean, paper-jokalari baten funtzioaz ari gara eta ez argumentu batez soilik.

[5] Izenek argumentuak islatzea eta aditzek edo izenondoek predikatuak islatzea da ohizkoena, baina aurkako kasuak ere ikus daitezke.

(i) a. Gure irakaslea berandu heldu da
b. Jon gaztea da
c. Antton etxetik dator
(ii) a. Ander irakasle dago unibertsitatean
b. Gazteek ideia berriak proposatzen dituzte
c. Antton etxetik etortzea ez da harritzekoa

guneak baitira. Hortaz, predikatuek, inolako argumentu-egiturarik ez duten eta halabeharrez osagarri bat behar duten buru funtzionalen osagarri modura txertatu behar dute beti. Zehazkiago, predikatuek, nolabaiteko kategoria funtzionala islatu behar dute beti, kategoria funtzional hori predikatuaren islapen hedatua delarik.[6]

Bestetik, predikatuetan beti egon behar du beren islapenetik kanpo dagoen argumentu bati lotuz asetzen den hutsune bat. Horixe da hain zuzen 'Predikatu-loturaren Arauaren' (PLR) eragilea. PLR delakoa betetzen deneko islapenak (YP), osotasunean kontutan hartuta, ez du inolako hutsunerik: buru lexiko baten islapenaren barnean badago, argumentua da eta bestela, perpaus bakun bat edo perpaus matrize bat eratzen du. Bestetik, inolako argumentu-egiturarik ez duten hiztegi-sarrerek (hainbat N adibidez) ezin era dezakete predikaturik eta argumentuak (edo adjunktuak) eman behar dituzte ezinbestean.

Beraz, predikatuak hutsune bat duten hiztegi-islapen nagusi (perfektu)ak diren bitartean argumentuak zeharo aseturiko islapen perfektu edo hedatuak direla esan dezakegu. D-egituran XP islapen nagusiak beraien X° buruen argumentu-egituraren islada zuzenak badira, nekez aurkituko dugu hutsunerik maila honetan. Hala ere, argumentuek, θ-ezarketarako ikusgarri izateko, kasua behar dute, eta gehienetan, ezin har dezakete kasu hori predikatuaren islapen perfektuaren barnean. Horrela, gutxienez, argumentu bat XP islapenetik kanpo ateratzen bada, argumentu horren aztarnaren tokian hutsune bat geratzen da. S-egituran, hutsune hori duen predikatua mugituriko argumentu horrekiko egiturazko harreman egokian egon behar du, predikazio-harremana maila honetan antzematen delarik. Predikatuaren islapenetik, argumentu bat baino gehiago ateratzen denean, subjektua goren mugituriko argumentua liteke. Ikus daitekeenez, beti ezin jakin daiteke mugituko diren argumentuak zein izango diren eta beraz subjektua argumentu guztien artean zein izango den.

---

[6] Gogoratu lehenengo atalaren 1.3.4. azpisailean eskaini ditugun 'islapen perfektuen' eta 'islapen hedatuen' definizioak, zeintzuetan Grimshaw-i (1991) jarraiki gatzaizkion.

Ondorioz, predikatuak eta argumentuak bereizten dituena, beren buru lexikoaren kategoria baino, buru hori islatzeko modua da: argumentuak buru lexikoen islapen perfektu edo hedatu itxiak dira; eta predikatuak berriz, gune huts bat duten buru lexikoen islapen perfektuak.

Irekitako gune bat izatea, sintaxiaren ikuspegitik, argumentu-katea baten buztana (baina ez burua) izatearen baldintzara labur daiteke. Ikuspegi honetatik beraz, argumentuak, inolako hutsunerik ez dutenez, argumentu-katea bat osotasunean daukaten isladapen nagusiak; edo zenbait kasutan, katea bera lirateke.

(1) DEFINIZIOAK

(a) Predikatua: Argumentu-katea baten buztana (baina ez burua) duen islapen lexiko nagusia (islapen perfektua).

(b) Argumentua: Argumentu-katea bat osotasunean (bai burua eta bai buztana) duen islapen hedatu nagusia edo argumentu-katea bera izan daiteke.

Rapaport-ek (1987), inolako aditzik gabeko perpaus txikiak dituzten hizkuntzak (hala nola hebraiera, arabiarra eta gaelikoa) nolabaiteko aditzaren osagarri modura baizik onartzen ez dituztenekin (hala nola ingelesa eta gaztelania) konparatu ditu: egile horren arabera, bigarren mota horretako hizkuntzetan, predikatuek, argumentuei ezarritako paper tematikoak ikusgarriak izan daitezen, nolabaiteko 'inflexioarekin' batera azaldu behar dute ('Hedaturiko Ikusgarritasunaren Eskakizuna').[7] Hebraiera bezalako hizkuntzek ez lukete horrelako eskakizunik paper tematikoaren ezarketari estuki loturiko kasu-sistema bailukete.

---

[7] Eskakizun hori, Chomsky-ren (1986) 'Ikusgarritasunaren Oinarriaren' hedapen modura proposatu du Rapoport-ek: argumentuek kasu-marka bat hartu behar dute edo kasua duen katea baten parte izan behar dute paper tematiko bat jaso ahal izateko.

Ikusi 'Hedaturiko Ikusgarritasunaren Eskakizun' hori kateen baldintzaren (Chomsky, 1986) birformulazio bat besterik ez dela: argumentu-kateen buruek kasua hartu behar dute beraien buztanari ezarritako paper tematikoa ikusgarria gerta dadin; kasu hori argumentua sortu deneko predikatuaren XP islapen nagusiaren barnean (paper tematikoarekin batera) ezartzen ez bada, argumentu horrek kanpora atera behar du kasua ezar diezaiokeen islapen funtzional egokiraino. Hortik eratortzen da predikatuen nolabaiteko inflexioaren beharra: predikatu batzuek beren argumentuei kasua eskaintzeko behar den inflexioa islatzeko ahalmena dute (hala nola VPak), baina beste batzuek, ez dute horrelako ahalmenik eta V baten osagarri edo adjunktu modura txertatu behar dute.

Horrenbestez, bestelako predikatu baten osagarriak diren predikatuak eta independienteak diren lehenengo mailako predikatuak (VPak) nolabaiteko islapen funtzionalaren barnean sartuta egoteko beharra azaldu dugu: lehenengoek θ-markaketatik babestuta egoteko behar dute islapen hori eta bigarrenek, kasu-iragazkia gainditu ahal izateko.

Baina bigarren mailako predikatuen (adjunktuen) kasuan, ez dugu horrelako funtsezko arrazoirik aipatu. Aurreko atalean defendatu dugunez, subjektu/predikatu harreman guztietarako osagai-izaeraren alde egin duten egileek, predikatu adjunktu horien subjektua PRO kategoria isilekoa dela defendatu dute. Teoria horrek badu abantaila bat, alegia, θ-irizpidea argumentu bakoitzak paper tematiko bat baizik ezin har dezakeelako formulaziorik murriztaileenean manten daitekeela.

Hala ere, ideia hori mantentzeko, PRO kategoria isila gobernatu gabe dagoela frogatu behar da. Baina gobernu-harreman hori gerta ez dadin, bigarren mailako predikatua eta bere PRO subjektua bestelako islapen batean sartu behar dira: hasteko, PRO hori XP predikatu-islapenaren barnean balego, predikatu horren buruak gobernatuko luke; bigarrenik, XP hori barnean duen YP islapena lexikoa balitz, XP predikatua θ-markaturik egongo litzateke predikatuen definizioaren aurka; beraz, islapen horrek funtzionalen sailekoa izan behar du; bukatzeko, FP islapen funtzional hori L-markaturik ez dagoenez, kanpotiko-gobernurako hesia da, Chomsky-ren (1986) arabera, eta beraz, bere espezifikatzailean kokaturiko argumentua

gobernatu gabe dago: ezin izan daiteke ez aztarna ez eta gauzaturiko argumentua.

Gainera, bigarren mailako predikatuen egitura besterik gabe XP mailakoa bada ez dago predikatua izateko behar duen hutsunea sortzeko modurik, adjunktua izanik ezin atera baitaiteke ezer bere islapen nagusitik kanpo. Ondorioz, bigarren mailako predikatuak ere nolabaiteko islapen funtzionalean sartuta daudelako ideak abantaila interesgarriak ditu: hasteko, θ-irizpidea bere formulaziorik murriztaileenean mantentzea baimentzen digu; bigarrenik, beste predikatu-motetarako betetzen diren predikatuaren definizioak, predikatu adjunktu hauetara ere heda ditzakegu; eta bukatzeko, ikuspegi honetan behar den PRO kategoriako subjektua gobernatu gabekoa izatea lor dezakegu.

Laburbilduz, predikatuak islapen funtzionalen batean sarturik egoteko, hainbat arrazoi eskain daiteke:

(i) Aditz baten osagarri modura txertaturiko predikatuak, islapen funtzionalen batean sarturik ez baleude, θ-markaturik egongo lirateke, eta beraz ez lirateke predikatuak izango, argumentuak baizik.

(ii) Azpikategorizaturik ez dauden lehenengo mailako predikatu (independienteek), 'Ikusgarritasunaren Oinarria' betetzeko, argumentuei kasua ezar diezaiekeen nolabaiteko islapen nagusia behar dute.

(iii) Bigarren mailako predikatuek, beren islapen nagusiaren barnean predikatu-izaera emango dien hutsunea sortu ahal izateko behar dute horrelako islapen funtzionala: adjunktuak direnez, ez daude L-markaturik eta hesiak dira; beraz, beraien argumentuak ezin atera daitezke beraien islapenetik kanpo.

(iv) Bukatzeko, subjektu eta predikatuen artean S-egituran antzeman daitekeen egiturazko baldintza X'-teoriaren eskakizunekin batera betetzeko aukera bakarra, bi islapen nagusi horiek nolabaiteko islapen funtzionalaren barnean sartuta egotea liteke.

4.3. *Izan* aditzarekin azaltzen diren eraikuntzak

Sail honetan *izan* aditzarekin azaltzen diren predikatu-eraikuntzetarako sintaxizko adierazpen egoki bat proposatuko dugu. Hasteko, analisi hori finkatzeko baliogarria gerta daitekeen bereizketa bat aztertuko dugu, alegia eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen arteko bereizketa: lehendabiziz bereizketa horren izaera semantiko hutsa ez dela eta benetan sintaxi-mailan zentzurik duela frogatuko dugu, eta ondoren, bi eraikuntzen arteko anbiguitateak *-a(k)* bukaeraren izaera bikoitzari zor zaizkiola jarriko dugu agerian (eraikuntza predikatiboetan zenbaki-komunztaduraren gauzaketari dagokion bitartean, eraikuntza ekuatiboetan benetako determinatzaile bati dagokio).

Eraikuntza predikatibo eta ekuatiboak bereizi ondoren, lehenengokoetarako NuP islapen funtzional baten barnean sortzen diren DP subjektu bat eta NP predikatu bat proposatuko ditugu. Ekuatiboetan berriz, bi DP argumentu dagoela defendatuko dugu.

Azkenik, analisi honek *-a(k)* bukaera duten izenondo eta partizipioak dituzten eraikuntzetarako ere irakurketa predikatibo eta ekuatiboen arteko anbiguitateak azaltzen dituela frogatuko dugu.

4.3.1. Eraikuntza predikatiboak eta eraikuntza ekuatiboak

Izan aditzarekin azal daitezkeen eraikuntzak bereziki interesgarriak dira loturazko aditzaren bidez elkarturiko bi elementuak izenak direnean erkatzea merezi duten bi motatako perpausak bereiz baitaitezke: predikatiboak eta ekuatiboak.

(1) a. Irakaslea Mikel da
b. Mikel irakaslea da

Aditzaren aurreko gunean (hau da predikatuaren gune tipikoan) izen propio bat jartzen badugu (1a), perpausa halabeharrez ekuatibotzat hartzen dugu, hau da *irakaslea* eta *Mikel* pertsona bera direla ulertzen dugu. (1b) adibidea ordea, anbiguoa da: alde batetik irakasle zehatzaz ari garela eta Mikel irakasle horrekin identifikatzen ari garela uler dezakegu, baina, Mikelen lanbidea irakaskuntza dela ere uler dezakegu.[8]

Bigarren gune horretan pertsona-izenordain bat edo erakusle bat jartzen badugu, izen propioen kasuan bezala, ez dago anbiguitaterik eta eraikuntzak ekuatibotzat hartzen ditugu ezinbestean.

---

[8] Gogoratu bigarren atalaren 2.2.2.1.3. azpisailean (1b) bezalako eraikuntzen anbiguitateaz egin dugun oharra: perpausa isolatuta ikustekotan, hiztun gehienek atributibotzat joko lukete, hau da, Mikelen iharduera profesionala irakaskuntza dela esan nahi dugula pentsatuko lukete. Baina testuinguru egokian, *Mikel* identifikatzen ari garela ere uler daiteke: adibidez, emakume batek bi seme-alaba dituela eta bata irakaslea eta bestea abokatua direla baldin badakigu, *zein da Mikel?* galdera eta *Mikel irakaslea da* erantzuna gerta daitezke, erantzun horretan dagoen eraikuntza identifikatzailetzat hartu behar delarik.

(2) a. Irakaslea hori da
b. Irakaslea zu zara

Bi eraikuntza hauen arteko bereizketa ez dago garbi egile guztientzat eta horrela, ekuatiboetan ere subjektu/predikatu harremana dagoela defendatu da askotan: Longobardi-k (1984) aipatu ditugun bi eraikuntza horiek oinarrizko egitura beretik eratortzen direla defendatu du. Horrela, predikatu-harreman bakoitzean erreferentziadun sintagma bat baizik ez litzateke posible, sintagma hori bigarren gunean agertzen bada, subjektua eta predikatua alderantzikatu egin direla esan nahi duelarik. Bere teoriaren alde (3) adibidea eskaini du:

(3) a. Il colpevole sono io
b.*Il colpevole é me

Adibide horietan ikus daitekeenez, hizkuntza erromantzeetan, loturazko aditzaren komunztaduran parte hartzen duen elementua erreferentziarik zehatzena duena da, ordenak eraginik ez duelarik. Jokaera bera ikus daiteke euskararen kasuan (3').

(3') a. Erruduna neu naiz
b.*Erruduna neu da
c. Ni erruduna naiz
d.*Ni erruduna da

(3) eta (3') adibideetan beraz, subjektua pertsona-izenordaina dela eta ordenak zerikusirik ez duela dirudi. Hala ere, Rapoport-ek (1987) maila bereko erreferentzia duten bi elementu duen adibide bat eskaini du (4): kasu horretan, (3) kasuan ez bezala aditzaren komunztadura halabeharrez lehenengo elementuarekin gauzatu behar da.

(4) a. Se tu fossi me (ACC)
b.*Se te fossi io (NOM)

Euskaraz ere antzeko eredua dugu (4').

(4') a. Zu ni bazina

b.*Zu ni banintz

Ondorioz, eraikuntza ekuatiboetako bi elementuak erreferentzia-maila berekoak izan daitezke. Ekuazioaren bi aldeetan, erreferentzia-mailakatzean pertsona-izenordainak edo erakusleak baino beherago dauden elementuak ere egon daitezke (5). Elementu horiek ez dute pertsona-erreferentziarik, baina plural edo singularrekoak izan daitezke. Ikus daitekeenez, bi elementuen zenbakia bat etortzen ez denean, ordena edozein izanik ere, aditzaren komunztaduran ezaugarririk markatuena (plurala) azaltzen da.

(5) a. Herria langileak dira
b. Langileak Herria dira
c.*Herria langileak da

Ekuatibotzat ezin har daitezkeen eraikuntzetan berriz, ez da posible *-a(k)* bukaera duen baina komunztadurarik ez duen elementurik. Inolako marka morfologikorik gabe azaltzen diren izenak, ez dira anbiguoak eta predikatutzat hartu behar dira halabeharrez.

(6) a.*Mikel eta Ander beharrezkoa dira
b. Mikel eta Ander irakasleak dira
c. Mikel eta Ander irakasle {dira/daude} eskola horretan

Horrenbestez, *izan* aditzarekin ikus daitezkeen eraikuntza horien artean, bi multzo bereiz daiteke, aditzak loturiko bi elementu horien komunztaduraren arabera: multzo batean, beharrezkoa da bi elementuen arteko komunztadura, eta beraz bi elementu horien eta aditzaren arteko komunztadura ere; beste multzoan ordea, bi elementuen ezaugarriak bat ez etortzea gerta daiteke, aditzarekiko komunztadura erreferentziarik zehatzena eskaintzen duen elementuarekin egin behar delarik. Bi elementuak erreferentzia-maila berekoak badira (lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainak adibidez), aditzak lehenengo elementuarekiko komunztadura azaldu behar du halabeharrez.

Eraikuntza hauen artean bi multzo egin daitekeela defendatzeko beste froga bat hauxe da: hizkuntza erromantzeetan soilik eraikuntza predikatiboetan da

posible *lo* (italieraz eta gaztelaniaz) edo *le* (frantzesaz) izenordainen bidezko ordezkapena.

(7) a. Marie est très seduisante
b. Marie l'est, très seduisante
(8) a. Sa soeur est Marie
b.*Sa soeur l'est, Marie

Ikusi euskaraz antzeko bereizketa dagoela: pronominalizazioa erabili beharrean, *halakoa* erabil daiteke gertaera hori agerian uzteko.

(7') a. Miren oso erakargarria da
b. Miren halakoa da, oso erakargarria.
(8') a. Bere ahizpa Miren da
b.*Bere ahizpa halakoa da, Miren

Lo izenordainaren bidez erreferentziarik gabekoak diren izen-sintagmak baizik ezin ordezka daitezkeela pentsa daiteke. Horrela, eraikuntza ekuatiboen bigarren izen hori erreferentziaduna da eta horrexegatik ezin pronominaliza daiteke, edo euskararen kasuan, ez du *halakoa* delakoaren bidezko ordezkapena onartzen.

Arazo nabaria sortzen da superlatiboa duten eraikuntzen kasuan: superlatiboak azaltzen duen bukaerak erreferentziadun izen-sintagma batez ari garela pentsarazten digu, baina elementuen ordena aldatzen dugunean, aldatu egiten da (pronominalizazioaren edo) *halako* delakoaren onargarritasuna.

(9) a. Ander eskolako irakaslerik onena da
b. Eskolako irakaslerik onena Ander da
(10) a. Ander halakoa da, eskolako irakaslerik onena
b.*Eskolako irakaslerik onena halakoa da, Ander

Ondorioz, superlatiboa daraman elementua, nahiz eta *-a* bukaera daraman, predikatibotzat uler dezakegu eta beraz, *-a* bukaera daramaten sintagma

guztiak ez dira erreferentziadunak. Baina bistan da bigarren gunean superlatiboa daraman eraikuntza (9a) anbiguoa den bitartean alderantzizko ordena duena (9b) inola ere anbiguoa ez dela eta bi erainkuntza-mota bereizi behar dela.

Eraikuntza ekuatibo eta predikatiboen arteko bereizketa benetakoa dela agerian uzteko beste froga bat, koordinazioarena da. Zenbait elementu koordinatzeko ezintasunak, bi kategoria desberdinen aurrean gaudela froga dezake.

(11) a. Mikel gaztea baina azkarra da
b. Ane entrepresaria baina pobrea da
c.*Hori Ane baina entrepresaria da
d.*Hori Ane eta nire laguna da
e. Ane nire irakaslea eta nire laguna da

Bi eraikuntzak bereizteko beste froga bat, elementu desberdinez galdetzeko orduan azaltzen da: eraikuntza predikatiboen bigarren elementuaz galdetzeko *zer* edo *nolako(a)(k)* Nz-hitzak erabiltzen ditugun bitartean, eraikuntza ekuatiboen lehenengo edo bigarren elementuaz galdetzeko, *nor* edo *zein* erabiltzen dugu.

(12) Zer da Ainhoa?
a. Ainhoa {irakaslea/nire lagunik onena} da
b.*Ainhoa emakume hori da

(13) Nor da Ainhoa?
a. Ainhoa {emakume hori/nire ahizpa/irakaslea/nire lagunik onena} da
b. *Ainhoa gaztea da[9]

---

[9] Erantzun hau posible litzateke *zein da Ainhoa?* galderaren erantzun modura eta irakurketa identifikatzailean: demagun argazki batean pertsona gazte bat eta pertsona zahar bat daudela. Testuinguru horretan posible dira *zein da Ainhoa?* galdera eta *Ainhoa gaztea da* erantzuna.

Bukatzeko, erabilera predikatiboa baizik ez duten elementuek, esate baterako izenondo-sintagmek (14a), oso ordena markatuak ematen dituzte euskaraz hasierako gunean kokatzen direnean: aurreraturiko elementu hori subjektutzat hartu beharrean topikalizaturiko predikatutzat jotzen da. Eraikuntza predikatiboetan zein ekuatiboetan parte har dezaketen elementuek berriz (14, b, c, d), perpausaren hasieran kokaturik ez dituzte horren esaldi markatuak ematen: subjektutzat har daitezke. Eraikuntza ekuatiboetan baizik ezin azal daitezkeen izen-sintagmek noski (14e), ondorio ezinhobeak ematen dituzte hasierako gune horretan.

(14) a. Gaztea, Ainhoa da
b. Nire lagunik onena, Ainhoa da
c. Irakaslea, Jon da
d. Emakume hori Ainhoa da
e. Gu Herria gara

Euskararena baino askoz ere ordena zurrunagoa duten hizkuntzetan, hala nola ingelesez, ordenaketa markatutzat hartu beharrean, agramatikaltzat jotzen dira hasierako gunean predikatua daramaten esaldiak. Eraikuntza ekuatiboetan onargarriak dira bi ordenak (Rapoport-etik (1987) harturiko adibideak)

(15) a. Tali is a fool
b.*A fool is Tali
(16) a.Tali is that woman over there
b.That woman over there is Tali

Laburbilduz, *izan* aditzarekin azaltzen diren eraikuntzen artean, ekuatiboak eta predikatiboak sintaxiaren ikuspegitik bereizteko zenbait froga eskaini dugu:

(a) Bigarren gunean *-a(k)* bukaeradun izen bat jartzen bada, eraikuntza anbiguoa izaten da; elementu hori izen propio, izenordain edo erakusle bat bada ordea, ez dago anbiguitaterik, ekuatibotzat jotzen baita ezinbestean.

(b) Eraikuntza predikatiboetan halabeharrezkoa da bi elementuen arteko (eta aditzarekiko) komunztadura morfologikoa, ekuatiboetan ordea, komunztadura hori ez da halabeharrezkoa, aditzak itxuraz elementu bakarrarekiko komunztadura azaltzen duelarik.

(c) Multzo bateko elementuek (erreferentziarik gabekoek) baizik ez dute onartzen *halakoa(k)* delakoaren bidezko ordezkapena. Hizkuntza erromantzeetan *lo* edo *le* izenordainen bidezko ordezkapenak jokaera bera azaltzen du. Froga hau beraz, eraikuntza predikatiboen adierazle litzateke.

(d) Aurreko frogen bidez bereiziriko eraikuntzak koordinatzean, ondorio agramatikalak lortzen dira.

(e) Izenki-predikatuez galdetzeko *nolakoa* edo *zer* Nz-hitzak erabiltzen diren bitartean, eraikuntza identifikatzaileen elementuez galdetzeko, *nor* edo *zein* erabiltzen dira.

(f) Ekuatibotzat har daitezkeen adierazpenek, antzeko balio pragmatikoa duten perpausak ematen dituzte bi elementuen ordena edozein izanik ere, eraikuntza predikatiboen elementuak alderazten badira berriz, oso ordena markatuak lortzen dira euskaraz, eta ordena zurrunagoa duten hizkuntzetan, ondorio agramatikalak ere ikus daitezke.

4.3.2. Eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen arteko bereizketa

Aurreko sailean ikusi dugunez, *izan* aditzarekin eratzen diren eraikuntza horien artean bi sail bereiz daiteke argi eta garbi: ekuatiboak eta predikatiboak. Bereizketa horren gakoa aurkitzeko, begira diezaiegun anbiguoak diren eraikuntzei.

(1) a. Irakaslea Mikel da
b. Mikel irakaslea da

Hemen errepikatu dugun (1b) adibidearen anbiguitatearen arrazoia, *-a* bukaeran datzala pentsa liteke, *irakasle* izena izanik, bukaera hori zenbaki-komunztaduratzat edo izen horri erreferentzia zehatza eskaintzen dion determinatzailetzat har baitezakegu. Horrela, izen soilaz osoturiko predikatua bagenu, irakurketa predikatiboa baizik ez litzateke geratuko: *Mikel irakasle* {*da /dago* }.

Irakurketa predikatibo eta ekuatiboaren artean dagoen ezberdinatasuna beraz, *-a* atzizki horren izaerarekiko harreman estuetan egon liteke. Horrela, erreferentzia mugatua duten NPak (determinatzaile mugatua daramaten izen arruntak, izen propioak edo pertsona-izenordainak) ez dira anbiguoak eraikuntza ekuatiboetan baizik ez baitute parte hartzen; modu berean, ez dira anbiguoak mugatzailerik gabeko izen arruntak, beti subjektuaren ezaugarrien zehaztapentzat hartzen baitira eta ez subjektuaren ekuazio baten partaidetzat. Anbiguoak diren bakarrak, *-a(k)* bukaera duten izen arruntak dira, subjektuaren ezaugarritzat edo subjektuaren izaeraren identifikatzailetzat har baitaitezke.

Aurreko azpiatalean aditzera eman dugunez, eraikuntza predikatiboetan ez da posible *-a(k)* bukaera bi elementuen arteko komunztadura ez badago. Ekuatiboetan berriz, posible da bukaera hori komunztadurarik ez dagoenean ere.

(6) a. *Mikel eta Ander beharrezkoa dira
b. Mikel eta Ander irakasleak dira

(5) a. Herria langileak dira
b. Langileak Herria dira
c. Gu Herria gara
d. Herria gu gara

Eraikuntza ekuatiboetan (5), komunztadura baino, markaturiko ezaugarrien 'garraio' bat edo ezaugarrien egokitze bat dagoela esan daiteke. Aditzean bi elementuen artean markatuenaren ezaugarriak (plurala, lehenengo edo bigarren pertsona) azaltzen baitira. Edozein modutan, bi elementuetariko bat izen arrunta bada, posible da *-a(k)* bukaera benetako komunztadura ez egonik ere.

Beraz, eraikuntza ekuatiboetan *-a(k)* bukaera NPari erreferentzia ematen dion determinatzailea den bitartean eraikuntza predikatiboetan komunztadura morfologikoaren adierazlea baizik ez dela pentsa liteke.

Bistan da *-a(k)* bukaera horren izaera bikoitza defendatzea zeharo antiekonomikoa dela: eta hipotesi minimoa, eraikuntza 'predikatatiboetan' zein 'ekuatiboetan' (eta argumentu arruntetan azaltzen dena ere) 'determinatzailearen' kategoriakoa dela onartzea liteke. Ondorioz, morfologiazko marka horren barnean bi kategoria bereiz daitekeela defendatu ahal izateko, beren sintaxizko jokaera desberdina jarri behar da agerian.

Euskal DParen ezaugarririk nabarienak bi dira:

(i) DParen barnean ez da komunztadurarik gertatzen, zenbaki eta kasuaren markak DP osoaren bukaeran soilik azaltzen direlarik (17)

(17) a. [$_{DP}$Zure jantzi berriak] ekarri dituzte
b.*[$_{DP}$Zureak jantziak berriak] ekarri dituzte

(ii) DP horretatik ezin atera daiteke inolako elementurik, galderetan DP osoa mugitu behar delarik (18)

(18) a.*Noren$_i$ ekarri dituzte$_V$ [$_{DP}$ ti jantzi berriak] t$_V$?
b.*Nolakoak$_i$ ekarri dituzte$_V$ [$_{DP}$ jantzi ti] t$_V$?
c. [$_{DP}$Noren jantzi berriak]$_i$ ekarri dituzte$_V$ t$_i$ t$_V$?

Gonbara bitez euskararen adibideak, barne-komunztadura duten eta beraien barneko elementuak ateratzea onartzen duten gaztelaniaren determinatzaile-sintagmekin (19, 20).

(19) a. Han traido [$_{DP}$ tus trajes nuevos]
b.*Han traido [$_{DP}$ tu traje nuevos]
(20) a. De quién$_i$ han traido [$_{DP}$ t$_i$ los trajes nuevos]?
b. Cómo$_i$ han traido [$_{DP}$ los trajes t$_i$]?
c.*[$_{DP}$De quién los trajes nuevos]$_i$ han traido?

Izan aditzarekin eratzen diren eraikuntza predikatiboen burua determinatzailea balitz, argumentu arruntetan azaltzen diren ezaugarriak espero litezke; baina, komunztadura (21) eta elementuak ateratzeko aukera (22) ikus daitezke. Bestetik, ez da posible perpaus txiki osoaz galdetzea (22c)

(21) a. Zure lagunak$_i$ [t$_i$ irakasleak] dira
b.*Zure lagun$_i$ [t$_i$ irakasleak] dira
c.*Zure lagunak$_i$ [t$_i$ beharrezkoa] dira
(22) a. Nortzu$_i$ dira$_V$ [t$_i$ irakasleak] t$_V$
b. Zer$_i$ dira$_V$ [zure lagunak t$_i$] t$_V$
c.*[Nortzu irakasleak]$_i$ dira$_V$ t$_i$ t$_V$

Ondorioz, eraikuntza predikatiboetan *-a(k)* bukaera determinatzaileak ez bezala jokatzen duela esan daiteke.

Eraikuntza ekuatiboetara iraganik, ikusi (5) bezalako adibideetan ez dagoela benetazko komunztadura morfologikorik: elementu bat pluralean dagoen bitartean, bestea singularrean dago; gainera haietariko bat izenordaina denean horrek ez du pertsona-komunztadurarik egiten izen-sintagma batekin edo beste pertsona batean doan beste izenordain batekin. Hala ere, hasierako

gunean azaltzen den elementua edozein motatakoa izanik ere, aditzean bi elementuen ezaugarrien artean markatuenak azaltzen dira (plurala, lehenengo edo bigarren pertsona e.a.).

Eraikuntza ekuatiboetan, bi elementu desberdinen arteko identifikazioa egiten da. Beraz, identifikatzen diren bi elementu horiek, erreferentzia bera dutela, hau da indizekideak direla ulertuko da LF mailan: bi elementuek duten indize horrek pertsona eta zenbakizko ezaugarri batzuk ditu, ezaugari horiek erreferentziarik zehatzena dutenak direlarik.

Eraikuntza ekuatiboetan azaltzen den *-a(k)* bukaera determinatzaile bati dagokiola pentsatzeko hainbat arrazoi eskain daiteke:

(i) Eraikuntza ekuatiboetan, erreferentziaren (indizeen) garraio bat gertatzen bada, bertan parte hartzen duten bi elementuek erreferentziadunak izan behar dutela pentsatu behar dugu. Abney-ren 'Determinatzailearen Hipotesia' onartuz behintzat, NPei erreferentzia eskaintzen diena, determinatzailea da hain zuzen ere.

(ii) Eraikuntza ekuatiboetan, *-a(k)* bukaera azal daiteke benetako morfologiazko komunztadurarik ez dagoenean ere. Beraz, bukaera horren funtzioa ez da komunztadura hutsa egitea.

(iii) Eraikuntza hauetan, predikatiboetan ez bezala, determinatzailearen kategoriakotzat har daitezkeen elementuak inolako NPrik gabe azal daitezke, hala nola erakusleak edo izenordainak.[10] Gogoratu (2) adibideak.

---

[10] Pertsona-izenordainei dagokienez, bi hipotesi proposa daiteke: D buruak osagarri modura duen N buruan sortzen direla edo, determinatzaileen sailekoak izanik, D buruaren gauzaketak direla.

Abney-ren (1987) arabera, pertsona-izenordainek, determinatzaileek bezala jokatzen dute eta ez izenek bezala; beraz, determinatzaileen sailekoak direla pentsa daiteke:

(a) Izenordainek ez dituzte inoiz azaltzen izenek azaltzen dituzten espezifikatzaileak (determinatzaileak, jabeak, izenondoak, kuantifikatzaileak)

(b) Egoera batzuetan, izenekin batera azaltzen dira (*gu irakasleok*)

(2) a. Irakaslea hori da
b. Irakaslea zu zara

Laburbilduz, eraikuntza predikatiboetan, *-a(k)* bukaera, harreman zuzenean dago zenbaki-komunztadurarekin; eraikuntza ekuatiboetan ordea, beharrezkoa da bukaera hori berez mugatua ez den izen bat (hau da izen propio bat, erakusle bat edo izenordain bat) ez dagoen bakoitzean. Azken *-a(k)* bukaera horren eginkizuna beraz, hurbilago dago determinatzailetik espero dezakegun funtziotik eraikuntza predikatiboetan aurkitzen dugun *-a(k)* bukaerarena baino, predikatiboena komunztaduraren adierazle morfologikoa dela dirudielarik.

Bi eraikuntza-mota hauen arteko ezberdintasunen azpian beraz, hemengo lan osoan zehar egiten ari garen bereizketa bat dago; predikatuen eta argumentuen arteko bereizketa alegia: eraikuntza ekuatiboen bi elementuak argumentuak dira eta beraz edozeinek bete dezake subjektuaren lekua; eraikuntza predikatiboen bigarren elementua berriz, predikatua da eta ezin ager daiteke argumentu-guneetan.

Argumentuek paper tematikoa eta kasua jaso behar dituzte. Eraikuntza ekuatiboen bi elementuak argumentuak badira, biek beharko dute kasua eta paper tematikoa. Eraikuntza predikatiboen bigarren elementua predikatua denez, definizioz ez du ez kasurik ez eta paper tematikorik jasotzeko beharrik; alderantziz, bete behar duen baldintza argumentu bati egiturazko harreman egokiaren bidez loturik egotea da.

Bestetik, badago 'argumentutasun' horrekiko harreman estuetan dagoen beste gertaera bat: euskaraz, eta beste hizkuntza askotan, argumentuek

---

(c) Determinatzaileek bezala, zenbaki, jenero eta pertsonaren ezaugarriak eramaten dituzte

(d) Hiztegi-sail itxia osotzen dute

(e) Erreferentzia zehatza eskaintzen dute, baina ez dute inolako deskribapenik eskaintzen

determinatzaile bat azaldu behar dute halabeharrez, determinatzailerik gabeko NP argumentuak ezinezkoak direlarik. Determinatzailerik gabeko predikatu-NPak ordea, onargarriak ezezik, halabeharrezkoak izaten dira kasu askotan (23d).

(23) a. *Artzain berandu etorri da gaur goizean
b. Gazta hau Gorbeiako {*artzaini/artzain bati/artzain horri} erosi diogu
c. Mikel {artzaina/artzain} da
d. Mikel {artzain/*artzaina} joan zen Ameriketara

Determinatzailea mota askotakoa (mugatua, mugagabea, erakuslea) izan daiteke, baina NPek determinatzaile bat behar dute argumentuak izateko.[11] Izen propioek determinatzaile ageririk ez badaramate ere, DP mailakoak direla onar daiteke kasu honetan ere. Izan ere, katalana bezalako hizkuntzetan eta baita gaztelaniaren zenbait dialektotan ere, azaldu egiten da determinatzaile ageri bat izen propioen aurrean (24).

(24) a. En Pere no sap si ho farà
'Pere-k ez daki egingo ote duen'
b. En Joan entrà en l'habitació
'Joan gelan sartu zen'

Pertsona-izenordainak, argumentuen gunean azaltzen diren elementuak dira modu berean eta berdin DP mailakoak direla onar dezakegu.

Hortaz, ondoko ondorio hau atera daiteke, orain arte ikusitako datuetatik: argumentutzat har daitezkeen 'izenen' eta predikatutzat har daitezkeen 'izenen' artean dagoen ezberdintasuna, hurrenez hurren DP edo NP mailakoak izatea da. Beraz, eraikuntza ekuatiboetan bi DP (argumentu)

---

[11] Abney-ren (1987) 'DParen Hipotesian', 'Kasuaren iragazkia' eta 'θ-irizpidea' gainditu behar dituztenak, DPak dira eta ez NPak, eta modu berean DPak dira eraikuntza pasiboetan eta WH-mugimenduan mugitzen direnak.

dugun bitartean, eraikuntza predikatiboetan DP argumentu bat eta NP (AP, PP...) predikatu bat dugu, *-a(k)* bukaera zenbakizko komunztaduraren morfologiazko marka delarik.

Horrela, eraikuntza ekuatiboetan paper tematikoa eta kasua behar duten bi DP daude, eta predikatiboetan berriz, kasua eta paper tematikoa behar duen DP bat eta argumentu horri paper tematikoa ezartzen zaioneko NP (AP edo PP) bat daude.


Gogora bitez 4.2. azpisailean eskaini diren 'predikatu' eta 'argumentuen' definizioak: DPak argumentuekin identifikatzen baditugu, DP horiek argumentu-kateak eratzen dituztela ziurtatu behar dugu; NPek ordea, argumentu-katea baten buztana soilik eduki behar dute barnean.

4.3.3. Eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen adierazpena

Aurreko sailetan lorturiko datuak erabiliz, sail honetan *izan* aditzarekin ager daitezkeen bi eraikuntza-motetarako adierazpena eskainiko dugu. Hasteko, predikatu-funtzioa duten izenak NP mailakoak direla eta predikatu-harreman guztietan subjektua eta predikatua biltzen dituen islapen funtzional bat behar dela defendatu dugu.

Izan aditzarekin azaltzen diren predikatu-eraikuntza hauetan nolabaiteko islapen funtzionalaren morfologiazko aztarna zenbaki-komunztadura da. Demagun, beraz, predikatu-NP horren gainean NuP islapena dagoela. Bestetik, III. atalean predikatu-eraikuntzetan azaltzen den *izan* aditza eduki semantiko betea duen aditza izan gabe laguntzaileen sailekoa dela defendatu dugu. Horregatik, NuP hori osagarri modura hartzen duena V izan beharrean I(nfl) (edo nahi bada I(nfl) kategoriaren Aux burua) da gure adierazpenean.

(25)



Infl (edo Aux) buru funtzionala da, eta beraz ez du θ-sarerik. Horrela, NuP, *izan* laguntzaileak azpikategorizaturiko perpaus txiki osagarritzat hartu beharrean, buru modura N duen NP predikatuak bi kategoria funtzional (NuP, IP) islatzen dituela uler dezakegu. *Izan* aditzarekin azaltzen diren perpaus txikiak aditz horrek azpikategorizaturiko osagarriak izan beharrean egitura osoa perpaus independiente bat dela esan daiteke beraz; *izan* aditza pertsona, modua eta tenpusari dagozkien marka morfologikoetarako euskarria baizik ez litekeelarik.

Ikusi (25) adierazpen horretan argumentuetarako eta predikatuetarako proposatu ditugun definizioak betetzen direla: NP predikatua, (DP_i, t_i) argumentu-katearen buztana baizik ez duen islapen lexiko nagusia (islapen perfektua) da. Bestetik, (DP_i, t_i) katea hori, NP predikatuaren subjektuari dagokio. Eta bukatzeko, IP, predikazio-harremanean parte hartzen duten eskakizun guztiak betetzen direneko maila da, eta beraz, perpaus independientea. [12]

Konfigurazio horretan, NP predikatuak ez du ez θ-paperik ez eta kasurik ere, Nu buru funtzionalaren osagarria baita. DPak berriz, N buru lexikotik hartzen du θ-papera, eta [spec, I] gunean, kasua jasotzen du. Beraz, predikatu eta argumentuen definizioak, bete egiten dira .

Bestetik, eraikuntza ekuatiboetan, bi argumentu (eta ustez bi DP) dugula esan dugu. Kasu honetan, *izan* aditzaren osagarri modura txertatzen den elementua, argumentuen sailekoa da; eta beraz, θ-papera eta kasua behar ditu. Osagarri modura argumentu hori hartzen duen *izan* aditzak, θ-sare bat duen V buru lexikoa izan behar du.

Hala ere, dakigunez, *izan* aditza inakusatiboen sailekoa da; eta beraz, argumentu bakarra hartzen du. Bestetik, eraikuntza ekuatiboetan bi DP egoten den arren, argumentu bakarrarekiko komunztadura azaltzen da (26).

---

[12] Aditzen baten osagarri modura txertaturik balego, argumentua litzateke.

Beraz, bi DP dagoen arren, paper tematiko bakar bat eta elementu bakarrarekiko aditz-komunztadura dagoela dirudi, horrek argumentu-katea bakarra dagoela esan nahi duelarik.

(26) a.*Zu ni baninduzu
b. Zu ni bazina

Gogora bedi komunztadura hori berezia dela: elementu bat plurala denean horrekiko komunztadura behar da beti (27), elementuetariko bat pertsona-izenordaina bada, aditzak izenordain horrekiko pertsona-komunztadura azaltzen du (28), eta bukatzeko, bi elementuak izenordainak direnean, aurreko gunean azaltzen den elementuarekiko komunztadura agertzen da (29). Gogoratu aurreko sailetako adibideak:

(27) a. Langileak Herria dira
b. Herria langileak dira
(28) a. Gu Herria gara
b. Herria gu gara
c.*Herria gu da
(29) a. Zu ni bazina
b.*Zu ni banintz
c. Ni zu banintz


Eraikuntza ekuatiboetan bi argumentuen arteko identifikazioa gertatzen da; beraz, bi argumentu horiei erreferentzia bera egokitzen zaie. Adizki jokatuan argumentu bakarrarekiko komunztadura azaltzen denez, VPtik kanpo argumentu bakarra irten dela pentsatu behar dugu. Bestetik, *izan* aditza inakusatiboen sailekoa izanik, paper tematiko bakar bat ezar dezake. Beraz, bi argumentu dagoen arren, katea bakarra dugu, hau da, buru eta buztan bakarra ditugu.

Beste argumentua θ-irizpidea eta kasuaren iragazkia gainditzeko, bi baldintza horiek betetzen dituen argumentuarekin identifikatu behar da: horrela, ondo eraturiko katearen indize bera hartzen duenez, katea horren parte da eta bera ere, ongi eraturik dago.


Izan aditzetik paper tematikoa hartzen duen DPa Varen osagarri modura sortzen dela dakigu aditz inakusatiboetarako onartu ohi den definizioa erabiliz. Arazoa ekuazioaren beste elementua txertatzeko orduan sortzen da. Bi hipotesi desberdin burura dakizkiguke txertakuntza horretarako.

(i) Bigarren DPa, lehenengo DParen barnean dago, beraren osagarri edo espezifikatzaile modura txertaturik (30).
(ii) Bigarren DPa VParen beste toki batean txertatzen da: Varen espezifikatzaile edo adjunktu modura alegia (31).


(30) a.




b.



(31) a.



b.



Ikus daitekeenez, lau konfigurazio horietan V matrizeak osagarri modura duen DPa θ-markatuko luke. Bigarren elementuak berriz, θ-

identifikazioaren bidez jaso beharko luke bere θ-papera. Identifikazio[13] horren arabera, bi DPek indize bera (hau da erreferentzia bera) eta bien artean jenero, zenbaki eta pertsonaren ezaugarri markatuenak jasoko lituzkete: bi zatiz osoturiko argumentu bat osotuko lukete bi DPek.

Lau konfigurazio horien arteko ezberdintasuna beraz, 'identifikazioaren' mekanismoari dagokio. Ikus dezagun zein adierazpen egoki dakiekeen lan honetan zehar egin ditugun onarpen teorikoei.

(30a) eta (30b) adierazpenetan DP bat bestearen barnean dago eta beraz identifikazioa DP horren barnean gertatzen den prozesua da. Ikus daitekeenez, konfigurazio horretan D matrizeak txertaturiko DPa gobernatzen du eta beraz, θ-identifikaziorako egokia da.

(31a) eta (31b) adierazpenetan, bi DPak independienteki txertaturik daude VParen barnean. Horrek, itxuraz, biak V horren argumentuak izatea eta beraz V horrek θ-markatuak izatea eskatuko luke. Baina aditz inakusatiboek paper tematiko bakarra deskarga dezakete (beren osagarrian hain zuzen). Beraz, espezifikatzailean kokaturiko edo adjunktaturiko argumentuari beste mekanismo baten bidez ezarri behar litzaioke kasua, identifikazioaren bidez hain zuzen, identifikazio hori beste argumentuarekin eta ez Varekin gertatu behar litzatekeelarik.

Identifikaziorako, θ-markaketarako bezala, gobernu-harremana behar dela onartuz, ikus dezagun, lehenengo D buruak ez duela bigarren DPa m-komandatzen eta beraz, ezin goberna dezakeela.

Hala ere, adierazpen horiek, badute abantaila bat: eraikuntza ekuatiboak *izan* aditzarekin baino ezin azal daitezke. Horrela, bi argumentuak VParen barnean txertatzen baditugu, identifikazioa baimentzea *izan* aditzaren hiztegi-

---

[13] Gogora bedi 1.2.2. sailean deskribatu diren deskarga tematikoaren mekanismoak (Higginbotham, 1985, 1987)

mailako berezitasuntzat har liteke. Identifikazioa DParen izaerari dagokion aukera balitz ordea, edozein aditz inakusatibok horrelako eraikuntzak onartzea espero liteke.

Edozein modutan, badugu hautapen-gertaera hau azaltzeko beste bide bat: *izan* aditzak osagarri modura duen DPa hautatuko luke, edo nahi bada, DP horren burua eta horrela, eragina izango luke D hori eraikuntza ekuatibo baten parte izateko gaitasunaren gainean ere.

Ondorioz, (30) adierazpenak bi DPren identifikazioa azaltzeko analisi egokiagoak direla esan dezakegu, azken batean identifikazioa argumentu horien D buruen artean gertatzen den mekanismoa denez, θ-markaturiko determinatzailearen eta berarekin identifikatu behar den DParen arteko gobernu-harremana eskatuko bailuke.

Azter ditzagun orain (30a) eta (30b) adierazpenetan bi DPek duten egitura, eraikuntza ekuatiboetan azal daitezkeen kasu guztien berri emateko egokiak ote diren erabakitzeko asmoaz.

1.DP	2. DP
(izena+gen.)+izen arrunt.+det.	(izena+gen.)+izen arrunt.+det.
(izena+gen.)+izen arrunt.+det.	izen propioa
izen propioa	(izena+gen.)+izen arrunt.+det.
izen propioa	erakuslea
erakuslea	izen propioa
izen propioa	pertsona-izenordaina
pertsona-izenordaina	izen propioa
pertsona-izenordaina	erakuslea
erakuslea	pertsona-izenordaina
pertsona-izenordaina	pertsona-izenordaina

Ikus daitekeenez, (30a) adierazpenean bi DP dugun arren, ez dugu NP bat baizik. Horrela ekuazioaren bi elementuak erakusleak edo pertsona-izenordainak badira, ez dugu arazorik izango, bi D buru desberdin baitugu elementu horiek txertatzeko.[14]

(32) a. Zuek horiek zarete
b. Horiek zuek zarete

Elementuetariko bat soilik barnean izen bat dutenetarikoa denean (izen arrunta edo izen propioa), badugu izen hori txertatzeko NP bat; baina NPa duena txertaturiko DPa denez, ordena-murriztapenek agertu behar lukete. Hala ere, bi ordenaketak dira posibleak (33).

(33) a. Hori Mikel da
b. Mikel hori da
c. Gure irakaslea zu zara
d. Zu gure irakaslea zara

Areago oraindik, posible da bi elementuak izen bat dutenetarikoak izatea. Orduan, halabeharrezkoa da bi NP onartzen duen egitura bat. Horrenbestez, (30a) egitura, baztertu beharrekoa da.

(34) a. Gure irakaslea Mikel da
b. Mikel gure irakaslea da

Hortaz, (30b) egitura baizik ez zaigu geratzen: analisi horren arabera bi DPek izan dezakete NP bana eta beraz, (33) eta (34) adibideen berri eman daiteke modu horretara. Hala ere, analisi horri ere eragozpen batzuk jar dakizkioke:

---

[14] Kasu horretan soberazko NP bat genuke, baina beti pentsa daiteke elementu huts batez osoturik dagoela eta elementu hori testuingurutik berreskura daitekeela.

(i) Normalean islapen funtzionalen espezifikatzaileak mugituriko elementuez betetzen diren aukerako guneak izaten dira eta ez D-egituratik beteriko guneak (Abney, 1987). Hala ere, hau ezin har daiteke eragozpen garrantzitsutzat, erregela gabe orotarapena baita.

(ii) Eraikuntza ekuatiboetan, eraikuntza predikatiboetan bezala, posible da DP matrizetik elementuak ateratzea (35a). DP arrunten jokaera ordea, bestelakoa da (35 b,c).

(35) a. Nor_i $zara_V$ [$_{DP}$ t_i zu] t_V?
b.*$Noren_i$ ekarri $duzu_V$ [$_{DP}$ t_i liburua] t_V?
c.*$Nolako_i$ ekarri $duzu_V$ [$_{DP}$ t_i liburua] t_V?

DP osoaz galdetzeko orduan ere, mota bakoitzeko DPak bere jokaera azaltzen du (36a /36 b,c).

(36) a. *[$_{DP}$Nor zu]$_i$ $zara_V$ t_i t_V?
b. [$_{DP}$Noren liburua]$_i$ ekarri $duzu_V$ t_i t_V?
c. [$_{DP}$Nolako liburua]$_i$ ekarri $duzu_V$ t_i t_V?

Adibide horiek '-tze-perpausetan' eta 'gen-tze-perpausetan' azaltzen zaizkigun NZ-hitzen ateratze-ereduekin konparatzen baditugu, ateratzearen arazoa determinatzailea bera gabe beraren barneko antolaketa izan daitekeela pentsa dezakegu.[15] Izenaren modifikatzaileak (izenondoak eta izenlagunak) ezin atera daitezke DPtik, baina argumentuak bai (35a, 37a), atera daitezke

(37) a. Nor_i nahi $duzu_V$ [$_{DP}$ t_i etortzea] t_V?
b. [$_{DP}$Nor etortzea]$_i$ nahi $duzu_V$ t_i t_V?
(38) a. *$Noren_i$ nahi $duzu_V$ [$_{DP}$ t_i etortzea] t_V?
b. [$_{DP}$Noren etortzea]$_i$ nahi $duzu_V$ t_i t_V?

---

[15] Perpaus hauei buruzko argi gehiago nahi duenak jo beza Odriozola & Zabala (1993) lanera.

Azalpenik gabe dagoen arazo bakarra (36a) adibidearen gramatikaltasunik eza da: zergatik ez da posible DP matrize osoaz galdetzea? (ikus 30b konfigurazioa) NZ-hitzek kasua behar dute eta beraz, baliteke arazo horren eragilea kasuarekin zerikusirik duen gertaeraren bat izatea. Ikus dezagun beraz, (30b) eraikuntzan nola eman daitekeen argumentu bakoitzak behar duen kasuaren berri.

Demagun θ-identifikazioa gertatzen deneko mailan 'Paper Tematikoen Ikusgarritasunaren Oinarria' beteta egon behar duela. Argumentuek, beren paper tematikoak ikusgarriak izateko, kasua eduki behar dute. Beraz, D matrizeak, txertaturiko DPari paper tematikoa garraiatu ahal izateko, kasua izan behar du. Harreman tematiko guztiak D-egituran ezartzen direla kontutan hartuta, DP matrize horri, kasua, berezko mekanismoaz, hau da paper tematikoarekin batera, ezarri behar zaio. Ondorioz, *izan* aditzak osagarri modura duen DP horri paper tematikoa eta kasua ezarri behar dizkio berezko mekanismoaz.[16]


Behin DP matrizearen paper tematikoa ikusgarri izanda, hau da behin argumentu horrek kasua izanda, posible da θ-identifikazioa eta txertaturiko DPak ere, bere paper tematikoa jaso ahal izango du. Hala ere, paper tematiko hori ikusgarri izateko, kasua ere behar du argumentu horrek. Beraz, [spec, I] gunera mugituko da, han kasua hartu eta aditzarekiko komunztaduran parte hartuko duelarik.

Ikus daitekeenez, argumentu bakoitzak maila batean hartzen du kasua eta beraz, NZ hitzaren mugimendua gertatu aurretik jadanik banandurik daude bi argumentuok. Horrela, DPak osotasunean ezin era dezake galderazko hitz bat.

---

[16] Belleti-ren (1988) arabera, aditz inakusatiboek egiturazko kasua ezartzeko ahalmena ez badute ere, mantendu egiten dute berezko kasua ezartzeko ahalmena. Horrela ba, berezko kasu-ezarketa hori beste egitura batzuetarako eta beste hizkuntza batzuetarako ere balio lezake eta beraz, ez da 'ad hoc' egindako onarpena.

Hona hemen kasuaren arazoa ulertzen lagun dezaketen zenbait adierazpen.



Posible denean, identifikazioan ezaugarrien garraio bat gertatzen da. Horrela, (39b) analisian, egiturazko kasuaren bila mugitzen den DPak, beste DParen ezaugarriak daramatza, eta horrela, aditzean ere, ezaugarri horiek azaltzen dira. Ondorioz, analisi hau eraikuntza ekuatiboen jokaera azal dezakeela eta beraz, egokia dela, esan dezakegu.

Laburbilduz, *izan* aditzarekin azaltzen diren zenbait eraikuntzaren anbiguitatea buru modura duten elementuari zor zaio: eraikuntza predikatiboak Nu buru funtzionalaren islapenak dira. Eraikuntza ekuatiboetan berriz, bi DP dago, bata bestearen espezifikatzailea delarik. DP matrizeak *izan* aditzetik hartzen ditu θ-papera eta berezko kasua, eta bi baldintza horiek bete ondoren, gai da bere espezifikatzailean txertaturik dagoen DPari paper tematikoa identifikazioaz garraiatzeko.

Identifikazio horretan erreferentzia-indizeak eta pertsona, jenero eta zenbakiaren ezaugarrien garraio bat gertatzen da. Bi DPak, indize bera eta bi DPen arteko ezaugarririk markatuenak edukitzera heltzen dira. Horrela, kasuaren beharrak direla eta, [spec, I] gunera mugitzen den elementua

txertaturikoa bada ere, aditzarekiko komunztadura horretan beraren ezaugarriak agertu gabe, bi elementuen ezaugarrien artean markatuenak azaltzen dira.

4.3.4. Komunztaduradun partizipioa eta izenondoa

Komuzntaduradun partizipio eta izenondoen artean, eraikuntza predikatibo eta ekuatiboen arteko anbiguitateak daudela pentsa liteke: *-a(k)* bukaera determinatzaile mugatua edo komunztaduraren adierazle morfologiko hutsa izan daiteke.

(40) a. Zure liburua, zaharra da
b. Zure liburua, hondatua da

Ondoko parafrasien bidez, (40) adibidearen bi perpaus horiek irakurketa predikatibo (i) eta ekuatiboaren (ii) arteko anbiguitatea dutela jarri dugu agerian:

(40'a) (i) Zure liburua, zahar dago
(ii) Zure liburua, zaharra da eta ez berria
(40'b) (i) Zure liburua, hondatuta dago
(ii) Zure liburua, hondaturikoa da eta ez berria

(i) irakurketan, eraikuntza predikatibo bat dugula antzeman daiteke eta beraz nolabaiteko kategoria funtzionala (FP) islatzen duen AP edo VP kategoriako predikatu bat dugula pentsa dezakegu. FP predikatuaren islapen hedatua, bere aldetik, Aux buruaren osagarri modura txertaturik legoke. AP edo VP predikatu horretan, kasua behar duen argumentu bat legoke, eta gora egin beharko luke [spec, Aux] gunera, bere islapen hedatuaren [spec, F] gunetik pasatzean A edo V predikatu-buruarekiko komunztadura gauzatuko litzatekeelarik. Predikatuaren barnean beraz, goraturiko argumentuaren

aztarnak geratu beharko luke. *Izan* aditza, laguntzailea litzateke irakurketa horretan.

(41i) a. [... liburua]$_i$ [$_{FP}$ t_i [$_{AP}$ [$_{A'}$ t_i t_A]]zaharra$_A$] da
b. [... liburua]$_i$ [$_{FP}$ t_i [$_{VP}$ t_i t_V] t_V] hondatua $_V$] da

(ii) irakurketa ekuatiboetan ordea, identifikatzen diren bi argumentu izan behar dugu. Bi argumentu horiek beraz, DP mailakoak lirateke: bata, DP matrizea *izan* aditzaren osagarri modura txertatuko litzateke, eta bestea DP matrize horren espezifikatzailean. DP matrizeak aditzetik hartuko luke paper tematikoa eta berezko kasua eta θ-identifikazioaren bidez, paper tematikoa garraialuko lioke espezifikatzailean lukeen elementuari. Baina, azken argumentu horrek [spec, I] gunera mugitu beharko luke egiturazko kasua hartzera. Ikus daitekeenez, irakurketa honetan, *izan* aditzak, lexikoa izan behar du eta ez laguntzailea bere osagarriari paper tematikoa eta berezko kasua ezarri behar baitizkio.

Bestetik, DP matrizea, A edo V-Asp buruen argumentu bati dagokio. Argumentu hori, erlatibozko perpausetan bezala, operatzaile bat da, eta AP edo AspP sintagma osoaren gainean besarkadura har dezakeeneko gune batera mugitu behar da, bertan DP osoaren erreferentzia hartuko duelarik. Operatzaile horrek bere jatorrizko tokian aldagai bat utziko du.

(41ii) a. [... liburua]$_i$ [$_{DP}$ t_i [$_{AP}$ Op [$_{A'}$ t_o t_A]] zaharra$_A$] da
b. [... liburua]$_i$ [$_{DP}$ t_i [$_{AspP}$ Op [$_{VP}$ t_o t_V] t_{V+Asp}] hondatua $_{V+Asp}$] da

4.4. Egoera-mailako predikatuak eta izaki-mailako predikatuak. Sintaxizko adierazpena

4.4.0. Sarrera

Bigarren atalean ikusi dugunez, izenki-predikatuen artean bi sail egin daiteke semantikaren ikuspegitik. Bi sail horien existentzia sintaxizko hainbat frogaren bidez jar daiteke agerian: batzuetan ezinezkoa izaten da bi mota horietako predikatuak koordinatzea (42).

(42) a.*Zure lagunak beldur eta atseginak dira
b.*Jon pozik eta indartsua da
c. Ander gaztea eta indartsua da
d. Miren triste eta nekaturik {dago/da}

Bestetik, zenbait aditzek hautapen-murriztapen garbiak azaltzen dituzte, osagarri modura soilik mota bateko predikatuak onartzen dituztelarik (43).

(43) a. Jon pozik { da[17]/*bihurtu da/*egin da}
b. Jon pozik {dago/jarri da/ azaldu da/ utzi dugu/ dabil}
c. Ura ardo bihurtu zuen
d. Ura ardo {*dago/ *jarri da/*azaldu da/ *utzi dugu}

---

[17] Hiztun batzuentzat onargarria da *izan* aditza *pozik* bezalako predikatu batekin. Hala ere, zenbat eta hegoalderago eta mendebalderago joan hainbat eta beharrezkoagoa da *egon* aditza erabiltzea.

Hirugarrenik, sail batekoak baizik ezin azal daitezke bigarren mailako predikatu modura (44).

(44) a. Haurrak pozik itzuli dira udalekuetatik
b.*Jon beldur hasi da lan berrian
c. Mirenek autoa hondatuta itzuli digu
d.*Haurrak elurra ur atera zuen poltsikotik

Bukatzeko, euskararen euskalki batzuetan, nahikoa da komunztadura/ komunztadura-eza alternantzia sail bateko edo beste bateko predikatuak lortzeko (45).

(45) Haur hau eri da baina ez da haur eria[18]

Euskal gramatiketan,[19] bi mota hauetako predikatuak semantika-mailako ezaugarri baten bidez bereizi dira: izenki-predikatu batzuek izakien ezaugarri iraukorrak adieraziko lituzkete eta besteek, izaki horien behin-behineko ezaugarriak.

Gaztelaniari dagokionez, egileek garrantzi berezia eskaini diote izenki-predikatuak *ser* edo *estar* aditzetariko batekin soilik agertzeko murriztapenari. Bestetik, egile horiek bat etorri dira predikatu hauek dituzten murriztapenak aspektu-mailakoak direla defendatzeko orduan: *estar* aditzak [+perfektibo] ezaugarria duten predikatuak eskatuko lituzke;[20] *ser* aditza ordea, markatugabeko loturazko aditza litzateke eta aspektuaren ikuspegitik markatu gabeko predikatuak hartuko lituzke. Baina, 'perfektibitatearen' definizioaz ez dago horren adostasun handia, askotan loturazko bi aditz hauen eskakizunak azaltzeko adizki-predikatuetarako erabili ohi diren

---

18 Lafitte-ren (1944) gramatikatik harturiko adibidea.

19 Ikus esate baterako, Lafitte, 1944; Goenaga, 1980; EGLU-I , 1985

20 Ikus adibidez, Hanssen, 1913; Gili Gaya, 1961; RAE, 1973; Lujan, 1980, 1981; Navas Ruiz, 1983; Hernanz, 1988; Bosque, 1990.

perfektibitatearen definizioetatik oso urrun dauden definizioak eskaini direlarik (gogoratu bigarren atalaren 2.2.2.2. azpisaila).

Edozein modutan, bistan da bereizketa horiek ez digutela sintaxi-mailan eraginkorra izan daitekeen inolako ezaugarririk eskaintzen euskararako:

(i) Bai ezaugarri iraunkorrak eta bai behin-behineko ezaugarriak edozein kategoriatako (NP, AP, PP) izenki-predikatuen bidez adieraz daitezke; beraz, bereizketa ezin egin daiteke gramatika-kategoriaren bidetik.

(ii) Ikusi dugunez, euskal *izan* eta *egon* aditzen banaketa ez dator bat gaztelaniaren *ser* eta *estar* aditzen banaketarekin. Hala ere, *egon* edo *ibili* aditzekin azal daitezkeen predikatuek sail berezi bati dagozkiola ikusi dugu bigarren atalean. Beste predikatu-mota, *egon* edo *ibili* aditzekin onargarriak ez direnetakoa da.

(iii) Komunztadura-marka jasotzeko ahalmena ere, oso aldakorra da euskalkiz euskalki; eta beraz, ez da oso erabilgarria bi sailetako predikatuak bereizteko orduan.

(iv) *Beldur* bezalako predikatu psikologikoak *izan* aditzarekin azaldu ohi dira. Dena den, ezin koordina daitezke *egon* aditza onartzen ez duten predikatuekin, eta gainera, hiztun batzuek *egon* aditzarekin ere gauzatu ohi dituzte honelako predikatu psikologikoak. Bestetik, ez dira onargarriak bigarren mailako predikatu modura. Horrenbestez, predikatuen bi sailen ezaugarriak dituzte nahastuta.

Sail honetan GBaren esparruan proposaturiko ideia bat erabiliko dugu predikatuen arteko bereizketa horren berri emateko: predikatuen argumentu-egituran 'gertaerari' osotasun modura dagokion 'e' argumentu bat legoke, gertaera horren partehartzaileei dagozkien argumentuez gain.[21]

---

21 'e' argumentua (event argument) predikatuen argumentu-egituran sartzeko ideia Higginbothan-ek (1985, 1987) proposatu du , Davidson-en (1966) 'gertaeren teoriari' jarraiki.

Hala ere, Kratzer-i (1988) jarraiki, 'e' argumentu hori mota guztietako predikatuek ez dutela defendatuko dugu. Kratzer-en arabera, predikatuen artean, bi sail egin daiteke: alde batetik 'e' argumentua duten 'egoera-mailako predikatuak', eta bestetik, horrelako argumenturik ez daukaten 'izaki-mailako predikatuak'.

Bestetik, 'e' argumentu hori duten predikatuek AspP adabegi funtzionala isla dezaketela defendatuko dugu Tenny-ren (1987) ideietan oinarrituz. Beraz, sintaxi-jokaeraren arabera bereiz daitezkeen bi predikatu-sail horien arteko ezberdintasunaren eragilea azken batean AspP kategoria funtzionala islatzeko ahalmena edukitzea ala ez edukitzea dela defendituko dugu[22] (gogoratu bigarren atalaren 2.2.2.2. azpisaila).

Gramatika-kategoria desberdinetako hiztegi-sarrerei dagokienez, ondokoak ikusiko ditugu:

(i) Aditzek beti izaten dute 'e' argumentua hiztegi-sarrera modura, baina aditz batzuek (adizki sintetikoak dituztenek), AspP kategoria islatzeko edo ez islatzeko aukera dute.

(ii) Izenondoen artean, 'e' argumentua dutenak eta ez dutenak daude, argumentu hori dutenen artean halabeharrez AspP kategoria islatu behar dutenak eta islatzeko edo ez islatzeko aukera dutenak daude.

(iii) Predikatuak era ditzaketen izen gehienek ez dute 'e' argumenturik. Esperientzia fisiko edo psikologikoak adierazten dituzten *beldur, gose* edo *lotsa* bezalako izenek 'e' argumentua dute eta egoera-mailako predikatuak era ditzakete.

(iv) Izenki-predikazioan parte hartzen dituzten posposizioen artean, bi multzo bereiziko dugu:

+ Osagarri modura argumentuak hartzen dituztenak: predikatu-buru modura jokatzen duten posposizioak dira.

---

[22] Gaztelaniarako antzeko ideia defendatu dute hainbat egilek: Hernanz, 1988, 1991; Bosque, 1990; De Miguel, 1990; Suñer, 1991. Egile hauek, harremanetan jarri dute AspP kategoria islatzeko ahalmena eta perfektibitatea, Bosque-k perfektibitatea eta 'e' argumentua izatea ere harremanetan jarri dituelarik.

Gehienek 'e' argumentua dute, horrelako 'e' argumenturik ez duten posposizio bakan batzuk badaude ere.
+ Osagarri modura predikatuak hartzen dituzten posposizioak: predikatuen eta subjektuen arteko lotura gauzatzen deneko egiturazko maila eskaintzen dute; ez dute argumentu-egiturarik. Beraz, hurbilago daude buru funtzionaletatik buru lexikoetatik baino.

Ikusiko dugunez, *egon, ibili, jarri* edo *gelditu* bezalako aditzek, edo bigarren mailako predikatuek eskatzen dutena ez da predikatuen perfektibitatea: predikatu inperfektiboak ere onartzen dituzte. Aditz hauek behar dituztenak AspP maila islatu duten egoera-mailako predikatuak dira, Asp burua [+perf.] zein [-perf.] izan daitekeelarik. Horrela, izenki-predikazioaren azterketa honetarako eraginkorra den ezaugarria 'e' argumentua islatzea ala ez islatzea da eta ez hiztegi-sarrerak edo Asp buruak duten [± perf.] ezaugarria.

Izaki-mailako predikatuek ez dute AspP kategoriarik, NuP kategoria islatu ohi dute eta *izan* laguntzailea (edo nor-nori edo nor-nork sailetako laguntzaile bat) islatzen dute, edo bestela, *bihurtu, egin, bilakatu* bezalako aditzen osagarri modura txertatzen dira.

Hala ere, *egon* saileko aditzen hautapen-eskakizunak betetzeko ez da nahikoa egoera-mailako predikatuak izatea. Predikatu horiek beren subjektu egokiei elkartuz 'Predikatu-loturaren Araua' betetzen deneko egiturazko maila behar da. Ondorioz, *egon, ibili, jarri* edo *gelditu* bezalako aditzek egoera-mailako predikatuak dituzten 'perpaus txikiak' hautatzen dituztela ikusiko dugu.

Predikatu adjunktuen kasuan ere, eskakizun bera dago: egoera-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak izan behar dute, perpaus txiki osagarrien eta adjunktuen artean dagoen ezberdintasun nagusia, t edo PRO kategoriako subjektuak izatea delarik.

Bestetik, egoera-mailako predikatua subjektuari elkartzen zaioneko maila AspP bera edo erlaziozko PP bat izan daitekeela ikusiko dugu.

Izan aditza laguntzaileen sailekoa denez, hautapen-eskakizun berezirik ez duela ikusiko dugu: izaki-mailako predikatuak edo egoera-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak, eta baita izaki-mailako edo egoera-mailako predikatu soilak har ditzake.

Bihurtu aditzaren sailekoek, izaki-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak eskatzen dituzte, eta ez dituzte predikatu soilak onartzen. Bukatzeko, *hartu* eta *jo* saileko aditzek *-tzat* erlaziozko posposizioa duten perpaus txikiak behar dituzte.

Ikus daitekeenez, ideia hauek, indartu egiten dute predikatu orok nolabaiteko islapen funtzionalean txertaturik egon behar duelako hipotesia, hau da, predikatu orok nolabaiteko islapen hedatua izan behar dutelako hipotesia.

4.4.1. Aditzen motak eta predikatuen motak

GBaren esparru teorikoan, aditzak, hartzen dituzten argumentuen kopuruaren eta argumentu horien semantika-ezaugarrien arabera sailkatu ohi dira. Torrego-k (1989) aditzetarako bi ezaugarriren araberako sailkapena egitea proposatu du: alde batetik argumenturen bat θ-markatzeko ahalmenaren arabera, [± θ] ezaugarria kontutan hartu behar da; bestetik, [± e] ezaugarria 'e' argumentua edukitze edo ez edukitzearen arabera. Ezaugarri horiek konbinatuz, lau aditz-mota bereiz daiteke.

(46) a. [+θ, +e]
b. [+θ, -e]
c. [-θ, +e]
d. [-θ, -e]

Kratzer-i jarraiki, 'egoera-mailako predikatuak' eta 'izaki-mailako predikatuak' bereiziko lituzkeena, 'e' argumentua edukitzea ala ez edukitzea litzateke; beraz, a. motako aditzek 'egoera-mailako predikatuak' eratuko lituzkete eta b. motakoek 'izaki-mailakoak'.[23] Kratzer-en arabera, 'to know' aditza adibidez, b. sailekoa litzateke 'e' argumentua ez duen aditz estatiboa bailitzateke. c. sailean 'eguraldi-aditzak' eta 'laguntzaileak' sar litezke Torrego-ri jarraiki; eta d. sailean baliteke Grimshaw & Mester-ek (1988) 'light' izenaz bataiatu dituzten aditzak egotea.[24]

---

[23] Argumentu-egituraz hitz egiten dugunean, hiztegi-sarrerez ari gara, hau da X° mailako elementuez. Predikatuez ari garenean berriz, islapen nagusiez hitz egiten ari gara, beraz XP mailako kategoriez.

[24] Gogora bedi aditz hauek ez dutela inolako argumentu-egiturarik eta beren eginkizuna argumentu-egitura duten zenbait hiztegi-sarreraren argumentu-egitura islatzen laguntzea dela. Egile horien arabera, sail horretan sartuko litzateke adibidez japonieraren *suru* 'izan' aditza.

Predikatuak eratzen dituzten hiztegi-sarrerek nolabaiteko argumentu-egitura izan behar dute. Ondorioz, zalantzagarria izan daiteke argumentu-egituran 'e' argumentua baizik ez duten aditzek predikatuak era ote ditzaketen. Eguraldi-aditzek behintzat predikatuak eratzen dituztela dirudi, espletiboak dituzten hizkuntzetan behintzat, espletiboa 'Predikatu-loturaren Araua' betetzeko txertatzen baita subjektu modura. Laguntzaileen kasuan berriz, Vren baten[25] argumentu-egituraren beharra dute, eta predikatuak eratzen ez dituztela pentsa daiteke. Bukatzeko, 'light' motako aditzek ere ez lukete inolako argumentu-egiturarik eta beraz, nolabaiteko argumentu-egitura duen buru baten beharra lukete nolabaiteko predikazio-harremanetan parte hartu ahal izateko.

Izenki-predikatuak era ditzaketen kategorien artean ere (N, A, P) , 'e' argumentua duten eta 'e' argumenturik ez duten hiztegi-sarrerak daudela pentsa daiteke. Beraz, 'egoera-mailako predikatuak' eta 'izaki-mailako predikatuak' ere aurkituko ditugu. Bestetik, ezin espero daiteke aditzetatik kanpo [-θ, +e] motako hiztegi-sarrerarik aurkitzea, aditzak baitira gertaerak adierazi ohi dituzten hiztegi-sarrerak. Bukatzeko, aditzak ez diren [-θ, -e] motako buruak, predikatuak eratu gabe argumentuak eratzen dituzten ohizko hiztegi-sarrerak lirateke: argumentu-egiturarik ez duten izenak edo erreferentziazko izenondoak adibidez.

Laburbilduz, hiztegi-sarreren artean, lau sail egin daiteke [±θ] eta [±e] ezaugarrien arabera. Baina predikatuak eratu ahal izateko, hiztegi-sarrerek, [+θ] ezaugarria izan behar dute; eta beraz, [-θ] ezaugarria dutenak bazterturik daude predikatuen arlo horretatik.

---

25 Hirugarren atalean, euskaraz behintzat izenondo batzuek (*handi, kaltegarri,...*) eta baita izen batzuek (*beldur, gose, egarri, hotz,...*) AuxP kategoria isla dezaketela defendatu dugu. Horrela, laguntzaileek behar duten argumentu-egitura hori A edo N kategoriako buru batek ere eskain dezake.

Horrela, predikatuen artean, bi sail egin daiteke: 'e' argumentua duten hiztegi-sarrerek islatzen dituzten 'egoera-mailako predikatuak' (hemendik aurrera SLP)[26] eta 'e' argumentua ez duten hiztegi-sarrerek islatzen dituzten 'izaki-mailako predikatuak' (hemendik aurrera ILP).

Predikatuak ezin era ditzaketen hiztegi-sarrerak [-θ, -e] motakoak lirateke, hala nola inolako argumentu-egiturarik ez duten izenak edo 'light' motako aditzak. Bukatzeko, aditzen artean, beste kategorietako hiztegi-sarreren artean ez bezala, [-θ, +e] motako sarrerak ere egon daitezke. Azken sail horretan, laguntzaileak eta eguraldi-aditzak sartuko lirateke. Lan honetan gehien interesatzen zaizkigunak laguntzaileak dira, laguntzaile horiek predikatuen argumentu-egitura islatzeko orduan eta argumentuei kasua ezartzeko orduan garrantzizko eginkizuna baitute. Edozein modutan kontutan hartzekoa da laguntzaileek ez dutela inolako argumenturik θ-markatzeko ahalmenik, baina bai 'e' argumentua islatzeko ahalmena.

Bukatzeko, gogora bedi 'e' argumentua duten hiztegi-sarrerek AspP kategoria funtzionala isla dezaketela.[27]

4.4.2. AspP islapen hedatua eta euskara

Izenki-predikatuen azterketarako AspP islapenak izan dezakeen interesa aztertu aurretik, ikus ditzagun islapen hori defendatu deneko beste arlo batzuk eta arlo horietan esleitu zaion sintaxi-eraginkortasuna.

Islapen honen euskararako existentzia Laka-k (1988, 1991) defendatu du , adizki jokatuek hartzen dituzten morfologia-marka desberdinen eransketa aztertu duenean: islapen horren Asp buruak VPa hartuko luke osagarri

---


[26] Gogora bedi predikatuen artean bi sail hauek egitea proposatu duenak (Kratzer, 1988) 'stage-level predicates' eta 'individual-level predicates' izenak erabili dituela.

[27] Horrela ba, laguntzaileek ere AspP islatzeko aukera dutela pentsatu behar da.


modura eta bertan txertatuko lirateke aditz-erroari eransten zaizkion *-tu / -tzen /-tuko* aspektu-atzizkiak, Va buruz buruko mugimenduaren bidez buru horretara mugituko litzatekeenean.[28]

Laka-ren arabera, aditza Asp buruan geldituko litzateke, jokaturiko aditz perifrastikoen kasuan (47a), gainerako flexio-markak hartuko lituzkeena AspP kategoria hori osagarri modura lukeen Aux buruan sorturiko laguntzailea litzatekeelarik. Aditz sintetikoen kasuan berriz (47b), ez legoke Asp bururik eta aditza TPraino igoko litzateke flexio-marka guztiei lotuz. Horrexegatik agertuko litzateke aditz amalgamatu edo sintetikoa.

(47) a.



b.




Inolako aspektu-markarik gabeko aditz-erroa azaltzen duten 'adizki subjektiboen' kasuan (48a), Laka-k, Ø aspektu-atzizki hutsa gaineratzen dela defendatu du, adizki (perifrastiko) horiek aurkezten dituzten bi atalak azaltzeko.


---

28 Oyarçabal-en (1990) lanean ere ikus daiteke Asp buru honen sintaxizko eraginkortasunaren ikuspegi bat. Hala ere, lan horretan ez dago islapen honen funtzioaren azterketa orokorrik. Oyarçabal-en arabera, perpaus arruntetan, Vak gora egiten du forma logikoan eta horrek eragiten du, 'ergatibo' berezko kasua VPan bertan duen argumentua, [spec, T] guneraino igotzea. Eraikuntza pasiboetan berriz, aditza Asp buruan geratuko litzateke egile honen arabera, eta horren ondorioz, ergatibo markadun argumentua VParen barnean mantenduko litzateke.

(48) a.



b.



Morfologi arrazoietan oinarrituriko Asp buruaren behar horri dagokionez, ikusi buru horren existentzia eta 'e' argumentua izateko aukera V kategoriako hiztegi-sarreraren aspektu-ezaugarriekin baino areago V edo VParen gauzaketa zehatzarekin zerikusirik duela. Horrela aditz-sarrera askok adizki perifrastikoak edo adizki sintetikoak eman ditzakete (*dakar, ekarri du*) eta beraz, AspP kategoria islatzeko edo ez islatzeko aukera dute. Bestetik, adizki perifrastikoen artean, perfektibotzat edo inperfektibotzat har daitezkeen adizkiak daude (*ekarri du, ekartzen du*) eta baita Ø atzizkia daramaten adizkiak ere (*ekar dezake*) aditz-sarrera bakarrerako.

Dena den, egia da hainbat aditzek ez dutela adizki sintetikorik; eta beraz, beti islatu behar dutela nolabaiteko AspP adabegia. Bestetik, zenbait aspektu-gauzaketa bazterturik dago zenbait aditzen aukeretatik. Esate baterako, *saioa hasteko dago* edo *saioa hasita dago* esatea baimentzen digu *hasi* aditz inkoatibo puntualak, baina ez **saioa hasten ari da* esatea.

Horrenbestez, aditzen sarrerek zehazturik eramango lukete AspP adabegia islatzeko ala ez islatzeko aukera, hau da adizki perifrastikoak eratzeko edo ez eratzeko aukera. Horrela, aditz batzuek SLPak zein ILPak eratzeko ahalmena duten arren, beste batzuek, ezin era ditzakete SLPak baino. Edonola, beti egoten da AspP islatzeko aukera; eta beraz, V kategoriako hiztegi-sarrera guztietan 'e' argumentua badagoela esan daiteke.

Adizki perifrastikoen moten artean, oso murriztapen gutxi legoke, Asp buru horren ezaugarrietarako ia edozein aukera egon daitekeelarik. Horrela, AspP kategoria islatzen duten aditzen artean, aditz perfektiboak zein inperfektiboak

daude: (49) adibideetan ikus daitekeenez, partizipioaren bukaera (*-tu, -i, Ø*) [+perf.] ezaugarriari dagokiola uler badaiteke ere, perfektibotzat har daitekeen *prestatu* aditzak zein inperfektibotzat hartu behar litzatekeen *igeri egin* aditzak har lezakete bukaera hori.

(49) a. Haurrek bazkaria prestatu dute gaur goizean
b. Haurrek piszinan igeri egin dute gaur goizean

Modu berean, inperfektibotzat har litekeen *-tzen* atzizkia, aditz biekin azal daiteke (50).

(50) a. Haurrek egunero prestatzen dute bazkaria
b. Haurrek egunero igeri egiten dute piszinan

Perfektibitatea, nolabaiteko ondorioa uztearekin harremanetan jartzen bada (Tenny, 1987), bi aditz horiek oso ondorio ezberdinak ematen dituzte (51). Eta beraz, bat perfektiboen sailekoa eta bestea inperfektiboen sailekoa dela pentsa dezakegu.

(51) a. Bazkaria prestatuta dago
b.*Haurrak igeri eginda daude
c.*Piszina igeri eginda dago

Beraz, aditzen arloari dagokionez, ondoko bi sail hauek egin daitezke, bi multzoen artean aditz perfektiboak (53, 54) eta inperfektiboak (52, 55) egon daitezkeelarik.

(a) AspP kategoria islatzeko edo ez islatzeko aukera duten aditzak (52, 53). Hau da SLPak zein ILPak era ditzaketen aditzak.
(b) Halabeharrez AspP kategoria islatu behar dutenak (54, 55). Hau da SLPak baizik ezin era ditzaketen aditzak.

(52) a. Jon berandu dabil
b. Jon berandu ibili da gaur goizean
(53) a. Autobusa berandu dator
b. Autobusa berandu etortzen da egunero

(54) Etxe bat eraiki dute mendi hartan

(55) Haurrak negar egin du gaur gauean

Edozein modutan, AspP kategoria islatzeko ahalmena eta 'e' argumentua harremanetan jartzen baditugu, euskaraz aditz guztiek hiztegi-sarrera modura beren argumentu-egituran 'e' argumentua dutela ulertu behar dugu. Bestetik, aditz batzuek, argumentu hori sintaxian gauzatzeko edo ez gauzatzeko aukera duten bitartean (adizki sintetikoak dituzten aditzak), beste batzuek halabeharrez gauzatu behar dute (adizki perifrastikoak baizik ez dituzten aditzak).

4.4.3. Partizipioak

Partizipioa, hasteko, adizki-predikazioaren arloan sar daitezkeen eraikuntzetan azaltzen da. Adizki horren morfologian aditzaren zati lexikoari (V) dagokion atal bat (*irakur, apur, egin*) eta partizipio-bukaeratzat har daitekeen atzizkiren bat (*-i, tu, -Ø*) ikus daitezke. Partizipio-bukaera hori V buruari, buruz buruko mugimendua egiten duenean Asp buruan itsatsiko litzaioke. Ikusi eraikuntza hauetan laguntzaileak Varen argumentu guztiekiko komunztadura azaltzen duela (56).

(56) a. Jonek liburua irakurri du
b. Haurrak jostailua apurtu du
c. Amak haurrari bazkaria egin dio

Izenki-predikazioaren arloan sailkatu ditugun eraikuntzetan, partizipio-bukaera horri *-a(k)* , *-rik* , *-ta* (edo *gabe*) bukaeretariko bat gaineratzen zaio. Lehenengo bukaera horrek (*-a(k)*) objektuarekiko (edo kasu berezi batzuetan subjektuarekiko) komunztadura eskatzen du halabeharrez, *-rik* , *-ta* (edo *gabe*) bukaerek inolako komunztadura-harremanetan parte hartzen ez dutelarik. Bestetik, laguntzaileak edo aditz nagusiak ez du partizipio-marka daraman Varen argumentu guztiekiko komunztadura azaltzen (57, 58).

(57) a. Liburu hau nik {idatzia/*idatziak} da
b. Liburu hauek nik {idatziak/ *idatzia} dira
(58) a. Liburua {apurtuta/ apurturik} dago
b. Liburuak {apurtuta/ apurturik} daude
c. Liburu hauek irakurri gabe daude

Partizipioaren azpian beti egoten da V bat eta beraz, 'e' argumentua. Izan ere, partizipio-atzizkia bera Asp buruan txertatzen da, eta buru funtzional hori 'e' argumentuaren sintaxizko islapena dela onartu dugu. Izenki-predikazioaren arloan aztertu ditugun eraikuntza horietan (57, 58), Asp buruan txertatuko litzatekeen bukaeraz gain, beste marka bat ere badago

(*-a(k), -(r)ik, -ta , gabe*). Gainerako marka horrek badu nolabaiteko eragina aspektu-irakurketaren gainean zeren partizipioak adierazitakoa nolabaiteko 'gertaeratzat' hartu beharrean, 'ondoriozko egoeratzat' hartzen baitugu.

Ikusi aspektu-irakurketaren aldaketa horrekin batera argumentuen arteko antolakuntzan ere nolabaiteko aldaketa dagoela: (egile, tema) motako aditzen kasuan adibidez, partizipio soila dugunean, egilea subjektuaren funtzioa beteko duela hiztegitik bertatik jakin badaiteke ere, partizipioari gainontzeko bukaeraren bat eransten zaionean, jadanik ezin jakin daiteke subjektu modura jokatuko duen elementua zein izango den.

(59) a. Guk oilaskoa jan dugu
b. Oilaskoak janari guztia jan du

(60) a. Oilaskoa janda dago
b. Oilaskoa jan gabe dago

(59) adibideak inola ere anbiguoak ez diren bitartean, (60) adibideak anbiguoak dira: *oilaskoa* kasu guztietan egoera jasaten duen subjektua bada ere, egiletzat zein tematzat jo daiteke.

Bukatzeko, ikusi partizipio soila ez dela onargarria ez *egon* aditzarekin ez eta bigarren mailako predikatu modura. *Izan* aditzarekin onargarria da partizipio soil hori baina ez da jotzen izenki-predikatutzat, adizki perifrastikotzat baizik: *izan* aditzak laguntzaile gisa jokatzen du.

(61) a. Mahaia apurtu da
b.*Mahaia apurtu dago
c.*Mahaia apurtu ekarri digute dendatik

Beraz, hiru gertakariren arteko harremana legoke eraikuntza hauetan:

(a) Partizipioari nolabaiteko posposizioa eransten zaio.
(b) Aspektu-irakurketaren aldaketa bat gertatzen da (gertaerak ondoriozko egoera bihurtzen dira).
(c) Subjektua hautatzeko orduan mailakaketa tematikoak alde batera geratzen dira.

Demagun AspP islapenaren gainean PP islapena dugula, eta islapen horren burua *-rik, -ta* edo *gabe* izan daitekeela. Partizipioak, Asp burutik P burura mugituko litzateke. Kasuaren beharrak direla eta, Varen argumentuek gora egin behar lukete eta [spec, P] gunean paratuko litzatekeen argumentua egoeraren subjektutzat joko genuke.

Hortaz, ondoriozko egoeraren irakurketa, partizipioari posposizioa gaineratuz eta lorturiko konplexuari subjektu bat egokituz lortuko litzateke. Ikuspegi honetan Roberts-i (1985) jarraiki gatzaio: beraren iritziz, predikatu guztiek (izenki-predikatuak zein adizki-predikatuak, eta estatiboak zein ez-estatiboak) aspektu-irakurketa bat behar dute, irakurketa horretarako subjektu bat behar delarik.

Zalantzarik gabe izenki-predikazioaren edo adizki-predikazioaren arloan sartu ditugun eraikuntza horietaz gain, sailkatzeko orduan zalantzak ekartzen dizkiguten eraikuntzak ere baditugu. Eraikuntza hauetan partizipio-bukaerari *-a(k)* bukaera gaineratzen zaio, eta partizipio horrek objektu zuzenarekiko zenbaki-komunztadura azaldu behar du. Hala ere, laguntzaileak, Varen argumentu guztiekiko komunztadura azaltzen du (62).

(62) a. Jonek liburua irakurria du
b. Haurrak jostailuak apurtuak ditu
c. Amak haurrari bazkaria egina dio

Komunztadurarik gabeko partizipioek (*-rik* edo *-ta* bukaera daramatenek), antzeko eraikuntzak era ditzake, baina eraikuntza horietan aditzak, laguntzailea gabe, edukin semantiko osoko aditza dirudi, (63c) adibidearen gramatikaltasun-ezak aditzera ematen duenez.

(63) a. Jonek liburua irakurrita dauka
b. Haurrak jostailuak apurtuta dauzka
c.*Amak haurrari bazkaria {prestatuta/prestaturik} dio

Bigarren mailako predikatuetarako, hizkuntzaren orokortasunari begiratzen badiogu, *-rik / -ta* bukaera daramaten partizipioak dira ohizkoenak, *egon*

aditzarekin agertu ohi diren partizipioak alegia (64). Hala ere, hiztun askok (batez ere Gipuzkoako euskalkietakoak), komunztaduradun partizipioak erabili ohi dituzte bai *egon* aditzarekin bai eta bigarren mailako predikatu modura ere (65).

(64) a. Ispilua {apurtuta/apurturik} ekarri digute
b. Ispilua {apurturik/apurtuta} {dago/da}

(65) a. Ispilua apurtua dago
b. Ispilua apurtua ekarri digute

Bukatzeko, partizipioek perpaus absolutu adberbialak ere era ditzakete. Eraikuntza horietan ordea, *-rik* edo *-ta* bukaera daramaten partizipioek baizik ezin har dezakete parte, komunztaduradun partizipioak bazterturik daudelarik (Rebuschi, 1982).

(66) a. (Behin) lana {bukaturik/bukatuta}, kalera joango gara.
b.*(Behin) lana bukatua, kalera joango gara.

Eraikuntza absolutuetan Varen argumentu guztiak partizipio-perpausaren barnean gauzatzen dira. Hortaz, partizipio-perpausetik inolako argumenturik ateratzen ez denez, ezin gerta daiteke inolako elementurekiko komunztadurarik. Horixe litzateke komunztaduradun partizipioak perpaus absolutuetatik bazterturik geratzeko arrazoia.

(67) a. Guk_1 $lana_2$ [$_{AspP}$ t_1 t_2 bukatua] dugu
b. *[Lana bukatua], kalera joan gara
c. [Lana bukaturik], kalera joan gara
d. [Lana bukatuta], kalera joan gara

	Partiz. soila	Partiz.+-a(k)	Partiz.+-ta/-rik
'e' argumentua	+	+	+
Asp burua	+	+	+
Gertaerak	+	-	-
Egoerak	-	+	+
Laguntzaileekin	+	+	-
Laguntzaileak arg. guztiekiko kom.	+	+	-
Partizipioak objektuarekiko kom.	-	+	-
Laguntzaileak Varen arg. bakarrarekiko kom.	-	+	+
Perpaus absolutu adb.	-	-	+
egon aditzarekin	-	(hiztun batzuek)	+
2. mailako predikatuak	-	(hiztun batzuek)	+

Datu horietatik, hurrengo ondorioak atera daitezke:

(i) Mota guztietako partizipioen azpian V kategoria lexikoa dago, beraz 'e' argumentu bat ere badutela ulertu behar dugu.

(ii) Guztiek daramate *-tu / -i / Ø* morfologi marka. Morfologi marka horiek Asp buruan txertatzen direla onartuz, guztiek islatzen dute AspP adabegia eta guztiek daukate marka zehatz horri dagokion [+perf.] ezaugarria.


(iii) Partizipio soilek gertaerak adierazten dituzten bitartean, *-a(k) / -ta /-rik /gabe* bukaera daramaten partizpioek gertaera horien ondoriozko egoerak adierazten dituzte. Aspektu-irakurketa hori partizipioa eta subjektua espezifikatzaile/buru harremanetan jarriz lortzen da.

(iv) *-a(k)* bukaera azaltzeko, partizipioaren argumentu batekiko komunztadura behar da. Horrela, argumentu guztiak partizipio-perpausaren barnean gauzatzen direnean (perpaus absolutu adberbialetan) ez dira posible honelako marka daramaten partizipioak.


(v) Zenbaki-komunztadura hori aukerakoa da laguntzaileak Varen argumentu guztiekiko komunztadura azaltzen duenean (68 a, b).

Zenbaki-komunztaduradun eta komunztadurarik gabeko eraikuntzen arteko desberdintasuna AspP islapenaren espezifikatzailean argumentu bat kokatzearen (68b) edo ez kokatzearen (68a) menpean dagoela defendatuko dugu. Beraz, partizipioak azaltzen duen komunztadura hori, AspP islapenean gertatzen den espezifikatzaile/buru harremanaren adierazlea litzateke.


(68) a.



b.




(vi) VPtik argumentu guztiak atera gabe ere gerta daiteke AspP islapenean espezifikatzaile/buru harreman hori (69).



(vii) *Egon* aditza, laguntzailea gabe V kategoriako hiztegi-sarrera da, eta beraz gai da bere osagarri modura txertatzen den elementuaren ezaugarriak erabakitzeko. Partizipio-predikatuen kasuan beti izango

ditugu SLPak partizipioaren morfologia berak Asp buruan Vari eransten zaion bukaera (*-i /tu / Ø*) eskatzen baitu. Baina AspP islapen hori ez da nahikoa *egon* aditzaren osagarri modura azaltzeko, partizipio soila ez baita onargarria aditz horrekin (**liburua apurtu dago*). Subjektu/predikatu harremana gauzatzen deneko eta gertaera ondoriozko egoera bihurtzen deneko PP maila behar da (70).

(70)




Posposizioa *-ta* izan gabe, *-(r)ik* edo *gabe* balitz antzeko analisia lortuko genuke. Analisia analogoa litzateke modu berean, *egon* aditza izan gabe, *jarri, geratu , iraun* edo *utzi* sailetako aldaketa edo iraupenezko aditzak bagenitu: azken batean, *egon, jarri, geratu, iraun* eta *utzi* aditzek egoera-mailako predikatua daukaten perpaus txikiak, hau da, subjektu eta predikatu bat daukaten osagaiak hautatzen dituztela esan daiteke.

(viii) Hiztun batzuek, gipuzkoako euskalkietakoak alegia, gai dira subjektu/predikatu harreman hori AspP mailan bertan gauzatzeko, harreman horren adierazlea subjektuaren eta partizipioaren arteko zenbaki-komunztadura delarik. Horrela, komunztaduradun

partizipioak azaltzen dira *egon* aditzarekin. Ikusi, partizipioa subjektuari lotuz, ondoriozko egoeraren aspektu-irakurketa eta behar den perpaus txikia lortzen dela.


(71)



(ix) Bigarren mailako predikatuen kasuan, aurrekoen analogoak liratekeen analisiak lortuko genituzke komunztaduradun partizipioak

onartzen dituzten hiztunentzat (72b) eta horrelakorik onartzen ez dutenentzat (72a).[29]

(72) a.



b.

Laburbilduz, partizipio guztietan dugu Asp buruan islatzen den 'e' argumentua, eta partizipio guztietan azaltzen da aspektu-atzizki perfektibo bat (*-i, -tu, Ø*). Baina izenki-predikazioan parte hartzen duten partizipioetan partizipio-bukaera horri bestelako bukaera bat gaineratzen zaio: zenbaki-

---

[29] Bigarren mailako predikatuen txertakuntza-mailaren eta subjektu modura jarri dugun PRO kategoriaren eztabaida zehatzerako ikus hirugarren atalaren 3.4.2. eta 3.4.3. azpiatalak.

komunztadurarekin zerikusirik duen *-a(k)* bukaera edo *-ta, -(r)ik* edo *gabe* moduko posposizio bat.

Bestetik, partizipio soiletik nolabaiteko atzizkia daraman partizipiora 'gertaeratik' 'ondoriozko egoerarara' doan aspektu-irakurketaren aldaketa gertatzen da. Aspektu-irakurketa berri horretarako, partizipioa subjektu batekin espezifikatzaile/buru harremanean jarri behar da. Espezifikatzaile/buru harreman hori batzuetan, AspP islapenean bertan gertatzen da, harremanaren adierazlea zenbaki-komunztadura delarik. Horrela, partizipio soilaren eta zenbaki-komunztadura daraman partizipioaren artean dagoen aldea, espezifikatzailedun AspP islapena edo espezifikatzailerik gabeko AspP islapena edukitzea da.

Baina beste hiztun batzuek, ez dute AspP islapenean komunztadura egiterik eta gainerako islapen bat behar dute espezifikatzaile/buru harreman hori gauzatzeko, buru modura *-ta, -(r)ik* edo *gabe* posposizioetariko bat duen PP islapena alegia. Kasu horietan guztietan, subjektu/predikatu harremana eta beraz, perpaus txiki bat dugu.

4.4.4. Perfektibitatea, 'e' argumentua eta AspP islapena

Aurreko azpiataletan ikusi dugunez, 'e' argumentua izatea ala ez izatea hiztegi-sarreren ezaugarri bat da. Ezaugarri horrek sintaxi-mailan AspP kategoria islatzea baimentzen du. Baina, aspektu-kategoria horren islapena ez da halabeharrezkoa 'e' argumentua duten hiztegi-sarrera guztietarako.[28]

Aspektuari buruzko azterketetan, [+perfektibo] / [-perfektibo] oposaketari eman ohi zaio garrantzirik handiena, horixe baita Aristoteleren garaietatik zutik iraun duen oposaketarik garbiena.[29] Perfektibitateari dagokion informazio hori, bi maila desberdinetan islatzen da:

(a) Alde batetik, aditzaren hiztegi-sarreratik, aditz horrek bukaera batera zuzenduriko gertaera bat adierazten ote duen dator zehazturik:[30] hiztegitik bertatik badakigu *eraiki* aditza [+ perf.] eta *eduki* aditza [-perf.] direla.

(b) Hiztunek, aditz-sarrera horiek erabiltzen dituztenean, adizki perfektiboak edo adizki inperfektiboak erabil ditzakete: *Etxe bat eraikitzen ari dira / Etxe bat eraiki dute // Diru asko daukate / Beste garai batzuetan diru asko eduki zuten.*

---

[28] Gogoratu hainbat aditz-sarrerak AspP islapena eskatzen duten adizkiak (adizki perifrastikoak) edo horrelako islapenik ez duten adizki sintetikoak onartzen dituztela.

[29] Tenny-k (1988) azpimarratu duenez, aditzaren gertaeraren iraupena ere bada aspektu-ezaugarri interesgarria, baina , 'perfektibitateari', edo Tenny-ren hitzetan 'mugatutasunari' (delimitedness) dagokion ezaugarria hizkuntzetan zehar gramatikalizatu ohi da, gertaeraren iraupena berriz, semantikaren aldetik aditz-sailak egiteko baliagarria den arren, ez da gramatikalizatzen eta beraz, ez du interes berezirik sintaxiaren ikuspegitik.

[30] Hiztegiaren informazio honi 'aktionsart' deritzo aspektuari buruzko azterketetan.

Hortaz, aspektuari buruzko informazio orokorra, ez dagokio hiztegiari soilik eta zerikusirik dauka predikazioarekin : osagarri zuzenik ba ote dagoen, NP hori mugatua ote den, aditzak eratzen duen adizkia nolakoa den.

Izenki-predikazioaz aritu diren gaztelaniari buruzko azterketetan, identifikatu egin da perfektibo izatea eta 'e' argumentua edukitzea (Hernanz, 1988, 1991; Bosque, 1990; Suñer, 1991). Horrela, aurreko egileek (Hanssen, 1913; Gili Gaya, 1961; RAE, 1973; Lujan, 1980; Navas Ruiz, 1983,...) *ser* eta *estar* aditzekin azal daitezkeen predikatuak perfektibitatearen arabera mugatzeko egin duten saioa, GBaren lanetan adizki-predikatuetarako erabili ohi diren azterketetan sartzea lortu dute.

Hala ere, perfektibitatea eta 'e' argumentua edukitzea identifikatuz, hiztegiari baizik ez dagokion informazio bat ('e' argumentuarena) eta hiztegi, morfologia eta sintaxiarekin zerikusirik duen informazio anizkoitza behar duen perfektibitatearen informazioa nahasten ari gara. Adibidez, gaztelaniaz *estar* aditzak predikatu perfektiboak hautatzen dituela eta predikatu horiek 'e' argumentua dutenak direla defendatu dute Hernanz-ek (1988) eta Bosque-k (1990). Ezaugarri berekoak lirateke bigarren mailako predikatuak.

(73) a. Los soldados {están/llegaron} cansados
b. Los soldados {están/llegaron} de mal humor
c.*Los soldados son {cansados/de mal humor}

(74) a.*{Viven/están} modestos en Paris
b. Son modestos

Hernanz-en arabera, izenki-predikatu horiek 'e' argumentu bat eduki behar dute adizki-predikatuaren 'e' argumentua ixteko. Bosque-ren iritziz, (75) esaldiaren gramatikaltasun-ezaren eragilea, *mirar* aditzak 'e' argumentu hori ez izatean datza hain zuzen. Horregatik, 'e' argumentua duten aditzek bakarrik eman ditzakete izenondo perfektiboak (*lleno, suelto, limpio,suelto / *amo,*miro, *insulto*)

(75) *La pared estaba mirada por mi

Hala ere, ikusi *estar* aditzaren hautapen-ezaugarriak ez direla behar den bezala zehazten perfektibitatearen ezaugarria erabiliz: (75) esaldia baztertzekoa den arren, (76) esaldiak onargarriak dira.

(76) a. Juan estaba mirando nuestros papeles
b. Vimos a Juan mirando nuestros papeles

(76) adibideetan *estar* aditzak hartu duen osagarria ez da predikatu perfektiboa: alde batetik, hiztegi-mailan *mirar* aditz inperfektiboa dugu; bestetik, hautaturiko adizkiaren mailan, adizki inperfektibotzat hartu behar den gerundioa hartu du.

Ikus ditzagun euskararen *egon* aditzaren eta bigarren mailako predikatuen murriztapenak:

(77) a. Zure paperak apurtuta {daude/aurkitu ditugu}
b. *Zure paperak begiratuta {daude/aurkitu ditugu}
c. Zure paperak apurtuak { daude/ aurkitu ditugu}

Gaztelaniarako bezala, (77b) adibidearen ezintasuna *begiratu* aditza inperfektiboa izateari zor zaiola, eta *egon* aditzak predikatu perfektiboak hautatzen dituela esan genezake. Ikus bedi, perfektibitatea ez dela *egon* aditzarekin agertu ahal izateko baldintza nahikoa (78).

(78) a.*Zure paperak apurtu {daude/aurkitu ditugu}
b.*Zure paperak begiratu {daude/ikusi ditugu}

Testuinguru horietan behar direnak ez dira edozein motatako predikatu perfektiboak; *-ta* (edo *-(r)ik* edo *gabe*) posposizioa daramaten partizipio perfektiboak (zenbait hiztunentzat, komunztaduradun partizipioak), hau da, perpaus txikiak behar dira: *begiratu* aditzak ezin era dezake *begiratuta* bezalako predikatu perfektiborik, baina bai *begiratu* modukoak (79).

(79) a. Zure paperak apurtu ditugu
b. Zure paperak begiratu ditugu

-Ta edo *-rik* posposizioek hautatzen dutena besterik gabe Asp perfektiboa (*-tu /-i / Ø*) bada, bai *begiratu* eta bai *apurtu* aditzen kasuan aurki daitezke horrelako aldaerak. Baina, gogora bedi ondoriozko egoera adierazteko aspektu perfektiboa ezezik partizipioari lotzen zaion subjektu bat behar dela. Subjektu horrek ondoriozko egoera horrekin elkargarria izan behar du semantikaren aldetik: aditzak adierazten duen gertaeraren ondorioz egoera horretan egon daitekeen subjektu bat izan behar du. 'Ukituriko' objektuak izan behar dute objektu horiek (Van Voorst, 1986).

Bestetik, *egon* aditzarekin edo bigarren mailako predikatu modura inperfektibotzat har daitezkeen predikatuak ere azal daitezke (80).

(80) a. Jon zure paperak apurtzen {dago/aurkitu dugu}
b. Jon zure paperak begiratzen {dago/aurkitu dugu}

4.4.1. azpiatalean aditz guztiek hiztegi-sarrera modura 'e' argumentua dutela defendatu dugu. Beraz, demagun, bai *apurtu* aditz perfektiboak bai eta *begiratu* aditz inperfektiboak hiztegi-sarrera modura 'e' argumentua dutela eta perfektibitatearena horren independientea den ezaugarria dela. Horrela, *egon* aditzak hautatzen duena AspP islapena duen perpaus txikia dela esan dezakegu, Asp horren ezaugarria [+perf.] (77) edo [-perf] (79) izan daitekeelarik. Predikatu perfektiboa subjektu egokiari elkartzeko *-ta* , *rik* edo *gabe* posposizioak behar dira.

(77b) adibidearen gramatikaltasunik eza ez legokioke 'e' argumentuaren ezari: *begiratu* partizipioa dugu, eta 4.4.2. azpiatalean ikusi dugunez, *-tu* bukaera 'e' argumentuaren sintaxizko islapena den Asp buruan txertatzen da. (77b) adibidearen ezintasunaren kausa *-ta* (edo *-(r)ik*) atzizkien bigarren eskakizunari dagokio: subjektu modura joka dezakeen ukituriko objektu bat falta da.

Laburbilduz, 'e' argumentua duten hiztegi-sarrerek [+perf.] edo [-perf.] diren predikatuak era ditzakete, eta inolako aspektu-irakurketarik ez duten predikatuak ere (adizki sintetikoak adibidez), eman ditzakete. Beraz, 'e' argumentua izateak ez dakar besterik gabe [+perf.] izatea. Baina

perfektibitateari dagokion ezaugarri bat (+/- perf.) duen edozein predikatuk buru modura 'e' argumentua duen hiztegi-sarrera bat eduki behar duela dakigu.

Partizipioari *-a(k)* edo *-ta / -(r)ik /gabe* posposizioak gaineratuz lortzen diren perpaus txikiek bi baldintza bete behar dute: batetik, Asp perfektibo bat behar dute eta bestetik, partizipioari espezifikatzaile/buru harremanaren bidez elkar dakiokeen subjektu bat eduki behar dute. Subjektu horrek aditzak adierazitako gertaeraren bidez ukituriko objektu bat izan behar du.

Buru modura V izan gabe A, N edo P kategorietako burua duten predikatuen kasuan, ez dugu horren flexio aberatsa: alde batetik, preposizioak aldagaitzak dira; eta bestetik, izenondoek edo izenek azal dezaketen aldaketa bakarra mugatzaileari edo subjektuarekiko komunztadurari dagozkion markak dira.

Beraz, honelako izenki-predikatuek azal ditzaketen aspektu-ezaugarriak hiztegitik datoz zehazturik neurri handian, sintaxi-mailan oso aldaketa gutxi jaso dezaketelarik. Hala ere, subjektuarekiko komunztadura/komunztadura-eza oposaketa esanguratsua deneko euskalki edo hiztunen kasuan, perfektibitatea sintaxi-mailan gauzatzeko bide bat dugu. Arazo hau hurrengo azpiatalean aztertuko dugu zehazkiago.

4.4.5. Buru modura izenondo bat duten izenki-predikatuen aspektu-ezaugarriak eta adierazpena

4.4. azpiatalean aditzera eman dugunez, euskal gramatiketan[31] izenondo-predikatuen artean batzuek izakien ezaugarri iraunkorrak adieraziko lituzkete eta beste batzuek izaki horien behin-behineko ezaugarriak.

Loturazko *izan* eta *egon* bi aditzak erabiltzen dituzten hiztunek, *izan* aditzarekin erabiltzen dituzte ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten izenondoak eta *egon* aditzarekin behin-behineko ezaugarriak adierazten dituztenak.

(81) a. Haur hori oso alaia da
b. Haur hori triste dago gaur

Dena den, izenondo batzuek mota bateko ezaugarriak baizik ezin adieraz ditzaketen bitartean, beste batzuek, ezaugarri iraunkorrak zein behin-behinekoak adierazteko balio dute.

(82) a. Jon baxuegia {da/*dago} saskibaloian jolasteko
b. Ane haurdun {?da/dago} [32]
c. Ander lodiegia {da/dago} praka hori janzteko

Izakien ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten predikatuak Kratzer-en ILPekin eta behin-behineko ezaugarriak adierazten dituztenak SLPekin identifikatzen baditugu, izenondo batzuek ILPak eta SLPak era ditzaketen bitartean, beste batzuek mota bateko predikatuak baizik ezin era ditzakete.

---

[31] Lafitte, 1944; Goenaga, 1980; EGLU-I , 1985 adibidez.

[32] Hiztun batzuek *izan* aditza onartuko lukete testuinguru honetan ere, baina edozein kasutan *haurdun* behin-behineko ezaugarritzat hartuko lukete eta ez ezaugarri iraunkortzat

Eta beraz, Kratzer-en definizioei jarraiki, izenondo batzuek hiztegi-sarrera modura 'e' argumentua eramango lukete eta beste batzuek ez lukete horrelako argumenturik eramango (*egon* , *ibili, jarri* edo *gelditu* bezalako aditzek onartzen ez dituztenak); 'e' argumentua luketen izenondoen artean, bestetik, batzuek halabeharrez islatu beharko lukete 'e' argumentu hori (*bihurtu, bilakatu* edo *egin* bezalako aditzak onartzen ez dituztenak); beste batzuek ordea, 'e' argumentua islatzeko edo ez islatzeko aukera lukete, SLPak zein ILPak eratzeko aukera luketelarik (*izan* zein *egon* edo *ibili* aditzekin azal daitezke eta aditz bakoitzarekin nabardura bat eskaintzen dute). Laburbilduz, ondoko eskema hau egin daiteke:

IZENONDOAK

(I) Hiztegi-sarrera modura [-e] ezaugarria dutenak

.....Beti eratzen dituzte 'izaki-mailako predikatuak'

baxua, ausarta, diruduna,.....

(II) Hiztegi-sarrera modura [+e] ezaugarria dutenak

(IIa) 'e' argumentua sintaxian halabeharrez islatu behar dutenak

.....Beti eratzen dituzte 'egoera-mailako predikatuak'

pozik, gaixorik, haurdun,...

(IIb) 'e' argumentua sintaxian islatzeko eta ez-islatzeko aukera dutenak

.....'izaki-mailako' zein 'egoera-mailako' predikatuak era ditzakete

lodi, gazte, barregarri,...

Horrela, izenondoetarako aditzetarako lortu dugun antzeko orotarapena dugu. Dena den, azpimarratu beharrekoa da aditz guztiek hiztegi-sarrera modura 'e' argumentua dutela defendatu dugun bitartean izenondoen artean 'e' argumentua dutenak eta ez dutenak daudela defendatu dugula.

Subjektu eta predikatuaren arteko komunztadura ez da oso esanguratsua *izan* eta *egon* aditzak erabiltzen dituzten hiztunen artean. Hala ere, hiztun horientzat *izan* aditzarekin komunztadura ezinbestekoa den bitartean (83a), *egon* aditzarekin komunztaduradun predikatuak eta komunztadurarik gabeko predikatuak erabiltzen dituzten hiztunak (83b) daudela esan dezakegu.


(83) a. Ainhoa lodia da txikitatik; Miren berriz, argala
b. Asier argala da txikitatik; baina azkenaldi honetan lodi(a) dago

Bigarren atalean aditzera eman dugunez, hiztun batzuek *izan* loturazko aditza baizik ez dute erabiltzen. Hiztun horientzat askoz ere esanguratsuagoa da komunztadura/ komunztadura-eza oposaketa: ILPek subjektuarekiko komunztadura azaltzen dute; SLPek ez dute horrelako komunztadurarik azaltzen.

(84) Haur hau eri da orain baina ez da haur eria


Izenondoen kasuan, ez da azaltzen Asp buruarekin zerikusirik izan lezakeen morfologiazko markarik. Hala ere, 'egoera-mailako' eta 'izaki-mailako' predikatuak bereiz daitezkeela ikusi dugu. Bi predikatu-sail horiek 'e' argumentua sintaxian AspP kategorian islatze ala ez islatzeagatik bereizten direla defendatu dugu. Hortaz, izakien ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten predikatuen buruek ez dute 'e' argumenturik eta beraz, ezin isla dezakete AspP kategoriarik: NuP kategoria funtzionala islatzen dutela defendatu dugu 4.3.3. azpisailean. Izaki-mailako predikatuak eratzen dituzte beti.

(85)




Bestetik, 'e' argumentua duten izenondoen kategoriako hiztegi-sarreren artean, batzuek beti adierazten dituzte izakien behin-behineko ezaugarriak; eta beraz, beti islatu behar dute AspP kategoria: beti eratzen dituzte egoera-mailako predikatuak.

(86)



Beste sarrera batzuek AspP kategoria edo NuP kategoria islatzeko aukera dute; eta beraz izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak era ditzakete.




NuP islapenean espezifikatzailearen eta buruaren arteko zenbaki-komunztadura halabeharrezkoa den arren, AspP kategorian, komunztadura ez da halabeharrezkoa hiztun guztientzat: hiztun batzuek zenbaki-komunztadura gauzatzen dute AspP islapenaren espezifikatzailean eta buruan kokaturiko elementuen artean (subjektuaren eta predikatuaren artean) baina beste hiztun batzuek ez dute inoiz egiten horrelako komunztadurarik; eta bukatzeko beste hiztun batzuentzat onargarriak dira komuzntaduradun eta komunztadurarik gabeko aldaerak. Gogora bedi 4.4.3. azpisailean partizipioetarako antzeko aukerak ikusi ditugula.


Aurretik esan dugunez, hiztun batzuek *izan* aditza baizik ez dute erabiltzen; baina hala ere, izaki-mailako eta egoera-mailako predikatuak bereizten dituzte komunztadura edo komunztadura-ezaren bidez. Beraz, bi mota horietako predikatuen arteko ezberdintasuna, A buruak NuP edo AspP kategoria

islatzeari zor zaio, NuP islapenean komunztadura halabeharrez egiten duten bitartean AspP islapenean inoiz ere komunztadurarik egiten ez dutelarik.

(88) a.




b.




Izan eta *egon* aditzak alde batera utzirik, osagarri modura izenondo-predikatuak eskatzen dituzten beste aditzek kasu batzuetan egoera-mailako predikatuak (*jarri, ibili, utzi, geratu, gelditu*) eta beste batzuetan izaki-mailako predikatuak (*bihurtu, egin, bilakatu*) eskatzen dituzte osagarri modura dituzten perpaus txikietarako. Beraz, aditz batzuek NuP mailako perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzten bitartean beste batzuek AspP

mailako perpaus txikiak azpikategorizatzen dituztela esan genezake. Azpimarratu beharrekoa da, perpaus txiki horiek predikatu-buruen islapen hedatuak direla eta beraz predikatuen ezaugarriak perpaus txiki horietan zehar garraiatzen direla.

(89) a.




b.



Bukatzeko, bigarren mailako predikatuek beti egoera-mailakoak izan behar dutela esan dugu. Beraz, predikatu horien burua izenondo bat izatekotan, 'e' argumentua duten izenondoetarikoa izan behar du eta halabeharrez islatu behar du AspP kategoria.

(90)



Ikusi kasu honetan ere perpaus txikiak (ez predikatu soilak) behar direla. (90) adibidean aldagaitza den *pozik* izenondoa hautatu dugu; baina, aldagarriak diren izenondoen kasuan, hala nola *lodi, aberats, azkar*, komunztadura egiten duten eta komunztadurarik egiten ez duten hiztunak daude. Aldakortasun horren eragilea AspP islapenean espezifikatzaile/buru komunztadura egiteko edo ez egiteko parametroari zor zaio (87b) adibidean bezala.

Izenondoen sail honetan perfektibitatearen arazoa falta zaigu konpontzeko: AspP kategoria islatzen duten egoera-mailako predikatu horiek guztiak(eta agian beraien A buruak ere) perfektibotzat hartu behar al dira?

Hernanz-ek (1988, 1991) eta Bosque-k (1990) horixe defendatu dute gaztelaniarako: 'e' argumentua duten eta AspP kategoria islatzen duten izenondoak perfektiboak dira, horien oposaketan dagoena 'e' inperfektibo bat izan gabe 'e' argumenturik ez izatea delarik.

Perfektibitatea bukaera batera zuzenduriko gertaeretarako asmatu den kontzeptua da, eta egoerak, definizioz gertaeren ezaugarri horretatik kanpo

geratzen dira. Aditzen kasuan 'egoera-mailako' predikatu perfektiboak eta inperfektiboak bereizi ditugu, baina izenondoen kasuan ez dirudi 'egoera-mailako' predikatuen artean azpisailik egin daitekeenik. Beraz, esanguratsua den ezaugarria [± e] da eta perfektibitatearenak ez du inolako daturik gaineratzen.

Laburbilduz, ohizko gramatiketan izakien ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten izenki-predikatuak eta izakien behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten izenki-predikatuak bereizi dira. Lan honetan, bi sail horiek hurrenez hurren Kratzer-en (1988) 'izaki-mailako' eta 'egoera-mailako' predikatuei dagozkiela defendatu dugu, bi predikatu-mota horiek bereizten dituena 'e' argumentua islatzen duen Asp buru bat edukitzea ala ez edukitzea delarik. Bestetik, izenondoek 'egoerak' eta ez 'gertaerak' adierazten dituztenez, perfektibitatearen ezaugarriak inolako daturik gaineratzen ez duela ikusi dugu, egoera-mailako predikatuen artean azpisailik ezin egin daitekeelarik.

Zehazkiago izenondoen kasuan, 'e' argumentua duten eta ez duten hiztegi-sarrerak daude. [-e] diren hiztegi-sarrerek (*baxu, dirudun, ausart*) NuP kategoria funtzionala islatzen dute eta 'izaki-mailako' predikatuak eratzen dituzte beti, NuP kategoriaren espezifikatzailearen eta buruaren artean zenbaki-komunztadura gertatzen delarik.

[+e] diren izenondoen artean, batzuek, halabeharrez islatu behar dute 'e' argumentua (*pozik, gaixorik, haurdun*), eta beraz, beti eratzen dituzte egoera-mailako predikatuak. AP horiek AspP kategoria funtzionala islatzen dute, kategoria honen espezifikatzailearen eta buruaren artean komunztadura egiten duten eta egiten ez duten hiztunen arteko aldaketa parametrikoa dagoelarik. [+e] diren beste izenondo batzuek 'e' argumentua islatzeko edo ez islatzeko aukera dute (*lodi, argal, barregarri*); eta beraz izaki-mailako (NuP) edo egoera-mailako (AspP) predikatuak era ditzakete.

Aurreko azpiataletan *izan* aditza izenki-predikatuekin azaltzen denean ere laguntzaileen sailekoa dela defendatu dugu. Ideia hori ongi datorkio aditz honen banaketari: izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuekin azal daiteke hiztun gehienentzat, euskalki batzuetan beraren osagarria litzatekeen *egon* loturazko aditza inoiz ere erabiltzen ez delarik.

Perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzten beste aditzak sentikorrak dira predikatuen sail horiei dagokienez: *bihurtu, egin* eta *bilakatu* aditzek izaki-mailako predikatuak, eta beraz NuP mailako perpaus txikiak, eskatzen dituzte; *egon, ibili, jarri, utzi, geratu* eta *gelditu* aditzek berriz, egoera-mailako predikatuak eta beraz AspP mailako perpaus txikiak, eskatzen dituzte. Perpaus txiki adjunktuek ere, egoera mailako predikatuak eduki behar dituzte.

4.4.6. Buru modura izen bat duten izenki-predikatuen aspektu-ezaugarriak eta adierazpena

Bigarren ataleko deskribapenean ikusi den bezala, oso gutxi dira izenki-predikatuak era ditzaketen izenak. Hiru sail bereiz daiteke izen horien artean:

(i) Ekintzen egileak adierazten dituzten izenak: *erretzaile, idazle, ekoizle,...*
(ii) Lanbideak edo karguak adierazten dituztenak: *irakasle, neskame, politikari,...*
(iii) Esperientzia fisiko edo psikologikoak adierazten dituzten izenak: *beldur, gose, hotz,...*

Izan eta *egon* loturazko aditzak erabiltzen dituzten hiztunen artean guztiz ongi finkaturik daude izen-predikatu bakoitzak onartzen dituen loturazko aditzak eta komunztadura-ereduak.

(i) sailekoek, *izan* aditza eta subjektuarekiko komunztadura eskatzen dute halabeharrez. Bestetik *bihurtu, egin* eta *bilakatu* aditzen modukoekin ere azal daitezke. Aditz horiekin komunztaduradun edo komunztadurarik gabeko aldaerak ikus daitezke; baina izen-predikatu hauen kasuan, ohizkoenak komunztadurarik gabeko aldaerak dira:

(91) a. Ander erretzailea da, nik berriz ez dut sekula ere erre
b. *Ander erretzaile(a) dago
(92) a. Jon idazle(a) bilakatu da
b. Ainhoa erretzaile(a) egin da zuekin dabilenetik

(ii) sailekoek *izan* eta baita *bihurtu, egin* eta *bilakatu* saileko aldaketa-aditzak onartzen dituzte. Bestetik, batzuk *egon* aditzarekin ere azal daitezke eta bigarren mailako predikatuak ere era ditzakete. Hala ere, oso murriztapen handiak daude aditz eta izen zehatz batzuen artean soilik gertatzen direlarik:

*irakasle egon, neskame egon, apaiz sartu, artzain joan, zuzendari hautatu ,... // * ingeniari egon, *politikari egon, *katedratiko joan,...*

Izan aditzarekin komunztadura azaltzen dute (93a) baina bestelako testuinguruetan komunztadurarik gabe agertzen dira halabeharrez (93 b, c, d, e).

(93) a. Jon irakaslea da
b. Miren neskame(*a) dago Gasteizen
c. Zure laguna politikari(*a) egin da
d. Gure semea artzain(*a) joan da Ameriketara
e. Ander zuzendari (*a) hautatu dute

(iii) saileko izenak *izan* aditzarekin eta komunztadurarik gabe azaldu ohi dira, baina hala ere, hiztun batzuek *egon* aditza (94b) eta °*edun* edo nor-nori-nork ereduko laguntzaileak ere (94d,e) onartzen dituzte, azken bi kasu horietan *beldur* predikatuari *-a* bukaera eransten diotelarik.

(94) a. Haurrak beldur dira
b.*Haurrak beldurrak dira
c. Haurrak beldur daude[33]
d. Haurrak beldurra du
e. Haurrak beldurra dizu

Analisia erraztearren aparteko azpiataletan aztertuko ditugu hiru sail horiek.


---

[33] Bigarren atalean aditzera eman dugunez, *haurrak beldurrak daude* eta *haurrak beldurrez daude* esaliak ere onArtzen dituzte zenbait hiztunek.

4.4.6.1. Ekintzen egileak adierazten dituzten izenek eratzen dituzten predikatuak


Izaki-mailako eta egoera-mailako predikatuen arteko bereizketari dagokionez, ekintzen egileen izenek izaki-mailako predikatuak baizik ezin era ditzakete. Izen hauek aditzetatik eratortzen dira, baina, eratorpen horretan aditzaren 'e' argumentua galtzen dela pentsatu behar da, egoera-mailako predikatuak eratzeko ezintasunagatik: NP hauek NuP mailako perpaus txikiak islatzen dituzte. 'e' argumentuaren ezintasunak *egon* aditzarekin edo bigarren mailako predikatu modura azaltzea galarazten du.

(95)




Baina *bihurtu, egin* eta *bilakatu* aditzekin ia hiztun guztiek erabiltzen dituzte komunztadurarik gabeko aldaerak. Kasu guztietan 'izaki-mailako' predikatuen aurrean gaudela pentsatu behar dugu. Beraz, hiztun batzuentzat *bihurtu, egin* eta *bilakatu* aditzek komunztadura gauzatzeko gai den NuP kategoria hautatzen dute; beste batzuentzat berriz, buru modura Ø atzizkia duen NuP kategoria hautatzen dute.

(96) a.



b.



Laburbilduz, ekintzen egileak adierazten dituzten izenek beren morfologiaren azpian legokeen aditzaren 'e' argumentua galtzen dute eratorpenean. Horrela, izaki-mailako predikatuak baizik ez dituzte eratzen. Ondorioz, *izan, bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzekin baizik ez dira onargarriak: NuP kategoriako perpaus txikiak eratzen dituzte.

Izenondo-predikatuekin baino sarriago ikusten den komunztadura-eza (batez ere *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzekin), Nu buruan txertatuko litzatekeen Ø atzizkiari legokioke.

4.4.6.2. Lanbideak edo karguak adierazten dituzten izenek eratzen dituzten predikatuak

Predikatu hauek, *izan* , *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzekin ager daitezke izaki-mailako predikatuak eratuz baina baita *egon, joan, sartu* edo *hautatu* bezalako aditzekin ere. Lehenengo begiradan egoera-mailako predikatuak era ditzaketela pentsa badaiteke ere, badaude azterketa zehatzagoa merezi duten zenbait datu.

(a) Izen-predikatu hauek *egon* aditzarekin azaltzen direnean, lekuzko adizlagun baten beharra dute ondorio onargarriak emateko. Horrek, *egon* aditzarekin azaltzen badira ere bigarren mailako predikatuak direla ematen digu aditzera.

(97) a. Ander irakasle dago Madrilgo Unibertsitate Autonomoan
b. *Ander irakasle dago

(b) Izenki-predikatu bat (edo hobeki esanda perpaus txiki bat) hartzeko azpikategorizaturik ez dauden aditzen kasuan berriz, ez dago adizlagun bereziren beharrik.

(98) a. Nire laguna apaiz sartu da
b. Peru zuzendari hautatu dugu

(c) Bigarren mailako predikatu modura azal daitezkeen hiztegi-sarrerak oso murrizturik daude.

(99) a.*Ander arkitekto dago eraikuntza horretan
b. *Jon musikari joan da Ameriketara


(d) Egoera-mailako izen-predikatuen kasuan badago izaki-mailako izen-predikatuen kasuan (ez i ez ii sailekoetan) ez dagoen

murriztapen bat: lehenengoek izenondo baten modifikazioa onartzen duten bitartean (100/101), bigarrenek ez dute horrelako modifikaziorik onartzen (102).

(100) a. Miren idazle ona {da/egin da}
b. Ander erretzaile amorratua {da/egin da}
(101) a. Peru irakasle {ona/laguna} da
b. Itziar artzain trebea bilakatu da
(102) a. *Ander irakasle {on/lagun} dago Gasteizen
b. *Jon artzain {trebe/gazte} joan da Ameriketara

Gogora ditzagun lehenengo atalaren 1.2.2. azpisailean deskribatu ditugun markaketa tematikorako mekanismoak: *idazle on* edo *artzain trebe* bezalako esapideetan alde batetik θ-identifikazioa eta bestetik θ-markaketa autonomoa gertatzen dela esan dugu Higginbothan-i (1985, 1987) jarraiki.

(103)



θ-markaketa autonomoak izenondoaren kalifikazioa izenak adierazitako ekintzara murriztuko luke. Bestetik, θ-identifikazioaren bidez N eta A buruek indize bera eta ezaugarri berberak (zenbaki eta pertsonazkoak) jasoko lituzkete.

Izaki-mailako predikatuen kasuan, Nu buru funtzionalera goratzen den elementua (eta beraz, zenbaki-komunztaduraren marka hartzen duena eta subjektuarekiko harremanetan jartzen dena) A burua izanik ere, N-A

konplexu osoa da predikatutzat hartzen dena: (99a) adibidearen kasuan esate baterako ez dugu ulertzen Miren ona dela, idazle modura ona dela baizik.

(102) saileko adibideek, egoera-mailako predikatu arruntak balira, onargarriak izan behar lukete: Asp burura izenondo soila goratuko balitz ere, θ-identifikazioaren eraginez, N-A konplexu osoa ulertuko litzateke predikatu modura.

Izenondoak hartzeko ezintasun horrek, aditzaren eta izenondoaren arteko murriztapenei eta komunztadurarako ezintasun absolutuari lotuta, berranalisi baten aurrean gaudela pentsarazten digu: honelako eraikuntzetan, N buruak eta aditzak (*egon, joan, sartu, hautatu*) predikatu konplexuak eratuko lituzkete (*irakasle egon, apaiz sartu,...*).[34] Beraz, N-V moduko predikatu konplexuen aurrean geundeke eta horrexegatik ez luke inolako modifikatzailerik onartuko N horrek.

Lanbide-izenari gramatikalak ez diren adibideetan (102) gaineratu dizkiogun izenondoei dagokienez, ikusi *gazte* izenondoa alde batera utzirik isolaturik ere ez direla onargarriak *egon* eta *joan* aditzekin.

(104) a.*Ander {on/ lagun} dago Gasteizen
b.*Jon trebe joan da Ameriketara
c. Jon gazte joan da Ameriketara

Hortaz, bai *gazte* izenondoa bai eta *artzain* izena ere onargarriak dira *joan* aditzarekin baina *artzain gazte* NPa ez da onargarria. Bestetik, izen eta izenondo horiek aparteko predikatuak eratuz jartzen badira, ondorio onargarriak ematen dituzte (105a).

(105) a. Jon, oso gazte, artzain joan zen Ameriketara

---

[34] Gogora bedi hirugarren atalaren 3.4.3.2. azpisailean ingelesaren zenbait dialektotan baizik onargarriak ez diren predikatu deskribatzaile eta ondoriozko predikatu baten konbinaketarako Mc Nulty-k azalpen bera eman duela.


b.*Jon, artzain, oso gazte joan zen Ameriketara

Hala ere, predikatu horien arteko ordenaketari begiratzen bazaio, izen-predikatuak aditzarekiko ukipenean egon behar duela ikus daiteke (105a/b). Gogora bedi 3.4.3.2. azpisailean aditzera eman dugun Mc Nulty-ren (1988) LCXP baldintza, zeinaren arabera argumentu bakarraz predikaturiko bi predikatuk ezin elkar m-komanda dezaketen: (105a) adibidean *gazte* eta *artzain* predikatuak *Jon* subjektuaz predikatu dira. Subjektu hori Varen osagarri modura sortzen dela kontutan hartuz, bi predikatu horiek V' adabegiari itsatsirik daudela onartu behar genuke (gogora bedi hirugarren atalaren 3.4.3. azpisaila), eta beraz, elkar m-komandatuko lukete LCXP baldintzaren aurka.


Gainera, bi predikatu horiek V' adabegiari itsatsita badaude, beraien arteko edozein ordenaketak onargarria izan behar luke. Ondorioz, (105a) eta (105b) adibideak ondo elkar dakizkioke hemen defendaturiko banaketari: (105a) bezalako adibideetan *gazte* izenondo-predikatua V' adabegiari itsatsiriko bigarren mailako predikatua da eta *artzain joan* segmentua hiztegitik sorturiko predikatu konplexua.

Artzain joan modukoak predikatu konplexutzat hartzeak, ongi azaltzen du komunztadura eta modifikatzaileak hartzeko orduan izen horrek dituen ezintasuna eta murriztapenak. Bestetik, *irakasle egon* modukoak ere predikatu konplexutzat hartzen baditugu, azalduta geratzen da baita honelako eraikuntzetan lekuzko adizlagun bat behar izatea (97a/b adibideak): *irakasle egon* predikatu konplexuak *egon* aditzaren eskakizun berberak ditu argumentuen aldetik eta horrela egoera-mailako predikatu bat duen perpaus txiki bat behar du osagarri modura.

(106) a.



b.



Laburbilduz, lanbideak eta karguak adierazten dituzten izenek, *izan* edo *bihurtu, bilakatu* eta *egin* bezalako aditzekin azaltzen direnean, izaki-mailako predikatuak dituzten NuP kategoriako perpaus txikiak eratzen dituzte ekintzen egileek bezala.

Izen-predikatu hauek *egon, joan, sartu* eta *hautatu* aditzekin ere azal daitezke. Hala ere, honelakoetan dagoena egoera-mailako nolabaiteko predikatua izan gabe, *irakasle egon, artzain joan* edo *apaiz sartu* moduko predikatu konplexuak direla frogatu dugu. Hori frogatzeko komunztaduraren eta modifikazioaren ezintasunean, bestelako egoera-mailako predikatu batzuekiko aldiberekotasunean eta ordenaketan, eta *irakasle egon* moduko sekuentziek duten lekuzko adizlagun baten beharrean oinarritu gara.

Ondorioz, lanbideak eta karguak adierazten dituzten izenek ere 'e' argumenturik ez dutela eta beraz, beti izaki-mailako predikatuak eratzen dituztela esan dezakegu. *Egon, joan , sartu* eta *hautatu* aditzekin azaltzen direnean predikatu konplexuak eratzen dituztela esan dezakegu.

4.4.6.3. Predikatu psikologikoak eratzen dituzten izenek islatzen dituzten predikatuak

Bukatzeko predikatu psikologikoak eratzen dituzten *beldur, gose* eta *hotz* bezalako izenek islaturiko predikatuak ditugu. Izen horiek behin-behineko egoerak adierazten dituzte, baina *izan* aditzarekin joan ohi dira gehienetan. Hala ere, zenbait hiztunek *egon* edo °*edun* edo nor-nori-nork ereduko laguntzaileak ere onartzen dituzte predikatu psikologiko hauekin.

(107) a. Haurra beldur da
b. Haurra beldur dago
c. Haurrak beldurra du
d. Haurrak beldurra dizu

Izan eta *egon* aditzekin ezinezkoa da komunztadura (108a, b) eta °*edun* eta nor-nori-nork laguntzaileekin *-a* bukaera azaltzen bada ere (108c), ez dago ezta komunztadura egiteko modurik (108d).

(108) a.*Haurra beldurra da
b.*Haurra beldurra dago
c.*Haurrak beldur {du/dizu}
d.*Haurrek beldurrak {dituzte/dizkizute}

Bestetik, predikatu hauek ezin koordina daitezke *izan* aditzarekin azaldu ohi diren izaki-mailako beste predikatuekin. Ez predikatu horien buruak N kategoriakoak direnean (109b), ez eta A kategoriakoak direnean ere (109a).

(109) a. *Zure lagunak beldur eta sentiberak dira
b. *Zure lagunak erretzaile(ak) eta beldur dira

Ez dute onartzen ezta, izaki-mailako predikatuekin joan ohi diren *bihurtu, bilakatu* edo *egin* moduko aditzik.

(110) a. *Zure lagunak beldur bihurtu dira
b. *Jon beldur egin da

Bukatzeko, ezin azal daitezke bigarren mailako predikatu modura (111a, b) edo egoera-mailako predikatuekin joan ohi diren *jarri, gertatu* eta *gelditu.* bezalako aditzen osagarri modura (111c).

(111) a. Jon {*beldur/ beldurtuta/ beldurrez} hasi da lan berrian
b. Haurrak {*beldur/beldurtuta/beldurrez} ikusi du filme hori
c.*Haurra beldur {jarri/gelditu } da

Horrela , izaki-mailako predikatuen ezaugarri batzuk dituzte egoera-mailako predikatuen beste ezaugarri batzuekin nahastuta: ohizkoena *izan* aditzarekin azaltzea da eta °*edun* eta nor-nori-nork erako laguntzaileen txandakaketa ere onartzen dute ILPek bezala baina *egon* aditza ere onartzen dute ELPek bezala eta gainera ez dute inolako komunztadurarik onartzen, *izan* eta *egon* aditzekin mota bereko predikatuak eta semantika-ñabardurak ditugularik. Egoera-mailako predikatuek bezala behin-behineko egoerak adierazten dituzte[35] eta *beldurtuta* edo *beldurrez* bezalako predikatuen sinonimoak dira. Bukatzeko, ez dituzte onartzen ez ELPak eskatzen dituzten *jarri, gelditu* eta *geratu* bezalako aditzak ez eta ILPak eskatzen dituzten *bihurtu* edo *bilakatu* bezalako aditzak.

Demagun, predikatu-buru hauek 'e' argumentua dutela eta sintaxian argumentu hori AspP kategorian islatzen dutela. Bigarren mailako predikatu modura edo *jarri, geratu eta gelditu* bezalako aditzen osagarri modura azaltzeko ezintasuna eta *egon* aditzarekin agertzeko zailtasuna azaldu beharko dira.

Gogora dezagun *egon* aditzak bere osagarriari ezartzen dion eskakizuna bikoitza dela: alde batetik 'e' argumentua islatzen duen egoera-mailako predikatu bat izan behar du osagarri horrek, baina bestetik,


---

35 Egoera-mailako aditz-predikatuek, askotan, egoerak adierazi gabe gertaerak adierazten dituzte.


espezifikatzailedun buru funtzional bat ere eduki behar du, hau da perpaus txiki bat izan behar du.

Bestetik, gogora dezagun espezifikatzaile horrek ukituriko subjektu batez bete behar dela predikatua ondoriozko egoeratzat hartu ahal izateko. Baldintza horiek guztiak bete egiten dira *beldur* predikatuaren sinonimotzat har daitezkeen *beldurtuta* edo *beldurrez* bezalako predikatuetan, baina *beldurtu* edo *beldur* dugunean, Asp buruaren espezifikatzailea beteko lukeen ukituriko subjektu horren eza dugu eta beraz, ez dira *egon* aditzaren edo bigarren mailako predikatuen eskakizun guztiak betetzen.

(112) a.




b.




Ikusi (112a) eta (112b) adibideetan Asp buruaren espezifikatzailea bete ez dela eta beraz, predikatua ez zaiola bere subjektuari lotu TP mailaraino. (113a) eta (113b) adibideetan berriz, predikatua bere subjektuari PP mailan lotu zaio (perpaus txiki bat eratu da) eta beraz, *egon* aditzaren edo bigarren mailako predikazioaren eskakizun guztiak bete dira. *Haurrak beldurrak dago* moduko eraikuntzetan ere ergatiboa nolabaiteko posposizioa dela eta perpausa (113a) adibidearen antzera analiza daitekeela defendatuko dugu.

(113) a.



b.



AspP islapenean komunztadura egiteko ahalmena duten euskalkietan, ez dago PParen beharrik: egoera-mailako predikatuaren subjektua [spec, Asp] gunean geratuko litzateke, Asp buruan legokeen partizipioarekiko komunztadura gauzatuko lukeelarik. Modu horretara, egoera-mailako predikatua bere subjektuari lotuta geratuko litzateke eta *egon* aditzaren eskakizunak beteko lirateke (*haurra beldurtua dago*).

Bestetik, *haurra beldur dago* bezalako esapideak onartzen dituzten hiztunek, *egon* aditzak osagarrian behin-behineko ezaugarriak adierazten dituzten predikatuak hartzen dituela baizik ez dute kontutan hartzen, predikatu horiek subjektu bati lotuz perpaus txiki bat eratu behar luketela ahaztu egiten dutelarik.

Bukatzeko, *haurrak beldurra du* eta *haurrak beldurra dizu* bezalakoak onartzen dituzten hiztunek, Asp buruan Ø txertatu beharrean *-a* morfema txertatzen dutela pentsa genezake.

Laburbilduz, *beldur, hotz , gose* eta *lotsa* bezalako izenek, 'e' argumen_ tua duten hiztegi-sarreretarikoak dira. Horrela, AspP kategoria funtzionala isla dezakete. Hala ere, Asp horren espezifikatzailea ez da sekulan predikatuaren subjektuaz betetzen, eta AspP kategoriaz gain, AuxP, MP eta TP kategoria funtzionalak ere islatzen dituzte predikatu hauek. Horrela, egoera-mailako predikatu hauek ez dute perpaus txikirik eratzen eta bazterturik daude bigarren mailako predikazioaren esparrutik. *Egon* aditzaren osagarri modura txertatu ahal izateko ere, perpaus txikiak eratu behar lituzkete eta horrexegatik hiztun gehienek baztertu egiten dituzte *egon* aditzarekin. Hala ere, zenbait hiztunek onartu egiten dituzte *haurra beldur dago* bezalako perpausak predikatuaren egoera-mailako izaerari bakarrik begiratuz.

Egon onargarria da hiztun guztientzat, AspP kategoria PP batean sartzen denean (*haurra beldurrez dago / haurra beldurrak dago*), islapen horretan subjektu/predikatu harremana (perpaus txikia) gauzatzen delarik. *Beldur* izena izan gabe, *beldurtu* partizipioa dugunean ere, *-ta, -rik* (edo *gabe*) posposizioetariko bat behar da subjektu/predikatu harremana gauzatzeko eta beraz *egon* aditzarekin edo bigarren mailako predikatu modura azaldu ahal izateko (*Jon beldurtuta dago / Jonek beldu gabe hitz egin du bere lankideen aurrean*). AspP islapenean komunztadura egiteko ahalmena duten hiztunen kasuan, onargarriak dira komunztaduradun partizipioak ere (*Jon beldurtua dago / Jonek beldurtua hitz egin du bere lankideen aurrean*).

4.5. Posposizio-sintagmak eta izenki-predikazioa. Sintaxizko adierazpena

4.5.0. Sarrera

Azpisail honetan buru modura posposizioren bat duten baina izenki-predikazioaren arloan aztertu ohi diren aditzen osagarri modura edo bigarren mailako predikatu modura azaldu ohi diren eraikuntzak aztertuko ditugu. [36]

Hiru sail nagusi egin daiteke posposizio hauen artean:[37]

(I) Osagarri modura argumentuak hartzen dituzten posposizioak. Predikatu-izaera, posposizio berean datza eta ez osagarri modura hartzen duen XPan.

(Ia) Inesiboa (*-an*)
(Ib) Soziatiboa (*-rekin*)
(Ic) Destinatiboa (*-rentzat*)
(Id) *-Ka* atzizki errepikatiboa

---

[36] Gogoratu bigarren atalaren 2.2.1. eta 2.4. azpisailean honelako eraikuntzak predikatuen sailean aztertzeko arrazoiak eskaini ditugula.

[37] Posposizioen azpisail hauek Grimshaw-en (1991) oharren aldekoak lirateke: Grimshaw-en arabera, P kategoriako elementuen izaera zalantzagarria da, bai orokorrean eta baita berak proposaturiko islapen hedatuen teorian ere: batzuetan P adabegiak beraien osagarriaren islapen hedatuak eratzen dituzten bitartean, beste batzuetan, θ-markatzaileak eta beraz predikatu-buru lexikoak direla dirudi.

(Ie) *gisa, erara* eta *modura* posposizioak

(II) Osagarri modura argumentuak edo predikatuak har ditzaketen posposizioak. Argumentuak hartzen dituztenean, predikatu-pospozizio baten aurrean gaude, baina osagarri modura predikatu bat hartzen dutenean, subjektu/predikatu harremana posible egiten duen erlaziozko posposizio bat dugu, hau da predikatuaren islapen hedatua.

(IIa) *Gabe* posposizioa
(IIb) Instrumentala (*-(e)z*)

(III) Osagarri modura predikatuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak.

(IIIa) Prolatiboa (*-tzat*)
(IIIb) Partizipioari lotzen zaizkion *-ta* eta *-(r)ik* posposizioak

Ikusi osagarri modura argumentuak edo predikatuak hartzea eraikuntza hauen analisirako oso garrantzitsua dela: posposizioak osagarri modura hartzen duena argumentu bat denean, gutxienez bi argumentu (osagarria eta subjektuaren funtzioa beteko duena) hartzen duen predikatu-buru baten aurrean gaude eta beraz, posposizioa kategoria lexikotzat har daiteke. Posposizioak osagarri modura predikatu bat hartzen duenean berriz, izenki-predikatuaren argumentu guztiak predikatu horren XP isladapen nagusiaren barnean sortzen dira, eta posposizioa predikatuaren islapen hedatua da. Horrenbestez, posposizio horiek kategoria funtzionaltzat har daitezke.

4.5.1. Osagarri modura argumentuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak

(Ia) Hasteko *-an* inesiboa dugu. PP hauek zenbait aditzaren osagarri modura (114) edo bigarren mailako predikatu modura (115) azal daitezke.

(114) a. Mikel kalean { dago/dabil/da/ jarri dugu/gelditu da}
b. Horiek haurtzaroan {daude/gelditu dira}
c. Ane langabezian {dago/da/jarri dute/ gelditu da}
d. Jon lanean {dago/dabil/da}

(115) a. Mikel kalean ikusi nuen
b. Bidaia hori haurtzaroan egin genuen
c. Langabezian ez duzu bizitzeko behar duzun dirua irabaziko
d. Jonek diru asko irabazi zuen lanean

Semantikari dagokionez, posposizio honek lekuzko edo denborazko kokapena (114a,114b, 115a, 115b), behin-behineko egoerak (114c, 115c) edo iharduerak (114d, 115d) adieraz ditzake.


Ikusi, bestetik, posposizio honen osagarria beti DP kategoriakoa dela, mugatu singularra, plurala edo mugagabea izan baitaiteke (116). Beraz, Pak osagarri modura hartzen duena argumentua da eta ez predikatua.

(116) a. Haurrak kalean {daude/dabiltza)
b. Haurrak kaleetan {daude/dabiltza}
c. Haurrak uretan {daude/dabiltza}

Gainera, banaketan eta lortzen diren predikatuen semantikan oinarrituta, egoera-mailako predikatuen aurrean gaudela esan dezakegu. Beraz, *-an* posposizioa hiru argumentuko predikatu-burua da: hasteko, osagarri modura

hartzen duen argumentua dugu; bigarrenik, espezifikatzailean sortzen den argumentua (subjektuaren funtzioa betetzen duena); eta bukatzeko egoera-mailako predikatuak eratzeko behar den 'e' argumentua. Azken argumentu hori AspP kategorian islatzen da, horrek perpaus txiki guztietan behar den subjektu/predikatu harremana gauzatzeko egiturazko euskarria ematen duelarik. Ikusi, bestetik, Pak osagarri modura duen argumentuari berezko kasua ezartzen diola (θ-paperarekin batera). Paren espezifikatzailean sortzen den argumentuak berriz, θ-papera D-egituran hartzen badu ere, egiturazko kasua hartzen du [spec, T] gunean .

(117)




(Ib) *-(R)ekin* soziatiboak ere, egoera-mailako predikatuen burua izan daiteke. Inesiboa bezala, hainbat aditzen osagarri modura edo bigarren mailako predikatu modura ager daitezkeen perpaus txikiak eratzen ditu.

(118) a. Jon bere lagunekin {dago/dabil}
b. Ane Perurekin {ikusi dugu/bizi da}

Argumentu-egiturari dagokionez, hiru argumentuko hiztegi-sarrera dugu kasu honetan ere: osagarri modura berezko kasuaz markatzen duen argumentu bat hartzen du, espezifikatzailean subjektuaren funtzioa betetzen duen argumentu bat, eta bukatzeko AspP kategoria funtzionalean islatzen den 'e' argumentua ere badu.

(119)




(Ic) Destinatiboa (*-(r)entzat*) aurreko biek bezala argumentuak hartzen ditu osagarri modura. Baina izaki-mailako predikatuak eratzen ditu: *izan* aditzarekin agertzen da beti. Beraz, 'e' argumenturik ez duela pentsatu behar dugu.

(120) a. Liburu hau haurrarentzat da
b.*Liburu hau haurrarentzat {bihurtu da/bilakatu da}

Hala ere, destinatiboa daramaten predikatu horiek ez dira onargarriak *bihurtu* eta *bilakatu* bezalako aditzekin. Buru modura destinatiboaren posposizoa duten predikatu hauek ezin egin dezakete inoiz subjektuarekiko komunztadurarik eta beraz, ez dute NuP (ez eta AspP) kategoria funtzionalik

islatzen. Horrela, ezin ager daitezke osagarri modura perpaus txikiak behar dituzten aditzekin. *Izan* aditzaren kasuan berriz, laguntzaile baten aurrean gaude (Aux buru funtzionalean txertatzen den aditza dugu); eta beraz, ez du hautapen-eskakizunik, osagarri modura predikatu soilak zein perpaus txikiak har ditzakeelarik.

(121)



(Id) *-Ka* atzizki errepikatiboak ere, argumentuak hartzen ditu osagarri modura, baina argumentuaren D burua Ø izatea eskatzen du.[38]

(122) a. Jon saltoka dabil
b. *Jon saltoaka dabil

Atzizki honek irakurketa errepikatiboa ekartzen du. Horrela, eratzen dituen predikatuak aspektuaren aldetik iharduerak direla esan daiteke. Beraz, egoera-mailako predikatu inperfektiboak dira: *-ka* posposizioak, 'e' argumentua duela ondorioztatu behar dugu. Ikuspegi hau ongi moldatzen

---


[38] Honelako eraikuntzek perpaus txikiak eratzen dituztelako ideia defendatu du Eguzkitzak (1990)

zaio predikatu hauen banaketari: *egon* eta *ibili* aditzen osagarri modura, edo bigarren mailako predikatu modura azal daiteke.[39]

(123) a. Mikel oihuka {dago/dabil}
b. Haurra oihuka {ikusi /aurkitu} dugu

Beraz, *-ka* posposizioa hiru argumentu hartzen dituztenetarikoa da: hasteko, osagarri modura hartzen duen eta berezko kasuaz markatzen duen osagarria, bigarrenik espezifikatzailean sortzen den argumentua (subjektua), eta bukatzeko AspP kategorian islatzen den 'e' argumentua.

(124)




---

39 Hona hemen *egon* aditzarekin azal daitezkeen predikatu inperfektiboen beste mota bat. Hori Hernanz (1988, 1991) eta Bosque-ren (1990) ikuspegien aurka doa: *egon* aditzak egoera-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiak hautatzen ditu. Baina horrek ez du esan nahi predikatu horiek perfektiboak izan behar dutenik.

(Ie) *Gisa, erara* eta *modura* posposizioak. Posposizio hauek ere, beti mugagabean doazen argumentuak hartzen dituzte. Beti eratzen dituzte bigarren mailako predikatuak, hau da ezinbestekoak ez diren predikatuak: ikusi *egon* aditzarekin erabiltzen direnean bestelako predikatu-osagarri bat behar dela.

Bigarren mailako predikatuak eratzen dituztenez, egoera-mailako predikatuen aurrean gaudela, eta beraz, posposizio hauek 'e' argumentua dutenetarikoak direla onartuko dugu. Hona hemen adibide baten adierazpena.

(127)



(125) a. Liburu hau apaingarri gisa dago hemen
b. *Jon zuzendari gisa dago
c. Jon zuzendari gisa dago bilera honetan
d. Liburu hau interesgarria da gida modura

e. *Liburu hau gida modura da

(125) a. Liburu hau gida modura erabiliko dugu

b. Loreontzi hau apaingarri modura erosi dugu

Posposizio hauen kasuan, posposizioak eta argumentuak ez dute amalgamaziorik pairatzen. Horrexegatik ez dugu DPtik Prako mugimendurik adierazi (127) zuhaitzean.


4.5.2. Osagarri modura argumentuak edo predikatuak har ditzaketen posposizioak

(IIa) *Gabe* posposizioa argumentuekin (128) edo predikatuekin (130) azal daiteke. Argumentuekin azaltzen denean, argumentu horiek beti agertu behar dute mugagabean: hiztun batzuek partitiboaren marka argia txertatzen dute, eta beste batzuek inolako marka morfologikorik gabeko NPak sartzen dituzte.

(128) a. Gure laguna {dirurik gabe/ diru gabe} {dago/dabil}
b. Ander {dirurik gabe/ diru gabe} itzuli zen bidaia hartatik

Beraz, predikatu-izaera, posposizio berari zor zaio, eta eratzen dituen predikatuak egoera-mailakoak dira. Ondorioz, kasu honetan ere, hiru argumentuko predikatu-burua dugula esan dezakegu: hasteko *gabe* posposizioak osagarri modura hartzen duen eta partitibo berezko kasuaz markatzen duen argumentua; bigarrenik, [spec, P] gunean sortzen den argumentua (predikatuaren subjektua); eta azkenik, AspP kategoria funtzionalean islatzen den 'e' argumentua.


(129)



Baina *gabe* posposizioa predikatuei lotuta ere azal daiteke. Predikatu horiek beti izaten dira partizipioen sailekoak, eta beraz egoera-mailako predikatu perfektiboak. *Gabe* posposizioak (*-ta* edo *-rik* posposizioek bezala) predikatu horri subjektuarekiko harremana gauzatzeko, eta beraz, perpaus txiki bat eratzeko egiturazko maila eskaintzen dio. Posposizio hau duten perpaus txikiak *egon* edo *ibili* aditzen osagarri modura edo bigarren mailako predikatu gisa ager daitezke.

(130) a. Ariketa egin gabe dago
b. Jon bizarra moztu gabe dabil
c. Haurra bazkaldu gabe joan da eskolara

Gabe posposizio honek, osagarri modura predikatuak hartzen ditu; eta beraz, ez du erlaziozko balioa baizik: eraikuntzaren argumentu guztiak Vak islatzen dituenak dira eta posposizioa predikatuaren islapen hedatua da. Horrela, argumentuen kopurua aditzaren motaren araberakoa da eta ez pospozizioaren araberakoa.



(IIb) Instrumentalak (*-(e)z*) ere, argumentuak (132) zein predikatuak (133) har ditzake osagarri modura. Argumentuak hartzen dituenean mugagabean (132b) edo mugatuan (132a) doazen argumentuak hartzen ditu. Bestetik, *egon* edo *ibili* aditzen osagarri modura txertatzen diren predikatuen edo bigarren mailako predikatuen burua izan daiteke posposizio hau: egoera-mailako predikatuak eratzen dituen <1,2,e > argumentu egitura duen posposizioa da hau ere.


(132) a. Ni jaka hori erosteko gogoaz {nago/nabil}
b. Haurra negarrez ikusi dugu

Osagarri modura har ditzakeen predikatuei dagokienez, berezi samarrak direla esan daiteke: esperientzia fisiko edo psikologikoak adierazten dituzten izenetarikoak izan ohi dira (*beldur, gose, lotsa*). Predikatu horiek egoera-mailakoak direnez, posposizioa gaineratuz eratzen den perpaus txikia *egon* edo *ibili* aditzen osagarri modura (133a) edo bigarren mailako predikatu modura azal daiteke (133b).


(133) a. Haur hori gosez {dago/dabil}
b. Anek lotsaz hartu zuen dirua

Ikus daitekeenez, osagarri modura argumentuak hartzen dituzten (134a) eta predikatuak hartzen dituzten (134b) instrumentalen artean dagoen ezberdintasuna, argumentuak sortzen direneko mailan datza: lehenengo kasuan eraikuntzaren subjektua, [spec, P] gunean sortzen da eta bigarren kasuan, NParen barnean. Bestetik, AspP kategoria predikatu-posposizio beraren islapena da (134a) kasuan; baina, (134b) kasuan, N predikatu-buruaren islapena da, posposizioak subjektu eta predikatuaren arteko erlaziozko funtzioa betetzen duelarik.

(134) a.



b.



4.5.3. Osagarri modura predikatuak baizik hartzen ez dituzten posposizioak


(IIIa) Prolatiboa (*-tzat*) osagarri modura predikatuak baizik hartzen ez dituzten posposizioetarikoa da. Beraz, predikatuaren islapen hedatuari dagokion posposizioa dela esan dezakegu.

Osagarri modura hartzen dituen predikatuak, gramatika-kategoria askotakoak izan daitezke: NP, AP, VP.


(135) a. Jon erretzailetzat neukan baina aspaldian erretzen ez duela jakin dut
b. Garbiketako emakumea sendagiletzat hartu dut gelara sartu denean
c. Filme hori interesgarritzat jo dut iragarkia ikusi dudanetik
d. Lan hau bukatutzat emango dugu

Predikatu horien aspektu-izaerari dagokionez, izaera-mailako (135a, b, c) eta baita egoera-mailako predikatuak (136d) izan daitezke. Izaki-mailako predikatuak direnean ere, ez dute inoiz NuP kategoriarik islatzen: *-tzat* posposizioa perpaus/txikiaren subjektu/ /predikatu harremana gauzatzeko funtzioa duen kategoria funtzionala da.

(136) a.



b.



Prolatiboak izaki-mailako zein egoera-mailako predikatuak har ditzake. Hala ere, ezin har dezake perpaus txikirik. (137a), (137b) eta (137c) adibideetan esate baterako, predikatuek subjektu/predikatu harremanerako egiturazko euskarria eskaintzen dien islapen hedatu bat dute eta horrexegatik ez dira onargarriak prolatiboarekin.

(137) a.*Zure laguna$_i$ [$_{PP}$t$_i$ [$_{NuP}$t$_i$ [$_{AP}$t$_i$t$_A$]t$_{A\text{-}nu}$]
mediku-a-tzat$_{A\text{-}nu\text{-}P}$] neukan

b.*Haurra$_i$ [$_{PP}$t$_i$ [$_{AspP}$t$_i$ [$_{AP}$t$_i$t$_A$]t$_{A\text{-}asp}$]
pozik-Ø-tzat$_{A\text{-}asp\text{-}P}$] jo dut

c.*Saioa$_i$ [$_{PP}$t$_i$ [$_{PP}$t$_i$[$_{AspP}$ [$_{VP}$t$_i$t$_V$]t$_{V\text{-}asp}$]
t$_{V\text{-}asp\text{-}P}$]buka-tu-ta-tzat$_{V\text{-}asp\text{-}P\text{-}P}$] emango dugu

Ondorioz, *-tzat* posposizioak ez du perpaus txikirik onartzen osagarri modura; aitzitik, predikatuen islapen hedatuari dagokion posposizioa dela eta posposizio horren bidez subjektu/predikatu harremana gauzatzeko maila eta beraz perpaus txiki bat lortzen dela esan daiteke.


(IIIb) Partizipioari lotzen zaizkion *-ta* eta *-rik* posposizioek osagarri modura beti partizipioen kategoriako egoera-mailako predikatuak hartzen dituzte. Partizipio horiei subjektu/predikatu harremana gauzatzeko, eta beraz perpaus txiki bat gauzatzeko egiturazko maila bat eskaintzen diete. Modu horretara, *egon* edo *ibili* aditzen osagarri modura edo bigarren mailako predikatu modura txerta daitezkeen osagaiak lortzen dira.

Partizipioaren AspP mailan espezifikatzaile/buru mekanismoaren bidezko komunztadura onartzen duten hiztunek, AspP maila horretan bertan gauza dezakete subjektu/predikatu harremana eta AspP mailako perpaus txikiak lor ditzakete, *-ta* edo *-rik* posposizioak beharrezkoak ez direlarik.

Baina, posposizio hauen eginkizunaz, 4.4.3. azpiatalean mintzatu gara zehazkiago eta hemen eginkizun hori gogorarazteko balio dezaketen zenbait adierazpen baizik ez dugu eskainiko.


(138) a. Liburua apurtuta dago
b. Liburua apurtua dago

(138) a.



V-asp-P


b. ....



(139) a. Gela beterik aurkitu dugu


b. Gela betea aurkitu dugu

(139) a.



V-asp-P

b.



4.6. Predikazioaren Teoria Bateratzailea eta islapen hedatuaren definizioa

Lehenengo atalaren 1.3.4. azpisailean, Grimshaw-en (1991) islapen hedatuen definizioa ikusi dugu. Halaber, islapen hedatuetan zehar bete behar diren bi baldintza ere ikusi dugu:

(i) Gramatika-kategoria mantendu egiten da islapen hedatuen adabegietan zehar.
(ii) Islapen hedatuaren barnean, F balioak hartu behar dira kontutan, F^x balioa duen edozein bururen osagarri modura dagoen kategoriak F^{x-1} balioa eduki behar duelarik.

Lan honetan, perpaus txikiak hainbat kategoriatako (V, N, A, P) buruen islapen hedatuak direla eta perpaus txiki horien artean, NuP, AspP eta PP kategoria desberdientako perpaus txikiak daudela defendatu dugu.

Bestetik, NuP kategoria funtzionala, N zein A kategoriako buruen islapen hedatua izan daitekeela ikusi dugu, horrek, Nu kategoria [+N,-V] eta [+N, +V] ezaugarriak dituzten kategorien islapen hedatua izan daitekeelako ondoriora garamatza. Grimshaw-en (1991) iritziz, honelako kasuei irtenbidea emateko, zenbait islapen funtzionalek ezaugarriren bat neutralizaturik eduki dezaketela onar daiteke. Horrenbestez, NuP kategoriaren kasuan, [±V] ezaugarria neutralizaturik duela esan dezakegu, horrela osagarri modura duen predikatuaren kategoria iragazten zaiolarik.

AspP adabegiari dagokionez, kategoria guztietako (V, N, A, P) buruen islapen hedatua izan daitekeela ikusi dugu. Beraz, bi ezaugarriak ([±N] eta [±V]) neutralizaturik dituela pentsatzera garamatza, duen kategoria osagarri modura daraman predikatuak garraiatzen diona delarik.

Posposizioei dagokienez, kontuak korapilotsuago dirudi posposizioaren hiztegi-sarreraren arabera, mota bateko edo beste mota bateko predikatuen

islapen hedatua dela baitirudi: *-tzat* posposizioa N, A edo V kategorietako predikatuen islapen hedatua izan daiteke eta beste muturrean, *-ta* eta *-rik* posposizioak V kategoriako predikatuen islapen hedatuak izaten dira beti. Ondorioz, kasu honetan ere, bi ezaugarriak neutralizaturik dituen kategoria baten aurrean gaude.

Bestetik, N, A eta V kategorietako zenbait predikatu-buruk, NuP edo AspP islatzeko aukera izateaz gain, adizki-predikatuak islatu ohi dituzten AuxP, MP eta TP islatzeko gai direla ikusi dugu. Kasu hauetan ere kategoria neutralizatuen aurrean gaudela onartu beharko genukeelarik.

Horrenbestez, (i) ezaugarria alferrikako bihurtu da lan honetan proposatu dugun teoriari jarraiki. Geure iritziz, islapen funtzionalei ez zaie inolako ezaugarririk inposatu behar sintaxira heldu arte. Izan ere, egokiagoa da, islapen hedatuan zehar buru lexikoaren ezaugarriak iragazten direla besterik gabe onartzea: predikatu-buru bakoitzak (X°) dagokion XP islapen perfektua eta dagokion islapen hedatua (kategoria funtzionalak) islatzen ditu sintaxian, islapen horretan gora buru lexikoaren [±N] eta [±V] ezaugarriak eta baita bestelako ezaugarri semantikoak ere iragazten direlarik.

(ii) baldintzari dagokionez, hau da F balioari dagokionez, bai Nu eta bai Asp kategoriak, geure analisietan, beti hartzen dute osagarri modura F0 balioa duen XP predikatua, eta beraz, F1 balioa dutela esan dezakegu. Asp kategoriaren kasuan, gainera, balio hori, adizki-predikatuekin batera izan ohi duenarekin bat dator, Asp kategoriaren osagarri modura VPa azaldu ohi baita.

Aux, M eta T kategoriak, hurrenez hurren, F2, F3 eta F4 baliokoak lirateke, Aux buruaren osagarri modura NuP edo AspP kategoriak jarri baititugu beti. Dena den, maila honetan arazo handi bat azaltzen zaigu: Lakari (1991) jarraiki, adizki perifrastikoak (*ibili da*) ditugunean AspP kategoria dugun bitartean, adizki sintetikoak (*dabil*) ditugunean ez dugu horrelako kategoriarik. Onarpen honek beharrezko dirudi, adizki sintetikoen amalgamazioa eta zenbait adizki perifrastikotan azaltzen den aspektuatzizkirik eza (*ibil daiteke*) azaldu nahi baditugu.

Hala ere, ideia hori onartzen badugu, Grimshaw-en (1991) baldintza bortxatzen ari gara, F2 balioa duen Aux kategoriaren osagarri modura F0 balioko kategoria bat (VP) jartzen baitugu adizki sintetikoen kasuan. Dena den, AspP kategoriari dagokionez, badago, kontutan hartzeko beste ezaugarri bat: kategoria hori predikatu-buruaren e-argumentuaren isladari dagokio, eta beraz, predikatuen argumentu egitura predikatu horien islapen perfektuaren barnean garatzen dela onartzen badugu, Asp, ez litzateke hertsiki F1 kategoriakoa.

Demagun, AspP kategoria, ez duela F baliorik bere espezifikatzailea bete arte, orduan, adizki perifrastiko arrunten kasuan Asp kategoriak espezifikatzailerik ez duenez, ez litzateke kontutan hartuko F balioari dagokionez, eta Aux, bai adizki perifrastikoen kasuan eta baita adizki sintetikoen kasuan ere, F1 baliokoa litzateke, MP eta TP kategoriak hurrenez hurren F2 eta F3 baliokoak liratekeelarik.

Hipotesi horrek ordea, berriro ere huts egiten du, *izan* edo nor-nork, nor-nori edo nor-nori-nork erako laguntzaileekin azaltzen diren izaki-mailako (*Mikel irakaslea da/ ideia hau beharrezkoa da / ideia hau beharrezkoa zaizu lana bukatzeko* ...) edo egoera-mailako predikatuen kasuan (*bazkaria egina dut /Mikel etxean da*): [40] honelako kasuetan, berriro ere Aux kategoriak F2 balioa duela onartu behar baitugu.

Posposizioei dagokienez, partizipioetan azaltzen diren *-ta, -rik* eta gabe posposizioak F2 baliokoak direla onartu behar dugu, eta *-tzat* posposizioaren kasuan ordea, edo XP mailako predikatuak (*irakasletzat, beharrezkotzat*) edo AspP mailako predikatuak (*bukatutzat*) har ditzakeela ikusi dugu, AspP kategoriako predikatuek espezifikatzailea hutsik eduki behar dutelarik. Berriro ere, bi aukera dugu: alde batetik, prolatibo posposizioak batzuetan F1 eta beste batzuetan F2 balio edukitzen duela onar dezakegu, edo bestela, espezifikatzailea hutsik duen AspP kategoriak

---

[40] Gogoratu laugarren atal honetako 4.3.3. , 4.4.3. eta 4.4.6. azpisailetan egin ditugun analisiak

predikatuaren islapen perfektua dela eta beraz F0 balioari dagokiola onar dezakegu, prolatiboak beti F1 balioa izango lukeelarik.

Edozein modutan, AspP islapenak azterketa sakonagoa behar duten arazoak ekartzen dizkigu islapen hedatuen ikuspegitik. Gainerakoan, lan honetan proposatu dugun teoria Grimshaw-en (1991) islapen hedatuen teoriari ongi samar moldatzen zaiola ikusi dugu.

4.7. Laburbilpena

Hirugarren atalean, predikazioaren teorien bi bide nagusiak (Stowell-ena eta Williams-ena) horren urrun ez daudela eta gaur eguneko testuinguruan elkargarriak direla defendatu dugu. Defendatu dugun teoria bateragilearen gakoa hauxe da: bai subjektuak eta bai predikatuak nolabaiteko islapen funtzionalean sarturik dauden islapen nagusiak dira, islapen funtzional hori predikatuaren islapen hedatua delarik.

Laugarren atal honetan, subjektu eta predikatua biltzen dituen islapen funtzional horretarako arrazoi ugari eskaini dugu, bai lehenengo mailako eta bai bigarren mailako predikatuen kasuetarako.

Bestetik, euskararen datuetatik abiatuta, predikatu-eraikuntzen mota bakoitzerako, islapen funtzional zehatz bat proposatu dugu. Modu horretara lortu ditugun analisiek izenki-predikazioaren arloan ikusten diren sintaxizko jokaeren eta murriztapenen berri eman dezaketela ere frogatu dugu.

(i) 'e' argumenturik ez duten predikatu-buruek, 'izaki-mailako predikatuak' eratzen dituzte; predikatu horiek NuP kategoriako perpaus txikiak islatu ohi dituzte.

(ii) Normalean, NuP kategoriako perpaus txikietan, espezifikatzailean kokatzen den subjektuaren eta buruan paratzen den predikatuaren arteko zenbaki-komunztadura gertatzen da. Baina, aditz batzuek, Nu buruan Ø atzizkia eskatzen dute eta ez dago komunztadura ageririk.

(iii) 'e' argumentua duten predikatu-buruek, argumentu hori AspP kategoria funtzionalean isla dezakete, 'egoera-mailako predikatuak' eratuz.

(iv) Batzuetan, AspP islapen horren espezifikatzailean subjektua paratzen da. Kasu horietan subjektu eta predikatuaren arteko zenbaki-komunztadura azaldu ohi da; baina batzuetan, Asp buruan

Ø atzizkia dago eta ez da komunztadura ageririk azaltzen: edozein kasutan AspP mailako perpaus txikiez hitz egin daiteke.

(v) Beste batzuetan, [spec, Asp] gunea hutsik geratzen da eta subjektu/predikatu harremanerako beste maila bat behar da. Maila hori buru modura posposizio zehatz batzuetariko bat duen PPa izan ohi da. Posposizio horien funtzioa erlaziozkoa denez, kategoria funtzionalen artean sailka daitezkeela defendatu dugu.

Osagarri modura izaki-mailako predikatuak hartzen dituzten posposizioak ere, badira.

(vi) Erlaziozko posposizio horien ondoan predikatu-izaera duten hainbat posposizio ere badela frogatu dugu: argumentuak hartzen dituzte osagarri modura.

AZKEN ONDORIOAK

Tesi honen helburua euskal izenki-predikazioa aztertzea izan da. Edozein ikerketa-lanek bezala, azterketa honek hizkuntzalaritzaren arlo teoriko bat behar zuen aurrera eraman ahal izateko, arlo horren hautapenak hasierako onarpenak baldintzatuko baitzituen.

Ezagutu genuenetik oso erakargarri gertatu zitzaigulako eta lan honetarako euskarri ezinhobea eskaintzen zigulako, Chomsky-ren (1981) 'Lectures on Gobernment and Binding' lanetik aurrera Gramatika Sortzaileaz aritzen diren hizkuntzalariek GB edo nahi bada 'Gobernu eta Uztardura' deritzoten esparru teorikoa aukeratu genuen. Edozein modutan, arlo teoriko jakin bat ez da nahikoa hizkuntzalaritza-lan bat egiteko. Izan ere, aztertu nahi den hizkuntzalaritzaren 'atalari' buruzko datuak behar dira ezer baino lehenago, datu horiek jasotzeko modua eta itxuraketak, eta datu bakoitzari ematen zaion garrantzi-mailak jarraituko zaion ildo teorikoaren araberakoak izan beharko dutela egia bada ere. Datu horien bilketarako pentsatu genuen hain zuzen lan honen bigarren atala.

Baina lehendabiziz, lehenengo atalean GBaren oinarriak iradoki ditugu irakurleak hasiera-hasieratik lanean zehar eskainiriko datuak eta proposamenak behar den tokian kokatzen jakin dezan. Horri lotuta, euskarari buruz GBaren ikuspegitik egin diren lanen berrikustapena egin dugu, GBan oso garrantzitsua baita hizkuntza bakoitzaren berezitasunak finkatzeko balio duten Gramatika Unibertsalaren parametroak hizkuntza bakoitzean gauzatzen direneko modua. Dena den, lan honetatik kanpo geratzen zen parametro horiek guztiak zehazki aztertzea eta beste hizkuntzalarien lanetara jo dugu: euskara pro-drop motako hizkuntza konfigurazionaltzat hartu dugu lehendabiziz; bigarrenik, 'burua-azken' motako hizkuntza dela orokorki onarturik dagoen zerbait dela ikusi dugu; hirugarrenik, D-egituraren antolaketari dagokionez, hizkuntza akusatiboa dela onartu dugu azkeneko lan gehinetan bezala. Hala ere, kasu-sistemari dagokionez, arazoa aztertu duten hizkuntzalarien ezadostasuna iradoki dugu eta gu geuk, azterketa horiei ikusi dizkiegun puntu garbiak onartu eta izenki-

predikazioaren datuetan oinarrituz azterketa horien 'puntu ahulak' geure iritziz konpon ditzakeen kasu-ezarketarako sistema bat proposatu dugu.

Izan ere, bigarren atalean euskal izenki-predikazioaren deskribapena egin dugunean, *izan* eta *egon* aditzen arteko bereizketa egiten saiatu gara, hauexek baitira izenki-predikazioan parte hartzen duten oinarrizko aditzak. Hortaz, *egon* aditzak bere osagarriei murriztapen bortitzak ezartzen dizkien bitartean, *izan* aditzak osagarri horiei inolako murriztapenik ezarriko ez balie bezala jokatzen du. Jokaera-ezberdintasun horren berri emateko, *egon* aditza kategoria lexiko bati dagokion hiztegi-sarrera den bitartean *izan* aditza laguntzaileen sailekoa dela, hau da, kategoria funtzionalen sailekoa dela defendatu dugu. Ideia hori, ulertu ahal izateko, berebiziko garrantzia du lehenengo atalaren 1.3.4. azpisailean azaldu dugun Grimshaw-en (1991) 'islapen hedatuen' definizioak: *egon* aditzak kategoria lexikoa izanik, osagarri modura har ditzakeen elementuen ezaugarriak erabakitzen ditu. *Izan* aditzak berriz, laguntzaileen kategoria funtzionalari dagokionez, ez du bere ahizpa den elementuari inolako murriztapenik ezartzeko ahalmenik; areago, osagarri modura duen 'predikatuen' islapen hedatua da eta beraz, predikatu horren araberakoa, predikatu horren ezaugarriak islapen hedatuan gora iragazten direlarik.

Bere buru hedatuaren ezaugarrien arabera, zehazkiago argumentu-kopuruaren arabera, *izan* eta nor-nork, nor-nori edo nor-nori-nork ereduko laguntzaileen arteko txandakaketak ikus daitezke, bai izenki-predikazioaren kasu berezi batzuetan eta bai orokorki adizki-predikazioaren eremuan, predikatu bakoitzak dagokion laguntzailea islatzen baitu. Hau guztia oso erabakikor gerta daiteke, geure iritziz, euskal kasu-sistema azaltzeko orduan: euskal adizkiek ergatibo, absolutibo eta normalean baita datibo morfologi marka daramaten argumentuekiko komunztadura azaltzen dute. Pertsona-komunztaduraren gauzatze morfologikoa, adizki sintetiko edo perifrastikoan azaltzen diren klitikoen bidez egiten da (Laka, 1991), komunztadura horretarako, AuxP , MP eta TP islapen funtzionalak behar direlarik. Aux buruan laguntzailea sortu eta absolutibo argumentuaren klitikoa gaineratuko litzateke; M buruan *-ke-* bezalako morfema modalak eta datiboaren klitikoa itsatsiko lirateke; eta bukatzeko, T buruan, aldiaren markak eta ergatiboaren klitikoa gaineratuko lirateke beti ere Laka-ren (1991) iritziz.

Edonola, Laka-ren aditzaren morfologi eredua eta euskal kasu-sistema elkartu nahi direnean, arazo nabari bat sortzen zaigu; alegia, nola lor daiteke argumentu bakoitza aditzarekiko komunztadura gauzatzeko dagokion islapen funtzionalaren espezifikatzailean kokatzea? Arazo hori konpontzeko bide bat, D-egituratik argumentu bakoitza dagokion islapen funtzionalaren espezifikatzailean sortzen dela defendatzea da (Cheng & Demirdash, 1991). Horrela, hiru argumentu horiek beste hizkuntzetako subjektuen antzeko jokaera agertzen dutelako datua azal liteke. Hala ere, badaude Varen argumentuak VParen barnean sortzen direla bermatzen duten zenbait sintaxi-froga (Uriagereka, 1991) eta gainera badirudi argumentu bakoitzaren sorrera-gunearen eta S-egituran agertzen duen kasu-markaren arteko harreman zuzena dagoela. Hortaz, Uriagereka-k (1991) argumentuen sorrera-gune zehatzaren eta aditzean azaltzen den komunztaduraren arteko egokitasuna azaltzeko, argumentuei dagozkien klitikoak argumentuen beren DParen buru modura sortzen direlako hipotesia defendatu du.

Geure proposamenean, erraz eman daiteke argumentuen kasu-markaren eta aditzaren komunztaduraren arteko egokitasunaren berri: X predikatu-buruen argumentu guztiak XP predikatuaren islapen nagusiaren barnean (predikatuaren islapen perfektuaren barnean) sortuko lirateke. Bestetik, predikatuak, aditza denean behintzat, (AspP), AuxP, MP eta TP kategoriez osoturiko aparailu funtzionala islatuko luke, kategoria funtzionalen segida hori predikatuaren islapen hedatua litzatekeelarik. Hortaz, predikatuak, bere islapen hedatuaren ezaugarrien erantzulea litzatekenez, bere egiturari dagokion laguntzaile-mota islatuko luke. Argumentuek, kasuaren beharra dela eta XP islapenetik atera beharko lukete, horretarako bidean aurkituko lituzketen islapen nagusiei itsatsiz igoko lirateke eta hutsik aurkituko luketen azken kategoria funtzionalaren espezifikatzailean kokatuko lirateke. Horrela, hiru argumentuko aditz baten kasuan, esate baterako, argumentuak ordenaz mugituko liratekeenez, Varen espezifikatzailean sorturiko argumentua [spec, T] gunean geldituko litzateke, V'ari itsatsirik sorturikoa [spec, M] gunean eta Varen osagarria, [spec, Aux] gunean. Baina argumentu bakarreko aditza genukeenean, Varen osagarri modura sorturiko argumentuak hutsik aurkituko lukeen azken espezifikatzailea, [spec, T] izango litzateke eta beraz, bertan geldituko litzateke, subjektutzat hartuko genukeelarik. Ondorioz,

argumentu bakoitzak hartu beharko lukeen kasu-marka ez luke S-egituraren kokaguneak erabakiko, aditzaren islapen hedatua litzatekeen eta buruz buru mugituko litzatekeen laguntzaileak (Aux) baizik, espezifikatzaile/buru harremanaren bidez gauzatuko litzatekeen laguntzailearekiko komunztadurak kasu-marka egokia azaltzea eragingo lukeelarik.

Arazo orokor hauek utzirik eta izenki-predikazioaren esparru zehatzari eutsiz, GBaren arloan dauden bi teoria-bide nagusiak aurkeztu ditugu; alegia, Stowell-en (1981, 1983) 'Perpaus Txikien Teoria' edo 'Predikazioaren teoria Klausala' eta Williams-en (1980, 1983) 'Predikazioaren Teoria'. Bi teoria-mota hauek zeharo aurkakotzat hartu ohi dira, lehenengoak semantika-mailan subjektu/predikatu harremana dagoen bakoitzean sintaxi-mailan bi osagai horiek biltzen dituen osagai handiago bat egon behar duela defendatzen duen bitartean bigarrenak horrelako perpaus antzeko osagairik ez dagoela eta subjektua eta predikatua osagai independienteak direla defendatzen baitu. Hala ere, lan honetan bi teoria-mota horiek horren aurkakoak ez direla ikusi dugu eta bietatik zerbait hartzen duen eta bakoitzaren hutsuneak konpontzen saiatzen den 'Predikazioaren Teoria Bateratzaile' bat proposatu dugu.

Geure 'Predikazioaren Teoria Bateratzailearen' gakoa hauxe da: gaurko GBaren esparru teorikoaren onarpen nagusiei ongi moldatzen zaien predikazioaren teoria bat lortzeko, predikatuak nolabaiteko islapen funtzionalaren barnean sartuta egon behar du, islapen hori predikatu beraren islapen hedatua delarik. Teoria honen arabera lortzen diren analisiek badute Stowell-en analisien antza handia D-egituraren adierazpenari dagokionez, baina Williams-en analisien antzekoak dira, S-egiturari dagokionez.

Hasteko, D-egituran X° predikatu-buruen argumentu guztiak XP predikatuaren islapen perfektuaren barnean sortzen direla onartu dugu Stowell-en antzera. Baina egile horren arabera predikatuen islapena hor gelditzen den bitartean, geure analisietan, predikatu horiek beti izango dute nolabaiteko islapen hedatua. Horrela Stowell-ek predikatu-buruen islapen perfektuari dagozkion perpaus txikiez arituko den bitartean, geuk, predikatu-buruen islapen hedatuak diren perpaus txikiez arituko gara. Islapen hedatu horrek predikatua bera θ-markaketatik babestuko luke buru lexiko baten

osagarri modura txertatzen denean (azpikategorizaturiko lehen mailako predikatuen kasuan). Ideia honek ordea, badu Stowell-ek perpaus txiki guztietarako beren buruaren kategoriako islapen nagusiaren estatusa proposatuz gainditu nahi zuen arazo bat: mota desberdinetako aditzek, kategoria desberdinetako perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzte eta beraz osagarri horiek predikatu buruaren kategoriakoak izan behar dutela dirudi. Edonola, Grimshaw-i (1991) jarraiki islapen hedatuek beren buru hedatuaren kategoria eta ezaugarri berberak dituztela onartzen badugu, geure teorian ere eman dezakegu aditz matrizeen eta beren osagarri modura txertaturiko perpaus txikien arteko azpikategorizatze-harremanaren berri, predikatuen islapen hedatuak predikatu-buruen kategoria berekoak baitira.

Bigarrenik, predikatuek eta argumentuek, biak buru lexikoen islapenak badira ere, baldintza desberdinak bete behar dituzte: argumentuek, θ-papera eta kasua jaso behar dute onargarriak izateko, eta predikatuek berriz, θ-paperak esleitu behar dizkiete beraien argumentuei eta gainera, beren islapen perfektutik kanpo dagoen argumentu bati lotu behar zaizkio egiturazko harreman egokiaren bidez. θ-paperen ezarketa, D-egituran gertatzen da, bai predikatuek eta bai argumentuek ere bete behar duten lehenengo baldintza biek batera betetzen dutelarik. Baina mota bakoitzeko osagaiek bete behar duten bigarren baldintzak S-egiturarako pausoa behar du: predikazio-harreman guztietan, gutxienez argumentu batek predikatuaren XP islapen perfektutik atera behar du egiturazko kasua hartzera. Mugimendu horretan, predikatuaren islapen hedatuaren espezifikatzailea beteko du gune horretan 'Predikatu-loturaren Araua' betetzeko egiturazko-harreman egokian egongo delarik. S-egituraren konfigurazio hau Williams-ek bere teorian proposatu duenaren antzekoa da baina egile horren proposamenarekin erkatuz, badu abantaila nabari bat: kategoria lexikoetarako ezezik, sintaxi-osagai guztietarako X'-Teoriaren araberako islapen endozentrikoak egitea baimentzen digu, Chomsky-ren (1986) lanean S eta S' perpaus-mailak hurrenez hurren I(nfl) buruaren IP eta C(omp) buruaren CP islapen nagusietara moldatu ziren bezala, perpaus txikiak ere, nolabaiteko F buru funtzionalaren FP islapen nagusira moldatzea lortu dugularik.

Bigarren mailako predikatuetarako ere, predikatu buruaren islapen hedatuari dagokion FP maila funtzional hori proposatu dugu. Horrela,

azpikategorizaturiko eta adjunktaturiko perpaus txikien arteko ezberdintasuna, L-markaketaren kontzeptuaren arabera azal daitekeelarik: azpikategorizaturiko perpaus txikiak, buru lexiko baten osagarriak dira eta beraz buru horrek L-markatzen dituela esan daiteke; horrenbestez, ez dira inoiz hesiak Chomsky-ren (1986) definizioaren arabera. Bigarren mailako predikazioaren arloan aztertu behar diren perpaus txiki adjunktuak ostera, ez dira inolako buru lexikoaren osagarriak eta beraz, ez daude L-markaturik. Hortaz, kanpotiko gobernurako hesiak dira.

Ezberdinatasun horrek, mota bakoitzeko perpaus txikien subjektuen ezaugarriak erabakiko ditu: perpaus txiki adjunktuen subjektua gobernatu gabekoa izan behar duen PRO kategoria isilekoa izango da ezinbestean. Perpaus txiki osagarrien subjektua berriz, lexikoki gauzaturiko argumentu bat izan daiteke subjektu horri aditz matrizeak 'kasu-ezarketa berezia' deritzon mekanismoaren bidez kasua ezartzeko ahalmena duten hizkuntzetan eta horrelako mekanismorik ez duten euskara bezalako hizkuntzetan, argumentu baten aztarna izan daiteke, perpaus txikia kanpotiko gobernurako hesia ez denez aztarna hori egokiro gobernaturik egon baitaiteke.

Predikatuen islapen hedatuen kontu horrek bestetik, adizki-predikazioaren eta izenki-predikazioaren arteko bereizketa egiteko bide interesgarri bat eskaini digu: adizki-predikatuek beren argumentu guztiak kasuaz hornitzeko behar den aparailu funtzionala islatzeko gai diren bitartean, izenki-predikatuek, 'Predikatu-loturaren Araua' betetzeko behar den islapen funtzionala behintzat islatzen badute ere, hori ez da nahikoa izaten beren argumentu guztiei behar duten kasua eskaintzeko. Ondorioz, kasu hori eskain dezakeen aditz baten osagarri modura txerta daitezke edo bestela, subjektu modura PRO kategoria isila duten perpaus txiki adjunktuak era ditzakete.

Izenki- eta adizki-predikatuen arteko bereizketa horrek arazoak sortzen ditu *izan* aditzaren kasuan, kasu honetan, izenki- edo adizki-predikatuen islapen hedatuaren Aux kategoriakoa dela defendatu baitugu eta beraz *izan* laguntzailea islatzeko gai diren izenki-predikatuak adizki-predikatuek bezala beren argumentu guztiei kasua eskaintzeko behar den aparailu funtzionala islatzeko gai baitira. Ondorioz, *izan* aditzaren kasuan, atribuziozko

eraikuntzetan ohizkoak diren perpaus txikiak izan beharrean buru modura aditzak dituzten perpaus matrizeen antzeko analisiak genituzke ezberdintasun bakarra predikatu-buruaren kategoria litzatekeelarik.

Partizipio-eraikuntzak aztertzeko orduan berriz, abantaila handiak ditu izenki- eta adizki-predikatuen bereizketa honek, adizki-predikatu baten burutzat jo genezakeen *apurtu* eta izenki-predikatuen burutzat har genitzakeen *apurtuta, apurturik* eta *apurtua* bezalako partizipioen artean legokeen aldea, bakoitzaren islapen hedatuaren arabera azal baitaiteke: *apurtu* eta *apurtua* partizipioek beren argumentu guztiei kasua esleitzeko behar den islapen hedatua duten bitartean, gainontzeko biek, bestelako aditz baten beharra dute, ez baitira gai beharrezkoa den aparailu osoa islatzeko. Bestetik, *apurtua* eta *apurtu* partizipioen artean legokeen aldea, [spec, Asp] gunea beteta izateari edo ez izateari, hau da perpaus txiki bat eratzeari edo ez eratzeari dagokio.

Perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzten aditzen artean *egon* aditza ezezik, haren antzeko banaketa duen *ibili* aditza eta beste asko ere aztertu ditugu: alde batetik, *jarri, ipini, geratu, gelditu, gertatu, suertatu, azaldu* eta *iraun* aldaketa eta iraupenezko aditzak; bigarrenik, aurrekoek ez bezalako jokamoldea duten *bihurtu, bilakatu* eta *egin* bezalako aldaketa aditzak; hirugarrenik, *iritzi, irudi(tu)* eta *eman* iritzi-aditzak; eta bukatzeko, prolatiboa duten perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzten *hartu, jo, eduki* eta *eman* bezalako aditzak.

Aditz horien guztien eskakizunak azaltzeko, Kratzer-en (1988) 'izaki-mailako' eta 'egoera-mailako' predikatuen arteko bereizketari eutsi diogu, neurri batean aldatzeko beharra ikusi badugu ere: Kratzer-en arabera, egoera-mailako predikatuek beren argumentu-egituran gertaerari dagokion e-argumentua dute; izaki-mailako predikatuek berriz, ez dute horrelako argumenturik. Guk geuk, predikatu-buruek e-argumentua izate ala ez izatearen ezaugarria, eta predikatu-buru horiek sintaxian e-argumentu horri legokiokeen AspP kategoria islatzeko ala ez islatzeko aukera bereizi ditugu. Horrela, egoera-mailako predikatuak AspP kategoria islatzen dutenak lirateke eta izaera-mailakoak AspP kategoria islatzen ez dutenak.

Egon, ibili, jarri, ipini, geratu, gelditu, gertatu, suertatu, azaldu eta *iraun* aditzek alde batetik, 'egoera-mailako predikatuak' dituzten perpaus txikiekin azpikategorizaturik leudeke eta *bihurtu, bilakatu* eta *egin* aditzak ordea, izaki-mailako predikatuak dituzten perpaus txikiekin. Gainera, egoera-mailako perpaus txiki horiek AspP mailakoak liratekeen bitartean izaki-mailakoak NuP mailakoak liratekeela proposatu dugu. NuP horren eginkizuna, aditzaren eta euskalkiaren arabera, subjektu eta predikatuaren arteko zenbaki-komunztadura gauzatzea edo predikatuari Ø morfema gaineratzea litzateke.

Bestetik, *iritzi, irudi(tu)* eta *eman* iritzi-aditzek izaki-mailako predikatuak dituzten NuP mailako perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzte, *irudi(tu)* eta *eman* aditzen zenbait erabilerak egoera-mailako predikatuak dituzten AspP mailako perpaus txikiak ere onartzen badituzte ere. Bukatzeko *jo, hartu, eman* eta *eduki* bezalako aditzek buru modura *-tzat* posposizioa duten perpaus txikiak azpikategorizatzen dituzte, perpaus txiki horien predikatuak izaki-mailako edo egoera-mailako predikatuak izan daitezkeelarik.

Izenki-predikazioan parte har dezaketen posposizioen artean, hiru sail egin dugu: lehendabiziz, beti predikatu-buruak diren posposizioak (*-an, -rekin, - rentzat, -ka, gisa, erara* eta *modura*); bigarrenik predikatu-buruen islapen hedatuak diren posposizioak (*-tzat, -rik, -ta*); eta hirugarrenik, predikatu-buruak edo predikatuen buru hedatuak izan daitezkeen posposizioak (*gabe, -(e)z*). Predikatu-buruak diren posposizioen artean, bestetik, badaude egoera-mailako predikatuak islatzen dituztenak (*-an, -rekin, -ka, gisa,...*) eta izaki-mailako predikatuak islatzen dituztenak (*-(r)entzat*).

Bigarren mailako predikazioaren arloan, predikatu hauek edozein gramatika-kategoriatakoak izan daitezkeela baina egoera-mailakoak izan behar dutela ikusi dugu. Predikatu hauek, edo geure teoriaren arabera perpaus txiki hauek, aukerakoak dira eta beraz, adjunktuak direla esan daiteke. Horrenbestez, perpaus txiki adjunktuekin azaltzen diren aditzek beren argumentu-egituran zehazturik daramatzaten argumentu guztiak dituzte gauzaturik. Dena den, semantikaren aldetik predikatu adjunktua aditz matrizearen argumenturen bati lotzen zaiola dirudi. Horrela, subjektuari edo

objektu zuzenari zuzenduriko bigarren mailako predikatuez hitz egiten da. Williams-en predikazioaren teorian eta baita bere jarraitzaileen (Rothstein, 1983 eta Mc Nulty, 1988 adibidez) teorietan, bigarren mailako predikatuen subjektutzat hartzen diren argumentu horiek bi θ-paper jasotzen dutela onartu da. Horretan oinarriturik, argumentuek θ-paper bakarra hartu behar dutelako baldintza ezartzen duen Chomsky-ren (1981) θ-irizpidea, argumentuek θ-paperen bat jaso behar dutelako baldintzara aldatu behar dela proposatu dute. Geure analisian, itsatsirik legokeena, subjektu modura PRO kategoria duen perpaus txikia litzateke eta ez bere paper tematikoak deskargatu behar lituzkeen predikatu bat. Horrela, θ-irizpidea bere itxuraketarik murriztaileenean mantentzea lortzen da, predikatu bakoitzak bere XP islapenean sortzen diren argumentuak baizik ez baititu θ-markatzen eta horrela argumentu bakoitzak paper tematiko bakar bat jasotzen baitu: PRO perpaus txiki adjunktuaren subjektuak bigarren mailako predikatutik jasotzen du bere papera eta aditz matrizearen argumentuak, aditz matrize horretatik.

Edonola, Predikazioaren Teorietan oso esanguratsutzat jo izan den gertaera bat geure teoriaren aurka doala dirudi: objektuari eta subjektuari zuzenduriko bigarren mailako predikatuak onargarriak dira baina zeharkako objektuari edo nolabaiteko posposizioa duen argumenturen bati zuzenduriko predikatu adjunktuak ez dira onargarriak. Gertaera hori azaltzeko Predikazioaren Teorien defendatzaileek subjektuak eta bigarren mailako predikatuak elkar m-komandatu behar dutela, eta posposizioek elkar m-komandoaren harremana galarazten duela argudiatu dute; predikatu adjunktuaren subjektu modura ulertzen den aditz matrizearen argumentu hori beraz, bada benetan predikatu adjunktuaren subjektua. Geure teorian predikatu adjunktuaren subjektua dirudien aditz matrizearen argumentu baten eta predikatu adjunktuaren arteko elkar m-komandatzearen baldintza hori aintzakotzat harturik, perpaus txiki adjunktu hauen PRO subjektuak kontrolaturik egon behar duela eta kontrol horretarako kontrolatzailearen eta perpaus txikiaren artean elkar m-komandoaren harreman hori behar dela ikusi dugu.

Perpaus txiki adjunktu hauen txertakuntza-mailari dagokionez. Lehendabiziz, VParen barnean eta eskuinean itsatsirik daudela frogatzen saiatu gara eta ondoren, subjektu modura aditz matrizearen subjektuak

kontrolaturiko PRO kategoria isila duten perpaus txikiak VPari itsatsirik dauden bitartean objektu zuzenak kontrolaturiko PRO subjektuak dituzten perpaus txikiak V' adabegiari itsatsirik daudela frogatu dugulakoan gaude.

Predikatu adjunktuen txertakuntza-maila hauetatik euskararen gramatika orokorrerako baliotsuak izan daitezkeen zenbait ondorio ere atera dugu:

(i) Ergatiboa hartzen duten argumentu guztiak ez dira gune berean sortzen. haien artean bigarren mailako predikatuak onartzen dituzten subjektu egileak eta bigarren mailako predikatuak onartzen ez dituzten bestelako subjektuak daude. Bigarren mailako predikatuak onartzen dituztenak kanpo-argumentuak lirateke Grimshaw-en (1990) zentzuan eta VPari itsatsirik sortuko lirateke. Gainerakoak [spec, V] gunean edo V' adabegiari itsatsirik sortuko lirateke eta ez lirateke gai VPari itsatsiriko predikatuarekin elkar m-komandatzearen baldintza betetzeko.

(ii) Datiboa azaltzen duten argumentuen artean ere, bi sail bereizi behar liratekeela dirudi: normalean, morfologi marka hau daramaten argumentuek ez dute bigarren mailako predikazio-harremanik onartzen, berdin jokatzen duten *-rentzat* edo *-rekin* bezalako posposizioen antzekoak direla pentsa daitekeelarik. Horrela, datiboa daramaten argumentu hauek D-egituratik PP modura sorturiko argumentuak lirateke. Badaude ordea, bigarren mailako predikatuak onartzen dituzten argumentu datibo batzuk, alegia *arazi* aditzarekin eratzen diren eraikuntza kausatiboetakoak. Argumentu hauek, aditz arazlea eratu ondoren hartuko lukete datiboa, hau da S-egituran eta beraz ez lirateke PPak, laguntzailearekiko komunztaduraren bidez datibo kasua hartu duten DPak baizik.

Horrenbestez, lan honetan euskal izenki-predikazioaren jokaeraren berri ematen duen analisia ezezik, hizkuntza guztietarako balio dezakeen eta euskararen gramatikaren zenbait punturen inguruan argia eman dezakeen 'Predikazioaren Teoria Bateratu' bat eskaini dugula uste dugu, lan honen helburua soberan lortu dugularik.

BIBLIOGRAFIA

ABNEY, S. P. (1987) *The English Noum Phrase* PhD. Indiana University

ALCINA, J. & BLECUA, J. Mª (1975) *Gramática española.* Ed. Ariel, Barcelona

ALTUBE, S. (1929) 'Erderismos' *Euskera.* X urtea I-IV zenbakia

ANDREWS, A. (1982) 'A note on the constituent structure of adverbials and auxiliaries' *Linguistic Inquiry* . 13. 313-317

AOUN, J. & SPORTICHE, D. (1983) 'On the formal theory of government' *The Linguistic Review* 2.3.

AXULAR *Gero* . Villasante ed. Jakin. (1976)

AZKARATE, M. (1981) 'Word order and focus in basque' in *Proceeding of the 12th annual meeting of the North Eastern Linguistic Society Cambridge* . 36-47.

_____ (1988) ' Aditz-elkarteak' *Euskaltzaindiaren LEF batzordearen jardunaldiak.* 1988-X-1

AZKUE, R.M. (1925) *Morfología vasca.* La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo (1969)

_____ (1905) *Diccionario vasco-español-francés.* Euskaltzaindia. Bilbo. (1984)

BACH, E. (1981) 'Time, tense and aspect: a essay in english metaphysics' in P. Cole (ed.) *Radical Pragmatics.* New York Academic Press.

BAKER,M. (1988) *Incorporation: A Theory of Grammatical Function Changing.* University of Chicago Press. Chicago.

BAYER, J. (1986) 'The Role of Event Expressions in Grammar' *Studies in Language.* 10. 1-52

BELLETTI, A. (1988) 'The Case of Unaccusatives' *Linguistic Inquiry.* 19, 1. 1-34

_____ (1990) *Generalized Verb Movement. Aspects of Verb Syntax.* Rosenberg & Sellier ed.

BELLETTI, A. & RIZZI, L. (1988) 'Psych-verbs and θ-theory' *Natural Language and Linguistic Theory* . 6. 291-352

BOLINGER, D. (1967) ' Essence and accident: english analogs of hispanic SER-ESTAR' in B. Kachru (ed.), *Issues in Linguistics. Papers in honor of Henry and Renée Kahane*, University of Illinois Press. 58-69 (1973)

BOSQUE, I. (1989) *Las categorías gramaticales*. Ed. Síntesis. Madrid.

_____ (1990) 'Sobre el aspecto en los adjetivos y en los participios' in I. Bosque (ed.) *Tiempo y aspecto en español*. Ed. Cátedra . Madrid.

BOSSONG, G. (1984) 'Ergativity in basque' *Linguistics*. 22. 341-392

BRUCART, J.M. (1987) 'Pasividad y atribución' *Primer encuentro de lingüistas y filólogos de España y México*. (argitaratuagabea)

BURZIO, L. (1981) *Intransitive verbs and Italian auxiliaries*. PhD. MIT.

_____ (1986) *Italian Syntax. A Government-Binding Approach*. Ed. Reidel. Studies in Natural Language & Linguistic Theory.

CID, K. (1991) 'Adverbs and particles of change and continuation in Basque'. *EUROTYP Working Papers*. V.1. Johan van der Auwera (ed.).

CINQUE, G. (1990) ' Ergative Adjectives and the Lexicalist Hypothesis'. *Natural Language and Linguistic Theory*. 8(1): 1-39.

CLEMENTS, J. CLANCY (1988) 'The semantics and pragmatics of the Spanish <COPULA+ADJECTIVE>construction' *Linguistics* . 26. 779-822.

CONTRERAS, H. (1987) 'Small Clauses in spanish and english' Natural Language and Linguistic Theory.5. 225-243.

CHENG, L. & DEMIRDASH (1991) 'External Arguments in Basque' in *Issues on Basque Linguistics*. Benjamin Publishing Co.

CHOMSKY, N. (1970) 'Remarks on nominalizations' in R. Jacobs & P. Rosembaum (ed.) *Reading in Englilsh Transformational Grammar*. Blaisdell, Waltham, Mass.

_____ (1981) *Lectures on government and binding.* Dordrecht: Foris.

_____ (1986a.) *Barriers.* Cambridge, MA: MIT Press.

_____ (1986b.) *Knowledge of Language*: Its Nature, Origin and Use.Praeger. New york

_____ (1989) 'Some notes on Economy of Derivation and Representation' *Mit Working Papers in Linguistics.* Vol 10. 43-75.

_____ (1992) 'A minimalist program for Linguistic Theory' *MIT Occasional Papers in Linguistics.* Num 1. Cambrigde MA.

CHUNG, S. & Mc CLOSKEY, J. (1987)' Government, Barriers and Small Clauses in Modern Irish' *Linguisic Inquiry.* 18,.173-238

DAVIDSON, D. (1967) 'The logical Form of Action Sentences', in Nicholas Rescher (ed.), *The Logic of Decision and Action.* University of Pittsburgh Press, 1967. 81-95.

DE MIGUEL, E, (1990) *El aspecto verbal en una gramática generativa del español.* PhD. Facultad de Filosofía y Letras. Universidad Autónoma de Madrid.

DEMONTE, V. (1987) 'C-command, Preposition and Predication' *Linguistic Inquiry.* 18. 147-157

_____ (1988) ' Remarcs on secondary predicates: c-command, extraction, and reanalysis' *The Linguistic Review.* 6. 1-39

_____ (1989) *Teoría Sintáctica: De las estructuras a la Rección.* Ed. Síntesis. Madrid (1989)

_____ (1991) ' Temporal and aspectual constraints on predicative AP´s' in H. Campos y F. Martínez Gil (eds) *Current Studies in Spanish Linguistics.*

Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca (DRAE) (1988) Ed. La Gran Enciclopedia Vasca.

EGUZKITZA, A. (1981) 'On the so-called passive in basque' *FLV.* 13 (37). 233-254

_____ (1987) *Topics on the syntax of basque and romance.* PhD. University of California at Los Angeles. Reproduced by the Indiana University Linguistic Club (1987).

_____ (1990) 'Zenbait perpaus txiki euskal gramatikan' ms. UPV/EHU

EGUZKITZA, A. & O. de URBINA, J. (1987) 'Konfigurazioak euskaraz' in P. Salaburu (ed.) *Euskal morfosintaxia eta fonologia eztabaida gaiak.* EHUko Argitarapen zerbitzuak

EUSKALTZAINDIA (1985) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak- I..* Iruñea (1985)

_____ (1987) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak- II.* Bilbo (1987)

FABB, N. (1984) *Syntactic Affiation* . PhD. MIT

FALK, J. (1979) *SER y ESTAR con atributos adjetivales. Anotaciones sobre el empleo de la cópula en catalán y castellano.* Stockholm: Almqvist and Wiksell.

FILLMORE, Ch. (1968) 'The case for Case' in E. Bach & R. Harmes (eds) (1968) *Universals in Linguistic Theory.* 1-90. Holt, Rinehart & Winston. New York.

FUKUI, N. (1986) *A Theory of Category Projections and Its Applications.* Ph D. MIT.

FUKUI, N. & SPEAS, M. (1986) 'Specifiers and Projections' *MIT Working Papers in Linguistics.* 8. 128-172.

GILI GAYA, S. (1961) *Curso superior de sintaxis española.* Vox. Barcelona (1985)

GOENAGA, P. (1980) *Gramatika bideetan.* Ed. Erein. Donostia 1980.

_____ (1984) *Euskal Sintaxia Konplementazioa eta Nominalizazioa.* PhD

GRACIA i SOLÉ, Ll. (1987) *La Teoria Temática.* PhD. Publicacions de la Universitat Autònoma de Barcelona. Bellaterra, 1987.

GRIMSHAW, J. (1979) 'Complement Selection and the Lexicon' *Linguistic Inquiry.* 10.N.2. 279-326.

_____ (1988) 'Adjuncts and Argument Structure' in *Lexicon Project Working Papers.* 21. Center for Cognitive Science of MIT Cambridge MA

_____ (1990) *Argument Structure.* The MIT Press. Cambridge. MA

_____ (1991) 'Extented projections' ms. *Linguistics and Cognitive Science Program and Center for Complex Systems.* Brandeis University, Waltham MA

GRIMSHAW, J. & MESTER, A. (1988) 'Light Verbs and θ-marking' *Linguistic Inquiry.* Vol. 19, N. 2. 205-232

GRIMSHAW, J. & VIKNER, S. (1989) 'Obligatory Adjuncts and the structure of events' *Paper presented to the Worshop on Lexical Structure of the Groningen Conference on Knowledge and Language.*

HALE, K. (1981) *On the Position of Walpiri in a Typology of the Base.* Indiana University Linguistic Club. Bloominston. Indiana

_____ (1983) 'Walpiri and the Grammar of Non-configurational Languages. *Natural Language and Linguistic Theory.* 1. 5-47.

HALLIDAY, M.A.K. (1967) 'Notes on Transitivity and, Theme in English ' (Part I) *Journal of Linguistics.* 3. 37-81.

HANSSEN, F. (1913) *Gramática histórica de la lengua castellana.* Halle (GDR)

HERNANDEZ ALONSO, C. (1986) *Gramática funcional del español.* Ed. Gredos. Madrid (1984)

HERNANZ, Mª Ll. (1988) 'En torno a la sintaxis y la semántica de los complementos predicativos en español' *Estudis de Sintaxis, Estudi General,* 8 (Colegi uiversitari de Girona) 7-29

_____ (1991) 'Construcciones absolutas y eventos'. *Primer Coloquio de Gramática Generativa.* Miraflores de La Sierra. Madrid

HERNANZ, M.Ll. & BRUCART, J.M. (1987) *La sintaxis: 1. Principios teóricos de la oración simple.* Ed. Crítica

HIGGINBOTHAM, J. (1985) 'On Semantics' *Linguistic Inquiry.* 16, 4. 547-593

_____ (1987) ' Elucidation of Meaning' *Lexicon Project Working Papers,* 19, Center For Cognitive Science MIT Cambridge MA

HOEKSTRA, T. (1988) 'Small Clause results' *Lingua..* 74. 101-139.

HORMSTEIN, N. & LIGHTFOOT, D. (1987) 'Predication and PRO' *Language.* 63. 23-52.

HUALDE, J.I. (1986) 'Case Assignment in Basque' *Journal of the Atlantic Provinces Linguistic Association. Revue de l'Association de Linguistique des provinces Atlantiques.* Vol. 8. 44-71

HUANG, C.-T.J. (1982) *Logical Relations in Chinese and the Theory of Grammar.* PhD. MIT.

IRIGOIEN, A. (1985) 'Euskarazko izen-sintagma mugatzailerik gabekoaz' *Euskera* XXX (1).127-139.

JACKENDOFF, R. (1972) *Semantic Interpretation in Generative Grammar.* MIT Press. Cambridge MA

_____ (1977) *X-bar syntax.* Cambridge, MA: MIT Press.

_____ (1987) 'The Status of Thematic Relations in Linguistic Theory' *Linguistic Inquiry.* 18, 3. 369-410

JAEGGLI, O. (1986) 'Passive' *Linguistic Inquiry.* 17. 587-622.

JESPERSEN, O. (1924) *The Philosophy of Grammar.* (London: George Allen and Unwin).

KAWAGUCHI, J. (1982) 'Quelques problèmes aspectuo-temporels des adjectifs en français' *Bulletin d'étude et ling. Fr.* 16. 1-28

KAYNE, R. S. (1984) *Connedtedness and Binary Branching.* Foris, Dordrecht

_____ (1985) 'L'accord du participe passé en français et en italien' *Modèles Linguistiques.* V.7, N. 1, 73-89

_____ (1991) 'Romance Clitics, Verb movement and PRO' *Linguistic Inquiry.* 22, 4. 647-689

KEYSER, S. J. & ROEPER, T. (1984) 'On the Ergative and Middle Constructions in English' *Linguistic Inquiry* .15. 381-416

KITAGAWA,Y. (1985) 'Small but Clausal' *CLS*.21. 210-220

KNÖRR, E. (1979) 'Bezala gaizki erabiltzeaz' *Euskera*, XXV. 2.

KOOPMAN, H. & SPORTICHE, D. (1988) *Subjects*. m.s. UCLA

KRATZER, A. (1989) 'Stage-Level and Individual-Level Predicates' in E. Bach, A.Kratzer, and B. Partee (eds.).Papers on Quantification, NSF Report. University of Massachusetts at Amherst.

KURODA, Y. (1988) 'Wether We Agree or Not: Rougth Ideas about the Comparative Grammar of English and Japanese' *Linguisticae Investigationes*. 12. 1-47

LAFITTE, P. (1944) *Grammaire Basque (Navarro Labourdin littéraire)*. Elkar. Donostia (1979)

LAKA, I. (1988) 'Configurational heads in inflectional morphology: The structure of the inflected forms in basque' *ASJU* (1988) XXII-2, 343-366

_____ (1990) *Negation in syntax: On the nature of functional categories and projection* MITWPL Disertation series, Cambridge MA

_____ (1991) *The structure of Inflection: A case Study on X° Syntax*. University of Rochester.

LAKA, I. & URIAGEREKA, J. (1987) 'Barriers on Basque and Vice-Versa' *Proceedings of NELS*

LEVIN. B. (1983) *On the Nature of Ergativity*. Ph D. MIT

LEVIN, B. & RAPPAPORT, M.(1986)' The formation of Adjectival Passives' *Linguistic Inquiry*. 17, 4. 623-661

LEVIN, L.S. & SIMPSON, J. (1981) 'Quirky Case and the Structure of Icelandic Lexical Entries' *CLS*, 17. 185-195.

LONGOBARDI, G. (1984) 'Su alcune propietà della sintassi e della forma logica della frasi copulari' ms. Pisa

LUJAN, M. (1980) *Sintaxis y semántica del adjetivo*. Ed. Cátedra. Madrid. 1980

_____ (1981) 'The Spanish Copulas as Aspectual Indicators' *Lingua*.. 54. 165-210

LYONS, J. (1968) *Introducción a la lingüística teórica*. Ed. Teide. Barcelona (1981)

_____ (1977) *Semántica.* Teide (1980)

MALLEN, E. (1991) 'A syntactic analysis of secondary predication in Spanish' *Linguistics.* 27. 375-403.

MANZINI, R. (1983) *Restructuring and Reanalysis.* PhD. MIT

MARANTZ, A.P. (1984) *On the Nature of Grammatical Relations.* The MIT Press. Cambridge MA (1981. urtean aurkezturiko PhD)

MAY, R. (1977) *The Grammar of Quantification.* PhD. MIT

_____ (1985) *Logical Form: Its Structure and Derivation.* MIT Press. Cambridge. Massachusetts

Mc. NULTY, E.M. (1988) *The syntax of adjunct predicates.* PhD The University of Connecticut

MICHELENA, A. (1978) 'Miscelánea Filológica Vasca' *Fontes Linguae Vasconum..*X nº29

MORENO, J.C. (1991) 'Once upon time: two tentative universals of adverbial quantification and their typological consequences' *Eurotyp Working Papers.* V.1 Johan van der Auwera (ed.) *Adverbalia* (1991)

NAPOLI, D. J. (1989) *Predication Theory. A case study for indexing theory.* Cambridge University Press. Cambridge studies in linguistics. 50

NAVAS RUIZ, R. (1977) *"Ser" y "estar" . El sistema atributivo del español.* Madrid. C.S.I.C.

ODRIOZOLA, J. C. (1990) *Axularren kasu-markadun adizkiak.* Ph D. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ODRIOZOLA, J. C. & ZABALA, I. (in progress) 'Basque Tze-clauses and Gen-tze-clauses'

ORTIZ de URBINA, J. (1983) 'Empty categories and focus in basque' *Studies in the Linguistic Sciences.* Vol 13, N.1. 183-156

_____(1986) *Some Parameters in the Grammar of Basque.* PhD of the University of Illinois at Urbana-Champaing.

_____ (1987) 'Kasu-ezarketa eta ez-ergatibitatea euskaraz' Sintaxi arazoak. EHU Argitarapen Zerbitzua. 35-48

_____ (1989) 'Konfigurazionalitateaz' *ASJU,* XXIII-1 , 327-351

O. de URBINA, J. & URIBETXEBARRIA, M. (1991) 'Participial Predication in Basque'. *ASJU.* Gehiagarriak, XIV. *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum.* J.A. Lakarra (ed.) (1991)

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) (1987) Euskaltziandia. Bilbao 1987.

OSA, E. (1990) *Euskararen Hitzordena komunikazio zereginen arauera.* EHUko argitarapen zerbitzua (1988 aurkezturiko PhD).

OYHARÇABAL, B. (1990) 'Structural and inherent Case Marking: Ergativity in Basque' m.s.

PERLMUTTER, D. (1978) 'Impersonal Passives and the Unaccusative Hypothesis' in J. Jaeger et. al. (eds.) *BLS 4.* 157-189

PESETSKY, D. (1982) *Paths and Cathegories.* Ph D. MIT

_____ (1987) 'Binding Problems with Experiencer Verbs' *Linguistic Inquiry.* Vol. 18. N. 1. 126-140

PICALLO, M.C. (1992) 'Nominals and Nominalization in Catalan' *Probus.*

POLLOCK, J-Y. (1989) 'Verb Movement, Universal Grammar, and the Structure of IP' *Linguistic Inquiry.* 20, 3. 365-424

PORROCHE, M. (1988) *Ser, estar y verbos de cambio.* Ed. Arco Libros S.A. Madrid (1988)

PUSTEJOVSKY, J. (1988) 'The geometry of events' in C. Tenny (ed.) *Studies in Generative Approaches to Aspect. Lexicon Project Working Papers.* 24. Cambridge. MIT. 19-40.

RADFORD, A. (1988a.) 'Small childrens small clauses' *Tansactions of the Philological Society* . Vol 86:1 . 1-43

_____ (1988b.) *Transformational Grammar. A first Course.* Cambridge Textbooks in Linguistics. Canbridge University Press.

RAE (1973) *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española.* Madrid. Espasa-calpe.

RAPOPORT, T. R. (1987) *Copular, Nominal, and Small Clauses: A study of Israeli Hebrew.* Ph D. MIT.

RAPOSO, E. (1987) 'Case Theory and Infl-to Comp: The Inflected Infinitive in European Portuguese' *Linguistic Inquiry*. 18, 1. 85-109

RAPOSO, E. & URIAGEREKA, J. (1990) 'Long-Distance Case Assignment' *Linguistic Inquiry* 21,4. 505-537.

REBUSCHI, G. (1978) 'Autour du passif et de l'antipassif en basque biscayen' *LACITO-documents Eurasie,3 Relations Predicat-Actants dans les langues de types divers*. SELAF. Paris

_____ (1982) *Structure de l'énoncé en baque*. PhD. Univ. de Paris VII

_____ (1983) 'Autour du parfait et du passif basques' *Iker*. 2 . 545-558

_____ (1984) 'On the non-configurationality of Basque and some related fenomena' *ASJU,* XXIV-2. 1990. 351-384.

_____ (1985a.) 'Positions, configurations et classes sintaxiques. Aspects de la construction de la Phrase simple en basque'. *Euskera*. 30(1). 117-128

_____ (1985b.) 'Théorie du liage et langues no-configurationnelles: Quelques données du basque navarre-labourdin' *Euskera,* 30(2). 389-433.

_____ (1986a) 'Theorie du liage, diachronie et enontiation: sur les anaphores possessives du basque' *ASJU*. 1986. 325-341.

_____ (1986b) 'Sujeto, ergatividad y no-configuracionalidad; lugar del euskera en la tipología generativa' *Euskal Sintaxiaren zenbait arazo*. EHU Argitarapen Zerbitzua. 9-56

_____ (1986c) 'Pour une représentation syntaxique duale: structure sintagmatique et structure lexical en basque' *ASJU* XX-3

_____ (1989a) 'La problematique de la localité dans la théorie du liage' *Sintaxi Teoria eta euskar*a. EHU Argitarapen zerbitzua 121-142

_____ (1989b) 'Is there a VP in Basque?' *Configurationality the Typology of Asimetries*. Foris Dordrecht.

_____ (1989c) 'Binding at LF vs Obligatory (Counter-) coindexation at S-s: a case study' ms.

REINHART, T. (1976) *The Syntactic Domain of Anaphora.* PhD. MIT

RIJK, R.P. de (1969) 'Is Basque an SOV language?' *FLV* I , 3. 319-352

_____ (1972) *Studies in basque syntax: relative clauses.* PhD. MIT. Cambridge MA. Chicago Which Hunt: Papers from the Relative clause Festival Chicago L.S.

_____ (1978) 'Topic fronting, focus positioning and the nature of the verb phrase in basque' in F. Jensen (ed.) *Studies in fronting,* leiden, Peter de Ridder Press. 81-112.

RIZZI, L. (1986a.)'Null Objects in Italian and the Theory of pro' *Linguistic Inquiry.* Vol 17, N.3, 501-557.

_____ (1986b.) 'On the status of Subject Clitics in Romance' in O. Jaeggli & C. Silva-Corvalàn (eds.) *Studies in Romance Linguistics.* Foris. 391-419.

ROBERTS, I. G. (1985) *The representation of implicit and dethematized subjects.* Ph D. Faculty of the Graduate School University of Southerm California.

ROEPER, Th. (1987) 'Implicit Arguments and the Head-Complement Relation' *Linguistic Inquiry,* Vol 18. N. 2 . 267-310

_____ (1990) 'Implicit Arguments and Implicit Roles: How theta-roles become syntactic' in *Semantics and the Lexicon* j. Pustejovsky (ed.) Reidel

ROTHSTEIN, S.D. (1983) *The syntactic forms of predication.* PhD. MIT

SAFIR, M. (1983) 'On small clauses as constituents' *Linguistic Inquiry.* 14. 730-735.

SALABURU, P. (1986) 'La teoría del ligamiento en la lengua vasca' *ASJU.* XX-2. 359-412.

_____ (1987a) 'Euskal Perpausaren egitura' in P. Salaburu (ed.) *Euskal Morfosintaxia eta Fonologia eztabaida gaiak.* EHU Argitarapen Zerbitzua. 103-128

_____ (1987b) 'IS-ren mugimendua'in P. Salaburu (ed.) *Sintaxi arazoak.* EHU Argitarapen Zerbitzua 66-79

_____ (1987c) 'Kategoria gauzatuak eta kategoria isilak' in P. Salaburu (ed.)*Sintaxi arazoak.* EHU Argitarapen Zerbitzua 13-34

_____ (1989a) 'Arauak eta baldintzak(II)' in P. Salaburu (ed.)*Sintaxi teoria eta euskara.* EHU Argitarapen Zerbitzua. 31-53;

_____ (1989b) 'El movimiento de las frases-QU y el foco en vasco' *FLV.* 53. 7-26

_____ (1990) 'Euskararen Konfigurazionalitateaz' *Patxi Altunari Omenaldia.* Mundaiz. Universidad de Deusto.

SALABURU, P. & KINTANA, X. (1984) *Euskara hobean hobe.* EHUko argitarapen zerbitzua. Bilbo. (1984)

SALTARELLI, M. (1988) *Basque.* Coom Helm Descriptive Grammar series.

SARASOLA, I. (1977) 'Sobre la bipartición inicial en el análisis de constituyentes' *ASJU* XI

_____ (1982) *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia..* Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

SCHEIN, B. (1982) 'Small Clauses and Predication' ma. MIT

SIMPSON, J. (1983) 'Resultatives' in L. Levin, M. Rapaport and A. Zaenen (eds.) *Papers in Lexical -functional Grammar.* Bloomington:IULC. 143-157.

SPEAS, M.J. (1986) *Adjunctions and Projections in Sintax.* PhD. MIT

SPORTICHE, D. (1988) ' A Theory of Floating Quantifiers and its Corolaries for Constituent Structure' *Linguistic Inquiry,* 19. 425-449

STOWELL, T. (1981) *Origins of Phrase Structure.* Ph D. MIT

_____ (1983) 'Subjects Across Categories' *The Linguistic Review.* 2. 285-312

_____ (1991) 'Small Clause Restructuring' in Robert Freidin (ed.) *Principles and Parameters in Comparative Grammar.* The MIT Press. Cambridge MA

SUÑER, A. (1990) *La predicación secundaria en español.*. PhD. Universitat Autònoma de Barcelona.

TENNY, C. (1987) *Grammaticalizing aspect and affectedness.* Ph D. MIT.

TORREGO, E. (1984) 'On Inversion in Spanish and some of its Effects' *Linguistic Inquiry*. 15. 103-129.

_____ (1989) 'Unergative-unaccusative alternations in Spanish' *MIT Working Papers in Linguistics*,.10. 253-272

TRASK, R.C. (1981) *Synchronic and Diachronic studies in the grammar of Basque.* PhD. The University of London.

_____ (1985) 'The basque passive: A correct descriptive' *Linguistics*. 23. 985-991

TXILARDEGI (1977) 'L'emploi de l'indefini en souletin' *FLV*. IX

_____ (1978) *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas. Donostia

URIAGEREKA, J. (1991) 'The syntax of Movement in Basque' ms. University of Maryland.

URIBE-ETXEBARRIA, M. (1989) 'Agreement and Small Clauses in Basque' ms. University of Conneticut.

Van VOORST, J. (1986) *Event Structure.* PhD. School of Graduate School of Graduate Studies and Research of the University of Ottawa.

VENDLER, Z. (1967) *Linguistics in Philosophy.* Itaca (New York). Cornell University Press.

VESTEGAARD, T. (1977) *Preposition Phrases and Prepositional Verbs.* Mouton, The Hague.

VILLASANTE, L. (1980) *Sintaxis de la oración simple.* Ed. Fraciscana. Oñate (1980)

WILLIAMS, E.S. (1980) 'Predication' *Linguistic Inquiry*. 11. 203-237.

_____ (1983) 'Againts Small Clauses' *Linguistic Inquiry*. 11. 203-238.

ZABALA, I.& ODRIOZOLA, J.C. (1989) *'Como* gaztelerazko juntagailuarenkiko interferentzian sarturiko atribuzioaren esparruko egiturak' *Euskera* XXXIV (2). 597-620

ZAGONA, K. (1982) *Government and Proper Government of Verbal Projections.* Ph D. University of Washington.

ZUBIZARRETA,M.L. (1985) 'The Relation between Morphophonology and Morphosyntax: The Case of Romance Causatives' *Linguistic Inquiry.* 16, 2. 247-289

ZYSTAR, J.C. (1977) (1978) 'Sobre el pasivo vasco' *Euskera.* 22. 477-498 eta FLV. 10.